

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarteak argitaratu du obra hau, elkartearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea



Plan de Fomento
de la Lectura



MUNDUKO ZUZENBIDEEN TESTU-BILDUMA

GREGORIO MONREAL ZIA
Testuen hautaketa eta azalpenak

Munduko zuzenbideen testu-bilduma

Euskaratzailea: *Haritz Monreal Zarraonandia*
Berrikuslea: *Itziar Alkorta Idiakez*

Lehen argitalpena: 2007ko azaroan

© Hautaketa eta azalpenak: Gregorio Monreal Zia
© Itzulpenarena: Haritz Monreal Zarraonandia
© Klasikoak, 2007

Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

ISBN: 94-96455-18-1
Lege gordailua: BI.-3801-07

Fotokonposaketa: LA Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Mendeetan zehar hainbat ikuspegi diferente hartu izan dira zuzenbidearen —hots, gizartea zuzentzen duten arau hertsatzaileen multzoaren— funtsa bilatu nahian: batzuen ustez, zuzenbidearen oinarria legean dago soilik; beste batzuei, hartan giza arrazoimenaren garapenaren isla aurkitu duten heinean interesatu zaie; besterentzat, antolamendu juridiko baten muinean dagoen kontzeptuen sistema organikoa da garrantzitsuena. Gizartearen funtzionamendua gidatzen duten araudien nahiz balio sistemen osotasunaren barnean zuzenbideak zein leku hartzen duen finkatzeko orduan ere arazoak sortzen dira: gizabanakoen arteko auziak konpontzea eta gizartea kohesionatzea xede dituzten moralarekin, erlijioarekin, edo usadio sozialekin bat egin dezake, baina ez beti. Egun, jabetzen gara, iturri nahiz elementu anitzetik elikatuz hainbat modutan azaleratzen dela zuzenbidea; badaude legeaz aparte, gutxienez: ohitura, jurisprudentzia, doktrina zientifikoa...

Honako liburu honetan lege eremuko testuak bildu ditugu gehienbat; lehenasuna izan dute zuzenbide publikoaren arlokoek. Saiatu gara bere garaian ondorio iraunkorra eta gizateriaren bilakaeran eragina izan dutenak jasotzen, hots, Braudel-ek iraupen luzeko gertakarien artean sartuko lituzkeen horiek. Zuzenbide pribatuko materialak, eta beronen praktikan sortzen diren dokumentuak, oso gutxi jaso ditugu; hortaz, epaileen ebazpenak, abokatuen irizpenak edo notarioek

zilegitzen dituzten egintza juridikoak falta dira. Ez dira agertuko administrazioaren erabakiak, edo juristen artikulua zientifikoak —ezta liburuetan bildurikoak ere—. Arrazoi beragatik, ez dago partikularrek libreki hitzartzen dituzten kontratuetarik ere.

Gustatuko litzaiguke lan hau zenbait talderi erabilgarri izatea. Batetik, gero eta handiagoa den euskarazko ikasleen talde horri. Ikas-keta planen iuspositibismoari darion espiritu dogmatikoa erlatibizatzen laguntzen dute zuzenbide konparatuaren alorreko zein historia alorreko testuek, berauen inguruko hausnarketak sakratutasun izaera kentzen dio ordena ezarriari, eta jarrera kritikoa sustatzen du. Halaber, onura pedagogikoa dakarke, egun irakaskuntzan gero eta garrantzi handiagoa ematen baitzaio ikasleak berak egiten duen lanari edo norberak iturriak zuzenean kontsultatzeari. Zuzenbide erromatarra, orokorki zuzenbidearen historia, edo zuzenbide konstituzional konparatua ikasten ari diren zuzenbide nahiz historiako ikasleek materialak behar dituzte; honako lanean agertzen direnak zailak dira eskuratzen, zer esanik ez euskaraz. Espero dugu erabilgarri izanen zaiela, bestetik, euskaraz diharduten historialariei eta zuzenbideko irakasleei, bai euskaraz irakasteko orduan, bai kontsultak nahiz irizpenak egiterakoan.

Bilduma honetan hautaturiko testuak, Hammurabi erregearen garaian hasi —K.a. II. milurtekoaren hasieran lehen obra juridiko handia idatzarazi zuen— eta 1999ko konstituzio suitzarrerara arte doan denbora tartean sartzen dira. Geografia eremuari dagokionez, antzinako Ekialde Hurbileko zibilizazioan eta antzinako, ertaroko, modernitateko eta egungo Mendebaldeko zibilizazioan kokatzen dira.

Munduko zuzenbideen testu-bilduma jarri diogu lan honi izenburua. Izenburuak arranditsua edo hanpatua irudi dezake, baina badira arrazoi bi aukera hori justifikatzeko. Lehenik, laster konturaturiko garenez, bilduma honetan jaso diren testu juridiko gehienek arrasto sakona utzi dute gizateriaren bilakaera juridikoan, eta pertsona ikasi anitzen kultur ezagutzaren parte dira. Bigarrenik, «testu juridiko»-ei aipamen soila egin izan bagenie, beste zehaztapenik gabe, liburuaren mamia zertan datzan antzematea zaila zatekeen.

Lanaren antolamenduari dagokionez, ordenamendu juridiko bakoitzari aurkezpen bat egin zaio; hau da, testuen sistema bakoitzaren ezaugarri nagusiak eman dira. Aurkezpenak ez ditu testuak azaldu nahi izan, baizik eta hautaturiko sistemaren ingurune kulturala, politikoa eta

juridikoa ulergarri egitea izan du xede. Azalpenen ostean, gaiaren inguruko bibliografia esanguratsuen eman da, iturriak barne. Zaharra izan daiteke bibliografia, klasiko bilakatu den heinean, edo duela gutxikoa, gaiak ezagutu duen bilakaera jarraitzea zilegi egiteko asmoz. Itzuliriko testuei dagokionez, oin-ohar bidez aipatzen dira itzulpenak egiteko erabili diren jatorrizko iturriak.

Lehendabizi jaso ditugu zuzenbide kuneiformean oinarritzkoa den *Hammurabiren Kodearen* hainbat arau. Ellul-ek esan zuen bezala, testu honek, «mendealdeko Asian nazioarteko merkataritzarako ohi-tura bilakatu zelarik, Ekialdeko estatuei kontratu zuzenbidea eskaini zien. Harreman ekonomiko guztiak kontuan hartzen zituen kontratu-sistema hori izan da Babiloniak zibilizazioari egin dion ekarpen handi-ena, eta, erromatarren garairaino, zuzenbidearen garapenaren oinarri izan zen»¹.

Mesopotamiako herrienarekin lotura handia du hebrearren erlijio zuzenbideak. Hebrearrek, euren, Jainkoak bere herriari eskainiriko zuzenbidetzat jo izan dute. Kristauek Itun Zaharra deritzen hebrearren liburu sakratu horiek eragin itzela izan dute Mendealdeko kulturaren eta, bereziki, zuzenbide kanonikoak sorturiko erakundeetan. Bestetik, beharbada laburregi, beharrezko iruditu zaigu zuzenbide musulmaneko testu bi ematea, Koranetik eta Sunnah-tik atereak dira. Islamdar antolamendua hogeita hamar herrialdetik gorako eremuan zehar barreiatutako ehunka milioi fededunei dagokie. Horiei gehitu behar zaie mendealdeko Europako herrialde guztietara etorri den musulman gutxiengo gero eta handiago hori, zuzenbide pertsonal batek behartzen baitu. Gaur egun, gure artean, arrunt zaigu Mahomaren erlijioa nahiz beronetik eratorririko zuzenbidea praktikatzen dituzten pertsonekin bizitzea.

Zuzenbide erromatarrari dagokionez, garai guztietako testuak sartzen saiatu gara: garai arkaikokoak, garai klasikokoak, berant inperiokoak, edo ekialdeko inperioko bilduma justinianotarraren garaikoak. Ordenamenduaren eremu desberdinetako laginak eman ditugu. Erromako zuzenbideari eman zaion arreta berezia honakoan funtsatzen da: kontinenteko Europako familia erromatar-germaniarren —eta beronen kolonia guztien— sistema juridikoen oinarria izan da, batetik, eta

¹ ELLUL, Jacques. 1992. *Histoire des Institutions*. 1-2 liburukiak: *La Antiquité*. Paris: Presses Universitaires de France, 9. or.

nabarmena da, bestetik, *Common Law* anglosaxoian izan duen eragina. Egun gainbeheran diren demokrazia popularretako zuzenbide sozialisten printzipioak moldatu ditu halaber.

Zuzenbide erromatarren eginkizun fundatzailea posible egin zuen Erdi Aroan eta Garai Modernoan zehar europar kontinenteko unibertsitate guztietan irakatsia izanak. Ertaroko irakaskuntzan ohikoa zen irakasleek, justinianotar konpilazioa irakasten zuten aldi berean, eliza katolikoaren zuzenbidea —hau da, ordenamendu kanonikoa— irakastea. Bataren eta bestearen arteko sinbiosi hori, zuzenbide komuna alegia, sei mendetan zehar izan zen ikasketa juridikoetan oinarritzko gaia. Izan ere, zeharo baldintzatu zituen europar sistema juridikoak. Arrazoi horiek guztiak direla medio, bi zuzenbideetako testu arauemaileak edo irakaskuntza mailakoak jaso dira. Kontuan hartzekoa da anglosaxoiek bereizi egiten dituztela euren *Common Law*, epaileen ebazpenetan oinarritua, eta *Civil System*, kontinenteko Europako zuzenbide erkidea, jatorri erromatar kultua duena.

Ilustrazioak, eta beronen adar den zuzenbide naturalaren eskolak, baita hartatik elikatu ziren filosofo politikoez ere —esan nahi baita, Locke, Hobbes, Montesquieu eta Rousseau—, guztiek ere iraultza demokratikoak gertatzeko baldintzak eratu zituzten. Zuzenbide publikoaren formulazioari eta edukiari aldaketa nabarmena ekarri zieten iraultzok. Iraultza politikoa aurreratu egin zen Ingalaterran. *Magna Carta* bezalako aurrekari esanguratsuak dauzkan herrialde honetan, XVII. mendean Cromwellen commonwealth, lehenik, eta Iraultza Loriatsua, geroago, ezagutu zituzten; azken horren garaian sortu zen *Bill of Rights* lege-testu garrantzitsua. Hurrengo mendean, parlamentuko kideen gehiengoaren erabakian oinarrituriko gobernu erregimena ezarriko zen. Mende beraren bigarren erdian gertatu zen Ipar Amerikako ingeles kolonien iraultza emantzipatzailea. *Independentsia Deklarazioak* argi agertzen du Lockeren pentsaera. 1789an, hamahiru estatuek berretsiriko konstituzioak garai berri bati hasiera eman zion munduko zuzenbide publikoaren historian, askatasun politikoak eta botereen bereizketa gauzatu baitziren.

Iraultza demokratiko handietarik hirugarrenak, Frantzia 1789ko maiatzean hasi zenak, kontinenteko Europako herrialdeen —eta Hegoaldeko nahiz Erdialdeko Amerikako haien kolonien— norabide politikoa aldatu zuen. Urte hartan idatziriko *Gizakiaren eta hiri-*

tarren eskubideen deklarazioak balio unibertsala izatea asmo zuen, eta ondoren egingo ziren gainerako konstituzioek, batez ere izaera demokratikoa zutenek, konstituzionalismo modernoaren ezaugarri diren printzipio estrukturalak finkatu zituzten: deklarazioaren 16. artikulua dioenez, eskubideak bermaturik eta botere banaketa zehazturik egotea ezinbestekoa da.

Egokia iruditu zaigu testu-bilduma honetan ipintzea, halaber, XIX. mendeko krisi foraletik aurrera euskaldunak —Sagarminaga, esaterako— erakarri dituen Europa erdialdeko herri baten konstituzioa, Suitzar Konfederazioarena alegia. Egungo konstituzioa, 1999koa, izaera demokratiko eredugarriko prozesu baten ondorio da. Dauzkan balio eta baliabideek posible egiten dute hizkuntza desberdineko populazioen bizikidetzak baketsua, edo, batetik, suitzar ororen hiritartasunaren printzipioa eta, bestetik, kantoietako taldeen kulturaren errespetua konbinatu ahal izatea.

Lan honen zatirik handiena Haritz Monreal Zarraonandiak euskaratu du. Euskal filologian eta ingeles filologian lizentziatua izanik, beste zenbait lan itzuli ditu Klasikoak bildumarako. Hammurbiren testuaren itzulpena, eta zuzenbide erromatarrari dagozkion beste batzuk —oin-ohar bidez seinatu dira—, Jon Alonso Nafarroako Unibertsitate Publikoko Euskara Zerbitzuan diharduen idazle eta teknikariak burutu ditu. Testu-bilduma honetan agertzen diren pasarte biblikoak, berriz, *Elizen arteko Bibliatik* hartuak dira. Azkenik, Itziar Alkortari, Euskal Herriko Unibertsitatean zuzenbide zibileko irakasle eta Eusko Ikaskuntzak argitaratzen duen *Eleria* euskarazko zuzenbidealdizkariaren arduradun denari, egokitu zaio lan osoaren berrikuspena.

Gregorio Monreal Zia
Arlegi-Galar, 2007ko azaroa.

I

ZUZENBIDE KUNEIFORMEA

ZUZENBIDE KUNEIFORMEA: HAMMURABIREN KODEA

1.- Aurrekariak: sumertar kultura

Mendebaldeko kulturaren sustrai-muturrak sakon murgiltzen dira Ekialde Hurbilean, hau da, Mediterraneo ekialdeko itsas bazter-
rrak, arabiar penintsulak, Afrika ipar-ekialdeko zati batek eta, batez
ere, egungo Iraken kokatua zegoen Mesopotamiak osatzen duten
lurraldean.

Greziarrek jarri zioten Mesopotamia izena Tigris eta Eufrates
ibaien artean eta berorien adarren alboan zegoen lurraldeari. K.a. 3000.
urtearen inguruan, Persiako Golkoko ibai-ahoetatik gertu, jatorri eze-
zaguneko sumertar herria finkatu zen. Sumertarrak, ibai bazterretan
eraiki zituzten hiri anitzetan —esaterako, Ur, Uruk edo Lagash-en—,
ureztatze eta drainatze teknika egokiek ekarritako oparotasunaz baliatu
ziren. Alabaina, geografiak elkarren arteko komunikazioa oztopatzen
zuen, eta etengabe zeuden gudan, hiri batek bestea menderatu nahi bai-
tzuen, eta lurralde osoan batasuna ezarri.

Hammurabiren kodearen kultur testuingurua ulertzeko ezinbes-
tekoa da kontuan izatea idazkeraren aurkikuntza eta garapena. Idazke-
raren abiapuntuan piktogramak daude; hasiera batean objektu edo ekin-
tza bakoitza berorren antza zuen marrazkiaren bidez adierazten zelarik,
ondoren hitz bakoitzari zeinu bat jarri zitzaion. Marrazkiak sinpleago-
tu egin ziren: kanabera-zirien bidez idatziriko zeinuak bilakatuko ziren
—hortik *kuneiforme* hitza—, eta, silaba bakarrekoko hitzen soinuak erre-

ferentziatzen hartuz, azkenean zeinu bakoitzari silaba bat egokitu zitzaion.

Idazkeraren aurkikuntzaz gain, Mesopotamiak beste hainbat ekarpen egin zituen kultur arloan. Matematiketan aurrerapenak egin ziren. Bi dira ezaugarriarik nabarmenenak jakintzaren arlo honetan, batetik, oinarritzat hirurogei zuen zenbaki sistema zuten —haiengandik dugu ordua 60 minututan bereizten eta zirkuluari 360 gradu ematen— eta, bestetik, kokalekuaren arabera balio sistema zeukaten —horrela, ezkerreko zutabea idatziriko digituak balio handiagokoak ziren—. Medikuntzak magia, errezetak eta kirurgia konbinatzen zituen. Erlujio arloan ere eragin handia izan zuen zibilizazio honek, eta hebrear herriak geroago jasoko zituen sinesmenak garai hartan sortu ziren: munduaren jatorriaren ingurukoak, lurreko paradisuari buruzkoak, eta abar. Mitoak sortzeaz gain, haiena da, halaber, lehen poema epikoa, *Gilgamesh*. Askatasunaren eta dependentziaren arteko jokoan bizi ziren gizarteak osatzen zuten lau mailak: nobleak, nobleen inguruko pertsona askeak, herri xehea —bizitza politikoan parte hartzen zuen—, eta esklaboak. Pertsona bat esklabo bilakatzen ahal zen arrazoi anitz zela medio: atzerritartasuna, gudan gatibu egina izatea, delituen zigor moduan, edo kitatu gabeko zorrak zirela eta.

Sumertarrek sortu zituzten arren lehen gizarte, ekonomia eta jakintza ereduak, jatorri semita zuten konkistatzaileei zor zaie sumertar kultura Mesopotamiatik kanpo hedatu izana. Herri konkistatuak zuen ospeak, batetik, eta herrien arteko komunikaziorako zuen gaitasunak, bestetik, bi faktore horiek azaltzen dute kultura horren iraupena eta hedapena akadar-sumertar garaian. Izan ere, Sargon buruzagi semitak, 2331ean Sumer konkistatu eta Akadeko inperioa sortzean, herrialdeko kultura zabaldu zuen, Mesopotamiatik Siria eta Egiptora iristen zen nekazaritzarako eremu oparoan zehar. Garai honetakoak dira Ur-Namuren kodea eta Esnunako kodea.

2.- Babiloniaren nagusitasuna: Hammurabi

Akadarren inperioaren gainbeherarekin, Babilonia hiri semita gailendu zen. Eufrates ibaiaren erdialdean kokaturik zegoenez, Tigrisetik gertu, merkataritzarako kokaleku bikaina zen.

Hiri honek, bestetik, Hammurabi (batzuen ustez, K.a. 1792-1750, beste batzuen arabera, K.a.1728-1686) zoli eta trebea izan zuen

luzaroan errege. Hiriri segurtasuna emateaz gain, Mesopotamiaren batasuna erdietsi, eta Asiria, Sumer eta Akad bat egin zituen. Mesopotamiako zibilizazioaren baitan Babiloniari garrantzi nabarmena eman zion. Marduk ezarri zuen lurralde osoan jainko, haren gaineko mitoak sustatuz. Hemen Hammurabi aipagarri zaigu, batez ere, hark promulgatu zuen kodea dela eta, berau izan baitzen zuzenbide kuneiformeak emanikoetarik adierazgarriena.

3.- Zuzenbide kuneiformea: Hammurabiren kodea

Zuzenbide kuneiforme deritzagu Ekialde Hurbilean une eta leku desberdinetan indarrean egon ziren antolamendu juridikoen osotasunari. Idazkerak, eta kultur nahiz araubide oinarri batek batzen ditu.

Hammurabirena ez bezala, gainerako kodeak (Ur-Nammurena, K.a. 2040 ingurukoa; Esunnakoa, K.a. 1930 ingurukoa; Lipit Ishtarrena, K.a. 1880 ingurukoa; asiriarrak kodeak; hititar kodeak) labur xamarrek dira. Horietan guztietan agertzen diren arauak, edo —hobeto esanda— zuzenbidezko judizioak edo epaileei emaniko jarraibideak, egitatezko suposamendu batzuek osatzen dituzte, egitatea bera eta hari aplikatu beharreko ondorio juridikoa jasotzen direlarik. Ageriko printzipioak eta egitasmoa falta dira, eta gai batzuk besteekin nolabaiteko ideia elkar-keta baten bidez lotzen dira.

Hammurabiren kodea zuzenbide kuneiformearen garairik gorenean sortu zen. 1901. urtean aurkitu zuten, egungo Irango Susa hirian, gaur Louvre museoan gordetzen den estela batean idatzita. 282 artikulatu ditu, eta buztinezko taulatxoetan eginiko aurkikuntzek haien edukia berretsi dute batzuetan. Kodeak bake-hitzarmen tankera du, Erdi Aro Goiztiarrean, justizia publikoa ezartzeko, European hainbat erregeek emaniko «bake»—en antzera. Geroagoko zuzenbide hebrear eta musulmanean ez bezala —Jainkoak errebelatuak kontsideratzen baitziren (bai hebrear herri hautatuari, bai Mahomari, azken profetari)—, Hammurabiren kodea Jainkoak inspiratua kontsideratuko zen besterik gabe.

Kodeak aurreko garaietako elementuak dauzka, hala nola, poligamia, antzutasuna dela-eta emaztea zapuztea —zigor zuzenbide arraz zorrotza—, edo guraso-ahala luzatzea, zordunari emaztea eta seme-alabak emenez zekizkiokeelarik, zorra kitatzeko eta hartzekodunaren-tzat lan egin zezaten. Nolanahi ere, zinez aurreratua da kontratuen alo-

rrean, garai hartan baziren jada: etxe nahiz zerbitzuen alokairu eta sale-rosketa, kanbio-letra, gordailapena, mailegu interesduna, sozietateak, eta abar. Ez zeukaten arren obligazioen teoria abstraktu bat, ezagutzen zuten kontratazio teknika, ekonomiaren eta merkataritzaren garapenak bultzaturik. Teknika hori Babiloniatik hititar, feniziar, greziar eta erromatarrei transmititu zitzaien.

Bibliografia eta iturriak

Sarrera bezala eta ikuspegi orokor baterako

CARDASCIA, GUILLAUME. 1956. Les droits cuneiformes. Monier, Raymond; Cardascia, Guillaume, et Imbert, Jean, *Histoire des institutions et des faits sociaux, des origins à l'aube du Moyen Âge*. Paris: Montchrestien, 17-68 or.

EILERS, WILHELM. 1973. Reflexions sur les origines du droit en Mésopotamie. *Revue de Histoire du droit Français et Étranger*, 195-216 or.

HAASE, RICHARD. 1965. *Einführung in das Studium keilschriftlicher Rechtsquellen*. Wiesbaden: O. Harrassowitz.

KOROSEC, VIKTOR. 1964. Keilschriftrecht, *Handbuch der Orientalistik*, I, Abt., Band III. Leiden: E. J. Brill.

Ur-Nammuren kodea

SZLECHTER, ÉMILE. 1955. Le Code d'Ur-Nammu, *Revue d'Assyriologie*, 49: 169-177 or.

-1963, *Tablettes juridiques et administratives de la 3e. dynastie d'Ur et de la 1re dynastie de Babylone*. Paris: Sirey, 2 liburuki.

Lipit Istarren kodetik hasi eta neo-Babiloniako dinastiaren garaira arte

DRIVER, GODFREY ROLLES; MILES, JOHN C. 1955. *The Babylonian Laws*. Oxford: Clarendon Press.

Hammurabiren kodea

FINET, ANDRÉ. 2002. *Le Code de Hammurabi. Introduction, traduction [de l'akkadien] et annot.* 4. arg. Paris: Éd. du Cerf.

SZLECHTER, ÉMILE. 1977. *Codex Hammurapi* [Code d'Hammourabi -akkadien-français-]. Romae: Pontificia Universitas Lateranensis.

LARA PEINADO, FEDERICO. 1986. *El Código de Hammurabi*. Madril: Tecnos.

I

HAMMURABIREN KODEA*

2. Gizon batek sorginkeriak egitea leporatzen badio beste gizon bati, baina ezin badu frogatu, akusatuak ibaira joan beharko du, eta bertan bota beharko du bere burua. Ibaiak eramaten badu, akusatzaileak etxea kenduko dio. Baina ibaiak arazten badu eta bizirik eta osasuntsurik ateratzen bada, sorginkeriak egitea leporatu zionak heriotza-zigorra pairatuko du, eta ibaian sartu zenak kenduko dio etxea bere akusatzaileari.

3. Gizon batek auzi batean lekukotza faltsua egiten badu, eta ezin badu frogatu esan duena, auzia heriotza-zigorrekoa bada, heriotza-zigorra pairatuko du.

4. Lekukotza faltsua egiten badu alezko edo zilarrezko auzi batean, auzi horretako zigorra, bere osoan, pairatuko du.

5. Epaille batek auzi bat epaitu badu, epaia eman badu eta zigiluz jotako agiria aurkeztu badu, eta ondoren epaia, aldatzen badu, frogatuko zaio aldatu duela eman duen epaia eta auzia sorrarazi zuen balioa halako hamabi ordainduko du. Gainera, jendaurrean jaikiaraziko zaio bere justizia-aulkitik eta ez da inoiz itzuliko. Ezin izango da sekula gehiago epaileekin eseri auzi batean.

* Itzultzailea: Jon Alonso. Iturria: Lara Peinado, Federico. 1986. *El código de Hammurabi*, Madril: Tecnos, 6-42 or.

6. Gizon batek lapurtzen badu estatuaren edo erlijioaren ondasunik, heriotza-zigorra pairatuko du. Gainera, bere eskuetatik lapurtutako ondasunak jaso zituen heriotzarekin zigortuko dute, baita ere.

7. Gizon batek erosten edo jasotzen badu, gizon baten semeren baten eskuetatik edo partikular baten esklabo baten eskuetatik, zilarra edo urrea, esklabo bat, gizonezkoa edo emakumezkoa, idi, ardi edo asto bat, baita beste edozer ere, eta ez badago lekukorik ezta kontraturik ere, gizon hori lapurra da: kasu horietan heriotza-zigorra pairatuko du.

8. Gizon batek idi, arkume, asto, txerri edo txalupa bat lapurtzen badu, eta lapurtutakoa erlijioarena edo estatuarena bada, lapurtutakoaren balioaren halako hogeita hamar aldiz itzuliko du; jabea mendekoa bada, balioaren halako hamar aldiz itzuliko du. Lapurrak itzultzekorik ez badauka, heriotza-zigorra pairatuko du.

14. Gizon batek beste gizon baten semea lapurtzen badu, heriotza-zigorra edukiko du.

16. Gizon batek babesten badu bere etxean ihesean dabilen eta estatuarena zein mendeko batena den esklaborik, hau emakumezkoa edo gizonezkoa delarik, eta ez badu ematen pregoilariak eskatzen duenean, etxe-jabeak heriotza-zigorra edukiko du.

21. Gizon batek zuloa egiten badu etxe batean, zuloaren aurrean hil eta bertan zintzilikatuko dute.

25. Gizon baten etxeak su hartzen badu (nahi gabe) eta sua amatatzen laguntzera joandako beste gizon batek begiz jotzen badu etxe jabearen ondasunen bat, eta beretzat hartzen badu, gizon hori sutara botako dute.

122. Gizon batek gordailuan utzi nahi badio zilarrik, urrerik edo beste edozein gauza beste gizon bati, gordailuan utzi nahi duen guztia erakutsiko zaie lekukoei, kontratu bat gauzatuko du eta gero gordailuan utziko du utzi nahi duena, besteak gorde dezan.

123. Utzi nahi duena gordailuan uzten badu lekukorik eta kontraturik gabe, eta gauzak gordailuan utzi zituen tokian gero uko egiten badiote ondasunen itzulketa, auzi honek ez du erreklamaziorik onartuko.

124. Gizon batek gordailuan utzi nahi badio zilarrik, urrerik edo beste edozein gauza beste gizon bati, beste honek gorde dezan, lekuko-

en aurrean, eta gordailuzainak ukatzen badu gordailuan ezer utzi izana, gizon horren aurka frogatuko du, eta ukatu duenaren halako bi ordainduko du.

129. Gizon baten emaztea harrapatzen badute beste gizon batekin ohean, lotu egingo dituzte elkarrekin eta uretara botako dituzte. Emaztearen senarrak bere emaztea barkatu nahi badu, orduan erregeak, bere aldetik, barkatzen ahal du bere menpeko herritarra.

130. Gizon batek mendean hartu badu beste gizon baten emaztea, artean gizonik ezagutugabea eta bere aitarenekin bizi zena, eta berarekin etzan bada eta harrapatu badituzte, gizon horrek heriotza- zigorra edukiko du; emakumea aske geratuko da.

131. Senar batek bere emaztea akusatzen badu, baina inork ez badu harrapatu beste gizon batekiko harremanetan, emakumeak jainkoaren aurrean zin egingo du eta bere etxera itzuliko da.

137. Gizon batek dibortziatu nahi badu seme-alabarik eman dion emazte *sugetum* batengandik edo seme-alabarik eman dion emazte *naditum* batengandik, emazte horri dotea emango zaio, eta seme-alabak hazi ahal izan ditzan, alorraren, baratzaren eta familiaren ondasunen zati bat emango zaizkio. Seme-alabak hazi eta gero, seme-alabei ematen zaien guztia kontuan hartu eta jaraunsle bati dagokion zatia emango zaio emazteari ere, eta orduan senarra aukeratzen ahalko du.

138. Gizon batek dibortziatu nahi badu seme-alabarik eman ez dion emazte *hirtum* batengandik, erresak beste zilar emango dio; gainera, bere aitarenekin etxetik ekarritako dotea itzuliko dio. Gero gaitzetsi ahalko du.

139. Ez bazen erresik izan, senarrak zilar-*mina* bat emango dio, gaitzesi izanaren kalteordaina.

142. Emazte batek gorrotoa hartzen badio bere senarrari, eta esaten: «Ez naiz gehiago zure emaztea izango», bere barrutian ikerketa bat egingo da. Orduan, ikusten bada emazteak zuhur jokatu duela eta ez zuela hutsik egin, eta, aldiz, senarra asko atera zela eta ez zuela artatu, emazte hori ez da erruduntzat hartuko; bere dotea jaso eta aitarenekin etxera joango da.

143. Ez badu zuhur jokatu eta, aitzitik, kalerik kale ibili bada, etxea hondatu badu eta senarra apaldu badu, emazte hori uretara botako dute.

144. Gizon bat emakume *naditum* batekin ezkontzen bada, eta emakume honek emakume esklabo bat eman badio gizonari, eta gizonak seme-alabarik eduki badu emakume honekin, eta gizon horrek, azkenik, emakume *sugetum* batekin ezkondu nahi badu, galarazi egingo zaio; ezin izango da *sugetum* batekin ezkondu.

145. Gizon bat emakume *naditum* batekin ezkontzen bada, eta honek ez badio seme-alabarik eman, eta gizonak nahi badu emakume *sugetum* batekin ezkondu, gizon hori ezkontzen ahal da emakume *suetum* horrekin, eta bere etxera eraman. *Sugetum* horrek ez du edukiko *naditum* horrek adina kategoria.

146. Gizon bat emakume *naditum* batekin ezkontzen bada, eta emakume honek emakume esklabo bat eman badio gizonari, eta gizonak seme-alabarik eduki badu emakume honekin, gero emakume esklabo hau bere jabearen pare jarri nahi bada seme-alabarik eduki duelako, bere jabea den emazteak ezin izango du saldu; marka bat ipiniko dio esklabotasunaren seinalearekin, bere esklaboen arteko dela erakusteko.

150. Gizon batek eman badio bere emazteari alor, baratx, etxe edo ondasun higigarri bat, eta zigiluz jotako agiri bat eman badio, senarra hil eta gero seme-alabek ezin izango dute berentzat eskatu. Amak emango dio jaraunspenean seme kutunari; baina ezin dio arrotz bati utzi.

151. Gizon baten etxean bizi den emakume batek behartu badu bere senarra oholtxo bat ematera, zeinaren bidez bere senarraren hartzekodun batek ezin baitu emaztea bahitu, gizon horrek zor bat hartu badu emakume horrekin ezkondu baino lehen, hartzekodunak ezin izango du inola ere emaztea bahitu; era berean, emakume horrek zor bat egin bazuen gizonaren etxean sartu baino lehen, hartzekodunak ezin izango du inola ere senarra bahitu.

152. Emakumea gizonaren etxean sartu eta gero, biek zor bat hartu badute, biek ordaindu beharko diote merkatariari.

153. Gizon baten emaztea, beste gizon baten erruarengatik, bere senarraren heriotzaren kausa izan bada, emakume hori paldoan sartuko dute.

154. Gizon batek bere alaba ezagutzen badu, gizon hori hiritik ateraraziko da.

155. Gizon batek bere semearentzako emaztea aukeratu badu, eta semeak ezagutu ondoren, gizona bera etzan bada eta harrapatu badute, gizon hori lotuko dute eta uretara botako.

157. Gizon bat, bere aitaren ondoren, bere amarekin etzan bada, biak erreko dituzte.

165. Gizon batek bere kuttuna zen seme jaraunslari eman badio alor, baratz, edo etxe bat eta zigiluz jotako agiri bat idatzi badio, aita hil eta gero, anai-arrebek jaraunspena banatzen dutenean, semeak gordeko du aitak emandakoa, eta aitaren jaraunspenaren gainerako ondasunak elkarbanatuko dituzte euren artean era bidezkoan.

167. Gizon batek emazte bat hartu badu eta honek seme-alabarik ematen badio, eta emazte hori hil bada eta hil eta gero gizona berriz ezkontzen bada eta bigarren emazteak ere seme-alabarik ematen badio, aita hiltzen denean, seme-alabek ez dute jaraunspena banatuko amen arabera; bakoitzak amaren araberako dotea hartuko du; eta aitaren ondasunei dagokienez, era bidezkoan elkarbanatuko dituzte.

168. Gizon batek bere semea desjarauntsi nahi badu eta epaileei esaten badie: «nire semea desjarauntsi nahi dut», epaileek aurrekariak aztertuko dituzte; eta semeak ez badu jaraunspenetik apartatzeko adinako hutsik egin, aitak ezin desjarauntsiko du semea.

171. (A). Aitak ez bazien esan bere bizitzan emazte esklaboak eman zizkion seme-alabei «Nire seme-alabak zarete», aita hil eta gero, esklaboaren seme-alabek ez dute aitaren ondasunen parterik izango, eta emazte *hirtum*-aren seme-alabek bai, ordea. Esklaboari eta bere seme-alabei askatasuna emango zaie, eta emazte *hirtum*-aren seme-alabek ezin izango dituzte eskatu esklaboaren seme-alabak beren zerbitzurako.

(B). Emazte *hirtum*-ak bere dotea hartuko du senarrak emandako dohaintza ere bai, oholtxo batean berarentzat idatzi zuena, eta senarraren etxean biziko da; bizi den artean ondasunen usufruktua gozatu-ko du, baina ezin izango ditu saldu; gero oinordetzan seme-alabei itzuli-ko zaizkie.

174. Bigarren senarrari ez badio seme-alabarik eman, lehen senarraren seme-alabek jasoko dute dotea.

176. (A). Eta jauregiko esklabo bat edo mendeko baten esklabo bat ezkontzen bada gizon aske baten alabarekin, eta ezkondu zenean emaztea jauregiko esklaboaren edo mendekoaren esklaboaren etxean

sartu bazen bere aitaren etxeko dotearekin, eta ezkondu eta gero familia bat osatu eta ondasunak erosi bazituzten, horren guztiaren ondoren jau-regiko esklaboa edo mendekoaren esklaboa hil bazen, gizon askearen alabak bere dotea jasoko du; baina bere senarrak eta biek, ezkondu eta gero, erosi zuten guztia erdibituko da, eta erdi bat esklaboaren jabeak jasoko du, eta beste erdia gizon askearen alabak, bere seme-alabentzat.

(B). Gizon askearen alabak doterik ez badu, bere senarrak eta biek, ezkondu eta gero, erosi zuten guztia erdibituko da, eta erdi bat esklaboaren jabeak jasoko du, eta beste erdia gizon askearen alabak, bere seme-alabentzat.

195. Seme batek bere aita jotzen badu, eskua moztuko zaio.

196. Gizon batek beste gizon baten begia lehertzen badu, berari lehertuko zaio begia.

198. Mendeko baten begia lehertu edo hezurra hautsi badu, zilar-*mina* bat pisatuko da.

202. Gizon batek bera baino gehiago den beste gizon baten masaila jotzen badu, jendaurrean joko dute, hirurogei aldiz, idi-larruzko zigor batekin.

206. Gizon aske batek beste gizon aske bat jotzen badu liskar batean, eta zauririk egin badio, gizon aske horrek zin egingo du: «Ez nuen nahita jo». Eta medikua ordainduko du, baita ere.

207. Jasotako zartakoen ondorioz hiltzen bada, zin egingo du lehen bezala, eta gizon baten semea bada, zilar-*mina* erdi bat pisatuko da.

209. Gizon batek jotzen badu beste gizon baten alaba, eta horren ondorioz honek umea galtzen badu, hamar zilar-*siklo* pisatuko dira, ume galtzearen ordainez.

210. Emakume hau hiltzen bada, gizonaren alaba ere hilko dute.

229. Igeltsero batek etxe bat egin badu gizon batentzat, baina ez badu lana ganoraz egin eta eraikitako etxeak lur jotzen badu, etxearen jabearen heriotza eraginez, igeltseroa hilko dute.

230. Etxearen jabearen seme-alabaren heriotza eragiten badu, igeltseroaren seme-alaba izango da hilko dutena.

231. Etxearen jabearen esklabo baten heriotza eragiten badu, esklabo bat emango dio etxe-jabeari hildako esklaboaren ordainez.

244. Gizon batek idi bat edo asto bat errentan hartu badu, eta zelaian lehoi batek hiltzen badu, galera jabearen kontura izango da.

245. Gizon batek idi bat errentan hartu badu, eta ganoragabeke-riaz edo ostikoz hiltzen badu, idiaren jabeari idi bat ordainduko dio.

246. Gizon batek idi bat errentan hartu badu, eta apoa hautsi badio edo lepoko tendoia moztu badio, idiaren jabeari idi bat ordainduko dio.

247. Gizon batek idi bat errentan hartu badu, eta begi bat hondatu badio, idiaren jabeari idiaren prezioaren erdia emango dio, zilarrez.

248. Gizon batek idi bat errentan hartu badu, eta adarra edo buz-tana moztu badio, edo apoaren tendoia kaltetu badio, bere prezioaren bosten bat emango dio, zilarrez.

249. Gizon batek idi bat errentan hartu badu, eta jainko batek jo badu eta idia hiltzen bada, idia errentan hartu zuen gizonak zin egingo du jainkoaren izenean, eta aske geratuko da.

250. Idi batek, kalean zebilelarik, gizon bati adarkada eman badio eta hil badu, ezin izango da erreklamaziorik egin.

282. Esklabo batek esan badio bere jabeari «zu ez zara nire jabea», jabeak frogatuko du benetan bere esklaboa dela, eta belarria moztuko dio.

II

ZUZENBIDE HEBREARRA

ZUZENBIDE HEBREARRA

1.- Hebrear herriaren garapena

Mesopotamiako eta Egiptoko iturrietatik kultur elementuak eurenganatu zituztelarik, hebrearrei eta grekoei zor dizkiegu gure zibilizazioaren oinarriak.

Aipatu izan dira hebrear zuzenbidearen eta mesopotamiar zuzenbide tradizioaren arteko parekotasunak. Juduak K.a. 2000. urtearen inguruan agertzen dira lehendabizi Mesopotamian. Hammurabiren garaian Kanaango lurretako bazter batera emigratu zuten, beranduago Palestina izena izanzen zuen lurraldera alegia. Hebrear asko Egiptora joan ziren artzain edo nekazari, baina bertan esklabo egin zituzten. K.a. XIII. mendearen hasieran, juduen artetik buruzagi bikain bat sortu zen —Moises—, eta Sinaiko mortutik zehar Kanaanera bueltan gidatu zituen bere herritarrak, exodo izenarekin ezagutuko dugun mugimenduan, juduen naziotasuna eraginez. Berrehun urtez juduek tribu konfederazio bat osatu zuten. Asia Txikitik eta Egeo itsasoko uharteetatik iritsiriko filistiarrei aurre egiteko, juduek Saul heroi karismaduna egin zuten errege. K.a. X. mendean zehar, David erregeak eta Salomon semeak Ekialde Hurbileko estatu handi guztien —Babilonia, Siria, hititarren erreinua eta Egipto— gainbehera aprobeztatu zuten, filistiar boterea ahultzeko, eta Israeli oparotasunezko eta influentziatzko garairik handiena emateko. Garai horretan areagotu zen ondoko herriekin merkataritza, populazioa hazi, eta kultur pizkundea gertatu zen. Orduantxe eraiki zen, halaber, Jerusalemeko tenplua.

K. a. 922. urtean, Salomon erregea hil zenean, erreinua bitan banatu zen: batetik, Salomoni leial zitzaizkion tribuek Judeako erresuma sortu zuten, bestetik, gainerako tribuek Israelgo erresuma osatu zuten iparraldean. Azken hau asiriarrek konkistatu zuten K.a. 722. urtean, eta hebrear anitz erbesteratuak izan ziren inperioko hainbat lurraldetara, horietan juduek euren herri nortasuna galdu zutelarik. Judea, aldiz, kaldearrek konkistatu zuten 586an. Tenplua txikitu eta milaka hebrear erbesteratu zituzten, eta orduantxe hasi zen Babiloniako gati-bualdia deritzan erbesteratze aroa. Hau da hebrearren garairik ilunenetako bat. Askok gudetan bizia galdu edo Egiptora ihes egin zuten, eta Babilonian barreiatuak zeuden gehienek herri nortasuna galdu zuten ia. Apaizek galera arriskuari aurre egin zioten, tradizio nahiz aztura zaharrrak eta, bereziki, legeak idatzirik jasoz Torah osatzen duten liburuetan. Bigarren Isaiasek, exodoa iragarritz, esperantza pizten zuen. Ziro persiar erregeak Babilonia konkistatu zuen K.a. 538. urtean, eta ordurako persiar eskualde zen Judearako itzulera baimendu zien juduei. Soilik gutxiengo bat itzuli zen. 515. urtean tenplua berreraiki ondoren, hurrengo mendean erreforma bat gertatu zen, tradizioak eta erlijio-gurmena berritzea xede zuena.

Ondorengo mendeetan juduek euren independentzia galdu zuten. Lehenik, mazedoniarren aurka —Alexandro hil ostean, Ptolomeo egiptoar dinastiak gobernatu zuen Israel—, ondoren, seleuzidarren aurka —garai honetan gertatu zen makabeoen matxinada— eta, azkenik, Erromaren aurka —berorren menpe, bertako dinastia batek agindu zuen, harik eta prefektu baten zuzeneko gobernua ezarri zenera arte—. Gure aroko 70. urtean erromatar inperiokoak zorrotz zapaldu zuen herri errebolta bat: Vespasianok, eta Titok beranduago, juduak menperatu eta tenplua birrindu zuten, diaspora handituz. 133. urtean beste errebolta batek bide eman zion errepresio gordinari, eta Judearen despopulatzea eragin zuen. Nolanahi ere, kristautasuna ofizial deklaratu zenean hasi zen berariaz juduen erlijio-jazarpena.

2.- Zuzenbidearen iturriak

Juduen ustez, jatorri jainkotiarra eta errebelatua du euren zuzenbideak, hortaz, musulman eta hinduen artean bezala, bat egiten dute araudi anitzek —juridikoak, moralak eta erlijiozkoak—. Delitua bekatu da. Jainkoak zuzenbidearen edukia agerian jarri zuen, herri hauta-

tuarekin «aliantza» ezartzerakoan, liburu sakratuetan adierazten den moduan. Hortik datorkio ordena juridikoari aldaezintasuna; interpreta-tua eta gizarte aldakor bati moldatua izan daiteke soilik.

Hebrear zuzenbidea lege idatzian eta ahozkoan oinarritzen da.

a) Lege idatzia liburu sainduetan agertzen da, Biblia osatzen duten testuetan —*Tanakh*—. Testamentu Zaharreko 39 liburuak hiru sailetan banatzen dira:

Lehenik, **Pentateukoa** edo *Bost Liburuak*, horiek juduentzat **Torah**, **lege idatzia** edo **Moisesen bost liburuak** dira, tradizioaren ara-bera Moisesek berak idatzi baitzituen. Garai desberdinetan idatziriko lau testutan oinarritzen da Torah:

-*Genesiak* kreazioaz eta patriarken bizitzaz dihardu.

-*Exodoak* Egiptoko egonaldia eta Kanaanerako itzulera deskri-batzen ditu.

-*Lebitarren liburuak* erlijio arauak jasotzen ditu.

-*Zenbakien liburuak* indarraren antolaketaz dihardu.

-*Deuteronomioa* aurrekoak osatzeko sortu zen.

Bigarrenik, Profeten liburuak ditugu, izaera historikoa dutenak. Sei liburuk K.a. 587 baino lehen bizi izan ziren profeta «zaharren» — Josue, jujeak, Samuel, Saul, David, eta Elias eta Eliseo profetak— his-toria kontatzen digute. Gainerakoek profeta «berrien» —Isaias, Jere-mias, Ezekiel eta «hamabiak»— inguruan dihardute.

Nolanahi ere, Pentateukoan daude lege idatzirako oinarritzko diren testu arauemaile garrantzitsuenak. Bereziki, lau dira funtsezkoak. Lehenik, Moisesi diktatu zitzaion *Dekalogo*a, eduki orokorra duten aginduzko aforismotan ematen dena (Exodo XX, 2-17 eta Deuterono-mio V, 6-21). *Aliantzaren kodeak* antz handia du Hammurabiren Kode-arekiko, eta jatorri babiloniarra edo hititarra antzematen zaio. Jaso den lehen bertsioa, Exodo XX, 22n eta XXIII, 33n agertzen dena, K.a. XII. edo XI. mendekoa izan daiteke, eta, bigarrena, K.a. VII. mendekoa. Aliantzaren kodean erlijio arauak eta zigor nahiz kalteen konponbide-rako zuzenbidekoak ematen dira; bigarren bertsioan familia-zuzenbi-deko eta zuzenbide publikoko arauak ere agertzen dira. *Apaiz kode* deritzanean, Lebitarren liburuan dagoen horretan (XVII. kapitulutik XXVI.era) eta K.a 445. urtearen inguruan idatzi bide zen horretan,

ezkontzari eta zigor zuzenbideari buruzko xedapen garrantzitsuak daude.

b) Apaiz, errabino eta ohar-egileek Torahn agertzen zen lege idatzia egokitu egiten zioten hebrear gizartearen baitan gertatzen ari zen aldaketa azkarrari. Egindako lanaren emaitza diren testuak *ahozko lege* moduan ezagutzen dira, eta Babiloniatik itzuleran (K.a. 515. urtean) hasi eta tenpluaren txikitzearekin eta K.o. 70eko diasporarekin bukatzen den garaian egin ziren. Testu biblikoen interpretazioaz gain, ohitura berriak ere sartu ziren. Gure aroko III. mendean Yehuda Hanasi palestinar errabinoak aurreko errabinoen iritzien bilduma nahasia, Mishnah deritzana, jaso zuen idatziz. Azpimarragarria da ezkontzaren eta familiaren inguruko atala.

Ondorengo hiru mendeetan Mishnahri ohar eta interpretazio ugari egin zitzaizkion, berauei *Gemara* deritze. Beharrezkoa gertatu zen Mishnahko testuak Gemarako oharrekin batera biltzea. Babilonian egin zen 500. urtearen inguruan sistematizaziorako ahalegin nagusia, Bizantzion, Justinianoren gidaritzapean, erromatar zuzenbidea jasotzen duten testuak biltzen ari ziren garai berean. Sistematizazio hori, Babiloniako *Talmuda* deritzana, gailendu egin zen hebrearren artean ahozko legerako testu moduan, nahiz eta historia, medikuntza, astronomia eta antzerako gaiak barne izan.

XII. mendean Mošeh ben Maimon judu andalustarrak sistematizatu berriatzen zuen Talmuda, gai diferenteak bereiziz. Lau mende geroago, Joseph Carok osteratzen ere kodetu zuen, eta inprimategira eramana 1565ean. Orain arte azken hori izan da bertsio kanonikoa.

Bibliografia eta iturriak

Hebrear eskrituretara sarrera

HOLTZ, BARRY W. (edit.). 1984. *Back to the Sources: Reading the Classic Jewish Texts*. New York: Summit Books.

Biblia

Biblia comentada: texto de Nacar-Colunga. 1960. Madril: Editorial Católica.

Biblia de Jerusalem. 2007. Bilbo: Desclée de Brower.

Elizen arteko Biblia. 2004. Donostia: Bibli Elkartea Batuak-Elizen arteko Bibli Elkartea eta Euskal Herriko Elizbarrutiak.

GINSBURG, CHRISTIAN D. 1966. *Introduction to the Masoretic-critical edition of the Hebrew Bible*. New York: Ktav Pub. House.

Mishnah

DANBY, HERBERT. 1938. *The Mishnah; translated from the Hebrew*

with introduction and brief explanatory notes by... Londres: Oxford University Press.

Talmud

The Talmud of Babylonia, a translation and commentary. 2005. Jacob Neusner. Peabody, Mass: Hendrickson Publishers.

Maimonen eta Caroren Talmudez

MAIMONIDES, MOSES. 1937. *The Mishneh Torah*, Edited according to the Bodeleian (Oxford) codex, with introduction, Biblical and Talmudical references, notes and English translation, by Moses Hyamson... New York

QARO, JOSEPH. 1915-1928. *Shulhan 'Arukh*. 4 liburuki. New York [Kadushin-en ingeleseratzea].

II

1.

HAMAR AGINDUAK* Irteera (20, 1-17) Deuteronomioa (Dt 5,6-21)

¹Jainkoak hitz hauek esan zituen:

²«Neu nauzu Jauna, zeure Jainkoa, Egiptotik, esklabotzatik, atera zintuena.

³«Ez izan ni beste jainkorik.

⁴«Ez egin idolorik, ez irudirik, goian zeruan, behean lurtean nahiz lurpeko uretan dagoenetik. ⁵Ez ahuspeztu haien aurrean, ezta gurtzarik eman ere, ni, Jauna, zure Jainkoa Jainko jeloskorra bainaiz: gorroto didaten gurasoen gaiztakeria ondorengoengan zigortzen dut hirugarren eta laugarren belaunaldiraino ere: ⁶baina mila belaunaldiz agertzen diet onginahia maite nautenei eta nire aginduak betetzen dituztenei.

⁷«Ez erabili alferrik Jaunaren, zeure Jainkoaren, izena, ez baitut hori egingo duenik zigorrik gabe utziko.

⁸«Gogoan izan larunbata, Jaunari sagaratzeko. ⁹Sei egunez egin go duzu lan eta zeure eginbehar guztiak burutuko; ¹⁰baina zazpigarrena atsedeen-eguna duzu, Jaunari, zeure Jainkoari, sagaratua. Ez egin inolako lanik egun horretan, ez zuk, ez zure seme-alabek, ez zure morroi-mirabeek, ez zure abereek, ezta zure herrian bizi den etorkinak ere. ¹¹Zeren sei egunetan egin baitzituen Jaunak zeru-lurrak, itsasoa eta berorietan bizi den guztia, eta zazpigarren egunean atsedeen hartu baitzuen. Horregatik, larunbata bedekatu egin zuen Jaunak eta egun sakratutzat ezarri.

* Itzulpena: *Elizen arteko Biblia*. 2004. Bibli Elkarte Batuak-Elizen arteko Biblia Elkarte eta Euskal Herriko Elizbarrutiak. Itun zaharra, 103-104 or.; 218-219 or.

¹²«Ohoratu aitamak, luzaro bizi zaitezen, Jaunak, zeure Jainkoak, ematen dizun lurraldean.

¹³«Ez hil inor.

¹⁴«Ez egin adulteriorik.

¹⁵«Ez ostu.

¹⁶«Ez egin gezurrezko testigantzarik lagunurkoaren aurka.

¹⁷«Ez gutziatu lagunurkoarenik ezer: ez haren emazterik, ez morroi-miraberik, ez idirik, ez astorik, eta ez beste ezertxo ere».

2.

ALDAREARI BURUZKO LEGEAK*

Irteera (20, 22-26)

²²Jaunak esan zion Moisesi:

«Esan israeldarrei: Zeuek ikusi duzue nola mintzatu natzaizuen zerutik.

²³«Ez iezadazue egin, ez zilarrezko, ez urrezko idolorik.

²⁴«Egidazue buztinezko aldare bat, eta eskaini bertan zeuen ardi eta idiak erre-opari eta elkartasun-oparitzat; ni gurtzeko adieraziko dizkizuedan leku guztietan, han izango nauzue eta bedeinkatuko zaituztet.

²⁵«Harritzko aldarerik egiten badidazue, ez egin harlanduz; zizelez landua izanez gero, profanatua geldituko litzateke eta.

²⁶«Ez egin mailadirik ene aldarera, hara igotzean zeure lotsariak agerian jar ez ditzazun».

3.

ESKLABOEI BURUZKO LEGEAK**

Irteera (21, 1-11)

(Dt 15,12-18)

¹Jaunak esan zion Moisesi:

«Lege hauek emango dizkiezu israeldarrei:

* *Ibidem*, 104. or.

** *Ibidem*, 104-105 or.; 230-231 or.

²«Esklabo hebertarra erosten baduzue, sei urtez lan egingo du zuentzat, baina zazpigarrenean libre geldituko da, ezer ordaindu gabe. ³Bakarrik etorri bazen, bakarrik joango da: emazterik bazuen, emazte eta guzti joango da; ⁴nagusiak eman badio emaztea, eta honek seme-alabak sortu, emaztea eta seme-alabak nagusiarenak dira, eta esklaboa bakarrik joango da. ⁵Baina esklaboak adierazten badu, nagusia, emaztea eta seme-alabak maite dituela, eta ez duela libre gelditu nahi, ⁶nagusiak Jainkoaren aitzinera eramango du, atera edo ate-uztaira hurbilartziko eta ziri batez belarria zulatuko. Eta esklabo izango du betiko.

⁷«Norbaitek bere alaba esklabotzat saltzen badu, ez da libre geldituko beste esklaboen erara. ⁸Nagusiak, bere asmoaren kontra, emaztetzat hartzen ez badu, atsegin ez duelako, ez du haren berrerospena galarraziko; dena den, ez du atzerritarrei saltzeko eskubiderik, iruzur egingo lioke eta. ⁹Bere seme-ari emaztetzat ematen badio, alaba bati dagokionez hartuko du. ¹⁰Beste emazteren bat hartzen badu, ezingo dio lehenengoa ari kendu, ez janaririk, ez arroparik, ezta ezkon-bizikidetzarik ere. ¹¹Ez badizkio ematen, emaztea libre geldi daiteke, ezer ordaindu gabe.

4.

HERIOTZA-ZIGORRA MEREZI DUTEN HOBENAK*

Irteera (21, 12-17)

¹²«Norbait jo eta hiltzen duenak heriotza-zigorra izango du. ¹³Baina nahi gabe badu eta halabeharrez, neuk adieraziko diot zein lekutan babes daitekeen. ¹⁴Aitzitik, lagun urkoarekin haserre egon eta maltzurkeriaz hiltzen duena, nire aldare ondoan babesten bada ere, handik hartu eta heriotzara emango duzue.

¹⁵«Aita nahiz ama jotzen duenak heriotza-zigorra izango du.

¹⁶«Norbait bahitzen duenak, nahiz dagoeneko saldua izan, nahiz oraino berekin izan, heriotza-zigorra izando du.

¹⁷«Aita nahiz ama madarikatzen duenak heriotza-zigorra izango du.

* *Ibidem*, 105. or.

5.

ZAURIEN ORDAINEKO ZIGORRA*

Irteera (21, 18-27)

¹⁸«Gizon biren arteko haserrealdian, batuk bestea harriz nahiz ukabilez jo eta oheratu beharrean uzten badu, baina hil gabe, ¹⁹baldin zauritua gero jaiki eta makuluaren laguntzaz kalera irteten bada, errugabetzat emango dute erasotzailea; ez dago behartua sendaketaren eta geldi egonaren ordaina ematera besterik.

²⁰«Norbaitek bere esklaboa, gizasemea nahiz emakumea, maki-laz jotzen badu eta bat-batean hiltzen, erruduntzat emango dute. ²¹Baina egun bat edo bi bizirik irauten badu, ez dute kondenatuko, berea baitzuen esklaboa.

²²«Gizonezko bi haserre ari direla, emakume haurdun bat jo eta honek haurra galtzen badu, beste inolako okerrik gabe, errudunak haren senarrak ezarritako ordaina emango du, epaileen erabakiaren arabera. ²³Baina bestelako okerrik gertatzen bada, bizia eman beharko du biziaren ordain, ²⁴begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain, eskua eskuaren ordain, oina oinaren ordain, ²⁵erredura erreduraren ordain, zauria zauriaren ordain, kolpea kolpearen ordain.

²⁶«Norbaitek bere esklaboa, gizasemea nahiz emakumea, begian jotzen badu eta begia hondatzen, libre utziko du hondatuko begiaren ordain. ²⁷Hortz bat hausten badio, libre utziko du hortzaren ordain.

6.

JABEEN ERANTZUNKIZUNA**

Irteera (21, 26-36)

²⁸«Idi batek gizaseme nahiz emakumeren bat adarkatzen badu eta hiltzen, harrika hilko dute eta haren okelarik ez dute jango; baina idiaren jabea errugabetzat emango dute. ²⁹Alabaina, idiak lehen ere adarkatzen bazuen eta, jabeak, jakinaren gainean egon arren, zaindu ez duelarik, idi horrek norbait, gizaseme nahiz emakume, hiltzen badu, harrika hilko dute, eta jabea ere heriotzara emango. ³⁰Heriotzatik aska-

* *Ibidem*, 105-106 or.

** *Ibidem*, 106. or.

tzeko jarein-saria ezartzen badiote, eskatutako guztia eman beharko du biziaren ordain. ³¹Lege berak balio du adarkatua neskaxa nahiz mutikoa bada ere. ³²Adarkatua esklaboa bada, harrika hilko dute idia, eta esklaboaren jabeari zilarrezko hogeita hamar txanpon ordainduko dizkiote.

³³«Norbaitek putzua irekia utzi edota, egin ondoren, estali gabe uzten badu, eta idia zein astoa bertara erortzen bada, ³⁴dirutan ordainduko dio aberearen jabeari, baina hildako aberea beretzat har dezake.

³⁵«Norbaiten idiak beste batena adarkatzen badu eta hiltzen, idi bizia saldu egingo dute, jasotako dirua eta hildako idiaren okela erdi-banatu. ³⁶Baina idia adarkaria zela jakin eta jabeak zaindu ez badu, hildako idiaren jabeari idi bizia emango dio hildakoaren ordain, berak hildakoa hartuz.

7.

LAPURRETARI ETA KALTEEN ORDAINARI BURUZKO LEGEAK*

Irteera (21, 37; eta 22, 1-5)

³⁷Norbaitek idia nahiz ardia ostu eta hil edo saltzen badu, bost idi eman beharko ditu idiaren ordain eta lau ardi ardiaren ordain.

¹«Gauzez etxea zulatzen harrapatu eta lapurra jo eta hiltzen duena ez da hilketaren errudun. ²Baina gauza bera egun-argitan gertatuz gero, hilketaren errudun da hiltzailea.

«Ostu duen guztia ordaindu beharko du lapurrak; nola ordaindurik ez badu, bera salduko dute lapurtu duenaren ordain. ³Ostutako aberea –idi, asto nahiz ardi– bere eskumende eta bizirik aurkitzen badiote, bi halako ordainduko du.

⁴«Norbaitek bere abereak sorora nahiz mahastira larratzera atera eta beste baten soroan larratzen uzten baditu, bere soro nahiz mahastiko emaitzarik hoberenez ordainduko du.

⁵«Norbaitek sua egin eta, sasitan zabalduz, gari metatua, gari heldua nahiz erein berria erretzen badu, egindako kalteak ordainduko ditu.

* *Ibidem*, 106. or.

8.

MAILEGUEI BURUZKO LEGEAK* Irteera (22, 6-13)

⁶«Norbaitek beste bati dirua nahiz beste gauzaren bat gordetze-ko utzi eta honi etxetik ostutzen badiote, lapurrak bi halako ordainduko du, ⁷aurkitzen badute; aurkitzen ez badute, berriz, etxeko nagusia Jainkoaren aurrera aurkeztuko da, eta bere lagunaren ondasunik ez duela ukitu aitortuko.

⁸«Jabegoari buruzko auzietan, norbaitek idi, asto, ardi, arropa nahiz desagertua zen beste edozein gauza berea dela aitortzen badu, auzia Jainkoari aurkeztuko zaio, eta Jainkoak errudun aitortzen duenak bi halako ordainduko dio besteari.

⁹«Norbaitek asto, idi, ardi nahiz beste abereren bat beste bati zaintzeko utzi, eta aberea hila, zauritua edo lapurtua gertatzen bada, eta inork ikusi ez, ¹⁰hartzaileak Jaunaren izenean zin egingo dio jabe-ari, berari utzitakoa ez duela ukitu aitortuz. Jabeak haren zin-hitza onartuko du, eta hark ez du ordaindu beharrik izango. ¹¹Baina bere begi-bistan ostu badiote, ordaindu egin beharko dio jabeari. ¹²Piztia-
ren batek sarraskitu badu, hala gertatu delakoaren frogak aurkeztuko ditu, eta ez du ordaindu beharrik izango.

¹³«Norbaitek beste bati aberea uzteko eskatu, eta aberea zauritua edo hila gertatzen bada, jabea bertan ez bazen, ordaindu egin beharko dio kaltea; jabea bertan bazen, berriz, ez du ordaindu beharrik izango. Baldin aberea alokatua badu, alokairu-saria bakarrik emango dio».

9.

MORAL-ETA ERLIJO-ALORREKO LEGEAK** Irteera (22, 15-19)

¹⁵«Ezkon-hitza eman gabeko neskatxa norbaitek liluratzen badu eta harekin oheratzen, dotea eman eta emaztetzat hartu beharko du.

* *Ibidem*, 106-107 or.

** *Ibidem*, 107. or.

¹⁶Neskatxaren aitak emaztetzat eman nahi ez badio, berriz, neska birjinei dagokien dotea eman beharko du.

¹⁷«Ez utzi sorginik bizirik.

¹⁸«Abereekin haragizko bekatua egiten duenak heriotza-zigorra izango du.

¹⁹«Jauna ez beste jainkoren bati sakrifizioak eskaintzen dizkiona erabat suntsitua izango da.

10.

AHULEN ALDEKO LEGEAK* Irteera (22, 20-25)

²⁰«Ez zurrupatu, ez zapaldu etorkinak, zuek ere etorkin izan baitzarete Egipton.

²¹«Ez erabili gaizki alarguntsak eta umezurtzak; ²²zeren, gaizki erabiltzen badiuzue, haiek niregana laguntza eske deiadar egitean, entzun egingo baitiet: ²³haserre bizitan jarriko naiz eta gerraz hilko zaituztet; orduan, zuen emazteak bihurtuko dira alargun eta zuen seme-alabak umezurtz.

²⁴«Zuekin bizi den nire herriko dohakaberen bati dirua maileguz ematen badiozue, ez izan zeken berarekin, ez ezarri interesik.

²⁵«Soingainekoa hartzen badiozue bahituran, itzuli eguzkia sarterako, ez baitu hori beste estalkirik. Zerekin babestuko da, bestela, etzaterakoan? Laguntza eske deiadar egitean, entzun egingo diot, errukiorra bainaiz ni.

11.

ERLIJIO-ALORREKO BESTE AGINDUAK** Irteera (22, 27-30)

²⁷«Ez iraindu Jainkoa, ezta madarikatu herriaren buruzagia ere.

²⁸«Egin luzatu gabe uzta guztien eta ardoaren eskaintza.

* *Ibidem*, 107. or.

** *Ibidem*, 107. or.

«Sagaratu niri zeuen lehen-semea, ²⁹baita zeuen behi eta ardien lehen-kumeak ere. Zazpi egunez amarekin geldituko dira, baina zortzi-garrenean niri sagaratuko dizkidazue.

³⁰«Niri sagaraturiko pertsonak behar duzue izan.

«Ez jan piztiek oihanean sarraskituriko abereen okelarik; zakurrei botako diezue.

12.

ZUZENTASUNA ETA ERRESPETUA*

Irteera (23, 1-9)

¹«Ez zabaldu funsgabeko esamesik; ez atera gaiztoaren alde, zuzengabeko testigantza eginez. ²Ez jarraitu gehiengoari, gaiztakeria egiteko. Auzian testigantza egitean, ez hautsi zuzenbidea, ez gehiengoari men egiteagatik, ³ez eta behartsuari mesede egiteagatik ere.

⁴«Zuen etsaiak galduriko idia nahiz astoa aurkitzen baduzue, itzul iezaiozue. ⁵Ez utzi laguntzarik gabe gorroto dizuena; haren astoa zamapean erorita ikusten baduzue, ez ukatu zeuen laguntza, lagundu zamapetik ateratzen.

⁶«Ez ukatu auzian behartsuei eskubiderik.

⁷«Urrundu zeuengandik gezurrezko salakuntzak: ez eman heriotzara errugabea eta zintzoa, nik ez baitut errugabe aitortuko horrelako gaiztakeria egiten duenik.

⁸«Ez onartu eskupekorik, itsutu egiten baititu pertsona argiak ere eta hondatu egiten zintzoen epaia.

⁹«Ez zapaldu etorkina, ongi dakizue-eta zer den etorkin izatea, zeuek ere etorkin izan baitzineten Egipton.

13.

ATSEDENARI BURUZ OHARKIZUNAK**

Irteera (23, 10-13)

¹⁰«Sei urtez ereingo duzue zeuen lurrean eta bilduko uzta, ¹¹baina zazpigarrenean atsedeen emango diozue, landu gabe utziz;

* *Ibidem*, 107. or.

** *Ibidem*, 108. or.

lurrak berez emango duena herriko behartsuek jango dute, eta gainerakoa basapiztiek irentsiko. Gauza bera egingo duzue zeuen mahasti eta olibadiekin.

¹²«Sei egunez egingo dituzue zeuen eginbeharrak, baina zazpi-garrenean atseden hartuko duzue; horrela, zuen idi eta astoek ere atsedeen hartu ahal izango dute, eta zuen esklaboa eta etorkina indarberritu egingo dira.

¹³«Bete nik esandako guztia; ez diezue beste jainkoei otoitz egingo, ez aipatuko ere haien izenik.

14.

ERROMES-JAIK* Irteera (23, 14-19; 34,18-26) (Dt 16,1-17)

¹⁴«Ospatu hiru jai urtean nire omenez.

¹⁵«Ospatu Legamigabeko Ogien Jaia; nik agindu bezala, zazpi egunez legamigabeko ogia jango duzue Abib hilean, ezarritako egune-tan, hil horretan atera baitzineten Egiptotik. Ez da inor nire aurrera esku hutsik azalduko.

¹⁶«Halaber, ospatu uzta-jai, soroan erein duzuenaren lehen fruituena; baita urteburuko uzta-biltzearena ere, zeuen soroetako lana-ren fruituak biltzen dituzuenekoa.

¹⁷«Beraz, urtean hiru aldiz aurkeztuko dira gizaseme guztiak Jainko Jaunaren aurrera.

¹⁸«Ez eskaini sakrifizioetako abere-odolik ogi harrotuarekin batera, ezta gorde ere hurrengo egunerako nire festan eskainitako abe-reen gantzak.

¹⁹«Eraman zeuen lurreko lehen fruituak Jaunaren, zeuen Jainkoaren etxera.

«Ez egosi antxumerik bere amaren esnetan.

* *Ibidem*, 108. or.; 121-122 or.; 231-232 or.

KANAANEN KONKISTARI BURUZ AGINTZARIAK ETA OHARKIZUNAK*

Irteera (23, 20-33)

²⁰«Hara, neure aingerua bidaltzen dizuet gidari, bidean zain zaitzaten eta prestatu dizuedan lekura eramanez. ²¹Izan begirune berari eta ibili haren esanera; ez jarri aurka, ez baituzue desobeditzerik jasango, nire izenean ari denez. ²²Nire esana egiten baduzue, ordean, eta nik agindu guztia betetzen, zeuen etsaien etsai eta aurkakoen aurkako izango nauzue.

²³«Nire aingerua joango zaizue gidari, eta amortar, hititar, periztar, kanaandar, hibiarrak eta jebustarren lurraldera eramango zaituzte: herri guztiok desegingo ditut. ²⁴Ez jokatu haiek bezala; ez ahuspeztu haien jainkoen aurrean, ezta gurtu ere; aitzitik, erabat suntsitu eta xehatuko dituzue haien zutarri sakratuak.

²⁵«Gurtu ni, Jauna, zeuen Jainkoa, eta zuen ogia eta ura bedeinatuko ditut eta gaixotasuna zuengandik aldentuko; ²⁶ez da zuen herrian emakume agorrik izango, ezta umea galduko duenik ere; zuetako inor ez da garaia baino lehen hilko.

²⁷«Neure izu-ikara hedatuko dut eta nahasmendua sortuko herrietan zuek haietan sartzean, eta zuen etsai guztiak ihesi jarriko. ²⁸Liztortzarrek bidaliko dizkizuet aurretik, hibiarrak, kanaandar eta hititak uxa ditzaten.

²⁹«Ez ditut, hala ere, urte bakar batean botako, herrialde haiek eremu bihurtu eta basapiztiak ugai ez daitezen zuen kalterako. ³⁰Ezari ezarian botako ditut zuen aurretik, lurralde hartaz jabetzeko adina zuek ugaltu arte.

³¹«Zuen lurraldea Itsaso Gorritik Mediterraniaraino hedatuko dut, eta Sinai basamortutik Eufrates ibairaino. Lurralde hartako biztanleak eskumende jarriko dizkizuet, eta zuek bota egingo dituzue. ³²Ez egin hitzarmenik haiekin, ezta haien jainkoekin ere. ³³Ez utzi haiei zuen lurraldean bizitzen, nire aurka bekatu egitera eramanez zaitzaten; bada, haien jainkoak gurtuko zenituzkete zeuen galbiderako».

* *Ibidem*, 108-109 or.

III

ZUZENBIDE ERROMATARRA

ZUZENBIDE ERROMATARRA

1.- Garai arkaikoa: *Ius civile*

Garai arkaikoan *ius civilea XII taulen legean* gauzatu zen, berau «*fons omnis publici privatique iuris*»¹ kontsideratzen zen. Seguruenik *decemviri legibus scribundis*ek idatzi zuten, K.a. 451-450. urteetan, baina errepublikaren azken aldiko eta inperio garaiko literaturan egiten diren aipamenetatik ezagutzen dugu. Zuzenbidearen ikuspegitik ulermen zailekoa da. Zuzenbide prozesalaz —bi prozesu mota agertzen dira— eta zuzenbide zibilaz —nekazari familia patriarkala sumatzen da eta merkataritza negozio batzuk dira soilik ezagunak— arduratzen ziren taulok. Zigor zuzenbideak oraindik ere mendeku publikoa eta pribatua uztartzen zituen.

XII taulen zuzenbidea pontifizeek garatua zen, interpretazioaren eta formula juridikoen bidez. Nolanahi ere, herri biltzarretan —bai *comitia centuriata*tan, bai *concilia plebis*etan— egiten zen legegintzan oinarritzen zen halaber.

2.- Erromatar zuzenbide klasikoa: *Ius honorarium, iurisprudentia* eta legegintza inperiala

K.a. II. mendetik K.o. III. mendera doan garaian aldaketa handiak gertatu ziren. Erromak Mediterraneoaren itsasbazerreko herrialde

¹ «publiko nahiz pribatu, zuzenbide ororen iturri» [besterik esaten ez den artean, itultzailearenak dira oharrak].

guztiak menderatu zituen. Italian bereizi egiten ziren Erromaren estatu-ko lurrak zirenak zuzenean, batetik, eta komunitate aliatuenak, bestetik, horiekin *foedus* harremana baitzegoen. Italiatik kanpo, *lex provinciae* oinarri zeukan gobernadore batek zuzentzen zituen egoera ezberdineko komunitateak. Desberdintasuna komunitateok zeukaten autonomia mailan oinarritzen zen: batzuk, gutxienak, *foedus* egoeran ziren; beste batzuk erromatar hiritarren koloniak ziren; gehienak, *dediticii*ak ziren, hau da, Erromak baldintzarik gabe errendiarazitakoak.

Politika arloari dagokionez, errepublikaren gainbehera Grako-ek eginiko erreforma sozialekin hasi zen, eta, jada, Sila (K.a 138-78), Julio Zesar (K.a. 100-4) —errepublikar sutsuen esku hila— edo Oktavio Augusto (K.a. 63-K.o. 14) —K.a. 27 urtean ordena berri baten ezarle— bezalako pertsonaiek printzipatua iragartzen zuten. Oktaviok errepublikako erakundeak —kontsulak eta pretoreak, biltzar zibilak eta senatua— mantendu zituen arren, beretzat gorde zituen *tribunitia potestas* eta *imperium proconsulare*, herriaren tribunoei eta kontsulei zegozkien botereak. Botere horiek pertsona berarengan biltzen zirelarik, estatua eta inperioa gobernatzeko ahal zituen. Baina ez Augustok, ez bere ondorengoek, ez zuten legezko ondorengotza sistema bat ezarri, eta ausazko kasuistika politiko baten mende utzi zuten enperadore bakoitzaren aldaketa.

Errepublikan eta printzipatuan zehar zuzenbidearen aplikazio eremu pertsonalari egoeraren aldaketak sumatu zitzaizkion. Hasierako garaietako zuzenbide erromatar bakun eta formularioari, bere izaera pertsonalagatik atzeritarrei ez zegokionez, moldaketak egin behar izan zitzaizkion: erromatar hiritarrek harreman handia zeukaten inperioaren mendeko ziren herri anitzetako kideekin, eta horiek ez zeuden *ius civile*aren menpe. Erromak *ius gentiuma* sortu zuen, hau da, beste *ius horretatik* —zeukan formalismo zurruna kendu ostean— eratorritako arau malguagoko arau-sistema. Bestetik, *ius civileak* berak, eta erromatar zuzenbideak orokorki, aplikazio eremua zabaldu egin zuten, erromatar hiritartasuna prozedura diferenteen bidez hedatu egin baitzen, harik eta 212ko *constitutio antoniniana* ezarri zen arte, honek erromatar hiritartasuna orokortu baitzuen inperioan zehar.

Zuzenbidea eratzeko orduan, azpimarragarria da moldaketak egiteko moduaren originaltasuna. Egoerara moldatzeko, *ius civileak* hiru bide nagusi eta osagarri jarraitu zituen: batetik, *ius honorarium*,

epaileek sortua; bestetik, Augustoren garaitik aurrera, *iurisprudentia*, edo zientzia juridiko klasikoa, juristek xedapenak egiterakoan zuten jardueran oinarritua; eta azkenik, aldi berean, baina denbora igaro ahala garrantzi handiagoa hartuko zuelarik, *zuzenbide inperiala*, enperadoreen *leges* eta *constitutiones*etatik sortu zena. Denak ere, elkar ezeztatzen ez duten maila edo geruzak lakoak ziren, tipula batean —zilegi bekigu erkaketa— geruzak bata bestearen gainean hazten doazen moduan, handitzen doan unitate bat osatzen baitzuten. Gorago aipaturiko lehenengo bi zuzenbide iturriak aztertuko ditugu lehenik:

- a) Epaila batzuek *ius edicendi* eskumena zuten, hortaz, euren izen-dapenak zirauen urtean zehar prozedura alorrean jarraituko zuten modua iragartzeko bando edo bandoak ematen ahal zituzten. *Praetor urbanus* eta *praetor peregrinus* ziren, hain zuzen, eskumen hori zutenak —*peregrinus*ak, atzerritarren arteko edo atzerritarren eta erromatarren arteko auzien inguruan ebazten zuen—. Probintzietan, aldiz, gobernadoreek jarduten zuten. Prozesu akzio edo salbuespenak, edo kontrataziorako formulario berriak, edo baliabide juridiko bereziak, horiek guztiak agintzen ziren ediktuaren bidez. Praktikan, aitzitik, pretorearen ediktua urtero errepikatzen zen eta, horrela, bertan ematen ziren ezohiko baliabide juridikoak ohiko bilakatzen ziren. K. o. 130. urtean, Hadriano enperadorearen garaian, Salvio Juliano legelariak idatziriko *edictum perpetuum*arekin zuzenbidearen multzo berri hori bateratu eta finkatu zen, eta corpus bateratu horri *ius honorarium* edo pretoreena deritza —ohoretsu kontsideratzen baitzen funtzionario karrera—. Zuzenbidea sortzeko ordura arteko modua, hain emankorra izandakoa, aurrerantzean fosildurik geratu zen.
- b) Erromatar zuzenbidearen garapenean, juristek, orokorrean, eginkizun garrantzitsua izan zuten —zuzenbide konparatuaren ikuspegitik benetan eginkizun bakana, XVIII. mendean Gibbonnek azpimarratu bezala—. Jurista ziren, batetik, pontifizeak, antzinako formulen sortzaile eta gordetzaile, baina aldi berean zuzenbide arkaikoaren garatzaile zirenak. Jurista ziren, modu berean, *ius honorarium*a sortu zuten pretoreak. Jurista ziren, halaber, gure aroa baino hiru mende lehenago eta ondoren, zuzenbide positiboaren zientzia sortu zutenak. Baliagarri izan

zitzaien greziar dialektika, kasuetan funtsezkoa zena bereizteko, analogia erabiltzeko eta kontzeptualizatzeko. Ezagunak zaizkigu errepublika garaiko jurista handiak, esaterako, Muzio Eszevola edo Servio Sulpizio Rufo.

Augustok harturiko neurri batek zenbait jurista ospetsu egoera berezi batean ezarriko zituen: jurista jakin batzuen irizpenei auzitegietan izaera loteslea eman zien. Irizpenok enperadorearen autoritatea zeukaten gainera. Monografiek, jurista klasikoek irizpenek eta *ius civile*aren edo pretorearen ediktuen inguruko oharrek osaturiko bilduma handiei *iurisprudentia* deritze. Obra horietan agerian geratu zen erromatar jeinu juridikoaren ezaugarriak nabarmenena: bizitzak dakartzan arazo edo auziei, metodo anitzenak erabiliz, irtenbidea edo konponbidea topatzeko gaitasuna.

I. mendean Labeo eta Kapito izan ziren jurista ospetsuenak, eta euren interpretazio metodo diferenteen arabera prokular eta sabiniar eskolak sortu ziren. Hurrengo mendean *responsa*, *epistulae*, *questiones* eta *digestatan* Juvenio Zeltso, Salvio Juliano —pretorearen betiereko ediktuaren sortzaile—, Zervidio Eszevola, Ponponio eta Gaio nabarmendu ziren. Azken horren *Institutiones* osatzen duten lau liburukiek azalpen argi eta ulergarriak ematen zituzten eta, etorkizunean, erromatar zuzenbidearen bildumetan eragin handia izango zuten. III. mendeko lehen hiru hamarkadetan juristek lotura handiagoa izan zuten inperioaren administrazioarekin. Garrantzitsuena Papiniano izan zen, baina Paulok, Ulpianok eta Modestinok ere eragin handia izan zuten.

Juristek bai *ius civile* bai beronen osagarria zen *ius honorarium* aztertzen zituzten, corpus bakarrean bildu, eta euren ekarpenak gaineratzen zituzten. Horregatik, garai postklasikoan, literatura juridikoak bateratu egin zituen *ius civile*, *ius honorarium* eta *iurisprudentia* bera. Ezin bereizi ziren elementu anitz horien multzoari *ius* edo *iura* deituko zaie soilki. Zuzenbide inperialeko *leges*ek osatzen dute gora-go aipatu dugun zuzenbidearen hirugarren osagaia, berau aztertuko dugu bigarrenik.

Lehen esan bezala, enperadoreek ez zuten formalki ahalmen legegilerik, eta herri legeriak eta senatuaren erabakiek bere horretan jarraitu zuten; nolana ere, batean zein bestean, erakunde horiek prin-

tzearen borondatea egikaritu eta bete baino ez zuten egiten azken finean. Bestalde, printzeak arau juridikoak sor zitzakeen zenbait prozeduraren bidez. *Edictak* promulga zitzakeen epaile eskumendun moduan, prozedura hori sarriegi erabiltzen ez zuen arren. Bazeukan, halaber, funtzionarioei agindu edo jarraibideak ematea. Agindu edo jarraibideak, izaera partikularra izan arren, orokortzen ahal ziren —*mandata*—. Erabakiak har zitzakeen, erakundeetatik jasotzen zituen argibide-eskareei erantzuna dokumentu idatzietan ematen zienean —*rescripta*—. Xedapenak ematen zituzten juristek bezala ziharduen, baina printzeak erantzuna ematen zuen, eta horretan zetzan diferentzia. Azkenik, printzeak benetako ebazpen judizialak eman zitzakeen bere epaimahaiaren aurrean aztertzen ziren auzien inguruan, horiei *decreta* edo epaiak deritze. *Edicta*, *mandata*, *rescripta* eta *decretak* osatzen duten multzoak ez zuen atal berezi bat gauzatzen *ius* edo *iura* corpusaren barnean, baina praktikan aparteko izaera zuen, eta *leges* moduan jasota eta bereizita bilduko zen.

3.- Erromatar zuzenbide berantiarra edo postklasikoa: *ius* eta *leges*, erromatar zuzenbide herritarra, aipamenen legea, eta Teodosioren lege-kodifikazioa

III. mendetik aurrera, estatu erromatarrak indarra galtzean gertatu zen geldialdiak gertakizun bi eragin zituen: bizitza ekonomiko eta sozialean neurri bereziak hartzea eta printzipatua dominatu bilakatzea. Dioklezianok (245-316; agintaritzan: 284-305), lehenik, eta Konstantino Handiak (272-337; agintaritzan: 306-337), ondoren, pertsonaren askatasunari murrizpen handiak zekarzkion administrazio burokratiko batek gobernaturiko monarkia absolutua ezarri zuten. Erromak zentralitatea galdu, eta burutza Nikomediara eta Konstantinoplara igaro zen. Ekialdean bertan antzinako hiriburuak besteko garrantzia izaten hasi ziren Treveris, Milan eta Ravenna.

Zientzia juridiko postklasikoa krisi larrian murgildu zen. Jurisprudenzian ez zen sortu pertsonaia nabarmenik bi mendetan. Juristek ez zituzten ongi ulertzen obra klasikoak; gehienez ere labur ematen zituzten, edo Ulpianoren zein Pauloren liburuak kaskarki hedatzen zituzten. Zuzenbidearen ezagutza praktikoa hala-moduzko batek ez zien lagatzen erromatar sistema kontraktualaren kontzeptu diferentziak edo eskubide errealean gaitzen ziren bereizkuntza klasikoak antze-

maten. Garaiko baldintza berriak islatzen dituen sistema aizundu honi, E. Levyk «erromatar zuzenbide herritarra» deitu zion. Inperio erromatarren erorialdiaren ostean Mendebaldean sorturiko erresuma germaniarretan aurkituko ditugu formulazio zabar horiek, lege erromatarrei egiten zitzaizen interpretazioan. Testu azpimarragarriena *Lex Romana Wisigothorum* edo *Alarikoren eskuliburua* da, 506. urtekoa, aukeraturiko iturri erromatarrek parafraseatzen dira bertan egiten den *interpretatio*an. Aitzitik, Beritos-eko (Beiruteko) eta Konstantinoplako zuzenbide ikastetxeetan jorratzen zen zientzia juridikoak oraindik ere erreferentziatzat zeuzkan literatura klasikoa eta konstituzio inperialak. Ikastetxe horiek etorkizunari zubia ireki zieten.

Garago aipatu dugu garai postklasikoan *iura* eta legeria inperiala —edo *leges*— zirela ordenamendu juridikoaren bi zutabe nagusiak. Alabaina, arauteria bi horiek zabalera itzela zuten, eta auzilariei eta epaileei kontrolaezin bilakatzen zitzaizkien. Aurretik eginiko idatzi guztiak alega zitzaketen juristek, eta, horrela, epaileak lotsagarri gertatzen ziren, agian idatziak ez baitzituzten euren esku, edo aurkako irtenbideak topa baitzitzaketen testuetan. Arazo honi konponbide bat ematearren aipamen-liburuak sortu ziren, *iura*ri dagokionez, eta bildumak, *leges*ei dagokionez. 426. urteko Teodosio II.aren eta Valentiniano III.aren aipamen-legea da ezagunena. Soilik zenbait juristen esanak erabil zitezkeen auziei irtenbidea emateko —Papiniano, Paulo, Ulpiano eta Modestino, baita Gaio ere—, eta horien artean kontraktasunik egonez gero, lehentasun ordena bat ezarri zen. Lege inperialen ugaritasunaren arazoa konpontzen saiatu ziren, legeak kode pribatueta bilduz (III. eta IV. mendeko *Codex Gregorianus* eta *Hermogenianus*). Teodosio II.ak berak 439. urtean 16 liburukiko kodea promulgatu zuen, bertan legeak sistematikoki eta kronologikoki ordenatu zirelarik.

4.- Justinianoren biltze lana

Teodosio eta Valentiniano enperadoreek gauzak ordenatzeko egin zuten saiakera eten egin zuen Mendebaldeko inperioaren erorialdiak mende bete geroago (476). Alabaina, Ekialdeko inperioak jarraitu zuen, eta Beritos nahiz Konstantinoplako zuzenbide ikastetxeetan zuzenbide klasikoa ezagutzen eta ikasten zen, lehen esan bezala. 527. urtean boterera iristean, Justinianok inperioa berreraikitzeari ekin zion, ekialdeko lurak konkistatzen saiatuz. Berreraikitze egitasmo horren

barne zeuden, batetik, legeen kodifikatze berri bat eta, bestetik, *iusa biltzea*.

Bilduma prestatu behar zuen taldean Triboniano zegoen, kantzi-lertza inperialaren buru zena, eta honek, besteren artean, Teofilo, Doroteo eta Anatolio hautatu zituen laguntzaile. Euren lana *legesak* eta *iusa biltzea* baino haratago iritsi zen.

- a) 539. urterako *codex* batean jasoak zituzten jada lege inperialak, eta aurreko bildumak erabili eta indargabetu egin zituzten. Kode hori urte gutxian egon zen indarrean. Ez zaigu iritsi, 534. urtean 12 liburukiko kode berria argitaratu baitzen. Liburukiok izenburuaren eta gaiaren arabera kronologikoki antolaturik zeuden.
- b) Hiru urteren buruan talde biltzaileak bukatua zuen jurista klasi-koen obren azterketa-lan itzela —1.500 liburu baino gehiago baitziren—. 533. urtean argitaraturiko *Digesto* edo *Pandectas* ez zen erabilitako materialaren hogeiren bat baino. Digestuaren hirugarren zatia Ulpianoren obretan oinarritzen da, eta seigarrena Paulorenean. Aztertutako eta aipaturiko juristen bildumak erromatar jurisprudentziaren garapena erakusten du, K.a. I. mendetik hasi eta garai klasikora arte. Hain denbora laburrean egin izanak lanaren burutzearen gaineko hipotesiak eragin ditu: digestuan lau material multzo aurkitzeak pentsarazi du hiru azpi-lantalde zeudela (Bluhme), edo lana erraztu zuen obra bat edo gehiago zegoela (Hans Peters). Ikerlariak harritu dira, hala-ber, tartekapenak agertu direlako, edo biltzaileek testu nahiz hitzetan faltsifikazioak edo aizuntzeak sartu zituztelako. Hiperkritikoa zen arren hasierako jarrera, nahita eginiko interpolazioak sumatzen baitziren nonahi, egun pentsatzen da irregulartasunek jatorri anitz dutela: mozketak, lengoaiaren akatsak, sistematizazio eza, eta abar.
- c) Teofilo eta Doroteo irakasleek, Tribonianok zuzenduta digestua egiten ziharduten bitartean, *Institutiones* edo *Instituta* deituriko zuzenbidea ikasteko obra burutu zuten. Zuzenbidearen aurkezpen argi eta sistematiko honi 533. urtean bertan eman zitzaion onespena.
- d) Justinianok *constitutiones* edo *legesak* idazten jarraitu zuen, *Codexa* 534. urtean argitaratua izan ostean. Horiei *Novellae* edo

nobelak —150 baino gehiago dira— deitzen zaie, eta ondoren, VI. mendean zehar, bilduma pribatuetan jasoak izan ziren.

Erdi Aroan Justinianoren garaiko bildumen osotasunari *Corpus Iuris Civilis* deitu zitzaion.

Bibliografia eta iturriak

Sarrera moduan

CHURRUCA, JUAN (Rosa Mentxakaren laguntzarekin). 1989. *Introducción histórica al Derecho romano*. 5. argitalpen berrikusia. Bilbo: Universidad de Deusto.

DOMINGO, RAFAEL (zuz.). 1998. *Textos de Derecho romano*. Iruñea: Aranzadi.

D'ORS, ÁLVARO. 1958. *Introducción al estudio de los documentos del Egipto romano*. Madril: Instituto Antonio de Nebrija.

GAUDEMET, JEAN. 1967. *Institutions de l'Antiquité*. Paris: Sirey.

2000, *Le droit privé romain*. Paris: Montchrestien, coll. Domat droit privé.

GARCÍA GALLO, ALFONSO. 1982. *Manual de Historia del Derecho español*, I. *El origen y la evolución del Derecho*. II. *Metodología histórico-jurídica. Antología de fuentes de Derecho español*. 9. argitalpena. Edizio berrikusia. Madril.

KUNKEL, WOLFGANG. 1989. *Historia del Derecho romano*, 9. argitalpena. Bartzelona: Ariel.

MOMMSEN, THEODOR. 1942. *Compendio del derecho público romano*. Buenos Aires: Editorial Impulso.

Pretorearen Ediktua

LENEL, OTTO. 1985. *Das edictum perpetuum: ein versuch zu Seiner Wiederherstellung*. Neudruck der 3. Aufl. 1927. Leipzig: Scientia Verlag Aalen.

Gregorioren eta Hermogenioren kodeak

Codices Gregorianus, Hermogenianus, Theodosianus, Edidit Gustavus Haenel ... Bonnae, prostant apud Adolphum Marcum, 1842.

438ko Teodosioren kodea

MOMMSEN, THEODOR; MEYER, P.M. (editoreak). 1954. *Theodosiani libri XVI cum constitutionibus sirmondianis et leges novellae ad Theodosianum pertinentes*. [2. argitalpena] Berolini: Weidmannos.

The Theodosian code : a translation, with annotations, of all the source material of Roman law. 1945. General editor Clyde Pharr ; associate editor T. S. Davidson. Nashville, Tenn. : s.n.

Corpus Iuris Civilis osatzen duten obrak

Corpus Iuris Civilis. 1954. Berolini: Apud Weidmannos. [Edukia: 1. *Institutiones*, recognovit P. Krueger.

Digesta, recognovit T. Mommsen, retractavit P. Krueger. Ed. 16—v. 2. *Codex Iustinianus*, recognovit et retractavit P. Krueger. Ed. 11—v. *Novellae*, recognovit R. Schoell, opus Schoelli morte interceptum absolvit G. Kroll. Ed. 6]

The Digest of Justinian. 1985. Latinezko testua, Theodor Mommsenek editatua Paul Krueger-en laguntzaz;

ingelesezko itzulpena Alan Watson-ek editatua, Philadelphia, Pa.: University of Pennsylvania Press.

El Digesto de Justiniano, Corpus Iuris Civilis, Pandectae. 1968-1975. Gaztelerazko bertsioa A. D'Ors [et alii]. Pamplona: Aranzadi. [Edukiak: t. 1. Constituciones preliminares y Libros 1-19 — t. 2. Libros 20-36 — t. 3. Libros 37-50]

III

1.

XII TAULEN LEGEA*

IV. Taula

1. ...munstro itxurako haur ikaragarria hiltzea, XII Taulek ezartzen duten moduan.

2. Baldin eta aita familiakoak hiru aldiz saldu badu bere semea, aska bedi berau aitaren agintetik.

3. Emaztea gaitzesteko XII Taulek ezartzen dutenaren arabera, bere gauzak hartzeko agindu, giltzak kendu eta etxetik bota zuen.

4. Ohitura on eta zintzoak gordetzen zituen emakume bat, zalan-tzarik gabe garbia, senarra hil eta geroko hamaikagarren hilean erditu zen, eta horrek zailtasunak sortu zizkion, epearen luzera zela kausa, senarra hil eta gero ernatu zelako ideia saihesteko, dezenbiroek idatzi baitzuten gizakia mundura datorrela hamar hilabeteren buruan, eta ez hamaikagarrenean.

* Itzultzailea: Jon Alonso (III., 1-5). Iturria: DOMINGO, Rafael (zuz.). 1998. *Textos de Derecho romano*. Iruñea: Aranzadi, 24. or.

2.

IURA*

Ius publice respondendi

(Pomponio, libro singulati enchiridii-D. 1.2.2.48-50):

(48) (...) Masurio Sabino zaldizkoen sailekoa izan zen, eta izaera ofizialeko irizpenak jaulki zituen lehena. Gerora hasi zen onura hau ematen, baina berari Tiberio enperadoreak eman zion. (49) Eta bide batez jakin dezagun, Augusto baino lehenagoko garaietan printzeek ez zuten ematen izaera ofizialeko irizpenak jaulkitzeko eskubidea, baizik eta beren jakintzaz fio zirenek aholkua eskatzen zieten erantzuten zieten, eta ez zuten erantzun zigilatuak ematen, baizik eta, gehienetan, beraiek idazten zieten epaileei, edo aholkua eskatzen zietenek aurkeztu zituzten erantzunak lekukoekin. Augusto jainkotiarra izan zen lehena agindu zuena ezen, zuzenbidearen larderia handiagoa izateko, irizpenak eman zitezela autoritatearen arabera, eta harrez geroztik horixe, onura gisa, eskatzen hasi zen. Horregatik Hadriano printze bikainak, pretore-lerruneko batzuek eskatu ziotenean irizpenak jaulkitzeko baimena, idatziz erantzun zien ezen hau ez zela eskatzen, emakidatu egiten zela, eta, beraz, inork baldin bazuen konfiantza bere buruarengan, atsegin hartuko lukeela herriari erantzunak emateko prestatzen bazen. (50) Beraz, Tiberio enperadoreak Sabinori emakidatu zion herriari irizpenak emateko eskubidea, eta berau urteetan aurreratu samar zegoenean hartu zuten zaldizkoen sailean, ia berrogeita hamar urte zituelako. Ez zen aberatsa izan, ezta ere, eta bere dizipuluek asko lagundu zioten.

3.

PRETOREAREN EDIKTUAK**

Pretorearen ediktua, itunei buruzkoa

Hauxe dio pretoreak: «Egindako itunei eutsi egingo diet, iruzurrik gabe eginak badira, eta legeen, senadokontsultoen, ediktuen eta enperadoreen dekretuen aurka ez badoaz, eta hauei guztiei iruzur egiten ez badiete».

* Itzultzailea: Jon Alonso. Iturria: DOMINGO, Rafael ... *Ibidem*, 253 or.

** Itzultzailea: Jon Alonso. Iturria: DOMINGO, Rafael ... *Ibidem*, 254 or.

AIPUEN LEGEA*

(CTh. 1.4.3, 426koa = Alarikoren eskuliburua)

Teodosio eta Valentiniano enperadore augustoeke, Erroma hiriko senatuari (beste hainbat gauzaren ondoren). Indarra ematen diegu Papiniano, Paulo, Gaio, Ulpiano eta Modestinoren idazki guztiei, halako moldez non Paulok, Ulpianok eta gainerakoek daukaten itzala edukiko baitu Gaiok ere, bere obra guztiko pasarteak aipatu ahalko direlarik. Halaber, beren obretako tratatuetan eta iritzietan lehen aipatutakoak erabili zituztenen zientzia aski berrmatua geratzen dela iritzien diogu, hala nola Eszevola, Sabino, Juliano eta Martzelorena, baita lehen aipatutako horiek aintzat hartu zituztenena ere; baina, beti ere, hauek oso antzina-koak direnez eta antzinatasunak zalantza sorrarazten duenez, baldin eta beren liburuaren benetakotasuna baieztatu ahal baldin bada, kodizeak erkatuz. Iritzi ezberdinak ematen direnean, autore kopururik gehien biltzen duena izan bedi nagusi, eta autore kopurua berdina bada, lehentasuna eduki beza Papinianoren talentu gorenak dir-dir egiten duen taldearen iritzia, zeina, bakoitzaren iritzia nagusitzen zaion moduan, bi iritzik gainditzeko baitute. Ezarritakoaren arabera, Paulok eta Ulpianok Papinianoren obrei egin zizkieten oharrek baliogabetzeko agintzen dugu. Baina, itzalari dagokionez balio berdina ematen zaien iritzi kopuru berdina dagoenean, epailearen zuzenbideak erabaki beza nori jarraitu behar zaion. Pauloren Sententziek beti balio dezatela agintzen dugu. (Eta beste hainbat). Ravennan emanda, Azaroaren iduseko 7an, kontsulak Teodosio eta Valentiniano Gure Jaun Augustoak zirelarik, hamabigarrenez Teodosio eta bigarrenez Valentiniano (7.XI.426)

Interpretatio (K.o. V. mendea) CTh. 1.4.3**(= Alarikoren eskuliburua):**

Lege honek erakusten du zeintzuk diren iritzi balioudunak daukaten legelariak, hau da, Papiniano, Paulo, Gaio, Ulpiano, Modestino,

* Itzultzailea: Jon Alonso. Iturria: DOMINGO, Rafael ... Ibidem, 259 or.; GARCÍA GALLO, Alfonso. 1982. *Manual de Historia del Derecho español*, I. *El origen y la evolución del Derecho*. II. *Metodología histórico-jurídica. Antología de fuentes de Derecho español*. 9. argitalpen berrikusia. Madril. 256 zb.

Eszevola, Sabino, Juliano eta Martzelo. Horien iritzi ezberdinak agertzen badira, autore kopururik handiena biltzen duen iritzia nagusitu dadin. Eta horretan berdinketa bada, Papinianoren iritzia biltzen duen taldearen itzala nagusituko da, zeren Papiniano, besteen aurrean, banan-banan nagusitzen baita, biren aurrean amore ematen badu ere. Eszevola, Sabino, Juliano eta Martzelo ez daude beren obretan, baizik eta lehen aipatutako autoreen obretan sarturik. Lege honek ez ditu aintzat hartzen Gregorianoa eta Hermogenianoa, aurreko legeak baiesten baitu beren itzala, konstituzio inperialei eta ediktuei buruzko tituluan. Juriskonsulto hauen artetik, Gregorio, Hermogeniano, Gaio, Papiniano eta Paulorengandik aukeratu ditugu gaur egungo auziak ebazteko beharrezkoak ziruditen gauzak.

5.

VELEIOREN SENADOKONTSULTOA, K. o. 46 urtearen inguruan*

(Ulpiano, *Liber 29 ad Edictum*.- D. 16, 1. 2 pr. 1.)

Lehen aldiz, Augusto jainkotiarren garaian, eta gero berehala Klaudiorenean, ediktuen bidez debekatu zen emakumeak beren senarren bermatzaile izan zitezen. (1) Gero emakume guztiak erabat babesten zituen senadokontsulto bat aldarrikatu zen. Hauek dira senadokontsulto honen hitzak: «Marko Silano eta Veleio Tutor kontsulak besteen aldeko erantzukizunak beren gain hartzen dituzten emakumeen betebeharrez aritu zirenez, honako hau erabaki zen gai honetan hartu beharreko jokabideari buruz. Besteen aldeko fidantza eta maileguei dagokienez, bermatzaileak emakumeak direnean, nahiz eta badirudien lehen ere ezarri zela behar horiengatik ezin ziela erreklamaziorik egin, ezta emakumeen aurkako ekintzarik egin ere, ez baita bidezkoa gizonezkoen jarduerak egin ditzaten, Senatuak uste du ezen afera hauetan justizia egiteko daudenek egoki jokatuko dutela, eta ordenaren arabera, Senatuak auzi honetan duen borondatea bete dadila saiatzen badira.

* Itzultzailea: Jon Alonso. Iturria: DOMINGO, Rafael ... *Ibidem*, 263-264 or.

6.

CONSTITUTIO ANTONINIANA (212)*

Zesar Marko Aurelio Severo Antonino Augustok honakoa deklaratzeko du: Baina benetan [...] gehiago komeni da —behin eztabaidak eta salaketak desagerrarazita— galdetzea nola emango dizkiedan eskerrak jainko hilezinei, garaipen hau [...] eskaini baitzidaten. Hortaz, iruditzen zait haien maiestateari nobleki eta adeitsuki atsegina ematea izanaren dudala, *peregriniak*² —beti nire jendearen artean izan ditudan horiek— jainkoei erlijiora badaramatzat. Hortaz, Lurrean diren *peregrinii* guztiei hiritartasuna ematen diet, *dediticii*³ izan ezik. Komenigarria baita herri xeheak ez soilik horiek guztiak [...], baizik eta, baita ere, parte izan dezala garaipenean. Aurrerantzean ediktu honek handitu egingo du erromatar herriaren maiestatea, gainontzekoen [*peregrinien*] duintasuna egina baita [...]

7.

313KO TOLERANTZIA EDIKTUA edo MILANGO EDIKTUA**

Liziniok, gudua amaitu eta gutxira, gudarostearen zati bat banatu eta bere kargu hartu ondoren, Nikomedian sartu eta Jainkoari esker eman zizkion, haren laguntzarekin gailendu baitzen. Konstantino eta bera hirugarren aldiz kontsul ziren urtearen ekainaren hamahiruan, gobernadoreari bidaliriko ondoko idazki hau —elizen berrezarpenari buruzkoa— argitaratzea agindu zuen:

«Nik, Konstantino Augustok, eta baita nik ere, Lizinio Augustok, Milanen zoriotsu bildu garelarik, ongizate eta segurtasun publi-

* Iturria: Papiro Alexandriarra (Johnson, Coleman-Norton & Bourne, *Ancient Roman Statutes*, Austin, 1961, 225-226 or., 277 zb.); Université Pierre Mendès, Grenoble (Frantzia), http://webu2.upmf-grenoble.fr/Haiti/Cours/Ak/Anglica/Antoniniana_johnson.html (2007ko urriaren 11n atzitu); bertan agertzen diren hutsune eta zalantzak bere horretan laga dira.

** Iturria: Laktantzio, *De mortibus persecutorum* (Lactantius, *Opera*, ed. O. F. Fritzsche, II, 288-9 or. (Bibl. Patr. Ecc. Lat. XI)); Ancient Rome erakundea (Errusia), <http://ancientrome.ru/ius/library/edict/gct.htm> (2007ko urriaren 11n atzitu).

2 Erromako hiritar ez direnak.

3 Errrendiaraziak izan direnak.

koari dagozkion gauza guztiez jardun dugu, besteren artean, gehiengoaren onurarako izan daitezkeela uste izan dugun horien inguruan. Baina irudituz zaigu dibinitateari zor zaion begiruneari dagozkionak izan behar zirela arautuak lehendabizi, kristauei zein pertsona guztiei eman zekien bakoitzak gura duen erlijioa libreki jarraitzeko eskubidea. Modu horretan, zeruan bizi den dibinitate orok begi onez eta errukiz hartuko gaitu, bai gu eta bai gure agindupean ezarritako pertsona oro ere. Horrela, bada, irizpide osasungarri eta zeharo zuzen horri jarraiki, uste izan dugu ez zaiola inori ere eskubide hori ukatu behar, ez kristau erlijioa eta beronen manuak jarraitzen dituztenei, ez norberaren arabekoak dituztenei. Jainkotasun gorenak, berorren erlijioa libreki gurtzen dugularik, ohiko moduan bere faborea eta onginahia eskainiko dizkigu. Hortaz, komeni da Zure Bikaintasunak jakitea kristauei buruz lehenago idatzi eta zure bulegoetara bidali ziren xedapen guztiak —geuri deitoragarriak eta gure bihozberatasunaren aurkakoak iruditzen zitzaizkigunak— indargabetzea erabaki dugula, oraindik aurrera, kristau erlijioa jarraitu nahi duten guztiek, libreki eta eragozpenik gabe, erasanak eta molestatuak izan gabe jardun dezaten. Beharrezko irudituz zaigu Zure Lagunkotasunari erabaki horiek zeharo argi uztea, jakin dezazun kristau horiei eskaini diegula euren erlijioa praktikatzeko askatasun eta ahalmen osoa. Ikusten duzunean indultua eman diegula, gure garai baketsuari komenigarria baitzaio, Zure Gorentasunak ikusiko duzu eskaini izan diegula beste erlijio batzuei ematen zitzaiena, modu berdinki irekian eta librean, bakoitzak ahalmen librea izanen duelarik nahi duen gurmeneri atxikitzeko. Honakoak bultzatu du gure erabakia: ez dezala eman kalte egiten diogunik ezein jainkori edo ezein erlijiori.

Bestalde, kristauei dagokienez, erabaki dugu itzuli beharrekoak direla lehenago biltzeko erabiltzen zituzten egoitzak, berorien gainean jarraibide batzuk eman baitziren zure bulegoetara bidali ziren idazki batzuetan. Egoitza horiek, lehenik gure altxor publikoak edo beste norbaitek eskuratu baldin baditu ere, kristauei itzuli behar zaizkie, kalte-saririk edo ordainik eskatu barik, eta alde batera utzi amarru edo aitzakiak. Egoitzok dohaintza moduan jaso dituztenek ere, modu berean kristauei itzuli behar dizkiete lehenbailehen. Honetaz gain, egoitza horiek erosi egin dituztenek edo dohaintza bezala jaso dituztenek, gure onginahiarengandik kalte-ordainik eskatzen baldin badute, bikarioarengana jo bezate, hark gure errukiaren izenean erabakia har dezan. Jabetza horiek guztiak kristau komunitateari bueltatu behar zaizkio bereha-

la, zu bitarteko. Eta gauza jakina denez kristauek, biltzeko gune zeuzkatzen egoitzez gain, bazituztela bestelako jabetzak ere, hau da, euren komunitateei edo elizei —pertsona juridiko bezala eta ez pertsona pribatu bezala— zegozkienak, gorago aipaturiko lege horren barne sartu ditugun gauza horiek guztiak, anbiguitasun eta eztabaida gabe kristauei —hots, euren komunitateei eta elizei— itzul diezazkietela aginduko duzu, goian adieraziriko baldintzen arabera, hau da, elizei doan itzultzen dizkietenek gure errukiarengandik kalte-ordaina espero dezakete. Gorago aipatu ditugun egoera horietan guztietan zure bitartekotzarik eraginkorrean agertu behar duzu kristauen komunitatearekin, gure agindua egikari dadin eta, horrela, gure errukiaren bitartez ordena publikoa berma dadin. Lehenago esan dugun bezala, hori egiten den neurrian, dibinitateak gure alde egingo du, hainbat aldiz egin duen moduan, eta gure arrakastak eta zoriontasun publikoak beti jarraituko. Eta gure ongina eman duen dekretu honen edukia pertsona orok ezagut dezan, komeni da zuk ezagutzera ematea eta leku guztietan jendaurrean ipintzea, gure xedapenaren ontasuna ez dakion inori ezkutatua izan.»

Eman den testu idatzi honetaz gain, ahoz ere bultzatu zuten bilkura egoitzok beroriek lehenago zuten egoerara itzultzea. Modu horretan, elizen desjabetzetatik hasi eta itzuliak izan zirenera arte, hamar urte eta gutxi gorabehera lau hilabete igaro ziren.

8.

A

TEODOSIO ETA VALENTIANO ENPERADOREEK SENATUARI EMANIKO AGINDUA, CODEX BERRI BATEAN CONSTITUTIONES EDO LEGES-AK BIL- DUAK IZAN DAITEZEN, 429. URTEA*

(C. TH. 1.1.5)

Teodosio eta Valentiano enperadore agostoak senatuan (429. urtea). (1) Gregorioren eta Hermogenianoren kodizeen antzera, Kons-

* Iturria: kode hau eta gainerako kode eta digestuak García Galloren ediziotik (GARCÍA GALLO, Alfonso. 1982. *Manual de Historia del Derecho español II. Metodología histórico-jurídica. Antología de fuentes de Derecho español*. 9. argitalpen berrikusia. Madril, 578 zb.) jaso dira. Letra etzanez eta kortxete artean agertzen dena, testuaren ulerpena errazteko gehiturikoa da.

tantino ospetsuak eta, bere ostean, printze jainkotiarrek eta geuk ere emaniko konstituzioak biltzea agintzen dugu, horiek orokorrean gizonen ediktuetan edo gauza sakratuetan oinarritzen direlarik [...] (2) Aurrerantzean baten bat promulgatu nahi bada, horrela, [gurearekin] zeharo elkartuta dagoen inperioaren beste zatirako balioko du: ez horrenbeste sinesgarritasun zalantzagarriko zerbituetan edo adierazpen pribatu batean oinarritzen denean, baizik eta eratzen duen alderdiak beste alderdiari [enperadorearen] hitz sakratuekin jakinarazi dionean, eskribautzetan jaso eta ediktuen seriotasunarekin heda dadin. Ezen komeni da bidalitakoa jasotzea eta zalantzarik gabeko moduan eskuratzeta, betiere, gure bihozberatasunaren esku utziko delarik hura zuzentzeko edo baliogabetzeko ahalmena. Aldiz, ez da komeni beste modu batera onartzea edo ezagutzera ematea [...]

DIGESTUAK BERRESTEN DITUEN «TANTA» KONSTITUZIOA (533. urtea) *

(D. 17)

17) [...] Izan ere, [digestua promulgatu baino lehen] gizakiak auzietan zebiltzalarik, lege anitz ezarrita egon arren, edo gutxiarekin ere, auziek etengabe jarraitzen zuten, bai liburuaren gabeziagatik, horiek eskuratzeta ezinezkoa baitzen, bai ezjakintasunagatik beragatik, eta epaileen borondatearen bidez erabakitzen ziren auziak, autoritate legitimoaren bidez baino [...]

21) Jainkoa zuzendari genuelarik, obra hau egitea agindu genuenean, hasiera batean beharrezko iruditu zitzaiguna, orain berretsi egingo dugu, ez dadin inor ausartu —ez egun legerian trebatuak direnek, ez etorkizunean datozenek— lege hauei oharrik gaineratzera: soilik greziar hizkuntzara itzuli nahi baldin badira [...] Legeen gainontzeko interpretazio guztiak, okertzeak direnak gehien bat, ez dizkiegu horiek onartuko. Haien hitzontzikeriak geure legee ez diezaiela ekarri doilorkeriarik, nahasmendua dela medio [...] Nolanahi ere, norbait halako zerbit egitera ausartuko balitz, faltsifikatzeagatik erruztatua bedi, eta haren liburuak erabat deusezta bitez. Zerbaitekin, goian esan den bezala, benetan ambigua ematen badu, epaileek gorentasun inperialari jakinaraz diezaiote eta autoritate augustuak argi beza, berorri soilik baitagokio legeak ematea eta interpretatzeta.

*GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 257 or.

B

ZUZENBIDEA ETA BESTE ARAUBIDE BATZUK

Morala eta zuzenbidea

D. 50,17, 144 (Paulo)*

Egin daitekeen gauza oro, baimendua egon arren, ez da zuzena.

Moralaren eta justiziaren definizioak

(D. 1,1, 10 (Ulpiano) [= Institutiones Iustiniani 1,1,1])**

Bakoitzari dagokion eskubidea emateko borondate etengabe eta betierekoa da justizia. § Zuzenbidearen manuak ondokoak dira: zintzoki bizitzea, gainontzeko pertsonak ez mintzea, bakoitzari dagokiona ematea. § Gauza jainkotiar eta gizatiarren ezagutza, gauza zuzen eta bidegabeen zientzia, hori da jurisprudentzia.

D. 1,3, 1 (Papiniano)***

Legea da gizaki zuhurrek erabakiriko arau komuna, asmo txarrik gabe edo ezjakintasunagatik eginiko delituen zehapena, errepublikaren hitzarmena.

Zuzenbide naturala eta *ius gentium*

D. 1,1:1 (Ulpiano) § 3 [= Institutiones Iustiniani 1,1, pr.]****

§ 3 Zuzenbide naturala⁴ da naturak animalia guztiei erakutsi izan diena: zuzenbide hori ez baitagokio gizakiari [*soilik*], baizik eta

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 70. zb.

** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 32. zb.

*** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 113. zb.

**** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 4. zb.

⁴ *Ius naturale*.

lurrean edo itsasoa jaio diren animalia guztiena da, baita hegaztiena ere. Hortik dator emeen eta arren arteko elkarketa, ezkontza deritzaguna; hortik dator umeen erditzea, hezkuntza: gainontzeko animalietan ikusten dugu —baita piztietan ere— nola gobernatzen dituzten euren buruak zuzenbide horren arabera.

§ 4 *Ius gentium* gizakiek darabiltena da; aise antzeman daiteke zuzenbide naturaletik bereizten dela, azken hau animalia guztiei amankomuna baitzaie, lehena, aldiz, gizakiei soilik.

Zuzenbide naturala eta positiboa

Gayo, Institutiones (h. 461) 1,1 [=Institutiones Iustiniani 1,2,1]*

[1] Legeek eta ohiturek gobernatutako herri guztiek darabilte zuzenbide bat hein batean euren dena, bestean, gizaki guztiei komuna zaiena. [2] Ezen herri bakoitzak beretzat ezartzen duen zuzenbidea da, eta zuzenbide zibila⁵ zein *ius civitatis* deitzen zaio. [3] Baina arrazoimen naturalak gizaki guztien artean ezartzen duena, hori herri guztietan berdin betetzen da, *ius gentium* deritza, eta badirudi herri guztiak haren bidez gobernatzen direla. [4] Hortaz, erromatar herriak hein batean berezkoa eta, bestean, gizaki guztiena den zuzenbidea darabil.

Zuzenbide publikoa eta pribatua

D. 1,1 § 2 (Ulpiano)**

§ 2 Bi dira [zuzenbidearen] ikerketa honen alderdiak: publikoa eta pribatua. Erromatar egituraren egoerari dagokio zuzenbide publikoa⁶, banakoen interesei pribatua⁷; gauza batzuk interes orokorrekoak baitira, besteak, banakoenak. Gauza sakratuetan, apaizetan eta magistratuetan funtsatzen da zuzenbide publikoa. Zuzenbide pribatuak hiru alderdi ditu, arau naturaletan, jendeenetan eta zibiletan oinarritzen baita.

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 3. zb.

** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 242. zb.

⁵ *Ius civile*.

⁶ *Ius publicum*.

⁷ *Ius privatum*.

Zuzenbide berezia eta pribilegioa

D. 1, 3, 16 (Paulo)*

Zuzenbide berezia⁸ da, arrazoiaren printzipioen aurka, onura dakarkeelako, hura eratzeke autoritatea dutenek ezartzen dutena.

D. 50,17,196 (Modestino)**

Pribilegioei dagokienez, batzuk gauzei buruzkoak dira, besteak, pertsonarenak. Hortaz, jaraunsleari transmititzen zaizkio gauzei dagozkienak. Pertsonarenak direnak, aldiz, ez zaizkio jaraunsleari transmititzen.

Ohitura

D. 1, 3***

D. 1, 3: 32 (Juliano)

Lege idatzirik erabiltzen ez den auzi horietan, ohiturek eta usadioak ezarri dutena jarraitzea komeni da; eta hori ere faltako balitz, orduan, antzekoa edo gertuen dagoen araua; horrelakorik ere ez bada agertzen, orduan, komeni da Erroman erabiltzen den zuzenbidea jarraitzea. § 1. Sustrai sakonak dituen ohitura bat lege moduan betetzen da, ez arrazoi barik, eta arau hori da, hain zuzen, ohiturek ezarririkoa dela esaten den hori. Legeek beraiek ez gaituztelarik behartzen ezein kausagatik, ezpada herriaren erabakiagatik ezarriak izan zirelako, hortaz, denek bete beharko dute herriak idatzi gabe onartu duena; ezen, zer diferentzia dago herriak bere borondatea bozketa bidez ala gauzen ordenarekin nahiz gertakizunen bidez adieraztea? Horrela, erabat zuzentzat joko da ez soilik legea egiten duenaren botoarekin abrogatzen dena, baita ere, guztion bat-etortzearekin —modu agerian adierazten ez den arren— erabilpen ezagatik desemandakoa.

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 173. zb.

** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 174. zb.

*** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 78. zb.

⁸ *Ius singulare*.

D. 1, 3: 33 (Ulpiano)

Ohitura iraunkor bat zuzenbide eta legetzat jotzen ohi da idatzia ez dauden gauza horietan.

D. 1, 3: 34 (Idem)

Norbait hiri edo probintzia bateko ohituran oinarritzen dela dirudienean, ene ustez lehenik aztertu beharko da ea kontradikziozko judizioak noizbait ohitura hori berretsi duen.

D. 1, 3: 35 (Hermogeniano)

Baina usadio luze batek konfirmatuak eta urte askotan beteak diren gauza horiek, herritarrena den adierazi gabeko konbentzio moduan, horiek ez bitez bete arau idatzia baino denbora laburragoan.

D. 1, 3: 36 (Paulo)

Hain autoritate handia du zuzenbide horrek, hain konfirmatua baitago, ez zen beharrezko izan idatziz jasotzea.

D. 1, 3: 32 (Idem)

Legearen interpretazioaren bila bagabiltza, lehenik ikertu beharko da hiriak iraganean antzeko kasuetan zein zuzenbide erabili zuen: usadioa baita legeen interpretatzaile onena.

D. 1, 3: 38 (Kalistrato)

Hortaz, gure enperadoreak, Severok, erreskripto bidez erantzun zuenez, legeetatik sortzen diren anbiguotasunetan, usadioak edo juzgaturiko gauzen autoritateak betirako mantendu behar du lege-indarra.

D. 1, 3: 39 (Zeltso)

Usadioak gorde duen arren, errorez sartu zena eta ez arrazoiz, ez da antzeko kasuetan mantenduko.

Institutiones Justiniani 1,2,9*

Idatzita ez denetik dator erabilerak konfirmaturiko zuzenbidea; usadio jarraituek, horiek darabiltzatenen adostasunak berretsiek, legeen antza baitaukat.

Iusaren definizioak **

D. 1,1,1 (Ulpiano)

Zuzenbidearen eginkizunetan jardun nahi duenak lehenik jakin behar du *ius* terminoa nondik datorren. Hala deitzen dio justiziak: honela definitzen du dotoreki Zeltsok, «*ius* gauza onen eta txarren artea da». § Hori dela eta, batzuek apaiz deitzen digute, justizia jorratzen baitugu, eta gauza on eta bidezkoen ezagutza profesatzen baitugu, bereiziz zuzena eta bidegabekia dena, legezkoa eta ez-zilegia dena [*int. TRIB.:* gauza onak bereiziz ez soilik zigorraren beldurrez, baita gura delarik ere sarien bidez horien sustapena erdiestea], ez baldin badut nire burua engainatzen, benetako filosofiaren bila eta ez faltsuaren atzetik gabiltzalarik.

D. 1, 1, 11 (Paulo)

Modu askotan esaten da *ius*: modu batean, *ius* deitzen zaio beti zuzena eta ona denari; zuzenbide naturalaren⁹ kasua da hori. Beste modu batean, hiri batean guztientzat edo gehientzat probetxugarria dena; halakoa da zuzenbide zibila¹⁰. Beraz, zuzentasunez deitzen zaio gure hirian magistratuen zuzenbidea¹¹. Esaten da pretoreak *iusa* administratzen duela, baita bidegabeki erabakitzen duenean ere; hau da, aipatzen da ez pretoreak modu batean egin zuena, baizik eta egin behar izanen zuena. Beste esanahi batekin, *ius* deritza *iusa* administratzen den lekuari, egiten dena egiten den lekuari aplikatzerakoan datorkio izena. Leku hori modu honetan determina dezakegu: pretoreak —bere inperioaren maiestatea eta bere arbasoen usadioak gordez— *iusa* ematea erabakitzen duen lekua, leku horri zuzenki deitzen zaio *ius*.

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 81. zb.

** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 54. zb.

⁹ *Ius naturale*.

¹⁰ *Ius civile*.

¹¹ *Ius honorarium*.

C

OHITURAREN ETA LEGEAREN IRAUPENA

Zer den luzaroan dirauen ohitura

Cod. Justin. 8, 52*

Cod. Justin. 8, 52. 1. (Alexandro, 224. urtea) Probintziako gobernadoreak erabakiko du, auzi berdinetarako sarrien erabili izan den araua oinarri hartuta eta kausa ezagututa. Ezen, bai aitzineko ohitura bat, bai ohitura hori eragin duen arrazoia, mantendu behar baitira, eta probintziako gobernadoreak bere arretaren arabera zainduko du ez dadin ohitura luze baten aurka egin.

Cod. Justin. 8, 52. 2. (Konstantino, 469. urtea)

Luzaroan dirauen ohitura edo erabilera ez da indar txikiko autoritatea, baina ez du balioko arrazoia edo legea gainditzera iristeko punturaino.

Cod. Justin. 8, 52. 2. 3. (Leo eta Antemio, 469. urtea)

Legeen antza izan eta mantentzen du antzinatik frogaturiko eta irmoki mantenduriko ohiturak; eta bulegoek, kuriak, hiriek, kuartelek edo elkargoek erabakia dela gauza jakina den horrek eternalki legearen indarra izan dezala erabakitzen dugu.

Cod. Theod. 5,20,1 [=Brev. Th. 5, 12,1] (Juliano, 363 urtea)**

Datozen garaietarako araua da erakunde zaharrak mantentzea. Hortaz, kausa publikoari ezerk aurka egiten ez dionean, luzaroan mantendu direnak gordeko dira [...] *interpretazioa*: onura publikoaren aurka egiten ez duen ohitura bat lege moduan gorde bedi.

Cod. Justin. 1,14,7 (Teodosio eta Valentiniano, 440 urtea)***

Legeak eta konstituzioak etorkizuneko negozioei forma emateko dira egiazki, eta ez iraganeko gertakizunak desemateko; behintzat,

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 79. zb.

** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 80. zb.

*** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 195. zb.

norberak ez baldin badu iraganeko edo etortzearen diren negozioez kontu hartzen.

D

ARAUEN INTERPRETAZIO METODOA

D. 1, 3*

D. 1, 3: 14 (Paulo)

Zuzenbidearen arrazoiaren aurka jasotzen dena, hori ez zaie ondorioei aplikatu behar.

D. 1, 3: 14 (Paulo)

Zuzenbidearen arrazoiaren aurka eratua den horretan ezin da zuzenbidearen araua jarraitu.

D. 1, 3: 15 (Juliano)

Legeak jakitea ez da horien hitzei eustea, baizik eta euren indarrari eta botereari.

D. 1, 3: 17 (Zeltso)

Legeak euren zentzurik aldekoenean interpretatu behar dira, euren borondatea mantentzen den artean.

D. 1, 3: 18 (Zeltso)

Legearen hitz anbiguo baten kasuan, lehentasunez hartuko da akatsik ez daukan esanahi hura, batez ere horrela legearen borondatea ondoriozta badaiteke.

D. 1, 3: 19 (Zeltso)

Lege osoa kontuan hartu ordez, berorren atal txiki baten arabera epaitzea edo ebaztea bidegabea da.

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 232. zb.

D. 1, 3: 26 (Paulo)

Gauza bat ez da berria, aitzineko legeak ondorengoekin harremanean jartzen direnean.

D. 1, 3: 28 (Paulo)

Baina ondorengo legeek aitzinekoei erreferentzia egin diezaiekete, aurkakoak ez baldin badira bederen, eta hori argumentu anitzekin froga daiteke.

D. 50, 16 Hitzen esanahiaz: 6

D. 50, 16: 6 § 1. (Ulpiano)*

«Legeen arabera» adierazpidea honela ulertu behar da: legeen zentzuaren zein hitzen arabera.

D. 50, 16: 6 § 1. (Gaio)**

Aditza birritan ezeztatua duen legeak baimendu egiten du, debekatutak baino; eta hori Serviok ere antzeman zuen.

D. 50, 17 Antzinako zuzenbideko zenbait arauri buruz ***

D. 50, 17: 9 (Ulpiano)

Gauza ilunen aurrean gaudenean, beti eutsiko diegu iluntasun gutxien daukatenei.

D. 50, 17: 41 § 1 (Ulpiano)

Gauza ilunetan hobe da eskatutakoaren alde egitea, dudazko irabazia aintzatestea baino.

D. 50, 17: 67 (Juliano)

Esaldi berak bi esanahi adierazten dituenean, lehentasuna izanen du auziaren exekuzioari egokien datorkionak.

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 233. zb.

** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 237.zb.

*** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 234. zb.

D. 50, 17: 80 (Papiniano)

Zuzenbide orotan espezieak generoa indargabetzen du, eta espezieari zuzentzen zaiona kontuan hartu beharko da gehienbat.

D. 50, 17: 114 (Paulo)

Kasu ilunetan, egiantzekoa dena edo gehienetan egiten ohi dena bilatzen da.

D. 50, 17: 147 (Gaio)

Gauza bereziak beti orokorren barne daude.

D. 50, 17: 155 (Paulo)

Zigor auzietan beti onberen interpretatu behar da.

D. 50, 17: 192 § 1 (Martzelo)

Auzi zalantzazkoetan interpretaziorik onberena egitea segurua lain justua da.

D. 50, 17: 200 (Javoleno)

Amarruz baizik ondoriozta ezin daitekeenean, beti aukeratuko da bidegabekeria txikiena duena.

D. 50, 17: 202 (Javoleno)

Zuzenbide zibilean definizio oro arriskutsua da, zaila baita desitxuratu ezin daitekeen bat ematea.

E

**LEGEAREN DERRIGORREZKOTASUNA ETA
PRINTZEAREN SALBUESPENA:
*LEX DE IMPERIO***

D.1, 3, 31 (Ulpiano)*

Printzea ez du legeak lotzen; Augustaren kasuan, aldiz, berau legeekiko lokabe ez den arren, printzeek eskaini egiten dizkiote eurek dauzkaten pribilegio berak.

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 571. zb.

D. 1, 4, 1 (Ulpiano) [=Inst. Justin. 1, 2, 6]*

Baina printzeak gustuko duenak legearen indarra du; ezen, herriak printzearengan agente¹² eta ahalmen osoa ezartzen baitu, haren inperioan ematen den errege-lege boteretsuaren bidez.

Cod. Justin. 6, 23, 3**

[Alexandro] Antigonok [232. urtea]. Sarri esan denez, enperadoreak berak ere ezin du testamentu akastun batean oinarrituriko oinordetza eskatu. Ezen inperioaren legeak enperadorea zuzenbidearen solemnitatez libratzen duen arren, ez dago ezer inperioak berezkoago duenik legeen arabera bizitzea baino.

Cod. Justin. 1,14,4***

Teodosio eta Valentinianok Volusianori, pretorioko prefektuari [429. urtea]. Agintzen duen maiestatearen adierazpen duina da printzeak aitortzea legeak behartua dela, ezen zuzenbidearen aginpidetik erartortzen baita gurea. Egiazki, printzearen herria, printzearen agintepean baino, legeen menpe dago. Eta guretzat zilegi ez dela iruditzen zaigun hori adierazten dugu ediktu honen orakuluaren bitartez.

F

**ESKUORDETURIKO ESKUMENA
AGINTE SOILA EDO MISTOA**

D. 2, 1, 3 (Ulpiano)****

Agintea¹³ soila ala mistoa da. Inperio soila da gaizkileekin ezpatako ahalmena izatea, honi «botere» ere deritza. Aginte mistoa da jurisdikzioa bere barne duena, berau ondasunen jabegoa ematean datza. Jurisdikzioa, bestalde, epailea izendatzeko ahalmena da.

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 133. zb.

** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 572. zb.

*** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 573. zb.

**** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 569. or.

¹² *Imperium*.

¹³ *Imperium*.

D. 1, 21: 1§ 1 (Papiniano)*

Eskumena eskuordetuta jaso duenak ez dauka ezer berea denik, baizik eta bestearen esku utzi duenak erabiltzen du jurisdikzio hori. Egiazki, antzinakoen usadioen¹⁴ arabera, jurisdikzioa benetan eskualdatu egiten da, baina aginte¹⁵ soila, legeak emana dena, ezin da transmititu; ezen inork ez du esango, zehapenerako, eskuordeturiko jurisdikzioa duenik prokontsularen legatuak. Paulok honakoa azpimarratzen du: eta agintea¹⁶, jurisdikzioarekin erlazionatua dagoen horretan, delegaturiko jurisdikzioarekin transmititzen da egiazki.

D. 1, 21, 1 (Paulo)

Gauza argia da norberari delegaturiko jurisdikzioa ezin dela beste norbaiten esku utzi. Norbanako bati delegaturiko jurisdikzioarekin, badirudi soila ez den inperioa ere eskuordetzen dela, koertzio txiki batekin jurisdikzioa deuseza baita.

G

ERROMA ETA HERRI GERMANIARRAK: LURREN BANAKETA ETA EZKONTZA MISTOEN DEBEKUA

Cod. Theod. 3, 14, 1 [= Brev. Th. 3, 14, 1 370 ? 373? urtea]**

Valentiniano eta Valente enperadore augustoei Teodosiori, zalditeriako maisuari: Ezein probintziar gizonezko, edozein ordena edo tokikoa, ez bedi emazte barbaro batekin ezkondu, ezta emakume probintziarrarekin ezein jentil elkartu ere. Probintziarren eta jentilen artean edozein motatako ezkontza bidezko ahaidetasuna balego, susmopekoa edo errudun delarik ere, heriotza-zigorrekin ordain bezate.

Interpretazioa: Erromatar gizonezko bat ez bedi ausart emakume barbaro bat emaztetzat hartzen, eta barbaroak ez bitez erromatar

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 570. zb.

** GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 625. zb.

¹⁴ *Mores*.

¹⁵ *Imperium*.

¹⁶ *Imperium*.

emakumeekin ezkon; hala egingo balute, jakin dezatela heriotza-zigorpean egongo direla.

Cod. Theod. 7, 8, 5 (398 urtea) [= Cod. Justin. 12, 40, 2]*

Arkadio eta Honorio enperadore augustuek Hosiori, ofizioetako maisuari (398. urtea): Gu —edo guretzat milizian zerbitzatzen dutenak— gauden edozein hiritan, neurtzailearen zein ostatu-emailearen bidegabekeria oro ekiditeko, etxeko jaunak bere etxearen heren bi izan bitza beldur barik eta seguru, eta gainerako herena ostatu-hartzailearentzat bereiztua bedi. Etxea hirutan banandua delarik, lehen zatia etxeko jaunak aukera beza, bigarrena, ostatu-hartzaileak gura duena aukera beza, eta, hirugarrena, jaunarentzat izan bedi. Erabat ekitatezkoa eta justiziazkoa baita jaraunspenez gozatzen duenak, edo erosteagatik edo eraikitzeagatik daukanak, nagusiki izatea bere nahierara berak aukeraturiko gauza eta utzitakoa.

Baina merkantziak gordetzen dituzten biltegiak izan bitez bereizketak eragiten duen enbarazu horretatik kanpo, aldiz, dauden bezala, ostatu eman beharrak eragindako eragozpen orotatik aske eta seguru gera bitez, eta jabe edo maizterren probetxurako soilik izan daitezela. Baina, ohi den bezala, etxearen heren horretan militarri zalditegia faltako balitzaio, biltegitik emango zaio, etxearen kalitatearen eta bertako animalien kopuruaren arabera, betiere, etxeko jaunak ez baldin badio beste modu batean konponbidea ematen.

Jaun leinargiei dagokienez, agintzen dugu ez zaiela etxearen herena emango, ezpada erdia, abegi ona dela medio. Baina honako baldintzarekin: batak arbitroaren ekitatearekin banaketa egin, eta, bestea, hautatzeko aukera izan beza.

* GARCÍA GALLO, Alfonso. *Antología de fuentes de Derecho español...*, 614. zb.

IV

ZUZENBIDE MUSULMANA

ZUZENBIDE MUSULMANA

1.- Islamaren jatorria eta bilakaera

Mekako merkatari batek, Mahomak (570-632) Islama¹ sortu zuen VII. mendean. Erljio monoteista izanik, arabiarrek atzean utzi zuten ordura arte euren artean gailentzen zen politeismoa. Mahoma kontsideratu zuten azken profeta nagusiena, hark iragarri zuen Allah: «lurraren eta zeruaren sortzaile, jainko bakar eta ahalguztidun, barkabera, bihozbera eta zuzen». Azken epaiaren egunean, Allahk infernura igorriko ei ditu fedegabe eta bekatariak, eta paradisura eramango fededun leialak, hau da, bizitzan zehar oinarri izan dituztenak fedearen bost zutabeak: fedea onartu eta berrestea, egunean bost aldiz otoitz egitea, txiroekin karitate izatea, ramadana betetzea, eta bizitzan zehar behin Mekara erromesaldia egitea.

Mahomak espero zuen onarpena ez zuen erdietsi Mekan eta, jazarpenetik ihesi, handik 400 kilometrora dagoen egungo Medinara iritsi zen 622. urtean. Hori izan zen hejiraren² lehen urtea, musulman egutegiko lehena. Medinan pertsona asko konbertitu zituen, eta sinestunen epaile bilakatu zen, familia harremanen, ondarearen eta jarduera kriminalen inguruan ebatziz. 630. urtean Meka, borrokarik gabe, Mahomaren gudarostearen menpe geratu zen, eta laster Arabiako beduino tribuak Islamari atxiki zitzaizkion eta Mahomaren agintaritza

1 *Islam*: Allah-ri, edo Jainkoari, men egitea.

2 *Hjirah*: migrazioa, peleginazioa.

onartu zuten. Islamak arabiarrek batu, eta euren artean diziiplina eta ordena ezarri zituen. Mahomaren heriotzaren ostean, bere lagun Abu Bakr bilakatu zen ondorengo edo *kalifa*, fedearen defentsaren ardura-dun. Liburu sakratuan definitzen den lege musulmanaren arabera gobernatzeko, Alahrengandik jasoriko boterea zuen. 632. eta 661. urte-en artean agintari izan ziren lau kalifek eraginkorki gidatu zituzten ara-biarrek, eta ziztu bizian konkistatu zituzten persiar inperioa eta Bizan-tzioren zenbait lurralde. Espantsioak ekialdetik jarraitu zuen, Txinako mugetaraino, eta mendeabaldetik, Afrikako iparraldean zehar eta Iberiar penintsularaino. Bizantziarrek Konstantinoplan gelditu zuten hedakun-tza (717) eta frankoek Poitiersen (732).

VIII. eta IX. mendeak Islamaren garairik arrakastatsuenak izan ziren. Musulmanek zibilizazio handi bat osatu zuten arabiar, bizantziar, persiar eta indiar kultur tradizioak uztartuz. Greziar testu klasikoak ara-bierara itzuli izanak ondare klasikoa bizirik mantendu zuen. Musulma-nak, ordea, euren kabuz nabaritu ziren matematikan —zenbaki-siste-ma, algebra, trigonometria—, astronomian, medikuntzan, eta hainbat ezagutza alorretan. Al-Farabi, Avicenna edo Averroes bezalako jakin-tsuak Aristotelesen logikaz baliatu ziren, arrazoimena eta fedea elka-rrekin biltzen saiatuz.

2.- Zuzenbide musulmanaren iturriak

Lehen milurtekoaren bukaeratik aurrera, zuzenbide musulmana indarrean egon da Afrikako iparraldean, Sahararen hegoaldeko zenbait lurraldetan, Ekialde hurbilean eta Asia hegoalde eta erdialdean zehar barreiaturiko komunitate zabalean. Zuzenbide musulmana pertsonala da, erlijio islamikoaren jarraitzaileek derrigor jarraitu beharrekoa, eta ez estatu jakin baten zuzenbidea. Bakarra da, nahiz eta tokian tokiko aldaerak egon.

Musulman erlijioak bi maila edo aspektu dauzka: batetik, musulmanek sinetsi behar dutena —dogma da, eta teologia arduratzen da hartaz—, bestetik, musulmanen betebeharrak —*sharia*—. Bai egia dogmatikoak, bai jarduerako arauak, biak ere errebelatuak dira; hortaz, bekatu da horiek ez onartzea edo horien aurka egitea. Alabaina, ez da argi geratzen pertsona bat nola egokitu behar zaion shariari, edo nola egin behar dion men hari, edo zein den jarduera-arau konkretuak eza-

gutzeko edo finkatzeko jarraituko den prozedura. Zuzenbidearen zientziari —*Fiqh*ari— dagokio errebelaturiko iturrietan barreiatu dauden jarrera-arauak deduzitzea eta definitzea.

Lau dira *shari*aren iturriak: *Korana*, tradizioa edo *Sunnah*, musulman komunitatearen aho bateko adostasuna edo *Ijma*, eta analogia edo *Qiyas*.

a) Korana³ musulmanentzat Jainkoaren hitza da, Mahomari Gabriel arkanjelua transmititua. Haienezat Jainko sortzailearen hitz betierekoa da. Mahomak berak eta bere idazkariak errebelazioetarik gehienak idatziz jaso zituzten, eta lehen kalifek ordenatu egin zituzten testuok, luzera handiena zutenetatik txikiena zutenetara apailatuz. 114 *surah*⁴ izenburudun bakoitza berdin hasten da, «Jainko bihozbera eta errukitsuaren izenean». Testuaren prosa errimaduna biziki ederra da. Koranarekin «Liburuaren herriak» taldean sartzen dira musulmanak, hebrearren Torahrekin eta kristauen Ebanjelioekin batera.

Soilik Koranaren hamarren bat erabili ahal izan da *Fiqh*a osatzeko, hau da, arau juridikoak sortzeko. Normalean, kasu konkretuei aplikatzen zaizkien xedapen kasuistikoak izaten ohi dira. Mahomaren berrikuntza sozial eta legalek eguneroko bizitza moralizatzea asmo zuten, ardoa, jokoa edo mailegu interesdunak debekatuz, eta justizia bilatzen zen ezkontide, guraso eta seme-alaben arteko harremanetan. Liburuak ahulen —emakume, umezurtz eta esklaboen— babesa ezarri zuen. Arabiar munduan emakumeak lehenago zuen egoera hobetu zuen, esaterako, gizonari zegokion jaraunspenaren erdia jasotzea izanzen baitzuen emakumeak ordutik aurrera. Zerga ordainketa ezartzen du —txiroentzat 52,5eko *zakata*—.

b) *Sunnah* edo tradizioa da musulman zuzenbidearen bigarren iturria. Mahomaren ekintza eta esanen bilduma da, haren dizipuluek adierazitakoaren arabera. Gertaera bakoitza narrazio edo *hadit* batean jasotzen da, eta horrek profetak zuen pentsamoldea aditzera ematen du gai edo arazo baten inguruan, hortik ateratzen delarik araua. VIII. eta IX. mendeetan bildu ziren narrazio horiek.

c) Musulman komunitatearen aho bateko adostasun edo onespena —*Ijma*—, praktikan «legearen doktore» direnen adostasuna baizik

3 *Qur'an*: errezitatzea.

4 *Surah*: kapitulu.

ez dena —are gehiago, inperio abasidaren garaian Bagdaden bizi zirenen adostasuna—, hori da hirugarren iturria. Aurreko bi iturrien interpretazio hutsezin eta behin betirako baten moduko zerbait da. Interpretazio prozesua 300. urtean —gure garaiko 922. urtean— itxi zen. Eskatzen den aho batasuna gorabehera, praktikan zenbait interpretazio izan ziren, erritu edo eskolen arabera.

d) Hutsuneak analogia bidezko arrazoiketaren bidez betetzen dira —*Qiyas*—, hau da, sunnahen eta Koranaren testuen inguruko arrazoiketaren bidez.

Arazoak sortzen dira auzi bat erabakitzeko orduan, juristek, ebazpena oinarritzeko, ez dutenean topatzen aurrekaririk Mahomaren bizitzan. Kasu horretan zalantzak sortzen dira haiek «epai independente» bat ematea dutenentz. Dilema horri aurre egiteko lau eskola ortodoxo sortu ziren. *Hanefita* da joera liberalena, Turkian, Sobiet Batasun ohiaren hegoaldean, Pakistanen eta Egipton gailendu dena. Kufa-ko merkataria zen Abu Hanifa-k (699-767) sortu zuen. *Malekita* eskola, berriz, Medinako Malik ibn Anas imanak (715-796) sortu zuen, honek bere erabakiak profetaren jardueren berbilketa zehatz batean oinarritzen zituen. Magreben eta Iberiar penintsulan jarraitu zuten ibn Anas. *Shafita* eskola Al-Shafi'i-ren (767-820) lege tradizioan oinarritzen da; iman honek dauden iturrien sintesia egiten du, eta indarra ematen dio komunitatearen onespenerari, Mahomaren honako haditean oinarrituz, «nire komunitatearen adostasuna ez da inoiz erratua izanen». Egun Sirian eta Indonesian gailentzen da eskola hau. Azkenik, *hanbalita* eskola dugu, Ahmed ibn Hanbal-ek sortua (780-855). Iman honen iritziak Mahomaren hitza juristen arrazoiketak baino garrantzitsuagoa da, eta horrek testuen interpretazio zorrotza eragingo du. Arabian jarraitzen diote, bereziki hiri santuetako zaindariak —*Wahhbiren* jarraitzaile direnek—. Eskola ortodoxo horietaz gain, denak sunitak baitira, heterodoxoak ere badaude, esaterako irandar eta irakiar xiitenak.

Bibliografia eta iturriak

Bibliografia eta iturriak

Al Quran: (sagrado e inimitable). 1955. Álvaro Machordom Comins-en itzulpena eta oharra. [s. l.]: George Massad.

BOUSQUET, G.H. 1963. *Le droit musulman*. Paris: A. Colin.

COULSON, NOEL J. 1979. *A history of Islamic Law*. Lahore: Lahore Law Times.

CHARLES, RAYMOND. 1979. *Le droit musulman*. 5. argitalpena. Paris: PUF.

DOI, ABDUR RAMAN J. 1984. *Shari'ah: the Islamic Law*. Londres: Ta Ha Publishers.

El Corán. 1999. Julio Cortésen edizioa. Bartzelona: Herder.

GAUDEFROY DEMOMBYNES, MAURICE. 1953. *Les Institutions musulmanes*. Paris.

GILISSEN, JOHN. *Introduction historique au Droit: esquisse d'une his-*

toire universelle du Droit: les sources du droit depuis le 13 siècle: éléments d'histoire du droit privé. Brusela: Bruylant

Le Coran. 1981. Paris: Garnier.

LÓPEZ ORTIZ, JOSÉ. 1932. *Derecho musulmán*. Bartzelona: Editorial Labor.

LINANT DE BELLEFONDS, YVON. 1965-1971. *Traité de droit musulman comparé*. 4 liburuki. Paris-La Haye: Mouton.

MAILLO SALGADO, FELIPE. 2005. *Diccionario de Derecho Islámico*. Gijón: Trea.

SCHACHT, JOSEPH. 1982. *An introduction to Islamic Law*. 2. argitalpena. Oxford-New York: Clarendon Press [frantseseratu: 1983, *Introduction au droit musulman*, Paris: Editions Maisonneuve].

1953. *The origins of Muhammadan Jurisprudence*. Oxford: Clarendon Press.

IV

1.

KORANA (640 urtearen inguruan)*

XLV, 18: «Gero, ordenaren bidean ezarri zintugun. Jarrai ezazu, bada, eta ez iezaezu jaramonik egin ezjakinen doktrina kaltegarriei».

XII, 21, 22: «Allah bere ordenaren subiranoa da, baina gizaki gehienek ez dakite hori.

Joseri, ezkontzeko adina zuenean, Argitasuna eta Zientzia eman genizkion. Horrela saritzen ditugu ongileak.»

XXXIV, 6: «Zuregana jaitsi den Zientzia jaso dutenek, horiek ikusten dute zure Jauna dela Egia, eta Bide loriatsu eta laudagarritik gidatzen duela hark».

XVI, 69: «Palmondoetako eta mahastietako fruituetarik edari hordigarria eta elikagai bikaina lortzen duzue. Egiatzki, horretan bada seinale bat arrazoitzen duen herri bat osatzen ari dela».

II, 216: «Sinestunek edari hartzituen gaineko itaunak egiten dizkizute. Honakoa ihardetsi: Bietan gizakientzat bekatu handia eta gauza probetxugarriak dira, baina haiengan den bekatua handiagoa da onura baino».

* Iturria: GILISSEN, John. *Introduction historique au Droit: esquisse d'une histoire universelle du Droit: les sources du droit depuis le 13 siècle: éléments d'histoire du droit privé*. Brusela: Bruylant, 107. or.

2.

EZKONTZA ONARTZEARI BURUZKO HADITA*

XLII. kapitulua: Aitak, are gutxiago beste edonork, ezin du emakume birjina beronen onespenerik gabe ezkondu, ezta aurretik ezkondu-ta egon dena ere.

Abu Horairak dioenez, honela mintzatu zen Profeta:

«Aurretik ezkondu-ta egon den emakumea ezin da ezkontzan eman, ez bada bere onespenerarekin; birjina ezin da ezkontzan eman, onespenera eskatu ostean baizik. — Eta zelan emango du bere onspenera, o Jainkoaren mandatari? Galdetu zuten orduan fededunek. — Isilik geldituz erantzun zuen Profetak.»

Abu Amr-ek —Aixaren libertoak— dioenez, honakoa esan zuen: «O, Jainkoaren mandatari, birjina lotsatu egin da». «Bere isiltasunak», erantzun zuen hark, «bere onspenera adierazten dizu».

* Iturria: *Ibidem*, 107. or.

V

ZUZENBIDE KANONIKOA

ZUZENBIDE KANONIKOA

1.- Zuzenbide kanonikoaren ezaugarriak

Zuzenbide kanonikoa¹ azterkizun daukagula, eliza katolikoaren zuzenbideaz dihardugu. Eliza katolikoa izan zen agintari Erdi Aroan, VIII. eta XV. mendeen artean, ekialdeko Europa osoko kristandadean zehar.

Zenbait ezaugarri aipagarri ditu zuzenbide honek: batetik, Erdi Aro Goiztiarrean zuzenbide laikoa funtsean ohiturazkoa zen bitartean, zuzenbide kanonikoa idatziz jasorik zegoen. Bestetik, legelarien ohar eta azterketei esker, oinarri zientifikoa erdietsi zuen laster. Gainera, eragin handia izan du zuzenbide laiko edo sekularrean, luzaroan zenbait arlotan —esaterako, familia zuzenbidearen inguruan— eliz auzitegiek denentzat erabakitzen baitzuten. Egun ere katolikoek haietara jo dezakete ezkontzaren deuseztasunari buruzko nahiz senar-emazteen banantzeari buruzko auzien inguruan ebatz dezaten.

Testamentu Zaharrean eta Berrian gorpuzten den errebelazioan oinarritzen da eliza katolikoaren zuzenbidea; alabaina, hebrearren eta musulmanen zuzenbidean ez bezala, bereizi egiten dira erlijiozko zuzenbidea, batetik, eta laikoa, bestetik. Bereizketa hori Kristoren honako hitzetan funtsatu izan da: «ene erresuma ez da mundu honetako» (Joan, XVIII, 36) eta «eman Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari» (Mateo, XXII, 15-22).

¹ Grezieraz «arau» esan nahi duen kanondik dator hitza [sarrera-egilearen oharra].

2.- Eliz jurisdikzioaren jatorria eta bilakaera

IV. mendean kristautasuna ofizial egin zenetik aurrera, elizaren jurisdikzioa astiro eratzen joan zen. Lehenik, apezpikuei diziplina eskumena eman zitzaien, fedeari, sakramentuei eta elizaren barneko diziplinari zegozkien gaien inguruan —honi *a clavibus materia* deituko zitzaion, hots, Petriren giltzek lotzeko eta askatzeko zuten boteretik eratorririko eskumena zen—. V. mendean, *privilegium foris* ezarri zenean —berorren arabera apaizak elizaren auzitegien mende geratu ziren, auzi zibil nahiz penaletarako—, materia hori hedatu egin zen. Garai karolingioan *a clavibus materiaren* eremua zabaldu egin zen sakramentuei zegokienez, batik bat ezkontzaren inguruko sakramentuetan. Eliz jurisdikzioaren garairik boteretsuenean, X. eta XIV. mendeen artean, *ratione personae* hari loturik geratu ziren honakoak: eliz gizon-emakumeak, gurutzuak, unibertsitateetako ikasle-irakasleak, alargun eta umezurtzak. Eta, *ratione materiae*, eliz auzitegieta amaitzen zuten ondoko gaiekin zerikusia zuten auziek: heresia, apostasia, sakrilegioa, sorginkeria, adulterioa, lukurreria, ezkontza eta beronekin erlazionaturiko gaiak, zenbait testamentu mota, eta eliz benefizioen ingurukoak. Eliz jurisdikzioak, bada, hedadura handia lortu zuen, nahiz eta batzuetan auzitegi laikoekin partekatu behar zuen jurisdikzioa.

XVI. mendeko erreforma protestanteak zeharo ahuldu zuen elizaren boterea. Eliz jurisdikzioa desagertu egin zen Europako iparraldean eta erdialdeko zati batean. Herrialde katolikoetan, berriz, monarka absolutuek murriztu egin zuten elizaren eragina bizitza zibilean. Dena den, gorago esan bezala, egun oraindik ere katolikoek erakunde horretara jo dezakete ezkontza deuseztatzeko.

3.- Zuzenbide kanonikoaren iturri materialak

Anitz dira zuzenbide kanonikoren iturriak. Zatirik funtsezkoena *ius divinum*ean oinarritzen da, hau da, eskritura santuetatik, idatzi apostolikoetatik eta elizaren gurasoen obretatik eratortzen diren arauetan. Iturri hori daukan edukiari Ekialdeko eta Greziako jatorria sumatzen zaio. Bigarren maila batean, elizako agintarien erabakiak dauzkagu.

Bestalde, zuzenbide kanonikoaren osieran garrantzi handia dute elizak mendeetan zehar izan dituen kontzilio orokor edo ekumenikoek, Nizeatik (323) hasi eta Vatikanoko II. kontziliiora arte (1962-

65). Aipagarria da Trentoko kontzilioa edo kontrarreformakoa (1545-1563), hartan ezkontzaren inguruko neurri garrantzitsuak hartu baitziren. Aipatu beharrekoak dira, halaber, erregio edo eskualdeetako kontzilioak, baita sinodoak ere —apezpikutegi bateko agintaritzaren erabakiak—.

Elizaren zuzenbidearen beste iturri nagusi bat aita santuen erabaketan —*littera decretales*— dago, horiek kontzilioen dekretuak edo berauen aplikazio moduak interpretatzen eta garatzen dituzte. Erdi Aro Goiztiarrean kontzilioen autoritatea aita santuengana lerratu zen praktikan. Pontifizeen *constitutiones*etan gauzatu izan da aita santuen eskumen legea. Bestetik, aita santuek kontzilio edo zuzendaritza funtzio bat dute halaber, berau entzikliketan gauzatzen da, eta beronen garrantzia handitu egin zen 1870ean Vatikanoko II. Kontzilioan aita santuaren hutsezintasuna aldarrikatu zenean.

Azkenik, garrantzi txikiagoa duenari, ohitura dago; berorren balioa baldintza batzuen arabera da. Erromatar zuzenbidea ere aplikatu daiteke.

4.- Iturri formalak: Erdi Aroko bildumak

Gorago aipaturiko iturriak bildumatan —grezieraz eta latinez idatzita— jaso ziren IV. mendean hasi eta XII. mendera arte. Bilduma ezagunenak Dionisio Urriarena —Dionysius Exiguus—, Hadriana (774) eta Hispana dira. Elizaren jurisdikzioa hedatzearren, batzuetan bilduma-egileek dokumentazio faltsua erabili zuten (esaterako, IX. mendeko bilduma sasi-isidorotarrean).

Erdia Aroan zuzenbide kanonikoa bost obra nagusitan bildu zen, horiek osotasunean —eta justinianotar obraren antzera— *Corpus Iuris Canonici* izena daukate:

Lehenik, *Concordia canonum discordantium*. Obra honek badauka **Decretum** edo **Grazianoren dekretua** izena ere, 1140. urtearen inguruan idatzi zuen monje boloniarra dela eta. Elkarren artean kontrajartzen ziren dekretuak alderatu nahi izan zituelarik, 3800 testu sistematizatu zituen, berorien balio juridikoaren arabera. Bestalde, interpretazio arazoak sortzen zituzten kontraesanen inguruan iruzkina gaineratzen zuen. Lan honek, izaera pribatua zuen arren, eliz munduan arrakasta handia izan zuen.

Raymon de Penyafort domingotar katalanak, Bolonian irakasle ziharduларик, gorago aipaturiko obra osatzeko betekizun ofiziala jaso zuen. Eginkizun horretarako beste 1500 testu berri erabili zituen. 1234. urtean burutu zuen bere eginkizuna. Obrari *Decretales extra Decretum vagantes* deitu zitzaion, nahiz eta *Gregorio IX.aren dekretalak* izenarekin ezagunagoa den.

XIII. eta XIV. mendeetan, ofizialki bultzatuta, aurreko bi obra horien gehigarriak egin ziren. Hala nola, Bonifazio VIII.aren (1298) *Liber Sextus*, Avignonko Klemente V.aren *Clementinae*, edo Joan XXIII.aren (1334) *Extravagantes*, azken honi mende horretan bertan *Extravagantes communes*ak gehitu zitzaizkion.

Corpus Iuris Canoniciaren lehen argitalpen ofiziala, aurreneko testu guztien berrelaborazio baten emaitza, 1582an egin zen. Hiru mende igaro ziren harik eta garaietara egokituko zen bertsio berri bat egin zutenera arte. 1917an argitaratu zen, *Codex Iuris Canonici* izena zuelarik, eta berorren burutzean eginkizun handia izan zuen Gasparri kardinalak. Aurreko mendeko aldaketek, eta batez ere Vatikanoko II. kontzilioaren dekretuek, eguneratzea behar zuten. 1983an Joan Paulo II.ak argitara eman zuen egun indarrean den codexa.

5.- Elizaren eta estatuaren arteko harremanak

Gorago esan bezala, kristautasuna IV. mendean erlijio ofizial bilakatu zen erromatar inperioan. Aurreko esperientziak elizaren etorkizunean eragina izan zuen. Erakunde bezala, inperioko probintzia eta *civitates*etan bananduriko lurralde antolamendua mantendu egin zuen bere eliz esparruetan. Erdi Aro Goiztiarrean oraindik ere, eta kontuan izanik eliza zela estatuetan zehar barreiaturik zeuden fededunek zeukaten autoritate komun bakarra, desagertutako inperioaren moldeak iraun zuen. Gainera, Karlomagnoren *renovatio Imperii*aren legitimazioan betekizun garrantzitsua izan zuen, baita Alemaniako Otonenean ere, geroago.

Elizak botere zibilaren gainean gailentzeko zeraman borrokak formulazio doktrinalak eragin zituen —hala nola, *Dictatus Papae* edo «bi ezpaten teoria»— eta, arlo praktikoa, tirabirak eta norgehiagokak. Gregorio VII.aren eta Bonifazio VIII.aren bitartez, eliza gailendu zen, eta enperadoreek azpiagoko maila zutela onartu behar izan zuten, aita

santuei printzeak kentzeko eta eskumikatzeko zeukaten ahalmena aitortu zitzaizenean.

Erdi Aro Berantiarrean, aita santuaren autoritate nabarmen hori txikiagotu egin zen, batetik, aitasantutzak Frantzia eta Ingalaterrarekin izan zituen liskarreatatik eta, bestetik, mendebaldean gertatu zen zisma dela eta. Garai Modernoan Vatikanok estatu katolikoekin duen harremana konkordatuaren bitartez bideratzen da, eta horiek izendatzen dituzte elizaren goi karguak; dena den, frantses iraultzaren ostean elizaren eta estatuaren arteko bereizketak indarra hartu du.

Bibliografia eta iturriak

Commentarium Lovaniense in Codicem Iuris Canonici, editum a magistris et doctoribus Universitatis Lovaniensis. 1945. 1, 1 liburukia: *Prolegomena*. 2. argitalpena. Mechliniae-Roma: H. Dessain.

Corpus iuris canonici: emendatum et notis illustratum / Gregorii XIII. Pont. Max. iussu editum; nunc indicibus nous, & appendice Pauli Lanceloti Perusini adauctum ... Parisiis : [z.g.], 1587, 2 liburuki.

Corpus iuris canonici Gregorii XIII. Pontif. Max., Halae Magdeburgicae, Impensis Orphanotrophei, 1747. 2 liburuki.

Dictionnaire de Droit canonique. 1935-1965. Paris. 7 liburuki.

FEINE, HANS ERICH. 1972. *Kirchliche Rechtsgeschichte*. 1. liburukia: *Die Katholische Kirche*. Köln: Böhlau Verlag.

FLICHE, AUGUSTIN; MARTIN, VICTOR. 1939-1956. *Histoire de l'Eglise depuis les origines jusqu'à nos jours*. 2. argitalpena. Paris: Bloud et Gay.

FRANSEN, GÉRARD. 1972. *Les décrétales et les collections de décrétales*. Tournhout (Belgika): Brepols. Colección Tipologie des sources du moyen âge occidental, 2. zb.

-1973. *Les collections canoniques*. Ibidem, 10. zb.

FOURNIER, PAUL; LE BRAS, GABRIEL. 1931-1932. *Histoire des Collections canoniques en Occident depuis les Fausses Décrétales jusqu'au Décret de Gratian*. 2 liburuki. [Faksimilea: 1972. Aalen: Scientia]

GAUDEMET, JEAN. «Droit canonique». Gilissen, John (edit.), *Introduction bibliographique à l'histoire du droit et à l'ethnologie juridique/ Bibliographical introduction to legal history and ethnology*. Brusela: Editions de l'Institut de sociologie, Université libre de Bruxelles, B/9.

GILISSEN, JOHN, *Introduction historique au Droit: esquisse d'une histoire universelle du Droit: les sources du droit depuis le 13 siècle: éléments d'histoire du droit privé*. Brusela: Bruylant.

KUTTNER, STEPHAN. 1937. *Repertorium der Kanonistik (1140-1234): Prodomus Corporis Glossarum*. Ciudad del Vaticano: Biblioteca apostolica vaticana. [1972an berrargitaratua].

LE BRAS, GABRIEL. (ed.). 1990. *Histoire du Droit et des Institutions de l'Eglise en Occident*. Paris: Sirey.

LE BRAS, GABRIEL; LEFEBVRE, CHARLES; eta RAMBAUD, JACQUELINE. 1965. *L'âge classique (1140-1378), Sources et théorie du droit*. Paris: Sirey.

LEFEBVRE, CHARLES; PACAUT, MARCEL; eta CHEVAILLER, LAURENT. 1976. *Histoire du Droit et des Institutions de l'Eglise en Occident. 15. 1. L'Époque moderne (1563-1789). Les sources du droit et la seconde centralisation romaine*. Paris: Cujas.

LEMARIGNIER, JEAN-FRANÇOIS; F., GAUDEMET, JEAN; eta MOLLAT, GUILLAUME. 1962. «Institutions ecclésiastiques» F. LOT eta R. FAWTIER (edit.). *Histoire des institutions françaises au moyen âge. 3. liburukia*. Paris: Presses Universitaires de France.

NÖRR, KNUT WOLFGANG. 1973. Die Kanonistische Literatur. COING, Helmut. *Handbuch der Quellen und Literatur der neueren europäischen Privatrechtsgeschichte*. München: C.H. Beck . I, 365-382 or.

- Die Entwicklung des Corpus Iuris Canonici. *Ibidem*, 835-845 or.

PLÖCHL, WILLIBALD MARIA. 1955. *Geschichte des Kirchenrechts. 2, Das Kirchenrecht der abendländischen Christenheit, 1005 bis 1517*. Viena: Verlag Herold.

-1959. 3, Das katholische Kirchenrecht der Neue Zeit. Erster Teil. Viena: Verlag Herold.

-1966. 4, Das katholische Kirchenrecht der Neue Zeit. II.Teil. Viena: Verlag Herold.

STICKLER, ALPHONS MARIA. 1950. *Historia iuris canonici, Institutiones academicae. 1. liburukia: Historia fontium*. Augustae Taurinorum: apud Custodiam librariam Pontif. Athenaei Salesiani.

TRUSEM, WINFRIED. Die gelehrte Gerichtsbarkeit der Kirche. Helmut COING. 1973. *Handbuch der Quellen und Literatur der neueren europäischen Privatrechtsgeschichte*. München: C.H. Beck . I, 467-504 or.

WAGNON, Henry. 1935. *Concordat et droit international. Fondement, élaboration, valeur et cessation du droit concordataire*. Gembloux: J. Duculot.

V

1.

ZESARRENA ZESARRI ETA JAINKOARENA JAINKOARI*

(Mt 22, 15-22)

(Mk 12, 13-17; Lk 20, 20-26)

¹⁵Fariseuek elkar hartu zuten, Jesusi galdera bat eginez tranpa jartzeko.

¹⁶Beraz, ikasle batzuk bidali zizkieten, Herodesen alderdikoe-kin, galdetzeraz:

Maisu, badakigu egizale zarena eta Jainkoaren bidea behar beza-
la irakasten duzuna; inoren zeresanak ez dizu axolarik, ez baitiozu begi-
ratzen gizakiaren itxurari. ¹⁷Emaguzu, bada, zeure iritzia: zilegi al da
Zesarri zerga ordaintzea, bai ala ez?

¹⁸Haien maltzurkeria igarriz, Jesusek esan zien:

Zergatik zatozkidate zirika, itxurazaleok? ¹⁹Ea, erakutsi zerga-
txanpona.

Haiek denario bat aurkeztu zioten. ²⁰Jesusek galdetu zien:

Norenak dira irudi eta izen hauek?

²¹Erantzun zioten:

Zesarrenak.

Jesusek orduan:

Eman, bada, Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari.

* Itzulpena: *Elizen arteko Biblia*. 2004. Bibli Elkarte Batuak-Elizen arteko Biblia Elkarte eta Euskal Herriko Elizbarrutia. Itun berria, 45. or.; 81. or.; 132. or.

²²Harriturik gelditu ziren erantzun honekin, eta Jesus bertan utzi eta alde egin zuten.

2.

DICTATUS PAPAE, GREGORIO VII (1075)*

1. Jainkoak soilik sortu zuen Erromako Eliza.
2. Soilik erromatar pontifizeari unibertsal dei dakioke eskubide osoz.
3. Soilik hark ken edo berrezar ditzake apezpikuak.
4. Haren mandataria, kontzilio batean, apezpiku guztien gaine-tik dago, haiekiko maila baxuagokoa izan arren, eta haien aurka depo-sizio epaia eman dezake.
5. Bertaratu gabekoak ken ditzake aita santuak.
6. Beste gauza batzuen artean, aita santuak eskumikatua den horrekin, ez gara ez berorrekin ez berorren etxean egon behar.
7. Soilik aita santuari zilegi zaio garaien arabera lege berriak ematea, kongregazio berriak biltzea, kalonjetza abadia bihurtzea eta alderantzizkoa, apezpikuteria aberatsa banantzea eta txiroak batzea.
8. Soilik hark erabil dezake intsignia inperiala.
9. Printze guztiek aita santuaren oinei soilik eman behar diete musu.
10. Haren izena soilik aipatu behar da elizetan.
11. Haren titulua bakarra da munduan.
12. Hark enperadoreak euren lekutik kentzen ahal ditu.
13. Apezpikuak sede batetik bestera alda ditzake, beharrezko izanean balitz.
14. Eliza guzietarik nahi duenerako ordena dezake apaiz bat.

* *Aita santuaren agindua*, Iturria: (Hofmann, Karl, ed. *Der «Dictatus papae» Gregors VII. Eine rechtsgeschichtliche Erklärung von Dr. Theol. Karl Hofmann*. Paderborn: Ferdinand Schöningh, 1933. 202-208 or.); Western Michigan University (AEB), <http://homepages.wmich.edu/~johnsroh/MedievalLatin/Texts/Dictatus.html> (2007ko urriaren 11n atzitua).

15. Hark ordenatu duena beste eliza bateko buru izan daiteke, baina ez meneko izan; eta ezin du goragoko maila bat hartu ezein apezpikuk emanda.

16. Ezein sinodori ezin zaio orokor deitu, ez bada haren aginduz.

17. Ezein kapitulu edo liburu ezin da kanoniko kontsideratu, ez bada haren baimenik gabe.

18. Inork ezin dezake haren hitza ezeztatu, ez bada hark soilik.

19. Inork ezin du hura epaitu.

20. Ez dadila inor ausartu kondenatzera sede apostolikoari apelazio egiten dion pertsona hori.

21. Eliza bakoitzeko auzirik garrantzitsuenetan hartara jo behar da.

22. Erromako Elizak ez du inoiz huts egiten, eta inoiz ez du hutsik egingo, Eskritura Santua lekuko.

23. Erromatar pontifizea, kanonikoki ordenatua izan bada, dudarik gabe santifikatua da, Done Petriren merituak medio, Enodio santuak, Paviako apezpikuak, dioen bezala, eta harekin ados direlarik hainbat Elizako Guraso. Hori agertzen da halaber Simako dohatsuaren dekretuetan.

24. Haren baimenaren eta aginduaren arabera, menekoek akusazioak egitea daukate.

25. Sinodoa bildu gabe, apezpikuak ken eta berrezar ditzake.

26. Erromako Elizarekin bat ez datorrena ez da katolikotzat hartuko.

27. Agintari bidegabeen menekoak haienganako fidelotasuna iza-teaz libra ditzake.

3.

GRAZIANO: CONCORDIA DISCORDANTIUM CANONUM (1140 ALDERA)*

3. Bereizketa

I. Zatia. Lege sekular mota anitz daude, konstituzio bat zibila zein elizakoa baita [...]

* Iturria: GILISSEN, John, *Introduction historique au Droit: esquisse d'une histoire universelle du Droit: les sources du droit depuis le 13 siècle: éléments d'histoire du droit privé*. Brusela: Bruylant, 146. or.

§ 1. Elizako konstituzioak² kanon izena dauka. Kanona zer den azaltzeko, Sevillako Isidorok *Etymologia*eko VI. liburuan honakoa dio:

C.I. Zer den kanona

Grezieraz *kanon* deritza, latinez *regula*³.

C.II. Zer dela eta deritzan *regula*

Regula deritza jarrera zuzena —eta ez beste modu batekoa— eragiten duen horri. Beste batzuek diotenez *regula* esaten zaio, bai gobernatzen duenari, bai zuzen bizitzeko araua⁴ ematen duenari, bai okerra edo maltzurra dena zuzentzen duenari.

II. Zatia. Graziano. Kanonez landa pontifizeen dekretalak eta kontzilioetako estatutuak daude. Kontzilioetako estatutuak unibertsalak zein probintzialak dira. [...]

§ 1. Badira lege pribatu batzuk, elizakoak zein sekularrak, pribilegio deitzen zaienak. Horien inguruan Isidorok *Etymologia*eko V. liburuan 18. kapituluari ondokoa esaten du:

C.III. Zer den pribilegioa.

Pribilegioak partikularren legeak dira, ia lege pribatuak. [...]

4.

GREGORIO IX.AREN DEKRETALAK, OHITURARI BURUZ (1234)*

IV. Titulua: Ohiturari buruz

XI. Kapituluari: Ohiturak ez du zuzenbide naturala edo jainkotia-rra indargabetzen, berorren urrapenak bekatura badarama; ezta zuzenbide positiboa ere, arrazoizkoa eta aginduzkoa denean.

* Iturria: GILISSEN, *Ibidem*, 147. or.

² *Constitutio*: legeak.

³ *Graziano regula eta norma* bereizten ditu. Lehena bere horretan latinez laga dugu, bigarrena, aldiz, *arau* itzuli da.

⁴ *Norma*.

5.

TRENTOKO KONTZILIOA, EZKONTZARI BURUZKO TAMETSI DEKRETUAK (1563)*

Trentoko Kontzilio Orokorraren kanon eta dekretu ekumeniko santuak, XXIV. bilera

Ezkontzaren sakramentuari buruzko doktrina

Giza espeziearen lehen gizonak —espiritu santuak emaniko senaren bidez— ezkontza loturaren izaera betierekoa eta haustezina deklaratu zuen, honakoa esan zuenean: «Ene hezurren hezur eta haragiaren haragi da»⁵. Ezkontza dela eta, gizonak —ama eta aita uzten dituelarik— bere emaztearekin bat egiten du, eta biak haragi bera izan diren dira⁶. [...]

II. Kanona: Anatema egiteagatik kondena bedi esaten duena kristauak aldi berean zenbait emazte izan ditzakeela, eta hori ez duela lege jainkotiarrek debekatzen.

XII. Kanona: Anatema egiteagatik kondena bedi esaten duena ezkontza arazoak ez dagozkiola eliz jurisdikzioari.

Ezkontzaren erreformari buruzko dekretua

Ezin da zalantzan jarri ezkutuko ezkontzak, alderdien adostasun aske eta borondatezkoarekin egin direnak, baliozkoak eta benetakoak direla, Elizak baliogabetzen ez dituen artean. Hortaz, anatema egiteagatik kondenatu behar dira, Kontzilio Santuak kondenatzen dituen moduan, ezkontza horiek benetakoak eta baliozkoak direla ukatzen duten horiek.

6.

CODEX IURIS CANONICI, ezkontzari eta dibortzioari buruzkoa (1917)**

1013. Kanona. § Ezkontzaren ezaugarri nagusiak batasuna eta bereizteztasuna dira, kristau ezkontzan irmotasun berezia hartzen dutelarik sakramentuak direla eta.

* Iturria: GILISSEN, *Ibidem*, 148. or.

** Iturria: GILISSEN, *Ibidem*, 149. or.

⁵ Genesisia, II, 23-24 [Gilissenen oharra].

⁶ Mateo, XIX, 5 [Gilissenen oharra].

1118. Kanona. Baliozko ezkontza ratua eta kontsumatua ezin du desegin botere gizatiarrak edo ezein kausak, heriotzak izan ezik.

VI

ZUZENBIDE KOMUNA

ZUZENBIDE KOMUNA

1.-Erdi Aro Goiztiarrean zuzenbide erromatarraren iraupena eta desagerpena

Ekialdeko erromatar inperioaren hondamendiak (476) ez zuen eragin inperioko zuzenbidearen desagerpena. Legeen pertsonaltasun-printzipioari¹ egotzi behar zaio desagertu ez izana. Inbaditzaile germaniarrek euren legeak erabiltzen jarraitu zuten arren, ez zizkieten komunikatu nahi izan —edo ez zuten jakin— inperio ohiko jendeei —*provincialesei*—. Aipatu den pertsonaltasun-printzipio hori dela medio, jende horiek erromatar zuzenbidea erabili zuten. Teodosio II.ak definitu zuen 429. eta 439. urteen artean erromatar jatorriko araudia; nolanahi ere, jatorria gorabehera, erregioetako ohitura nahiz praktiken onarpenak ekarriko aldaketak sumatzen zitzaizkion —zuzenbide erromatar arrunta, *Vulgarrecht*—. Bestalde, zenbait errege germaniarrek, bereziki printze bisigodo eta burgundiarrek, euren legeetan erromatar zuzenbide arrunta jaso zuten halaber; hala nola, *Edictum Teodorici* —Teodoriko II.arena (453-466)—, *Codex Euricianus* (475. urtearen ingurukoa), *Lex Romana Wisigothorum* edo *Alarikoren eskuliburua* (506), eta *Lex Romana Burgundiorum* (522), aurrekoa baino garrantzi txikiagokoa. *Alarikoren eskuliburua* ia bostehun urtez izan zen indarrean Frantziako hegoaldean. Espainiari dagokionez, bisigodoen azken araudiak, *Liber Iudiciorum*ek, zeharo erromatarturik, tokiaren arabera aldzka iraun zuen Erdi Aro Goiztiarrean zehar.

¹ Pertsonaltasun-printzipioa: talde bereiziei, euren izaeraren arabera (batez ere etniaren arabera) arau desberdinak aplikatzea.

Dena den, X. eta XI. mendeetan erromatar zuzenbidea praktikatzeari utzi zitzaion erabat.

2.- XII. mendetik aurrera erromatar zuzenbidearen berreskuratzea

Bi mende ilun horien ostean, erromatar zuzenbidearen egoera aldatu egin zen, XII. mendean bi modutan berreskuratu baitziren Italia-ko iparraldean eta erdialdean Justinianoren bildumako testuak: lehenik, orduan sorturiko zuzenbide-ikastetxeetan ikaskizun izan zirelako berraurkituriko testu horiek eta, bigarrenik, emeki-emeki, eta indar handiagoz edo txikiagoz, Erdi Aro Berantiarrean eta Aro Modernoan estatuetako araudi positiboetan erromatar zuzenbidea barnertzen joan zelako.

3. I.- Erromatar zuzenbidea ikasgai. Ikastetxeak eta metodoak

Zuzenbideak marjinalki iraun zuen Italiar penintsulan, aldiz, orokorki monasterio eta katedraletako ikastetxeetan: ikasketak *trivium*-aren barne sartzzen ziren, zehazki, erretorikaren eta dialektikaren barne. Pisan digestua aurkitu zutenean, eta justinianotar bildumaren gainerako testuak erabiltzen hasi zirenean, ikasketen egoera zeharo aldatu zen. Bolonian, Irnerio (1110. eta 1125. urteetan aipatua) eta bere dizipuluak testu horietaz arduratu ziren. Testu beraiek ikertu nahi zituzten, interes pragmatikoa tartean sartu barik, metodo berezi bat erabili-ta. Zuzenbide erromatarra zientzia autonomo bihurtu nahi zuten, baita lortu ere; dena den, Italian ikerketa horrek eragin praktikoa berehalakoa izan zuen, erromatar zuzenbidea *ius commune* kontsideratzen baitzen, eta hiri eta printzerrietako zuzenbidearen hutsuneak bete zitzakeen.

Helburuen eta metodoen aniztasuna izan zen Erdi Aroan eta Aro Modernoan sortu ziren hiru eskola nagusien ezaugarri nabarmenena. Bost mendez erromatar zuzenbidea izan zen zuzenbide ikastetxeetako eta fakultateetako ia ikasgai bakarra (Ingalaterran salbu, bertan Stephen erregeak haren irakaskuntza debekatu zuen 1149an). Honakoak dira eskola horiek:

- a) XIII. mendeko lehen erdian Irnerio eta bere dizipuluek nahiz Boloniako maisu handiek glosak erabili zituzten, esan nahi baita, hitz baten, esaldi baten edo testu juridiko oso baten inter-

pretazioak. **Glosalariek** eskuizkribuaren aldeetan nahiz lerro artean idatziriko azalpen laburren bidez burutzen zuten euren eginkizuna; alabaina, iruzkin egituratuagoak ere egiten ohi zituzten —*summa*—, edo zuzenbideko gai jakin bati buruzko analisiak —*quaestio*— ere. Zenbait maisuren obrek hedapen handia izan zuten, hala nola, Azzoren *Summak* edo Akursioren *Glossa ordinariak* edo *Magna Glossak*. Azken honek mende oso bateko lana burutu zuen, etorkizunerako derrigorrezko erreferentzia bilakaturik.

- b) XII. mendearen bigarren erdian eta XIII.aren lehenengoan unibertsitateek izan zuten hedapenak maisu boloniarrek unibertsitate berrietara joatea eragin zuen. Metodoa berritzearen hasiera ekarri zuen halaber, dialektikaren erabileran argumentazioa hobetu baitzen, bereziki Orléanseko unibertsitatean, bertan nabaritu zirelarik Jaques de Revigny —Jacobus de Ravenis— eta Pierre de Belleperche —Petrus de Bellapertica—. Azken honek bere erudizioa erabili zuen, kantziler moduan Felipe Ederriari Bonifazio VIII.arekin zuen eztabaidan laguntzeko. **Orléanseko eskolaren** idazkiek tokiko zuzenbidea moldatu zuten.
- c) Italiak osteria ere hartu zuen aurrea zientzian, zuzenbidearen ikerketa eta irakaskuntzan, eta aurrelari izaten jarraitu zuen XIII. mendearen bukaeran eta hurrengo bi mendeetan. Maisuek euren norabidea aldatu zuten: justinianotar testuen osotasuna —*ratio scriptatzat* hartuko zutena— ikertzen saiatuko ziren. Osotasun horretatik printzipio orokor batzuk ateratzen ahaleginduko ziren, printzipio horiek garaiko arazoan konponbiderako aplikagarriak izan zitezkeelarik. **Iruzingile, postglosalari eta bartolistek** sistema arrazional bat eratu zuten; horretarako, materialak sailkatzeko teknika bat erabili zuten, inferentziak eginez eta ondorioetara iritsiz, eta garaiko gizarteak eskaintzen zizkien kasu konkretuekin frogatzen zituzten ondoriook. Alderdi pragmatiko horrek pisua eman zien garaiko zuzenbidean, bai ohituzkoan nahiz berorren doktrinetan, bai jurisprudentzian.

Bolonia, Pavia eta Pisako unibertsitate italiarretan Zino Pistoiakoa eta, batez ere, Sassoferratoko Bartolo (1313-1357) nabarmendu ziren. Azken honi zor zaio estatutuen teoria —honek bide eman zion nazioarteko zuzenbide pribatuari— edo zuzene-

ko jabariaren eta jabari erabilgarriaren arteko bereizketa garrantzitsua. Bartolista saldo batek, nabarmenki haren dizipulu Ubaldisko Baldok, metodo horrekin, *mos italicus* deituko zenarekin, jarraitu zuten, bai italiar unibertsitateetan, bai XV. mendean Erromatar-Germaniar Inperio Santuaren baitan sortu ziren unibertsitateetan. Metodoaren akatsak gorabehera —testuen interpretazioan irizpide ezhistorikoak erabiltzea, autoritatearen printzipioaren gehiegizko pisua, estiloan dotoretasun eskasa, edo latin traketsa—, aipaturiko eremuan eta kontinentearen bazterretan gailendu zen.

- d) Erromatar zuzenbidearen bigarren berpizkundera Erdi Aroaren bukaeran eta XVI. mendean hasieran gertatu zen. Ikerketa metodoaren norabidean aldaketa garrantzitsua gertatu zen. Kultur berpizkunde orokorrak aukera eman zuten testu erromatar eta bizantziarrak garbi eta gehigarririk gabe interpretatzeko; izan ere, testuok, sortu ziren garaiko testuingurua kontuan hartuta interpretatu ziren. Latindar eta greziar filologiaren aurrerakuntzek eta erudizio historikoaren garapenak zuzenbidea zientifikoki aztertzea ekarri zuten, berehalako positibizazio batetik aldentuz, nahiz eta positibizazio hori ekialdeko Europan nabarmena izan. **Eskola humanista** edo **historikoak** —ez da nahasi behar Savigny eta beste autore batzuek XIX. mendean sortu zuten zuzenbide historikoko eskola alemaniarrarekin— *mos gallicus* metodoa zerabilen, Italian eta Espainian aplikatzen jarraituko zen *mos italicus*en kontrakoa. Zegokien testuinguru historikoan kokatuz, arau erromatarren zentzu argi eta garbia lortu nahi zuten, eta sistema klasiko eta postklasikoa berreraiki, gertaturiko aldaketak kontuan hartuta. Erabiltzen zen estilo eta adierazmodu zaindua juristek eginiko ahaleginaren ezaugarri da.

Eskola honetan nabarmendu ziren XVI. mendean Zasius alemaniarra, Alciato italiarra, eta Budé, Cujas eta Doneau jurista frantses handiak. Hurrengo mendean holandarrek hartu zuten lekuakoa, eta euren zuzenbidean sortzen ziren arazoak zuzenbide erromatarren bidez konpontzen saiatu ziren. Mende horretan bertan eta hurrengoan, XVIII. ean, Alemania bilakatuko zen erromanistika juridikoaren gune garrantzitsuenak. *Pandectasak* aztertzeko metodo modernoak, *usus modernus Pandectarum*ak,

herrialde horretan iruzkingileen *mos italicusa* alde batera uztea eragin zuen. Zuzenbide erromatarra, unibertsitateetan ikertzen zen ikasgaia baino haratagoko zerbait zen Alemanian. Erromatar inperioaren jarraitzailetzat hartzen zuten inperioan, auzitegiek ordezkoko zuzenbide kontsideratzen zuten. XIX. mendean, Alemaniak zientzia juridiko erromanistikoaren ikerketaren nahiz erabileraren zentro nagusi izaten jarraitu zuen, bertan nabarmendu ziren Savigny edo Mommsen lako juristak, eta pandektistika garatu zen.

3. II.- Mendebaldeko herrialdeetako antolamendu juridikoetan erromatar zuzenbidearen eragina

Ondoren aztertuko dugu, ikastetxeetatik haratago, mendebaldeko Europan zegoen benetako zuzenbidea, eta zein den erromatar zuzenbideak —unibertsitateetan ikertzen eta irakasten zen bakarra zelarik— haren garapenean izan zuen eragina. Egoera oso ezberdina zen herrialdeen eta une historikoen arabera.

Harrera adiera erabiltzen da europar herrialdeetako araudi positiboetan zuzenbide erkideak izan zuen errezeptzioa adierazteko. Funtssezko hiru arrazoi nagusik faboratu zuten harrera hori: arrazoi politikoak —erromatar zuzenbidearen egikera zesaristak monarkien absolutismoa berresten zuen—, ekonomikoak —diruan funtsaturiko ekonomia berrirako egokiago zen—, eta zientifikoak —nabaria zen bere formulazio teknikoaren gorentasuna—. Bestalde, europar mendebaldean unibertsitateak sortzeak gremio berri baten agerpena bultzatu zuen: *zuzenbidearen* —erromatar nahiz kanoniko— *aditu* edo *jakitunena*. Aditu horiek gizartean leku eragileak bete zituzten eta zuzenbidearen formazio eta aplikazioan hartu zuten parte. Horri guztiari gehitu behar diogu, justinianotar iturriek, obren bilduma nahiz iruzkinak, eta formularioek izan zuten zirkulazioa. Ikastetxeetan zuzenbide erkidearen tratamendu zientifikoak zientzia berri bati bide eman zion.

Italian adituen mailako zuzenbideak hirietako zuzenbide espezifikokoaren —*ius propriumaren*— ordezkoko zen *ius commune* izaera Erdi Aroan erdietsi arren, soilik XV. mendearen bukaeran lortu zen Alemanian Auzitegi Gorenak —Ganbera Inperialak— ordezkoko zuzenbide izaera ematea. Zuzenbide eruditua horren eragin zuzenak 1900era arte

iraungo zuen, harik eta alemaniar kode zibila indarrean ezarri zenera arte. Holandan, XVI. mendetik aurrera, Alemanian lain eragin izan zuen zuzenbide erromatarrak.

Frantziar Midin gailendu zen erromatar zuzenbidea, Parisen gortea zuen monarkiako erregeek XIII. mendean hegoaldeko lurraldea konkistatu baino lehen. Frantziar erregeek haren indarra errespetatu zuten ohiturazko izaerarekin eta ordezkoko zuzenbide moduan. Hortaz, Frantziako hegoaldea *pays de droit écrit* moduan ezagutuko zen eta, aldiz, erdialdeak eta iparraldeak *pays de droit coutumier* izena jasoko zuten, harrera ez baitzen haietara iritsi. Alabaina, frantziar monarkiaren indartzeak beharrezko egin zituen —gorte nahiz auzitegieta— unibertsitateetan ikasiak ziren *legelariak*. Hori dela eta, erromatar zuzenbideak pisu doktrinal nabarmena izan zuen iparraldean ere, ohiturazko arauen formulazioan, *coutumières* deritzenen idazketan, eta, batez ere, 1804an kodetze unea iritsi zenean.

Nobleen nahiz herriaren aurkakotasuna gorabehera, zuzenbide erkideak aurrera egin zuen Iberiar penintsulako estatuetan. *Alfontso X.aren Zazpi Partidak* edo Valentziako Furs-ak inspiratu zituen, eta Erdi Aroaren bukaeran Katalunian eta Mallorcan zuzeneko iturria —nahiz eta ordezkoko izan— bilakatu zen. Nafarroan XVI. mendean izan zuen izaera hori, eta Aragoin, berriz, azalekoagoa izan zen harrera.

Bibliografia eta iturriak

Sarrera orokorra

CALASSO, FRANCESCO. 1954. *Medio evo del diritto, 1, Le Fonti*. Milano: Giuffrè.

Cino da Pistoia nel VI centenario della morte. 1937. A cura del Comitato pistoiese per le onoranze. Pistoia: A. Pacinotti.

COING, HELMUT. 1973. *Handbuch der Quellen und Literatur der neueren europäischen Privatrechtsgeschichte*. München: C.H. Beck [I.- 1973, XXIV-911 (Erdi Aroko jakitunen zuzenbidea).- II.- 1977, XXVII-1033 (legeria eta zuzenbidearen zientzia Aro Modernoan).- III.1-1982 (zuzenbidearen kodifikazioa eta bildumagintza: oinarritzkoak 421-686 or., Scholz-enak, Espainiaren ingurukoak).- III.2.- 1982, (zuzenbide prozesal zibila). - III.3.- 1986. - III.4.- 1988, (Europako iparraldeko zuzenbidea).- III.5.- 1987 (Balkan eta Danubio aldeko herrialdeak)].

FEENSTRA, ROBERT. Droit romain au moyen âge (1.100-1.500). Gilissen, John (edit.), *Introduction bibliographique à l'histoire du droit et à l'ethnologie juridique/ Bibliographical introduction to legal history and*

ethnology. Brusela: Editions de l'Institut de sociologie, Université libre de Bruxelles, B/10.

GILISSEN, JOHN, *Introduction historique au Droit: esquisse d'une histoire universelle du Droit: les sources du droit depuis le 13 siècle: éléments d'histoire du droit privé*. Brusela: Bruylant

IGLESIAS, AQUILINO. 1996. *La creación del Derecho: antología de textos. Tercera edición corregida y aumentada*. Madril: Marcial Pons.

KOSCHAKER, PAUL. 1953. *Europa und das römische Recht*. 2. argitalpena. München: C.H. Beck.

MEIJERS, EDUARD MAURITS. L'Université d'Orléans au XIIIe siècle. *Etudes d'histoire du Droit*, t. III: 3-148 or.

PÉREZ MARTÍN, ANTONIO; SCHOLZ, JOHANNES-MICHAEL. 1978. *Legislación y jurisprudencia en la España del Antiguo Régimen*. Valentzia: Publicaciones de la Universidad de Valencia.

PETIT, CARLOS. 1982. Derecho común y Derecho castellano. Notas de literatura jurídica para su estudio,

Tijdschrift voor Rechtsgeschiedenis 50:157-195.

WIEACKER, FRANZ. 1967. *Privatrechtsgeschichte der Neuzeit, unter besonderer Berücksichtigung der deutschen Entwicklung*. 2. argitalpena. Göttingen: Vandenhoeck & Ruprecht.

WESENBERG, GERHARD; WESENER, GUNTER. 1985. *Neuere deutsche Privatrechtsgeschichte im Rahmen der europäischen Rechtsentwicklung*, 2. argitalpena. Wien-Köln-Graz: Böhlau.

Vinogradoff, Paul. 1994. *Roman law in medieval Europe*. Holmes Beach (Fla.): WM. W. Gaunt.

Accursio, Azzo eta Plazentinori eta glosei buruz

Corpus glossatorum iuris civilis, curante Juris italici historiae Instituto Taurinensi Universitatis, [1966 ondoren agerturiko 11 liburuki. 2. eta 3. liburukien barne daude Bologniako Azzoren lan nagusiak, 7.-11. liburukietan Corpus Iuris Civilisaren bost liburukiak eta Accursioren *Glossa*].

WEIMAR, PETER. 1973. Die legistische Literatur der Glossatorenzeit. Coing, Helmut (ed.) *Handbuch der Quellen und Literatur der neueren europäischen Privatrechtsgeschichte*, t. I, 129-260 or.

Atti del Convegno internazionale di studi Accursiani. 1968. G. Rossik argitaratua. 3 liburuki. Milano.

PERRIN, S. W. J. 1972. Azzo, Roman Law and Sovereign European States, *Studia Gratiana*, t. 15: 87-101 or.

Tourtoulon, Pierre de. 1890. *Placentin, sa vie, ses oeuvres*. Paris : Chevalier-Marescq [1972].

Orléanseko unibertsitatea, Révigny eta Bellaperche

MEIJERS, EDOUARD MAURITS. L'Université d'Orléans au XIII^e siècle. *Etudes d'histoire du Droit*, t. III, 3-148 or.

Actes du Congrès sur l'ancienne université d'Orléans (Orléans, 1961). 1962. Orléans: Impr. De Bourdon Blanc (M. Boulet-Sautel, R. Feenstra, E. Genzmer, eta abarren artikulua).

RÉVIGNY, JACQUES. 1519. *Lectura super Codice*. Paris [1967. Bolonia, *Opera iuridica rariora*, t. I]

Bellapertica, Petrus de. 1571. *Commentaria in Digestum novum, Repetitiones variae*. Francofurti ad Moenum del Main.

- *Quaestiones vel distinctiones*. 1970. Bolonia: A. Forni [1968-1972. *Opera iuridica rariora*, t. 7, 10 eta 11]

Iruzkingileak: Zino, Bartolo

HORN, NORBERT. 1973. Die legistische Literatur der Kommentatoren und der Ausbreitung des gelehrten Rechts. Coing, Helmut (ed.) *Handbuch der Quellen und Literatur der neueren europäischen Privatrechtsgeschichte*. München. t. I, 261-364 or.

Bartolo da Sassoferrato. *Studi e documenti per il VI centenario*. 1962. 2 liburuki. Milano: Giuffrè.

ACCADEMIA NAZIONALE DEI LINZEI. 1975. *Cino de Pistoia*. Roma: Accademia Nazionale dei Linzei.

Eskola humanistikoa edo historikoa

KISCH, GUIDO. 1969. *Gestalten und Probleme aus Humanismus und Jurisprudenz*. Berlin: W. de Gruiter und C.

PIANO MORTARI, VINCENZO. *Diritto romano e Diritto nazionale in Francia nel secolo XVI*. Milano: A. Giuffrè.

TROJE, HANS ERICH. 1977. Die Literatur des gemeinen Rechts unter dem Einfluss der Humanismus. Coing, Helmut (ed.), *Handbuch der Quellen und Literatur der neueren europäischen Privatrechtsgeschichte*, t. II, 615-795 or. München

-1971. *Graeca leguntur. Die Aneignung des byzantinischen Rechts und die Entstehung eines humanistischen «Corpus iuris civilis» in der Jurisprudenz des 16. Jahrhunderts*. Köln-Wien: Böhlau Verlag.

Araudi positiboetan erromatar zuzenbidearen harrera

COING, HELMUT. 1964. Römisches Recht in Deutschland. *Ius Romanum Medii Aevi*, V liburukia.

HORN, NORBERT. 1973. Die legistische Literatur der Kommentatoren und der Ausbreitung des gelehrten Rechts. Coing, Helmut (ed.). *Handbuch der Quellen und Literatur der neueren europäischen Privatrechtsgeschichte*. t. I, 261-364 or. München.

FONT RIUS, JOSÉ M. 1967. La recepción del Derecho romano en la Península Ibérica durante la Edad Media. *Recueils de mémoires et*

travaux publiés par la Société d'Histoire du Droit et des Institutions des anciens pays de droit écrit. Fasc. VI: 85-104. Montpellier.

GOURON, ANDRÉ. 1966. Enseignement du droit, légistes et canonistes dans le Midi de la France à la fin du XIIIe. et début du XIV siècle. *Recueils de mémoires et travaux publiés par la Société d'Histoire du Droit et des Institutions des anciens pays de droit écrit*. t. 5 : 1-33. Montpellier.

IGLESIAS FERREIRÓS, AQUILINO, 1992, La recepción del derecho común: estado de la cuestión e hipótesis de trabajo. *El dret comú i Catalunya*, Actes del II Simposi Internacional, Bartzelona.

GARCÍA Y GARCÍA, ANTONIO. 1991. Derecho común en España. Los juristas y sus obras. *Cuadernos 23*, Murtzia: Publicaciones de la Universidad de Murcia.

LALINDE ABADÍA, JESÚS. 1986. El derecho común de los territorios ibéricos de la Corona de Aragón. *España y Europa, un pasado jurídico común*. I. lib. Murtzia.

LÉVY, J. PH. 1957. La pénétration du droit savant dans les coutumiers angevins et bretons au moyen âge. *Tijdschrift voor Rechtsgeschiedenis*, 25: 1-53 or.

PÉREZ MARTÍN, ANTONIO. 1993-1994. El Derecho común en Castilla durante el siglo XIII. *Glossae*, 5-6. Murtzia: Instituto de Derecho común, Universidad de Murcia.

VI

1.

ACURSIO: GLOSA ORDINARIA (Codex I, 1, 1-ean agertzen den quos hitzari buruz [1250 urtearen inguruan])*

Argumentua ondokoaren inguruan: Boloniako hiritarra Modenan zitatzten bada, ez da epaitu behar Modenako zuzenbidearen arabera, ez baitago berorren menpe; ezen testuak dioenez, «horiek gure aginpidearen bihozberatasunak zuzen bitza»². Testu honek aditzera ematen du enperadoreak ez duela herri guztien gainean agintzen [...]

ZINO PISTOIAKOA, IN CODICEM DOCTISSIMA COMMENTARIA (1325 urtearen inguruan)

Soilik geratzen zaigu honakoa itauntzea: badugu hemen glosa bat, eransketa bat izan zena, eta ondokoa dioena: «Argumentua ondokoaren inguruan: Boloniako hiritarra (...)», eta abar. Glosa hori hemen aipatzen dugu honako hitzok direla eta: «horiek gure»³. Hitz horiek

* Iturria: GILISSEN, John, *Introduction historique au Droit: esquisse d'une histoire universelle du Droit: les sources du droit depuis le 13 siècle: éléments d'histoire du droit privé*. Brusela: Bruylant, (VII. 1: 351 or. eta VII 2: 352) .

2 *Quos nostrae clementiae regit imperium*, «horietan inperioa gure bihozberatasunak zuzentzen du».

3 *Quos nostrae*.

direla-eta ikus genezake hiri jakin bateko estatutuek nola eta noiz behartzen duten atzeritar bat.⁴

Ikus dezagun orain nola behartzen duten (hiri bateko) estatutuek (atzeritarra) deliturik eta kontraturik ez dagoenean. Demagun Bolonian badela ohitura bat edo lege bat dioena testamentu bat ez dela baliozkoa ez baldin bada hamar lekukoren aurrean egiten. Florentzian zuzenbide erkidea aplikatzen da (=erromatar zuzenbidea). Bolonian eta Florentzian ondasunak dauzkan pertsona batek testamentua egin du zazpi lekukoren aurrean eta Tizio izendatu du jaraunsle. Tizio Boloniarra dator, testamentugileak utziriko ondasunak eskatzen ditu, eta testamentua erakusten du. Ondasunen edukitzaileek objektzio egiten diote, esanez testamentua ez dela baliozkoa, hamar lekuko izan behar dituelako. Zein hiriko lege edo ohitura aplikatu behar da?

Zer esan daiteke? Speculatorrek (Guillaume Durantek) gai hori ohiko moduan aztertu du, ez delarik ezerekin ados, eta iritzi ezberdinak jasoz bere «Speculum iuris»-ean.

Jacques de Révigny dio testamentuzko jaraunsleak Florentziako ondasunak jasotzen ahal dituela; baina Boloniako ondasunak *ab intestato* jaraunsleei dagozkie, beti kontuan hartu behar baita ondasunak dauden lekuko ohitura. Argumentuak: 26.5.27 Digestua eta 26.7.47.2. Digestua. Baina haren iritziauren aurka: 50.17.7 Digestua: gure zuzenbideak (=erromatarrak) ez du onartzen zati batean testamentuzkoa eta beste batean testamentu gabekoa den jaraunspena, ondasun militarren kasuan izan ezik.

Horri erantzun behar diot egia dela zuzenbide idatziaren (=erromatarraren) kasuan, uniforme baita; baina zilegi da ohiturazko zuzenbidearen edo hiri-legeen arabera, ez baitira uniformeak, aldiz, leku batetik bestera aldatzen dira. Azken horien arabera posible da ohituren eta legeen aniztasunagatik, beste kasu batean, gurasoen aniztasunagatik (hau da, naturalak eta adopziozkoak dira) (1.7.22 digestua). Arrazoiketa horren arabera edonor hil liteke bi testamenturekin, bata, Florentziako ohituraren arabera, bestea, Boloniako ohituraren arabera. Pierrek (Belleperche-koak) gauza bera dio horren gainean.

Eranskina: Duela gutxiko zenbait autorek diote testamentuak izendaturiko jaraunsleak ondasun guztiak izan behar dituela, kontuan

4 Hemendik aurrera frantsesetik itzuli da; Gilissenen testuliburutik.

izan behar baita testamentua non egin zen eta testamentuak zer dioen, nahiz eta ondasunak beste leku batean egon. Horri zuzenagoa deritzot. Zino.

2.

SASSOFERRATOKO BARTOLO: SUMMA CODICIS, ohituraren esanahiari buruzkoa (1350)

LIII. Titulua: Iraupen luzekoa izan dadila ohitura

4. Lehenik itauntzen dut ohitura zer den. Azzok bere *Summan* erantzuten du ohitura dela zuzenbide ez idatzia, luzaroan herriaren usedioek berretsia. (*Esandakoaren alde Digestuko testu batez baliatzen da: I, 3, 32, «de quibus...» hasten dena eta § 1 «inveterata» jarraitzen du, ondoren Institutiones-eko testu bat aipatzen du, I. lib., II. tit. § 9, honela hasten dena: «Ex non scripto ius venit, quos usus comprova-bit»*)⁵. Jacques de Are-k definizio hori errefutatzen du, bai Azzok bere definizioan hitz funsgabeak darabiltzalako, bai ohitura —hark dioenez— zuzenbide ez idatzia delako, azpimarratzen duelarik [*aurrekoak*] funtsik gabeko hitzak direla, ohituraren esentzian baitago idatzia ez izatea: neronek jada zuzenbidearen kasuan esan dudana guzua bera.

5. Bigarrenik, galdetzen dut ea zein den zuzenbide erkidearen eta ohituraren artean dagoen diferentzia. Erantzuna da, idatziaren eta ez idatziaren artean dagoen diferentzia lakoa dela, legearen esentzia da idatzia egotea, eta, ohituraren esentzia, idatzia ez egotea.

3.

ALFONTSO X.AREN ZAZPI PARTIDAK*

ALFONTSO BEDERATZIGARRENA ERREGE TXIT NOBLEAREN HITZAURREA, PARTIDEN JASOTZEARI BURUZ

Jainkoa da guzua guztien hasiera, eta bitartekoa, eta bukaera, eta bera gabe ezer ezin da izan, ezen guzua guztiak baitira bere botereak

⁵ Gilissenen azalpena.

* Iturria: *Las Siete Partidas del sabio rey Alfonso el nono* [«Alfonso el nono» beza-la agertzen den arren, izenbururako Alfontso X. itzuli da, izen horrekin baita ezaguna] Valladolid, 1587, edizio faksimilea, eta Aquilino Iglesias-en edizioa, *La creación del Derecho: antología de textos. Tercera edición corregida y aumentada*. Madril: Marcial Pons. 124-127 or. Bi edizioak kontuan hartuta osatu da itzulpena.

eginak, eta bere jakituriak gobernatuak, eta bere onberatasunak gordeak. Hortaz, ekintza onen bat hasi nahi duen pertsona orok, lehenik Jainkoaren aurrean ezarri behar du ekintza hori, eta arren mesede eskatu, jakituria, borondatea eta ahalmena eman biezazkio, ekintza hori ongi burutzea izan dezan. Eta, horrela, neu, don Alfontso, Jainkoaren graziaz Gaztelako, eta Toledoko, eta Leongo, eta Galiziako, eta Sevillako, eta Kordobako, eta Murtziako, eta Jaengo, eta Algarbeko errege, antzemandak zein toki garaia jaso duten Jainkoarengandik errege-erreginek munduan, eta modu askotan harengandik jasotzen dituzten onurak, eta zein ohore handia eskaintzen dien haiei errege-erregina dei dakien nahi duenean, hori baita euren izena. Eta, bestalde, eurak jaun diren herrialdeak mantentzeko egin behar duten justizia, euren eginkizuna baita, eta jakinda, ez balute egingo, zer nolako zama pairatu beharko zuketean, ez soilik Jainkoarenganako beldurragatik, hain boteretsua eta arteza baita, eta haren boterepean amaituko baitute, eta harengandik ezin baitute ezer inolaz ere ezkutatu, ezta desenkusatu ere, gaitzik egin izanen balute, ez dezatela jaso merezi izanen luketen zigorra soilik, baizik eta are gehiago munduko jendeari egiten zaion laidoagatik, jende horrek zuzenbidez baino borondatez epaitzen baitu. Eta arreta handiarekin saihestu izan ditugu laido horiek eta horietarik letozkeen zigorrak. Eta, bestalde, Jainkoak egin zigun mesede hain handia, eman zigun leinuatik, jarri gintuen tokiagatik, horrenbeste jende onen —eta horrenbeste erreinuren— jaun egiterakoan, hark horiek gure mende ezartzea nahi izan baitzuen. Bilatu izan dugu modua geuk, eta gure ondoren gure jauerrerrian agindu beharko dutenek, legeak ezagutzeko, herriak justizian eta bakean edukitzearren; eta, bestalde, gizakien ulermena era askotakoa delarik, ulertzeko modu bakarrean bat egin dezagun; horrela, modu benetakoa eta zuzenean ezagut dezagun lehenik Jainkoa, harenak baitira gure gorputz eta arimak, guztion jaun baita; eta, halaber, jaun mundutarrek ezagut ditzaten, haiengandik onurak jasotzen baitituzte modu anitzetan, bakoitzak bere egoeraren eta merezimenduaren arabera; gainera, ontzat hartuak izateko egin beharrekoak egin ditzaten ere; eta saihestu ditzaten gaizki eginak, hartatik gaitzak etor bailekizkieke. Eta gizakiek gauza horiek guztiak ezin ditzaketenez osoki egin, ez bada bakoitzak jakinez zein den bere egoera, eta bertan egitea komeni dena, eta zer ez duen egin behar, ezagutuz obeditu beharreko gauzen egoera, horregatik guztiagatik, horren gaineko gauza eta arrazoi guztiez minztatuko gara. Hartarako egin genuen liburu hau, honetaz balia gintezan

bai geu, bai gure ondoren datozenak, gauzak ezagutuz eta ziurtasunez haietara joz, ezen asko komeni zaie errege-erreginei —eta bereziki erresuma honetakoei— entendimentu handia izatea gauzak diren beza-la ezagutzeko, eta bereizteko zuzena eta okerra, egia eta gezurra. Ezen hori ezagutzen ez duenak ezin du justizia egin ongi eta osoki, bakoitzari komeni zaiona eta merezi duena osoki ematean baitatza justizia. Gure jendea zeharo leiala eta bihotz onekoa denez, horregatik beharrezkoa da egiaren bidez mantentzea leialtasuna eta, zuzenbidearen eta justiziarren bidez, bihotzen indarra. Ezen errege-erreginek jakinez gero gauza benetakoak eta zuzenak zeintzuk diren, orduan egingo dituzte, eta ez diete lagako gainontzekoei haien aurka egiten; Salomon erregeak esan zuen moduan, oso jakintsua eta arteza baitzen: erregea bere justizia-aulkian igotzerakoan, berari men eginez gaitz oro konponduko zen. Ezen berak ulertuz gero, bere burua eta gainerako pertsonak kaltetik babestuko baititu. Eta arrazoi horregatik egin genuen bereziki liburu hau: gure jaurerriko errege-erreginek bertan ispiluan legez ikus dezaten, eta konpondu beharrekoak ikus eta konpon ditzaten, eta horren arabera gainontzekoetan ere egin dezaten. Baina hori erakusteko moduko hainbeste arrazoi, ezta horren onak ere, ezin genituenek guk aurkitu gure ulermenaren eta adimenaren bidez, eta halako obra handi bat betetzeko, gure Jaunaren eta beronen seme gure jaun Jesukristoren mesedera jo genuen —haren ahaleginarekin hasi baikinen—, eta haren ama Maria Ama Birjinarenera, haren zein haren gorte zerutiarraren eta gure arteko bitartekari baitzaigu; haiek esandakoez landa, jakintsuek esaniko berba eta arrazoi onak hartu genituen, gauzak modu arrazoigarrian ulertu baitzituzten, naturaren arabera; eta hartu genituen, halaber, epaitu behar izan zuten lurretan jaun handiek eta zuzenbidearen beste ezagutzaile batzuek egin zituzten lege eta foru onetan esandakoak. Eta horietako gauza bakoitza jarri genuen dagokion lekuan, eta horretara eroan gintuzten bereziki honako hiru gauzek: lehenik, gure aitak, Fernando txit nobleak eta zorionekoak, justizia eta zuzentasun osokoa zenak, hark egin nahi izanen zukeen, luzeago bizi izan balitz, eta guri egitea agindu zigun. Bigarrenik, geure ostean aginduko dutenei laguntza eta adorea emateko, erresumak mantentzeak dakartzan lazeriak hobe paira ditzaten, hori ongi egin gura dutenek. Hirugarrenik, jendea-ri zuzenbidea eta arrazoia ezagutzeko modua ematearren, eta okerrik eta hutsik egitea saihesten dezan jendeak, eta jakin dezan gure ostean datozen gainontzeko errege-erreginak nahiz jaunak maitatzen eta obe-

ditzen. Liburu hau San Juan bezperan hasi ziren egiten, gure erreinaldia hasi eta lau urte eta hogeita hiru egun igaro ondoren, berau hasi zelarik Adamen garaia bost mila urte eta berrehun eta laurogeita zazpi egun hebrear eginak zituenean, eta zazpi urte geroago amaitu zen. [...] Kontu honetan bereiziak diren onura horiek ematen dizkiguten arrazoiak direla eta, liburu hau zazpi ataletan bereizten dugu. Lehen atalean fede katolikoari dagozkion gauza guztiez mintzatzen gara, gizakiari Jainkoa ezagutarazten diotenez sinesmen bidez. Bigarrenean aztertzen dugu enperadoreei, eta erregeei, eta beste jaun handiei, zer komeni zaien egitea, bai euren berei nahiz egiten duten horretan, gehiago balio dezaten, bai eurak, bai euren erresumak, bai, bestetik, euren ohorea, eta euren lurak ugarituak eta mantenduak, eta euren borondateak (zuzenbidearen arabera) euren jaurerriko jendearenarekin bat egin dezan, eta on egin dezan. Hirugarrenean, gizakiak elkarren artean bakean bizitzea ahalmentzen duen justiziaz arituko gara, eta horretarako beharrezkoak diren gauzez, bai epaileez, bai personeroez⁶, bai lekukoez, bai ikerketez, bai eskriturez, bai gorakoez, bai zorrez. Laugarrenean, ezkonhitzez, ezkontzaz, berorri dagozkion gauzez, eta bertatik jaiotzen diren seme-alaba legitimoez, baita gainerakoez ere, edozein delarik ere horiek sortzeko eta ezagutzeko modua, eta gurasoek seme-alabengan duten boterea, eta horiek gurasoekiko bete behar duten obedientziaz, eta basailuez, eta feudoez, azken horietan, naturaren arabera, leinuarenganako maitasun handia sortzen baita, eta, bestalde, mirabeen eta nagusien artean nahiz morroien eta jaunaren artean betebeharra dago, eta txikiek handiengandik jasotzen duten ongiagatik eta jauntasun arrazoiengatik betetzen dituzte egin beharreko horiek, gauza bera, handiek besteengandik jasotzen dituztenak direla eta. Bosgarrenean, pertsonak elkarren artean egiten dituzten kontratuez, eta maileguez, eta dohaintzez, eta erosketez, eta trukeez, eta alokairuez, eta errentamenduez, eta merkatariez, eta merkatuez, eta feriez, eta bidesariez, eta obligazioez, eta bahiturez, eta fidantzez, eta ordainketez, eta gizakiek elkarren artean egiten dituzten gainontzeko auzi eta abenikoez, bi alderdiak kontent direlarik; batzuk baliozkoak direlarik, besteak ez. Seigarrenean, testamentuez, eta kodiziloek, eta jaraunspenez, eta umezurtzen mantenuaz, eta horiei dagozkien gauzez. Eta, zazpigarrenean, mintzatuko gara akuzazioez, eta tregoez, eta babeslekuez eta desfioez, eta traizioez, eta fal-

6 *Personero*: besteren auziekin diharduen prokuradorea.

tsukeriez, eta ebasketez, eta lapurretez, eta erreketez, eta erailketez, eta adulterioez, eta gizakiek egiten dituzten maltzurkeria guztiez, eta zigorez, haiek direla-eta merezi dituzten eskarmentuez. Eta modu horretan burutzen da justizia osoki. Ezen pertsona onek egiten dituzten gauzek onurak eta saria merezi duten bezala, gaizkileek zigorra jaso behar dute euren maltzurkeria dela eta. Hortaz, liburu honen zazpi atalei guztiei buruz hausnarketa egin nahi duenak hemen topatuko ditu —ongi eta osoki— arrazoi guztiak beharrezkoak gizakiak jainkoarenganako duen maitasuna biltzeko, fede eta sinesmen bidez egiten baita hori, eta, hala-ber, gizakiek elkarren artean dutena batzeko, hori justizia eta egia bidez erdiesten baita.

VII-VIII-IX
IRAULTZA DEMOKRATIKOAK

VII

INGALATERRA

INGALATERRAKO ZUZENBIDEA

Egun Ingalaterra den lurraldean zeltak bizi ziren, erromatarrek, Julio Zesarrek gidatuta, K.a. 55-54an konkistatu zutenean. **Inperioarekiko mendetasunak** K.o. 430. urtera arte iraun zuen, orduan hasi baitzen erromatar funtzionario eta gudarosteen erretreta. Erromatarrek alde egiterakoan, euren zuzenbidearen praktika ere amaitu zen. Erromatar zuzenbidea laster ordeztu zuten inbaditzaile germaniarren — anglo, saxoi eta jutuen— ohiturek, eta aurrerago, IX. eta X. mendeetan, Ingalaterrako ekialdeko eta iparraldeko eremu zabal batean, daniar konkistatzaileen zuzenbideak —*Danelawak*—.

1.- Normandiar konkista

597tik **Normandiar konkistara** arte anglosaxoien garaia izan zen. Anglosaxoi gizartea lau mailatan banatzen zen. Elizarekin harreman estua zuelarik, gudarosteengan agindu eta justizia egiten zuen oinordetzako errege batek zuzentzen zuen gizartea. Ahalmen handiko biltzar orokorraren —*witenagemotaren*— zuzendari zen halaber. Baziren beste biltzar batzuk, lurralde esparruen arabera —txikienetik handienara: *township*, *hundred* eta *shire*—. Pertsona bat hiru modutara izan zitekeen lurraldean jabe: titulu idatziz, ohiturazko zuzenbidearen arabera, edo emakida moduan. Zuzenbidea funtsean ohiturazkoa zen, eta justizia oraindik ere pribatua zen, publikorako bidean zen arren,

erregearen bake deritzan kontzeptua hedatu ahala garatzen baitzihoan. Prozesu penal edo zibilean eginkizun handia zuen errugabetasun nahiz frogagarritasun zin-egiteak —*compurgationak*—, eta ahaideek edo, geroago, hamar etxaldeko *tithing* multzoek, taldetik kanpoko bati beraietako edozeinek egindakoagatik erantzukizun solidarioa edo man-komunekoa zuten —*tithingaren* kasuan erantzukizun horri *frankpledge* deritza—. Zuzenbidea honakoetan gauzatzen zen: egintza pribatueta, lurren emakida gutunetan, edo *doometan* —hau da, indarrean zen zuzenbideari buruz, alderdien aurrean erregeak egiten zituen deklarazioak, edo arau berriak, normalean zuzenbide publikokoak—. *Doom* aipagarrienak Alfred erregearenak (600. urtearen inguruan) eta Kanuto erregearenak (1029 inguruan) dira.

1066an William Normandiako dukea **ingelesez errege** izendatua izan zen. Hastingsen Harold erregea garaitu ostean, dukeak ingeles zuzenbidea berretsi zuen; hala ere, ordenamendua zenbait modutan berritu zuen: batetik, herrialdean zehar kontinenteko feudalismo modua eta barioen auzitegi sistema ezarri zituen eta, bestetik, eliz auzitegiak eta auzitegi zibilak bereizi egin zituen. Eliz auzitegiak, kontinentean bezala, ezkontza gaiez, legitimazioaz eta kleroaren gai orokorrez arduratu ziren ordutik aurrera. Eskumenetan berrikuntza hori ezartzeko baldintzapean eman zion aitasantutzak konkistari babesa. Gobernu zeharo zentralizatu bat izateak posible egin zuen Williamek *Domesday Book*en jasotzen den inkesta itzela burutzea. Inkesta horretan jasotzen dira erregearen jabetzak eta herritarren ondasunekiko dituen zerga eskumenak; beraz, gizartearen eta klaseen egitura nahiz jabegoarena berarena eza-gutzeko dokumentu aparta da.

2.- *Common Law*: erret eskumenak, *writak*, aurrekasuak eta zinpekoen epaimahaia

Aurreko garaian sustraitzen den arren, orduan hasi zen hezur-mamitzen *Common Law*a, Ingalaterrako ohiturazko zuzenbidea. Ez du batere zerikusirik kontinenteko Europako *Ius Commune*arekin, hau da, erromatar zuzenbidearen ikasketan oinarritzen zen zuzenbide eruditua-rekin. Errege eskumenetatik —*judge-made law*— erartortzen den zuzenbidea da *Common Law*a; ohitura orokorretik abiatu, berau interpretatu eta garatu egiten zen. Askoz ere garrantzi txikiagoa zuen erregeak bil-tzarrekin batera egiten zuen zuzenbideak —*acts* eta *statutesek*—.

Williamen ondorengoan erregealdietan —Henry I.arenen (1100) eta Henry II.arenen (1189)— hasi ziren *Common Law*aren hiru ezaugarri nagusi: a) erret jurisdikzioa, b) jurisdikzio hori hedatzeko erabiltzen zen modua, hots, *writ* edo aginduak, eta c) aurrekasuen edo epaituriko kasuen balioa. Laugarren ezaugarri bat gehitu behar zaie aurrekoei, erakunde berezi bat: d) zinpekoen epaimahaia.

a.- Erret jurisdikzioa

Erret jurisdikzioari dagokionez, *Curia regisean* du jatorria. Berau noble garrantzitsuenek, artzapezpikuek eta apezpikuek osatzen zuten, eta organo politiko eta judiziala zen. Hiru instantzia judizial eratortri ziren bertatik: lehenik, erregearen epai-aulkia edo *King's Bench*; erregeak berak ala *justiciar* batek zuzentzen zuen auzitegi hori, eta erresumako bakea oztokatzen zuten auziez ziharduen. Bestetik, *Court of the Exchequer*, altxor publikoaren inguruko gaien gainean ziharduen auzitegia. Eta, azkenik, *Court of the Common Pleas* edo *Common Bench*, banakoen arteko auzien inguruan ziharduena, bereziki, lurren jabegoaren gainean sortzen ziren auzien inguruan. Erregeak bere epai-leak komisionaturik bidaltzen zituen, finkoak ziren zirkuitu batzuk jarraituz, gorteko kasuak azter zitzen. Garai horretan sortu zen *writ* edo aginduen sistemari esker, erret auzitegien jurisdikzioa etengabe handitzen joateak bereizten du Ingalaterrako zuzenbidea. Ingalaterran epai-leak —*judges*—, abokatuak —*barristers*— eta prokuradoreak —*solicitors*— ez dira izanen legelari eruditua, Europako gainerako lekuetan gertatuko den moduan, jardunean trebaturiko zuzenbidearen praktikatzaileak baizik.

Garai honetakoak, 1164koak, dira Clarendongo 16 konstituzioiak; horien arabera apaiz delitu-egileak erret auzitegiek —eta ez eliz auzitegiek— epaituak izan behar ziren. Bestetik, jaunen auzitegiek jardunean jarraitzen zuten —*manorial courts*—.

b.- *Writ* edo aginduak

Erregearen menpekoek harengandik justizia eska zezaketen. Eskaera aztertzen zen eta, taxuzkoa iritsiz gero, idatzi —*writ*— bat igortzen zitzaion lurraldeko erret ofizialari. Idatzi horretan ofizialari agindua ematen zitzaion, honek eskatzailearen erreklamazioa betearaz ziezaion demanduari. Demandatuak ez bazuen betetzen, edo ez bazion bere jarrerari justifikazioa ematen zuzenbide mailako zehazta-

penekin, erregearen agindu bat desobeditzen zuen. Hasiera batean idatzi kasuistikoak ziren, baina azkenean prozesu formula abstraktu bilakatuko ziren. Hortaz, erregearen agindu forma zuten justiziako egin-tzak ziren. 80 inguru ziren 1187an, *De legibus et Consuetudinibus Regni Angliae* jaso zirenean —bertako *writak*, auzia has zedin, auziak aurrera egin zezan, eta gutxi batzuk ebazpena betearazia izan zedin ziren—. 1320an 830 inguru ziren jada, eta 2.500 inguru 1531an. *Written* hazkundeak erregearen justiziaren gailentasuna suposatzen zuen arren, jaunen justizia mehatxatuak ez zuen lortu haien hedapena gelditzea eta mugatzea.

Bestalde, XII. mendeko bigarren erdian *assizeak* ditugu. Termino honek legearen historian adiera anitz dauzka: auzitegi edo biltzar baten saioa, hartzen diren erabakiak, horiei jarraitzen dien prozedura, eta abar.

c.- Aurrekasua

Epaileek hasiera batean erresumako antzinako ohitura orokorra —*general immemorial custom of the realm*— aplikatzen zuten. Geroago, soilik 1189tik aurreko ohiturak kontsideratu ziren antzinako. Nolanahi ere, epaileek aurreko kasuetatik eratorririko arauak kontuan eduki beharrak —*stare decisis* deritzan printzipioak— praktikan garrantzi handia izan zuen *Common Law*aren garapenean. Abokatuek epaileari gogoraraz ziezaioketen auzi jakin bat lehenago modu konkretu batean ebatzia izan zela. Hortaz, XIII. mendetik aurrera, *Year Book*etan jaso ziren ebazpen judizial garrantzitsuenak (Aro Modernoan, *Law Report*etan jurisprudentzia bilduma itzelak daude, ehunka liburukiez osatuak).

d.- Zinpekoen epaimahaia

Henry II.aren erregealdian (1154-1189) sortu zen ingeles zuzenbideak hain berezkoa duen erakundea, hots, zinpekoen epaimahaia. Administrazio eta justizia prozeduretan egia argitzeko xedez sortu zen, baita ordalia frogak ordezkatzeko ere, elizak gero eta gaitzetsiagoak baitzituen. Hasiera batean, 12 pertsona agurgarrik —*boni homines*— erabaki behar zuten lurren inguruko auzietan jabea benetan nor zen, horretara mugatzen zen bere eginkizuna. Geroago, zinpekoen epaimahai horrek konderrian eginiko delituak salatzeako betekizuna hartu zuen —*Grand Jury*—, salatutako pertsonen auziperatzea proposatuz. Laster,

erabat ezberdina zen funtzio bat egokitu zitzaion, akusatua errudun ala errugabe zen erabaki beharko zuen. Erabakiak froga balioa zuen, epaimahaiak —*Petit Jury*— egia zer zen esaten baitzuen¹. Hurrengo urratsa geroago eman zen, XIV. eta XV. mendeetan, froga-epaimahai izate-tik, lekukoak entzuten zituen erakunde izango zen etorkizunean, eta soilik frogatua zenaren inguruan eman ahal izango zuen epaia.

3.- Magna Carta

Henry II.aren ospe txarreko seme John Lurgabearen (1199-1216) gobernuak erresumako estamentu guztien —bereziki baroien— areriotasuna eragin zuen. 1215ean **Magna Carta** edo **Gutun Handia** onartzeraz behartua ikusi zuen bere burua. Hitzaurre batek eta 63 klausulak osatzen dute gutuna. Elizaren askatasuna eta erakundearen beraren eskubideen bortxaezintasuna deklaritzen da hitzaurrean. Klausuletan, berriz, zenbait neurri hartzen dira, bai betebeharrak feudalaren arlokoak, bai justiziaren gauzatzearen ingurukoak —*Court of the Common Pleases* saioetarako leku finkoak ezartzea, pertsonen mugimendurako askatasuna, edo epaileak zuzenbidean adituak izateko beharra—. Zenbait printzipioren garrantzia azpimarratu behar da, eragin handia izan baitzuten zuzenbide konstituzionalaren nahiz askatasun politikoen garapenean; hala nola, espetxeari buruzko printzipioak, legez kanpoko- en egoerari buruzkoak, herritarren erbesteratzeari buruzkoak, edo justizia saltzearen eta ukatzearen ingurukoak. Zenbait xedapenek islatu egiten dute hirien eta merkataritzaren garrantziaren igoera, eta horietarako araubide baten beharra —merkatarien establezimendu askatasuna, pisu eta neurrien sistema bateratu baterako beharra, aduanetan exentzioak—. *Purveyance* delakoari dagokionez, hau da, erregeak bortxaz hornidurak eta beste ondasun batzuk eskatzeko zuen eskumenari dagokionez, Magna Cartak erregea behartu egiten zuen elikaduren prezioa ordaintzera eta, ondasun higigarririk zegoenean, ondasun higiezinak ez konfiskatzera. Azkenik, 25 baroiek osaturiko biltzar baten esku uzten zen gutunean aurreikusirikoa betearazia zela bermatzea. Nobleek eta herri xeheak erregearen eta beronen ondasunen aurka ekitea zeukaten, bidegabekeriei konponbidea emateko. Baroien gehiengoaren iritzia beharrezkoa zen bidegabekeriarik zenentz erabakitzeko —horretan *majority rule*aren printzipioa ikusi izan da—.

¹ *vere dictum* = berediktu [sarreraren-egilearen oharra].

Ingeles askatasunen oinarria kontsideratu izan da Magna Carta. Gizarte feudalean sortzen ari ziren arazoak islatzen dira deklarazioaren zehaztasunetan: Koroa zenbait botere lagatzera eta legez kanpoko jarduerak egiteari uko egitera behartzen zuen, eta zuzenbidearen arabera jokatu beharko zuen aurrerantzean. Erregearen botere mugatuaren printzipioaren onarpenak ondorio garrantzitsuak izango zituen ondorengo mendeetan. Hogeita hamasei bider izan zen berretsia.

4.- Parlamentuaren sorrera: legeak eta estatutuak (*acts & statutes*)

XIII. eta XIV. mendeetan *Common Law*aren oinarritzko elementua, hots, *judge-made law*aren printzipioa, zehaztasun handiagoz egituratu zen. Bestetik, *writ* berriak asmatu ziren —1258ko *Provisions of Oxford*en bidez mugatu egin nahi izan ziren, jaunen justiziaren mesederako—, eta, hortaz, erregearen jurisdikzioaren hedapena eman zen. Paradoxikoki, bi mende horietan erret legeria —*Statute Law*— hedatu egin zen, epaileek sorturiko zuzenbidearen —*Common Law*aren— kaltetan. Bi mendeotan erregeek Frantzian edo beste leku batzuetan adina egin zituzten legeak, *common lawyer*sek ekimen horri aurre egin arren. Errege legelarien artean Edward I.a (1272-1307) —ingeles Justiniano-tzat hartua izan dena— nabarmendu zen. Garrantzizko erabakiak hartu zituen zuzenbide pribatuaren alorrean, esaterako, lurraren jabeagoaren inguruan, betebeharren inguruan, eta abar, baina baita zuzenbide publikoarenean ere, adibidez, zinpekoen epaimahaiaren ingurukoetan —bereziki, Westminsterreko I. eta II. estatutuak—.

Bestetik, garai honetan sortu zen parlamentua, hau da, erresumako estamentuak ordezkatzeko zituen biltzarra. Simon de Monfort-en gidaritzapean, 1265ean noblezia, kleroa eta hiri nagusienetako ordezkariak bildu ziren. Haien botereen hedapenak erresumaren erakunde garapenean eragingo zuen: erregeari eta erresumari zegozkion gaiak biltzarrean aztertu beharko ziren eta biltzarraren onespina izan (Edward II., *Statute of York*, 1322), eta onespen bera beharrezkoa zen zergak jasotzeko eta arauak ezartzeko. Biltzarrak eskumena zuen ofizial edo funtzionarioak salatzeko —*impeachment*—, horiek jardunean zirenean eginiko delituak zirela eta, baita kontu publikoak aztertzeko ere (Richard II.aren garaian). Erresumaren finkapenerako bidean garrantzitsuak dira, bestalde, aita santuaren bulden sarrera debekatzea

edo patronatu auziak Erromara ezin igortzea (*The Third Statute of Praemunire*, 1393).

Lancaster (1399-1461) eta **York** (1461-1485) leinuekin, ingeles zuzenbide publikoak aurretiko bideetatik jarraitu zuen. Parlamentuak arlo fiskalean zeuzkan eskuduntzak indartu zituen eta bere onespenera eskatuko zuen legeen onarpenerako. Parlamentarien estatusa eratu zen; esaterako, atxilotzetik salbu geratuko ziren, edo ordezkatzeko zuten konderrian bizitzeko betebeharra izango zuten. Alabaina, hautesleentzat baldintza batzuk ezarri ziren eta atzera egin zen parlamentuari zegokion onespeneraren alorrean, *benevolences* zeritzen tributuen kasuan, adibidez.

5.- Ekitatezko eskumena

XVI. mendean zehar, erret eskumen berri bat sortu zen, hots, *Equity* edo ekitatezko eskumena; berau *Common Law*aren alboan, edo —zehazkiago— aurka, ezarri zen. Behar berriei gaizki egiten zitzaieenez aurre, behar horiek kontuan izateko sortu zen, baita monarkiak, absolutismorako bidean, bere nahierei men egingo zien eskumena behar zuelako ere. Kantzilerrari iristen zitzaizkion auziak, hark *en equity* aztertzen zituen. Egia esan, haren erantzunak zeharo aldentzen ziren jurisdikzio arruntean lehenesten zen *Common Law*tik, formari dago-kionez prozedura kanonikoan inspiratzen baitzen, eta, fondoari dago-kionez, erromatar zuzenbideko irizpideetan. Dualtasun garai bat hasi zen orduan (XIX. mendera arte iraun zuen), *Common Law*ko eta *Equity*ko auzitegiak bereizi egiten baitziren araudiaren fondoan nahiz jarraitzen zen prozeduran.

6.- Ingalaterrako eliza erregearen menera

Tudor leinuearekin (1485-1603) ingeles zuzenbidea asko garatu zen, betiere, erregearen Kontseilu Pribatuaren bidez —*Privy Council*— absolutismoa handitzen zihoalarik, eta, Komunen Ganbera mantendu zen arren, parlamentuak pisua galtzen zuelarik².

Norabide absolutista horretan kokatzen da parlamentuaren onspenik gabe erregeak egiten zuen tributuen eta erret legeriaren —*pro-*

² Auzitegi berriak, *Common Law* aplikatzen duten auzitegi arruntentzako egiten dutenak: *the Court of Star Chamber, the Court of the North, the Court of General Surveyors* [sarrera-egilearen oharra].

clamations— erabilera gehiegizkoa. Henry VIII.ak erregearen boterea sendotu zuen *Act of Proclamations*arekin; lege horren arabera, erret arauak parlamentuak eginikoek beste balioko zuten. Izan ere, zeuzkan eskumen legegileak maiz erabili zituen errege honek, bere nahiera guztiei men egin zien biltzar otzan batek toleratu baitzuen.

Henry VIII.ak eta Elizabeth I.ak eraginiko Erromarekiko haus-turak ingeles elizaren mendetasuna eragin zuen. *Act of Supremacy* edo nagusitasun legea dela medio, erregea Ingalaterrako elizaren buru izan-go zen, eta errore, heresia eta gehiegikeria guztiak konpontzeko ahal-mena izango zuen. Bestetik, Elizabeth I.ak bere aitaren erreformak berretsi eta zabaldu egin zituen nagusitasun lege berri batekin eta gur-men uniformetasunari buruzko beste batekin, jesuiten eta sekten aurka-ko xedapenak ezarriz, eta erlijio gaietarako auzitegi berezi bat sortuz. Erreginak konbinatu egin zituen gobernu despota bat, batetik, eta herrialdearen oparotasun ekonomikoa sustatu zuten neurriak, bestetik.

7.- Iraultza, Tudorren absolutismoak eraginda

Tudortarren absolutismoak ondorengo garaian areagotuko ziren arazoak eragin zituen. Bestalde, puritanoek erlijio askatasunari ezarri-ko zioten murrizketak sorturiko ezinegonak erregearen eta parlamen-tuaren arteko liskarrak iragartzen zituen. **James I.ak** erregeen eskume-na jainkotiarra zela defendatu zuen, beraz, erregearen botereari aurka egitea sedizioa kontsideratzea nahi zuen. Gizartean zeukan paperaz jabetzen zen parlamentu eskarmentudun bati onartezina zitzaion hala-ko zerbait. 1604an biltzarrak deklaratu zuen ingelesen ondare zirela euren askatasunak, euren lur eta ondasunak lain. Erregeak *proclama-tions* eta *benevolences*ak erabiltzen jarraitu, eta parlamentua birritan desegin zuen. Parlamentuak, berriz, Koroaren goi karguak auziperatu zituen.

Egoerak okerrera egin zuen **Charles I.** bigarren **Estuardo** erre-gearekin, tiranikoa eta setatia izanik, bere aitaren planteamendu abso-lutistekin jarraitu baitzuen. Lehen eta bigarren parlamentuekin liska-rrak izan zituen. Hirugarrenarengandik, 1628an *Petition of Rights* jaso zuen, dokumentu horretan ohiko ingeles askatasunak zerrendatzen eta aldarrikatzen ziren. 1640an laugarrena desegin zuen, biltzarrak errege-ari laguntza ekonomiko bat ukatu baitzion. Bosgarren parlamentuak — *Long Parliament*— ospe txarreko ministroak epaitu zituen, Tudorren

garaian sorturiko zenbait auzitegi desegin, eta eskatu zuen hiru urteko tartean biltzarraren jarraipena berma zedila, eta parlamentua izan zedila ministroak izendatzen zituena. Erregea, sututa, guardia armatu batekin sartu zen parlamentura, zenbait parlamentari atxilotzeko asmoz. Gerra piztu zen: parlamentuaren indarrek, Cromwellek gidaturik, erregearen gudarostea gailendu zuten Prestonen. Charles I. epaitu eta exekutatu zuten (1649).

8.- Cromwell, commonwealth eta protektoratua

Erradikalek osaturiko parlamentu batek monarkia eta Lorden Ganbera abolitu zituen, eta estatu formula berri bat hartu, **commonwealth** hain zuzen, 41 kideko estatu-biltzar batek gobernaturiko aginpi-dea. Gobernu honen aurkako oztupoek bultzatu zuten Cromwell 1655ean bere burua Ingalaterrako, Eskoziako eta Irlandako Lord Babesle izendatzera, agintaritzan lagun izango zuelarik 400 kideko parlamentua.

Cromwellek ingeles sistemaren justizia ezari buruz zuen irudiararen arabera, eta haren jarraitzaileek zuzenbidearen osotasunarekiko zeukaten irtitzi txarrean oinarrituta, egin ziren **protektoratu** garaiko erreformak. Erregimenak gutxi iraun arren, erreformak asko izan ziren: auzitegietan eta berorietako mintzaeran aldaketak, delitugile nahiz emakumeenganako tratu onbera, jokoak debekatzea, eta abar. Bestetik, erreformak sakonak izan ziren auzitegi arloan, prozedura zibil eta kriminalean, ezkontza zibilean, jabegoen erregistroan, jaraunspenetan... Batzuetan nabarmenak ziren puritanoen planteamendu zurrinak.

Errestaurazioak, aitzitik, bertan behera utzi zuen iraultzako lege-ria osoa, baina monarkia absolutua arras egurtua izan zen, auzitegi berezien indarra edo zenbait korronte cromwelldar lain. Parlamentua eta *Common Law*a indarturik irten ziren. Irekita zegoen ingeles zuzenbide modernorako bidea.

9.- Habeas Corpus legea

Charles II.aren (1660-1685) **errestaurazioaren** ostean, parlamentuak eta erregeak harturiko lehen neurriek aurreko egoerara itzuli zituzten gauzak, eta katoliko nahiz ez-konformistek diskriminaturik jarraitu zuten.

1679an *Habeas Corpus Act* argitaratu zen «herritarren askatasuna hobeto bermatzeko eta itsasotik haraindiko espetxeratzeen prebentziorako». Berorren arabera, atxilotu batek epailearengandik *habeas corpus writ* edo agindua eska zezakeen, kartzelariak atxilotuaren gorputza auzitegiaren aurrean jar zezan eta atxilotua atxilotzearen arrazoiak informatua izan zedin. Lehen epe batean, salaketa formala jasoko zuen, bigarren batean, epaitua izan beharko zen. Entregatua zelarik, ezin zen birritan epaitua izan delitu bera zela eta. Bestetik, Ingalaterrako ezin biztanle ezin zen erbesteratua izan atzerrian espetxeratze kondena betetzeko.

Errestaurazioan zehar beste zenbait erreforma egin ziren lege-rian: *Equity* eta zinpekoen epaimahaiak garatu ziren, aldaketak egin ziren Lorden Ganberaren eta Komunen Ganberaren eskumenetan, baita zuzenbide pribatuaren eremuan ere —testamenturik gabeko jaraunspena, iruzurrak, eta abar—.

James II.ak (1685-1689) bere erregealdi laburrean gizarte erreboltarako baldintzak sortu zituen, katolizismoa eta erregearen botere absolutua berrezartzean. Parlamentuarekin talka egitea halaberharrezkoa zen, zenbait herritar legeen betetzetik salbuesteko erregalia —*Dispending Power*— erabili baitzuen erregeak; gainera, katoliko eta ezkonformisten aurkako legeak deuseztatu zituen, eta zazpi apezpiku anglikano auziperatu. Azkenean, parlamentuko bi alderdiek —*whig* eta *tory*ek— deia egin zioten europar protestantismoaren buru zen **Oran-geko Williami**, James II.aren alabarekin ezkondua zenari, hark goberna zezan.

10.- Iraultza loriatsua eta Bill of Rights

Iraultza guztietarik «indarkeria gutxieneko eta onuragarrien» izaniko «**Glorious Revolution**» edo «**Iraultza loriatsua**»-rekin beste garai bat hasi zen Ingalaterrako historia legal eta politikoa. Williamen erregealdian bertan hiru neurri garrantzitsu behintzat hartu ziren.

1689ko *Bill of Rights* izan zen neurri horietatik bikainena, lege honek «herritarren eskubideak eta askatasunak adierazi eta Koroaren oinordetza finkatzen» zituen. Geroagoko beste edozein legeria positiboren iturria ikusi izan du hartan Macaulayk. Haren xedapenen artean zenbait azpimarratuko ditugu: parlamentuaren onespenerik gabe, legeak deuseztatzea edo sortzea, eliz gaietarako auzitegi bat izatea, tributuak

ezartzea, edo gudaroste iraunkor bat mantentzea, horiek guztiak legearen kontrakoak izango ziren. Parlamenturako hauteskundeak libreak izango ziren, baita ganberetako eztabaida eta hitzaldiak ere. Herritarrek erregeari eskaerak egiteko eskubidea izango zuten. Ezin izango ziren bidegabeko fidantza edo isunak jarri, ezta zigor krudel edo ezohikoak ezarri ere.

Beste bi neurriak honakoak dira: lehenik, 1696ko *Second Treason Act*. Salatutako pertsonari, batetik, abokatu bat izatea eta, bestetik, salaketaren idatziaren kopia bat eta zinpeko epaimahaiaren kideen zerrenda edukitzea ahalbideratzen zion lege horrek. Lekukoen frogak bi pertsona eskatzen zituen gutxienez. Bigarrenik, 1701eko *Act of Settlement*. Beronen bidez erabaki zen errege-erreginagaiei Ingalaterrako elizaren kide izateko baldintza ezartzea, eta eginkizuna ongi egiten zuten artean mantentzea epaileak euren karguan.

11.- Eskoziarekin elkarte eta beto-eskubidearen bukaera

Anne erreginaren (1702-1714) agintaldiak elementu berriak ekarri zizkion ingeles zuzenbideari. Arlo pribatuan nabaria izan zen industrializazioak ekarritako aldaketa —balio tituluak edo porrot ekonomikoak—. Parlamentuak instituzionalizatzen jarraitu zuen, beretzat hartu zuen kideen ekintzen zuzentasuna erabakitzeko eskumena. Bestalde, 1707an *Act of the Union of England and Scotland* onartu zen; berorren bitartez Eskoziak bere eliza, zuzenbidea eta justizia auzitegiak mantenduko zituen, Ingalaterrarekin elkarte osatuta. Monarkia-aren gainbehera areagotu egin zen, batez ere, erregeak parlamentuaren legeen gainean betoa jartzeko eskumena galdu zuenean (*Militia Bill*, 1708).

12.- Industrializazioa, eta ingeles zuzenbidean aldaketa handiak

Zenbait ezaugarri nabari dauzka **XVIII. mendetik XIX. mendera** (1837ra) doan garaia. Gerra andana bat luzatu zen zenbait hamarkadatan zehar: espainiar ondorengotza guda, Eskoziako errebolta, zazpi urteko guda, Kanadako, Indiako eta Amerikako kolonien independentzia, eta Napoleonekin norgehiagoka. Bestetik, Europan aitzindari, industrializazioa dago, merkataritza zuzenbidean legeria oparoa sortarazi zuena —sozietateak, jabegoa, partizipazioa, porro-

tak, eta abar—, baina baita sindikatuen aurkako legeria, edo ekonomia arloko delitu berrien definizioa ere —esaterako, fondo desbideratzea—. Bukatzeko, iraultza frantsesak bultzaturik, herrialde barneko presio erreformistarekiko beldurra aipatu behar da; izan ere, gertakizun horrek inboluzioa eragin zuen askatasunen sisteman. Alabaina, gauza argia zen aldaketa ekonomiko eta sozialei erantzun beharko zitzaizela, mende bukaeran indartzen joan zen erreforma mugimendu batek eskatzen zuen moduan.

Zenbait erreforma goiz hasi ziren; aitzitik, beste batzuk behar baino gehiago berandutu ziren. 1778 eta 1829ko zenbait xedapenen —*Roman Catholic Relief*— bitartez katolikoen emantzipazioa eman zen. 1824an sindikatuak eta berorien jarduerak baimendu ziren. Nolanahi ere, XIX. mendeko hirugarren hamarkadan eman zen borroka gogorra beharrezkoa izan zen aristokraziak eta burgesiak aldaketarako jartzen zuen erresistentzia hausteko. 1832an *Reform Billa* onartu zen: despopulaturik zeuden 56 distritu —*rotten borough*— kendu ziren, beste zenbait murriztu, eta aktak lurraldeka birbanatu ziren. Kartista³ deritzan mugimenduak erreforma politikoaren alde egin zuen. Hurrengo urtean esklabotasuna abolitu zen, 9 urtetik beheragokoek fabriketan lan egitea debekatu, eta haur nahiz emakumeen lan-ordu kopurua txikiagotu zen. 1835ean udal erreforma egin zen. Ordurako prozedura zibil eta kriminaleko arauak aldaturik zeuden.

13.- Viktoriar aroa

Viktoriar aroa (1837-1901) ere erreforma garaia izan zen, parlamentu legeriaren bidea jarraitu zelarik —*act* eta *statuteak*—. Luze joko luke auzitegien antolamenduaren arloan sorturiko legeria deskribatzea, barne *Common Law* eta *Equity*-ren prozedurak eta elkarren arteko harremanak. Nolanahi ere, aipatu behar da *Equity*ak 1875ean, *Judicature Act*aren bitartez, zuzenbide orokorrarekin bat egin zuela. Bestalde, nekazaritza zuzenbidean, merkataritza zuzenbidean, zigor zuzenbidean eta gizarte zuzenbidean, orokorrean, viktoriar aroan zuzenbidea egokitu egin zitzaion iraultza industrialetik irteten ari zen gizarte bati.

3 *Chartist*.

14.- Literatura juridikoa

Glanville-ena ei da *writ* bat ezartzeko modua azaltzen duen obra (1187). Ondorengo mendean (1256) Bracton epaileak lan baliagarri bat idatzi zuen pertsonen, ondasunen eta obligazioen gainean eragiten zuten printzipioei buruz, eta *writ* modalitate ezberdinak aztertuz prozedura agertu zuen. Erdi Aroko lanik garrantzitsuenetakoa izanik, *Common Law*ren garapena baldintzatu zuen obra horri eragin erromanistikoa sumatzen zaio. Badira Erdi Aroan beste autore batzuk, hala nola, Fleta, Fortescue edo Littleton. Aro Modernoan eragin handia izan dute Coke-ek eta, batez ere, Blackstone-ek, azken honen obrak (1765) eragin handia izan baitzuen Amerikako Estatu Batu berrietan.

15.- *Common Law* munduan zehar

*Common Law*ren sistemak zuzentzen ditu Britainiar uharteak, Eskozia izan ezik, bertan sistema erromanista bat baitago, baina sistema honetan ere ohiturazko zuzenbidearen eragina gero eta handiagoa izan da. Ipar Amerikako 13 kolonietatik hedatuz, *Common Law*k men-debalderantz egin zuen. Soilik Luisianan iraun zuen sistema gutxi gorabehera erromanizatu batek. Estatu Batuetakoak badauzka zenbait berezitasun, esaterako, kodifikazio konstituzionala, edo arlo honetan auzitegi federalak duen eginkizun bateratzailea. *Common Law*ren eremu-koak dira, halaber, britainiar inperioko kolonia ohiak —Kanada, Australia eta Zeelanda Berria—. Bestalde, ordenamendu honek eragin handia izan du Ingalaterraren menpe izan diren Afrikako eta Asiako herrialdeetan.

16.- Laburbilduz

Kontinenteko Europan baino areago, historiak itxuratu duen zuzenbidea dugu Ingalaterrakoa: epaile eta legelariak oraindik ere Erdi Aroko arauak eta erabaki judizialak argudia ditzakete. *Common Law* zuzenbide eskaski erromanizatua da, Ingalaterrako ohitura orokorretan eta epaileen justizia egintzetan —*judge-made law*— oinarritzen dena, prozedurak pisu handia duelarik —*remedies precede rights*—. Ez da egon kodifikatzeko interesik, eta, hortaz, ez dira testu bakarrean bildu arau konstituzionalak edo antolamendu juridikoko beste arloetako arauak. Gehienez ere, *consolidations* deritzenetan koordinatu izan dira

legeak, edo salerosketa edo porroten arloan egin izan da ezohiko kodifikazioa.

Kontinenteko zuzenbidean, aldiz, berebiziko garrantzia du zuzenbide erkideak —funtsean zuzenbide erromatar justinianotarrak eta zuzenbide kanonikoak—, eta nolabaiteko garrantzia tokiko zuzenbideak. Jurisprudentziak bigarren mailako garrantzia du, eta prozedurak oraindik txikiagoa. Gainera, kodetzeko ardura handia egon da, behintzat XVIII. mendetik aurrera.

Bibliografia eta iturriak

BAKER, JOHN HAMILTON. 2000. *An Introduction to English Legal History*. 4. argitalpena. Londres: Butterworth.

BLACKSTONE, WILLIAM. 1917. *Commentaries on the Laws of England in four books and references to American decisions by George Chase*. 4. argitalpena. New York: The Banks law publishing Co.

BRACKTON, HENRY de (+1268). 1997. «De legibus et consuetudinibus Angliae». *On the laws and customs of England* (latinez eta ingelesezko itzulpena, Samuel E. Thorne-ren ohar eta berrikuspenarekin). Buffalo, N.Y.: W.S. Hein. 4 liburuki.

CAENEGEM, RAOUL CHARLES VAN. 1928. *The Birth of the English Common Law*. Cambridge: Cambridge University Press.

-1963. «Les Iles Britanniques». Gilissen, John, *Introduction bibliographique à l'histoire du droit et à l'ethnologie juridique*. C/5. Brusela: Editoriel de l'Université de Bruxelles.

DAVID, RENÉ; GUTTERIDGE, H.C. eta WORTLEY, B.A.-ren laguntzaz. 1948.

Introduction à l'étude du droit privé de l'Angleterre. Paris: Sirey.

GLANVILLE, RANULF de (1130-1190). 1932. *Tractatus de legibus et consuetudinibus regni Angliae*. New Haven: Yale University Press.

KEMPIN, FREDERICK G. 1990. *Historical introduction to Anglo-american law in a nutshell*. 3. argitalpena. St. Paul (Minn.): West Pub. Co.

KIRALFY, ALBERT KENNET ROLAND. 1968. «English Law». Derrett, J.D.M. (ed.). *An Introduction to legal systems*. New York: Praeger, 157-193 or.

PLUCKNETT, THEODORE FRANK THOMAS. 1956. *A concise history of the Common Law*. 5. argitalpena. Londres: Buittenworth.

RADCLIFFE, GEOFFREY REYNOLDS YONGE; CROSS, G. 1977. *The English legal system*. 6. argitalpena. De Hand, F.J. eta Bentley, D. J. Londres: Butterworth.

SCHWARZ-LIEBERMANN VON WALTENDORF, Hans Albert. 1977. *Introduction à l'esprit et à l'histoire du droit anglais*. Paris: L.G.D.J.

VII INGALATERRA

1.

MAGNA CARTA*

Jainkoaren graziaz Ingalaterrako errege, Irlandako jaun, Normandiako eta Akitaniako duke eta Anjouko konde den Johnnek artzapezpikuei, apezpikuei, abadeei, kondeei, baroiei, epaileei⁴, baso-zaintzaileei, sheriffei, administratzaileei, zerbitzariei, eta ene funtzionario eta menpeko leial guztiei, agur.

Jakin ezazue, Jainkoaren begiradapean, gure arimaren salbaziorako, baita gure arbasoen eta ondorengoenarako ere, Jainkoaren ohore-rako, Eliza Sainduaren gorespenerako, eta gure erresumaren zuzentzerako, honako gure guraso beneragarrien aholkuz —Stephen, Canterburyko artzapezpiku, Ingalaterra osoko primatu eta Erromako Eliza Sainduaren kardinal; Henry, Dublingo artzapezpiku; Londresko William; Winchesterko Peter; Bath eta Glastonburyko Jocelin; Lincolnko Hugh; Worcesterreko Walter; Coventryko William eta Rochesterrreko Benedict, apezpikuak; Pandulf jauna, aita santuaren diakonoazpiko eta etxeko; Aimeric anaia, Tenpleko ordenaren nagusi Ingalaterran— eta ondoko aitoren semeenez —William Marshal, Pembrokeko konde; William, Salisburyko konde; William, Warenne-ko konde;

* Jatorrizko latinezko testua ingelesezko hitzez mukuratu beteta dagoenez, ingelesetik itzuli da. Iturria: The British Library (Erresuma Batua), <http://www.bl.uk/treasures/magnacarta/magna.html>. (2007ko urriaren 11n atzitua)

⁴ *Justiciar*: normandiarren eta hasierako Plantagenet errege-erreginen artean funtzionario politiko eta judizial gorenak.

William, Arundelgo konde; Gallowayko Alan, Eskozian erregearen kondestable⁵; Warin Fitz Gerold; Peter Fitz Herbert; Hubert de Burgh, Poitoutarren seneskal⁶; Hugh de Neville; Matthew Fitz Herbert; Thomas Basset; Alan Basset; Philip d'Aubigné; Ropsleyko Robert; John Marshall; John Fitz Hugh— eta gure beste hainbat mendeko leialen aholkuz ere:

1) Lehenik, Jainkoari eskaini zaiola eta honako gure gutun honen bidez berretsi dela, guretzat eta gure ondorengoentzat eternalki: Ingalaterrako eliza aske izatea, eta bere eskubideak osoak eta askatasunak kalterik gabeak izatea. Hala bete dadila nahi dugu, eta argi dago — gu eta gure baroien arteko liskarra hasi baino lehen— gure borondate oso eta espontaneoarekin gutunaren bidez eskaini eta berretsi genuelako elizaren hauteskunde askatasuna, Ingalaterrako elizarentzat beharrezko eta garrantzi handienekoa baitzirudien, eta Inozentzio III.a aita santuarengandik jaso zuen konfirmazioa; guk beteko dugu eta gure ondorengoek fede onez eternalki betetzea nahi guke. Gure erresumako pertsona libre guztiei eskaini dizkiegu —guretzat eta gure ondorengoentzat betirako— azpian idatziak diren libertate guztiak, haiek eta haien ondorengoek horiei eutsi eta gorde ditzaten —gugandik eta gure ondorengoengandik jasota—.

2) Gure konde edo baroietako bat, edo zaldun zerbitzuan buruzagi moduan guretzat diharduen edonor, hilko balitz, eta bere heriotzarekin bere oinordekoa adin nagusikoa balitz eta oinordetza zerga zor balu, dagokion jarauntsia jasoko du antzinako oinordetza zerga ordainduta; hau da, konde baten jaraunsle edo jaraunsleek 100£ ordainduko dituzte kondetza osoagatik, baroi baten jaraunsle edo jaraunsleek 100£ baroigo osoagatik, eta zaldun baten jaraunsle edo jaraunsleek 100 shilling gehienez; eta gutxiago dagokion edonork gutxiago emango du feudoen antzinako sistemaren arabera.

3. Aldiz, horietako pertsona baten jaraunslea adingabekoa eta tutoretzapekoa bada, adin nagusitasunera iristerakoan bere jaraunspena jasoko du zerga edo isunik gabe.

4. Adingabeko oinordeko baten zaintzaileak ez du haren jabegotik hartuko ez bada arrazoizkoak diren errentak, ohiko kuota eta zerbi-

5 *Constable*: Erdi Aroan errege-erreginen funtzionariorik garrantzitsuenak.

6 *Seneschal*: noble baten familiako funtzionario boteretsua, berari zegokion justizia administratzea, jabegoen arazoak kudeatzea, eta jauna ordezkatzan zuen gortean.

tzu feudalak; eta hori guztia zerbitzariak eta ondasunak alferrik galdu edo suntsitu gabe. Eta halako lurren bat sheriffaren esku uzten badugu, edo gure aurrean errenten erantzule den norbaiten esku, eta bere esku utziriko lurra hondatu edo xahutuko balu, ordainaraziko diogu eta feudo horretako bi pertsona zuzen eta zuhurren esku ezarriko dugu lurra, eta horiek erantzungo dute errentengatik gure aurrean edo izendatzen dugun ordezkariaren aurrean. Eta norbaiti ematen edo saltzen badiogu halako lur baten ardura, eta hondamendia eta xahutzea eragiten baditu, ardura galduko du eta feudoko bi pertsona zuzen eta zuhurren esku ezarriko dugu, lehen esan den bezala.

5. Bestetik, jagoleak lurraren ardura duen artean, lurraren beraren errentetatik mantendu behar ditu etxeak, parkeak, ehiza eta arrantza esparruak, zingirak, errota, eta etxaldeari dagozkion gauza guztiak, lurraren fruituak ez direnak; eta jaraunseari —hau adin nagusitasunera iristean— itzuliko dio lur osoa, nekazaritzarako tresneria osoaz hornituta, urtarok eskatzen duen moduan, eta errentek zilegi egiten duten heinean.

6. Oinordekoei ezkontidea bila dakieke, baina lerrun alderik gabe. Nolanahi ere, ezkontza bat finkatu baino lehen, gertueneko ahai-deari jakinarazi behar zaio.

7. Senarra hiltzen zaionean, alargunak berehala eragozpenik gabe jaso ditzake ezkontzagatik dagozkionak eta jaraunspena; senar-emazteek senarraren heriotzaren egunean zeukatenetik, alargunak ez du ezer ordaindu behar ezkontzatik eta alarguntzatik dagokion zatiagatik edo jaraunspenagatik; eta senarraren etxean egon daiteke berrogei egunetan, tarte horretan alarguntzatik dagokiona jaso behar duelarik.

8. Ez da alargun bat ezkonarazi behar, honek senarrik gabe bizi nahi baldin badu. Betiere, segurtatzen baldin badu ez dela gure baime-nik gabe ezkonduko, gure kargu badago, eta bere jaunaren baimenik gabe, besteren kargu badago.

9. Ez guk ezta gure administratzaileek ere ez dugu hartuko lurrik edo errentarik zor baten ordainketa gisa, zordunaren ondasun higiezinak nahikoak diren artean zorra kitatzeko; zordunaren bermeak ez dira bahituko ere, zorduna zorra kitatzeko gai den artean; eta zordun nagusiak zorra ordaintzean huts egiten badu, ez daukalarik zerekin ordaindu, fidatzaileak izanen dira zorraren erantzule. Fidatzaile horiek zordunaren lurrak eta errentak eskura ditzakete hark zorra kitatzen dietenera arte, betiere zordunak ez baldin badu erakusten fidatzaileenganako dituen obligazioak bete dituela.

10. Juduengandik edozein kopuru —handia zein txikia— mailegatu duenaren kasuan, zorra kitatu baino lehen hiltzen baldin bada, zorrak ez du interesik sorraraziko jaraunslea adingabea den artean, edozein dela ere adingabearen zaintzailea. Zor hori guregana iritsiko balitz, ez dugu gure gain hartuko ez bada obligazioan agertzen den kantitate nagusia baino.

11. Eta gizon bat juduekin zorrak dituela hiltzen bada, bere emazteak alarguntzatik dagokiona jaso dezake, zorretik ezer ordaindu barik; eta adingabeko zurtzak utziko balitu, horien beharrak aseko dira hildakoaren ondasunen arabera moduan; eta zorra soberakinetik ordainduko da, jaunei zor zaien zerbitzua mantenduta. Juduak ez diren gainontzeko pertsonetik dauden zorrekin ere modu berean jokatu da.

12. Ezin zaie jaunei *scutage*⁷ edo laguntza⁸ zergarik ezarri gure erresuman adostasun orokorrik gabe, ez baldin bada gure erreskaterako, gure premua zaldun egiteko, eta gure prima lehendabizi ezkontzeko; eta horietarako ere zerga arrazoizkoak bilduko dira. Londres hirian zerga berezi horiekin ere modu berean jokatu da.

13. Londres hiriak bere antzinako askatasun guztiak izan behar ditu eta aduana libreak lurretik zein uretatik. Bestalde, nahi dugu eta eskaintzen diegu beste hiri, eskualde, herri eta portu guztiei euren askatasunak eta aduana libreak izatea.

14. Gorago aipaturiko motako zergak⁹ biltzeko orduan erresumako adostasun orokorra lortzeko, artzapezpikuak, apezpikuak, abadeak, kondeak eta baroi nagusiak deiaraziko ditugu gutun bidez, eta sheriff zein administratzaileen bidez deituko ditugu orokorrean guretzat buruzagitzan lan egiten dutenak, data jakin batean, gutxienez berrogei egun lehenagoko epean, eta deialdirako gutun guztietan adieraziko dugu deialdirako arrazoia. Eta deialdiak modu horretan egin direlarik, finkaturiko egunean erabakiko da auzia bertaratutakoen adostasunarekin, deituriko guztiak agertzen ez diren arren.

⁷ Lege feudalean, jaun baten feudoa daukanak ordaindu beharreko zerga, normalean zerbitzu militar baten ordeza.

⁸ *Aid*: ingeles lege feudalean, maizterrak bere jaunari ordaintzen zion zerga bat, hasiera batean opari hutsa zena eta, beranduago, jaunak eska zezakeen eskumena bilakatu zena.

⁹ Hau da, *aid* & *scutage*.

15. Aurrerantzean ez diogu inori lagako bere pertsona askeen-gandik zergak biltzea; betiere, bere erreskaterako, bere premua zaldun egiteko edo bere prima lehendabizi ezkontzeko ez baldin bada. Kasu horietan ere zerga arrazoizkoa bil daiteke soilik.

16. Inor ez da behartuko zerbitzu gehiago ematera —beharrez-koa dena baino gehiago— jaun baten lur eremu baterako edo bestelako lur jabego aske baterako.

17. Auzi arruntak ez dira erret gortearen aurrean egingo, ezpa-da beste leku jakin batean.

18. Legez kontrako arestiko edukitza kentzea¹⁰, aurreko ahaide-aren heriotza¹¹, eta azken epaia¹² ez dira burutuko horiek gertatzen diren eskualdeko gortean baizik, eta honako moduan: guk edo, gu erre-sumatik kanpo bagaude, gure justizia buruzagiak¹³ bi epaile¹⁴ bidaliko ditu urtean lau aldiz eskualde bakoitzera, bertan hautatuak izan diren bertako lau zaldunekin batera, beroriek erabakiko dute jabegoaren auzien inguruan¹⁵ eskualdeko gortean, eskualdeko gortea biltzen den egunean eta lekuan.

19. Eta jabego epai horiek ezin badira denak gorte egunean eman, beharrezkoak diren zaldun eta lurjabe nahikoak geratu beharko dira bertan, epaiak egiteko moduan, erabaki beharreko auzien kopuruaren arabera.

20. Pertsona aske bat ez da arbitrarioki zigortua izanen garrantzirik gabeko arau-urratze bat dela eta, baizik eta urratzearen larritasunaren arabera; delitu larri batean urratzearen larritasunaren arabera zigortua izanen da, bere bizimodua mantenduz; modu horretan, merkantari batek bere merkantziak mantenduko ditu; modu berean, jopu bat zehatua izanen da bere nekazaritza tresnak mantenduz; horiek guztiak

10 *Disseisin*: desjabetzea; jabego aske baten edukitza kentzea.

11 *Mort d'ancestor*: jaraunslearen oinordetza balidatzeko, aurreko ahaidea lurraren jabe delarik hil dela frogatzeko ekintza.

12 *Darrein presentment*: eliza bateko azken zaindaria zein den erabakitzeko ekintza.

13 *Chief justiciar*, edo «justiciar» nagusia.

14 *Justice*: justizia epaitegi batean erabakiak hartzeko baimendua den funtzionario publikoa.

15 *Assize*: antzina Ingalaterran jabegoaren gainean erabakitzen zuen auzitegiak jabego baten berreskuratzerako sheriffari ematen zion agindua.

gure esku eroriko balira. Eta gorago aipaturiko zehapenak ez dira eza-
rriko ez bada auzoko izen oneko pertsonen lekukotasunarekin.

21. Kondeak eta baroiak ez dira zehatuak izanen ez bada euren
kideek epaituta eta soilik urratzearen izaeraren arabera.

22. Apaiz bat ez da zehatua izanen bere eliz kanpoko jabegoetan
ez bada gorago aipaturiko pertsonen baldintza beretan, eta kontuan
hartu barik bere eliz pribilegioaren izaera.

23. Herri bat edo pertsona bat ezin da behartua izan ibaien gai-
netik zubiak eraikitza, ohituraren eta legearen arabera hori egin behar
luketenak izan ezik.

24. Ezein sheriff, kondestable, edo ikertzaile¹⁶, hau da, gure
administratzaileetako inork ezin du gure Koroaren auzien¹⁷ gainean
erabaki.

25. Landatar eskualde¹⁸ eta azpieskualde¹⁹ guztiek antzinako
errenta²⁰ mantenduko dute gehikuntzarik gabe, gure *demesne* feudo-
ek²¹ izan ezik.

16 *Coroner*: heriotza naturala izan ez dutenen hilketak ikertzen dituenen. Saxoien
garaian Koroaren diru-sarrerak jasotzea zen hark zeukan lehen eginkizuna, gero,
Koroaren auziei jaramon egitea. Egun, Koroaren izenean, bat-bateko heriotzak eta
heriotza susmagarriak ikertzen ditu.

17 *Pleas of the Crown*: delitu larriak, erregearen lasaitasuna eragozten zutenak, eta,
bereziki, altxorra ezkutatzea, soilik Koroaren funtzionarioen jurisdikziokoak ziren.

18 *Shire*.

19 *Hundreds, wapentakes and ridings*; *hundred*: shirearen azpiko administrazio ere-
mua, zenbait herrixka barne zeuzkana, eta eremu horretako pertsonentzat biltzen zen
epaimahaia zuena (cf. *zendea*, latinezko *centenat*ik eratorria datekeena); *wapentake*:
Danelawan, hau da, daniar legearen arabera gobernatzen ziren Ingalaterrako ekial-
deko eta iparraldeko lurraldeetan, *hundred*aren baliokidea; *riding*: konderri baten
herena hartzen zuen jurisdikzio gunea, sheriff baten gobernupean zegoena.

20 *Ancient farm*; *farm*: normalean urtean behin ordaintzen zen diru kopuru jakin bat,
lurrari etekin ateratzeko eskubidea ordaintzeko. Jaunek lurraren gaineko zerga hori
ezar ziezaieketen euren menpekoei, obligazio feudal arruntaren ordez urteroko erren-
ta bat jasoz. *Sheriff* askok euren *shire*ei *farma* ezartzen zieten, Koroari aurretik kopu-
ru jakin bat ordaindu behar ziotelarik, horrela, etekin gehigarriak jaso zitzaizketen
euren probetxurako.

21 *Demesne*: jaun baten lurretarik, jopuei edo lurjabe askeei uzten ez zitzaaien ere-
mua, jaunak beretzat zeukana. Jopuek astean egun jakin batzuetan lur horietan lan
egin behar zuten. Lur horiek jopuen lurretan zehar barreiatuak egon zitezkeen, edo
eremu berezi batean, azken hauek usu zelaia edo ortu lurrak ziren.

26. Elizarena ez den feudoa duen inor hilko balitz, eta gure sheriffak edo administratzaileak erakutsiko balizkigu dokumentu batzuk frogatzen dutenak zendutakoak gureganako zorrak zituela, sheriffari edo gure administratzaileari legezkoa zaio hildakoak zituen —eta elizarenak ez diren— ondasunen inbentarioa egitea eta zor horren balioaren arabera hartzea, legezko pertsonen iritzia kontuan hartuta, ezer ez delarik mugituko zor argi hori kitatua denera arte, eta soberakina testamentu-albazei utziko zaie zendutakoaren nahia bete dadin. Eta ez badigu ezer zor, ondasun guztiak zenduarenak direla kontsideratuko da, bere alargunaren eta seme-alaben zati arrazoizkoak izan ezik.

27. Pertsona aske bat testamenturik egin gabe hilko balitz, bere ondasunak bere gertuenekoen eta lagunen artean bananduko dira, elizaren ikuskapenarekin, betiere, zendutakoak zor zituen ondasunak izan ezik.

28. Gure kondestable batek, edo gure administratzaileetako batek, ez du hartuko inoren artorik edo ondasunik, betiere, horiengatik ez badu dirurik ordaintzen, berehala ala, jabea ados badago, berandua-go.

29. Ezein kondestablek ez du zaldun bat gaztelu zaintzagatik dirua ematera behartu behar, azken horrek zaintza hori bere kabuz edo konfiantzako beste norbaiten bidez egin nahi badu, arrazoi on bat dela medio berorrek egin ezin ez duenean; eta zerbitzu militarra egitera bidaltzen badugu, zaintza horretaz salbuetsia izanen da bere zerbitzu aldiaren arabera.

30. Gure edo besteren ezein sheriff edo administratzailek ez du zaldirik edo orgarik hartuko garraiorako pertsona aske batengandik, honen adostasunik gabe.

31. Ez guk, eta ez gure administratzaileetako batek ere, ez du hartuko inoren zurik gazteluetarako edo gure beste edozer lanetarako, jabearekin akordio batera iritsi barik.

32. Ez ditugu gaizkile konbiktuen lurra guretzat atxikiko urtebete eta egun bat baino denbora luzeagoz; epe hori igarota, lurra feudoen jaunari itzuliko zaizkio.

33. Aurrerantzean arrainentzako kanabera-hesi guztiak erabat kenduko dira Tamesis eta Medway ibaietan eta Ingalaterra osoan, kostaldean izan ezik.

34. *Praecipec*²² deritzan agindua ez zaio aurrerantzean eskatuko pertsona aske bati, lur jabego bati dagokionez, agindu hori dela-eta helegite eskubidea gal baitzezakeen.

35. Gure erresuma osoan ardo neurri bera, garagardo neurri bera eta arto whisky neurri bera egon bedi, hots, Londresko laurdena²³. Oihaletarako, tindatuetarako, herri-jantziatarako²⁴ edo alabardetarako erabiltzen direnetan zabalera bera, hots, oihal-ertz biren arteko bi ukondo. Gauza bera izan bedi pisuekin eta gainontzeko neurriekin.

36. Aurrerantzean, bizia jokoan dagoen kasuetarako ikerketa-agindua burutzeko ez da ezer eman edo ordaindu beharko, aldiz, doan eman beharko da eta ez da inoiz ukatuko.

37. Urteroko hiri-zerga²⁵ bidez, maiztertaz²⁶, burgotzaz, gure menekoa denarekin, eta, zerbitzu militarra eskainiz²⁷, beste norbaiten lurretan menekoa denarekin, guk, bada, hiri-zerga hori, maiztertza hori edo burgotza hori dela medio, ez dugu bere lurretan edo bere oinordekoarengan zaintzarik, horiek beste norbaiten feudokoak baldin badira; ez dugu hiri-zerga, maiztertza edo burgotza horietan zaintzarik ere, horiek ez baldin badute zerbitzu militarrik eskatzen. Ez dugu inoren lurretan edo jaraunslearengan zaintzarik, horiek beste norbaiti zerbitzu militarra eskaini behar badiote, edo gurea den maiztertza²⁸ txiki bat

22 Auzitegi bati egiten zaion eskaera idatzia, hark alderdi bati ekintza bat eginaraz diezaion, honek, osterantzean, helegitea aurkeztu beharko du derrigor.

23 *London quarter*.

24 *Russet*: eskuz eginiko oihal latz bat, gorritzat-marroia edo marroi tankerakoa, Ingalaterran herriko jendeak antzina jantzita zeramana.

25 *Fee-farm*: *fee-farm* edo *borough farm* zeritzana, konderriko sheriffak edo herri bateko funtzionarioek altxor publikoari ordaindu behar zioten oinarritzko kopuru osoa zen, herri jakin bati zegokiona.

26 *Socage*: errenta baten bidez edo nekazari zerbitzu baten bidez ordaintzen zen maiztertza, zerbitzu militarrik eskatzen ez zuena. *Socage* lurrak, lurjabe askeek zituzten lurrik txiroenak izaten ohi ziren. Lurjabea normalean nekazaria zen, eta jaunari dirua edo nekazari zerbitzu jakinak —hala nola, lurrak jorratzea edo uzta biltzea— zor zizkion.

27 *Knight service*: ordaindu gabeko zerbitzu militarra, normalean berrogei egun irauten zuena, erregeari edo jaun bati zor zitzaiona lurra jabetzaren truk.

28 *Sergeanty*: jabetza feudal modu bat, jaun bati zerbitzu jakin batzuk eskaintzen zaizkiolarik, baina *knight-service* bete behar dutenek baino zerbitzu baxuagoak beti ere. *Grand sergeanty*: jabetza modu honetan, esaterako, guduan edo gortean jaunaren ezpata edo ikurra eraman beharko litzateke. *Petty sergeanty*: esaterako, urtero ezpata bat edo intsignia bat agertzea.

dela-eta, bertatik jasotzen dugun zerbitzu osoa aiztoak, geziak eta antzerakoak eskaintzean datzalarik.

38. Aurrerantzean ezein justizia administratzailek ez du inor epaiketean ezarriko, norberaren funtsik gabeko akusazio bat dela medio, karguak funtsatzeko lekukotasun sinesgarriak aurkeztu barik.

39. Pertsona aske bat ez da atxilotua, kartzelaratua, desjabetua, legez kanpo ezarria, erbesteratua edo inolaz ere kaltetua izanen, eta ez gara geu edo guk bidaliriko norbait haren atzetik bila joango, ez baldin bada bere kideen epaiketa legezkoa dela medio edo lurraldeko legeari jarraiki egindako epaiketa dela medio.

40. Inori ez diogu salduko, inori ez diogu ukatuko edo berandutuko justizia eskubidea.

41. Merkatarri guztiek salbu eta seguru izan behar dute Ingalaterran sartzean eta bertatik irtetean, Ingalaterran egotean eta bertatik bidaiatzean, lurretik zein uretatik, zerga bidegabeetatik²⁹ aske, antzina-ko ohitura zuzenen arabera erosi eta sal dezaten; guda garaian izan ezik, esaterako, herrialde arerio batetik datozenen. Eta halakoak badaude guda hasten denean gure herrialdean, atxilotuak izanen dira, euren pertsonen edo ondasunen kalterik egin gabe, harik eta guk edo gure justizia-buruak jakin arte nola tratatzen dituzten gure lurraldeko merkatarriak lurralde arerioan; eta gureak han salbu badaude, besteenak gurean salbu izanen dira.

42. Aurrerantzean, edonork, guri zor digun leialtasuna gorabehera, gure erresuma utz dezake eta lurretik zein uretatik salbu eta seguru itzuli; erresumaren interes orokorra dela medio, gerra garaian izan ezik, eta lurraldeko legearen arabera kartzelaraturikoak eta legez kanpo ezarriak izan ezik, eta herrialde arerioetako pertsonak eta merkatarriak izan ezik, horiek gorago aipatu den bezala tratatuak izanen baitira.

43. Norbait hilko balitz, *escheat*³⁰ batean meneko delarik, esaterako, Wallingford-eko, Nottinghameko, Boulogne-ko edo Lancasterreko eskualdeetan, edo gure esku dagoen beste edozein *escheatean*, berau baroierria delarik, zendutakoaren jaraunsleak ez ditu oinordetza zerga-

29 *Maletote*: artile zakuei jartzen zitzaien zerga zorrotza.

30 *Escheat*: jaun feudalak bere menpekoaren lurren edo jopu baten jabegoen itzulterako zuen eskubidea, horiek jaraunslerik gabe hiltzen baziren. Jaunaren edo Koroaren eskubide hori indarrean zegoen baroierriari *escheat* zeritzan halaber.

rik ez zerbitzurik eman beharko, baroiari emango ziokeenetik beste denik, baroierrri hori baroiaren esku izanen balitz; eta guk lurralde horretan baroiak jardungo zukeen moduan egingo dugu.

44. Aurrerantzean, basotik kanpo bizi diren pertsonak ez dira basoko epaileen³¹ aurrera deituak izanen zitazio orokorretarako, betiere, ez baldin badira akusatua edo ez badira basoetako arau-urratzeekin zerikusia duten pertsona edo pertsonen bermatzaileak.

45. Ez dugu izendatuko epailerik, kondestablerik, sheriffik edo justizia administratzaileak, ez dakienik lurraldeko legea, eta berau ondo betea izatea nahi ez duenik.

46. Ingalaterrako erregeen gutunak —edo antzinako jabetza— dauzkaten abadiak sortu dituzten baroi guztiek horien zaintza izanen dute hutsik daudenean.

47. Gure garaian forestatua izan den basoa berehala soildua izanen da; gure garaian itxi ditugun ibai bazterrekin berdina jokatuko da.

48. Baso eta ehiza-barrutiei³², baso eta barruti zaintzaileei, sheriffiei eta berorien zerbitzariak, ibai bazterrei eta berauen zaintzaileei dagozkien ohitura txar guztiak berehala ikertu beharko dituzte eskualde bakoitzean eskualde bereko hamabi zinteko zaldunek. Zaldun horiek eskualde horretako pertsona baliotsuek hautatuak izan beharko dute. Guk —edo gu Ingalaterran ez bagaude, gure justizia-buruak— ohitura horietaz jakin dugunetik berrogei eguneko epean ohitura horiek deuseztatu beharko dituzte.

49. Berehala itzuliko ditugu ingelesek bake eta zerbitzu leial moduan igorri dizkiguten bahi eta gutunak.

50. Justizian dauzkaten postuetatik kenduko dira Gerard d'Athée-ren ahaide guztiak eta, aurrerantzean, Ingalaterran ez dute posturik izanen ondokoek: Engeland de Cicogné-k, Peter, Guy eta Andrew de Chanceaux-ek, Guy de Cicogné, Geoffrey de Martigny eta beronen anaiek, Philip Mark-ek, bere anaiek eta bere ilobak, Geoffreyk, eta horien guztien jarraitzaileak.

51. Bakea egin eta berehala erresumatik egotziko ditugu zaldun, baleztari, sarjentu, eta soldadu mertzenario arrotz guztiak, euren zaldi eta armekin etorri direnak erresuma honi min egitera.

³¹ *Justices of the forest.*

³² *Warren*: lege ingelesean, erregeak eskainitako emakida edo agindu bidez, animalia jakin batzuk gordetzen zituen frankizia edo pribilegiozko eremua.

52. Norbaiti bere kideen legezeko epai bat barik lurra, gazteluak, askatasunak edo eskubideak kendu bazaizkio, berehala itzuliko dizkio; eta horretan desadostasunik sortuko balitz, erabaki beza azpian segurtasun klausulan azaltzen den hogeita bost barioen epaiak. Baina gure aitak, Henry erregeak, edo gure anaiak, Richard erregeak, haren kideen legezeko epai baten bidez norbait desjabetu edo gabetu izan balu, berau gure menekoa delarik, edo besterena, gu bermatzaile garelarik, orduan, atzerapen bat egingo dugu gurutzada kanpainak dirauen bitartean; gurutzea hartu baino lehen, auzia edo ikerketa hasia zen kasu horietan izan ezik; nolanahi ere, gure peleginaziotik bueltan gatozenez edo, ez baldin bagoaz, berehala, justizia osoa egingo dugu gai horietan.

53. Gure aitak, Henryk, edo gure anaiak, Richardek, forestaturiko basoen kasuan halaber, atzerapen bera eta modu berekoa egingo dugu, eta justizia osoa egingo, erabakiz baso horiek soildu ala bere horretan mantendu behar diren; gauza bera, besteren feudo diren lurren zaintzari buruz —horien zaintza orain arte izan dugunean, zerbitzu militarren bidezko jabegoa dela medio—, eta gureak ez diren feudoetan sorturiko abadiari buruz ere, feudoaren jaunak horien gainean eskumena izatea aldarrikatzen duenean. Eta itzuli bezain pronto egingo diegu justizia gai horietan agertzen diren kexei, eta ez baldin badugu peleginaziorik egiten, berehala.

54. Inor ez da heriotza dela-eta atxilotua edo kartzelaratua izan emakume baten salaketagatik, hildakoa emakume horren senarra ez den artean.

55. Bidegabeki ezarriak diren nahiz lurraldeko legeak zilegi egiten ez dituen guk jarritako isun³³ guztiak, eta bidegabeki ezarriak diren nahiz lurraldeko legeak zilegi egiten ez dituen gainerako isunak³⁴, erabat barkatuak izanen dira edo, bestela, beherago segurtasun klausulan aipatzen diren hogeita bost baroiek isunen gainean epaia emango dute, edo haien gehiengoak, gorago aipaturiko Stephenekin —Canterburyko artzapezpikuarekin— batera, bertaratu badaiteke, edo artzapezpikuak auzi horretan berarekin batera jardutea nahi duen beste edonorekin

33 *Fine*.

34 *Amercement*: isun-jartzailearen —auzitegia bereziki— nahierara delitu-egileari jartzen zaion isuna. Isun arruntetik, *finetik*, bereizten da, azken hau delitu jakin bati ezartzen zaion kopuru finkoa baita, *amercementa*, aldiz, isuna jartzen duenak erabakitakoaren arabera.

batera. Eta ezin badu arazo horretarako bertaratu, auziak hura gabe aurrera egingo du. Gorago aipaturiko hogeita bost baroietako bat edo gehiago antzeko kexa batean sarturik baldin badago, epai jakin horretatik irten beharko dira, eta hogeita bost baroietatik gainontzekoek aukeraturiko eta zinaraziriko beste batzuek ordezkaturiko dituzte, soilik kasu horretarako.

56. Galestarren bat bere lurrez, askatasunez edo bestelakoez desjabetu edo gabetu badugu, Ingalaterran edo Galesen bere kideen legezko epaiketa bat egin barik, hari itzuli behar zaizkio berehala; eta horren gainean auzirik sortuko balitz, mugaldean³⁵ erabakiko da kideen epaiketa baten bidez; Ingalaterrako jabegoetarako, ingeles legearen bidez; Galeseko jabegoetarako, galestar legearen bidez; mugaldeko jabegoetarako, mugaldeko legearen arabera. Galestarrek gauza bera egin beharko dute gurekin eta gureekin.

57. Galestar bat, gure aitak, Henry erregeak, edo gure anaiak, Richard erregeak, haren kideen legezko epai baten bidez desjabetu edo gabetu izan balu, gure menekoa delarik, edo besterena, gu bermatzaile garelarik, orduan, atzerapen bat egingo dugu gurutzada kanpainak dirauen bitartean; gurutzea hartu baino lehen auzia edo ikerketa hasia zen kasu horietan izan ezik. Nolanahi ere, gure peleginaziotik bueltan gatozenean, edo ez baldin bagoaz, justizia osoa egingo dugu gai horietan, galestarren eta gorago aipaturiko lurraldeetako legearen arabera.

58. Berehala itzuliko ditugu Llywelyn-en semea eta Galeseko bahi guztiak eta bake bermean guri emaniko gutun guztiak.

59. Alexander, Eskoziarren erregea, tratatuko dugu, bere arriben eta bahien eta askatasunen eta eskubideen itzulerari dagokionez, Ingalaterran gure baroiekin egiten dugun modu berean, betiere, ez baldin bada beste modu batean izan behar haren aitarengandik, Williamengandik, eskoziarren errege ohiarengandik jasoriko gutunen arabera; eta hori Alexanderren kideek erabakiko dute gure gortean.

60. Gorago aipaturiko ohitura eta askatasun guztiak guk eskaini ditugunak gure erresuman gorde daitezten, guri dagokigun heinean, gure erresumako pertsona guztiek beteko dituzte, apaizek eta laikoek, eta eurei dagokienez, haien menekoez ere.

35 *The March*: Marka.

61. Bestalde, aurrean aipaturiko gauzak Jainkoaren izenean eskaini ditugunez, gure erresumaren erreformarako eta gu eta gure baroien artean sortu den liskarra konpontzeko, nahi dugularik gauza horiek goza daitezen osoki eta eragozpenik gabe eternalki, haiei honako bermea eman eta segurtatzen diegu: hots, baroiek nahi bezala erresumako hogeita bost baroi hautatuko dituztela, horiek euren kemen guztiarekin bete, manten eta betearazi behar dituztelarik honako gutunaren bitartez eskaini eta berretsi dizkiegun bake eta askatasun guztiak. Hortaz, guk edo gure justizia-buruak edo gure justizia-administratzai-leak edo gure zerbitzarietako inork norbaiti edonola kalte egiten badiogu, edo bakearen eta segurtasunaren artikuluetako bat urratzen badugu, eta urratzea hogeita bost baroietako lauri jakinarazten bazaio, lau baroi horiek guregana edo —gu erresumatik kanpo bageunde— gure justizia-buruarengana joko dute, eta jakinaraziko digute eta eskatuko digute berandutu gabe konpon dezagun. Eta guk, edo gure justizia-buruak, erresumatik kanpo gaudelarik, ez bagenio urratzeari konponbidea emango, guri edo gure ordezkariari jakinarazi zaigunetik berrogei egunera —erresumatik kanpo bageunde—, gorago aipaturiko lau baroiek kasua gainontzeko hogeita bat baroiei jakinaraziko diete, eta hogeita bost baroiek herrialde osoaren laguntzarekin ahal duten neurrian hartuko gaituzte, hots, gazteluak, lurrak eta jabetzak eurenganatuz, eta beste edozein modutan, gu, gure erregina eta gure seme-alabak izan ezik, harik eta, euren juzguaren arabera, konponketak egin diren arte; eta konponbidea eman zaionean lehen bezala obeditu beharko dute. Herrialdeko edonork zin egin dezake bere burua hogeita bost baroien mende ezartzeko, gorago aipaturiko gaiak beteak izan daitezen, eta haiekin elkartu eta gu bahitzeko, daukan kemenaren arabera, eta guk publikoki eta libreki baimentzen diogu edonori zin egitea, eta ez diogu inoiz inori debekatuko zin egite hori. Are gehiago, eskatzen eta agintzen diegu herrialdeko pertsona guztiei, euren kabuz zin egite hori egitera prest ez daudenei, hogeita bost baroiei zin egin diezaietela, haiekin batera bahi gaitzaten, eta lehenago aipaturiko moduan egin dezatela zin. Eta hogeita bost baroietako bat hilko balitz, edo herrialdea utziko balu edo beste moduren batean gorago aipaturiko betebeharrak betetzea ezinezko balu, gorago aipaturiko gainerako baroiek, euren erabakiz, haren lekua beteko duena aukeratuko dute, honek gainerako moduan zin egingo duelarik. Hogeita bost baroiei dagozkien gai guztietan, gertatuko balitz hogeita bost baroiak bertaratuak direlarik baten bat zer-

baitetan ez dagoela ados, edo haietako inor deitua izan delarik ezin bada bertaratu, bertaraturakoen gehiengoak erabakitakoa edo agindutakoa finkotzat eta irmotzat hartu behar da, hogeita bostek hala erabaki balute legez; gorago aipaturiko hogeita bostek zin egin behar dute leialki beteko dutela gorago aipaturiko guztia, eta ahal duten guztia egingo dutela bete dadin segurtatzeko. Eta guk ez diogu inori eskatuko, ez geronek ez besteren bitartez, aurreko emakidak eta askatasunak ezeztatuak edo txikiagotuak izan daitezen; eta halako gauzarik eskatuko balitz, baliogabea eta hutsa izanen litzateke, eta ez dugu guk edo besteren bitartez erabiliko.

62. Eta osoki barkatu eta indultatu dugu liskarraren garaitik gu eta gure menekoen —apaiz zein laiko— artean sorturiko asmo txar, haserre eta gorroto oro. Are gehiago, denak indultatu ditugu, kleriko zein laiko, eta zeharo barkatu ditugu liskar hura zela-eta eginiko urratze guztiak, gure erreinaldiko hamaseigarren urteko Aste Santutik hasi eta bakearen ezartzera arte. Gainera, haientzat gutun ageriak prestatu zitugu, horiek Lord Stephenek, Canterburyko artzapezpikuak, Lord Henryk, Dublineko artzapezpikuak, gorago aipaturiko apezpikuek eta Pandulfek eginak direlarik, haien segurtasunerako eta aipatuak izan diren kontzesio horiek ager daitezen.

63. Hortaz, erabat eta irmoki dekretatzen dugu ingeles eliza aske izanen dela, eta gure erresumako herritarrek gorago aipaturiko askatasun, eskubide eta emakida horiek guztiak izanen dituztela, behar bezala eta bakean, aske eta lasaitasunean, eurentzat zein euren ondorengoentzat gugandik eta gure ondorengoengandik jasota, eternalki gauza eta leku guztietan, lehenago aipatu den moduan. Bestalde, juramentua zin egin dugu, bai geuk zein baroiek, lehenago aipaturiko gauza horiek guztiak fede onez eta asmo txarrik gabe beteko direla. Lekuko direlarik gorago aipaturikoak eta beste hainbeste. Gure eskutik eman izan da Windsor eta Staines artean dagoen larrean, Runnymede deritzanean, gure erreinaldiko hamazazpigarren urteko ekainaren hamabosgarren egunean.

2.

*HABEAS CORPUS LEGEA (1679)**

Herritarren askatasuna hobeto bermatzeko eta itsasotik haraindiko espetxeratzeen prebentziorako legea.

KONTUAN HARTUTA sheriffek, kartzelariak eta beste funtzionario batzuek —horien zaintzapean ezarri direlarik erregearen meneko kartzelaratuak, eginiko edo ustez eginiko ekintza kriminalak direla eta— atzerapen handiz erantzun izan dietela haiei egin zaizkien habeas corpus aginduei, beroriei aurka egiteko ezizena erabiliz edo habeas corpusari hirugarren³⁶ —edo batzuetan gehiago— erantzun bat eman, baita halako aginduak ez obeditzeko asmatutako bestelako trikimailuen bidez ere, hortaz, haien betebeharraren eta herrialdeko lege ezagunen kontra egiten dutela, eta modu horretan erregearen menekoak kartzelan luzaroan izan direla eta aurrerantzean ere luzaroan izan daitezkeela —legearen arabera pertsona horiek fidantzapean irtetea daukatenean— eta, horrela, kaltetu eta laidoztatu egiten zaiela:

II. Halako auzi kriminal edo ustez kriminalen prebentziorako, eta hargatik kartzelaratuak izan diren pertsonen askatze azkarrago baterako, (2) erregearen maiestate gorenak promulga beza, komun en zein lord espiritual eta iragankorren aholkuz eta adostasunez, horiek parlamentuan bilduak direlarik, eta bertatik datorren autoritatetik: Pertsona batek edo zenbaiten sheriff bati edo zenbaiti, kartzelari bati, agente bati edo beste edonori, horien zaintzapean dagoen pertsona baten aldeko *habeas corpus* agindu bat aurkezten zaienean, eta aipaturiko agindua irakurtzen edo ematen zaienean funtzionario horri, edo aipaturiko funtzionario edo zaintzaileen azpiko funtzionario edo zaintzaile bati, edo ordezkari bati, horietako edonork —notifikazioa eman, eta hiru eguneko epean— aginduari erantzun dio (betiere, presoaren entregatzea ez badu traizioak edo krimen larriak³⁷ eragin, entregatze ziurtagiria espetxeratzearen zioa argi eta espezifikoki adierazten delarik). Aipaturiko

* Iturria: *Habeas Corpus Act 1679*; Constitution Society (AEB), <http://www.constitution.org/eng/habcorpa.htm> (2007ko urriaren 11n atzitu)

³⁶ *Pluries*: aurretik emandako aginduei jaramonik egin ez zaienean, beste agindu bat ematea.

³⁷ *Felony*.

presoa espetxeratua izateko karguek eskatzen duten ordainketa edo fidantza finkatuko da, kargu horiek aurkeztu zituen epaileak edo tribunak ezarriko duelarik ordainketon balioa. Aipaturiko aginduan idatzita agertuko da balio hori, eta ez du gaindituko hamabi penny milia bakoitzeko. Fidantza-ordaintzaileak presoa bueltatzeko kostua ordainduko duela segurtatuko du, tribunalera edo epailearengana bidalia izan dadin honako legearen benetako xedearen arabera, eta ziurtatuko du, halaber, presoak bitartean ez duela ihes egingo. (3) Hala entregatua edo atxilotua den herritarra eraman edo eramanez bedi lord kantzilerraren edo Ingalaterrako zigilu handiaren uneko lord gordetzaileraren aurrera, edo agindu hori ematen duen epaileen edo baroien tribunalaren aurrera, edo —aginduan adierazia den arabera— presoa haiengana itzulia izan behar den pertsona edo pertsonen aurrera. (4) Modu berean, berehala zertifikatu egingo dira atxilotzailearen edo espetxeratzearen benetako kausak, betiere, entregatzea tribunalaren edo atxilotu horren bizilekutik hogeit hamar milia baino urrunago dagoenean izan ezik. Hogeit hamar milia urrutiago, eta ehun milia baino gertuagoko distantzian denean, hamar eguneko epean, eta ehun milia baino urrunago denean, hogeit hamar eguneko epean, gorago aipaturiko igorpena gertatu ondoren, eta ez denbora luzeagoan.

III. Eta ezein sheriff, kartzelari edo bestelako funtzionariok ez dezan itxura egin —halako agindu baten esanahia ezagutzen ez duela—, (2) gorago aipaturiko autoritateak promulga beza agindu horietan guztietan honako hitzak jartzea: «Per statutum tricesimo primo Caroli secundi Regis»³⁸, eta agindua ematen duen pertsonak izenpetu beharko du hori. (3) Edozein pertsona —edo pertsonak— lehen aipatu moduan entregatuak edo atxilotuak baldin badira, edozein krimen dela eta —traizioagatik edo krimen larriagatik izan ezik, arrazoi hori modu nabarmenean adieraziko delarik entregatze aginduan³⁹—, oporraldian edo tribunala jardunean ez dabilenean, legekoa da eta izanen da hala entregatzen edo atxilotzen diren pertsona edo pertsonentzat (espetxeratuak edo prozesu legal baten barne ez direnak), edo horien alde eta ordeztuak edonorentzat, helegitea aurkeztea lord kantzilerraren edo lord zaintzailearen aurrean, edo Maiestatearen edozein justizia-ordez-

38 «Hogeita hamaikagarren errege den Charles II.aren aginduz».

39 *Warrant of commitment*.

kariren aurrean, ordezkaria edozein motatakoa delarik ere, edo altxor publikoko baroi kapela-zuridunen⁴⁰ aurrean. (4) Aipaturiko lord kantzilerrak, lord zaintzaileak, justizia-ordezkariak edo baroiak, batetik, entregatzearen eta atxilotzailearen agindua edo aginduen⁴¹ kopia edo kopiak ikusita, edo, bestetik, zin egiten bada preso edo presoak atxilotuta dauzkaten pertsonak edo pertsonen kopia edo kopiak emateari uko egin diotela, hortaz, bada, aipaturiko justizia ordezkari horiek baimenduak eta behartuak dira, pertsona hori edo horiek, edo haien orde egiten duten edonork —aipaturiko pertsonen alde egiten dutela eskaera egiterakoan, bertan zeuden bi lekukok ziurtatu eta izenpetuta— idatziz eskatuz gero, *habeas corpusa* eskaintzera, tribunalaren zigilua-rekin, eskaintzailea tribunal horretan epaileetako bat izanen delarik. (5) *Habeas corpus* hori zuzenduko zaie hiritarra entregatu zaien edo atxilotua duten funtzionarioei, eta *zuzenean* itzuli beharko zaio aipaturiko tribunaleko lord kantzilerrari, edo lord zaintzaileari, justizia ordezkariari edo baroiari zein baroi kapela-zuridunari. (6) Jakinarazpen hori jasota, funtzionarioak edo funtzionarioek, bere edo beraien azpiko funtzionario edo funtzionarioek, beheragoko zaindari edo zaindarien, edo haien ordezkarien —horien zaintzan baitago aipaturiko hiritar entregatua edo atxilotua—, lehenago mugatuak izan diren epeetan, preso hori edo horiek eroan edo bidali beharko dituzte lehenago aipaturiko lord kantziler edo lord zaintzaile, edo justizia ordezkari, edo baroien aurrea, eta atxilotua haiengana itzularazten ez bada, orduan, aipaturiko agindua itzuliko da, atxilotzailearen eta entregatzearen benetako kauserkin batera. (7) Hiritarra haiengana ekarria izan eta bi eguneko epean, aipaturiko lord kantzilerrak edo lord zaintzaileak, edo justizia ordezkariak edo baroiak, haiengana eramana izan delarik, aipaturiko presoak bere kartzelaratzetik aske utziko dute, berarengandik fidantza bat⁴² jasoz —bermatzaile batekin edo gehiagorekin—. Fidantza edo bermea epaileei iruditzen zaien kopurukoa izanen da, presoaren nolakotasuna eta urratzearen natura kontuan hartuta. Entregatzea edo urratzea egin

40 *Barons of the exchequer of the degree of coif*: erregearen eta hiritarren artean diru sarreraren inguruan sortzen ziren auziak epaitzen zituzten baroiak lau izaten ziren, eta horiek kapela zuria zeramaten buruan.

41 *Warrant of commitment and detainer*.

42 *Recognizance*: Legeak eskatzen duen ekintza bat egingo dela ziurtatzeko, auzitegiak ezartzen duen bermea. Ekintza hori betetzen ez bada, berme edo fidantza horri atxikiko zaio.

zen eskualde, hiri edo lekuko tribunalaren hurrengo saioan, edo goi auzitegiaren hurrengo saioan⁴³, edo hurrengo kartzela-askatzearen gaineko epaimahaiaren saio orokorrean⁴⁴, erregearen epai-aulkian⁴⁵, edo, bestela, urratze horren kasuan eskumena daukan epaimahai batean — kasuak hala behar baitu— eser dadin edo daitezen, horretarako, aipaturiko agindua zertifikatuko da, berorren itzulerarekin batera; baita bermea edo bermeak ere, atxiloturikoa haietan bertaratu beharko den tribunal horietan. (8) Betiere, aipaturiko lord kantzilerrari edo lord zain-tzaileari, edo epaile edo epaileei, edo baroi edo baroiei, ez baldin bazaie iruditzen entregatua izan den aipaturiko hiritarra espetxeratua dela prozesu legal baten bidez, ordena edo agindu baten bidez, auzi kriminaletan eskumena duen epaimahai baten bidez, edo aipaturiko epaile edo baroiek, edo bake epaile edo epaileek sinaturiko eta zigilaturiko agindu baten bidez, legearen arabera presoak fidantzapean irtetea ez daukan auzi edo urratzeetan. [...]

43 *Assizes*: Ingalaterrako goi auzitegi-tako epaile-tako batek behintzat, konderri bakoitzean, aldizka egiten zituen saioak. Auzi zibilak aztertze-ko, batetik, jabetza-ren inguruan erabakitzen zuen batzorde baten laguntza zeukan epaile horrek, eta, auzi kriminaletarako, bestetik, entzun, erabaki, eta espetxeratzeak aztertzen zituen batzorde baten laguntza zuen.

44 *General gaol-delivery*.

45 *King's Bench*.

3.

BILL OF RIGHTS (1689)*

Herritarraren eskubideak eta askatasunak adierazi eta Koroaren oinordetza finkatzen duen legea.

Lord espiritualek eta iragankorrek, eta komunek, Westminsterren bildurik, erresuma honetako herriaren estamentu guztiak legalki, osoki eta askatasun osoz ordezkatzuz, gure Jaunaren mila seiehun eta laurogeita bederatzigarreneko otsailaren hamahiruan euren maiestateei —orduan William eta Mary izenekin eta Orangeko printze eta printzesa tituluekin ezagutzen zirenak eta hala zeritzetenak, eta horiek bertaratuak zirelarik— lord eta komunek berek eginiko deklarazio idatzia aurkeztu zieten, honakoa zioena:

Aurreko errege James II.ak, bere kargu zeuden aholkulari, epaile eta ministro maltzur anitzen laguntzarekin, erlijio protestantea eta erresuma honetako lege eta askatasunak iraultzeari eta suntsitzeari ekin zion;

Parlamentuaren onespénik gabe, legeak kentzeko, indargabetzeko ala egikaritzeko boterea norberarentzat hartuz eta bere kabuz gauzatzuz;

Hark beretzat harturiko botere horri adostasuna ematera ez behartzeko umilki eskatzeagatik, zenbait prelatu goraipagarri kartzelaratzuz eta auzipetuz;

Zigilu Handiaren babesean batzorde bat sorraraziz, Elizako Auzietarako Izendatuén Epaimahaia era zedin;

Norberarentzat ustezko prerrogatiba bat hartuz, Koroaren erabilerarako zergak bilduz, parlamentuak onetsirikoa ez zen une eta moduetan;

Parlamentuaren onespénik gabe, bake garaian erresumako lurretan gudaroste iraunkor bat eratuz eta mantenduz, eta legearen kontra soldaduak koarteleratzuz;

Protestanteak ziren hiritar on asko desarmaraziz, papistek euren buruak armatu eta legearen kontra jarduten zuten bitartean;

* Iturria: Yale Law School, University of Yale (AEB), <http://www.yale.edu/lawweb/avalon/england.htm> (2007ko urriaren 11n atzitua).

Parlamenturako kideak hautatzeko askatasuna urratuz;

Errege Auzitegian, soilik parlamentuari zegozkion arazoak eta auziak aztertuz, eta bestelako zenbait prozedura arbitrario eta legez kontrako erabiliz;

Eta azken urteotan pertsona ezgai, ustel eta alderdikoiak hautatu izan dira epaimahaietan kide izateko, eta bereziki traizio larrien gaineko auzietan parte hartu izan duten zinpeko batzuk, lurjabe ez zirenak;

Delituen epaiketan auzipetuei gehiegizko fidantzak eskatu izan zaizkie, eta hiritarren askatasunerako legeen abantailak saihestu dira;

Eta gehiegizko isunak ezarri dira;

Eta zigor ilegal eta krudelak ezarri dira;

Eta pertsona batzuekin, auzipetuak edo kondenatuak izan baino lehen, haiei ezartzeke ziren isun eta konfiskazioetatik emakidak eta konpromisoak egin izan dira;

Gauza horiek guztiak arras kontrakoak dira erresuma honetako lege eta estatutu ezagunekiko.

Eta aipaturiko aurreko James II. erregeak agintaritzaz eta tronuaz abdikatu zuelarik, horiek hutsik geratu zirenez, Bere Gorentasunak Orangeko printzeak (Jainko Ahalguztidunak atsegin izan baitzuen hura egitea gure erresumako aitasantuzaletasuna eta botere arbitrarioa ezabatzeko bitarteko loriatsu), berak (lord espiritual eta iragankorren, eta komunetarik hainbat pertsona garrantzitsuren aholkuz) zenbait gutun idatzarazi zituen protestanteak ziren lord espiritual eta iragankorrenrentzat, eta beste gutun batzuk konderri, hiri, unibertsitate, udalerrri eta Cinque Ports-etarako⁴⁶, parlamentuan legearen arabera horien ordezkari izan beharko zuten pertsonak hautatzeko, Westminsterren bil zitezen mila seihun eta laurogeita zortziko, aurtengo, urtarrilaren hogeita biau, euren erlijioak, legeak eta askatasunek osatzen duten antolamendua ez dadin ostera ere iraulpen arriskuan egon; horretarako, hautespen gutunak egin ziren.

Hortaz, aipaturiko lord espiritualek eta iragankorrek zein komunek, dagozkien gutun eta hautespenei jarraiki, nazio honen ordezkaritza osoz eta aske bilduta direlarik, lehenago aipaturiko helburuak

46 *Cinque Ports* honako hiriek osatzen zuten: Sandwich, Dover, Hythe, Romney eta Hastings-ek.

erdiesteko modurik hoberenak serioski hausnartuz, lehenik eta behin, euren antzinako eskubideak eta askatasunak aldarrikatzeko eta berresteko (euren arbasoek halakoetan egin ohi izan duten bezala) honakoa deklaratzan dute:

Errege autoritateak berak hartzen duen ustezko boterea, parlamentuaren onespénik gabe legeak indargabetzeko edo egikaritzea suspentsioan uzteko, legearen kontrakoa dela.

Erregetiar autoritateak ustez duen boterea, hots, legeak kentzeko ala egikaritzekoa —azken boladan botere hori norberarentzat hartu eta gauzatu egin baitu—, legearen kontrakoa dela.

Elizaren Auzietarako Izendatuen Epaimahaia eratzeko batzordea, edo antzerakoak diren gainontzeko batzorde eta epaimahaiak, horiek guztiak ilegalki eta kaltegarriak direla.

Parlamentuak onetsia izan gabe —parlamentuak berak eskainitako epe luzeagorakoa edo onetsia izateko beharrezkoa den beste modu batean— Koroak berarentzat hartzen duen ustezko pribilegio hori, Koroaren erabilerarako zergak biltzea, legearen kontrakoa dela.

Herritarren eskubidea dela erregeari eskaerak egitea, eta eskaerak egiteagatik eginiko atxilotze eta auziperatze guztiak legearen kontrakoak direla.

Bake garaian, parlamentuaren onespénik gabe, erresumako lurretan armada iraunkor bat sortzea eta mantentzea legearen kontrakoa dela.

Protestanteak diren herritarrek euren defentsarako armak izan ditzaketela, euren egoeraren arabera eta legeak baimentzen duen moduan.

Parlamenturako kideen hauteskundeak askeak izan beharko lirakeela.

Parlamentutik kanpo ezein leku edo auzitegitan ez zaiela kontra egin edo zalantzan jarri behar parlamentuko adierazpen askatasunari, eztabaidei eta bilerei.

Ez direla gehiegizko fidantzak eskatu behar, gehiegizko isunak jarri behar, eta zigor krudel eta ezohikoak ezarri behar.

Zinpekoen epaimahaia behar bezala osatua eta berretsia izan beharko litzatekeela, eta traizio larrien gainean erabakitzen duten zinpekoek lurjabeak izan beharko luketela.

Pertsona partikular bat kondenatua den arte, bere jabetzekin egiten den konfiskazio eta isun emakida edo promesa guztiak deusezak eta ilegalak direla.

Eta kexa guztiei konponbidea emateko, eta legeak zuzentzeko, indartzeko eta mantentzeko, parlamentuak sarri bildu beharko lukeela.

Eta premisa horiek guztiak eta bakoitza tinko aldarrikatzen eta eskatzen dituzte, eskubide eta askatasun zalantzaezinak diren heinean, eta, oraindik aurrera, aipaturiko premisa horietan herriaren kalterako den ezein adierazpen, epaiketa, ekintza zein bilera ez dadila har aurrerari edo etsenplu gisa, halako eskaera egitera bultzatu baitzuen herria bereziki bere Gorentasunak Orangeko printzeak, eskaera baita zuzenketarako eta konponbiderako modu bakarra. Beraz, konfiantza osoa daukatelarik bere Gorentasunak, Orangeko printzeak, oraindaino horrenbeste aurreratu duen liberazioa areagotuko duela, eta urratuak izatetik babestuko dituela hemen aldarrikaturiko eskubideak, eta babesba eman-go duela, baita euren erlijioaren, eskubideen eta askatasunen aurkako beste edozein erasotik ere, aipaturiko lord espiritualek eta iragankorrek zein komunek Westminsterren bilduta honakoa erabakitzen dute: William eta Mary, Orangeko printze eta printzesak, Ingalaterrako, Frantziako, Irlandako eta menpeko lurraldeetako errege eta erregina izendatuak izatea. Aipaturiko erresuma eta menpeko lurretan koroa eta erregetiar duintasuna izatea, haien bizitzan zehar eta bietatik bizirik dirauenarenean zehar. Erregetiar boterearen egikaritze bakarra eta osoa Orangeko printzeak izan beza aipaturiko printzearen eta printzesaren izenean. Eta haien heriotzaren ostean, aipaturiko erresumetako eta menpeko lurraldeetako koroa eta erregetiar duintasuna printzesaren ondorengoentzat izan bedi, eta horien faltan Danimarkako Anne printzesarentzat eta bere ondorengoentzat, eta horien faltan Orangeko printzearen ondorengoentzat. Eta lord espiritualek eta iragankorrek zein komunek erregutzen diete printze eta printzesari proposamen horiek onar ditzaten.

Eta ondoren aipatzen diren zin egiteak egin bitzate, legeak eskatzen duen moduan, leialtasun eta gorentasun zin egiteak burutzea dagozkienek, eta izan bitez indargabetuak aurreko leialtasun eta gorentasun zin egiteak:

*«Nik, ***, zintzoki promesten eta zin egiten dut fidela izanen naizela eta benetako leialtasuna izanen diedala William erregeri eta Mary erreginari. Jainkoak lagun nazala horretan.»*

*«Nik, ***, zin egiten dut bihotzez gorrotatzen, higuintzen eta arnegatzen dudala, fedegabe eta heretiko baita, doktrina edo ikuspegi hori, honakoa dioena: Aita santuak edo Vatikanoko beste autoritateren batek eskumikaturiko edo kargugabeturikoa bere menekoek edo beste edonork kargutik bota edo erail dezakeela. Eta adierazten dut inolako atzerriko printze, pertsona, prelatu, estatu edo handikik ere ez duela erresuma honen gainean jurisdikziorik, botererik, gailentasunik, nagusitasunik edo autoritaterik, ez eliza mailan, ez espiritualean. Jainkoak lagun nazala horretan.»*

Horren ostean, aipaturiko maiestateek Ingalaterrako, Frantzia-ko, Irlandako eta menpeko lurraldeetako koroa eta erregetiar duintasuna onartu zituzten, aipaturiko adierazpenean lord espiritual eta iragankorrek zein komunek agerturiko erabakiari eta nahiari jarraiki. Maiestateek nahi zuten lord espiritual eta iragankorrek zein komunak, parlamentuaren bi ganberak osatzen dituztenak, biltzen jarraitzea, eta maiestateen laguntza erregetiarrarekin erresuma honetako erlijioaren, legeen eta askatasunen finkapenerako modu eraginkorrean kontu hartzea, horrela, etorkizunean ez zitezen horiek ostera iraulpen arriskuan izan, horri guztiari lord espiritualek eta iragankorrek zein komunek onespina eman eta horren arabera jarduteari ekin zioten. Premisa horien arabera jokatu, lord espiritualek eta iragankorrek zein komunek, parlamentuaren autoritatearekin behar bezala eginiko legearen indarra duten eta adierazpenean agertzen diren artikulua, klausula, arazo eta gauzak —eta adierazpena bera— berresteko, konfirmatzeko eta finkatzeko parlamentuan bildurik, erregutzen dute aipaturiko adierazpenean agertzen eta aldarrikatzen diren eskubide eta askatasun guztiak eta bakoitza, bada, erresuma honetako herriaren benetako, antzinako eta zalantzaezineko eskubide eta askatasunak direla, eta horrela nahi da kontsidera, baimen, deklarara eta har daitezen. Gorago aipaturiko partikular guztiak irmoki eta zorrozki zaindu eta beteko dira, deklarazioan adierazita dauden moduan, eta funtzionario zein ministro guztiek maiestateei eta berorien ondorengoei zerbitzu egingo diote horien arabera aurrerantzean. Lord espiritualek eta iragankorrek zein komunek, ikusita nola Jainko ahalguztidunak atsegin izan zuen, nazio honekiko izan zuen probidentzia liluragarriarekin eta ontasun bihozberarekin, gure maiestateak laguntzea eta babestea, euren arbasoen tronutik agin gintzaten, horregatik guztiagatik euren bihotzaren muienetik hari

eskerrik eta alabantzarik umilenak ematen dizkiote, eta euren bihotzen zintzotasunetik uste dute benetan, zintzoki eta ziurtasunez, James II. erregeak gobernuaz abdikatu duelarik eta maiestateek onartu dituztelarik koroa eta duintasun erregetiarra, aipaturiko maiestateak bihurtu zirela, izan bazirela, badirela eta eskubide osoz izan beharko direla, erresuma honetako legeen arabera, Ingalaterrako, Frantziako, Irlandako eta menpeko lurraldeetako gure jaun eta andere subiranoak, errege eta erregina; eta printze-printzesari ematen, elkartzen, batzen eta atxikitzen zaizkie osokien, eskubide gehienarekin eta erabat, erresuma honetako estatua, koroa eta duintasun erregetiarra zein horiei dagozkien ohore, titulu, erregalia, pribilegio, botere, eskumen eta autoritate guztiak. Erresuma honetan, koroaren tituluak sorturiko uziren bat dela medio, eztabaida eta desakordiorik ez sortzeko, eta ondorengotzan ziurtasuna ezartzeko, Jainkoa lagun, ondorengotza horretan baitatza nazio honetako batasuna, bakea, lasaitasuna eta segurtasuna, aipaturiko lord espiritualek eta iragankorrek zein komunek arren eskatzen diete maiestateei promulga, ezar eta deklaratu dezatela aipaturiko erresuma eta menpeko lurraldeetako koroa eta gobernu erregetiarra, eta horiei dagozkien jabego guztiak eta bakoitza, aipaturiko maiestateenak, bizirik dirauten artean, eta, ondoren, horietarik bizirik dirauenarenak izanen direla eta izaten jarraituko dutela, eta botere eta gobernu erregetiar oso eta perfektuaren gauzatzea erregeak izanen duela maiestate bion izenean, biak batera bizi diren artean, eta bion heriotzaren ostean koroa eta jabegoak erreginaren ondorengoei dagozkiela, eta horien faltan Danimarkako Anne printzesari eta erregearen ondorengoei. Lord espiritual eta iragankorrek zein komunek herri osoaren izenean euren buruak, euren ondorengoenak eta etorkizunekoak umilki eta leialki meneko egiten dituzte betirako, eta fidelki promesten dute maiestateak babestuko, gordeko eta defendatuko dituztela, baita koroaren ondorengotzaren eta mugapenaren gainean hemen zehazten eta aipatzen dena ere, daukaten kemen osoarekin eta bizitza zein jabegoeekin, aurkakoa inposatzen saiatzen den edonoren aurka. Esperientziak erakusten duenez erresuma protestante honetako segurtasunarekin eta ongizatearekin bateraezina dela berau printze aitasantuzale batek —edo papista batekin ezkonduko errege edo erregina batek— gobernatua izatea, lord espiritualek eta iragankorrek zein komunek erregutzen dute deklaratu dadila Vatikanorekin komunioa duen edo harekin berradiskidetzen den edozein pertsona edo pertsonak, edo aitasantuzaleen

erlijioa praktikatzen duena, edo papista batekin ezkontzen dena, betirako baztertua izatea eta betirako ezgai izatea erresuma honetako eta Irlandako eta menpeko lurraldeetako koroa eta agintaritza jaraunsteko, edukitzeko edo gozatzeko, edo bertan botere, autoritate edo eskumen erregetiarrik izateko. Horietako kasu guztietan erresuma hauetako pertsonak salbuetsiak daude haienganako leialtasuna izatetik. Lehen aipatu bezala berradiskideturiko, komunioa izaniko edo halako batekin ezkonduko pertsonaren ondorengoek —aurrekoak hilik baleude— koroa eta agintaritza jaso dezakete protestante izanez gero. Eta erresuma honetako errege eta erregina bakoitzak, aurrerantzean erresuma honetako koroa inperiala jasotzen duenak, koroa jaso eta parlamentuaren hurrengo bilkuraren lehen egunean, Lorden Ganberan duen aulkian eserita, bertan diren lord eta komunen aurrean, edo koroatzearen ekitaldian bertan, hari koroatze zina hartuko dioten pertsonen aurrean (lehenik hori egingo baitu), Charles II.aren erreinaldiaren hamahirugarren urtean onarturiko estatutuko deklarazioa egin, onets eta ozenki errepika dezala, *Papistak ganbera bietan esertzeko ezgai eginda, erregea eta bere agintaritza eraginkorki babesteko legea* deritzana alegia. Baina gertatuko balitz errege edo erregina batek erresuma honetako koroa jasotzerakoan ez dituela hamabi urte beteak, orduan, errege edo erregina horrek hamabi urte bete ostean, parlamentuaren lehen bilkuran egingo, onetsiko eta ozenki errepikatuko du aipaturiko zin egitea bere koroatzean. Hori guztia, maiestateak horrekin kontent direlarik, deklaratu, promulgatu eta ezarria izanen da parlamentu honen autoritatearekin, eta betirako indarrean egongo eta mantenduko da erresuma honetako legearen bidez. Aipaturiko maiestateen bitartez, lord espiritualen eta iragankorren zein komunen aholkuarekin eta onespenarekin, parlamentuan bilduta direnekin, eta berorren autoritatearekin, deklaritzen, promulgatzen eta ezartzen da.

II. Eta aipaturiko autoritateak deklaratu eta promulga beza parlamentuko bilkura honetatik aurrera ez dela onartuko inolako salbuespenik, ez ezein estatututan, ez ezein zatitan, *non obstante*⁴⁷ baten bidez, berau deuseza eta eraginik gabea kontsideratuko baita, betiere, salbuespena ez baldin bada onartua parlamentuak zehazki emaniko lege edo lege batzuen bidez.

47 Hitz horiekin, errege ingelesen pribilegio bat hartzen zuten euren buruontzat, eta legea betetzetik aske geratzen ziren, hau da, legea urra zezaketen.

III. Lege honek ez du auzipetuko edo baliogabetuko gure Jaunaren mila seiehun eta laurogeita bederatzi urtea baino lehenago emandako gutun, emakida edo barkamenik; aldiz, horiek indar eta ondorio juridiko bera izan eta mantenduko dute, lege hau inoiz onartu izan ez balitz bezala.

ACT OF SETTLEMENT edo FINKAPEN LEGEA (1701)*

Zure Maiestatearen eta gure Andre Subirano zendu eta graziaz betearen, Mary erreginarene (oroitzapen bedeinkatuko horren) erreinaldiko lehen urtean, parlamentuak lege bat eman zuen, honela deritzana: «Herritarren eskubideak eta askatasunak adierazi eta koroaren ondorengotza finkatzen duen legea». Bertan (beste hainbat gauzaren artean) promulgatzen, ezartzen eta deklaritzen da Ingalaterra, Frantzia eta Irlandako errege-gobernuen eta koroaren ondorengotza, baita menpeko lurretakoa ere, Zure Maiestatearena eta aipaturiko erreginarena dela eta izaten jarraitu behar duela; hori, aipaturiko erregina eta Zure Maiestatea elkarrekin bizi zinetenean, orain, bizirik dirauenarena baita. Zure Maiestatearen eta aipaturiko erreginarene heriotzaren ostean, errege-gobernua eta koroa aipaturiko erreginarene ondorengoei dagokiela esaten da ere, eta, horien faltan, Danimarkako Anne printzesa txit gorenari edo bere ondorengoei, eta, horiek faltako balira, Zure Maiestatearen ondorengoei. Promulgatu da, halaber, Erromako Elizako Aulki Gorenarekin adiskidetzen edo komulgatzen, erlijio aitasantuzalea jarraitzen edo papista betekin ezkontzen den pertsona edo pertsonak kargu horietatik baztertuak direla, eta lege horren arabera ezinezkoa dutela oinordetzan jasotzea, eurentzat edukitzea edo gozatzea, erresuma honetako, Irlandako, menpeko lurraldeetako, edo horietako zati batetako koroa eta gobernua, edo horietan edukitzea, erabiltzea edo egikaritzea inolako erret botererik, autoritaterik edo eskumenik. Horietako kasu guztietan eta bakoitzean erresuma hauetako jendeak, hortaz, ez duela haienganako leialtasunik mantendu behar, ez orain, ez etorkizunean. Eta aipaturiko koroa eta gobernua aldian-aldian protestante diren pertsonengana irits daitekeela, nahiz eta, lehen aipatu den moduan, Vatikanoarekin adiskidetuak, komulgatuak, katolikoak, edo horiekin ezkonduetakoak direnen ondorengoak izan, betiere, euren aurrekoak naturalki hilda badaude.

Lege⁴⁸ hori egin ondoren, eta bertan burutzen den finkapenarekin, Zure Maiestatearen meneko onak —euren erlijioaren, eskubideen

* Iturria: The United Kingdom Statute Law Database, Ministry of Justice (Erresuma Batua), <http://www.statutelaw.gov.uk/content.aspx?activeTextDocId=1565208>

48 *Statute*.

eta askatasunen gozatzea eta jabetza itzuli zitzaielarik Jainkoari esker, xede horretarako hark Zure Maiestatearen jarduera justuei eta ahalegin nekaezinei arrakasta ekarri baitzien— ez zuten uneko zoriontasun handiagorik itxaroteko eta desiratzeko, ez bada Zure Maiestatearengandik datorren errege-erregina leinua ikustea, zuri (Jainkoari esker) zor baitizue lasaitasuna, eta haien arbasoak urte askotan izan baitira erreformaturiko erlijioaren eta askatasunen defendatzaile nagusiak Europan, baita gure Andre Subirano graziaz betearengandiko leinua ere, haren oroitzapena beti izanen baita maitagarria erresuma hauetako herritarrentzat. Eta Jainko Ahalguztidunak nahi izan zuelarik gure andre subiranoa eroatea, baita gure printze William, Gloucesterreko duke itxaropentsua ere (Danimarkako Anne printzesa gorenaren ondorengo bakarra), Zure Maiestatearen eta zure meneko onen min eta nahigaberako, haien galera kontuan izan arren, Jainko Ahalguztidunak Zure Maiestatearen eta printzesa gorenaren⁴⁹ bizitza luzatzea atsegin izan beza, eta Zure Maiestateari edo printzesa gorenari koroa eta erregetiar-gobernua —legean aipatzen diren mugekin— oinordetzan jasoko dituen ondorengo eskain biezaie, eta etengabe arren eskatzen dugu grazia jainkotiarra bedeinkazio horietarako. Eta Zure Maiestatearen menekoek egunero gozatu izan dugunez zure arreta eta ardura erregetiarrak, erresuma hauetako egungo eta etorkizuneko ongizaterako, eta bereziki tronuari eskatzen diogu kontu izan dezan koroaren ondorengotzak lerro protestantetik jarraitzea nahi dugula, nazioaren zorionerako eta gure erlijioaren segurtasunerako; eta, bestetik, erresuma honetako segurtasunerako, bakerako eta lasaitasunerako zeharo beharrezkoa izanik bertan zalantza eta liskar guztiak ekiditea, koroaren aldarrikapen uziak saihestuz, eta, hortaz, ondorengotzan segurtasun bat mantenduz, zure menekoek babes bila koroarengana jotzea izanen duten segurtasunaz —baldin eta aipaturiko legeko mugaketak mantentzen badira—; beraz, koroaren ondorengotzak lerro protestantetik jarraitzea bidera dadin, guk, Zure Maiestatearen meneko leial eta esanekook, lord espiritualek eta iragankorrek, eta komunek, honako parlamentuan bilduta, Zure Maiestateari otoi eskatzen dizugu promulgatzea eta deklaratzeko, erregearen maiestate bikainenaren bitartez promulgatzea eta deklaratzeko, parlamentu honetan bilduta dauden lord espiritual eta iragankorren zein komunen

49 *Royal Highness*: errege edo erregina ez direlarik, errege sendiko zenbait kideri dagokien titulua da hau.

aholkuarekin eta adostasunarekin, eta parlamentuaren autoritatea dela medio, Sophia printzesa bikainena, Hanoverreko dukesa eta aita santuaren hautatzailearen alarguna, Elizabeth printzesa bikainenaren, Bohemiako erreginarekin alaba, eta zorioneko oroitzapenek James I. lord subirano zenaren loba, bera izan bedi eta, hortaz, deklaratu izan bedi hurrengo ondorengoak lerro protestantean, berak jasoko dituelarik Ingalaterra, Frantzia, Irlanda eta menpeko lurraldeetako koroa inperiala eta duintasuna, Zure maiestatearen eta Danimarkako Anne printzesaren ostean, aipaturiko printzesak eta Zure Maiestateak hurrenez hurren ondorengorik izanen ez balute. Eta Zure Maiestatearen, orain gure Lord Subiranoa zarenaren, eta Danimarkako Anne printzesaren heriotzaren ostean, eta ondorengorik ez bazenute, Ingalaterrako, Frantziako, Irlandako eta menpeko lurraldeetako koroa eta errege-gobernua, aipaturiko erresumen errege-maila eta duintasunarekin, eta ohore, titulu, erregalia, pribilegio, botere, jurisdikzio eta autoritateekin, haiei dagozkiekin, horiek guztiak izanen dira, mantentzen dira eta izaten jarraituko dute aipaturiko Sophia printzesa bikainenarenak, eta bere ondorengoak, horiek protestante direlarik. Eta, beraz, aipaturiko lord espiritualek eta iragankorrek, eta komunek, erresuma honetako jende guztiaren izenean, erabat zintzoki eta leialki menpeko egingo dituzte euren buruak eta euren ondorengoak eta etorkizunean datozenenak. Eta leialki promesten dute erregearen eta printzesaren eta —euren ondorengoan faltan— Sophia printzesaren alde egitea, horiek mantentzea, eta defendatzea, baita horien ondorengoak —protestante direlarik— ere koroarako ondorengotzan —lege honetan agertzen den mugapenarekin—, daukaten kemen osoarekin, euren bizi eta jabegoekin, alderantzizkoa ezartzen saiatzen den edonoren aurka.

II. Beti aurreikusi behar da, eta hortaz hala promulga bedi, koroa har edo oinordetzan jaso dezaketen pertsona guztiak eta bakoitzak, lege honetan ematen den mugapena dela medio, Erromako Elizaren Aulki Gorenarekin adiskidetzen badira, harekin komulgatzen badute, aitasantuzaleen erlijioa jarraitzen badute, edo papista batekin ezkontzen badira, ezgai izanen direla, lege honetan aurreikusten, promulgatzen eta finkatzen direnetarako. Erresuma honetako errege edo erregina orok, erresuma honetako koroa inperialera iritsi eta berau jarauntsi behar badu, honako legea dela medio, koroatze zin egitea burutu beharko du, dagoen koroatzean, erregeren eta Mary erreginarekin erreinaldiko lehen

urtean parlamentuak onarturiko legearen arabera, *Koroatze zin egitea ezartzeko legea* bete, eta lege horretan aipatzen den deklarazioa egin, onetsi eta errepikatu beharko du, bertan agintzen den moduan.

III. Eta beharrezkoa denez gure erlijioa, legeak eta askatasunak segurtatzeko neurriren bat hartzea, erregeren eta Danimarkako Anne printzesaren heriotzaren ostean, eta horien ondorengoen faltan, hortaz, honakoa promulga bedi, erregeren maiestaterik bikainena dela medio, lord espiritual eta iragankorren zein komunen aholku eta adostasunarekin, parlamentuan bilduta daudenekin, eta bertatik datorren autoritatearekin:

Oraindik aurrera, koroa oinordetzan jasotzen duenak Ingalaterrako Elizarekin komulgatuko duela, legeak ezartzen duen arabera.

Oraindik aurrera, erresuma honetako koroa eta duintasun inperiala iritsiko balira Ingalaterrako erresuman sorterrria ez duen norbaitengana, nazio hau ez dagoela behartua inolako gudatan sartzera Ingalaterrako koroarenak ez diren agindupeko lurraldeak eta eremuak defendatzeko, parlamentuaren baimenik gabe.

Oraindik aurrera, koroa eskuratzen duen hori ez dela Ingalaterrako, Eskoziako edo Irlandako agindupeko lurretatik irtengo parlamentuaren baimenik gabe.

Lege honetan agertzen den mugapena indarrean dagoen unetik aurrera, erresuma honen gobernatze egokiari dagozkion arazo eta gauza guztiak, erresuma honetako legeen eta ohituraren arabera, berez Kontseilu Pribatuaren⁵⁰ eskumenekoak direnak, hara igorriko dira, eta han harturiko erabakiak bertako aholkulariek izenpetuko dituzte, haiek aholkatuak eta adostuak direlarik.

Esan den moduan, aipaturiko mugapena indarrean dagoenetik aurrera, Ingalaterrako, Eskoziako edo Irlandako erresumetatik edo agindupeko lurretatik kanpo jaieriko inork (nahiz eta bertakotua edo hiritar berezia⁵¹ izan, betiere, guraso ingelesengandik jaioak izan ezik) ezin izanen du Kontseilu Pribatuan parte hartu, ezta parlamentuko

⁵⁰ *Privy Council*: agintari batek aholkua jasotzeko eratzen duen konfiantzazko aholkularien taldea.

⁵¹ *Denizen*: hiritartasun eskubide jakin batzuk ematen zitzaizkion atzerritarra.

ganbera batean zein bestean ere, edo ardura handiko kargu bat —ez zibila, ez militarra— bete, ezta koroarengandik jasoriko lurren, jabegoen edo jaraunspenen emakida bat izan ere —ez berarentzat, ez bere ordezkoez—.

Erregeren zerbitzuan irabaziak ematen dizkion kargu bat betetzen duen edo koroarengandik pentsio bat jasotzen duen inor ezgai dela Komunen Ganberan kide izateko.

Lehen esan bezala, aipaturiko mugapenak indarrean dauden unetik aurrera, epaileen komisioak eman bitez *quamdiu se bene gesserint*⁵², eta izan bitez euren soldatak zehaztuak eta ezarriak; baina, nolanahi ere, parlamentuaren bi ganberen aginduekin legezkoa izan daiteke haiek kentzea.

Ez dagoela Ingalaterrako Zigilu Nagusiarengandik barkamena eskatzerik, parlamentuan komunek funtzionario baten jarduerari buruz eginiko salaketa⁵³ bat dela eta.

IV. Eta kontuan hartuta Ingalaterrako legeak herriaren jaiotzetiko eskubideak direla, eta errege-erregina guztiek, erresuma honetako tronura igotzen direnek, aipaturiko lege horien arabera zuzendu behar dutela gobernua, eta, halaber, funtzionario eta ministroek horien arabera zerbitzatu behar dutela: lord espiritualek eta iragankorrek, eta komunek, hortaz, umilki arren eskatzen dute erresuma honetako legeak eta estatutuak, ezarriko erlijioa segurtatzen dutenak, eta herriaren eskubide eta askatasunak, eta herriaren gainontzeko lege eta estatutuak, orain indarrean direnak, berretsiak eta konfirmatuak izan daitezela. Erregeak, lord espiritual eta iragankorren, eta komunen aholkuarekin, eta beroriengandik datorren autoritatearekin, berretsiak eta konfirmatuak dira beraz.

⁵² Epaileek bere eginkizunean jardun zezaketen *quamdiu se bene gesserint*, hau da, eginkizuna ondo egiten zuten artean, edo *durante beneplacito*, hots, tarte batez, edo epailea izendatzen zuenaren nahierak bere horretan zirauen artean.

⁵³ *Impeachment*.

HERRIAREN ORDEZKARITZARAKO LEGEA (1918)*

Parlamenturako eta tokiko gobernurako sufragioa, parlamentuko nahiz tokiko gobernuko hautesleen izen-ematea, eta hauteskunde bilakaera, horiek guztiak zuzentzeko, eta parlamenturako hauteskundeetan aulkien birbanaketa aurreikusteko, eta horiekin zerikusia duten beste xede batzuetarako legea.

4.(1) Emakume bat barruti bateko (unibertsitate barrutia ez den beste edozein) parlamenturako hautesle izan daiteke, baldin eta:

(a) hogeita hamar urte bete baditu; eta

(b) ez badago legez ezgaitua; eta

(c) tokiko gobernurako hautesle moduan izena emateko eskubidea badu, barruti batean badauzka lurra eta etxeak (ez direlarik norbere bizileku, edo eta urteko bost liberako balioa baino gutxiagokoak ere ez), edo bizilekua, edo baldintza horiek betetzen dituelako erregistra daitekeen senarra.

(2) Emakume batek parlamenturako hautesle izateko eskubidea du unibertsitate bateko barrutian, hogeita hamar urte bete baldin baditu, eta gizonezkoa izanen balitz eskubidea edukiko balu, edo azken azterketa egiteko onartua izan bada eta gainditu badu, eta unibertsitateak emakumeei eskatzen dieten egonaldia igaro badu —gizonezkoak ere beharko bailuke egonaldi hori unibertsitate batean titulu bat lortzeko—, emakume horrek azterketa egin zuen garaian emakumeak onartzen ez zituen unibertsitate barruti bateko kide delarik.

(3) Emakume batek tokiko gobernurako hautesle izateko eskubidea izanen du edonongo tokiko gobernurako hautes-barrutian, baldin eta:

(a) izena ematea balu gizonezkoa izatekotan; eta

(b) bere senarrak eskubidea badu —bion bizilekua barruti horretan dagoelako—, hogeita hamar urte bete baditu, eta inolako legezko ezgaitasunik ez badu.

* Iturria: *Representation of the People Act*. 1918; United Kingdom Parliament (Erresuma Batua), <http://www.parliament.uk/documents/upload/1918%20Rep%20people%20Act.pdf> (2007ko urriaren 11n atzitua).

Xedapen honi dagokionez, hautesle militarren edo itsasgizonen kasuan, bizilekua dela-eta izena eman dezakeelarik eta eskaintzen duen zerbitzuagatik ere izan zezakeelarik, zerbitzuaren arabera betetzat kontsideratuko da bizilekuari dagokion baldintza.

WESTMINSTERREKO ESTATUTUA (1931)*

1926 eta 1930 urteetan izandako Konferentzia Inperialetan onarturiko erabakiak egikaritzeko legea.

(1931ko abenduaren 11n)

Bere Maiestatearen Erresuma Batuko, Kanadako Agindupeko Lurraldeko⁵⁴, Australiako Commonwealtheko, Zeelanda Berriko Agindupeko Lurraldeko, Irlandar Estatu Askeko eta Ternuako gobernuetako delegatuak, gure Jaunaren mila bederatzehun eta hogeita seigarren eta mila bederatzehun eta hogeita hamargarren urtean izandako Konferentzia Inperialetan, bildu egin ziren aipaturiko konferentzien txostenean jasotzen diren deklarazioak eta erabakiak adosteko:

Eta egokia delarik lege honen hitzaurrean honakoa adieraztea: Nazioen Britainiar Commonwealtharen kideen elkarte askearen sinboloa denez Koroa, eta beronekiko leialtasun komun batek batzen ditueenez, Commonwealtheko kideen —elkarren arteko harremanari dagokionez— ikuspegi konstituzionalarekin bat datorrela tronuaren ondorengotzan edo errege-erregina tituluan edozein aldaketak agindupeko lurralde guztietako eta Erresuma Batuko parlamentuetako adostasuna eskatzea:

Eta ezarritako ikuspegi konstituzionalaren arabera delarik etorkizunean Erresuma Batuko ezein lege ez hedatzea agindupeko lurraldeetara, lurralde horietako lege moduan, ez bada agindupeko lurraldeak eskatuta eta berorren adostasunarekin:

Eta aipaturiko konferentzietan harturiko deklarazio eta erabaki jakin batzuk berresteko, konfirmatzeko eta ezartzeko beharrezkoa delarik Erresuma Batuko parlamentuaren autoritatearekin modu egokian lege bat egitea:

Eta Kanadako Agindupeko Lurraldeak, Australiako Commonwealthak, Zeelanda Berriko Agindupeko Lurraldeak, Hego Afrikako Batasunak, Irlandar Estatu Askeak eta Ternuak maiz eskatu eta onetsi

* Iturria: *The Statute of Westminster*. 1931; The United Kingdom Statute Law Database, Ministry of Justice (Erresuma Batua), <http://www.statutelaw.gov.uk/content.aspx?activeTextDocId=1081723> (2007ko urriaren 11n atzituua).

⁵⁴ *Dominion*.

dutelarik Erresuma Batuko parlamentuak neurri bat ematea, gorago aipaturiko gauzak bete daitezen, honako lege honetan agertzen den moduan:

Hortaz, orain promulga bedi Erregeren Maiestate Bikainenarekin, lord espiritual nahiz iragankorren eta komun en adostasun eta aholkuarekin, honako parlamentua bildua delarik, eta berorren autoritatea-rekin, hemen ondoren datorrena:

1. Lege honetan «agindupeko lurralde»-k esan nahi du honako edozein agindupeko lurralde: Kanadako Agindupeko Lurraldea, Australiako Commonwealtha, Zeelanda Berriko Agindupeko Lurraldea, Hego Afrikako Batasuna, Irlandar Estatu Askea eta Ternua.

2. (1) 1865eko Kolonietako Legeen Baliozkotze Legea⁵⁵ ez zaie aplikatuko agindupeko lurralde bateko parlamentu batek honako lege honen egikaritzearen ostean eginiko ezein legeri.

(2) Agindupeko lurraldeetako parlamentuak lege hau indarrean ezarri ostean eginiko ezein lege edo ezein legeren xedapen ez da eragirik gabea edo ezdeusa izanen ez datorrelako bat Ingalaterrako legearekin, edo Erresuma Batuko parlamentuak eginiko edo etorkizunean egingo duen edozein legeren xedapenekin, edo halako lege baten edozein agindu, arau edo erregulaziorikin. Agindupeko lurraldeetako parlamentuko eskumenen artean egongo da halako lege, agindu, arau edo erregulazio bati ezetza emateko edo aldatzeko boterea, horiek agindupeko lurraldearen lege diren heinean.

3. Beraz, deklaritzen eta promulgatzen da agindupeko lurraldeko parlamentuak eskumen osoa duela lurraldetik kanpoko indarra duten legeak egiteko.

4. Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera Erresuma Batuko parlamentuan onarturiko ezein lege ez da hedatuko —edo hedatzekoa izateko pentsatua izanen— agindupeko lurralde batera, lurralde horretako legeriaren barne izan dadin, betiere, ez baldin bada lege horretan ageriki adierazten agindupeko lurraldeak eskatu eta onetsi duela haren promulgatzea.

5. Lege honetan lehenago aipaturiko xedapenen orokortasunari kalte egin gabe, 1894ko Itsas Merkataritza Garraioaren Legeko zaz-

⁵⁵ *Colonial Laws Validity Act.*

piehun eta hogeita hamabost eta zazpiehun eta hogeita hamasei atalak honela interpretatuko dira: britainiar lurralde edo jabego baten legegintzak agindupeko lurralde bateko parlamentuari erreferentziarik egiten ez dion zentzuarekin.

6. Lege honetan lehenago aipaturiko xedapenen orokortasunari kalte egin gabe, 1890eko Itsas Tribunal Kolonialen Legeko⁵⁶ laugarren atalak (horren arabera, zenbait lege erreserbatuak egongo dira Bere Maiestatearen borondateak argitzeko, edo etete klausula bat eska dezakete) eta lege bereko zazpigarren atalak (Kontseiluan Bere Maiestatearen onarpena eskatzen du, itsas tribunal kolonial bateko jarduera eta prozedura arautzeko edozein arau egiteko orduan), atal horiek ez dute honako lege hau indarrean ezartzen denetik aurrera indarririk izanen inongo agindupeko lurraldetan.

7. (1) Honako lege honetan agertzen den ezer ez da kontsideratuko aplika daitekeenik 1867tik 1930era buruturiko Britainiar Ipar Amerikar Legeak⁵⁷ edo ondoren eginiko edozein agindu, arau edo erregulazio ezeztatzeko, konpontzeko edo aldatzeko.

(2) Lege honetako bigarren ataleko xedapenak Kanadako probintzietan eginiko legeetara hedatuko dira, baita hango botere legegileetara ere.

(3) Honako lege honek Kanadako parlamentuari edo probintzietako legislaturei ematen dizkien eskumenak mugatu egingo dira Kanadako parlamentuaren edo probintzietako legislaturen konpetentzia diren arazoekin zerikusia duten legeen promulgatzera.

8. Honako lege honetan ezerk ez du aditzera ematen Australiako konstituzioa edo konstituzio legea⁵⁸ edo Zeelanda Berriko konstituzio legea ezeztatzeko edo aldatzeko boterea ematen denik, lege hau indarrean ezarri baino lehen zegoen legeak ematen duen beste moduren batean.

9. (1) Honako lege honetan ezerk ez du aditzera ematen Australiako Commonwealtheko parlamentua baimentzen duela Australiako estatuen agintaritzapean diren gauzen inguruan, gauza horiek Austra-

⁵⁶ *Colonial Courts of Admiralty Act.*

⁵⁷ *British North America Acts.*

⁵⁸ *Constitution Act.*

liako Commonwealthko gobernuaren edo parlamentuaren eskumene-koak izan ez arren.

(2) Ez da kontsideratzen honako lege honek eskatzen duenik Australiako Commonwealthko parlamentuaren edo gobernuaren parte hartzea Erresuma Batuko parlamentuak Australiako estatuen agintaritzapean dagoen zerbaiten inguruan eginiko legeetan, Australiako Commonwealthko parlamentuaren edo gobernuaren agintaritzapeko arazoa izan ez arren, honako lege hau indarrean ezarri baino lehen zegoen praktika konstituzionalarekin bat datorren edozein kasutan, Erresuma Batuko parlamentuak lege hori halako parte hartzea barik egingo balu.

(3) Honako lege honetan, Australiako Commonwealthari egiten zaion aplikazioan, laugarren atalean aipatzen den eskaera eta onespena esaten denean, Commonwealthko parlamentuaren eta gobernuaren eskaera eta onespena esan nahi du.

10. (1) Honako lege honetako ondoko atalak, esan nahi baita, bigarren, hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren atalak, ez dira hedatuko honako xedapena aplikatzen zaion agindupeko lurralde bate-ra, lurralde horren zati den legeriako zati moduan, betiere, atal hori agindupeko lurraldearen parlamentuak ez baldin badu bere egiten. Lege honetako edozein atal hartzen duen parlamentu horretako lege batek aurreikus dezake norbere egite horrek efektu izanzen duela honako lege hau indarrean ezartzen denetik aurrera edo, harturiko lege horretan adierazita, beranduagoko data batean.

(2) Gorago aipaturiko agindupeko parlamentuek edozein unetan ezezta dezakete atal honetako (1) azpi-ataleko edozein pasarte.

(3) Honako atal hau Australiako eta Zeelanda Berriko agindupeko lurraldeei eta Ternuari dagokie.

11. 1889ko Interpretazio Legean⁵⁹ esaten dena esaten dela ere, «kolonia» adierazpidea ez da jarriko lege hau indarrean ezartzen dene-tik aurrera Erresuma Batuko parlamentuan onarturiko ezein legetan, ezta agindupeko lurralde batenean edo agindupeko lurralde horren edo-zein probintzia edo estaturenean ere.

12. Honako lege honi 1931ko Westminsterreko Estatutua dei dakioko.

⁵⁹ *Interpretation Act.*

VIII

AMERIKAKO ESTATU BATUAK

ESTATU BATUETAKO ZUZENBIDEA

1.- Kolonietako gizartearen originaltasuna

Lehen asentamenduaren (Jamestown, 1607) ondorengo mendean, bereziak izan ziren Ipar Amerikako kolonoen bizimodua eta bilakakera. Metropolia arazo anitzetan murgildurik zegoen: Tudorren absolutismoa, parlamentuaren errebolta, commonwealtha, protektoratua, errestituzioa eta iraultza. Kolonoak euren kasa bizi izan ziren, metropolia tartean sartu gabe eta munduko gainerako lekuetako influentzia handiegirik gabe.

Bilakaera berezi horren originaltasuna zenbait ezaugarritan nabaritzen da: batetik, europar kontinentearekiko zeharo ezberdina zen gizarte ereduak eratu zen. Europar kontinentean estamentuak eta aberastasun mailak garrantzia zuen, Amerikan ezerezetik abiatzen zen pertsona bat, baina norbere egoera hobetzeko eta lur merkeak eskuratzeko aukera zeukan. Bestetik, mugako bizitzak pertsona bati buruaskitasun sententzia ematen zion, eta tradizioarekiko atxikimendu txikiagoa. Bizitza soziala aberatsa zen, ez soilik gehiengo ziren ingelesak zirela eta, baziren, halaber, eskoziarrak, alemanak, holandarrak, frantsesak eta irlandarrak. Kolonietan, batik bat Ingalaterra Berrikoetan, eragin zuzena izan zuen ingeles iraultza puritanoak, Tudorren aurka egin zuten emigranteek eramanik. John Lockeren gizarte kontratuaren tesiak hedatu, eta horiekin ideal demokratikoak indartu ziren. Bestalde, norbere gobernuaren praktika hamahiru kolonietan zehar hedatua zegoen, horietako bakoitzean ordezkaritza biltzarra baitzeukaten. Kolonoek

bideak sor zitzaketen, edo legeak aplikatu, eta, batez ere, erregearen gobernatzaileari presio egiten ikasi zuten, askatasunaren hedadura zabaltzeko, kontribuzioen ordainketa atxikiz. 1617. urterako, sorturik zegoen *Virginia House of Burgesses*, kolonietako lehen biltzarra. Errealitate honek zerikusi txikia du espainiar edo portugaldar kolonietan metropoliak zeukan kontrol zorrotz eta estuarekin.

2.- Nabigazio eta zerga legeek sorturiko arazoak

Gauzak aldatu egin ziren XVIII. mendearen erdialdean. Mende bete lehenago, 1650 inguruan, ingelesek kolonoei merkataritzaren gai-neko kontrola ezarri nahi izan zieten. Beste herrialde europar batzuei bezala, Ingalaterrari politika merkantilista bat interesatzen zitzaion, hortaz, koloniek metropoliari lehengaiak bidali eta hark produktu manufakturuak saltzen zizkien. Horretarako, zenbait lege sortu ziren —*Navigation Acts*— merkataritza koloniala arautzea xede zutenak. Baina ondorengo ehun urteetan Ingalaterra ez zen ahalegindu legeak egikaritzen, edo ez zeukan ahalmenik horretarako, eta kolonoak egoeraz profitatu ziren lege horiei jaramonik batere ez egiteko eta legez kontrako merkataritza burutzeko.

1763an Frantziaren eta indiarren aurkako guda arrakastatsu bukatzerakoan, Ingalaterrak aldatu egin zuen koloniekiko zeukan politika. Metropoliak gudaren gastuak bere gain hartu zituen, zerga, gudaroste eta itsasontziak ordainduta. Indiarren erasoengandik babesteko, gudarosteak mantentzen zituen kolonietan. Ingeleseki iruditzen zitzairen koloniek zama hori eurekin banatu behar zutela, eta, beraz, saiatu ziren *Navigation Acts*ak berpizten eta baliabideak lortzearren arau fiskal berriak sortzen. 1765. urtean lege bi promulgatu ziren: batetik, *Quartering Act*, beronen bidez hornigaiak ematea, gudarosteak ostatatzea eta kolonietan zehar garraiatzea eskatzen zitzairen kolonoei, eta, bestetik, *Stamp Act*, egunkariak, joko gutunak eta dokumentu legalak direla-eta tinbre eta eskubideak ordaintzea eskatzen zuena. Zerga ertainak ziren arren, Europan oso arruntak, kolonoek aurka egin zioten legeari, «ordezkaritzarik gabeko inposaketarik ez» argudiatuz. Hurrengo urtean, aurkako jarrera hori dela eta, indargabetu egin zen aipatu legea.

Ondorengo zazpi urteak lasai igaro ziren. 1773an, ordea, *East India Company*ren zailtasun ekonomikoak —Txinako te soberakina baitzuen— konpontzen saiatu zen parlamentua, kolonietako xehekariei

zuzenean saltzeko eskumena emanda. Berez, neurri honek kolonietako biztanleei tearen prezioa jaitsiko zien, baina inportatzaile amerikarrak bazterten zituen halaber. Monopolio horrek haserretu zituen, eta Ipar Amerikako portu guztietan te konpainiari boikota egin zioten. Bostonen indiar jantziz moztururiko hiritar talde batek te kargamentu bat bota zuen badiara. Gertaera honi *Boston Tea Party* deritza.

Ingeles parlamentuari iruditu zitzaion bazela garaia kolonoei ikasbidea emateko. Ondorengo urtean bost lege onartu ziren, *Intolerable Acts* zeritzenak kolonietan. Bostongo portua itxi, kolonoei oposizio jarrera amaitzeko eskatu, ekintza bandalikoengatik ordainarazi, eta Massachussetseko autonomia —*Charter*— ezereztu zuten. Zigorraren zorroztasuna nabaria zen, Bostoni porrot ekonomikoa baitzekarkion eta bertako autonomia deuseztatzen baitzen. George III.aren ustez koloniak menderatzeko edo galtzeko unea iritsi zen. Ordura arte inposaketaren arazoa zen auzi nagusia, ordutik aurrera, aldiz, kolonoek euren buruak gobernatzeko eskubidea zutenentz.

3.- Independentzia lortzeko borroka

Lehenik ere sumatu zen kolonietan merkataritza, defentsa eta zigor arloetan elkarren artean adosturiko jarduera komun baterako beharra. 1754an Benjamin Franklinek arrakastarik gabe proposatu zuen kolonia bakoitzeko ordezkariak biltzea gai horien inguruan eztabaidatzeko. Nolanahi ere, George III. koroatzean protestak areagotu egin ziren eta birritan bildu ziren kolonietako ordezkariak, batetik, Koroari kexak egiteko —«eskubide aldarrikapenak» izenarekin ezagutuko dira— eta, bestetik, britainiar merkantzien bahitura prestatzeko.

1774ko irailean eta urrian, hartu beharreko jarrera erabakitzeko, I. Biltzar Kontinentalean bildu ziren kolonietako ordezkariak. Kontsultarako biltzarra zen, eta alde txikiarekin baztertu zen ingeles zuzendaritzapeko amerikar autogobernu baten ideia. Egoerak okerrera egin zuen. 1775eko apirilean, kolonoak Concorden biltzen ari ziren armak konfiskatzeko agindua jaso zuten Bostonen zeuden britainiar gudarostek. Concordeko bidean *minutemen* —hori da Massachussetseko miliziak zuen izena— talde batekin topo egin zuten. Baten batek «munduan zehar entzun zen tiroa» —Emersonen poemak hilezkortuko zuen bezala— egin zuen, eta guda piztu zen. Britainiarrak Bostonera iritsi zirenerako, gizonen erdiak galduak zituzten.

Hasiera batean, kolonoetarik gehienek ez zuten Ingalaterrarekin hautsi nahi. Soilik abertzale sutsu batzuek nahi zuten independentzia osoa. Baina, borrokak jarraitu ahala, sentimendu hori hedatu egin zen. Moderatuak abertzale erradikalagoak bilakatu ziren, ingeles gobernuak konpromisorik hartzen ez baitzuen.

1775ko maiatzeko II. Biltzar Kontinentalean George Washington hautatu zuten kolonietako gudarostearen zuzendari. Biltzarra oraindik ere ordezkarien konferentzia bat baino apur bat gehiago zen soilik. Egiazki, nolabaiteko kontrola zuen gudarostearengan eta kanpo politikarako arloan, baina estatuek subiranotasuna mantentzen zuten: txanpona jaulki, gudarostea bildu, edo aduanak ezar zitzaketen.

4.- Independentzia deklarazioa eta kolonien garaipena

1776ko uztailaren 4an, Philadelphian Biltzar Kontinentalean bildurik zeuden ordezkariak estatu aske eta independente deklaratu zituzten 13 koloniak. *Independentzia deklarazioaren* dokumentuaren zatirik handiena Virginiako plantazio baten jabe gazte eta aberats batek idatzi zuen, Thomas Jeffersonek, geroago Estatu Batuetako lehendakari izango zen (1801 eta 1809 artean) kultura handiko ilustratuak. Hitz hunkigarriekin erabili zuen Lockeren eskubide naturalen teoria, kolonoek ingeles zapalkuntzari aurre egiteko zuten eskubidea justifikatzeko.

«Honako egiak berez nabariak direla iruditzen zaigu: gizaki guztiak berdinak sortuak dira, Sortzaileak zenbait eskubide besterenezin eskaini dizkie, eta horien artean daude bizia, askatasuna eta zoriontasuna erdiestea. Eskubide horiek segurtatzeko, gizakiek gobernuak eratzen dituzte, eta gobernatutako pertsonen onespenera iristen dira gobernu horien botere justuak. Edozein gobernu-forma xede horientzat suntsigarri bilakatzen denean, herriak badauka gobernu hori aldatzea edo deuseztatzea eta gobernu berri bat ezartzea; eta, gizakiaengan segurtasuna eta zoriontasuna gauzatzeko xedea izanen delarik gobernu berriaren oinarria, horren arabera antolatuko ditu botereak.»

Hortaz, gizateriaren «eskubide naturalak» aldarrikatzen ziren, eta ez zen ingeles zuzenbidera jotzen. Gertakariak ez ziren arren erabateko zehaztasunez jasotzen, deklarazioak George III. errege tiranikoaren bidegabekeriak salatzen zituen: zergak onspen gabe jartzea, beharrezko legeak desematea eta diktadura militarra ezartzea, mertzenarioak kontratatzea, merkataritza oztopatzea, edo indiarren areriotasuna

sustatzea. Deklarazioak bidea ireki zion frantsesek geroago egingo zuten gizakiaren eskubideen aldarrikapenari.

Deklarazioa dela-eta kolonoak matxino kontsideratu ziren, eta jada ez zegoen atzera egiterik. Amerikako independentzia-gerra moduan hasi zena, berehala inperiotasunaren bila zebiltzan europar botereen arteko borroka bilakatu zen. Hurrengo bi urteetan frantziarrek munizioz hornitu zituzten sekretuki kolonoak. Hauek ingelesak Saratogako borrokan (1778) garaitu zituztenean, frantsesek, Ingalaterrarekin mendeku hartzeko gogoz, iparamerikarren alde borrokatzeak arrisku politikoa hartzea merezi zuela erabaki zuten, eta ofizialki sartu ziren gerran. Ondorengo urtean sartu zen Espainia, eta potentzia biek, Frantziak eta Espainiak, itsas armada indartsuak bidali zituzten ingelesen aurka borrokatzeko ekialdeko Indietan. Holanda ere aliatuei batu zitzairen Ingalaterraren aurka (1780). Ingalaterrarentzat jada ez zegoen soilik jokoan Ipar Amerikako kolonien jabetza, baita inperio osoarena ere.

Frantses itsas armadaren nahiz 6.000 soldadu frantsesen laguntza erabakigarria izan zen. 1781ean, George Washingtonek, indar iparamerikarren buruzagiak, Lord Charles Cornwallis jeneral britainiarren errendizioa onartu zuen Yorktownen, Virginian. 1783an bake hitzarmena izenpetu zuten, eta Ingalaterrak hamahiru kolonien independentzia aitortu zuen, mugak ezartzeko orduan nolabait eskuzabal jokatzuz, Mississippi ibairaino iritsiko baitziren. Ingeles itsas armadak, gudako azken urtean, Frantzia eta Espainiako armadak gailendu zituen, eta Ingalaterrak ez zuen horrela kolonia gehiago galdu.

5.- Hamahiru estatu burujabeen konstituzioak

1776ko Biltzar Kontinental berak gomendatu zien estatuei bakoitzak bere konstituzioa egin zezan. 1777 eta 1778 urteen bitartean, hortaz, gerran murgildurik zeudenean, estatu gehienek norbere konstituzio idatzi propioak zeuzkaten. Testu diferenteek ezaugarri komun batzuk zituzten: ohikoetatik desberdinak ziren oinarritzko legeak ematea asmo zuten; hiritarren herri subiranotasuna aldarrikatzen zuten; gobernuaren botereari mugak ezartzen zizkieten; gobernuak errespetatu beharreko eskubide zibilak eta askatasunak zerrendatzen zituzten; botereen bereizketa eta berorien arteko kontrola eta oreka ezartzen zuten, nahiz eta, ingeles dominazioa kontuan izanda, ahalik eta gehien ahuldu zuten botere betearazle eta judiziala.

6.- Konfederazioaren Artikuluak eta berorien porrota

1776an halaber, Independentzia Deklarazioa argitara eman eta gutxira, II. Biltzar Kontinentalak batzorde bat izendatu zuen nazio berriarentzat konstituzio bat idatz zezan. Konfederazioaren Artikuluak izan ziren horren emaitza; hurrengo urtean biltzarrak onartu zituen arren, estatuek ez zituzten berretsi 1781 arte, Yorktowneko garaipena izan eta hilabete batzuk geroago. Alleghanys mendietatik haratago zeuden lurren esleitzeak sortzen zituen tirabirek berandutu zuten berrespena.

Konfederazioaren Artikuluek «adiskidetasun elkarte sendoa» bat ezarri zuten, denen gainean eragina zuten arazo jakin batzuen aurrean jarduera amankomun bat izateko elkarte hain zuzen. Konfederazioari zegozkion guda eta bakea deklaratzeko —une hartan britainiarren aurkako borrokak oraindik ere irauten zuten—; enbaxadoreen akreditatzea nahiz izendapena eta itunen izenpetzea; lurreko nahiz itsasoko gudarosteak biltzeko, estatuei gerlariak eskatzea; pisu eta neurri uniformeak ezartzea; estatuen arteko ez etabaidak konpontzea. Gainerako eskuduntzak estatuetakako bakoitzari zegozkion, II. artikuluek zioen legez, «estatu bakoitzak bere subiranotasuna, askatasuna eta independentzia mantentzen ditu». Izan ere, estatuarekiko leialtasuna Estatu Batuetako «nazioarekiko»-ren gainetik zegoen.

Konfederazioaren ahultasuna nabarmena zen. Ez zegoen botere betearazlerik, eta estatuei zegokien botere judiziala. Funtzionatzen ez zuen biltzar eskas bat zen gobernuaren lehen instantzia. Estatu bakoitzak boto bana zuen; ez zuen axola populazioaren tamainak —Delawarek 59.096 biztanle zituen eta Virginiak 747.610—. Lege garrantzitsuenen onespenez botoen bi heren behar zituen, eta, bereziki, guztien adostasuna behar zen artikuluen zuzenketarako. Bi gai garrantzitsuk kolapsatzen zuten erregimen berriaren funtzionamendua. Batetik, biltzarrak merkataritza arloan eskumenik ez izateak estatuen arteko merkataritza lege eta politika kontrajarriak eragiten zituen. Bestetik, konfederazioak tributu propiorik ez izatean, bere gastuak —bereziki, gerrak eragiten zizkionak— borondatezko kuoten bidez ordaintzera behartzen zuen. Gobernu zentralak ez zuen jasotzen estatutakoaren laurden bat ere.

1787an, sei urtez izan zelarik indarrean, sistema konfederala akiturik zegoen.

7.- 1787ko Philadelphiako Biltzar Konstituziogilea

1787ko maiatzean Biltzarrak deia egin zien estatuetako ordezkari, Philadelphian bil zitezen, biltzar honi Konbentzio Konstituzionala deritza. Konfederazioaren Artikuluak berrikusi beharra zegoen, nahiz eta bazekiten beharrezko zela erregimen berri bat.

55 ordezkari bertaratu ziren, ia denak aberatsak eta kontserbadoreak, 42 urteko bataz besteko adinekoak. Gobernu boteretsu bat izango zuen errepublika bat nahi zuten, estatuetan zehar hedatzen zen anarkia gelditzeko gai izango zena. Konstituziogintza alorrean trebatuak ziren, bakoitzak bere estatuko konstituzioaren egitean parte hartu baitzuen. Ordezkarien artean ziren, besteak beste, George Washington, «iraultzaren ezpata», Konbentzioa zuzentzeko hautatua izan zena; James Madison, gobernu gaitan jakitun; laurogei urteak gaitututa zituen Benjamin Franklin; Alexander Hamilton gaztea... Rhode Island izan ezik, estatu guztiak zeuden ordezkatuak.

Ordezkariek kontuan izan zuten Locke, Hobbesek eta Rousseauk definituriko kontratu sozialaren teoria. Gogoan zeuzkaten, halaber, hartatik aske geratu ziren ingeles gobernuaren gehiegikeriak, eta argi zeukaten herriak izendatzen dituela gobernuak, gizabanakoek osatzen duten herriaren eskubideak berma eta babes ditzan. Gertu zituzten, bestalde, Konfederazioaren Artikuluen hutsak, beharrezko egin baitzuten hitzarmen federal berri bat.

Irailerako prest zegoen konstituzio berria.

8.- Berrestearen arazoa

Estatuek berrespena emateko orduan, Philadelphiako Konbentzioak erdietsiriko konpromiso konstituzionalak porrot egin zezakeen. Hori saihesteko, guraso fundatzaileek bi herenen gehiengoan oinarrituriko berrespen metodo berri bat erabaki zuten. Konfederazioaren Artikuluen zuzenketen berresteak guztien adostasuna eskatzen zuen bitartean, testu konstituzional berriaren VII. Artikuluaren arabera, *ex professo* deituriko hamahiru estatuetarik bederatzik berretsiko balute konstituzioa, lurraldeetako lege gorena bilakatuko zen. Berresten ez zutenak batasunetik kanpo gera zitezkeen.

Estatu Batuek ezagutu duten ez etabaida konstituzional gogorre-na sortu zuen berreste prozesuak. Klase behartsuenak federalismo

berriaren aurka zeuden, aristokraten inposaketa sumatzen baitzuten hartan eta, hortaz, produktu antidemokratikoa kontsideratzen. Konstituzioak ekarriko zuen estatuen subiranotasunaren galera, gizabanakoen eskubideen ahanzteak, gudaroste iraunkor baten sorrera, Jainkoari erreferentziarik ez egitea, eta bi herenen berreste zalantzarria.

Bermeak eman behar izan zitzaizkien estatuei hurrengo biltzarrek zuzenketa bidezko eskubide deklarazio bat gaineratuko ziola konstituzioari. Bi herenen berrespene lortu zen 1787 eta 1788 artean. Lau estatuen berrespene zaila izan zen, bereziki eztabaidatsua eta parekatua Virginia, North Carolina eta New Yorkekoa, estatu populatuenetakoak. Rhode Island izan zen azkena berresten 1790an, konstituzioa indarrean ezarri eta gero. Alexander Hamilton, John Hay eta James Madisonek *The Federalist* argitalpenean idatziriko artikuluetan konstituzioari eginiko ohar zolienak agertzen dira.

9.- Estatu Batuetako konstituzioa

Asko dira arrazoiak Estatu Batuetako konstituzioa Ekialdeko testu nabarmenenetako bat kontsideratzeko. Indarrean den idatziriko konstituzio zaharrena da.

Testu berriaren idazketan, Philadelphiako Konbentzio Konstituzionalaren ardura bi eremutan zentratu zen: batetik, estatuek botere legegile federalean zuten ordezkaritza. Esan nahi baita, eztabaidan zegoen estatu bakoitzak ordezkaritza bera izan behar zuen —«estatu txikien plana»— edo bakoitzaren biztanleen arabera ordezkaritza egon behar zen —«estatu handien plana»—. Baina, bestetik, bildutakoek bazituzten beste axola batzuk halaber: botere betearazlearen mugapena, banakoen eskubideak, edo esklabotasunaren arazoa.

a) Nazio mailako eta estatuen mailako ordezkaritza

Estatu handien eta txikien arteko akordio batera iristearren, erabaki zuten ganbera biko botere legegile federal bat egitea, hau da, Kongresua —*Congress*— sortu zen. Berau osatuko zuen, batetik, Senatuak, eta ganbera honetan lurralde bakoitzak ordezkaritza bera izango zuen, estatu bakoitzari bi senatari eman zitzaizkiolarik, biztanle kopurua kontuan izan gabe (I. artikulua, 3. atala, 1. paragrafoa); bestetik, Ordezkarrien Ganbera —*House of Representatives*—, biztanleen proportzioaren arabera ordezkaritzan oinarritua (I. artikulua, 2. atala, 3. paragrafoa).

Egun 435 diputatu —*representative*— daude. 1929an finkaturiko kopurua da, Ordezkarien Ganberako gela nagusian jadanik ez baitzegoen eserlekuetarako leku gehiago. Kongresuak Proporziotasun Legea —*Reapportionment Act*— onartzerakoan, erabaki zuen kopuru hori ez gainditzea eta hamar urtean behin errolda egitea, estatuen artean 435 eserlekuak banatzeko, estatuen populazioaren aldaketak kontuan izanda.

Estatu Batuetako lehendakaria hautatzeko orduan, estatu bakoitzari hautes-kolegioan —*electoral college*— dagozkion boto kopurua, estatu horretako senatarien eta diputatuen kopuruaren berdina da, hau da, estatu bakoitzak kongresuan dituen ordezkari beste konpromisario dauzka lehendakaria izendatzeko.

b) Nazio mailako eta estatuen mailako ahalmenak

Botere legegile federalean estatuek duten ordezkartzaren arazok, azken finean, erlazioa du federalismoak eta gobernu nazionalak estatu kideen aldean duen indarraren kontuarekin. Konfederazioaren Artikuluen porrota gertu zutelarik, federalistek gobernu zentral indartsuago bat gura zuten, batez ere ekonomia arloan. Independentzia gerrako zorrak oraindik ere gainean zituzten, eta barne merkataritza nahiz kanpoko herrialdeekikoa sustatu behar ziren. Beharrezkoak zitzaizkien, halaber, zerga bilketarako eskuduntza zentral batzuk. Horri dagozkionez, Hamargarren Zuzenketak estatuei ematen dizkion arren gobernu zentralari ez dagozkion eskuduntzak, nolanahi ere, badago testu berrian klausula bat esaten duena Estatu Batuetako konstituzioa eta lege eta itunak herrialdeko lege gorena direla («supreme law of the land»), eta estatu bakoitzeko epaileak lege horietara lerratu behar direla. Luzarora begira, berrikuntzak egitean, erabakitze eskumenak gobernu zentralari dagozkio, gorentasun klausula jarraituta, edo 50 estatuei, Hamargarren Zuzenketaren arabera. Jurisdikzioak kasuz kasu erabaki behar izan du arlo horietan.

c) Botere betearazle indartsua baina mugatua

Botere betearazlearen eskuduntzen inguruko eztabaidan, ordezkariak gogoan zituzten ingeles botere kolonialaren gehiegikeriak, baina baita konfederazio garaian estatu batzuen desgobernuak ere. Konpromiso batera iritsi ziren, lehendakariari botere sendoak emanez (gudarostearen zuzendaritza, funtzionario eta epaileen izen-

dapena, kongresuaren legeriari betoa jartzeko ahalmena). Bestalde, herriaren zuzeneko parte hartzearen gainean nolabaiteko erreserba eduki zen, bai lehendakariaren hautespenean, hautes-kolegioari ematen baitzitzaion eginkizun hori (II. artikulua, 1. atala, 2. paragrafoa), bai senatarien hautespenean, estatueta biltzar legegileei eman baitzitzaion eginkizun hori. Alabaina, aldi berean, kontrol eta orekatze —*checks & balances*— sistema bat eratu zen, lehendakariaren edo batasunaren edozein atal nahiz botereren gehiegizko boterea ekiditeko.

Konstituzioak esaten du gobernuak arlo jakin batzuetan zer egin dezakeen eta zer ez. Hala ere, 200 urtean zehar, egunerokotasuna izan duten gai guztiak epaileen interpretazioari irekiak izan dira. Hortaz, gobernu mugatu baten kontzepzioa, Montesquieugandik hartua, zuzenbide judizial —*judge-made law*— bilakatu da, hein batean bederen.

d) Gizabanakoen eskubideak

Konstituzioaren egileek gogoan izan zuten, halaber, gizabanakoen eskubide eta askatasunen kontua. Estatueta aurreko konstituzioek banakoen eskubideen zerrendak zeuzkaten; hortaz, konstituzio federal berriak, gobernu nazionalaren eta estatuen eskuduntzen eremuaren errespetuan oinarritzen zelarik, preskripzio gutxi dauzka banakoen askatasunei dagokienez. Bermeak, eskubideen deklarazio moduan —*Bill of Rights*— ezagutzen diren lehen hamar zuzenketen bidez gaineratu ziren.

e) Esklabotzaren arazoaren geroratzea

Tartean ziren interes ekonomikoak azaleratu egin ziren konbentzioaren ez etabaidetan. Konstituzioari interpretazio ekonomiko bat ere egin izan zaio. Hegoaldeko estatuak irmo mantendu ziren esklaboen merkataritzaren gaian, herrialde horien nekazari ekonomia haien lanean funtsatzen baitzen. Independentzia deklarazioarekin kontraesan larrian egon arren, bertan «gizaki guztiak berdinak sortuak» direla esaten baita, konstituzioaren egileek merkataritza hori baimentzea erabaki zuten hurrengo 30 urteetan (I. artikulua, 9. atala, 1. paragrafoa). Baina esklabotasuna bere horretan mantendu zen 1861-1865ko gerra zibilera arte.

10.- Estatu Batuetako konstituzioaren printzipioak

Aipatu dugu gobernu mugatuaren printzipioa. Nolabait lehendik ere aipatuak ditugun zenbait oinarrizko printzipio aztertuko ditugu ondoren.

a) Herri subiranotasuna

Konstituzioaren izaera demokratikoa agertzen da herria bihurtzen duenean askatasunaren, justiziaren eta ordenaren bermatzaile. «Guk, Amerikako Estatu Batuetako herriak» hitz ziragarriekin hasten den atariko paragrafo laburrak laburbiltzen du zein den errepublikar doktrina, boterea mugatua duen arren, gobernu demokratikoa aldarrikatzen baita. Hortaz, mugaketekin bada ere, iraultzaren idealak mantendu ziren.

«Libreak eta garbiak» eta sekretuak izan behar duten hauteskunde eta bozketetan gauzatzen da lehenik herriaren boterea. Lehenengo, estatuen biltzar legegileen hautaketan, estatua ordezkatzeko duten bi senatariak aukeratuko baitira horietan (1913an ezarri zen herriak senatariak zuzenean hautatzea). Azpimarragarria da estatu bakoitzeko biltzar legegileak erabaki dezakeela zer modutan hautatzeko diren lehendakaria izendatzeko hautes-kolegioan parte hartuko duten konpromisarioak. Estatuak erabakitzen dituzte hautes legeak eta prozedura. XVIII. mendean benetan iraultzailea zen lurraren, zaldi baten edo eraikin baten jabe ziren 25 urte baino zaharragoak ziren gizonezko zuriei botoa emateko aukera.

Alderdi politikoak nahiz interes taldeak sortzeko, edo iritzi publikorengan edozein modutan eragina izateko eskubidea beti bultzatu izan dute biltzar legegileek eta auzitegiek. Adierazpen, bilera, eta eskaera egiteko askatasunak definiziorik zabalena erdietsi du Estatu Batuetan.

b) Botereen bereizketa eta oreka (*checks & balances*)

Gobernuaren alorretako bakoitzak funtzio propioak eta bereiziak dauzka. Botereen bereizketaren bidez, komunitate politikoan hiru botereetako edozeinen gehiegizko pisua ekidin nahi da. Kongresuak legeak prestatzen, eztabaidatzen eta onartzen ditu. Botere betearazleak legeei onspena eman edo betoa jarri, eta egikaritu egiten ditu. Botere judizialak interpretatu egiten ditu, eta erabakitzen du konstitu-

zioaren arabera diren ala ez, azken finean, haien deuseztasuna erabakitzen du. Alabaina, mende bi baino gehiago iraun duen esperientzia konstituzional batek frogatu du ez dela hain argia botereen bereizketa. Esaterako, Kongresuari dagokion arren gerra deklaratzeko eskumena, lehendakariak, gudarosteen zuzendari den heinean, batzuetan indar armatuak bidali izan ditu atzerrira, biltzarraren baimenik gabe.

Oreka dagoela esan dezakegu, beti ere, hiru botereetako baten gehiegikeriak ekiditeko, horietako bakoitzari besteen gaineko eskumenak ematen zaizkion heinean. Lehendakariari dagokio Estatu Batuetako Auzitegi Gorenerako epailegaiak aurkeztea, baina Senatuak onartu beharko ditu haren hautagaiak. Kongresuak berak sortzen eta onartzen ditu lege proiektuak, baina horien berrespenerako beharrezkoa da lehendakariaren sinadura. Eta, ondoren ikusiko dugun bezala, auzitegiek edozein lege deklaratu dezakete konstituzioaren aurkako.

c) Epailen lege-berrikuspena (*judicial review*)

1803ra arte ez zen erabaki zeini zegokion konstituzioaren esanahia finkatzeko azken autoritatea. Jeffersonek estatuei eman nahi zien eskumen hori. Baina aipatu dugun urtean John Marshall epaile gorenak —*chief justice*— zoliki baliarazi zuen aurkako printzipioa, epailen lege-berrikuspena —*judicial review*—, hau da, Auzitegi Gorenak azken hitza zeukan konstituzionaltasun arloan. *Marbury vs. Madison* auzian Marshall epailearen ebazpena da estatubatuar bizitzan Auzitegi Gorenak duen botere handiaren oinarria.

Lege-berrikuspena da, beraz, botere legegilearengandik datozen legeak edo botere betearazlearen ekintzak konstituzionalak diren erabakitze gaitasuna edo eskumena. Lege-berrikuspena errektiboa da, auzitegiek itxaron beharko dute haiengana iritsi arte auzi bat, gertakariak aztertze eta erabaki bat hartze. Auzitegi guztiek interpreta dezakete konstituzioa, baina Auzitegi Federala da estatuetatik eta behe-ragoko auzitegi federaletatik datozen helegiteak entzuteko azken instantzia.

d) Federalismoa

Konstituzio nazionalaren eta 50 estatuenetakoaren arabera, zenbait gai edo eremu gobernu federalari dagozkio eta beste batzuk esta-

tuei. Lehenak, soilik berariaz eman zaizkion eskumenak dauzka; estatuek, gainerako guztiak —Hamargarren Zuzenketa—. Hortaz, gobernu federalaren eskumenak zerrendaturik daude, ez ordea estatuenak. Sarritan azken horienei hondar-eskumen deritze —*residual powers*—.

Gobernu federalaren eskuduntzak berariaz zerrendaturik dauden arren, VI. artikulua konstituzioa —besteren artean— kontsideratzen du «the supreme Law in the Land [...] anything in the Constitution or Laws of any State to the Contrary notwithstanding»¹. Bestalde, konstituzioak duen klausula «malguaren» arabera (I. artikulua, 8. atala) kongresuak du legeak egiteko eskumena, baita konstituzioak gobernuari edo edozein sail nahiz funtzionarioi emandako botereak betearazteko eskumena ere. Horrek esan nahi du, kongresuak, berariaz zerrendaturik dauden eskumenez gain, botere inplizitu edo adierazi gabeko batzuk dituela halaber, eta tesi hori finkatu zuen Marshall epaile gorenak 1819an *McCulloch vs. Maryland* auziari epaia ematerakoan.

Estatu Batuen hasierako historian zehar, federazioaren gorentasunaren eta estatuen eskubideen kontzeptu labainkorrak gehienbat merkataritzaren inguruko auzietan zentratu ziren. Merkataritzaren gaineko klausulak (I. artikulua, 8. Atala) kongresuari soilik aukera ematen dio «atzerriko nazioekin, estatuen artean eta indiar nazioekin merkataritza arautzeko». *Gibbons vs. Ogden* auziaren ebazpenaren ostean, aldiz, Auzitegi Federalak interpretatu du kongresuak arlo horretan arautzeko eskumena duela, eta hori aplikatu zaie estatuen arteko merkataritza eta komunikabide forma berriei. Estatuek ezin dute estatuen arteko merkataritzaren inguruko araudirik eman, kongresuak aurrea hartu baldin badie.

Laburbilduz, Estatu Batuetan bi dira boterearen instantziak —nazionala eta estatu kideena—, eta eremu bietan badago atal judizial, betearazle eta legegilearen arteko bereizketa. Auzitegi nazional edo federalen eremua mugatua da: Estatu Batuetako konstituzioaren interpretazioaz eta aplikazioaz arduratzen dira, baita edozein lege edo itun nazionalenaz ere. Estatu batek edo batzuek besteren aurka auziak jartzen dituztenean ere jarduten dute, edo atzerriar estatu bat jurisdikzio federaleari auzi batean tartean denean ere. Estatu Batuetan gutxi gora

¹ «durraldeko lege goren [...] nahiz eta edozein estatuko konstituzio edo legeetan gauduzen bat horien aurka egon».

behera 120 auzitegi federal daude, eta mila batzuk estatu auzitegi, araugintza gehiena estatuei egokitu baitzaie.

11.- Estatu Batuetako konstituzioari lehen hamar zuzenketak (*Bill of Rights*)

Gorago esan bezala, estatu askoren berrespena, kongresuak zuzenketa bidez onarturiko eskubide deklarazio —*Bill of Rights*— batekin konstituzioa osatuko zelakoan egin zen. James Madisonek idatzi zituen lehen hamar zuzenketak, eta modu eraginkorrean defenditu zituen kongresuan. 1791n, estatu kopuru nahiko batek berretsi zituen.

Nolanahi ere, konstituzioaren muinean bertan zenbait eskubide aipatzen ziren lehendik ere; esaterako, habeas corpusaren bermea, atzeraragineko legeak debekatzea (I. artikulua, 9. atala, 2. eta 3. paragrafoak), edo, auzi kriminaletarako, zinpekoen epaimahaia ezartzea (III. artikulua, 2. atala, 3. paragrafoa). Konstituzioaren testuari gaineraturiko hamar zuzenketok, hortaz, hiritarrei aitorturiko eskubideak osatzeko eginkizuna zuten.

Lehen Zuzenketa Estatu Batuetako askatasunen sistemako garrantzitsuen kontsideratzen da. Adierazpen askatasuna, prentsa askatasuna, biltzeko eskubidea eta gobernuari eskaerak egiteko askatasuna jasotzen ditu. Bestetik, erlijioa estatutik bereizia geratu zen, erabaki baitzen kongresuak ez duela legerik egingo erlijio bat ezartzeko edo debekatzeko.

Bigarren Zuzenketak («ongi diziplinaturiko milizia bat beharrezkoa delarik estatu aske baten segurtasunerako, ez da galaraziko herriak armak gordetzeko eta eramateko duen eskubidea») oraindik ere eztabaidak sortzen ditu iritzi publikoaren baitan. Auzitegi Federalak ezarri duenez, estatuek armen eskuratzea arau dezakete; bestetik, Kongresuak nazio mailako legeria eman du, aurrekari penalak aztertuko direlarik arma negozio bat izateko.

Hirugarren Zuzenketak arautzen du hiritarrek euren etxeetan gudarosteei ostatu ematea errefusatzeko eskubidea. Ingeles agintaritzako garaian kolonoek soldadu britainiarrak ostatatzeke eta elikatzeke zuten obligazioaren kontrako erreakzioa da. Estatu Batuen historian zehar ez da beharrezkoa izan.

Laugarren Zuzenketak etxebizitzaren eta norberaren ondasunen segurtasuna kontsaktatzen du. Poliziak ezin ditu hiritarrak miatu, ez baldin bada epaile batek miaketa agindu —*warrant*— bat eman duelako. Lehenik poliziak epailea konbentzitu beharko du pertsona batek delitua egin duelako susmo arrazoigarria dagoela. Miaketaren —*search*— kontzeptua eztabaidagarria izan da.

Auzitegi Federalaren arabera, zuzenketa honetatik ondorioztatzen da pribatutasunerako eskubidea, bakarrik egoteko eskubidea, gobernua norbere bizitzan sartu barik. 1973an pribatutasunerako eskubidea hedatu egin zen abortu eskubidera, gobernuaren tarte sartzetik nahiz erregulaziorik gabe.

Bosgarren, Seigarren eta Zazpigarren Zuzenketak, delitu bat egiteaz salatuak diren pertsonak dituzten eskubideen ingurukoak dira, epaiketa zibil eta kriminaletan jarraitu beharreko prozedurak arautzen dira halaber. Konstituzioa egin zutenen gogoan zeuden oraindik ere britainiarren epaiketa bidegabeak, lege militarrek eta zehapen arbitrarioak. Hiru zuzenketok bermatu egiten dute hiritarrek epaiketa garbi, publiko eta azkar bat izateko eskubidea, abokatu batek lagunduko dituelarik, eta salatzailea galdekatua izan daitekeelarik. Bermatzen da, baita ere, konderrian ausaz hautatua izango den zinpekoen epaimahai batek epaitua izateko eskubidea. Bestalde, pertsona bat ezin daiteke izan birritan epaitua delitu beragatik justizia instantzia berean. Hala ere, delitu batzuk aldi berean *delitu federal* eta *estatu mailako delitu* dira, eta akusatuak auzitegi federalean eta auzitegi estatalean, bietan ere, izan beharko du epaiketa. Lekukotza egiteari dagokionez, inor ez dago behartua norbere aurka egitera, eta frogatzea beti dagokio salatzaileari eta ez salatuari. Senar-emazteak ere ez daude elkarren aurka lekukotasun egitera behartuak.

Prozedura arauen konplexutasunak atxilotzean parte hartzen duten polizien hutsak eragiten ditu batzuetan, baita auzitegien prozeduratan akatsak ere. Prozedura hutsegiteek batzuetan aukera ematen diete akusatuak beste epaiketa bat eskatzeko, edo salaketa nahiz egozketak kentzeko eskatzeko, horiek auziaren emaitzan eragin erabakigarria dutenean.

Zortzigarren Zuzenketan agintzen denak («ez dira ezarriko gehiegizko fidantzak, edo gehiegizko isunak, ezta zigor anker eta ezohikoak aplikatuko ere») eztabaida iraunkorra eragiten du estatuba-

tuar gizartean. Batez ere heriotza-zigorri dagokionez. XVIII. mendearen bukaeran, zigor hori ez zen krudel kontsideratzen eta ez zen ezohikoa, eta ikuspegi hori jarraitzen da oraindik ere batasuneko estatu askotan. XX. mendeko bigarren erdian Auzitegi Gorenak krudela kontsideratu du heriotza-zigorra modu arbitrarioan eta diskriminatzailan aplikatzea (hegoaldeko estatuetan hamar aldiz gehiago aplikatzen zitzaien txiro, beltz, gizonezko eta gazteei heriotza-zigorra, antzeko delituetan sarturik zeuden zuriekin alderaturik). Hortaz, erabaki zuen auzitegi federaletan epaitzeko modu uniforme bat egongo zela; bate-tik, Kongresuari eskatu zion lege federal uniformeak egitea eta, bes-tetik, estatuei —estatuetako auzitegiaren arbitrariorotasuna ekiditeko— aurretik finkaturiko zigor derrigorrezkoak —*mandatory sentencing*— ezartzea.

Bederatzigarren Zuzenketaren arabera, eskubide batzuen emateak ez du suposatzen herriak gordetzen dituen beste zenbait ezeztatzea edo gutxiestea. Ezin ziren idatziz jaso herriaren eskubide guztiak, baina atea irekitzen zitzaien horiek legearen bidez aitortzeari. Kontsideratzen da zuzenketa honen eremukoak direla aborturako eskubidea, estupefazianteen erabilera, botiken eta makina artifizialen bidez bizirik mantendu barik hiltzeko eskubidea, eta, laugarren zuzenketan aurreikusten ez den kasuetan, pribatutasunerako eskubidea.

Hamargarren zuzenketak dioenez, konstituzioak Estatu Batuei ematen edo estatuei debekatzen ez dizkien eskumenak, estatuenak edo herriarenak dira. Konstituzioaren testuak zuen izaera federalaren aurrean, zuzenketa honek sisteman galga antifederal bat sartzen du.

12.- Gainerako zuzenketak

Esan bezala, lehen hamar zuzenketak 1791n onartu ziren batera. Azken bi mendeetan beste batzuk onartu dira; hala nola, lehendakariaren hautaketaren ingurukoa, esklabotzaren deuseztapenarena, errentaren gaineko zerga sortzen zuena, edo boto eskubidea hedatzen ziena —*enfranchisement*— jabegorik gabekoei, gizonezko beltzei, emakumezkoiei eta, azkenean, 18 urte beteak dituztenei. Aipagarria da alkoholaren inportazioa, garraiatzea eta kontsumoa debekatzen zuen zuzenketa, beranduago deseman zena. *Bill of Rights* osatzen dutenak barne, 27 zuzenketa dira guztira.

13.- Konstituzioaren iraupena

Harridura sortzen du 1789ko konstituzio batek nola iraun duen bi mende baino gehiago, aldaketa garrantzitsurik izan gabe. Kanpoko historiak eragina izan zuen, baina iraupen hori, bestetik, testuaren oro-kortasunari egotzi behar zaio, kasu konkretuetara lerratzen ez diren kontzeptu eta ideietan funtsatzen baita normalean. Kongresuak eta botere betearazle eta judizialek bete egin dituzte hutsuneak; nolana ere, konstituzioaren muinak ezartzen dituen mugak errespetatuz eta horietara doitu.

Bibliografia eta iturriak

ANDREWS, CHARLES McLEAN. 1934. *The colonial period of American history*. New Haven: Yale University Press; Londres: H Milford, Oxford University Press.

BAILEY, THOMAS A.; KENNEDY, DAVID M. 1994. *The American Pageant. A History of the Republic*. Lexington, Mass.: D.C. Heath and Company.

BERNSTEIN, RICHARD. 1987. *Are We to Be a Nation? The making of the Constitution*. Cambridge, Mass.: Harvard University Press.

COMMANGER, HENRY STEELE; CANTOR, Milton. 1988. *Documents of American History*. 10. argitalpena. Englewood Cliffs, N. J.: Prentice Hall. 2 bol. [batasun kolonialaren lehen deklaraziorako: «The Albany Plan of the Union»]

JEFFREY, W.B. 1970. «United States». Gilissen, John. *Introduction*

bibliographique à l'histoire du droit et à l'ethnologie juridique. Brusela: Edit. de l'Université de Bruxelles, F/8.

KESLER, CHARLES R. 1987. *Saving the Revolution: The Federalist Papers and the American Founding*. New York: Free Press.

-1999. *Federalist Papers: Alexander Hamilton, James Madison, John Jay*. New York: Mentor.

MORGAN, EDMUND S. 1956. *The birth of the Republic, 1763-1789*. Chicago: Chicago University Press.

TUNG, A. eta S. 1955, *Le droit des États-Unis. Sources et techniques*. Paris.

WOOD, GORDON S. 1998. *The Creation of the American Republic, 1776-1787*. Chapell Hill: Institute for Early American History and Culture, University of North Carolina Press.

VIII

ESTATU BATUAK

1.

VIRGINIAKO ESKUBIDEEN ADIERAZPENA*

Virginiako herri onaren ordezkariak —denak batzarrean libreki bilduta— egiten duten eskubideen deklarazioa, adierazten delarik zein eskubide dagozkien, gobernuaren oinarri eta zimendu moduan, herritarrei eta euren ondorengoei.

1. atala: Pertsona guztiak naturaz berdin dira aske eta burujabe, eta, gizarte egoera batean sartzen direnean, denek berez dituzte eskubide jakin batzuk ezin zaizkienak hitzarmen baten bidez euren ondorengoei ken edo ukatu. Bereziki, bizitzeko eta aske izateko eskubidea, jabetzak eskuratzeko eta edukitzekoa, eta zoriontasuna nahiz segurtasuna bilatzeko eta lortzekoa.

2. atala: Botere oro herriarengan dago eta, hortaz, harengandik dator. Magistratuak haren gordetzaille eta zerbitzari dira, eta une oro haren aurrean erantzun behar dute.

3. atala: Gobernua herriaren, nazioaren edo komunitatearen on, babes eta segurtasun komunerako eratzen da, edo, behintzat, hartarako eratua izan beharko luke. Gobernu era edo forma guztietarik onena da zoriontasun eta segurtasun handiena sortzeko gai dena eta administrazio oker baten arriskua hobekien saihesten duena. Eta edozein gobernuri antzematen bazaio xede horietarako ezegokia edo horien aurkakoa

* Iturria: *The Virginia Declaration of Rights*. 1776; Yale Law School, University of Yale (AEB),
<http://www.yale.edu/lawweb/avalon/virginia.htm>. (2007ko urriaren 11n atzitua).

dela, komunitatearen gehiengoak —guztion ona ekartzeko egokien ematen duen eran— hura erreformatzeko, aldatzeko edo deuseztatzeko eskubide eztabidaezina, besterenezina eta ezeztazina dauka.

4. atala: Ezein pertsonak —edo giza taldek— ez dauka komunitatearengandik ordainsari edo pribilegio eskusiboak edo bereiziak —zerbitzu publikoen ordainean datozkienak izan ezik— jasotzeko esku-biderik. Ordainsari edo pribilegio horiek, ez direlarik jaraunsgarriak, ezin dira jarauntsi; ezta magistratu, legegile edo epaile karguak ere.

5. atala: Estatuko botere legegile eta betearazleak botere judizialek bereiziak eta bananduak izan behar dira. Lehen bi botere horietako kideei zapalketa egitea galaraz dakieke, herriaren nahigabeak partitu eta sentiarazita; horrela, aldi jakin batzuen ostean kide horiek egoera pribatura itzuli beharko dira. Sorburu zeukaten taldera bueltatu, eta hutsik utziriko lekuak hauteskunde sarri, seguru eta erregularren bidez beteko dira, eta legeak erabakiko du toki horietan aurreko kide guztiak —edo horietako batzuk— berriz sar daitezkeen ala ez.

6. atala: Bilkura batean herriaren ordezkari izanen diren kideen hautaketak askea izan beharko luke. Komunitatearekiko lotura eta interes komun iraunkorra dutela erakutsi duten pertsona guztiek sufragiorako eskubidea dute, eta ezin zaie zergarik ezarri edo, erabilera publikorako, haien jabetzez gabetu, betiere, haiek edo beraiek hautaturiko ordezkariak ez baldin badute onespina ematen. Ez daude, ezta ere, haiek on komunerako jo ez duten ezein legerekiko behartuta.

7. atala: Edozein autoritatek legeak suspentsioan uzteko edo betearazteko hartzen duen boterea, herriaren ordezkarien onespenik gabe, herriaren eskubideentzat kaltegarria da eta ez litzateke gauzatu beharko.

2.

AMERIKAKO ESTATU BATUEN INDEPENDENTZIA DEKLARAZIOA*

1776ko uztailaren 4an, Bigarren Kongresu Kontinentalean eginitako aldarrikapena:

Amerikako Estatu Batuen aho bateko deklarazioa.

Giza gertakizunen bilakaeran herri bati beharrezko egiten zaionean beste herri batekin izan dituen lotura politikoak desagetea eta, Lurreko botereen artean, norberarentzat hartzea naturaren legeak nahiz Jainkoarenak eskainiriko leku bereizi baina besteen berdina, orduan, gizateriaren iritziarekiko errespetu gizalegezko batek eskatzen du bereizketara daroaten arrazoiak azaltzea.

Honako egia berez nabariak direla iruditzen zaigu: gizaki guztiak berdinak sortuak dira, Sortzaileak zenbait eskubide besterenezin eskaini dizkie, eta horien artean daude bizia, askatasuna eta zoriontasuna erdiestea. Eskubide horiek segurtatzeko, gizakiek gobernuak eratzen dituzte, eta gobernatutako pertsonen onespentik irteten dira gobernu horien botere justuak. Edozein gobernu-forma xede horientzat suntsigarri bilakatzen denean, herriak badauka gobernu hori aldatzea edo deuseztatzea eta gobernu berri bat ezartzea; eta, gizakiaren segurtasuna eta zoriontasuna gauzatzeko xedea izanen delarik gobernu berriaren oinarria, horren arabera antolatuko ditu botereak. Zuhurtasunak, izan ere, aholkatzen du aspaldi ezarririk gobernuak ez liratekeela arrazoi hutsal eta iragankorrak direla medio aldatu behar; eta, hortaz, esperientziak erakutsi izan du gizateria prestago dagoela sufritzeko — gaitzak jasangarriak diren bitartean —, gauzak konpondu, eta ohikoak zaizkienak deuseztatzea baino. Baina gehiegikeria eta usurpazio andana luze batek, etengabe helburu berera daramanak, agerian uzten duenean asmoa dagoela gizakiak despotismo absolutuaren menpe ezartzeko, orduan, gizakiek badaukate eskubidea, baita betebeharra ere, halako gobernu batez libratzeko, eta euren segurtasunari zaintzaile berriak ezartzeko. Halakoa izan da kolonia hauek pazientziaz pairatu duten

* Iturria: *The Declaration of Independence*; The National Archives, American Government (AEB), http://www.archives.gov/national-archives-experience/characters/declaration_transcript.html. (2007ko urriaren 11n atzitu).

sufrimendua; eta halakoa da lehenagoko gobernu sistema aldatzeko orain daukaten beharra. Erresuma Batuko egungo erregearen historia kalte eta usurpazio jarraituen historia da, eta horiek berehalako helburu dute estatu hauetan tirania absolutua ezartzea. Hori frogatzeko, erakuts bekizkio gertakariak mundu laño honi:

Ongizate publikorako erabat osasungarriak eta beharrezkoak ziren legeei onespena emateari uko egin dio.

Gobernadoreei debekatu egin die berehalako eta berebiziko garrantzia zuten legeak onartzea, horien aplikazioa suspentsioan utzi du, hark bere onespena eman arte; eta, hala suspendituak izandakoan, erabat uko egin dio lege horiek kontuan hartzeari.

Uko egin dio beste zenbait lege onartzeari, jendea barruti handietan kokatzeko xedea zutenei, baldin eta jende horrek ez bazion uko egiten legislaturan ordezkapena izateko zeukan eskubideari. Eskubide hori haientzat ezinbestekoa zelarik, tiranoei bakarrik eragiten die beldurra.

Erakunde legegileak leku ezohiko, ezeroso eta dokumentu publikoen gordetegietatik urrutikoetan konbokatu ditu, erakundeotan parte hartzen dutenak nekatzeko xede soilarekin, erregearen neurriekiko otzantasuna bilatuz.

Ordezkarien ganberak behin eta berriro desegin ditu, irmoki aurka egiten zitelako hark herriaren eskubideen gain eginiko zapalketei.

Luzaroan uko egin dio, desegite horien ostean, beste ordezkari batzuk hautatzen lagatzeari. Horrela, botere legegileak, deuseztatzerako ezgai, herriarengana orokorrean itzuli dira gauzatuak izateko; bitartean, kanpoko inbasioen eta barneko liskarren arriskuan izan da herrialdea.

Saiatu da estatu horien populatzea ekiditen, horretarako, batetik, atzerritarren bertakotze legeak oztopatu ditu eta, bestetik, beste lege batzuk onartzeari uko egin dio, horiek onartu izan balira, honanzko emigrazioa sustatu eta lurren eskuratzeko baldintzak sortuko baitziren.

Justizia administrazioa oztopatu du, botere judizialak ezartzeko legeei baiespena ematera errefusatuz.

Bere nahieraren menpeko soilak egin ditu epaileak, bai haien karguen betetzean, bai haien soldaten zenbatekoak ezartzean eta berorien ordainketan.

Kargu berri pila sortu du, eta honantz funtzionario mordoa bidali du gure jendea jazartzeko eta gure bizibidea irensteko.

Gure artean, bake garaietan, gudaroste finkoak mantendu ditu, gure legislaturen onespénik gabe.

Militarrak botere zibilaren gainetik eta independente ezarri ditu.

Gure egiturari arrotz zaion eta gure legeek onartzen ez duten jurisdikzio baten menpeko egin nahi izan gaitu besteren laguntzaz; horien ustezko legeria bateko legeei onarpena emanek.

Gure artean indar armatuzko gudarosteak koarteleratu ditu.

Itxurazko epaiketa bidez, babestu egin ditu gudaroste horiek estatu hauetan eginiko edozein erailketetatik.

Munduko gainontzeko lekuekin dugun merkataritza galarazi du.

Zergak ezarri ditu gure onespénik gabe.

Kasu askotan, zinpekoen epaimahaia bidezko judizioa ukatu du.

Ustezko arau urratzeak direla-eta epaituak izan gintezan, itsasoz haraindira bidali gaitu.

Auzoko probintzia batean, lege ingelesez sistema askea abolitu, gobernu arbitrario bat ezarri, eta bertako mugak zabaldu ditu; modu horretan, kolonietan arau absolutu berak ezartzeko, berehalako etsenplua eman eta instrumentu egokia aurkeztu du.

Gure eskubide-gutunak kendu, gure lege baliagarrienak deseman, eta gure gobernu-erak oinarritik aldatu ditu.

Gure legislaturak suspentsioan utzi, eta edozein kasutan guregan legislatzeko boteredun deklaratu dituzte euren buruak.

Hemen gobernatzeari jaregin dio, bere babesetik kanpo deklaratu gaituelarik eta gure aurka guda egin du.

Gure itsasoak arpilatu ditu, gure kostaldea bipildu du, gure hiriak erre, eta gure jendearen bizitzak suntsitu ditu.

Une honetan atzerritar mertzenarioen gudaroste handiak garraiatu ditu heriotza, desolazio eta tirania eginkizunak burutzeko, horren aurretik krudeltasun eta saldukeria zirkunstantzietan hasia zen, zaila garai barbaroenetan horren parekorik aurkitzea, zeharo erdeinagarria, herri zibilizatu batean.

Itsas zabalean harrapatu dituen gure herritarrak behartu egin ditu berorien herrialdearen kontra borrokatzera, berorien lagun eta anai-arreben exekutatzaile bihurtzera, edo horien eskutik hilak izatera.

Gure artean altxamenduak piztu ditu, eta erakarri egin ditu gure mugetatik at bizi diren biztanleak, indiar basati errukigabeak, horien gudarako jarduera ezaguna delarik, adin, sexu eta egoera guztietako pertsonen suntsipen parerik gabea baitakar.

Zapalkuntza horien maila bakoitzean konponketa eskatu dugu modurik umilenean: gure eskaera etengabeak laidoz soilik erantzun izan dira. Eta printze bat, berorren izaera nabarmentzen delarik tirano bat definitzen duen ekintza oro egiteagatik, ez da egokia herri aske baten agintari izateko.

Bestalde, ez zaigu falta izan gure britainiar anai-arrebenganako arretarik. Aldian-aldean gaztigatu diegu nola haien legislaturak gureganako eskumen justifikaezin bat ezarri nahi zuen. Gogorarazi dizkiegu gure honanzko emigrazioaren eta hemengo finkapenaren gorabeherak. Haien aberriko justiziara eta bihozberatasunera jo dugu, eta dei egin diegu gure arbaso komunaren izenean usurpazio horiei uko egin ziezaieten, derrigor etengo baitzituzten gure arteko harremanak eta loturak. Gor izan zaizkie, halaber, justiziaren eta odol komunaren ahotsari. Hortaz, onetsi beharko dugu daukagun premia, gure banantzea eskatzen duena, eta haiek, gizateriaren gainerako kideekin legez, gudan arerio izanen ditugu, eta lagun, bake garaian.

Hortaz, guk, Amerikako Estatu Batuen ordezkariak, biltzar orokorrean bilduta, munduaren epaile gorenarengana joz gure intenzioen zuzentasunerako, kolonia hauetako jende onaren izenean eta autoritatearekin, solemneki publikatzen eta deklaratzan dugu kolonia batu hauek estatu aske eta independenteak direla eta izan behar direla; britainiar koroarekiko leialtasunetik salbuetsiak direla, eta haien eta Erresuma Batuko estatuaren arteko lotura politiko oro erabat deuseztatua dela eta izan behar dela; eta estatu aske eta independenteak direlarik, eskumen osoa dutela gerra deklaratzeko, bakea egiteko, aliantzak sortzeko, merkataritzan aritzeko, eta eskubide osoz estatu independente guztiek egin ditzaketen ekintza eta gauza guztiak egiteko. Eta deklarazio honi laguntzeko, probidentzia santuaren babesean

konfiantza dugularik, elkarri eskaintzen dizkiogu gure bizitzak, ondasunak eta ohore sakratua.

John Hancock

Georgia: Button Gwinnett; Lyman Hall, Geo. Walton.

North Carolina: Wm. Hooper, Joseph Hewes, John Penn.

South Carolina: Edward Rutledge, Thos. Heyward, junr., Thomas Lynch, junr., Arthur Middleton.

Maryland: Samuel Chase, Wm. Paca, Thos. Stone, Charles Carrol. Carrolotongoa.

Virginia: George Wythe, Richard Henry Lee, Ths. Jefferson, Benja. Harrison, Thos. Nelso, jr., Francis Lightfoot Lee, Carter Braxton.

Pennsylvania: Robt. Morris, Benjamin Rush, Benja. Franklin, John Morton, Geo. Clymer, Jas. Smith, Geo. Taylor, James Wilson, Geo. Ross.

Delaware: Caesar Rodney, Geo. Read.

New York: Wm. Floyd, Phil. Livingston, Frank Lewis, Lewis Morris.

New Jersey: Richd. Stockton, Jno. Witherspoon, Fras. Hopkinson, John Hart, Abra. Clark.

New Hampshire: Josiah Bartlett, Wm. Whipple, Matthew Thornton.

Massachusetts Bay: Saml. Adams, John Adams, Robt. Treat Paine, Elbridge Gerry.

Rhode Island and Providence: C. Step. Hopkins, William Ellery.

Connecticut: Roger Sherman, Saml. Huntington, Wm. Williams, Oliver Wolcott.

3.

AMERIKAKO ESTATU BATUEN KONSTITUZIOA (1787)*

Guk, Amerikako Estatu Batuetako herriak, batasun perfektuago bat osatzeko, gurean justizia ezartzeko, lasaitasuna segurtatzeko, defentsa komuna artatzeko, ongizate orokorra sustatzeko, eta guretzat zein gure ondorengoentzat askatasunaren dohainak ziurtatzeko, Amerikako Estatu Batuen honako konstituzio hau dekretatzen eta ezartzen dugu.

LEHEN ARTIKULUA

Lehen atala— Hemen eskaintzen diren botere legegile guztiak Amerikako Estatu Batuetako kongresuari ematen zaizkio, eta berau Senatuak eta Ordezkarri Ganberak osatuko dute.

Bigarren atala— 1.) Estatu bakoitzeko biztanleek bi urtean behin hautaturiko kideek osatuko dute Ordezkarrien Ganbera, eta estatu bakoitzeko hautesleek estatuko legislaturako adarrik ugarienerako beharrezko baldintzak beteko dituzte.

2.) Ezin izanen da inor ordezkarri izan, ez baldin baditu hogeita bost urte bete, ez bada zazpi urtez Estatu Batuetako hiritar izan eta, hautatzen dutenean, hautatua izan den estatuan bizi ez bada.

3.) Ordezkarriak eta zerga zuzenak Batasun hau osatuko duten estatuetan proportzionalki banatuko dira, bakoitzak dituen biztanleen arabera, kopurua determinatuko delarik pertsona askeen kopuru osoari batuz —barne, urte batzuetan estatu horretan zerbitzua bete behar duten pertsonak, eta, kanpo, zergarik ordaintzen ez duten indiarrek— gainontzeko pertsona guztiek osatzen duten kopuruaren hiru bosten. Zenbaketa egingo da Kongresuaren lehen biltzarra igaro eta hiru urteren epean, eta hortik aurrera hamar urtean behin, legeak xedatzen duen moduan. Ordezkarri kopuruak ez du gaindituko hogeita hamar mila biztanleko ordezkarri bat, baina estatu bakoitzak ordezkarri bat izanen du behintzat, eta, kontaketa hori egin bitartean, New Hampshireko estatuak hiru hauta ditzake, Massachusettsek zortzi, Rhode Islandek eta

* Iturria: *Constitution of the United States*; The National Archives, American Government (AEB), http://www.archives.gov/national-archives-experience/characters/constitution_transcript.html (2007ko urriaren 11n atzitua).

Providence Plantationek bat, Connecticutek bost, New Yorkek sei, New Jerseyk lau, Pennsylvaniak zortzi, Delawarek bat, Virginiak hamar, North Carolinak bost, South Carolinak bost eta Georgiak hiru.

4.) Edozein estatuko ordezkaritzan toki hutsak daudenean, bertako autoritate betearazleak ordezkari toki hori bete dadin hautespen xedapena emango du.

5.) Ordezkarien Ganberak bere presidentea eta gainerako funtzionarioak hautatuko ditu, eta, funtzionario publikoak epaitu behar badira, ganbera horrek du soilik eskumena².

Hirugarren atala— 1.) Estatu bakoitzeko bi senatarik osatuko dute Estatu Batuetako Senatua. Estatu bakoitzeko legislaturak sei urterako hautatzen dituelarik, senatari bakoitzak boto bana izanen du.

2.) Lehen hauteskundearen ondorioz lehen aldiz bildu eta berehala, senatariak ahalik eta modu berdintsuenean hiru taldetan bereiztuko dira. Lehen taldeko senatarien aulkiak bigarren urtea amaitzen denean hutsik geratuko dira, bigarren taldekoak laugarren urtean, eta hirugarren taldekoak seigarren urtean, horrela, bi urtean behin heren bat hautatuko da. Toki hutsak gertatzen badira, karguari uko egiteagatik edo beste arrazoiren bat dela medio, estatu bateko legealdia eteten den unean, botere betearazleak behin-behineko izendapenak egin ditzake legislatura berriz bildu arte, berorrek orduan toki hutsak beteko dituelarik.

3.) Inor ez da senatari izanen ez baldi baditu hogeita hamar urte bete, bederatzi urtez Estatu Batuetako hiritar izan ez bada, eta ez bada, hautatzen dutenean, hautatua izan den estatuko biztanle.

4.) Estatu Batuetako lehendakariordea Senatuko presidente izanen da, baina ez du botorik izanen, berdinketa ematen den bozketetan izan ezik.

5.) Senatuak bere funtzionarioak hautatuko ditu, eta *pro tempore* presidente bat ere, lehendakariordea falta denean, edo berau lehendakari funtzioak betetzen ari denean.

6.) Senatuari soilik dagokio funtzionario publikoen kasuak epaitzea. Eginkizun horretarako biltzen direnean, senatariek zin egin edo promestu³ beharko dute. Estatu Batuetako lehendakaria epaitzen dene-

2 *Power of impeachment*: funtzionario publikoak euren jarduera dela-eta epaitzeko eskumena.

3 *Oath or Affirmation*: hitzez hitz, *zin egite edo afirmazio*; *affirmation*: kontzienteki zin egiteari uko egiten diotenei solemneki egiten duten deklarazioa, zinauspentak dakarren zigor berari aurre egin beharko diotelarik.

an, Auzitegi Gorenaren presidenteak zuzenduko du. Inor ezin da erruduntzat jo bertaraturikoen bi herenen botoa jaso barik.

7.) Kargu publikoa duten pertsonen kasuen epaietan ezin da kargua kentzetik eta Estatu Batuetan ohorezko, erantzukizuneko edo etekineko edozein toki betetzeko desgaitzuntzatik haratago egin. Baina erruduntzat jotako alderdia akusatu, epaitu eta kondenatu egin daiteke eta egingo da, legearen arabera.

Laugarren atala— 1.) Estatu bakoitzean bertako legislaturak aginduko du noiz, non eta nola hautetsi senatari eta ordezkariak, baina kongresuak legearen bidez egin edo alda ditzake araudi horiek, senatariak hautatzeko lekuei dagokionaren inguruan izan ezik.

2.) Kongresua urtean behin bilduko da behintzat, eta biltzar hori, abenduaren lehen astelehenean izanen da, betiere, legearen bidez ez baldin bada beste egun bat aukeratzen.

Bosgarren atala— 1.) Ganbera bakoitzari dagokio bere kideen hautaketa egitea nahiz bete beharreko baldintzak eta botoen emaitzak finkatzea, eta bertako gehiengo batek osatuko du erabakitze moduko quoruma; baina egun batetik bestera kide kopuru txikiago batek bilkura amaitu dezake, eta falta diren kideen bertaratzea exijitzeko autoritatea izan dezake, ganberak erabakitzen duen moduan eta zehapenekin.

2.) Ganbera bakoitzak badauka bere barne-araudia erabakitzea, bere kideei zehapenak ezartzea jarrera okerra dutenean, eta, kideen bi heren bertaratu direlarik, kide bat egozte.

3.) Ganbera bakoitzak bilkuren egunkaria gordeko du, eta aldian-aldian argitaratuko du, ganberak sekretupekotzat jotzen dituzten atalak izan ezik. Ganbera bakoitzeko edozein gairi buruzko baiezkotza eta ezezko botoak —ganberaren bosten batek hala gura badu— egunkarian jaso egingo dira.

4.) Kongresuaren bilkuretan ezein ganbera ezin da —bestearen baimenik gabe— hiru egun baino gehiagotz suspentsioan utzi, ezta bildu ere bi ganberei dagokien lekutik kanpo.

Seigarren atala— 1.) Senatariak eta ordezkariak ordainsaria jasoko dute eginiko zerbitzuagatik, legeak erabakiko duelarik haren zenbatekoa, eta Estatu Batuetako altxorretik ordainduko delarik. Ezein kasutan —traizio, delitu larri edo bake haustean izan ezik— ezin izanen dira senatari eta ordezkariak atxilotu ganberetako bilkuretan parte

hartzten daudenean, ezta horietara doazenean edo handik irteten direnean ere; eta edozein ganberan eman beharreko mintzaldi edo eztabaida baten inguruan ezin zaio beste leku batean galdekatu.

2.) Ezein senatari edo ordezkari ezin da, hartarako hautatua zen legealdiak dirauen artean, Estatu Batuetako beste kargu ofizial baterako izendatua izan, kargu hori legealdi horretan sortua edo karguaren ordainsaria aldi horretan igoa delarik ere; eta Estatu Batuetako autoritatearen mende dagoen kargu bat betetzen duen inor ezin da ezein ganberako kide izan funtzioan dirauen bitartean.

Zazpigarren atala— 1.) Zergak baimentzen dituen lege-proiektu oro Ordezkarien Ganberan sortuko da, baina Senatuak zuzenketak proposa ditzake edo, aldiz, ados egon daiteke gainontzeko lege-proiektuen kasuan bezala.

2.) Ordezkarien Ganberak eta Senatuak onarturiko lege-proiektu oro, lege bihurtu baino lehen, Estatu Batuetako lehendakariari aurkeztu behar zaio. Onesten baldin badu, sinatuko du; osterantzean itzuli egingo du —aurkitzen dizkion eragozpenak adieraziz— lege-proiektua sortu zuen ganberara, bertako egunkarian ezarriko direlarik osorik kontrako arrazoi horiek, eta horien inguruan jardungo da hurrengo. Horiek berriz aztertu ostean, ganbera horretako bi herenek lege-proiektua onartzen badute, eragozpenekin batera beste ganberari igorriko zaio, bertan aztertuko delarik, eta ganbera horretako bi herenek onartzen badute, lege bihurtuko da. Baina kasu horietan, baiezko eta ezezkoek determinatuko dituzte bi ganberetako botoak, eta lege-proiektuaren aldeko eta aurkako boto-emaileak ganbera bakoitzeko egunkarian agertu beharko dira. Lehendakariak ez baldin badu edozein lege-proiektu —hari aurkeztua izan ondoren— hamar egunetan (igandeez kanpo) itzultzen, lege bihurtuko da, baldin eta kongresuaren bilkura suspentsioan uzteak haren itzulera ekiditen ez badu, kasu horretan ez baita lege izanen.

3.) Senatuaren eta Ordezkari Ganberaren parte hartzea eskatzen duen agindu, erabaki edo boto oro (bilkura suspentsioan uztearen inguruko gaia izan ezik) Estatu Batuetako lehendakariari aurkeztu behar zaio, eta indarrean ezarri baino lehen, hark onartu egin beharko du, edo, onartzen ez duelarik, ostera ere onartu beharko dute Senatuaren eta Ordezkari Ganberaren bi herenek, lege-proiektuaren kasuan aipaturiko arau eta mugaketen arabera.

Zortzigarren atala— 1.) Kongresuak autoritatea izanen du honakoetarako: kontribuzioak, eskubideak, zergak eta akzisak ezartzeko eta jasotzeko, zorak ordaintzeko eta Estatu Batuetako segurtasun komuna eta ongizate orokorra artatzeko; baina eskubide, zerga eta akzisa guztiak uniformeak izanen dira Estatu Batuetan zehar;

2.) Estatu Batuen zorraren gaineko jesapenak jaulkitzeko;

3.) Atzerriko nazioekin, estatuen artean eta indiar nazioekin merkataritza arautzeko;

4.) Estatu Batuetan zehar, naturalizazio prozedura uniformea eta porroten gaineko lege uniformeak ezartzeko;

5.) Txanponak egiteko, bertako eta atzerriko diruaren balioa arautzeko, eta pisuen eta neurrien estandarra finkatzeko;

6.) Estatu Batuetako balioen eta monetaren faltsifikazioa zehartzeko;

7.) Posta zerbitzu eta bideak ezartzeko;

8.) Zientziaren eta arte probetxugarrien aurrerakuntza sustatzeko —autoreei eta asmatzaileei denbora jakin batez euren idazkien eta asmakuntzen gaineko eskubide eskusiboa segurtatuz—;

9.) Auzitegi Gorenaren beheragokoak diren auzitegiak eratzeko;

10.) Itsaso zabalean eginiko lapurretak eta delitu larriak, baita nazioarteko zuzenbidearen urrapenari buruzkoak ere, definitzeko eta zigortzeko;

11.) Gerra deklaratzeko, kortsario-patentea edo errepresaliarako baimena emateko, eta lurlean zein uretan eginiko harrapaketen gaineko arauak egiteko;

12.) Gudarosteak errekrutatzeko eta mantentzeko, baina, betiere, erabilera horretarako onarturiko dirua ez da izan bi urteko eperako baino luzeago;

13.) Itsas armada antolatzeko eta mantentzeko;

14.) Lurreko eta itsasoko indarren gobernurako eta erregulatzerako arauak egiteko;

15.) Miliziara deitzeko —batasuneko legeak beteak izan daitezkeen—, erreboltak deuseztatzeko eta inbasioei aurre egiteko;

16.) Miliziaren antolakuntza, armatzea eta diziplinatzea artatzeko, eta Estatu Batuen zerbitzura ezar daitekeen berorren zatia gobernatzeko —estatuentzat erreserbatuz ofizialen izendapena eta milizia trebatu behar duen autoritatea, Kongresuak agindutako diziplinaren araberak—;

17.) Legegintza eskusiboki izateko, estatuen lagapena izanik eta Kongresuaren onarpena duelarik, Estatu Batuetako gobernuaren egoitza bilakatuko den distrituaren (honek ez du gaindituko hamar milia koadroko azalera) gainean kasu guztietan. Autoritate bera izateko, estatuko legislaturaren onarpenarekin erosiriko leku guztietan, horietan eraikiko direlarik forteak, bolborategiak, armategiak, ontziolak eta gainerako beharrezko eraikinak; eta,

18.) Aurreko eskumenak eta konstituzio honek Estatu Batuetako gobernuari edo berorren edozein sail edo funtzionario eskaintzen dion beste edozein eskumen balia dadin beharrezko eta egoki den lege oro egiteko.

Bederatzigarren atala— 1.) Kongresuak, mila zortziehun eta zortzi urtea baino lehenago, ezin izanen die debekatu orain existitzen diren estatuei, estatu horietara emigratzeko edo horietara ekarriak izateko haiei egokiak iruditzen zaizkien pertsonak ekartzea, baina kontribuzio edo eskubide bat ezar dakioke halako inportatze bati, ezarpen horiek ezin direlarik pertsonako hamar dolar baino handiagoak izan.

2.) *Habeas corpus* aginduaren pribilegioa ez da kenduko, betiere, matxinatze edo inbasioa dela-eta segurtasun publikoak hala eskatzen duenean izan ezik.

3.) Ezin izanen da interdizio zibilik⁴ ezarri edo *ex post facto*⁵ legerik onartu.

4.) Ezin izanen da kapitaziorik⁶ edo bestelako zerga zuzenik ezarri, ez baldin bada sorrarazia izan den errolda edo kontaketa baten proportzioan.

⁴ *Bill of attainder*: delitu jakin batzuk —bereziki, traizioa eta nork bere burua legez kanpo ezartzea— jabegoen eta eskubide zibilen galerarekin zigortzen zituen legea. Zigorra emateko ez ohi zen beharrezkoa epaiketarik egitea.

⁵ Atzeraegineko legerik.

⁶ *Capitation*: pertsonako ezartzen zen kontribuzio edo zerga.

5.) Ezin zaie estatu batetik esportaturiko artikuluei kontribuzio edo eskubiderik ezarri.

6.) Ezin zaie lehentasunik eman, inolako merkataritza araudi edo zerga bidez, estatu bateko portuei, gainerakoen kalterako, ezta estatu batetik datozen edo estatu batera doazen ontziak behartu beste estatu batean sartzera, deskargatzera edo eskubideak ordaintzera ere.

7.) Ez da altxorretik dirurik aterako, ez bada legearen arabera eginiko esleipenak direla eta, bestetik, aldian-aldian sarrera eta gastuen kontu eta txosten erregular bat eman behar da.

8.) Estatu Batuek ez dute nobletasun titulurik eskainiko. Eta bertan erantzukizunezko edo etekinezko kargu bat daukan inork, Kongresuaren onespenerik gabe, ez du onartuko inolako dohain, ordainsari, kargu edo titulurik batere atzerriko errege edo printze batengandik.

Hamargarren atala— 1.) Ezein estatuk ezin dezake izenpetu itunik, aliantzarik edo konfederaziorik; kortsario-patenterik edo errepre-saliarako baimenik eskaini; txanponik egin; diru-paperik⁷ jaulki; zorren ordainketarako moneta moduan urrezko edo zilarrezko txanponak ez diren beste ezer egin; interdikzio zibil legeak, *ex post facto* legeak eta kontratuen derrigorrezkotasuna indargabetzen duten legeak eman; ezta noblezia titulurik eskaini.

2.) Ezein estatuk ezin izanen du —Kongresuaren onespenera barik— inportazioetan eta esportazioetan zerga edo eskubiderik ezarri, ez bada bere ikusketa legeak egikaritzeko erabat beharrezkoak diren horiek; eta edozein estatuk inportazio eta esportazioetan ezarritako eskubide zein zerga guztien produktu netoa Estatu Batuetako altxorren erabilerarako izanen da. Halako lege guztiak kongresuaren azterketa edo kontrolpean ezar daitezke.

3.) Ezein estatuk ezin izanen du —Kongresuaren onespenera barik— itsasontzien edukieraren araberrako eskubiderik⁸ ezarri; bake garaian gerrarako tropak edo itsasontziak eduki; atzerriko botere batekin edo beste estatu batekin hitzarmenik edo itunik egin; edo gerran hasi, ez bada inbaditua delako, edo, arriskua hain nabaria izanik, berandutzea zilegi ez zaionean.

⁷ *Bill of credit*: estatu batek, berorrek ematen duen konfiantza eta kredituan oinarrituta, jaulkitzen zuen paper edo agiria, diru moduan balio zuena.

⁸ *Duty of tonnage*: itsasontziei —zeramaten tonajearen arabera— ezartzen zitzaizkien kontribuzio edo zerga.

BIGARREN ARTIKULUA

Lehen atala— 1.) Botere betearazlea Amerikako Estatu Batuetako lehendakariari dagokio. Lau urteko aldian izanen du kargua, eta, aldi bererako hautatua den lehendakariordearekin batera, honako moduan hautatuko da:

2.) Estatu bakoitzak izendatuko du —bertako legislaturak agintzen duen moduan— konpromisario kopuru jakin bat, berdina dena estatu horri Kongresuak ezarri dizkion senatari eta ordezkari kopurua-
rekiko; baina ezin da konpromisario izendatu senataririk edo ordezkari-
rik, edo Estatu Batuetan erantzukizuneko zein etekinezko kargu bat
betetzen duen beste inor.

Konpromisarioak euren estatuetan bilduko dira eta boto-txartel bidez bi pertsona hautatuko dituzte, horietatik bat behintzat ez da euren estatuko biztanlea izanen. Botoak lortu dituzten pertsona guztien zerrenda bat egingo da, eta bakoitzak jasotako botoak adieraziko dira; zerrenda hori sinatu eta zertifikatuko da, eta Estatu Batuetako gobernuaren egoitzara zigilaturik igorriko da, Senatuak presidenteari zuzenduta. Senatuak presidenteari, Senatuaren eta Ordezkarien Ganberaren aurrean, zertifikatu guztiak irekiko ditu eta, orduan, botoak zenbatuko dira. Boto kopuru handiena duen pertsona lehendakari izanen da, izendaturiko konpromisarioen osotasunetik gehiengo bada kopuru hori; eta halako gehiengoa duen pertsona bat baino gehiago badago, eta horiek boto kopuru bera baldin badute, orduan, Ordezkarien Ganberak berehala hautatuko du boto-txartel bidez horietako bat lehendakari gisa; eta inork ez baldin badu gehiengorik, orduan, zerrendan garaian dauden bosten artean, aipaturiko ganberak modu berean hautatuko du lehendakaria. Baina, lehendakaria hautatzerakoan, botoak estatuka hartuko dira, estatu bakoitzeko ordezkariak boto bakarra duelarik; xede horretarako quoruma estatu guztietako kideen hiru herenek osatuko dute, eta estatu guztien gehiengoa beharrezkoa izanen da hautaketa egiteko. Kasu guztietan, lehendakaria hautatu ondoren, konpromisarioen boto kopuru handiena duena lehendakariorde izanen da. Baina, bi pertsona edo gehiago baleude boto kopuru bera daukatenak, Senatuak boto-txartel bidez hautatuko luke lehendakariordea.

3.) Kongresuak erabaki dezake konpromisarioak hautatzeko unea, eta horiek euren botoa emango duten eguna. Estatu Batuetan zehar egun berean emango da botoa.

4.) Ezin da lehendakari kargurako hautatua izan, Estatu Batuetako herritar jaioa ez dena edo konstituzio hau onartzen den garaian Estatu Batuetako herritarra ez dena; ezin da ere kargurako hautagai izan hogeita hamabost urte bete ez dituen, eta Estatu Batuetan hamalau urtez bizi izan ez dena.

5.) Lehendakaria kargutik enkaituko balute, karguari uko egingo balio, hilko balitz, edo karguak eskatzen dituen botereak eta eginkizunak betetzeko ezgai balitz, horiek lehendakariordeak beteko lituzke, eta Kongresuak, legearen arabera, enkaitze, heriotza, uko egite, edo ezgaitasun kasuan, lehendakariaren edo lehendakariordearen lekua nork bete erabaki dezake, eta funtzionario horrek eginkizuna beteko du harik eta ezgaitasuna bukatzen den arte edo lehendakari berria hautatzen den arte.

6.) Ezarritako une jakin batzuetan lehendakariak bere zerbitzuen sari moduan konpentsazio bat jaso dezake, ez dena handitua edo txikiagotua izanen bera hautatua izan den aldian, eta aldi horretan ez du Estatu Batuetatik bestelako ordainsaririk jasoko.

7.) Bere kargua betetzen hasi baino lehen, ondoko zina edo promesa egingo du: «Solemneki zin egiten (edo promesten) dut leialki beteko dudala Estatu Batuetako lehendakari kargua, eta, nire gaitasunaren heinean, Estatu Batuetako konstituzioa gorde, babes eta defendatuko dudala».

Bigarren atala— 1.) Lehendakaria izanen da Estatu Batuetako armadaren, itsas armadaren eta —Estatu Batuen zerbitzura deitzen zaionean— estatu anitzen miliziaren agintari nagusia; sail betearazle bakoitzeko funtzionario nagusiari idatziz eska liezaioke iritzia, haren karguko betebeharren inguruan; eta eskumena dauka Estatu Batuen aurka eginiko delituengatik epaien exekuzioa suspentsioan uzteko edo indultuak emateko, betiere, funtzionario publikoen kasuan izan ezik.

2.) Eskumena dauka, Senatuaren aholkuarekin eta onespenerekin, hitzarmenak egiteko, senatarien bi herenek parte hartzen baldin badute, eta hark, Senatuaren aholkuarekin eta onespenerekin, izendatuko ditu enbaxadoreak, beste ministro publiko eta kontsulak, Auzitegi Goreneko epaileak eta bestelako funtzionarioak —horien izendapenak ez direlarik hemen espezifikatzen—, legearen arabera ezarriko direnak; baina Kongresuak beharagoko funtzionarioen izendapena lehendakariari, justizia auzitegiei edo sailburuei eskain diezaike.

3.) Lehendakariak Senatuaren etenaldietan ematen diren betegabeko karguak bete ditzake, hurrengo saioaren bukaeran amaituko diren izendapenak eginez.

Hirugarren atala— Aldian-aldian Kongresuari batasunaren egoerari buruzko txostena aurkeztuko dio lehendakariak, eta beharrezkoak eta komenigarriak iruditzen zaizkion neurriak aholkatuko dizkio kontuan har daitezzen; zio bereziak direla eta, ganbera biak dei ditzake, edo horietako bat, eta ganbera biak itxialdi unearekin ados ez baleude, hari egoki iruditzen zaion unean itxi ditzake. Lehendakariak egingo die harrera enbaxadoreei eta gainerako ministro publikoei. Hura arduratuko da legeak leialki betetzen direnaz, eta hark izendatuko ditu Estatu Batuetako funtzionario guztiak.

Laugarren atala— Estatu Batuetako lehendakaria, lehendakariordea eta funtzionarioak kargutik kenduak izanen dira akusatuak eta erruduntzat joak badira traizio, eroskeria, edo bestelako delitu larri edo arinagoak direla eta.

HIRUGARREN ARTIKULUA

Lehenengo atala— Estatu Batuetako botere judiziala Auzitegi Gorenean eta Kongresuak aldian-aldian sor edo era ditzakeen beheragoko auzitegietan kokatuko da. Epailcek, auzitegi gorenekoek zein beheragokoek, euren karguak beteko dituzte ongi diharduten artean eta, aldika, euren zerbitzuak direla-eta jasoko dute ordainsaria, berau ez da txikiagotuko zerbitzuan dirauten bitartean.

Bigarren atala— 1.) Botere judiziala hedatu egiten da konstituzio honetatik eratortzen diren kasu guztietara, legezko eta ekitatezkoe-tara, Estatu Batuetako legeetara, horien autoritatepean eginiko hitzar-menetara; enbaxadoreei, gainerako ministroei eta kontsulei dagozkienetara; almirantego eta itsas jurisdikziora; Estatu Batuak alderdi diren gatazketara; estatu bi edo gehiagoren arteko eztabaidetara; estatu bateko hiritarren eta beste estatu baten arteko gatazketara; estatu diferente-etako hiritarren arteko gatazketara; estatu ezberdinek eskainitako lurren inguruan eztabaidak dituzten estatu bereko hiritarren gatazketara; estatu baten eta bere hiritarren artekoetara; eta atzerriko estatuen eta hiritarren artekoetara.

2.) Enbaxadoreei, bestelako ministroei eta kontsulei dagozkien kasu guztietan, eta estatu bat alderdi den kasuetan, Auzitegi Gorenak dauka auzialdi bakarreko eskumena. Gorago aipatu diren gainontzeko kasu guztietan, Auzitegi Gorenak zuzenbidezko zein egitatezko helegite eskumena du, Kongresuak erabakitzen dituen salbuespenekin eta araudipean.

3.) Delitu guztien epaiketak —erantzukizun publikoa duten funtzionarioen auziak izan ezik— zinpeko epaimahai bidez epaituko dira. Epaiketa horiek delitua gertatzen den estatuetan bertan gauzatuko dira; alabaina, delituak ez direnean ezein estatutan egiten, orduan, Kongresuak legearen arabera erabakiko duen leku edo lekuetan gauzatuko dira.

Hirugarren atala— 1.) Estatu Batuen aurkako traizioa soilik izan da berorien aurka gerra egitea, edo arerioekin bat egitea, etsaiei laguntza eta babesa emanez. Inor ez da traizioagatik erruduntzat joko, ekintza ageri horren bi lekuko ez badaude, edo auzitegian aitorpenik egiten ez baldin bada.

2.) Kongresuak traizio zigorra deklaratzeko eskumena du, baina inolako interdikzio zibilik ez du ondorengotzan⁹ efekturik izanen, eta gabeturiko pertsonaren bizitzan zehar emango da soilik konfiskazioa.

LAUGARREN ARTIKULUA

Lehen atala— Estatu bakoitzean fede eta sinesgarritasun osoa emango zaie gainontzeko estatuetako erabaki nahiz lege, dokumentu eta prozedura judizialei. Eta Kongresuak lege orokorren bidez agin dezake erabaki nahiz lege, dokumentu eta prozedura judizial horiek egiaztatzeko modua, eta hortik datorren ondorioa.

Bigarren atala— 1.) Estatu bakoitzeko hiritarrek gainerako estatuetako hiritarrek dauzkaten pribilegio eta immunitateak dauzkate.

2.) Edozein estatutan traizioa, delitu larria edo bestelako delitua dela-eta akusatua den pertsona, justiziatik ihes egiten duena, eta beste estatu batean aurkitua dena, ihes egin zuen estatuko autoritate bete-arazleak eskatuta, delitu-egilearengan jurisdikzioa duen estatura itzulia izanen da.

⁹ *Corruption of blood*: antzinako ingeles legearen arabera, interdikzio zibilaren eraginez, pertsona batek ez zeukan ahaideengandik jaraunspenik jasotzerik, ezta bere jabegoak norberarentzat gordetzerik edo ondorengoei jaraunsterik ere.

3.) Estatu batean —bertako legeen arabera— zerbitzatzera edo lan egitera behartua den pertsonak beste batera ihes egiten baldin badu, ezin izanen da libratu —beste lekuko lege edo araudiaren arabera— zerbitzu edo lan horretaz; aldiz, zerbitzu edo lan hori zor lekiokkeen alderdiari edo pertsonari entregatu beharko zaio pertsona hori.

Hirugarren atala— 1.) Kongresuak batasun honetan estatu berriak onar ditzake, baina estatu berri bat ezin da eratua edo sortua izan beste edozein estaturen jurisdikziopean; bestalde, ezin da estatu berri bat sortu bi estaturen —edo estatuen zatien— elkartetik, dagozkien estatuen legislaturen eta Kongresuaren onespenez gabe.

2.) Kongresuak eskumena du Estatu Batuen lurraldeek edo bestelako jabegoek beharrezko dituzten arauak eta erregulazioak erabiltzeko eta egiteko. Konstituzio honetan ezer ez da interpretatuko Estatu Batuen edo zeinahi estaturen eskubideei kalte egiteko moduan.

Laugarren atala— Estatu Batuek batasun honetako estatu bakoitzari bermatuko diete gobernu era errepublikar bat, horietako bakoitza inbasioen aurka babestuko dute, baita, legislaturak edo bote-re betearazleak (legislatura biltzerik ez dagoenean) eskatuta, barneko edozein biolentziaren aurka ere.

BOSGARREN ARTIKULUA

Kongresuak —bi ganberen bi herenek beharrezko deritzotenean— konstituzio honi zuzenketak egin diezazkioke edo —estatu guztietako bi herenetako legislaturek eskatuta— bilkura bat deituko du zuzenketak proposatzeko. Kasu bietan zuzenketa horiek baliozkoak izanen dira xede edo helburu guztietarako, konstituzio honen zati bezala, estatu guztietako legislaturen hiru laurdenek berresten dituztenean, edo hiru laurdenetan eginiko konbentzioen bidez; berreste modu bata zein bestea proposa baitezake Kongresuak. Betiere, mila zortziehun eta zortzi urtea baino lehen eginiko edozein zuzenketak ez du edonola ere eragingo lehen artikuluko bederatzigarren ataleko lehen eta laugarren klausuletan, eta ez ein estaturi, berorren onespenez gabe, ezin zaio kendu Senatuan daukan sufragio berdintasuna.

SEIGARREN ARTIKULUA

1.) Konstituzio hau onartu baino lehen Estatu Batuekin harturiko zor guztiak eta konpromiso guztiak baliozkoak dira, Konfederazioarekin zirenak lain.

2.) Konstituzio hau, eta Estatu Batuetako legeak, haren arabera egingo baitira, eta Estatu Batuen autoritatepean eginiko nahiz egitear diren hitzarmen guztiak, horiek guztiak izanen dira lurraldeko lege goren; eta estatu bakoitzeko epaileak horiei lotuak daude, nahiz eta edozein estatuko konstituzio edo legeetan gauzaren bat horien aurka egon.

3.) Gorago aipaturiko senatari eta ordezkariak, eta estatu anitzetako legislaturetako kideak, eta funtzionario betearazle eta judizial guztiak, Estatu Batuetakoak zein estatuetakoak, zin eginda edo promestuta behartuak egongo dira konstituzio honen alde egitera; baina ez da beharrezkoa izanen erlijio baldintza jakin batzuk betetzea Estatu Batuetako ezein kargu edo erantzukizun publikorako.

ZAZPIGARREN ARTIKULUA

Bederatzi estatuetako konbentzioen berrespena nahikoa izanen da konstituzio hau ezarria izan dadin, berau berresten duten estatuen artean.

Konbentzioan eginik, bertaratuak diren estatuen aho bateko onespenearekin, gure Jaunaren mila zazpiehun eta laurogeita zazpigarren urtean, eta Amerikako Estatu Batuen independentziaren hamabigarrenean. Lekuko moduan hemen ezarriko ditugu gure izenak,

George Washington Lehendakari eta Virginiako diputatu

William Jackson Idazkari

New Hampshire: John Langdom, Nicholas Gilman

Massachussetts: Nathaniel Gorham, Rufus King

New York: Alexander Hamilton

New Jersey: Will. Livingston, David Brearley, Wm. Paterson, Jona. Dayton

Pennsylvania: B. Franklin, Thomas Mifflin, Rob. Morris, Geo. Clymer, Thos. FitzSimons, Jared Ingersoll, Gouv. Morris

Delaware: Geo. Read, Gunning Bedford Jr., John Dickinson, Richard Basset, Jaco. Broom

Maryland: James McHenry, Dan. Of St. Thos. Jenifer, Dan. Carrol

Virginia: John Blair, James Madison Jr.

North Carolina: Wm. Blount, Rich'd Dobbs Spaight, Hu Williamson

South Carolina: J. Rutledge, Charles Cotesworth Pinckney, Charles Pinckney, Pierce Butler

Georgia: William Few, Abr. Baldwin

ZUZENKETAK

LEHEN ZUZENKETA

Kongresuak ez du legerik egingo erlijio bat ezarria edo edozein erlijio debekatua izan dadin. Ez du legerik onartuko mintzamen edo prentsa bidezko adierazpen askatasuna galarazteko, herriak modu bake-tsuan biltzea debekatzeko, edo gobernuari kalteak konpon ditzan eskatzeko herriak duen askatasuna galarazteko .

BIGARREN ZUZENKETA

Ongi diziplinaturiko milizia bat beharrezkoa delarik estatu aske baten segurtasunerako, ez da galaraziko herriak armak gordetzeko eta eramateko duen eskubidea.

HIRUGARREN ZUZENKETA

Bake garaian ez da soldadurik koarteleratuko ezein etxetan, jabearen onespenerik gabe, ezta gerra garaian ere, legeak agintzen duen moduan ez beste.

LAUGARREN ZUZENKETA

Ezin bortxatuzkoa izanen da herriak, bere pertsonetan, etxeetan, paperetan eta gauzetan, bidegabeko miaketa, konfiskazio eta atxilo-keen aurka, seguru izateko duen eskubidea. Eta ez da agindurik emango, ez bada litekeena den kausan oinarrituta, zinarekin edo deklarazio solemnearekin lagunduta, eta espezifikoki adieraziko delarik miatua

izan behar den lekua, eta konfiskatu edo atxilotu behar diren gauza edo pertsonak.

BOSGARREN ZUZENKETA

Ez da inor behartuko erantzutera heriotza-zigorra dakarren delitu bat nahiz kartzela-zigorra eskatzen duen bestelako delitu bat dela eta, ez bada auzitegi nagusiak¹⁰ aurkezturiko akusazioa ematen denean, edo lurreko nahiz itsasoko indarretan edo milizian —berau guda garaian edo arrisku publikoa dagoenean zerbitzura deitua denean— gertatzen diren kasuetan izan ezik. Inoren bizia edo gorputz atalak ez dira birritan galtzeko arriskuan ezarriko delitu beragatik; ezein delituren epaiketan ezin da inor behartu bere buruaren aurka lekukotasuna ematera; ezin da pertsona bat biziaz, askatasunaz edo jabetzaz gabetu, egokia den legezko prozedura baten bidez ez bada; ezin da jabego pribatua erabilera publikorako erabili, ordainean konpentsazio justu bat eman gabe.

SEIGARREN ZUZENKETA

Auzi kriminal guztietan akusatuak eskubidea du epaiketa bizkor eta publikorako; delitua egin den estatu edo distrituko epaimahai inpartzial batek egina izanen da epaiketa hori, eta distritua legeak onartutakoa izan beharko da. Honakoetarako eskubidea du halaber: akusazioaren naturaz eta zioaz informatua izateko, bere aurka dauden lekukoekin aurrez aurreko galdeketa egiteko, bere alde egitera deitzen dituen lekukoak derrigor agerrarazteko, eta bere defentsan egingo duen abokatu bat izateko.

ZAZPIGARREN ZUZENKETA

Auzitan denak, hoguei dolarreko kopurua gainditzen duen ohituzko zuzenbideko¹¹ auzietan, zinpekoen epaimahaiaren bidez epaitua izateko eskubidea du, eta epaimahai horretan erabakitako gertakizunak ezin ditu berrikusi Estatu Batuetako ezein tribunalek, ohituzko zuzenbidearen arabera baizik.

ZORTZIGARREN ZUZENKETA

Ez dira ezarriko gehiegizko fidantzak, edo gehiegizko isunak, ezta zigor anker eta ezohikoak aplikatuko ere.

10 *Grand jury*: delitu salaketak eta karguetarako oinarriak aztertzen dituen auzitegia.

11 *Common law*.

BEDERATZIGARREN ZUZENKETA

Konstituzio honetan agertzen diren eskubide batzuen emateak ez du suposatzen herriak gordetzen dituen beste zenbait ezeztatzea edo gutxiestea.

HAMARGARREN ZUZENKETA [I-X zuzenketak 1789an bozkatuak, 1791tik indarrean]

Konstituzio honek Estatu Batuei ematen edo estatuei debekatzen ez dizkien eskumenak, estatuenak edo herriarenak dira.

HAMAIKAGARREN ZUZENKETA [1795]

Estatu Batuetako justizia sistema ez da hedatzen Estatu Batuetako estatu baten aurka beste estatu bateko Estatu Batuetako hiritar batek, edo atzerriko estatu bateko hiritar edo meneko batek, hasten duen zuzenbidezko edo ekitatezko¹² auzietara.

HAMABIGARREN ZUZENKETA [1804]

Konpromisarioak euren estatuetan bilduko dira eta txartel bidez bozkaturiko dute, lehendakaria eta lehendakariordea hautatzeko, horietako bat behintzat ez delarik konpromisarioen estatukoa izanen. Txartelatan idatziko dute lehendakari moduan bozkaturiko pertsona, eta beste txartel batzuetan lehendakariorde moduan bozkaturikoa. Zerrenda ezberdinak egingo dituzte lehendakari moduan eta lehendakariorde moduan bozkaturikoekin, eta bakoitzak jasotako botoak ezarriko dituzte, zerrenda hori sinatuz eta zertifikatuz, eta zigilaturik Estatu Batuetako gobernuaren egoitzara igorriko dute, Senatuko presidenteari zuzenduta. Senatuko presidentiak, Senatuaren eta Ordezkarien Ganberaren aurrean, ziurtagiriak irekiko ditu eta botoak zenbatuko dira. Lehendakari moduan boto gehien daukan pertsona izanen da lehendakari, hori bada konpromisario guztien gehiengoak hautaturikoa. Inork ez badu halako gehiengo bat, orduan, lehendakariaren zerrendan boto kopuru handiena lortu duten hiru pertsonetatik Ordezkarien Ganberak segituan txartel bidez hautatuko du lehendakaria. Baina lehendakaria hautatzerakoan botoak estatuka hartuko dira, estatu bakoitzeko ordezkariak

12 *Suit of law or equity*; *equity*: dagoen zuzenbidea nahikoa ez den kasuetan, zuzentasun edo justizia printzipio orokor batzuetara jotzea. Adiera hertsiago batean, ohi-turazko zuzenbidea (*common law*) eta zuzenbide idatzia (*statute law*) —epai justu bat emateko nahikoak ez direnean— laguntzen eta ordezkatzten dituen arau eta doktrina sistema.

boto bakarra izanen duelarik; xede horretarako quoruma estatu guztietako kide bat edo gehiagoren bi herenek osatuko dute, eta estatu guztien gehiengoa beharrezkoa izanen da hautaketarako. Ordezkarien Ganberak ez badu lehendakari bat hautatu —hautapen eskubidea hari dago—, hurrengo martxoaren laugarrena baino lehen, orduan, lehendakariordeak lehendakariaren eginkizuna beteko du, lehendakariaren heriotzan edo bestelako ezgaitasun baten kasuan gertatzen den bezala. Lehendakariorde moduan boto gehien jaso duen pertsona izanen da lehendakariorde, hori bada konpromisario guztien gehiengoak hautaturikoa. Inork ez badu gehiengorik, orduan, lehendakariordegaien zerrendan boto kopuru handiena lortu duten bi pertsonetatik, Senatuak lehendakariordea hautatuko du; horretarako quoruma senatari guztien bi herenekosatzen dute, eta kopuru osoaren gehiengoa beharrezkoa da hautaketarako. Baina lehendakari kargurako konstituzioaren arabera hautagarri ez dena ez da Estatu Batuetako lehendakari kargurako hautagarri ere.

HAMAIRUGARREN ZUZENKETA [1865]

Lehen atala— Ez da Estatu Batuetan edo berorren meneko lurraldeetan esklabotasunik edo bortxazko lanik egongo, ez bada pertsona bat hartara kondenatua izan den zigor bat dela medio.

Bigarren atala— Kongresuak eskumena du artikulua hau legeria egokiaren bidez betearazteko.

HAMALAU GARREN ZUZENKETA [1868]

Lehen atala— Estatu Batuetan jaio edo naturalizaturiko pertsona guztiak, bertako jurisdikzioaren menpeko direnak, Estatu Batuetako eta bizi diren estatuko hiritar dira. Ezein estatuk ez du lege bat egingo edo betearaziko Estatu Batuetako hiritarren pribilegioak edo immunitateak murrizteko; ezein estatuk ez dio inori kenduko bizia, askatasuna edo jabegoa, ez bada egokia den legezko prozeduraren bidez; bere eskumenpean dagoen pertsonari ez dio ukatuko legeek ematen duten babes bera.

Bigarren atala— Ordezkariak proportzionalki banatuko dira estatu bakoitzean, estatuaren biztanleen arabera; horretarako, estatu bakoitzeko biztanleen kopurua zenbatuko da, betiere, zergarik ordaintzen ez duten indiarrek kontatu barik. Baina Estatu Batuetako lehendakaria eta lehendakariordea izendatzen dituzten konpromisarioen, Kon-

gresuko ordezkarien, estatu bateko funtzionario judizial eta betearazle-
en, edo legislaturako kideen hautaketarako edozein bozketan parte har-
tzeko eskubidea, estatu batean, ukatu egingo balitzaie hogeita bat urte
bete dituzten eta Estatu Batuetako hiritar diren gizonezkoei, edo edo-
nola ere murriztuko balitzaie —betiere, ez bada errebolta batean edo
delitu batean parte hartu dutelako—, orduan, estatu horren ordezkaritza
oinarria txikiagotu egingo litzateke, aipaturiko gizonezko hiritar kopu-
ru horrek estatu horretan hogeita bat urte bete dituzten gizonezkoen
zenbateko osoaren barne duen proportzio berean.

Hirugarren atala— Ezin izanen da inor izan senatari edo Kon-
gresuko ordezkari, edo lehendakariaren edo lehendakariordearen kon-
promisario, edo Estatu Batuetako edo edozein estatutako funtzionario
—zibil zein militar— kargudun, lehenik zin egin duelarik Kongresuko
kide, Estatu Batuetako funtzionario, legislaturako kide, edo zeinahi
estatutako funtzionario judizial edo betearazle gisa, Estatu Batuen
aurka matxinatu edo erreboltatu baldin bada, edo laguntza edo babesa
eman badie arerioei. Baina Kongresuak ganbera bakoitzeko kideen bi
herenen botoarekin ezgaitasun hori baliogabe dezake.

Laugarren atala— Estatu Batuetako zor publikoaren baliozkota-
suna, legeak ezarria, ezin izanen da zalantzan jarri, matxinadak edo
erreboltak deuseztatzeko eginkizuna burutzeko zerbitzuengatik eman
behar diren pentsio eta bonoak ordaintzeko sortzen den zorra barne.
Baina ez Estatu Batuek ez ezein estatuk ez dute bere gain hartuko edo
ordainduko Estatu Batuen aurkako matxinada edo errebolta dela-eta
sorturiko zor edo obligazioa, edo zeinahi esklaboren emantzipazio edo
galeragatik eginiko edozein eskaera. Azken zor, obligazio edo eskaera
horiek legez aurkakoak eta hutsak kontsideratuko dira.

Bosgarren atala— Kongresuak eskumena izanen du, legeria
egokiaren bidez, artikulua honetan esaten dena betearazteko.

HAMABOSGARREN ZUZENKETA [1870]

Lehen atala— Estatu Batuetako hiritarrek bozkatzeko duten
eskubidea ez dute ukatu edo murriztuko ez Estatu Batuek ez ezein esta-
tuk, arraza, kolorea edo antzinako morrontza egoera bat dela eta.

Bigarren atala— Kongresuak ahalmena izanen du legeria ego-
kiaren bidez lege hau betearazteko.

HAMASEIGARREN ZUZENKETA [1913]

Kongresuak eskumena dauka sarrerei —edozein delarik ere iturria— kontribuzioak ezartzeko eta horiek jasotzeko, estatu anitzen artean banaketa proportzionalik egin barik, eta edozein errolda edo kontaketari jaramonik egin gabe.

HAMAZAZPIGARREN ZUZENKETA [1913]

Estatu Batuetako Senatua estatu bakoitzeko senatari bik osatuko dute, estatuetako biztanleek sei urterako hautatuak direnek; eta senatari bakoitzak boto bana izanen du. Estatu bakoitzeko hautesleek estatuko legislaturako adar ugarienetarako beharrezkoak diren baldintzak bete beharko dituzte.

Edozein estaturen ordezkaritzan leku hutsak gertatzen direnean, estatu horretako botere betearazleak leku huts horiek beteak izan daitezkeen hauteskunde aginduak emango ditu. Alabaina, edozein estatutako legislaturak behin-behineko izendapenak egin ditzake, harik eta legislaturak zuzendu bezala lekuak beteak diren arte.

Zuzenketa honen bidez ez da interpretatuko berau konstituzioaren parte bihurtu baino lehen hautaturiko ezein senatariren hautaketan edo aldian eragiten duela.

HAMAZORTZIGARREN ZUZENKETA [1919]

Lehen atala— Artikulu hau berretsia izan eta urtebetera, likore intoxikagarrien manufaktura, salmenta edo garraioa, Estatu Batuetara inportazioa edo bertatik esportazioa, bai lurralde honetan zein beronen jurisdikziopean diren lurraldeetan, edari moduan erabiliak izateko, debekaturik dago.

Bigarren atala— Kongresuak eta estatu anitzek eskumen konkurrentea dute artikulu hau legeria egokiaren bidez betearazteko.

Hirugarren artikulua— Artikulu hau ez da indarrean ezarriko ez baldin bada zuzenketa moduan estatu anitzek berretsia, konstituzioak agintzen duen bezala, Kongresuak estatuei igorri eta zazpi urteren epean.

HEMERETZIGARREN ZUZENKETA [1920]

Estatu Batuetako hiritarrek bozkatzeko duten eskubidea ez da Estatu Batuek edo bertako ezein estatuk ukatua edo mugatua izanen sexuaren arabera.

Kongresuak ahalmena du artikulua hau legeria egokiaren bidez betearazteko.

HOGAIGARREN ZUZENKETA [1933]

Lehen atala— Lehendakariaren eta lehendakariordearen agintaldiak urtarriaren hogeigarren egunaren eguerdian bukatuko dira, eta senatarien eta ordezkarien aldiak urtarriaren hirugarren eguneko eguerdian, artikulua hau berretsia izan ez balitz, euren aldiak amaituko ziratekeen urtean; eta ordutik aurrera hasiko dira haien ostekoan aldiak.

Bigarren atala— Kongresua gutxienez urtean behin bilduko da, eta bilkura hori urtarileko hirugarren egunaren eguerdian hasiko da, betiere, ez baldin bada legearen bidez beste egun bat aukeratzen.

Hirugarren atala— Lehendakariaren aldiaren une jakin batean lehendakaria hilko balitz, hautaturiko lehendakariordea lehendakari bilakatuko da. Lehendakari bat ez balitz hautatua izanen berorren aldia hasi baino lehen, edo lehendakariak ez balitu baldintzak beteko, lehendakariordeak lehendakari moduan jardungo du, baldintzak betetzen dituen lehendakaria egon arte. Kongresuak legearen bidez aurre egingo dio lehendakariak nahiz lehendakariordeak baldintzak betetzen ez dituen kasuari, erabakiz nork jardun behar duen lehendakari gisa, edo zein modutan hautatu behar den hala jardun behar duen pertsona, eta pertsona horrek modu egokian jardungo du harik eta lehendakari edo lehendakariorde batek baldintzak betetzen dituen arte.

Laugarren atala— Kongresuak legearen bidez aurre egin diezaioke Ordezkarien Ganberak —hala egokitzen zaionean— lehendakari moduan jarduteko hautaturiko pertsonaren heriotzari, baita Senatuak —hala egokitzen zaionean— lehendakariorde moduan jarduteko hautaturiko pertsonaren heriotzari ere.

Bosgarren atala— Lehen eta bigarren atalak indarrean ezarriko dira artikulua hau berretsi ondorengo urriaren hamabostetik aurrera.

Seigarren atala— Artikulua hau ez da indarrean ezarriko ez baldin bada zuzenketa moduan estatu anitzen legislaturen hiru laurdenez berretsia, Kongresuak estatuei igorri eta zazpi urteren epean.

HOGAIGARREN ZUZENKETA [1933]

Lehen atala— Honakoaren bidez Estatu Batuetako konstituzioaren zuzenketetako hamazortzigarren artikulua desmaten da.

Bigarren atala— Edozein estatu edo lurraldera likore intoxikagarrien garraioa edo inportazioa, edo Estatu Batuetan bertan bidalia edo erabilia izateko edukitzea, honakoaren bidez debekatzen da.

Hirugarren atala— Artikulu hau ez da indarrean ezarriko ez baldin bada konstituzioaren zuzenketa moduan berretsia, estatu anitzetan eginiko konbentzioen bidez eta konstituzioan esaten den moduan, Kongresuak estatuei igorri eta zazpi urteko epean.

HOGEITABIGARREN ZUZENKETA [1951]

Lehen atala— Inor ez da izanen lehendakari kargurako birritan baino gehiagotan hautatua, eta beste norbait lehendakari zelarik haren kargua bete edo lehendakari moduan bi urte baino denbora luzeagoz jardun duena ezin da kargurako behin baino gehiago hautatua izan. Artikulu hau ez zaio aplikatu behar berau Kongresuari proposatu zitzaionean kargua betetzen zuenari, eta indarrean ezartzen den unean ez du eragingo lehendakari kargua bete edo lehendakari moduan diharduen pertsonaren kasuan, bere aldia kargua betetzeari edo lehendakari moduan jarduten uzteari dagokionez.

Seigarren atala— Artikulu hau ez da indarrean ezarriko ez baldin bada zuzenketa moduan estatu anitzen legislaturen hiru laurdenek berretsia, Kongresuak estatuei igorri eta zazpi urteren epean.

HOGEITAHIRUGARREN ZUZENKETA [1961]

Lehen atala— Estatu Batuetako gobernuaren egoitza duen distrituak —Kongresuak esaten duen moduan— honakoak izendatuko ditu:

Lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko duten konpromisario kopuru bat, berdina dena distritu hori estatua balitz izanen lituzkeen senatari eta ordezkari kopuru osoarekiko, baina inolaz ere biztanle gutxien dauzkan estatuak baino gehiagokoa; estatuak izendaturiko konpromisarioei gehituko zaizkie, baina lehendakaria eta lehendakariordea hautatzeko orduan, estatuak hautatuak direla joko da. Distrituan bilduko dira eta zuzenketetako hamabigarren artikuluan agertzen diren eginbeharrak beteko dituzte.

Bigarren atala— Kongresuak ahalmena izanen du lege hau lege-ria egokiaren bidez betearazteko.

HOGEITALAUGARREN ZUZENKETA [1964]

Lehen atala— Lehendakaria edo lehendakariordea primarietan edo bestelako hauteskundeetan bozkatzeko, batetik, eta lehendakari edo lehendakariorde kargurako konpromisarioak edo Kongresuko senatari edo ordezkariak hautatzeko, bestetik, Estatu Batuetako hiritarrek duten eskubidea ez dute ukatuko edo mugatuko ez Estatu Batuek, ez ezein estatuk, kapitazioa¹³ edo bestelako zerga bat ez ordaintzeagatik.

Bigarren atala— Kongresuak ahalmena izanen du lege hau lege-ria egokiaren bidez betearazteko.

HOGEITABOSGARREN ZUZENKETA [1967]

Lehen atala— Lehendakaria bere kargutik kendua bada, kargua utziko balu edo zendua balitz, lehendakariordea lehendakari bihurtuko da.

Bigarren atala— Lehendakariorde kargua hutsik geratzen denean, lehendakariak lehendakariordea izendatuko du, horrek kargua hartuko duenari kanbera bieran boto gehiengo erdiesten baldin badu.

Hirugarren atala— Lehendakariak Senatuko *pro tempore* presidenteari eta Ordezkarien Ganberako presidenteari idatziz igortzen diotenean deklarazio bat esanik bere karguko botereak eta eginbeharrak betetzeko ezgai dela, eta harik eta alderantzizkoa adierazten duen deklarazio idatzi bat igorri arte, botere eta eginbehar horiek lehendakari moduan jardungo duen lehendakariordeak beteko ditu.

Laugarren atala— Lehendakariordeak edo sail betearazleetako goi funtzionarioek edo Kongresuak legearen bidez ezarritako beste talde batek Senatuko *pro tempore* presidenteari eta Ordezkarien Ganberako presidenteari idatziz igortzen diotenean deklarazio bat dioena lehendakaria bere botereak eta eginbeharrak betetzeko ezgai dela, lehendakariordeak karguaren botere eta eginbeharren ardura hartuko du lehendakari moduan jardunda.

Ordutik aurrera, lehendakariak idatzizko deklarazioa igortzen dienean Senatuko *pro tempore* presidenteari eta Ordezkarien Ganberako presidenteari, esanez ezgaitasunik ez dagoela, orduan, bere karguko botereak eta eginbeharrak hartuko ditu ostera ere, betiere, lehendaka-

¹³ *Poll tax*: hauteskundeetan parte hartzeko ordaindu beharreko zerga.

riordeak eta sail betearazleetak goi funtzionarioek edo Kongresuak legearen bidez ezarritako beste talde batek ez baldin badiete lau eguneko epean Senatuko *pro tempore* presidenteari eta Ordezkarien Ganberako presidenteari igortzen deklarazio idatzi bat esanez lehendakaria bere karguko botere eta eginbeharrak betetzeko ezgai dela. Ondoren, Kongresuak gai horren inguruan erabakiko du, hurrengo berrogeita zortzi orduetan bilduko delarik, jada bilkuran ez baldin badago. Kongresuak —aipaturiko deklarazio idatzia jaso eta hogeita bat egunetan, edo, Kongresua bilkuran ez baldin badago, biltzea eskatzen denetik hogeita bat egunetan— ganbera bien botoaren bi herenekin erabakitzen badu lehendakaria bere karguaren botereak eta eginbeharrak betetzeko ezgai dela, lehendakariordeak haren eginkizunarekin jarraituko du lehendakari moduan jardunda; osterantzean, lehendakariak berriz ere hartuko du bere karguaren botere eta eginkizunen ardura.

HOGEITASEIGARREN ZUZENKETA [1971]

Lehen atala— Estatu Batuetako hiritarrek, hamazortzi urte bete dituztelarik, bozkatzeko duten eskubidea ez dute Estatu Batuek edo ezein estatuk ukatuko edo mugatuko adina dela eta.

Bigarren atala— Kongresuak ahalmena izanen du lege hau lege-ria egokiaren bidez betearazteko.

HOGEITAZAZPIGARREN ZUZENKETA [1992]

Senatari eta ordezkarien ordainsaria aldatuko duen lege bat ez da indarrean ezarriko harik eta ordezkarien hauteskunde bat egiten denera arte.

MARBURY VS. MADISON, ESTATU BATUE-TAKO AUZITEGI GORENAREN EPAIA (1803)*

Epaile Gorena den Marshall jaunak auzitegiaren iritzia eman zuen.

Azkenekoan, aktuarioaren aurrean zinpeko aitortpena¹⁴ egin eta artxibatu ostean, kasu honetarako ebazpen bat eman zen, estatu-idazkariari eskatzen zitzaiolarik azal zezan ea zergatik ez zen mandamusa¹⁵ gauzatu, estatu-idazkariak berak William Marbury-ri Washingtongo eskualdean, Columbiako distrituan, bake epaile izateko izendapena eman ziezaion.

Ez da azalpenik eman, eta honakoan mandamusa eskatzen da. Kasuak exijitzen duen arretak, zirkunstantzia batzuen berritasunak, bertan ematen diren puntuei aurre egitean sortzen diren zailtasunak, horrek guztiak eskatzen du erabili diren printzipioak zehaztasunez agertzea, auzitegiaren iritzia horietan oinarritu baita.

Eskaera egiten duenak ba al du eskubiderik eskatzen duen izendapenerako?

Eskubidea baldin badu, eta eskubide hori urratu bada, herrialde honetako legeek eskaintzen al diote konponbiderik?

Konponbidea eskaintzen badiote, auzitegi honi zilegi al zaio mandamusa jaulkitzea?

Hau da lehenik aztertu beharrekoa:

Eskaera egiten duenak ba al du eskubiderik eskatzen duen izendapenerako?

* Iturria: Law School, University of Cornell (AEB), http://www.law.cornell.edu/supct/html/historics/USSC_CR_0005_0137_ZO.html (2007ko urriaren 11n atzitua)

14 *Affidavit*.

15 *Mandamus*: funtzionario batek ministerio mailako jarduera bat betetzea manatzen duen ezohiko agindua; legeak jarduera hori erabateko betebeharra kontsideratzen du, eta ez funtzionarioaren diskrezionalitatearen arabera egin beharreko zerbait. Soilik gainerako konponbide judizialek huts egiten dutenean ematen da agindu hori.

Zinpeko aitorpena ikusita badirudi, legearen arabera, William Marburyri eskaini egin zitzaiola Washingtongo eskualdeko bake epaile izendapena, John Adamsek —orduan Estatu Batuetako lehendakari zenak— sinatutakoa. Izendapen horri Estatu Batuetako zigilua estanpatu zitzaion, baina izendapena ez zitzaion inoiz heldu berau jaso behar zuen pertsonari.

Lehendakariak eginiko azken gauza izendapen hori sinatzea izan zen. Lehendakaria bera izendatu zuen senatuaren aholku zein onespenezkin burutu zen. Deliberazio unea igaro da. Erabakia hartu du. Bere juzgua —bere izendapenean parte hartu zuen senatuaren aholku eta onespenezkin— emana da, eta funtzionarioari izendapena eskaini zaio. Egintza ageri eta zalantzaezin batek argi utzi du izendatze hori, eta berau zelarik burutu zuen pertsonaren ustez beharrezkoa zen azken egintza, izendapenari dagokionez, erabat baztertu behar da eragiketa bukagabea eta osagabea denik.

Hortaz, zinez honakoa da auzitegiaren iritzia: lehendakariak izendapen bat izenpetu duenean, izendapena egina dela, eta, estatu-idazkariak Estatu Batuetako zigilua ezarri dionean, izendapena burutua dela.

Beraz, Marbury jaunaren izendapena —bere izendapena lehendakariak sinatua eta estatu-idazkariak zigilatua izanik— egina da. Kargua eratzen zuen legeak funtzionarioari eskubidea ematen zionez hura bost urtez betetzeko, botere betearazletik independente, izendapena ez zen errebokagarria; aldiz, herrialde honetako legeek babesturiko funtzionarioen eskubide legalak zeuzkan.

Hortaz, auzitegiari iruditzen zaio izendapena atxikitzea ez dela legeak onartzen duen egintza, ezpada legeak aitortzen duen eskubide baten urratzea dela.

Ondoren, bigarren gaira lerratuko gara:

Eskubidea baldin badu, eta eskubide hori urratu bada, herrialde honetako legeek eskaintzen al diote konponbiderik?

Askatasun zibilaren printzipio berbera zalantzarik gabe honakotan datza: gizabanako bakoitzak —kaltetua denean— legeen babesa eskatzeko duen eskubidean. Gobernuak daukan lehen betebeharretakoa bat babesa ematea da. Erresuma Batuan erregeari berari auzia jartzen

zaio eskaera adeitsu bat dela medio, eta hark ez dio inoiz uko egiten auzitegiaren ebazpena betetzeari.

Estatu Batuetako gobernu legeen gobernutzat —eta ez gizakien gobernutzat— jo izan da. Izen ohoragarri hori galduko du, legeek ez baldin badiote konponbiderik ematen eskainia den legezko eskubide baten urratzeari.

Desohore hori zabaltzen baldin bada gure herrialdeko jurisprudentzian, kasuaren izaera bereziarena izanen da errua.

Hortaz, guri dagokigu aztertzea kasuaren osakerak badaukan ezer salbuesten duenik legezko ikerketa jasotzetik edo, kaltetua den alderdiari dagokionez, legearen arabera konponbidea jasotzetik.

Eragiketaren naturari zor ote zaio? Izendapen bat ematea edo atxikitzea sail betearazleari dagokion egintza politiko soilak kontsideratu behar al da? Haren egikaritzea gure konstituzioak botere betearazle gorenari ematen baitio, eta eginkizun horretan edozein gaizki egite dela-eta gizabanako kaltetuak ez du konponbiderik.

Ezin zalantzan jarri badirela halako kasuak, baina ezin da amestitu gobernuaren sail handiek bete beharreko eginkizun guztiak halakoak direnik.

Auzia —ea sailburu batek eginikoaren legezketasuna justizia- auzitegi batean aztertua izan daitekeen ala ez— egintzaren izaeraren arabera izanen da beti.

Egintza batzuk aztergarriak dira, beste batzuk ez; auzitegia bere eskumenaren betetzean gidatuko duen arau juridikoren bat egon behar-ko da.

Egoera batzuetan zailtasunak gerta daitezke araua kasu partikularretan aplikatzeko, baina ezin da —hori da uste dena— zailtasun handirik egon araua egiteko.

Estatu Batuetako konstituzioaren arabera, lehendakariari zenbait ahalmen politiko garrantzitsu ematen zaizkio, horiek bere nahierara edo zuhurtasunaren arabera erabiliko dituelarik, eta erabaki horietaz erantzule da soilik bere kontzientziaren aurrean eta, jardun politikoari dagokionez, bere herrialdearen aurrean. Eginkizun horiek betetzen laguntzeko, funtzionario jakin batzuk izenda ditzake, eta horiek haren agintaritzarekin eta agindutakoaren arabera jardungo dute.

Kasu horietan, funtzionarioon egintzak lehendakariarenak dira. Botere betearazleak ahalmen diskrezionalak erabiltzeko duen moduaz dagoen iritzia dena delakoa ere, oraindik ere ez da existitzen —eta ezin da existitu— jardun hori kontrolatuko duen botererik. Gaiak politika eremukoak dira. Nazioari dagozkio, ez gizabanakoen eskubideei; botere betearazlearen esku uzten direlarik, botere betearazlearen erabakia eztabaida ezina da. Atzerriko harremanen saila eratzeko, kongresuak emandako legeari erreparatuz ikus daiteke ohar honen aplikazioa. Funtzionarioak, bere eginkizunak lege hark agintzen dituenek, lehendakariaren nahiaren arabera jardun beharko du. Nahi hori komunikatzeko organo soila baizik ez da. Halako funtzionario baten egintzak, funtzionario moduan diharduenean, ezin ditu auzitegi batek aztertu.

Baina legislaturak funtzionario horri beste eginkizun batzuk inposatzen dizkionean, egintza jakin batzuk derrigor egitea agintzen zaionean, gizabanakoen eskubideak eginkizun horien betetzearen araberakoak direnean, orduan, legearen funtzionarioa da, legearen menpe dago daukan jarrrerari dagokionez, eta ezin ditu nahierara zapuztu beste pertsonen dauzkaten eskubideak.

Arazonamendu honetatik ondorio hau atera daiteke: sailburuak botere betearazlearen agente politiko edo konfiantzazkoak direnean, lehendakariaren nahi soila betetzekoak, edo botere betearazleak bere diskrezionalitatearen arabera jarduteko ahalmen konstituzionala edo legala duen kasuetan jardutekoak, erabat argi dago haien egintzak soilik ikuspegi politiko batetik azter daitezkeela. Baina legeak eginkizun zehatz bat ematen dienean, eta eginkizun horren betetzearen arabera koak direnean gizabanakoen eskubideak, orduan modu berean argi dago bere burua kaltetua sentitzen duen gizabanakoak eskubidea duela bere herrialdeko legeetara jotzeko konponbide bila.

Pertsona batek eskubidea duen, edo ez, arlo judizialekoa da naturaz, eta agintaritza judizialak aztertu beharko du.

Uste baldin badu bere izendapena dela-eta legezko eskubidea duela jakinarazpenerako, edo izendapen-agiri horren kopia baterako, modu berean, auzitegi batean azter daiteke, eta auzitegiak haren desgizazioari buruz daukan iritziak finkatuko du auzi horren inguruan emango duen erabakia.

Hortaz, auzitegiaren iritzia da:

1. Marbury jaunaren izendapena sinatzerakoan, Estatu Batuetako lehendakariak Columbiako estatuko Washington eskualdeko bake epaile izendatu zuela. Estatu Batuetako zigilua, estatu-idazkariak estantipatua, zalantzaezina dela, batetik, sinadura egiaztatzeko lekukotasun bezala eta, bestetik, izendapena burutua dela finkatzeko orduan. Izendapenak kargurako legezko eskubidea ematen diola bost urterako.

2. Kargurako titulu legal hori edukita, izendapenerako eskubidea du. Berau emateari uko egitea eskubide horren urratze nabaria da, hori dela eta herrialde honetako legeek konponbidea eskaintzen diote.

Oraindik ere aztertzeke geratzen da honakoa:

1. Eskatu den aginduaren izaera.

2. Auzitegi honen ahalmena.

1. Aginduaren izaera.

Mandamusa konponbide egokia izan dadin, mandamus hori jasoko duen funtzionarioa, legezko printzipioen arabera, halako agindu bat zuzen dakiokkeen norbait izan beharko da. Agindu hori eman dadin eskatzen duen pertsonak, aldiz, ez du izanen bestelako konponbide espezifiko eta legalik.

1. Mandamusa zuzendu behar zaion funtzionarioari dagokionez, Estatu Batuetako lehendakariaren eta sailburuen artean dagoen harreman politiko estuak funtzionario goren horien egintzen ikerketa bereziki gogaikarri egiten du, baita delikatu ere. Zalantzak pizten dira halako ikerketa batean hastearen egokitasunaz. Sarritan inpresioak jasotzen dira hausnarketa edo azterketa larregi gabe. Ez da harritzekoa honelako kasu batean, gizabanako batek —bere eskakizunei jaramon egin behar baitzaie— auzitegi batean egiten duen baieztapen hori batzuek ikustea kabineteen muturra sartzeko eta botere betearazlearen pribilegiotan tartean sartzeko saiakera balitz bezala.

Ez da ia beharrezkoa auzitegiak uko egitea halako eskumen baten gainean dituen uziei. Halako bitxikeria bat —hain zentzugabea eta gehiegizkoa— ez da unetxo batez ere zilegizat jo. Auzitegi honen eremua, soilik, gizabanakoen eskubideen inguruan erabakitzea da, eta ez botere betearazleak, edo botere betearazleko funtzionarioek, euren diskrezionalitate eta zuhurtasunaren arabera bete behar dituzten eginki-

zunak nola burutzen dituzten ikertzea. Naturaz politikoak diren gaiak, edo konstituzioaren eta legeen arabera botere betearazleari dagozkionak, ezin dira inoiz auzitegi honetan erabaki.

Alabaina, esku artean duguna ez baldin bada halako gai bat, gai horren inguruan botere betearazleak ezin badu inolako kontrolik ezarri, orduan, nola justifika daiteke funtzionario baten jarrera asaldaturia, hiritar bati galarazten diolarik beronen legezko eskubideak gauzatzea justizia auzitegi batean, edo auzitegiari eskaera entzutea debekatuko diolarik, edo eginkizun baten betetzea eskatzen duen mandamusa jaulkitzeari uko egingo diolarik, mandamus hori botere betearazlearen diskrezionalitate eta zuhurtasunaren arabera baizik, legearen printzipio orokorren eta kongresuaren legeen arabera izanik?

Sailburuetako batek legearen kontrako egintza bat burutzen baldin badu, bere karguaren aitzakiarekin, horrek hiritar bat kaltetzen duelarik, haren karguak eragotzi behar al du prozedura-modu arrunt batean hari auzia jartzea, eta legearen epaia betearaztea? Bere karguak nola salbuets dezake daukan jarreraren legezkotasuna erabakitzeko modu partikular honetatik, kasu jakin horretan —gizabanako bat kexu delarik— prozesua baimendua denean?

Mandamusa jaulkitzearen egokitasuna edo ezegokitasuna ez da erabakiko agindua zuzentzen zaion pertsonaren karguagatik, baizik eta egin beharreko gauzaren izaeragatik. Sailburuak bere diskrezionalitate eta zuhurtasuna erabili behar dituen kasu baten aurrean baldin bagaude, botere betearazlearen nahia betetzeko organo soila denean, osteria ere errepikatuko dugu, sailburuaren jarduera edonola ere kontrolatzearren auzitegiari egiten zaion edozein eskaera ezbairik gabe atzera botako da.

Alabaina, legeak exijitzen duenean gizabanakoen eskubide absolutuen gain eragiten duen egintza bat burutzea, burutze horretan funtzionario hori ez dagoelarik lehendakariaren zuzendaritzaren menpe, lehendakariak ezin duelarik burutzea legearen arabera debekatu eta, hortaz, ezin delarik inolaz ere kontsideratu debekatu egin duenik, ez dugu sumatzen zer dela-eta herrialdeko auzitegiak desenkusa daitezkeen epaia emateko duten betebeharretik, kaltetua den pertsonak duen eskubide hori gauzatzetik, hemen aipatzen ari garen zerbitzu horiek sailburu ez den pertsona batek beteko lituzkeenean gertatuko litzatekeen moduan.

Honakoa, beraz, mandamus kasu argia da, izendapena edo artxi-botik beronen kopia bat emateko agindua; eta honakoa geratzen zaigu soilik aztertzeko:

Ea auzitegi honi zilegi zaion hura jaulkitzea.

Estatu Batuetako auzitegi judizialak eratzeko legeak Auzitegi Gorena baimentzen du «mandamus aginduak ematera, legearen printzipio eta usadioek justifikatzen duten kasuetan, Estatu Batuetako agintaritzapean dauden auzitegiei zein kargu bat duten pertsoneri».

Estatu-idazkaria, Estatu Batuetako agintaritzapean kargu bat duen pertsona izanik, goragoko deskripzio horretan sartzen da zehaztasunez. Auzitegi honi ez baldin bazaio zilegi halako funtzionario bati mandamus agindu bat ematea, orduan, legea konstituzioaren aurkakoa delako izan beharko da, hortaz, erabat ezgaia agintaritza hori emateko eta bere hitzek adieraziriko betebeharrak eman edo esleitzeko.

Konstituzioak Estatu Batuetako botere judizial osoa ematen dio auzitegi goren bati, eta aldian-aldian kongresuak agintzen eta eratzen dituen beheragoko auzitegiei. Botere hori modu adierazian hedatzen zaie Estatu Batuetako legeen menpe sortzen diren kasu guztiei. Beraz, nolabait, honako kasuan gauza daiteke, aldarrikatzen den eskubidea Estatu Batuetako legeek emana baita.

Botere horren banaketa egiterakoan deklaritzen da «enbaxadoreei, bestelako ministroei eta kontsulei dagozkien kasu guztietan, eta estatu bat alderdi den kasuetan, Auzitegi Gorenak dauka jatorrizko eskumena. Gorago aipatu diren gainontzeko kasu guztietan, Auzitegi Gorenak helegite eskumena du».

Legelarien artean behin eta berriro esan izan da, jurisdikzioa orokorki ematen zaienez auzitegi goren zein azpiagokoei, eta Auzitegi Gorenari jatorrizko eskumena ematen dion klausulak ez duenez adiera negatibo edo murriztailerik, aipatu den artikuluan zehazten diren kasuetatik aparteko kasuetan legislaturak oraindik ere Auzitegi Gorenari jatorrizko eskumena eman diezaiokeela; betiere, kasu horiek Estatu Batuetako botere judizialari badagozkio.

Botere judiziala auzitegi gorenaren eta beheragokoen artean banatzea legislaturaren diskrezionalitate eta zuhurtasunaren menpe uztea balitz helburua, orduan, alferrikakoa izanen litzateke botere judiziala zein berau gauzatzeko auzitegiak definitzetik baino areago egitea.

Atalaren ondorengo azpiatala beharrezkoa ez den gehigarria litzateke, zentzugabea, halakoa balitz eraketa. Kongresuak askatasuna baldin badu auzitegi honi helegiteak entzuteko eskumena emateko, konstituzioak adierazten duenean eskumena jatorrizkoa izan behar dela, eta jatorrizko eskumena, konstituzioak helegitezkoa dela adierazten duenean, orduan, konstituzioan egiten den eskumen banaketa substantziarik gabeko forma da.

Baiezakako adierak, sarritan, euren operatibitatean, negatiboak dira baieztatzen diren beste objektu batzuekiko; eta, kasu horretan, zentzu negatibo edo baztertzalea eman behar zaie, edo ez dute eraginik batere.

Ezin da pentsatu konstituzioaren ezein klausula eraginik gabea izateko egina dela; eta, hortaz, halako eraketa bat onartezina da, hitzek ez baldin badute hala eskatzen.

Sistema judiziala oinarrian antolatzen duen instrumentu batek sistema hori bereizten duenean, batetik, auzitegi goren batean eta, bestetik, legislaturak agin eta era ditzakeen bezain beste auzitegitan, ondoren, auzitegi horren ahalmenak zerrendatzen eta banatzen dituen, definituz auzitegi goren horrentzat jatorrizko eskumenekoak diren kasuak eta helegitezkoak direnak, orduan, hitzon garrantzia honakoan datza: kasu mota batzuetan eskumena jatorrizkoa dela, eta ez helegitezkoa, besteetan, helegitezkoa, eta ez jatorrizkoa. Beste edozein eraketak klausula ez eraginkor egingo luke; arrazoi nahikoa beste eraketa bat baztertzeko eta bistakoa den esanahiari atxikitzeko.

Hortaz, auzitegi honek mandamusa jaulkitzerik izan dezan, helegitezko eskumenari dagokion jarduera dela frogatu behar da, edo helegitezko eskumena gauzatzea zilegi egin behar zaio auzitegiari.

Legelarien artean esan izan da helegite eskumena forma anitzetan gauza daitekeela, eta legislaturaren nahia baldin bada mandamusa horretarako erabiltzea, nahi horri men egin behar zaiola. Hori egia da; hala ere, eskumena helegitezkoa izan behar da, eta ez jatorrizkoa.

Helegite jurisdikzioan oinarritzko irizpidea da jada sortua den auzi bateko prozedurak berrikusi eta zuzentzen direla, eta ez da auzia bera sortzen. Nahiz eta, hortaz, auzitegietara mandamusa igor daitekeen, dena den, funtzionario bati halako agindu bat ematea, honek agiri bat eman dezan, agiri horri emanarazteari dagokionez jatorrizko egin-

tza baten baliokidea da, eta hortaz ez dirudi helegitezko eskumenekoa, jatorrizkoa baino. Hemen darabilguna bezalako kasu batean ez da hala ere beharrezkoa auzitegiari helegitezko eskumena aitortzea.

Hortaz, Estatu Batuetako justizia sistema eratzeke legeak Auzitegi Gorenari ematen dion ahalmena, funtzionario publikoei mandamus aginduak ematekoa, dirudienez, ez du konstituzioak aitortzen, eta, beraz, beharrezkoa gertatzen da aztertzea hala emaniko eskumena gauza daitekeen.

Estatu Batuei benetan interesgarri zaie jakitea ea konstituzioarekin bat ez datorren legea herrialdeko lege bilaka daitekeen; baina, zorionez, gai horrek ez dauka sortzen duen interesaren adinako zailtasunik. Dirudienez, nahikoa da printzipio jakin batzuk —luzarokoak eta ongi ezarriak direla suposatzen direnak— ezagutzea gaia argitzeko.

Herriak, berorren etorkizuneko gobernurako, zoriona ekarriko dioten printzipioak ezartzeko jatorrizko eskubidea duela, amerikar erai-kin osoa eratzeke erabili den oinarria da. Funtsezko eskubide horretaz baliatzea ahalegin handia da, eta ezin da edo ez litzateke sarritan galdatu behar. Hala ezarritako printzipioak, beraz, oinarritzako kontsideratzen dira. Printzipio horiek sortzen dituen agintaritzari dagokionez, berau goren da, eta ez du maiz jarduten, printzipiook betierekoak izateko pentsatuak baitira.

Funtsezko nahi goren horrek gobernua antolatzen du, eta sail bereiziei ematen dizkie bakoitzari dagozkien ahalmenak. Hor gera daiteke, edo sail horiei gaindi ezin ditzaketan mugak ezar diezazkieke.

Estatu Batuetako gobernua azken mota horretakoa da. Legislaturaren ahalmenak zehaztuak eta mugatuak daude; muga horiek ez daitezten nahastu edo ahaztu idatzi zen konstituzioa. Zertarako mugatzen dira ahalmenak, eta zertarako finkatzen dira idatziz muga horiek, mugok —edozein unetan mugatuak izan behar dutenak— gaindi badaitezke? Ahalmen mugatu eta mugagabeko gobernuaren bereizketak deuseztatu egiten da, muga horiek jartzen zaizkien pertsonak ez badira behartuak, eta debekaturiko egintzak eta baimendutakoak derri- gortasun berekoak baldin badira. Proposizio argiegia da, eztabaidatua izateko: konstituzioak bere aurkakoa den edozein egintza lege-gile kontrolatzen du ala legislaturari lege arrunt baten bidez konstituzioa aldatzea posible zaio.

Alternatiba horien artean ez dago tarteko eremurik. Edo konstituzioa lege goragokoa eta funtsezkoa da, baliabide arruntekin alda ez daitekeena, edo egintza legebile arrunten parekoa da, beste lekeen moduan aldagarria, legislaturak gura duenean.

Lehen alternatiba egia baldin bada, konstituzioaren aurkako egintza legebile bat ez da lege. Bigarren alternatiba baldin bada egiazkoa, orduan, herriak naturaz mugaezina den boterea mugatzeko egiten dituen saiakera absurdoak dira konstituzio idatziak.

Egiazki, konstituzio idatziak burutu dituzten guztiek konstituzioak nazioaren lege funtsezko eta oinarritzkoa osatzen duela uste izan dute, eta, hortaz, halako gobernu baten teoria honakoa izan behar da: legislaturak ematen duen lege bat konstituzioaren aurkakoa bada, ezdeusa da.

Teoria hori esentzialki atxikitzen zaio konstituzio idatzi bati, eta, beraz, auzitegi honek gure gizartearen funtsezko printzipioetako bat dela kontsideratu behar du. Kontuan hartu beharko da gai honen inguruan aurrerantzean egingen den hausnarketa batean.

Legislaturaren egintza bat, konstituzioaren aurkakoa dena, ezdeusa baldin bada, orduan, nahiz eta baliorik ez duen, derrigortzen al ditu auzitegiak, eta indarrean sartzera behartzen? Edo, beste hitz batzuetan, nahiz eta ez den lege bat, legea bezain eraginkorra den arau bezala kontsideratu behar al da? Hori egitea teoriak ezarritakoa praktikan suntsitzea litzateke, eta, lehen begiratuan, zentzugabekeria handiegia dirudi horretan tematzeko. Dena den, sakonago aztertuko dugu.

Justizia sailaren eremukoa eta bere betebeharra da legea zer den zehaztea. Araua kasu partikularretan aplikatzen dutenek halabeharrez azaldu eta interpretatu behar dute arau hori. Bi legek elkarren artean talka egiten badute, auzitegiek erabaki beharko dute bakoitzaren balioa eta eraginkortasuna.

Beraz, lege bat konstituzioaren aurkakoa baldin bada; bai legea, bai konstituzioa, kasu partikular batean aplika badaitezke, auzitegiak erabaki beharko duelarik kasua legearen arabera ebaztea, konstituzioa baztertuz, edo konstituzioaren arabera, legea baztertuz; orduan, auzitegiak erabaki beharko du elkarren aurka egiten duten bi arau horien artean zein den kasuari aplikagarri zaiona. Hori eginkizun judizialaren esentzian bertan dago.

Beraz, auzitegiek konstituzioari men egin behar badiote, eta konstituzioa legislaturaren beste edozein lege arrunt baino garrantzitsuagoa bada, orduan, konstituzioa, eta ez lege arrunt hori, izanen da aplikagarri araudi biak ere aplika daitezkeen kasu horretan.

Hortaz, konstituzioa auzitegietan funtsezko lege kontsideratu behar dela dioen printzipioa eztabaidatzen dutenek, horiek defendatu beharko dute halaber auzitegiek konstituzioa baztertu eta soilik legeari erreparatu behar dietela.

Doktrina horrek konstituzio idatzi guztien oinarria irauliko luke. Lege bat, gure gobernuaren teoriaren printzipioen arabera zeharo ezdeusa dena, praktikan erabat derrigorrezko egiten du. Legislaturari ahalguzti praktiko eta benetakoa eskainiko lioke, bere ahalmena muga estuen artean ezarri nahi delarik.

Erakunde politikoetan garrantzi handieneko aurrerakuntza kontsideratu izan dugun hori —konstituzio idatzia— ezereztea, Amerikan, konstituzio idatziak horren miresmen handiarekin begiratu izan diren leku honetan, nahikoa litzateke doktrina hori baztertzeko. Baina Estatu Batuetako konstituzioaren adierazpide bereziek argumentu gehigarriak ematen dituzte bazterketa horretarako.

Konstituzioaren baitatik irteten diren kasu guztietara hedatuko da Estatu Batuetako botere judiziala.

Ahalmen hori eskaini ziotenen intentzioa al zen esatea, konstituzioa kontuan hartzerakoan, jaramonik egin behar ez zitzaiola? Konstituziotik datorren kasu baten gainean erabakia hartzeko orduan ez zela aztertu behar bere sorburua?

Gauza zinez bitxia defendatua izateko.

Konstituzioan beste hainbat atal daude gai hau argitzeko.

Bertan esaten da, «ez zaie ezarriko zerga edo eskubiderik edozein estatutatik esportaturiko artikuluei». Demagun kotoiaren, tabakoaren edo irinaren gainean ezarriko eskubide bat, eta horri konponbidea emateko auzi jartze bat. Halako kasu batean epairik eman behar al litzateke? Epaileek euren begiak itxi beharko lituzkete konstituzioari jaramon egin barik legea soilik kontsideratuta?

Konstituzioak dio «Ezin izanen da interdikzio zibilik edo *ex post facto* legerik onartu».

Nolanahi ere, halako lege bat onartuko balitz eta pertsona bat lege horren arabera kondenatua balitz, auzitegiak heriotza zigorra ezarri behar al dio konstituzioak bizirik mantenduko lukeen pertsonari?

«Inor ez da», dio konstituzioak, «traizioagatik erruduntzat joko ez baldin badaude ekintza ageri horren bi lekuko, edo auzitegian aitortzen egiten ez baldin bada».

Hemen konstituzioa auzitegiei zuzentzen zaie. Haiei agintzen die, bereziki, ebidentziazko arau bat, bertatik ezin delarik aldatu. Legislaturak arau hori aldatuko balu, eta lekuko *bakarra* edo auzitegitik *kanpoko* aitortzen nahikoa kontsideratu norbait erruduntzat jotzeko, printzipio konstituzionalak men egin behar al dio egintza legegileari?

Egin daitezkeen aukeraketa honetatik eta beste horrenbestetik, argi dago konstituzioaren egileek instrumentu hori *auzitegiak* —baita legislatura ere— gobernatuko zituen arautzat zeukatela.

Bestela zergatik eskatzen zaie epaileei konstituzioaren alde egiteko zina? Zin egite hori, modu berezian, aplikatu egiten zaio euren jardura ofizialean duten jarrerari. Zein ezmorala litzatekeen haiei inposatzea zin egin duten hori urratzeko instrumentu izan beharra, eta instrumentu jakitun gainera!

Legislaturaren aginduz kargurako zin egiteak, halaber, nabarmen frogatzen du botere legegileak gai honen inguruan duen iritzia. Honako hitzekin egiten da: «solemneki zin egiten dut justizia administrazioko dudala, pertsona zein den kontuan hartu gabe, berdin egingo dudala justizia aberats zein txiroekin, eta dagozkidan eginkizunak leialtasunez eta zuzentasunez beteko ditudala, nire ahalmen eta ulermen onenaren heinean, eta Estatu Batuetako konstituzioaren eta legeen arabera».

Aipatzekoa da, halaber, herrialdeko lege nagusia zein den deklaratzeko orduan, konstituzioa bera dela lehendabizi aipatua. Estatu Batuetako legegai orokorrean ez dute maila hori, soilik konstituzioaren helburuak lortzea xede duten horiek.

Horrela, Estatu Batuetako konstituzioaren fraseologiak berretsi eta indartu egiten du konstituzio guztietan esentziala den printzipio hori: konstituzioaren aurkakoa den lege oro ezdeusa dela, eta auzitegiak zein bestelako sailak, instrumentu horrek derrigortuak direla.

Epaia betea izan behar da.

IX
FRANTZIA

FRANTZIAKO ZUZENBIDEA

1.- Iraultza prozesua

XVIII. mendearen bukaeran Frantziak Europan leku aparta zeukan arren, gizarte barneko diferentziek ezinegona sortzen zuten. Gainera, gastu publikoak estaturiko monarkia ez zen gai arlo fiskalean beharrezko ziren aldakuntzak egiteko, eta porrotetik gertu zegoen. Nobleziak, erreforma fiskala harengana iristea saihestu nahian, 1614tik bildu gabeko Estatu Orokorrerarako deialdia egin zuen.

1789ko maiatzeko, Estatu Orokorrak bildu baino lehen ere, hasiak ziren sistema aldatuko zuten erreforma politikoak. Hirugarren estatuak azkenik lortu zuen kleroak eta nobleziak batera beste ordezkari izatea, hiru estatuak gorputz bakarra osatzea, eta ordezkariak banaka bozkatzea. Gauzarik iraultzaileena, dena den, Estatu Orokorrak —hirugarren estatuak eskatuta— Biltzar Nazional bihurtzea izan zen. Bestalde, gizartean zegoen egonezinak uztailaren 14an Bastillari eraso egitea eta, abuztuaren 4ko «sakrifizioen gauean», feudalismoa abolitzea ekarri zuen. Hilabete horretan bertan onartu zen *Gizakiaren eta hiritarren eskubideen adierazpena*. Adierazpen horren bidez askatasun eta berdintasun printzipioen mende ezartzen zen estatuko gobernuak, eta aintzatetsi egiten ziren eskubide naturalak. Krisi fiskalari aurre egitearren, elizaren ondasunak desjabetu eta saldu ziren, eta eliza bera estatuaren kontrolpean ezarri zen. Bi urte iraun zuen konstituzioaren idazketak, harik eta 1791. urtean promulgatu zen arte. Berorren arabera, biltzar legegileari

zegokion legeak egitea; erregeak atzera zitzakeen, baina ezin zien betoa ezarri.

Iraultzak europar monarkietan piztu zuen urduritasunak eta emigratuen presioak Austriarekin prebentziozko gerra eragin zuen, baita, ondorioz, Luis XVI. gillotina bidez hiltzea eta biltzar legeegilearen deuseztatzea ere. Bigarren Biltzar Nazional konstituziogile batek iraultza urrats bat aurrerago eroan, eta errepublika ezarri zuen. Potentzia guztien aurkako gerra hasi zen: 1793. urtea kritikoa izan zen iraultzaren-tzat. Salbazio publikorako batzorde batek Terrorea hedatu zuen, eta gai izan zen egoera militarri aurre egiteko; alabaina, gizarteak ez zituen jasan ahal izan erregimen berriaren gehiegikeriak, eta bost kidek osaturiko direktorioak ordezkatu zuen batzordea. Goi-erdi mailako klaseak kontrolaturik, direktorioak konstituzio moderatu bat ezarri zuen, herriaren botoa murritzten zuena. 1797an monarkikoez izaniko igoera zela eta, direktorioak Napoleon Bonaparte jeneral gazteari laguntza eskatu eta hauteskundeak indargabetu behar izan zituen. Bonaparteren ekintza militarrek lehen koalizioa menderatu zuten.

Ingalaterrak eta Errusiak bigarren koalizioa antolatu zutenean, besterik gabe inposatu zen gizon indartsuenaren logika. 1799an, direktorioa deuseztatuko zuen konspirazioan hartu zuen parte Napoleonek, kontsulatua ezarriz, eta bere burua kontsul izendatuz. Konstituzio berri bat idatzi zuen, berau sufragio unibertsalean oinarritu arren, kontsulak erregearen mailako boterea gordetzen zuen beretzat. Bestetik, aliatuak gailentzen zituen aldi berean, gobernuaren zentralizazioarekin, ogasunaren erreformarekin eta pribilegioen deuseztatzearekin jarraitzen zuen. Legearen aurreko berdintasunaren printzipioan oinarrituz, zuzenbidearen berformulazioa izan zen garaiko eginkizunetarik aipagarrienetako bat. Beherago aztertuko dugu kodifikazio jarduera handi hori.

Napoleonek 1804an bere burua enperadore izendatu zuen, eta 10 urte iraun zuen bere inperioak. 1805ean Ingalaterrak, Austriak eta Errusiak hirugarren koalizio bat osatu zuten. Bi lehenen gudarosteak azkar izan ziren gailenduak, baina ez Ingalaterrarena: britainiar itsas armadaren gorentasuna ziurtaturik geratu zen 1805ean Nelson almirantearen ontziek espainiar eta frantziar ontziteria suntsitu zutenean. Nola-nahi ere, 1806 eta 1812 artean Napoleon enperadorea pertsonaia erraldoia izan zen Europan, ordena kontinental berri baten sortzaile bilakatu baitzen. 1806an bertan Germaniar-Erromatar Inperio Santua deusez-

tatu, eta Alemaniako mendealdeko estatuen aliantza bat sortu zuen: Rhin-eko konfederazioa, Frantziaren satellite. Prusia okupatu ondoren Varsoviako Dukerria eratu zuen. Okupatu berriak ziren erresumetako hainbat agintaritza bete zituen familiako kideekin. Ingalaterra bilakatu zitzaion arazo nagusia, eta ekonomikoki itotzearren Frantziak Sistema Kontinentala zeritzan blokeoa ezarri zuen, eta berau sendotzeko, baita Iberiar penintsula inbaditu ere. Ingeles ontziteriak erantzun moduan jarritako blokeoak, Espainiako errebolta, eta menpekoturiko estatuetan nazionalismoaren handitzeak, horiek guztiek egoera txartu zuten Frantziarentzat, eta gauzak okerragotu egin ziren Alexander tsarra buru zuen Errusiak Sistema baztertu zuenean. 1812ko udan *La Grand Armée* ek Errusia inbaditu zuen, baina 400.000 gizonek baino gehiagok bizia galdu zuten gudan edo elur ekaitzen azpian. Europa osoa altxatu zelarik, Napoleon Leipzigen gailendua izan zen, Nazioen Batailan. Korskarraren lehen erorialdiaren ondoren, boterea ehun egunez berreskuratu zuen arren, 1815ean Belgikan Waterlooko Batailan bukatu zen bere ibilbidea.

Kontinentean Frantziar iraultzaren eragina handia izan zen. Lehenik, erabakigarria izan zen feudalismoaren gainbehera edo suntsipenean —nekazariak pairatu beharreko zamaren eta jaunen sistemaren desagertzea, nekazaritzaren erreforma, kleroaren eta nobleziaren tributuetan ordainketen salbuespenen bukaera—. Han eta hemen agertu ziren herri subiranotasunaren eta legearen printzipioen gainean inspiraturiko konstituzioak, banakoen eskubideak aldarrikatu eta botereak bereizten zituztenak. Bestetik, Napoleonen kodearen hainbat atal, legearen aurrean berdintasuna gozesten zutenak, kontinente osoan zehar hedatu ziren.

2.- Zuzenbide publiko iraultzailearen kontzeptu berriak

Iraultzan sortu zen zuzenbide berria korrante eta influentzia anitzek itxuratu zuten. Zuzenbide naturalaren eskolak pisu handia izan zuen; haren arabera, arau juridiko guztiak giza naturatik erator zitezkeen, eta, hortik abiatuta, gizaki arrazoimendun abstraktu bat kontuan hartuko zuen sistema unibertsala eraikiko zen. Eragina izan zuten, halaber, aurreko bi mendeetako filosofo frantses eta ingelesek, horiek estatuen ideia diferente bat eta gizakien arteko harreman modu berriak bilatu baitzituzten.

Iraultzak sortu zuen «estatuan», tartean dira elkarri loturiko zenbait kontzeptu, orduan zentzu berri bat hartuko zutenak, eta konstituzio anitzetan —1791, 1793, 1795, 1848...— azaleratzen direnak. Lehenik, *estatu* kontzeptua daukagu, gobernarietatik nahiz gobernatuetatik bietatik ere bereizten den entitatea. Bestetik, *nazio* kontzeptua, antzinako erregimenean zuen adieratik zeharo aldentzen dena, hartan erregearen interes arbitrarioen eramaile ziren gorputzen osotasuna baitzen. Iraultzako nazioa nolabaiteko kidetza batek biltzen dituen eta kolektibitate publikoarekin identifikaturik dauden banako edo hiritarrek osatzen dute. Nazioak soilik defini dezake interes orokorra. Nazioak definitzeko eta erabakitzeko duen botere hori —*subiranotasun nazionala*— da zuzenbide publikoaren oinarritzko kontzeptu berria. *Legearen subiranotasunari* estuki loturik dago, lehenaren oinarritzko gauzatzea baita guztioi eragiten diguten erabakiak hartzea, hau da, legeak egitea. Iraultzako legalismoak bere egin zuen Rousseauren honako esana: legea «borondate orokorraren adierazpen» da. Gutxiengoaren borondatearekin bat egiten baitute gutxiengoek —hori da «demokraziaren misterio harrigarria», fede egintza batean oinarritzen dena—. Lege guztien artean, bada bat pentsamendu liberalak goraipatzen ohi duena, *konstituzioa*, elkarte subirano bateko organo ordezkatzaille guztien gain dagoena. Testu idatzia da, sistematikoki eratua, nazio bateko ordezkari biltzarretik datorrena eta «arlo» legegilea, exekutiboa eta judiziala antolatzen dituen, botere bereizketaren printzipioak gidatu beharko dituelarik horiek guztiak. Zuzenbide publiko liberala saiatu zen irtenbide bat ematen, batetik, subiranotasun nazionalaren izaera ahalguztidunaren eta, bestetik, legegileak ezin gaindi ditzakeen mugen artean sortzen ziren kontraesanerako: *gizakiaren eta hiritararren eskubideak*. Azter ditzagun sakonago.

3.- Gizakiaren eta hiritarren eskubideen adierazpena

Ba omen dira oinarritzko eskubide batzuk, berezko balioa dutenak, nazioa osatzen duen taldearen gainetik daudenak, eta konstituzioa nahiz legeak egiten edo gobernatzen duen taldearen borondatearen gainetik daudenak. Gizakiak berezkoak dituenek eta *a priori* existitzen direnek, ez dituzte sistema juridikoek ezartzen, horiei soilik eskubideok deklaratzeko baitagokie. Antzinako erregimenean, batez ere zenbait

herrialdetan, eta baita Frantzia absolutistan ere, bazeuden jada banakoen eskubideen iturri edo haziak. Argiago ikus daiteke Holandan, Aragoi, Katalunian, Euskal Herrian edo Ingalaterran. Alabaina, frantses iraultza baino lehen, bada zuzeneko aurrekari bat *Amerikako Estatu Batuen independentzia deklarazioan* eta, halaber, izaera oso pragmatikoa eta jurisdikziozkoa duten kolonien konstituzioetako eskubide deklarazioetan. Garrantzitsua izan zen, bestetik, 1776ko Virginiako *Bill of Rights*, edo eskubideen deklarazioa. Estatu Batuetan 1789an egin zitzaizkion konstituzioari lehen hamar zuzenketak. Frantses deklarazioa bezalako eskubide multzoa osatzen dute.

1789ko abuztuaren 24an Biltzar Nazional konstituziogileak, La Fayettek eskatuta, bere egin zuen *Declaration des droits de l'homme et du citoyen*, hau da, iraultzaren sinbolo bilakatu den *Gizakiaren eta hiritarren eskubideen deklarazioa*. Hitzaurrean eta trakeski loturik dauden 17 artikuluetan zuzenbide naturalaren eskolako teoriak islatzen dira. Aldarrikatu egiten dira izaki eta hiritar abstraktu baten eskubideak, estatuaren antolaketaren aurrekoak direnak, eta botere publikoei oposa dakizkienak. Batzuen iritziz, legeak sortuz hartzen du parte gizakiak. *A contrario*, edo ezezko ikuspegitik, deklarazioak antzinako erregimene-ko erakunde guztiak arbuiazen zituen: gizartea estamentuetan banatzea, eskumen jainkotiarreko monarkia, botereen nahasketa, botereak muga juridikoak ez izatea, zentsura, estatu erlijioa, pribilegioak. Deklaratzen ziren eskubideen lehentasunezko izaerari oinarri bat emateko, deismo ilustratuaren Izaki Gorenera jo zen.

Berdintasuna eskubide konkretuen artean dago; 1776ko Estatu Batuetako independentzia deklarazioko formularen arabera: «Gizakiak, eskubide berekin, libre jaio eta bizi dira». Azpimarragarria da ere J.J. Rousseauk bere egin zuen definizioa: «Beste norbaiti kalte egiten ez dion edozer egin ahal izatean datza askatasuna» (4. artikulua). Rousseau-rengandik hartu zen, gainera, legea «borondate orokorraren adierazpen»-tzat jotzen duen definizioa. Bertan ageri da halaber Beccariak adierazi zuen *nullum crimen sine lege*¹ printzipioa, eta *Habeas Corpus Actek* ezarri zuena, hots, epaile baten erabakia tartean ez bada, ezin dela inor espetxeratua izan. Aipagarria da, bestalde, erlijio askatasuna aldarrikatzea, edo propietatea sakratu eta bortxaezin kontsideratzea.

1 «legerik gabe, ez da deliturik», hau da, legeak debekatzen ez duen zerbait egitea-gatik ez da deliturik

Nolanahi ere, finkatzeke gelditu zen giza eskubideen hedadura eta berorien izaera absolutuaren auzia; funtsean, borondate orokorraren eta banakoaren autonomiaren arteko kontrajartzearena.

Deklarazioak unibertsaltasun eta betierekotasun asmoa zuen, honela esan zuten Biltzar Nazionalean: «gizaki guztientzat, garai guztietarako, herrialde guztientzat egin nahi dugu deklarazioa. Munduari egin nahi diogu deklarazioa». Oihartzun izango zuen Nazio Batuetako Biltzar Orokorrak 1948an giza eskubideen deklarazio unibertsala egin zuenean, baita XX. mendeko gainerako deklarazioetan ere.

4.- Konstituzio esanguratsuenak

Azken bi mendeotan hiru ildo edo joera nagusi ezagutu ditu frantses konstituziogintzak: iraultzakoa, autoritarioa eta parlamentarioa. Joera horiek herrialdeko bizitza politikoaren prozesu dialektikoa azaleratzen dute: iraultzatik erreakziora, eta erreakziotik tarteko sintesi batera. Hemen, alde batera utziko ditugu tankera autoritarioko konstituzioak, bai lehen eta bigarren inperiokoak, bai Vichyko erregimen traumatikoaren garaikoa.

a) 1791ko konstituzioa, konstituzio iraultzaileen eredu

1779, 1848 eta 1945 ostean gizartean gertaturiko aldaketek konstituzio iraultzaileak ekarri zituzten. XVIII. mendearen azken hamarkadan egin ziren hiru konstituzioetarik —esan nahi baita, iraultza garaiko monarkiako konstituzioa, konbentzio garaiko erregimenekoa eta direktorio garaikoa— lehena aukeratu dugu, moderatuena den arren, frantses konstituzionalismoa harekin hasten delako, edo, behintzat, harekin datorrelako Antzinako Erregimenaren ordena politikoaren haustura.

Bi urte behar izan zituen Biltzar Nazional konstituziogileak **1791ko irailaren 3an** onarturiko konstituzioa burutzeko. Zenbait printzipio finkatu ziren, hala nola, nazio subiranotasuna, ordezkaritza bidezko gobernua edo botereen bereizketa, eta, bestalde, sufragio murriztua ezarri zen. Botereei dagokienez, botere legegileak kide anitzeko biltzar bakar bat izanen zuen (Estatu Orokorretan ematen zen estamentuen arabera bereizketa zeharo arbuigarria iruditzen zitzaien). Ordutik aurrera frantziarrena eta ez Frantziakoa izanen zen

erregeari eman zitzaion botere betearazlea; beto eskubide mugatu bat ere eman zitzaion.

b) Izaera parlamentarioko konstituzioak

Pertsona bakarraren ala biltzarraren boterearen artean, tarteko bidea da konstituzio parlamentarioa. Bi inperioetatik —Napoleon I.arenetik eta II.arenetik— irteterakoan, eta —erreferendumean kontsultaturiko herriaren presioagatik— bigarren mundu-gerraren ondoren, izaera horretakoak egin ziren. Sarrera honetan, lehen konstituzio parlamentarioan, 1814koan, eta egun indarrean dirauen 1958koan zentratuko gara. Azken honek parlamentarismoaren norabideari taxu presidentzialista emango zion.

Monarkia berrezarria izan ostean, Louis XVIII.ak **1814ko ekainaren 4ko konstituzio gutuna** promulgatu zuen. Testuaren ezaugarriarik nabarmenena: «gure autoritate erregetiarraren egikaritze librearen bidez eta borondatez erabaki dugu, eta erabakiko, guk nahiz gure ondorengoek, gure aginduekoei ondoren datorren konstituzio gutuna ematea». Konstituzioak liberala izateko asmoa zuen, iraultzaren lorpen politiko eta sozialak mantendu, eta gizabanakoen eskubideak aitortuz. Bestetik, aldiz, gutxieneko jabego bat zeukatenek soilik izanen zuten boto eskubidea, edo hautagaiei kontribuzio handiak eskatuko zitzaizkien. Estatuaren agintaritza gorenaren erregeari eman zitzaion, eta honek bere gain hartuko zuen botere betearazlea eta indar armatuen burutza halaber. Azpimarragarria da erregeari egokitzea legegintzarako ekimena nahiz leheen onespena. Botere legegilea bi biltzarri zegokien, ahalmen berekoak biak: Pareen Ganbera, erresumako eliteetarik erregeak izendaturiko kideek osatua, eta Diputatuen Ganbera, erregeak desegin zezakeena. «Erregeren jakituriak eskainiriko parlamentarismo»-ari esker, Frantziako kultura politikoan erregimen mota hori finkatzeko baldintzak sortu ziren.

1875eko konstituzioaren aplikazioarekin erregimen parlamentarioak izaniko desitxuratzak (aipatu izan da estatuaren agintaritzaren ahultasuna, lege-dekretuen ezarpena edo ministerioen egonkortasun falta), eta erregimen horri 1940ko hondamendia leporatzak, biek eragin zuten Frantzian molde erreformatzaile eta presidentzialistako bira bat, berau bi fase edo unetan gorpuztu zen.

Erreformak kale egin zuen **1946ko urriaren 27ko konstituzio-arekin**, hautesleen ia erdia aurka izan arren onartu baitzen. Printzipioei hertsia, tankera dogmatikoa zuen (Hitzaurrean nabaria), baina konpromisoa zegoen gobernu konbentzionalaren eta parlamentarioaren artean, sozialismoaren eta liberalismoaren artean, 1789ko Eskubide Adierazpenaren indibidualismoaren eta gizarte eskubideek XX. mendean ezaguturiko garapenaren artean. Jatorri iraultzaileko ganberabakartasunak eragiten zuen izua zela medio, parlamentua ganbera bik osatuko zuten: lehentasunezko Biltzar Nazionalak, botere legegile osoa bere gain izanik, gobernua kontrolatu eta aurrekontua onartzen zuenak, eta Errepublikako Kontseiluak, hausnarketarako ganbera gisa osatua zelarik, gehienez ere lege-proiektuen inguruan aholku eman zezakeenak. 1875eko konstituzioak eskaintzen ziona baino ahalmen txikiago zuelarik, errerepublikako lehendakariak, batetik, eta biltzarrak hautaturiko kontseiluaren presidentek, bestetik, osatzen zuten gobernua. Presidentek ministroak izenda eta ken zitzakeen, eta eskumen handiak zituen. Organo berriak sortu ziren garai honetan: Konstituzio Batzordea —legeen konstituzionaltasuna ikuskatzea zegokion—, Magistraturaren Kontseilu Gorena erakunde honek epaileen gain gobernatzen zuen— eta Ekonomia Kontseilua —estatu mailako egitasmo ekonomikoetan eta ekonomia arloko gainerako gaietan parlamentuaren eta gobernuaren aholkulari—.

1958ko urriaren 4ko konstituzioak, Bosgarren Errepublikakoa ere deitzen zaion horrek, Argeliako independentzia gerraren ondorioz Frantziak ezagututako krisia izan zuen sorburu. Michel Debré konstituzioaren egile nagusiak adierazi bezala, parlamentu erregimena diziplinatzaiko saiakera izan zen. Parlamentuaren eta gobernuaren arteko oreka handiagoa ezartzea xede zuen. Asmo horiek sistemaren oinarri presidentziala sendotuz erdietsi nahi ziren; frantses konstituzionalismoaren ezaugarri diren hiru ildoekin alderatuz, zeharo berria da bide hau. Ordutik aurrera, herriak zuzenean hautatzen duen lehendakariak eskuduntza jakin batzuk izanen ditu, baita herriari erreferendum bidez kontsulta egiteko aukera ere. Konstituzioa zuzen daiteke, bai bi ganberen gehiengo sinple baten bidez, horri erreferenduma darraiolarik, bai Biltzar Nazionala eta Senatua batera bildurik daudelarik kongresuaren hiru bostenek osaturiko gehiengo batek erabakita, bai lehendakariak zuzenean deituriko herri erreferendum baten bidez. Izan ere, konstitu-

zioa 17 bider izan da zuzendua. Bestetik, azpimarragarria da *Gizakia-
ren eta hiritarren eskubideen adierazpena* eta 1846ko konstituzioaren
hitzaurrea, Kontseilu Konstituzionalaren ebazpen bidez, konstituzio
askatasunaren multzoaren barne sartu izana; hortaz, horietan agertzen
diren eskubideen ustezko urraketak direla-eta kontseilu horri helegite-
ak aurkez dakizkioke.

5.- Zuzenbide pribatua: aurrekariak eta kodifikazioa

Galiako hegoaldeak erromanizazio kultural eta juridiko sakona
izan zuen. 476an inperioa hondatu zenean, lurralde horretan hobeto
mantendu zen zuzenbide erromatarra. Aurrerago, XII. eta XIII. men-
deetan, Tolosako, Montpellierreko eta beste leku batzuetako zuzenbide
ikastetxeetan justinianotar bilduma irakasten zen. Hegoaldeko gizarte-
an ordenamendu erromatarraren praktika indartu zelarik, errege fran-
tsesek, azken mende horretan lurraldea okupatu zutenean, «ohitura»
gisa onartu zuten. Erromatar zuzenbidea idatzirik zegoenez, Frantziako
alde hori *pays de droit écrit* moduan ezaguna izan zen. Aitzitik, monar-
kia frankoaren jatorri eta bizileku zen iparraldean, erregeek itxi egin
zioten erromatar zuzenbideari bidea, haren ikasketa eta praktika debe-
katu baitzuten —Alemaniako Inperio Santua arbuiaitza zen ezkutuko
arrazoia—. Lurralde hori *pays de droit coutumier* moduan ezagutuko
da. XV eta XVI mendeetan 600 ohitura zeuden gutxienez, batzuek —
esaterako, Parisekoak— hedapen handia izan zuten.

a) Ohiturazko zuzenbidea: idazketak eta iruzkinak

Laster hasi ziren ohitura idatziz jasotzen. Jada XIII. mendean
idatziz jaso ziren lau lurralde ordenamendu. Guztien artetik aipagarrie-
na da *Coutumes du comté de Clermont-en-Beauvaisis* (1279-1283),
Philippe de Beaumanoir-ek idatzirik «coutimier»-a, Erdi Aroko
onena, harengan eragin amini bat izan zuen erromatar zuzenbideak.
Beuamanoirek garaiko erakundeak zehaztasunez deskribatu zituen;
hala ere, ohiturazko zuzenbide erkide bat bilatzen saiatu arren, lurralde
zehatz batera mugatu zuen azterketa. Ondorengo mendean Jacques
d'Ableiges-ek *Grand coutumier de France* (1387-1389) idatzi zuen;
izena gorabehera, Pariseko ohitura, eta bertako *parlamentaren* —hau
da, auzitegi gorenaren— prozedura jaso zituen soilik. 1454ko Montil-
lès-Tours-eko ordenantzak Akitaniako —Akitze, Baiona eta Lapurdi

(1514), Bordele (1520), Bearn (1554)— zenbait ohitura idatziz jasotzea ahalmenu zuen.

Ohituren iruzkingileak dauzkagu bestetik: XVI. mendean aipagarria da Pariseko ohituraren gainean Dumoulinek egin zuen iruzkina; ohiturazko zuzenbidea idatziz jasotzerakoan erresumako ordenamendua batzeko xedea zeukan. D'Argentrék, berriz, Bretainiako ohiturak komentatu zituen, eta, tokiko berezitasunen defendatzaile izanik, estatutu pertsonal eta erregetiarraren teoria bartolista berrelaboratu zuen. Frantses zuzenbidearen batasunean eragin handia izan zuten XVII. mendean argitaraturiko obra bik: batetik, Coquilleren *Institution du droit français* —ohiturazko zuzenbide frantsesaren osotasunaren azalpen labur eta metodikoa— eta, bestetik, Loisiel-en *Institutions coutumières* —bertan agertzen diren lurralde ordenamendu anitzetako 900 maximetan ohiturazko zuzenbidea batzeko oinarria aurkitu zuen—. Ordutik aurrera, Pariseko ohitura komentatuko da soilik.

XVIII. mendean, doktrinak azkenik lortu zuen Frantziarako zuzenbide erkide bat sortzea, ohiturazko zuzenbidea eta erromatar zuzenbidea bilduta, eta Pariseko *parlamentaren* jurisprudenzia eta Frantziako hiriburuko ordenantza handiak lagungarri izanik. Bourjon eta Pothier-ek ekarpen handia egin zuten; batik bat, azken horren obra bik: Orleánsko ohituraren iruzkinak (1740) eta *Traité des obligations*-ek (1760) —zuzenbide zibilaren azalpen argi eta sistematikoa— biek ere iraultza aurreko zuzenbide zibil pribatuaren bidea urratu zuten. Pothierrek etortzeaz zen kode zibilean hain eragin handia izan zuen, haren aita espiritualtzat jo izan baita.

b) Legeria: erret ordenantzak

Erret legeria da kodetze aurreko frantses zuzenbidearen beste iturri garrantzitsu bat. Erdi Aroan erregearen agindupeko eremuan aplikatzen zen soilik, aldiz, basailu handien lurretan aplikazio hori negoziatu egiten zen. Batzuetan herritarrek eskatuta sortzen zen, beste batzuetan, *motu proprio*. Norbere kabuz sorturiko legeak ugariagoak dira XIV. eta XV. mendeetan, nolanahi ere, zuzenbide publikoko gaien ingurukoak dira. Aro Modernoan, absolutismoak gora egin ahala, erregeak legeak egiteko monopolioa izango zuen eta ez zuen bere burua legearen menpekotzat joko; Ulpianoren printzipioaren arabera, *Prin-*

*ceps a legibus solutus*². Erregeak bakarrik, inork agindu gabe, egiten zituen legeak. Erresumako biltzar ordezkatzailerak —*États généraux*— egiten zituen erreforma eskaerei, *cahiers de doléances*etan jasoak zirenei, jaramon egin zekiekeen, ala ez. Adierazgarriagoa da 10 *parlamentek* edo justizia auzitegi subiranoek zeukaten zeregina, horiek legeak jaso eta erregistra baitzitzaketen, indarrean sar zitezen. *Parlamentek*, legeak erregistratu baino lehen, batzuetan erregeari ohartarazpenak —*remontrances*— egiten zizkioten, erregistratzear zen legeari buruz, eta erantzuna espero zuten. Kontrakotasunari aurre egiteko, erregeak *lettres de jussion* deituriko betearazpen aginduak eman behar zituen, eta horiek ez ziren beti eraginkorrak. Izan ere, Frantzia desorekatu zuten arrazoien artean, *parlamentek* erreforma fiskalerako legeak erregistratzeari uko egitea dago, legeok nobleziari eragiten baitzioten, eta noblek osatzen zituzten auzitegi horiek.

XVI. eta XVII. mendeetan irismen handiko lege edo ordenantza batzuk —*ordonnances*— sortu ziren, frantses kode zibilaren arau bilakatuko zirenak; hala nola, Louis XII.ak preskripzio arloan emanikoa; 1539ko Villiers-Cotterêts-ekoa, berau tutoretzari, erregistro publikoei, ezkontzaren alorrean eliz jurisdikzioaren kentzeari, egoera zibilaren eliz erregistroei, eta zigor arloko galdeketa prozesuari buruzkoa zen; 1579ko Blois-ekoa, gai zibil anitzei buruzkoa zena, esaterako, ezkontzan trentotar araua ezarri zuen.

Colbertek inspiraturiko lau ordenantzak, Louis XIV.aren erregealdian sortuak, eragin handia izan zuten, bai zuzenbidearen beraren ikuspegitik, bai XIX. mendeko lehen hamarkadako kodetzearen aurrekari izan zirelako:

*Ordonnance civile sur la reformation de la justice*ek (1667) auzitegi frantses guztien estiloa eta prozedura bateratu zituen, sinplea eginez. 1806ko *Code de la procédure civile*ek ia osoki birjaso zuen.

*Ordonnance criminelle*ek (1670) antzeko funtzioa bete zuen prozedura zibilari dagokionez, eta 1808ko *Code d'instruction criminelle* inspiratu zuen.

Ordonnance sur le commerce (1673), merkataritza auzitegiak baino lehenagoko inkestetan oinarritua, 1805eko *Code de commerce*-ren aurrekari da.

2 «Printzea ez du legeak lotzen».

Ordonnance sur le commerce des mers edo *Code de la marine* (1681), Colbert-en maisu lana kontsideratzen dena, praktikan oinarrituriko ikerketa zehatz batean funtsatzen zen. 1805eko merkataritza kodearen II. liburukian hitzez hitz jaso zen.

Kodifikazioan aurrera egiteko ezintasunak bultzatu zuen Daguessau, Louis XV.aren kantzilerra, ordenantzak egitera. Bere ordenantzek gai jakin batzuen inguruan jurisprudentzia sinplerik eta logikoena finkatzen zuten, legegintza bidez. *Parlamentetara* zuzenduriko galdera-sorten erantzunetan oinarrituz, dohaintzen inguruko ordenantza bat egin zuen (1731), erromatar zuzenbidean inspiratua, eta beste bat testamentuen ingurukoa (1735), ohituran oinarritzen zen iparraldearen eta hegoalde erromatar-bizantziarraren arteko bereizketa areagotu zuena. Bi ordenantza horietako xedapenak zuzenean pasa ziren napoleonondar kodeetara.

c) Napoleondar kodifikazioa: Kode zibila eta gainerako testuak

Zuzenbide naturalaren eskolaren eraginpean, germaniar herrialdeetan zenbait kode zibil egin ziren —Baviera, 1756; Prusia, 1794; Austria, 1811—. Frantses iraultzaren ostean, jada 1790ean, Biltzar Nazional konstituziogileak Frantziarako kode zibil bakarra sortzea erabaki zuen, hots, kode «sinple, argi, eta konstituzioaren araberrakoa», «guztiek ulertzeko modukoa». XVIII. mendeko azken hamarkadan lau proiektu diferente aurkeztu ziren arrakastarik gabe.

Kontsulatuan, 1800eko abuztuan, lau kidek osaturiko batzorde batek kodetze proiektu bat prestatu zuen lau hilabetetan. Jurista adituak ziren: erromatar zuzenbidea, zuzenbide naturaleko eskolako filosofoak eta ohiturazko zuzenbide frantseseko literatura ezagutzen zituzten. Ohiturazko zuzenbidean aditua zen Tronchet, «droit écrit»-ean Maleville probentzarra. Promenau bretoiak eta hegoaldeko Portalisek euren jakituria eta moderazioa gehitu zuten. Proiektuak kontuan izan zituen agintari judizialen oharrak. Estatu kontseilutik pasa zenean —102 saioetarik 57tan Napoleonen beraren zuzendaritzapean, gainerakoetan Cambacérès bigarren kontsula izan zen kontseiluaren zuzendari—, testua zeharo aldatu eta 36 ataletan banatu zen. *Tribunatari* igorri zitzaiolarik, bertan Napoleonen arerio asko zegoenez, ezezko informea jaso zuen, eta, ondorioz, gorputz legegileak atzera bota zuen. Bonapartek *tribunata* garbitu, eta gorputz legegileak banan-banan onartu zituen atalak.

Testua multzo bakarrean bilduta argitaratu zen 1804an. 1804ko martxoaren 21eko Kodearen Promulgazio legean, 7. artikuluan esaten den moduan, «[kodea osatzen duten] legeak indarrean sartzen diren egunetik aurrera, lege erromatarrek, ordenantzak [*ordonnances*], ohitura orokorrekin edo tokikoekin, araudiek, horiek guztiek ez dute honako kodea osatzen duten edukietan lege orokor edo partikular izaera izanen».

Kodearen egiturak ingeles legeriaren tradizioa jarraitzen du, eta honek ere, Europako beste hainbatekin bezala, Justinianoren *Institutiones* du inspirazio. Lehen liburukia, legearen efektuekin nahiz aplikazioak eta pertsonen egoeraz arduratzen da. Bigarren liburukia, jabetza eta jabetza aldaketaz. Hirugarren liburukia, jabetza eta jabetza eskuratzeko moduekin, oinordekotzatik hasi eta obligazioekin jarraituz. Arlo honetan aztertzen dira obligazioekin eta kontratu espezifikoekin, kuasikontratuari eta delituekin dagozkien orokortasunak. Berme eskubideak, preskripzioa eta ondasunen ezkontza-erregimena aztertzen ditu halaber, erregimen hori jabetza eskuratzeko modu kontsideratzen baitu.

Goraipatu izan da kodeak duen estilo argitasuna, idatzi zutenek xede baitzuten denek ulertzeko modukoa izatea. Egia da beste kode batzuk baino hobeto iritsi zela mugimendu kodetzailearen ulergarritasun idealetara, eta, Napoleonen gudarosteekin esportaturik, Belgikan, Holandan, italiar estatuetan eta Rhineko herrialdeetan onartu zuten, baita zenbait herrialde musulmanetan ere, hala nola, Egipton, Sirian, Libanon eta Magrebeko herrialdeetan. Eragin handia izan zuen Espainian nahiz Portugalen, berauen Ameriketako kolonietan, eta, azkenik, baita Quebecen eta Estatu Batuetako Luisianan ere. Napoleon ez zegoen lar oker esaten zuenean, jeneral baino, legelari bezala gogoratua izango zela.

1807ko urtarrilean *Code de Procedure Civile* sartu zen indarrean; berau prozedura zibilaz eta epaien betearazteaz arduratu zen, baita testamentuak frogatzeko eta gauzatzeko beharrezko formalitateekin ere. Ondorengo urtean *Code de Commerce* argitaratu zen; kode hau merkataritza orokorrean, itsas zuzenbideaz, porrotaz eta merkataritza juridikoz arduratzen zen, eta gorago aipaturiko Colberten ordenantzen zordun da. *Code d'Instruction Criminelle* zein *Code Pénal* 1811n sartu ziren indarrean; Beccariaren printzipioetan oinarritzen ziren: delitu nahiz zigorrak zehaztasunez definitu behar zituen legeak, epaileen erabakimenari lekuri utzi gabe.

Bibliografia eta iturriak

Frantses zuzenbidearen historia

ELLUL, JACQUES. *Histoire des institutions* [t. 3 : *Le Moyen Âge*, 7. argitalpena, 1973 ; t. 4 : *XVIe-XVIIe siècles*, 6. argitalpena, 1969; t. 5 : *Le XIXe siècle*, 6. argitalpena, 1969]. Paris: Presses Universitaires de France.

IMBERT, JEAN. 1996. *Histoire du Droit privé*. 8. argitalpen zuzendua. Paris: Presses Universitaires de France.

Ohitura idatziz jasoa

BEAUMANOIR, PHILIPPE DE REMI. 1970. *Coutumes de Beauvaisis: texte critique publié avec une introduction, un glossaire, et une table analytique* par Amédée Salmon. Paris: A. et J. Picard, 2 liburuki.

Pothier, Robert. 1780. *Coutumes des baillage et prévôté d'Orleans et ressorts d'iceux*. Paris: Debure.

Ordenantzei buruz

- merkataritza eta itsas legeria

MARIAGE, HENRI. 1952. *Evolution historique de la législation commerciale, de la Ordonnance de Colbert à nos jours, 1673-1949*. Paris: Pedone.

-Daguessauri buruz

REGNAULT, HENRI. *Les Ordonnances civiles du Chancelier Daguessau*; I: 1938; *Les donations et l'ordonnance de 1731*. Paris: Sirey; II. 1965, *Le testament et l'ordonnance de 1735*. Paris: Presses Universitaires de France.

Napoleonen kodeak

Code Civil des Français, édition originale et seule officielle. 1804. Paris: Imp. De la République.

Iraultzako zuzenbide publikoa

CHABANNE, ROBERT. 1990. *Les institutions de la France, de la fin de l'Ancien Régime à l'avènement de la III République (1789-1875)*. Lyon: Hermes.

DUVERGER, MAURICE. 1974. *Constitutions et documents politiques*. 7. argitalpena. Paris: Presses Universitaires de France, Collection Themis (frantses konstituzioen testuak).

- 1973, *Institutions politiques et droit constitutionnel*. 13. argitalpena. Paris: Presses Universitaires de France, Collection Thémis.

Eskubide deklarazioak

RIALS, STÉPHANE. 1988. *La Déclaration des droits de l'homme et du citoyen*. Paris: Hachette.

IX FRANTZIA

1.

GIZAKIAREN ETA HIRITARREN ESKUBIDE- EN ADIERAZPENA*

(1789ko abuztuaren 26koa)

Frantses herriaren ordezkariak, Biltzar Nazionala bilduta, kontsideratzen dutenez gizakien eskubideen ezjakintasuna, ahanzteak edo gutxiespena direla gaitz publikoa eta gobernuen ustelkeria sortzeko zio bakarrak, hortaz, erabaki dute gizakiaren eskubide natural, besterenezin eta sakratuak deklarazio solemne baten bidez azaltzea: gizartekide guztiek kontuan izanen duten adierazpen horrek etengabe gogorra diezazkien euren eskubideak zein betebeharrak; botere legegilearen eta botere betearazlearen ekintzak, erakunde politiko ororen helburua denarekin erkatuak izan daitezkeelarik edozein unetan, errespetatuagoak izan daitezen; hiritarren erreklamazioak, oraindik aurrera printzipio sinple eta ukaezinetan oinarrituko direlarik, konstituzioaren mantentzerako eta guztion zoriontasunerako izan daitezen.

Hortaz, Biltzar Nazionalak, Izaki gorenaren aurrean eta babespean, gizakiaren eta hiritarren honako eskubideak aintzatesten eta deklaritzen ditu:

1. Artikulua:

Gizakiak, eskubide berekin, libre jaio eta bizi dira. Guztion probetxuan soilik funtsa daitezke ezberdintasun sozialak.

* Iturria: *Déclaration des Droits de l'homme et du citoyen du 26 août 1789*; Conseil Constitutionnel, République Française (Frantzia), <http://www.conseil-constitutionnel.fr/textes/d1789.htm> (2007ko urriaren 11n atzitua).

2. Artikulua:

Gizakiaren eskubide naturalen eta preskribaezinen mantentzea da elkarte politiko ororen xedea. Zapalkuntzari aurre egitea, askatasuna, jabetza eta segurtasuna dira eskubide horiek.

3. Artikulua:

Subiranotasun ororen printzipioak nazioaren baitan du funtsa. Ezein taldek edo gizabanakok ezin izanen du autoritaterik gauzatu berau nazioarengandik modu adierazian eratortzen ez baldin bada.

4. Artikulua:

Beste norbaiti kalte egiten ez dion edozer egin ahal izatean datza askatasuna. Hortaz, gizaki bakoitzaren eskubide naturalen gauzatzeak ez du beste mugarik, ez bada gainerako gizartekideek eskubide horietaz beraietaz baliatzeko aukera izatea. Muga horiek legeak baizik ezin ditzake finkatu.

5. Artikulua:

Gizartearentzat kaltegarriak diren ekintzak soilik galaraz ditzake legeak. Berorrek galarazten ez duena ezin da eragotzi, eta agintzen ez duena ezin da egitera behartu.

6. Artikulua:

Borondate orokorraren adierazpena da legea. Hiritar guztiek dute zuzenean edo ordezkarien bidez haren eraketan parte hartzeko eskubidea. Guztiontzat berdina izan behar da, babesten zein zigortzen duela ere. Hiritar guztiak haren aurrean berdinak direlarik, denak dira dignitate, kargu edo enplegu publikoetarako onargarri, norbere gaitasunaren arabera, eta norbere bertuteak edo trebetasuna ez diren beste bereizketarik gabe.

7. Artikulua:

Ezin da inor akusatu, atxiki edo atxilotu, ez bada legeak zehazten dituen kasuetan eta agintzen dituen formetan baizik. Agindu arbitrarioak eskatzen, ematen, egikaritzen edo egikariarazten dituzten pertsonak zigortuak izan behar dira; baina legearen aginduz deitua edo atxilotua den hiritar orok berehala obeditu behar du: erresistitzeak errudun egiten du.

8. Artikulua:

Ageriki behar-beharrezkoak diren zigorrak soilik ezarri behar ditu legeak. Delitua egin baino lehen ezarririko eta promulgaturiko lege bati jarraiki eta legeak ezarritakoa aplikatuz soilik zigor daiteke norbait.

9. Artikulua:

Pertsona bat —errugabea delarik errudun deklaraturia dena— arte— atxilotzea ezinbestekoa kontsideratzen bada, legeak gogor zehatu egin behar du pertsona hori atxilotzeko beharrezkoa ez den zorrotasun edo gehiegikeria oro.

10. Artikulua:

Ez da inor erasan behar bere iritzia —erlijio arlokoak barne— direla eta, betiere, iritzi horien adierazpenak ez baldin badu asaldatzen legeak ezartzen duen ordena publikoa.

11. Artikulua:

Pentsamendu eta iritzien komunikazio librea gizakiak daukan eskubiderik preziatuenetakoa da. Hortaz, hiritar orok libreki mintza, idatz eta argitara dezake; betiere, askatasun horretaz abusatzen baldin badu, legeak aurreikusitako kasuetan hargatik erantzun beharko duela.

12. Artikulua:

Gizakiaren eta hiritarraren eskubideen bermerako beharrezkoa da indar publiko bat; alabaina, indar hori guztion probetxurako da, eta ez aipaturiko indarra eskuordetuta duten pertsonen etekin partikularerako.

13. Artikulua:

Indar publikoa mantentzeko eta administrazioaren gastuetarako, ezinbestekoa da kontribuzio komun bat egitea; berau hiritar guztien artean —ahalmenaren arabera— berdinki banatua izan behar da.

14. Artikulua:

Hiritar guztiek, euren kabuz edo ordezkarien bidez, eskubidea dute kontribuzio publikoaren premia egiaztatzeko, eta libreki haren era-

bilera onartzeko, eta haren kuota, oinarria, bilketa eta iraupena zehazteko.

15. Artikulua:

Gizarteak eskubidea dauka agente publiko orori bere kudeaketaren gainean kontuak eskatzeko.

16. Artikulua:

Eskubideen bermatzea segurtaturik eta botere banaketa zehazturik ez duen gizarte oro konstituzio gabea da.

17. Artikulua:

Eskubide bortxaezin eta sakratua delarik jabetza, ezin da inor hartaz gabetu, betiere, ez baldin bada behar publikoak —legalki egiaztatuta— argi eskatzen ez duen artean, eta aldez aurretiko kalte-ordain justua emanez.

2.

1791KO FRANTZIAKO KONSTITUZIOA*

Biltzar Nazionalak, aintzatetsi eta deklaratu berri dituen printzipioetan ezarri nahi duelarik frantziar konstituzioa, modu ezeztazinean abolitzen ditu eskubide berdintasunaren eta askatasunaren aurkakoak ziren erakundeak.

Jada ez da ez nobleziarik, ez parerik³, ez jarauntsitako bereizketarik, ez ordenaren arabeko bereizketarik, ez erregimen feudalik, ez ondarearen arabeko justiziarik, ez bertatik sortzen den titulu, izendadura edo pribilegiarik ere, ez zaldun ordenarik, ezta noblezia frogara edo jaiotzetik bereizketaren bat eskatzen duten korporazio edo kondekoraziorik ere, ezta beste ezein nagusitasunik ere, ez bada funtzionario publikoek euren funtzioak betetzean dutena baizik.

Ezin daitezke jada kargu publikoak erosi edo jarauntsi.

Ez da jada nazioaren ezein eskualderentzat edo gizabanakoren-tzat, inolako pribilegiarik edo frantziarren zuzenbide komunitate bereizketarik.

Ez da jada gremiorik⁴, ez ogibideen, arteen edo ofizioen korporaziorik ere.

Legeak ez du jada onartuko ez erlijio botorik, ez bestelako bete-beharrik, eskubide naturalen edo konstituzioaren aurkakoa denik.

LEHEN TITULUA

KONSTITUZIOAK BERMATZEN DITUEN OINARRIZKO XEDAPENAK

Eskubide natural eta zibil moduan, konstituzioak honakoak bermatzen ditu:

* Iturria: *La Constitution du 3 septembre 1791*; Conseil Constitutionnel, République Française (Frantzia), <http://www.conseilconstitutionnel.fr/textes/constitution/c1791.htm> (227ko urriaren 11n atzitua).

³ *Pairie*: Koroaren berehalako agindupean dagoen feudo handi bati zuzenean atxikitzen zaion titulu edo maila.

⁴ *Jurande*.

1. Hiritar guztiak onargarriak dira postu eta lanbideetan, bertutearen eta talentuaren arabera gain beste bereizketarik egin barik.

2. Zerga guztiak herritar guztien artean bananduak izanen dira euren ahalmenen arabera.

3. Delitu berdinak zehapen berdinekin zigortuak izanen dira, pertsonen arabera bereizketarik egin barik.

Modu berean, konstituzioak eskubide natural eta zibil bezala honakoak bermatzen ditu:

—Gizaki orok askatasuna du joan, geratu edo alde egiteko, konstituzioak zehazten ez dituen formetan atxikia edo atxilotua izan barik.

—Gizaki orok bere pentsamenduak mintzamenez adierazteko, idazteko, inprimatzeko eta publikatzeko —idazkiek berorien argitaratzea baino lehen zentsurarik edo ikusketarik jasoko ez dutelarik— eta nahi duen erlijio gurmenean praktikatzeko duen askatasuna.

—Poliziak daukan araudiaren arabera, hiritarrek modu bake-suan eta armarik gabe biltzeko duten askatasuna.

—Ezarririko autoritateei norberak eskaera izenpetuak zuzentzeko askatasuna.

Botere legegileak ezin izanen du titulu honetan agertzen diren eta konstituzioak bermatzen dituen eskubide natural eta zibilen praktikatzea oztopatu, horiek urratzen dituzten legeak eginez; baina hurkoaren eskubideei edo segurtasun publikoari kalte egingo ez dion edozer egin ahal izatean datzanez askatasuna, hortaz, segurtasun publikoari edo hurkoaren eskubideei erasotzen dietelarik, gizarteari kaltegarri zaizkien ekintzentzat zigorrak ezar ditzake legeak.

Konstituzioak bermatzen du jabegoaren bortxaezintasuna, edo, legalki adierazita, behar publikoak jabego horren sakrifizioa eskatzen duenean, indemnizazio justu eta aurretikako bat.

Gurmenaren eta erabilgarritasun publikoko zerbitzuen gastuetarako diren ondasunak, nazioari dagozkio, eta une oro haren eskura daude.

Konstituzioak bermatuko ditu legearen arabera egin diren edo egingo diren besterentzeak.

Hiritarrek eskubidea dute euren gurmenetako apaizak hautatzeko edo aukeratzeko.

Sorospen publikoko erakunde orokor bat sortu eta antolatuko da, haur abandonatuak hazteko, txiro ezinduak sorosteko, eta ezinduak ez diren txiroei emateko berez lor ez dezaketen ogibide bat.

Hiritar guztiei komuna izanen zaien hezkuntza publiko bat sortu eta antolatuko da, doakoa gizaki guztiei beharrezkoak zaizkien hezkuntza alorretan, eta egoitzak gradualki banatuko dira, erresumaren barrutien arabera.

Frantziar iraultza gogoratzeko, hiritarren senidetasuna sustatzeko eta konstituzioarekiko, aberriarekiko eta legeekiko atxikimendua sortzeko festa nazionalak ezarriko dira.

Erresuma osoan komuna izanen den lege zibilen kodea egingo da.

BIGARREN TITULUA

ERRESUMAREN BANAKETAZ

ETA HIRITARREN ESTATUSARI BURUZ

Lehen artikulua:

Bakarra eta zatiezina da erresuma. Lurralde laurogeita hiru departamendutan banatzen da, departamendu bakoitza distritutan, distritu bakoitza kantonamendutan.

Bigarren artikulua:

Honakoak dira frantziar hiritarrak:

—Frantziar gurasoetatik jaioak.

—Gurasoak atzerritarrak izanik, Frantzian jaiota euren bizilekua erresuman finkatu dutenak.

—Frantziar gurasoak izanik, atzerrian jaio direlarik, Frantziara bizitzera etorri eta zin zibila egin dutenak.

—Azkenik, atzerrian jaio direlarik, eta erlijioa dela-eta erbesteuriko frantziar baten ondorengo direlarik edonolako mailan, Frantziara bizitzera etorri eta zin zibila egin dutenak.

Hirugarren artikulua:

Erresumatik kanpo atzerritar gurasoengandik jaioak, Frantzian bizi direlarik, frantziar hiritar bihurtzen dira, baldin eta erresuman bost

urte igaro badituzte jarraian, eta, gainera, lurrak eskuratu edo frantziar emaztea badute, edo nekazaritza edo merkataritza establezimendu bat eratu badute; betiere, zin zibila eginez gero.

Laugarren artikulua:

Botere legegileak, arrazoi garrantzitsuak direla medio, atzerritar bati naturalizazio akta bat eman diezaioke, Frantzian bizilekua izatea eta zin zibila egitea baino beste baldintzarik bete gabe.

Bosgarren artikulua:

Zin zibila honakoa da: *Zin egiten dut nazioari, legeari eta erregeari leial izanen natzaia, eta ahal dudan guztia egingo dudala Bil-tzar Nazional Konstituziogileak 1789, 1790 eta 1791 urteetan dekretaturiko erresumako konstituzioa manten dadin.*

Seigarren artikulua:

Frantziar hiritartasuna honakoekin galtzen da:

1. Atzerrian naturalizatzegatik.
2. Degradazio zibila ezartzen duten zigorretara kondenatua izateagatik; kondenatua birgaitua ez den bitartean.
3. Auzi-ihes egoeran epaitua izateagatik; epaia baliogabetua ez den artean.
4. Noblezia frogak, jaiotzetiko bereizketa edo erlijio botoak eskatzen dituen atzerriko zaldun ordena edo korporazio bateko kide izateagatik.

Zazpigarren artikulua:

Legeak kontratu zibil huts jotzen du ezkontza.

Botere legegileak biztanle guztientzat —bereizketarik gabe— ezarriko du modua jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak deklaratuak izan daitezen; eta aktak jaso eta mantenduko dituzten funtzionario publikoak izendatuko ditu.

Zortzigarren artikulua:

Frantziar hiritarrek, landatar eremuko distritu jakin batzuetan⁵ eta herrietan egiten dituzten bilkuren arabera kontsideratuta, *udalerriak*⁶ osatzen dituzte.

⁵ *Arrondissements*.

⁶ *Communes*.

Botere legegilearen esku egongo da udalerri bakoitzaren distrituaren zabalera finkatzea.

Bederatzigarren artikulua:

Udalerri bakoitza osatzen duten hiritarrek eskubidea dute, legeak ezarritako formak jarraiki, *udal funtzionario* titulua dutelarik, udalerriko gauza partikularrak kudeatzeko eginkizuna izanen duten pertsonak aldika hautatzeko euren artean.

Udal funtzionarioen esku utz daitezke estatuaren interes orokorrari dagozkion zenbait funtzioaren ardura.

Hamargarren artikulua:

Legeak ezarritako ditu udal funtzionarioek euren jardunean —udal arlokoetan zein interes orokorraren arabera haien esku utzirikotan— jarraitu beharko dituzten arauak.

HIRUGARREN TITULUA

BOTERE PUBLIKOEZ

Lehen artikulua:

Subiranotasuna bat, banaezina, besterenezina eta preskribaezina da. Nazioari dagokio; haren egikaritzea ezin du herriaren ezein zatik edo gizabanakok beretzat hartu.

Bigarren artikulua:

Nazioak, beronengandik baitatoz botere guztiak, ezin ditu botereak egikaritu ez bada eskuordetzaren bidez baizik.

Frantziar konstituzioa ordezkarietzazkoa da: gorputz legegilea eta erregea dira ordezkariak.

Hirugarren artikulua:

Herriak hautatuak diren behin-behineko ordezkari batzuek osaturiko Biltzar Nazionalaren esku uzten da botere legegilea; honek egikari dezan, erregearen berrespenarekin, ondoren zehaztuko den moduan.

Laugarren artikulua:

Gobernua monarkikoa da: botere betearazlea erregearen esku uzten da, beronen autoritatepean, zenbait ministrok nahiz beste eragile arduradun batzuek egikari dezaten, ondoren zehaztuko den moduan.

Bosgarren artikulua:

Herriak aldi baterako hautatuko dituen epaileen esku utziko da botere judiziala.

LEHEN KAPITULUA

BILTZAR NAZIONAL LEGEGILEAZ

Lehen artikulua:

Gorputz legegilea osatzen duen Biltzar Nazionala iraunkorra da, eta ganbera bakarrak osatzen du.

Bigarren artikulua:

Bi urtean behin hauteskunde berriek osatua izanen da. Bi urteko aldi bakoitzak legealdi bat osatuko du.

Hirugarren artikulua:

Aurreko artikuluko xedapenek ez dute eraginik 1793ko apirilean botereak bukatuko zaizkion gorputz legegilearengan.

Laugarren artikulua:

Gorputz legegilearen berriztapena zuzenbide osoz egingo da.

Bosgarren artikulua:

Erregeak ezin izanen du gorputz legegilea desegin.

LEHEN ATALA

Ordezkarien kopurua. Ordezkaritza oinarriak.

Lehen artikulua:

Gorputz legegileko ordezkari kopurua zazpiehun eta berrogeita bostekoa da, erresuma osatzen duten laurogeita hiru departamenduen

proportzioan, eta koloniei eman dakiekeen ordezkarien zenbatekoa edozein delarik ere.

Bigarren artikulua:

Ordezkariek laurogeita hiru departamenduetan banatuko dira, lurraldearen, populazioaren eta zuzeneko kontribuzioaren arabera.

[...]

BIGARREN ATALA

Lehen mailako biltzarrak⁷. Hautesleen izendapena.

Lehen artikulua:

Biltzar Nazional Legegilea eratzeko, hiritar aktibo guztiak lehen mailako biltzarretan bilduko dira hiri eta kantonamenduetan.

Lehen mailako biltzarrak eskubide osoz eratuko dira martxoaren bigarren igandean, betiere, legeak finkaturiko funtzionario publikoek ez baldin badituzte beranduago deitzen.

Bigarren artikulua:

Hiritar aktibo izateko beharrezkoa da:

—Frantses jaioa edo bilakatua izatea.

—Hogeita bost urte beteak izatea.

—Legeak ezarritako denboraldian hiriko edo kantonamenduko biztanle izatea.

—Erresumako lekuren batean, gutxienez hiru eguneko soldataren balioa duen zuzeneko zerga ordaindua izan, eta ordainagiria aurkeztea.

—Ez egotea morrontasun egoeran, hau da, ordainsari baten truk zerbitzari.

—Guardia nazionalen erroldan norbere bizilekuko eskualdean erregistratua egotea.

—Zin zibila egin izana.

[...]

⁷ *Assemblée primaires.*

Bosgarren artikulua:

Hiritar aktiboaren eskubideen erabilera ukatzen zaie honakoei:

—Akusazio egoeran direnei;

—Benetako ebidentziarekin, sosik edo kaudimenik gabe daude-la deklaratuak direnei, euren hartzekodunengandik ez baldin badute jasotzen deskargu orokorrik.

Seigarren artikulua:

Lehen mailako biltzarrek hautesleak izendatuko dituzte, hirian edo kantonamenduan helbideraturiko hiritar aktiboek kopuruaren proportzioan.

Hautesle bat izendatuko da biltzarrean bertaraturiko, edo bertaratu gabeko, ehun hiritarreko.

Bi hautesle izendatuko dira, ehun eta berrogeita hamarretik aurrera, beste bat, berrehun eta berrogeita hamarretik aurrera, eta abar.

Zazpigarren artikulua:

Inor ezin izanen da hautesle izendatua izan, hiritar aktibo izateko baldintzez gain ez baditu honakoak betetzen:

—Sei mila biztanle baino gehiagoko hirietan, kontribuzio erregistroan tokiko balioaren arabera berrehun laneguneko irabaziaren baliokidea den ondasun baten jabe edo gozamendun izatea, edo erregistro berean ehun eta berrogeita hamar laneguneko irabaziaren baliokidea den bizileku baten errentari izatea.

—Sei mila biztanle baino gutxiagoko hirietan, kontribuzio erregistroan tokiko balioaren arabera ehun eta berrogeita hamar laneguneko irabaziaren baliokidea den ondasun baten jabe edo gozamendun izatea, edo erregistro berean ehun laneguneko irabaziaren baliokidea den bizileku baten errentari izatea.

—Eta landetan, kontribuzio erregistroan tokiko balioaren arabera ehun eta berrogeita hamar laneguneko irabaziaren baliokidea den ondasun baten jabe edo gozamendun izatea, edo erregistro berean laurahun laneguneko irabaziaren baliokidea diren ondasunen baserritar edo partzuer izatea.

Aldi berean, jabe edo gozamendun nahiz errentari, baserritar edo partzuer direnei dagokienez, titulu anitz horietatik datozkien iraba-

ziak batu egingo dira, haien hautagarritasuna osatzeko beharrezkoa denera arte.

HIRUGARREN ATALA

Hauteskunde biltzarrak. Ordezkarien izendapena.

Lehen artikulua:

Departamendu bakoitzean izendaturiko hautesleak bildu egingo dira haien departamenduak izendatu behar duen ordezkari kopurua hautatzeko, baita hautesleen herena izanen diren aurrekoen ordezkoak ere.

Hauteskunde biltzarrak eskubide osoz osatuko dira martxoaren azken igandean, legeak ezarritako funtzionario publikoek ez baldin badituzte lehenago deitu.

Bigarren artikulua:

Ordezkariak eta berorien ordezkoak botoen gehiengo absolutuarekin hautatuko dira. Departamenduko hiritar aktiboen artean hautatuko dira soilik.

Hirugarren artikulua:

Hiritar aktibo guztiak, euren egoera zibila, ogibidea edo kontribuzioa edonolakoa delarik, hautesgarri dira nazioko ordezkari gisa.

[...]

LAUGARREN ATALA

Lehen mailako biltzarren eta hauteskunde biltzarren gauzatzea eta erregimena.

Lehen artikulua:

Lehen mailako biltzarren eta hauteskunde biltzarren funtzioa hautespenera mugatzen da. Hautespenak eginak direnean biltzarrok desegingo dira, eta ezin dira ostera bildu deialdi berri bat gertatzen denera arte, goragoko lehen artikuluaaren bigarren eta hirugarren ataletako kasuetan izan ezik.

[...]

BOSGARREN ATALA

Biltzar Nazional Legegilean ordezkarien bilkura.

[...]

Seigarren artikulua:

Ordezkariek denek elkarrekin, frantses herriaren izenean, *libre bizi ala hil* zin egingo dute.

Ondoren, banaka zin egingo dute *Biltzar Nazional Konstituziogileak 1789, 1790 eta 1791 urteetan dekretatu duen erresumako konstituzioa ahalmen osoarekin mantentzea, erresumari kalte egin diezaiokeenik ez proposatzea edo onestea legealdian zehar, eta nazioari, legerari eta erregeari leial izatea.*

Zazpigarren artikulua:

Nazioaren ordezkariak ezin bortxatuak dira: euren ordezkaritza-funtzioen betetzean esaten edo idazten duten ezergatik ezin dira galdekatuak, akusatuak edo epaituak izan.

Zortzigarren artikulua:

Ekintza kriminalei dagokienez, delitu gorian edo atxilotze agindu bat dela medio atzituak izan daitezke, baina, berandutu barik, gorputz legegileari gatzigatuko zaio horren inguruan. Gorputz legegileak akusaziorako arrazoirik dagoela erabakitzen duenean soilik jarrai dezake prozedurak.

BIGARREN KAPITULUA

MONARKIARI, ZUZENDARITZARI ETA MINISTROEI BURUZ

LEHEN ATALA

Monarkiari eta erregeari buruz.

Lehen artikulua:

Monarkia banaezina da, eta jaraunspenez transmititzen da errege-leinuaren baitan gizonezkoetik gizonezkora, premutasun bidez, emakumeak eta berorien oinordekoak kanpo uzten direlarik (karguari uko

egiteak dakartzan ondorioei buruz, orain agintzen duen errege-leinua-
ren inguruan, ez da ezer aurreikusten).

Bigarren artikulua:

Erregearen pertsona ezin bortxatua eta sakratua da; *frantsesen errege* da daukan titulu soila.

Hirugarren artikulua:

Frantzian ez dago legearen gainetiko autoritaterik. Erregeak horren arabera agintzen du soilik, eta legearen izenean soilik eska deza-
ke hark obedientzia.

Laugarren artikulua:

Erregeak, tronura iristen denean, edo adin nagusitasunera iris-
tean, nazioari emango dio, gorputz legegilearen aurrean, honako zin
egitea: *nazioari eta legeari leial izatea, eta 1789, 1790 eta 1791 urte-
etan Biltzar Nazional Legegileak dekretaturiko konstituzioa manten-
tzeko eta legeak betearazteko erabiltzea berarengan ezartzen den
botere osoa*. Gorputz legegilea ez baldin badago bilduta, erregeak
proklamazio bat publikaraziko du, bertan adieraziko direlarik zin egi-
tea eta —gorputz legegilea biltzen denean— zin egite hori errepikatu-
ko delako promesa.

[...]

Seigarren artikulua:

Erregeak, armada baten buru ezarririk, indarrak nazioaren aurka
zuzentzen baldin baditu, edo ez baldin badio ekintza formal baten bidez
bere izenean burutzen den halako jarduera bati oposaketarik egiten,
erregegoaz abdikatu duela kontsideratuko da.

[...]

Zortzigarren artikulua:

Abdikazio adierazi edo legal horren ostean, erregea hiritarren
klasean sartuko da, eta horiek bezala akusatua eta epaitua izan daiteke,
betiere, bere abdikazioaren ondoren eginiko ekintzengatik.

[...]

HIRUGARREN ATALA

Erregearen familiaz.

Lehen artikulua:

Erregegoaren balizko oinordeak *printze erregetiar* titulua izanen du.

Ezin izanen du erresumatik irten gorputz legebilearen dekreturik eta erregearen onespénik gabe.

Irten baldin bada, hamazortzi urte betetzen baditu, eta ez baldin bada ostera ere Frantziara itzultzen, gorputz legebileak eginiko proklamazio baten bidez hala eskatzen zaionean, tronuari ondozengozatik abdikatu duela kontsideratuko da.

[...]

LAUGARREN ATALA

Ministroei buruz.

Lehen artikulua:

Erregeari soilik dagokio ministroak hautatzea eta kentzea.

[...]

Laugarren artikulua:

Erregearen ezein agindu ez da egikarituko, ez baldin badu hark izenpetzen eta ministroak edo departamenduko buruak berresten.

Bosgarren artikulua:

Ministroak erantzule dira segurtasun nazionalaren edo konstituzioaren kontra euren eginiko delitu oro dela eta;

—Gizabanakoaren jabetzari eta askatasunari eginiko atentatu oro dela eta;

—Euren departamenduaren gastuetarako diruen xahutzeaz.

Seigarren artikulua:

Ezein kasutan, erregearen aginduak, ahoz zein idatziz, ez du ministroa erantzukizunaz salbuesten.

Zazpigarren artikulua:

Ministroek gorputz legegileari aurkeztu behar diete urtero, bileraren hasieran, euren departamenduan egin beharreko gastuen kalkulua, baita zertarako erabili behar diren kontu eman, eta gobernuaren atal anitzetan gerta izan daitezkeen abusuez gaztigatu ere.

Zortzigarren artikulua:

Gorputz legegilearen dekreturik gabe, ezin da auzipetu ezein ministro, lanean diharduenean edo ez, bere administrazioari dagokion auzi kriminala dela eta.

HIRUGARREN KAPITULUA

BOTERE LEGEGILEAREN EGIKARITZEAZ

LEHEN ATALA

Biltzar Nazional Legegilearen botere eta funtzioez.

Lehen artikulua:

Konstituzioak gorputz legegilearen esku eskusiboki uzten ditu honako botere eta funtzioak:

1. Legeak proposatzekoa eta dekretatzekoa: erregeak gorputz legegileari zerbeit kontuan hartzea aholka diezaioke soilik;

2. Gastu publikoak finkatzea;

3. Kontribuzio publikoak finkatzea, eta horien natura, kuota, iraupena eta jasotze modua erabakitzea;

4. Erresumako departamenduen artean kontribuzio zuzenaren banaketa egitea, diru-sarrera publiko guztien erabilera ikuskatzea, eta horietaz kontu emanaraztea;

5. Kargu publikoen sorrera edo kentzea dekretatzea;

6. Moneten titulua, pisua, inprimaketa eta izendadura zehaztea;

7. Batetik, frantziar lurretan atzerritar gudarosteen eta, bestetik, erresumako portuetan itsas armada atzerritarren sarrera baimentzea edo galaraztea;

8. Erregearen aholkuz, urtero erabakitzea lurreko eta itsasoko armadak izanen dituzten gizon eta itsasontzi kopurua; maila bakoitzak zenbat pertsona izanen dituen eta horien soldata; sartzeko eta igoerarako arauak, engaiatzeko eta uzteko formak, eskifaiei osadera; Frantziaren

zerbitzuan gudaroste edo itsas indarren onarpena; eta, lizentziamendu kasuetan, gudarosteen tratamendua;

9. Alor nazionalen kudeaketaz erabakitzea eta horien desjabetzea agintzea;

10. Auzitegi Nazional Gorenaren aurrean ministroen eta botere betearazlearen agente nagusien erantzukizuna eskatzea; auzitegi bera-
ren aurrean estatuaren segurtasun orokorraren eta konstituzioaren kon-
tra atentatu eta konplota egiteagatik atxilotuak direnak akusatu eta auzi-
petzea;

11. Estatuaren zerbitzuan jardun dutenei emango zaizkien ohore zeinu edo kondekorazio soilki pertsonalak emateko legeak ezartzea;

12. Gorputz legegileari soilik dagokio pertsonaia handien oroi-
tzapenerako ohore publikoak eskaintzea.

Bigarren artikulua:

Soilik gorputz legegilearen dekretu batek erabaki dezake guda egitea, erregeak proposamen formal eta beharrezkoa aurkeztuz onetsi ondoren.

Eraso gertukoak edo jada hasiak ematen direnean, aliatu bati laguntza eman behar zaionean, edo eskubide bat armen indarrez man-
tendu behar denean, erregeak —berandutu gabe— notifikazioa eman-
go dio gorputz legegileari, eta zioak ezagutaraziko ditu. Gorputz lege-
gilea oporretan baldin badago, erregeak berehala deituko du.

Gorputz legegileak erabakitzen badu ez dela gerrarik egin behar, erregeak berehalako neurriak hartuko ditu erasoak saihesteko edo gel-
diarazteko, eta ministroak izanen dira berandutzearen erantzule.

Hasiriko erasoak ministroei edo botere betearazleko beste edo-
zein agenteri egoz dakizkiekeen agresioak direla usteko balu gorputz
legegileak, erasoaren egileari krimen-auzia irekiko zaio.

Gerraren bilakabide osoan, gorputz legegileak erregeari bakea
negoziatzeko eska diezaioke; eta erregeak eskaera horri men egin
beharko dio.

Gerra bukatzen den unean, gorputz legegileak erabakiko du
bake garairako beharrezko ez diren gudarosteak zein alditan lizentzia-
tuko diren, eta ea armada bere egoera arruntera itzuli behar den.

Hirugarren artikulua:

Gorputz legegileari dagokio bake, aliantza eta merkataritza hitzarmenak egitea; eta inolako tratatuk ez du efekturik berrespen hori gabe.

[...]

HIRUGARREN ATALA

Erregearen berrespenaz.

Lehen artikulua:

Gorputz legegilearen dekretuak erregeari aurkeztuko zaizkio, beronek onespena uka diezaiekeelarik.

Bigarren artikulua:

Erregeak onespena ukatzen baldin badu, ukapen hori etenaraz-lea izanen da soilik.

Dekretua aurkeztu duen legealdiari darraizkion bi legealdiek jarraian aurkezten badute dekretu bera zehaztaperen berekin, orduan, erregeak berrespena eman duela kontsideratuko da.

[...]

LAUGARREN ATALA

Gorputz legegilearen eta erregearen arteko harremanak.

Lehen artikulua:

Gorputz legegilea eratua denean, berorrek erregeari ordezkari-tza bat bidaliko dio informatua izan dadin. Erregeak urtero hasiera eman diezaioke batzarraldiari, baita ere, haren ustez aldi horretan haus-nartuak izan beharko lirakeen auziak proposatu; nolanahi ere, forma-litate hori ez da beharrezkoa kontsideratuko gorputz legegileak jardun dezan.

[...]

Hirugarren artikulua:

Batzarraldi bakoitzaren bukaera baino zortzi egun lehenago behintzat, gorputz legegileak erregeari ordezkari-tza bat bidaliko dio,

biltzarra noiz bukatu asmo duen jakinarazteko; erregeak badauka batzarraldiari bukaera ematera joatea.

[...]

Bosgarren artikulua:

Erregeak, batzarraldien bitartean, gorputz legegilea deituko du, estatuaren interesak hala eskatzen duela iruditzen zaion bakoitzean, baita bilerak amaitu baino lehen ere, gorputz legegileak aurreikusitako eta zehaztutako kasuetan.

[...]

Zortzigarren artikulua:

Erregea bertaratua den artean, gorputz legegileak deliberatzeari utziko dio.

[...]

Hamargarren artikulua:

Erregearen ministroek badaukate Biltzar Nazional Legegilean sartzea, eta leku seinalatu bat egokituko zaie.

Entzun egingo zaie, haien kudeaketaren gaineko gaiei buruz zer-bait azaldu nahi dutenean, edo azalpenak ematea eskatzen zaienean.

Berdin entzungo zaie haien kudeaketatik at diren gaietan, Biltzar Nazionalak horretarako hitza eskaintzen dietenean.

LAUGARREN KAPITULUA

BOTERE LEGEGILEAREN EGIKARITZEAZ

Lehen artikulua:

Botere betearazle gorenaren erregearen esku dago eskusiboki.

Erregea da erresumako administrazio orokorraren buruzagi gorenaren: haren esku ezartzen da ordenaren eta lasaitasun publikoaren ardura.

Erregea da lur gudarosteen eta itsas armadaren buruzagi gorenaren.

Erregearen esku uzten da erresumaren kanpoko segurtasunaz nahiz eskubideak eta jabetzak mantentzeaz arduratzea.

Bigarren artikulua:

Erregeak izendatzen ditu enbaxadoreak eta negoziazio politiko-rako gainontzeko agenteak.

—Lur eta itsas armadako agintea ematen du, baita almirante eta Frantziako mariskal graduak ere.

—Kontra-almiranteen bi heren, eta teniente orokorren, landa-mariskalen, itsasontzietako kapitainen eta guardia nazionaleko koronelen erdia izendatzen du.

—Ontzietako koronel eta teniente-koronelen herena, eta tenienteen seirena izendatzen du.

Guztiak ere promozio arauen arabera.

—Itsas armadako administrazio zibilean, batetik, agintariak, kontrolatzaileak, armategietako altxorzainak, lanetako buruzagiak, eraikin zibiletako buruzagiordeak, eta, bestetik, administrazio buruzagien eta eraikuntzetako buruzagiordeen erdia izendatzen ditu.

—Auzitegietan komisarioak izendatzen ditu.

—Zeharkako kontribuzioen administrazioan eta eremu nazionalen administrazioan arduradun nagusiak izendatzen ditu.

—Txanponen fabrikazioa artatzen du, eta komisio orokorrean zein moneta ekoiztegiaren arduradun izatea egokitzen zaien funtzionarioak izendatzen ditu.

—Erregearen irudia erresumako txanpon guztietan azalduko da.

Hirugarren artikulua:

Erregeak bidalaraziko ditu gutun-patenteak, zertifikatuak eta komisioak, beroriek jasotzea egokitzen zaieneztat.

Laugarren artikulua:

Erregeak eginaraziko ditu pentsioen eta haborokinen zerrendak, saio bakoitzean gorputz legegileari aurkeztuko zaizkiolarik eta, beharrezkoa izanez gero, dekretatuak izanen direlarik.

LEHEN ATALA

Legeen promulgatzeaz.

Lehen artikulua:

Botere betearazleari dagokio legeak estatuaren zigiluarekin zigaraztea eta beroriek promulgaraztea.

Hari dagokio, halaber, erregearen berrespena behar ez duten gorputz legebilearen ekintzak promulgaraztea eta betearaztea.

[...]

Hirugarren artikulua:

Honako moduan emango da promulgazioa:

«I-k (*erregearen izena*), Jainkoaren graziaz, eta estatuko lege konstituzionalaren bidez, frantziarren erregek, bertaturikoei eta etortzear direnei, agur. Biltzar Nazionalak dekretatu du, eta Guk hala nahi dugu eta agintzen dugu honakoa:» (*dekretuaren kopia literala jarriko da inolako aldaketarik gabe*)

«Administrazio gorputz guztiei eta auzitegi guztiei agintzen diegu, honakoak euren erregistroetan jasoak izatea, euren departamentu eta jurisdikzioetan irakurraztea, publikatzea eta agerraraztea, eta erresumako lege moduan betearaztea. Beronen lekuko, honakoak izenpetu ditugu, eta estatuaren zigilua jarrazi diegu.»

[...]

Seigarren artikulua:

Botere betearazleak ezin du inolako legerik egin, ezta aldi batekorik ere, ezpada legeen arabeko proklamazioak soilik, haien bete-arazpena agintzeko edo gaitzitzeko.

[...]

HIRUGARREN ATALA

Kanpo harremanei buruz.

Lehen artikulua:

Soilik erregeari dagokio kanpo harreman politikoak izatea, negoziazioak zuzentzea, auzoko estatuen prestaketen arabekoak izan diren gudarako prestaketak egitea, komenigarria iruditzen zaion moduan lurreko eta itsasoko indarrak antolatzea, eta, gerrarik balego, haien zuzendaritzaz arduratzea.

Bigarren artikulua:

Gerra deklarazio oro honako hitzekin adieraziko da: *frantziarren erregearen partez, nazioaren izenean.*

Hirugarren artikulua:

Erregeari dagokio atzerriko botereekin denekin bake, aliantza eta merkataritza hitzarmen oro etetea edo izenpetzea, halaber, estatua-ren onerako onak iruditzen zaizkion gainerako akordio guztiak, betiere, gorputz legegilearen mende.

BOSGARREN KAPITULUA

BOTERE JUDIZIALAZ

Lehen artikulua:

Ez gorputz legegileak, ez erregeak, biek ere ezin dute inolaz botere judiziala egikaritu.

Bigarren artikulua:

Herriak periodikoki hautaturiko epaileek, erregeak ezin errefusatuko dituen gutun-patenteen bidez izendatuak izanen direnek, horiek doan egingo dute justizia.

Ezin izanen dira kargutik kendu, ez baldin bada behar bezala juzgaturiko prebarikazioa dela eta; ezta euren jarduna eten ere, ez baldin bada onarturiko salaketa bat dela medio.

Herriak hautatuko du akusatzaile publikoa.

Hirugarren artikulua:

Auzitegiek ezin dute, ez gorputz legegilearen eginkizunean tar-tean sartu, ez legeen egikaritzea eten, ez administrazio funtzioak bete, ezta administratzaileak haien aurrean zitatu ere, azken horien funtzioak direla eta.

Laugarren artikulua:

Ezin dira hiritarrak behartu legeak eskaintzen dizkien epaileeta-tik desberdinak diren epaileen aurrean agertzera, legeak zehazten ditue-nak ez diren komisioak, atribuzioak edo goragoko baten eskumen bere-ganatzeak direla medio.

Bosgarren artikulua:

Botere legegileak ezin du inolaz ere oztopatu hiritarrek euren eztabaidak arbitrajearen bidez definitiboki finkatzeko duten eskubidea.

Seigarren artikulua:

Auzitegi arruntek ezin dute ekintza zibilik onartu, ez baldin bada justifikatzen alderdiak bertaratu direla, edo auzi-jartzaileak ez baldin badu aurkako alderdia deitzen artekarien bitartez akordio batera iristeko.

Zazpigarren artikulua:

Bake-epaile bat edo gehiago egongo dira kantonamenduetan nahiz hirietan. Botere legegileak erabakiko du horien kopurua.

Zortzigarren artikulua:

Botere legegileari dagokio arautzea auzitegien kopurua eta jurisdikzioa, baita auzitegi bakoitza osatuko duten epaileen kopurua ere.

Bederatzigarren artikulua:

Auzi kriminaletan, ezein hiritar ezin da epaitua izan, ez baldin bada epaileek onarturiko salaketa bat dela medio, edo gorputz legegileak dekretaturikoa dela medio, azken honi badagokio prozesua burutzea.

Salaketa onartua izan ostean, epaileek gertakariak aztertu eta horien gaineko deklarazioa egingo dute.

Akusatuak hogeitazetaz aukera du; horretarako arrazoiak azaldu barik.

Gertakariari buruz deklaratu behar duten zinpekoak ezin dira hamabi baino gehiago izan.

Epaileei dagokie legearen aplikazioa.

Instrukzioa publikoa izanen da, eta akusatuak ezin zaie uka aholkularitzarik.

Legezko epaimahai batek absolbituriko pertsona ezin da ostera ere atxilotua edo akusatua izan gertakari bera dela medio.

Hamargarren artikulua:

Ezin da inor atxilotu, ez baldin bada poliziako ofizial baten aurrera eroana izateko; ezin da atxiki edo atxilotu, ez badago poliziaren ofizialen mandaturik, auzitegi batek emandako atxilotze agindurik, gorputz legegilearen —berorri dagokionean— akusazio dekreturik, edo espetxeratze edo zentzamendu atxilotze kondenarik.

Hamaikagarren artikulua:

Poliziaren aurrera eroandako pertsona oro unean bertan aztertu-ko da, edo gehien jota hogeita lau orduko epe barruan.

Azterketak erakutsiko balu ez dagoela haren aurka erruztapene-rako arrazoirik, berehala aske utziko da; aldiz, beharrezkoa baldin bada atxilotze-etxera bidaltzea, ahalik eta azkarren bidaliko da hara, inolaz ere hiru egun baino geroago.

Hamabigarren artikulua:

Fidantza nahikoa ematea daukanean, atxilotua den inor ezin da atxilotua mantendu, legeak fidantzapean libre irtetea baimentzen baldin badio.

Hamahirugarren artikulua:

Legeak haren atxilotzea baimentzen duen arren, ezin da inor eroan edo atxilotu, ez baldin bada atxilotze-etxe, auzitegi edo espetxe bezala erabiliak izateko publikoki eta legalki izendatuak diren lekueta-ra edo lekuetan baizik.

Hamalagarren artikulua:

Ezein zaindarik edo kartzelarik ezin du inor atxiki edo atxilotu, ez baldin bada gorago hamargarren artikuluan aipatzen diren atxilotze mandatu edo agindu bat, akusazio dekretu bat edo kondena bat dela medio, eta erregistroan dagokion transkripzioa egin eta gero.

Hamabosgarren artikulua:

Zaindarik edo kartzelarik orok atxilotua den pertsona aurkeztu behar du atxilotze-etxeko poliziak duen ofizial zibilaren aurrean, honek eskatzen dion aldi oro, ezein aginduk hori egitea ezin eragoz diezaio-keelarik.

Atxilotutako pertsonaren ahaide eta lagunei ezin zaie ukatu atxilotua haien aurrean agerrarazia izatea, funtzionario zibilaren agin-dua badaramate. Agindu horri men egin beharko zaio, betiere, zain-dariak edo kartzelariak ez baldin badu aurkezten epailearen agindu bat, erregistroan agertzen dena, eta atxilotua bakartua izan behar dela dioena.

Hamaseigarren artikulua:

Atxilotze arbitrarioa egitearen delitua lepora dakioke honakoei: legeak norbait atxilotzeko eskubidea ematen ez diolarik, eta edozein delarik ere bere maila edo ogibidea, hiritar bat —edo beste edonor— atxilotzeko agindua ematen, sinatzen, gauzatzen edo gauzarazten duena; legeak atxiloketa baimentzen duen kasuan, publikoki eta legal-ki xede horretarako baimendua ez den leku batera hiritar bat atxilotuta eroaten, jasotzen edo mantentzen duena; eta, halaber, gorago 14 eta 15 artikuluetan aipaturikoaren aurka egiten duen zaindaria edo kartzelaria.

Hamazazpigarren artikulua:

Inor ezin da ikertua edo auzipetua izan inprimarazi edo publikarazi dituen idatzia direla eta, edozein delarik gaia, betiere, legea desobeditzeko, ezarritako botereen izena zikintzeko, horien ekintzei aurka egiteko, edo legeak krimentzat edo delitutzat jotzen dituen ekintzak sustatzeko asmoz idatzia ez baldin badira.

Ezarritako botereen ekintzen gaitzespena zilegi da; baina, funtzionario publikoen zintzotasunaren eta intentzio zuzentasunaren aurkako kalumnien, nahita eginak delaririk, kalumnia horien objektu direnen partetik auziperatzea ekar dezakete.

Pertsona baten bizitza pribatuaren inguruan eginiko kalumnia nahiz irainak auzitara eroan eta zigortu egingo dira.

Hamazortzigarren artikulua:

Ezin da inor epaitu, ez bide zibiletik, ez bide kriminaletik, inprimaturiko edo publikaturiko idazkiak direla eta, epaimahai batek ez baldin badu honakoa ezagutu eta deklaritzen: 1. denuntziaturiko idazkian deliturik dagoela; 2. auzipeturiko pertsona erruduna dela.

Hemeretzigarren artikulua:

Erresuma osoan kasazioko auzitegi bakarra egongo da, gorputz legegilearengandik gertu. Haren funtzioa izanen da honakoen gainean erabakitzea:

—Auzitegiek azken auzialdian emaniko erabakien aurka egini-ko kasazio-demandetan;

—Susmo legitimoa ematen denean, auzitegi batetik bestera itzultzeko demandetan;

—Epaileen araudiari buruz eta auzitegi oso bat errefusatzeari buruz.

Hogeigarren artikulua:

Kasazio gaitan, kasazioko auzitegiak inoiz ere ezin izanen du auziaren funtsa aztertu; aldiz, formak urratu zaizkion edo legearen aurka egin duen auzi bateko prozeduraren gainean kasazioa eman ostean, auziaren oinarria igorri egingo du berau ezagutu behar duen auzitegira.

Hogeita batgarren artikulua:

Kasazio bi ondoren hirugarren auzitegi baten epaia lehen bietan bezala zalantzan jartzen denean, auzia ezin izanen da gehiago kasazioko auzitegira igorri, aldiz, lehenik gorputz legegilearen esku ezarriko da, honek legearen dekretu deklaratzailerik bat egingo du, eta kasazioko auzitegiak dekretu horri men egin beharko dio.

Hogeita bigarren artikulua:

Kasazioko auzitegiak urtero bidaliko du gorputz legegilearen aurrera auzitegiko kideetako zortzik osaturiko ordezkari bat, emandako epaiei buruzko txostena aurkeztuko duenari, bertan auziaren berri emango da laburki eta epaia determinatu duen testua agertuko da.

Hogeita hirugarren artikulua:

Auzitegi nazional goren batek, kasazioko auzitegiko kideek eta epaile gorenak osatuak, ezagutuko dituzten ministroen eta botere betearazleko agente nagusien delituak, eta estatuaren segurtasun orokorrari eraso egiten dioten krimenak, gorputz legegileak salaketa dekretu bat eman ondoren.

Soilik gorputz legegileak hala proklamatzeko duenean bilduko da auzitegi hori, legislaturak bere saioak izaten lekutik behintzat 30.000 toise-ko⁸ distantzian dagoen gune batean.

Hogeita laugarren artikulua:

Epaiei idatzagiri betearazleak honako moduan emango dira:

⁸ Gutxi gorabehera 60 kilometro: 30.000 toise x 1,949 m: 58.470 m.

«I.-k (*erregearen izena*), Jainkoaren graziaz eta estatuko lege konstituzionalaren bidez, frantziarren erregek, bertaturiko eta etortzearek direnei, agur. (...) x-ko auzitegiak honako epaia eman du: (*hemen epaia, epaileen izenekin batera, kopia egingo da*).

Agua zil guztiei eskatzen diegu, eskaera honen bidez, epai hau betearaz dezatela, epaitegiaren komisarioei, lagun dezatela, eta indar publikoko komandante eta ofizial guztiei, indarrak prest izan ditzatela laguntzeko, legalki hala eskatzen zaienean. Lekuko moduan, honako epaia auzitegiaren presidenteak eta eskribauak izenpetu dute».

Hogeita bosgarren artikulua:

Erregeak auzitegiaren dituen komisarioen funtzioak honakoak dira: ematen diren epaiekin legeak bete daitezela zaintzea, eta emandako epaiak betearaztea.

Ez dira akusatzaile publikoak izanen, ezpada akusazio guztietan entzunak izanen dira, formen zuzentasuna eskatuko dute prozeduran zehar eta, epaia baino lehen, legearen aplikazioa.

Hogeita seigarren artikulua:

Erregeak auzitegiaren dituen komisarioek epaimahaiko zuzendariaren aurrean honakoak salatuko dituzte, bai ofizioz, bai erregeak aginduta:

—Hiritarren askatasun indibidualaren aurkako, merkataritzako substantzien eta gainerako objektuen zirkulazioaren aurkako, eta kontribuzioen jasotzearen aurkako atentatuak;

—Erregearen esku dauden funtzioen betetzean emaniko aginduen betetzea oztopatzen edo eragozten duten delituak;

—Nazioarteko zuzenbidearen⁹ aurkako atentatuak;

—Epaiekin betetzearen aurkako erreboltak, baita finkaturiko botereengandik datozen ekintza betearazle guztien aurkakoak ere.

Hogeita zazpigarren artikulua:

Epaileek euren botereen mugak gainditzen dituztenean, justizia ministroak kasazioko auzitegiaren aurrean salatuko ditu urraketa

⁹ *Droit de gens*: jendeen zuzenbidea.

horiek, erregearen komisarioaren bidez, eta alderdi interesatuen esku-bideari kalterik egin gabe.

Auzitegiak deuseztatu egingo ditu; eta, prebarikazioa eragiten badute, gertakizuna gorputz legegilearen aurrean salatuko da. Honek, beharrezko balitz, salaketa dekretua emango du, eta akusatua denak Auzitegi Nazional Gorenera igorriko ditu.

LAUGARREN TITULUA

INDAR PUBLIKOAZ

Lehen artikulua:

Estatua atzerriko arerioengandik defendatzeko dago indar publikoa, baita barnean ordena segurtatzeko eta legeak beteak izan daitezen ere.

Bigarren artikulua:

Honakoez osatzen dute: lurreko eta itsasoko armadak; bereziki barnean zerbitzatzen duen gudarosteak; eta subsidiarioki hiritar aktiboez eta armak eroateko gai diren horien haurrek, guardia nazionalaren erroldan euren izena ezarria izanen dutenak.

Hirugarren artikulua:

Guardia nazionalek ez dute osatzen ez gorputz militar bat, ez estatuaren barneko erakunde bat ere; indar publikoaren zerbitzurako deituriko hiritarrak dira.

Laugarren artikulua:

Hiritarrek ezin dute guardia nazional moduan euren kabuz jardun edo taldea eratu, ez baldin bada errekerimendu edo baimen legal bat dela medio.

Bosgarren artikulua:

Izaera hori dela eta, legeak zehazturiko erakunde baten menpekoak dira.

Erresuma osoan diziplina eta uniforme bera izan beharko dute.

Gradu bereizketak eta mendekotasunak ez dute irauten zerbituari dagokionez eta berorrek dirauen artean baizik.

Seigarren artikulua:

Ofizialak denboraldi baterako hautatuak dira, eta ezin dira ostera hautatuak izan, ez baldin bada soldadu moduan aldi batean jardun ondoren baino.

Inork ez du aginduko distritu bateko baino gehiagoko guardia nazionala.

Zazpigarren artikulua:

Indar publikoko atal guztiek, atzerriko arerio baten aurka estatutaren segurtasunerako erabiliek, erregearen agindupean jardungo dute.

Zortzigarren artikulua:

Ezein gorputzek edo gudaroste destakamendu erregularrek ezin du erresumaren barnean jardun, ez baldin bada legezko errekerimendu bat dela medio.

Bederatzigarren artikulua:

Indar publikoko ezein agentek ezin du hiritar baten etxebizitzan sartu, ez baldin bada poliziaren eta justiziaren aginduen betetzeko, legeak formalki aurreikusten dituen kasuetan.

Hamargarren artikulua:

Erresumaren barne indar publikoari dei egitea ofizial zibilei dagokie, botere legegileak ezarritako arauak jarraituz.

Hamaikagarren artikulua:

Arazoek departamendu oso bati erasaten badiete, erregeak, bere ministroak erantzule direlarik, legeen betetzeko eta ordenaren berrezartzeko agindu beharrezkoak emango ditu, baina gorputz legegilea bil-durik badago, berau gaztigatzeko baldintzapean, eta, oporretan badago, xede horretarako deitzeko baldintzapean.

Hamabigarren artikulua:

Indar publikoa esentzialki esanekoa da; ezein gorputz armaturik ez dagokio deliberatzea.

Hamahirugarren artikulua:

Lurreko eta itsasoko armada, eta barne segurtasuna artatzen duen gudarostea, denak ere lege partikularren menpekoak dira, bai diziplina mantentzeko dagokionez, bai delitu militarren alorrean epaien formei eta zigorren izaerari dagokionez.

BOSGARREN TITULUA

KONTRIBUZIO PUBLIKOEZ

Lehen artikulua:

Gorputz legegileak erabakiko eta finkatuko ditu kontribuzio publikoak urtero, eta hura osatzen duten kideek ezin dute jarraitu hurrengo saioko azken egunetik haratago, betiere, ez baldin badira espresuki berrituak.

Bigarren artikulua:

Inolako aitzakiapean, zor nazionalako eta zerrenda zibileko¹⁰ ordainketa kitatzeko beharrezkoak diren fondoak ezin izanen dira uka-tuak edo etenak izan.

Biltzar Nazional Legegilearen dekretuen bidez pentsioa eman-dako, karguan mantenduriko, hautaturiko edo izendaturiko gurmen katolikoko apaizen sariak zor nazionalaren barne dira.

Gorputz legegileak ezin du, ezein kasutan, nazioaren gain ezarri gizabanako baten zorren kitapena.

Hirugarren artikulua:

Ministro-sailetako gastuen kontu zehatzak, ministroek edo administratzaile orokorrek sinatuak eta zertifikatuak, publiko egingo dira legealdi bakoitzeko saioen hasieran inprimatuz.

Gauza bera gertatuko da kontribuzio anitzen ordainagirien zein errenta publiko guztien egoera-orriarekin.

Gastu eta sarrera horien egoera-orriak euren naturaren arabera bereiztuko dira, eta distritu bakoitzean urtez urte jasotako eta emanda-ko kopuruak adieraziko dituzte.

Departamendu bakoitzeko gastu partikularrak, eta auzitegiei, gorputz administratiboei eta gainerako erakundeei dagozkienak berdin egingo dira publiko.

¹⁰ *Liste civile*: Erregearen zerrenda zibilak barne ditu estatuak estatu-buruaren esku-ra ezartzen dituen baliabideak: batetik, diru-hornidura finko bat eskaintzen dio, bes-tetik, erregeari ondasun higiezinaren erabilpena bermatzen dio.

Laugarren artikulua:

Departamenduetako administratzaileek eta administratzaileordeek ezin izanen dute inolako kontribuzio publikorik ezarri, ezta gorputz legeak finkaturiko kopuru eta garaietatik kanpo banaketarik egin ere, edo departamenduko hiritarren kontu ezarritako tokiko jesa-penik erabaki nahiz baimendu, hark baimenduak izan gabe.

Bosgarren artikulua:

Botere betearazleak zuzendu eta zainduko du kontribuzioen jasotzea eta ordainketa, bestetik, horretarako agindu beharrezko guz-tiak emango ditu halaber.

SEIGARREN TITULUA

FRANTZIAR NAZIOAREN ETA ATZERRIKO NAZIOEN ARTEKO HARREMANAZ

Frantziar nazioak uko egiten dio konkistak lortzeko guda egite-ari, eta ez ditu inoiz bere indarrak erabiliko ezein herriren askatasuna-ren aurka.

Atzerritar bat hiltzerakoan jaun batek haren ondasunak jaraunste-ko lukeen eskubidea¹¹ ez du konstituzioak onartzen. Frantzian edo kanpoan finkaturiko atzerritarrei euren ahaide frantziarrek edo bestela-koek jarauntsiko diete. Frantzian kokaturiko ondasunak kontratatu, eskuratu edo jaso ditzakete, baita horiek ukan ere, edozein frantziar hiritarrek bezala, legeak baimentzen dien modu orotan.

Frantzian dauden atzerritarrek berdin dira, hiritar frantsesak bezala, bertako polizia eta krimen legeei atxikiak, atzerritar botereekin harturiko hitzarmenekin salbu; euren pertsonak, euren ondasunak, euren industria, euren gurmena berdin babesten ditu legeak.

ZAZPIGARREN TITULUA

KONSTITUZIO DEKRETUEN BERRIKUSTEA

Lehen artikulua:

Nazioak bere konstituzioa aldatzeko eskubide preskribaezina duela adierazten du Biltzar Nazional Legegileak; alabaina, kontuan har-

¹¹ *Droit d'aubaine.*

tuz interes nazionalari egokiago zaiola konstituzioan bertan agertzen diren bideen bitartez soilik erreformatzea esperientziak ezegokiak frogatu dituen artikulua, hortaz, berrikuste biltzar batek burutuko du eginkizun hori, ondoren azaltzen den moduan.

Bigarren artikulua:

Konstituzioko artikulua baten aldaketa eskatzen baldin bada hiru legealdi jarraian, boto uniformea emanaz, eskatutako berrikustea emango da.

Hirugarren artikulua:

Hurrengo bi legealdietan ezin izanen da konstituzioaren ezein artikuluren berrikustea proposatu.

Laugarren artikulua:

Aldaketak proposa ditzaketen hiru legealdietan, lehen biak euren azken saioko bi azken hilabeteetan soilik arduratuko dira aldaketez, eta, hirugarren legealdia, urteroko lehen saioko bukaeran, edo bigarrenaren hasieran.

Ekintza legegileek dauzkaten forma beren menpe egongo dira gai horren inguruan egiten dituzten deliberazioak; alabaina, euren borondatea adierazten duten dekretuak ez dira erregearen berrespeneren menpe.

Bosgarren artikulua:

Laugarren legealdiak, departamendu bakoitzean hautaturiko berrehun eta berrogeita bederatzi kide gehituko zaizkiolarik, departamenduaren populazioaren ohiko kopuruaren bikoizketaren bidez, horrek osatuko du berrikuste biltzarra.

Berrehun eta berrogeita bederatzi kide horiek gorputz legegilearen ordezkarien izendapena amaitu ostean hautatuko dira, eta akta bereizi batean egingo da hautaketa hori.

Berrikuste biltzarra ganbera bakarrak osatuko du.

Seigarren artikulua:

Aldaketa eskatu duen hirugarren legealdiko kideak ezin dira berrikuste biltzarrerako hautatuak izan.

Zazpigarren artikulua:

Berrikuste biltzarreko kideek, *libre bizi ala hil* zin egin ostean, banan-banan zin egingo dute *aurreko legealdietako borondate uniformeak eman dizkien gaietara soilik lerratzea; gainera, 1789, 1790 eta 1791 urteetan Biltzar Nazional Legegileak dekretaturiko erresumako konstituzioa euren ahalmen guztiarekin mantentzea, eta guztiak ere nazioari, legeari eta erregeari leial izatea.*

Zortzigarren artikulua:

Berrikuste biltzarra, ondoren, eta berandutu barik, berorri aztertzeko igorri zaizkion objektuen inguruan arituko da. Daukan eginkizuna bukatu eta segituan, izendaturiko berrehun eta berrogeita bederatzi kide gehigarriek zeregina utziko dute, inolaz ere ezin izanen dutelarik ekintza legegileetan parte hartu.

Asia, Afrika eta Amerikako frantziar kolonia eta lurraldeak, nahiz eta frantziar inperioaren zati diren, ez daude honako konstituzio honen barne.

Konstituzio honek ematen dituen botereetarik ezeinek ez du baimentzen konstituzioaren osotasuna zein atalak aldatzea, berrikustearen bidetik egin daitezkeen aldaketak salbu, VII. Tituluan aipaturiko xedapenak jarraituz.

Biltzar Nazional Legegileak, batetik, gorputz legegilearen, erregearen eta epaileen leialtasunaren eta, bestetik, familiako aiten, emazte eta amen arretaren, hiritar gazteen afektuaren eta frantziar guztien kuraiaren esku uzten du konstituzioa.

Konstituzioaren aktan jaso ez arren, Biltzar Nazional Legegileak ematen dituen dekretuak lege moduan beteko dira; eta hark ezeztatu ez dituen aurreko legeak berdin beteko dira, harik eta botere legegileak batzuk zein besteak ezeztatu edo aldatu egiten dituen arte.

Biltzar Nazionalak, gorago aipaturiko konstituzio akta irakurria entzun ondoren, eta berau onartu ostean, deklaratu du konstituzioa burutua dela, eta ezin alda daitekeela.

Berehala izendatuko da hirurogei kideko ordezkaritza bat, egunean bertan, erregeari konstituzio akta aurkezteko.

3.

1814KO EKAINEKO KONSTITUZIO GUTUNA*

Louisek, Jainkoaren graziaz Frantziako eta Nafarroako erregek, honako dohainak dagozkien guztiei, agur.

Probidentzia jainkotiarrak, urrunaldi luze baten ostean gure estatuetara deitu gaituelarik, gudan betebeharrak ezarri ditu. Gure menpekoei lehen beharra bakea zen: horretan saiatu gara atsedenik gabe, eta Frantziarentzat zein Europako gainontzeko herrialdeentzat hain beharrezkoa zen bakea sinatu da.

Erresumaren egungo egoerak konstituzio gutun bat eskatzen zuen; promestu genuen, eta orain publikatzen dugu. Kontuan hartu dugu ezen, Frantziako autoritate osoa erregearengan dagoen arren, gure aurrekoek ez dutela ez bairik izan euren jarduerak aldatzeko, garaiek eskatzen duten aldaketan arabera; horrela, herri xeheak Louis Lodiarri zor dio bere emantzipazioa; eskubideen berrespina eta luzapena Saint Louisi eta Philippe Ederrari; egitura judiziala Louis XI.aren, Henri II.aren eta Charles IX.aren legeek ezarri zuten; azkenik, Louis XIV.ak administrazio publikoko alor ia guztiak arautu zituen, hainbat ordenantzen bidez, horien zuhurtasuna ez delarik oraindik gailendua izan.

Gure aurretiko erregeen etsenplua dela-eta, behartuak gara preziatzera ilustrazioko argien aurrerakuntzaren efektuak, aurrerakuntza horiek gizartean eragin dituzten erlazio berriak, azken mende erdian espirituei eman dieten norabide berria, eta bertatik sortu diren aldatzeak sakonak. Aitortzen dugu gure herritarrek konstituzio gutun batekiko duten irrika benetako behararen adierazpena dela; baina, nahi horri erantzuterakoan, arreta handia hartu dugu gutun hau guretzat eta haren gain harro agintzen dugun herriarentzat duin izan dadin. Pertsona zuhurak, estatuko gorputz gorenetatik hartuak, bildu egin dira gure kontseiluko komisarioekin, lan garrantzitsu honi ekiteko.

Aitortzen dugu beharrezkoa zela konstituzio aske eta monarkiako bat, Europa ilustratuaren itxaropenak betetzeko, modu berean, bes-

* Iturria: *Constitution française (6-9 avril 1814)*; Université de Perpignan (Frantzia), <http://mjp.univ-perp.fr/france/co1814pr.htm#acte> (2007ko urriaren 11n atzitua).

tetik, berdin gogoratu behar izan dugu gure herritarrenganako dugun lehen betekizuna dela, euren interes propiorako, gure koroaren eskubide eta pribilegioak mantentzea. Espero dugu herritarrok, esperientziak irakatsita, konbentzituak izanen direla soilik autoritate gorenak eman diezaiekeela hark daukan indarra, iraunkortasuna eta maiestatea hark ezartzen dituen erakundeei. Hortaz, erregeen zuhertasunak modu librean herriaren borondatearekin bat egiten duenean, konstituzio gutun bat luzarorako izanen da; aldiz, indarkeriak amore ematea eragiten duenean gobernuaren ahultasunagatik, askatasun publikoa arriskuan egongo da tronua lain.

Hitz batean, frantziar izaeran eta iraganeko garaien monumentu beneragarrietan bilatu ditugu konstituzio gutunaren printzipioak. Horrela, paren¹² berrezartzeak erakunde benetan nazional bat dakar, oroitzapen eta esperantza guztiak elkartuko dituen, antzinako eta egungo garaiak uztartuz.

Diputatuen Ganberaren bidez ordezkatu ditugu antzinako martxo-ko eta maiatzeko landa biltzarrak¹³ eta hirugarren estatuko¹⁴ ganberak, herriaren interesarekiko arreta eta erregearen autoritatearekiko leialtasuna eta errespetatua maiz frogatu izan duten horiek. Garaien kateatzea berritzen saiatuz, hutsune deitoragarriek eten baitute, gure oroimenetik ezabatu ditugu —historiatik ere ezaba ahal bageneza— gu falta izan garenetik gure aberria atsekabetu izan duten gaitz guztiak. Gure familia handiaren magalean berriz ere gaudelako pozik, horrenbeste maitasun lekukotasuni bake eta kontsolamendu hitzak emanda soilik erantzun geniezaiekeen. Bihotz-bihotzez nahi dugu frantziar guztiak anai-arreba legez bizitzea, eta gaur haiei ematen diegun dokumentu solemne honi jarraituko dion segurtasuna ez dezala inoiz inolako oroitzapen mingotsek zaputuz.

Gure intentzioez ziur, gure kontzientzian tinko, entzuten gaituen biltzarraren aurrean, hitz ematen dugu konstituzio gutun honi leial izanzen gatzaiizkiola, oraindik ere bagenezakeelarik solemnetasun berri batekin gutunaren mantentzea zin egin, erregeak eta nazioak balantza berarekin pisatzen dituen Horren aurrean.

¹² *Pairie*.

¹³ *Assemblées des Champs de Mars et de Mai*: gudaroste frankoek Galia konkistatu zutenean landan izaten zituzten biltzarrak. Hala deitzen zaie, martxoan (merovingioen garaian) edo maiatzean (755 urtearen ostean) izaten zirelako.

¹⁴ *Tiers-état*.

Hortaz, gure autoritate erregetiarraren egikaritze librearen bidez eta borondatez erabaki dugu, eta erabakiko, guk nahiz gure ondorengok, gure agindupekoei ondoren datorren konstituzio gutuna ematea eta eskaintzea betirako:

Frantziarren zuzenbide publikoa

Lehen artikulua: Frantziar guztiak berdinak dira legearen aurrean, titulu eta mailak gorabehera.

Bigarren artikulua: Bereizketarik gabe, euren ondasunen araber, estatuaren gastuetarako zergak ordainduko dituzte.

Hirugarren artikulua: Denak dira enplegu zibil eta militarretarako berdin onargarri.

Laugarren artikulua: Askatasun pertsonala berdin dago bermatua denontzat. Inor ezin da auzipetua edo atxilotua izan legeak aurreikusten dituen kasuetan eta berorrek agintzen duen forman baizik.

Bosgarren artikulua: Denek askatasun berarekin praktika dezakete euren erlijioa, eta bakoitzaren gurmenerako babes bera jasoko dute.

Seigarren artikulua: Nolanahi ere, erlijio katoliko, apostoliko eta erromatarra da estatuko erlijioa.

Zazpigarren artikulua: Soilik erlijio katoliko, apostoliko eta erromatarreko apaizek eta gainontzeko sekta kristauetakoek jasoko dute estatutik saria.

Zortzigarren artikulua: Frantziarrek eskubidea dute euren irizkiak publikatzeko eta inprimatzeko, betiere, askatasun horren abusua mugatu behar duten legeen barne.

Bederatzigarren artikulua: jabetza guztiak bortxaezinak dira, *nazional* deritzaten horiek salbuespen ez direlarik, eta legeak ez du horien artean diferentziarik egiten.

Hamargarren artikulua: Estatuak jabetza baten sakrifizioa eska dezake, legalki frogaturiko interes publikoa dela medio, baina aurretikako indemnizazio bat jaso ostean.

Hamaikagarren artikulua: Errestaurazioa baino lehen emantiko iritzi eta botoen ikerketa oro debekatzen da. Ahanztura bera eskatzen zaie auzitegi zein hiritarrei.

Hamabigarren artikulua: Nahitaezko soldadutza bertan behe-
ra uzten da. Lur eta itsas armada errekrutatzeke modua lege batek
zehaztuko du.

Erregearen gobernuaren forma

Hamahirugarren artikulua: Erregearen pertsona bortxaezina
eta sakratua da. Bere ministroak erantzule dira. Erregeari dagokio bote-
re betearazlea.

Hamalauugarren artikulua: Erregea da estatuaren buru gore-
na, lur eta itsas armaden buru da halaber, bake, aliantza eta merka-
taritza hitzarmenak egiten ditu, administrazio publikoko enplegu
guztiak izendatzen ditu, eta legeak betetzeko zein estatuaren segur-
tasunerako beharrezkoak diren araudi eta ordenantza guztiak egiten
ditu.

Hamabosgarren artikulua: Botere betearazlea elkarrekin gau-
zatzen dute erregeak, Pairen Ganberak eta Departamenduetako Dipu-
tatuen Ganberak.

Hamaseigarren artikulua: Erregeak proposatzen ditu legeak.

Hamazazpigarren artikulua: Lege proposamena, erregearen
nahieraren arabera, Pairen Ganberara edo Diputatuen Ganberara igor-
tzen da, zerga legea izan ezik, lehenik Diputatuen Ganberara igorri
behar baita.

Hamazortzigarren artikulua: Lege orok, ganbera bakoitzak
libreki eztabaidatu ostean, ganbera bakoitzeko botoen gehiengoa jaso
beharko du.

Hemeretzigarren artikulua: Ganberek erregeari eska diezai-
kete lege bat proposatzea —edozein gairen inguruan— eta aholkatu
lege horrek zer esan beharko duen.

Hogeigarren artikulua: Eskaera hori ganbera batek nahiz bes-
teak egin dezake, baina soilik batzorde sekretu batean eztabaidatua izan
ostean; proposatu duen ganberari hamar egun baino lehenago itzuli
beharko zaio.

Hogeita batgarren artikulua: Beste ganberak proposamena
onartzen badu, erregearengana igorriko da; atzera botatzen bada, ezin
izanen da saio berean aurkeztu.

Hogeita bigarren artikulua: Soilik erregeak berresten eta promulgatzen ditu legeak.

Hogeita hirugarren artikulua: Zerrenda zibila finkoa da, erregealdiaren iraupen osorako, erregea tronura igo ostean biltzen den lehen legislaturak finkatuko du.

Pareen Ganberari buruz

Hogeita laugarren artikulua: Pareen Ganbera botere betearazlearen atal esentziala da.

Hogeita bosgarren artikulua: Erregeak deitzen du Pareen Ganbera, Departamenduetako Diputatuen Ganberaren aldi berean. Bataren saioa bestearen aldi berean hasten eta amaitzen da.

Hogeita seigarren artikulua: Diputatuen Ganberaren saioa ematen denetik kanpo ematen den edo erregeak deitua ez den bilkura oro legez kanpokoa eta baliogabea da.

Hogeita zazpigarren artikulua: Erregeari dagokio Frantziako pareen izendapena. Horien kopurua mugatua da; hark bere nahierara alda ditzake dauzkaten mailak, bizitza osorako izendatu, edo jaraunspenezko egin.

Hogeita zortzigarren artikulua: Hogeita bost urte bete dituztenean sar daitezke pareak ganberan, eta hogeita hamar urterekin izanen dute erabakiak hartzeko hitza.

Hogeita bederatzigarren artikulua: Frantziako kantzileria da Pareen Ganberako buru eta, hura falta denean, erregeak izendaturiko pare bat.

Hogeita hamargarren artikulua: Erregearen familiako kideak eta odolez printze direnak jaiotzetiko eskubidez dira pare. Ganberako presidentearen alboan eseriko dira, baina ez dute erabakitzeko hitzik hogeita bost urte bete arte.

Hogeita hamaikagarren artikulua: Erregearen aginduaren ondoren soilik har dezakete printzeek ganberan euren lekua, saio bakoitzean mezu baten bidez adieraziko delarik, bestela, haiek bertan direnean eginiko guztia baliogabe daiteke.

Hogeita hamabigarren artikulua: Pareen Ganberan eginiko deliberazio guztiak sekretuak dira.

Hogeita hamahirugarren artikulua: Pareen Ganberak eskumena du traizio larriaren eta estatuaren segurtasunaren aurkako kasuetan, eta legeak zehaztuko ditu delitu horiek.

Hogeita hamalauugarren artikulua: Soilik ganberaren autoritateak dauka pare bat atxilotzea, eta soilik bertan izan daiteke auzipertua gai kriminal bat dela eta.

Departamenduetako Diputatuen Ganberari buruz

Hogeita hamabosgarren artikulua: Legearen arabera antolatuko diren hauteskunde-kolegioetan hautaturiko diputatuek osatuko dute Diputatuen Ganbera.

Hogeita hamaseigarren artikulua: Departamendu bakoitzak orain arte zituen diputatu kopurua izanen du.

Hogeita hamazazpigarren artikulua: Diputatuak bost urterarako hautatuak izanen dira, ganberaren bosten bat urtero berritzeko moduan.

Hogeita hamazortzigarren artikulua: Inor ezin da diputatu izan ez baldin baditu berrogei urte bete eta ez badu mila liberako kontribuzio zuzena ordaintzen.

Hogeita hemeretzigarren artikulua: Nolanahi ere, departamenduan ez baldin badaude berrogeita hamar pertsona aipaturiko adina bete eta mila liberako kontribuzio zuzena ordaintzen dutenak, euren zerrenda mila liberatik bera ordaintzetik gertuen direnekin osatuko da, eta lehenekin batera hautagai izanen dira.

Berrogeigarren artikulua: Diputatuak izendatzeko hautatzaileek ez dute bozkatzeko eskubiderik ez baldin badute hirurehun liberako kontribuzio zuzena ordaintzen eta hogeita hamar urte baino gutxiago badituzte.

Berrogeita batgarren artikulua: Erregeak eta hauteskunde-kolegioetako eskubide osoko kideek hautatuko dituzte kolegioetako presidentek.

Berrogeita bigarren artikulua: Departamenduan egoitza politikoa duten pertsona hautagarrien artean hautatuko da gutxienez diputatuen erdia.

Berrogeita hirugarren artikulua: Diputatuen Ganberako presidentea erregeak izendatuko du, ganberak aurkeztuko duen bost pertsonako zerrenda batetik.

Berrogeita laugarren artikulua: Ganberako saioak publikoak dira, baina bost kideen eskaera nahikoa da bilkura sekretua izan dadin.

Berrogeita bosgarren artikulua: Ganbera bi sailetan bananduko da erregeak aurkezturiko proposamenak eztabaidatzeko.

Berrogeita seigarren artikulua: Lege bati ezin zaio zuzenketa-rik egin, erregeak ez baldin badu proposatu edo onartu, eta ez baldin bazaie ganberaren sailei igorri eztabaida dezaten.

Berrogeita zazpigarren artikulua: Diputatuen Ganberak jasoko ditu zergen inguruan eginiko proposamen guztiak; proposamenak bertan onartuak izan ostean soilik izan daitezke igorriak Pairen Ganberara.

Berrogeita zortzigarren artikulua: Ezin da zergarik ezarri edo jaso, ganbera biek ez baldin badute onartu eta erregeak berretsi.

Berrogeita bederatzigarren artikulua: Ondarearen gaineko zerga urte baterako da. Zeharkako zergak urte gehiagorako izan daitezke.

Berrogeita hamargarren artikulua: Erregeak deitzen ditu urtero ganbera biak. Berak luzatzen ditu, eta departamenduetako diputatuena desegin dezake. Azken kasu horretan, berri bat deitu beharko du hiru hilabeteko epean.

Berrogeita hamaikagarren artikulua: Ezin da ganberako kide bat bortxaz derrigortu, ez saioa ematen denean, ez aurreko eta ondorengo sei hilabeteetan.

Berrogeita hamabigarren artikulua: Ganberako ezein kide, saioak dirauen artean, ezin da auziperatu edo atxilotu gai kriminal bat dela-eta, delitu gori-goriaren kasuan salbu, eta ganberak haren auzipe-ratzea onartu ostean.

Berrogeita hamahirugarren artikulua: Ganberei egiten zaien eskaera oro idatziz egin beharko da. Legeak debekatu egiten du norbera bertako abokatutzan agertzea.

Ministroei buruz

Berrogeita hamalagarren artikulua: Ministroak Pareen Ganberako zein Diputatuen Ganberako kide izan daitezke. Ganbera bietan sar daitezke eta, hala eskatzen dutenean, entzun egin beharko zaie.

Berrogeita hamabosgarren artikulua: Diputatuen Ganberak ministroak salatzeko eskubidea du eta Pareen Ganberaren aurrera errotekoa, azken honek soilik epai ditzakeelarik.

Berrogeita hamaseigarren artikulua: Soilik traizio eta konkusio delituengatik izan daitezke ministroak akusatuak. Lege bereziek zehaztuko dute delituen natura, eta auziperatzea determinatuko.

Ordena judizialaz

Berrogeita hamazazpigarren artikulua: Justizia osoa erregearendandik dator. Bere izenean administratzen dute epaileek, hark izendatzen eta ezartzen ditu horiek.

Berrogeita hamazortzigarren artikulua: Erregeak izendaturiko epaileak aldaezinak dira.

Berrogeita hemeretzigarren artikulua: Orain dauden auzitegi eta tribunal arruntek bere horretan jarraituko dute. Ez da ezer aldatuko, ez baldin bada lege baten bitartez.

Hirurogeigarren artikulua: Merkataritza-epaileen egungo erakundea bere horretan mantenduko da.

Hirurogeita batgarren artikulua: Bake justizia ere berdin mantenduko da. Bake-epaileak, erregeak izendatzen dituen arren ez dira aldaezinak.

Hirurogeita bigarren artikulua: Inori ezin zaizkio ukatu bere epaile naturalak.

Hirurogeita hirugarren artikulua: Hortaz, ezin dira eratu komisio eta auzitegi bereziak. Preboste-auzitegiak —horien ezartzea beharrezkoa balitz— ez dira izendadura horren barne.

Hirurogeita laugarren artikulua: Gai kriminalen gaineko eztabaidak publikoak izanen dira, betiere, publikotasun hori ez baldin bada ordena eta moralarentzat arriskutsua; kasu horretan, auzitegiak agindu judizial baten bidez deklaratu du.

Hirurogeita bosgarren artikulua: Zinpekoen epaimahaiak mantenduko dira. Esperientzia luzeago batek beharrezko direla erakusten dituen aldakuntzak lege baten bidez egingo dira.

Hirurogeita seigarren artikulua: Ondasunen konfiskazio zehapena ezeztatua da eta ezin da berrezarri.

Hirurogeita zazpigarren artikulua: Erregeak barkamena emateko eskubidea du, eta zigorrak konmutatzekoa.

Hirurogeita zortzigarren artikulua: Honako gutun honen aurkakoak ez diren egungo Kode Zibilak eta legeek indarrean dira, harik eta legalki indargabetuak diren arte.

Estatuak bermatzen dituen eskubide partikularrak

Hirurogeita bederatzigarren artikulua: Zerbitzuan diren militarrek, erretiraturiko ofizial eta soldaduek, pentsiodun alargun, ofizial eta soldaduek, horiek guztiek euren mailak, ohoreak eta pentsioak mantenduko dituzte.

Hirurogeita hamargarren artikulua: Zor publikoa bermaturik dago. Estatuak bere hartzekodunekin eginiko hitzarmen mota oro bor-txaezina da.

Hirurogeita hamaikagarren artikulua: Antzinako nobleziak bere tituluak berreskuratuko ditu. Berriak bereak mantenduko. Erregeak pareak egingo ditu bere nahierara; baina ezin diezaieke lerrunak eta ohoreak baizik eskaini, gizarteko zama eta betebeharren salbuespenik eman gabe.

Hirurogeita hamabigarren artikulua: Ohore Legioa¹⁵ mantenduko da. Erregeak erabakiko ditu haren barne-araudiak eta kondekorazioa.

Hirurogeita hamahirugarren artikulua: Koloniak lege eta araudi berezien bidez zuzenduak izanen dira.

Hirurogeita hamalagarren artikulua: Erregeak eta bere ondorengoek, koroatuak direnean, konstituzio gutuna leialki betetzea zin egingo dute.

¹⁵ *Légion d'honneur.*

Behin-behineko artikulua

Hirurogeita hamabosgarren artikulua: Azken legealdiaren itxieran gorputz legegilean ziren Frantziako departamenduetako diputatuek Diputatuen Ganberan jarraituko dute ordezkatuak izan arte.

Hirurogeita hamaseigarren artikulua: Diputatuen Ganberaren bostenaren lehen ordezkapena beranduenik 1816. urtean egingo da, segiden artean ezarririko ordenari jarraituz.

4.

A 1946KO URRIAREN 27KO KONSTITUZIOAREN HITZAURREA*

Gizateria morrontzen eta behertzen saiatu ziren erregimenei herri libreak gailendu zitzaizkien ostean, frantziar herriak berriz ere deklaratu zuen gizaki orok —arraza, erlijio edo sinesmen bereizketarik gabe— eskubide besterenezin eta sakratuak dituela. Batetik, 1789ko Gizakiaren eta Hiritarraren Eskubideen Deklarazioak eta, bestetik, errepublikako legeek aintzatetsi dituzten oinarritzko printzipioek kontsagraturiko eskubide eta askatasunak solemneki berresten ditu halaber Frantziako herriak.

Bestalde, gure garaian bereziki beharrezkoak direlarik, honako printzipio politiko, ekonomiko eta sozialak aldarrikatzen ditu:

Emakumeari, alor guztietan, gizonaren eskubide berak bermatzen dizkio legeak.

Askatasunaren alde diharduelako jazarria den pertsona orok asiloa eska dezake errepublikako lurraldeetan.

Pertsona orok lan egiteko betebeharra eta enplegua lortzeko eskubidea du. Inor ezin da bere lanean edo enpleguan kaltetua izan, daukan jatorri, iritzi edo sinesmenak direla eta.

Pertsona orok defenda ditzake bere eskubideak eta interesak sindikatu baten bidez, baita nahi duen sindikatuko kide bihurtu ere.

Greba arautzen duen lege araudiaren barne gauzatuko da greba eskubidea.

Behargin orok, bere ordezkarien bitartez, parte hartzen du lan baldintzen erabakitze kolektiboan eta lantegien kudeaketan.

Ustiaketari dagokionez zerbitzu publiko nazionalaren edo izatez monopolioaren ezaugarriak dituen ondasun edo enpresa oro kolektibitatearen jabetza bilakatu beharko da.

Gizabanakoari eta familiari berorien garapenerako beharrezko baldintzak eskaini behar dizkie nazioak.

* Iturria: *La Constitution du 27 octobre 1946*; Conseil Constitutionnel, République Française (Frantzia), <http://www.conseil-constitutionnel.fr/textes/constitution/c1946.htm> (2007ko urriaren 11n atzitua).

Guztioi bermatuko dizkie —bereziki haurrei, amei eta behargin zaharrei— osasunaren babesa, segurtasun materiala, atsedena eta aisialdia. Adina, egoera fisikoa nahiz mentala, edo egoera ekonomikoa dela eta, lan egiteko ezintasunean den edonork kolektibitatearengandik bizitzarako baliabideak jasotzeko eskubidea du.

Kalamitate nazionaletatik datozen zamen aurrean, nazioak frantziar guztien solidaritatea eta berdintasuna aldarrikatzen du.

Nazioak bermatu egiten du haurraren eta helduaren sarrera berdina bat hezkuntzan, lanbide-heziketan eta kulturean. Estatuaren betebeharra da maila guztietako doaneko hezkuntza publiko eta laiko baten antolakuntza.

Frantziar errepublika, bere tradizioei leial, zuzenbide publiko internazionalaren arabera eratzen da. Ez du gerrarik egingo konkista asmoz eta ez du inoiz indarra erabiliko ezein herriren askatasunaren aurka.

Elkarrekikotasuna dagoen artean, Frantziak bere subiranotasunari mugapenak jartzea onartuko du bakea antola eta defenda dadin.

Eskubideen eta betebeharren berdintasunean —arraza eta erlijio bereizketarik gabe— oinarrituriko batasuna osatzen du Frantziak itsasoz haraindiko lurraldeekin.

Nork bere zibilizazioak garatzeko, ongizatea handitzeko, eta segurtasuna bermatzeko, baliabideak eta ahaleginak elkarrekin biltzen edo koordinatzen dituzten nazio eta herriek osatzen dute Frantziar Batasuna.

Bere misio tradizionalari leial, Frantziak herriak gidatu nahi ditu, horiek euren buruak administra ditzaten eta euren afera propioak demokratikoki konpon ditzaten; arbitrariotasunean oinarrituriko kolonizazio oro bazterturik, guztiei bermatzen die funtzio publikoetara sarrera berdina eta hemen aldarrikatzen edo berresten diren eskubide eta askatasun guztien gauzatze indibidual edo kolektiboa.

B

1958KO KONSTITUZIOA

HITZAURREA*

Frantses herriak solemneki adierazten du Gizakiaren Eskubide-ekiko, 1789ko Deklarazioan zehazten eta 1946ko Konstituzioaren hitzaurrean berresten etaosatzen diren subiranotasun nazionalaren printzipioekiko, eta 2004ko Ingurumenaren Gutunean zehazten diren eskubide eta betebeharrakiko atxikimendua.

Printzipio horiei nahiz herrien determinazio askearen printzipioari jarraiki, errepublikak berorrekin bat egiteko nahia adierazten duten itsasoz haraindiko lurraldeei askatasunaren, berdintasunaren eta senidetasunaren ideal komunean oinarrituriko erakunde berriak —lurralde horien garapen demokratikorako pentsatuak direnak— eskaintzen dizkie.

1 artikulua:

Frantzia errepublika banaezina, sekularra, demokratikoa eta soziala da. Jatorri, arraza edo erlijio bereizketarik egin barik, hiritar guztiei legearen aurrean berdintasuna bermatzen die. Sinesmen guztiak errespetatzen ditu. Bere antolakuntza deszentralizatua da.

I Titulua – Subiranotasunaz

2 artikulua:

Frantsesa da errepublikako hizkuntza.

Urdin, zuri eta gorri, hiru koloredun bandera da ikur nazionala.

Marseillesa da himno nazionala.

«Askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna» da errepublikaren leloa.

Honakoa da bere printzipioa: herriaren gobernua, herriak emana eta herriarentzat.

* Iturria: *Constitution du 4 octobre 1958*; Conseil Constitutionnel, Republique Française (Frantzia), <http://www.conseil-constitutionnel.fr/textes/constit.htm> (2007ko urriaren 11n atzitua).

3 artikulua:

Subiranotasun nazionala herriari dagokio, berorren ordezkarien bidez eta erreferendum bitartez gauzatzen duenlarik.

Herriaren ezein zatik edo ezein gizabanakok ezin du beretzat hartu subiranotasunaren gauzatzea.

Sufragioa zuzena edo zeharkakoa izan daiteke, konstituzioak aurreikusten dituen baldintzen arabera. Nolanahi ere, unibertsala, berdintasuneko eta sekretua izanen da.

Botoa eman dezakete, legeak zehazturiko baldintzen arabera, sexu bietako adin nagusiko frantziar hiritar guztiek, euren eskubide zibil eta politikoak osorik dauzkatelarik.

Hauteskunde-mandatu eta hautapenezko funtzioetara sarrera berdina eskaintzen die legeak emakume zein gizonezkoiei.

4 artikulua:

Alderdi eta talde politikoek sufragioaren adierazpenaren bidez hartzen dute parte. Libreki osatu eta jardungo dute. Subiranotasun nazionalaren eta demokraziaren printzipioak errespetatu behar dituzte.

II Titulua – Errepublikako lehendakaria

5 artikulua:

Errepublikako lehendakariak konstituzioa bete dadin jagongo du. Bere arbitrajearen bidez, botere publikoen funtzionamendu erregularrak eta estatuaren iraupenaz arduratuko da.

Independentzia nazionalaren, lurraldearen osotasunaren eta hitzarmenekiko errespetuaren bermatzaile izanen da.

6 artikulua:

Errepublikako lehendakaria bost urtetarako hautatua da sufragio unibertsal zuzenaren bidez.

Honako artikuluaaren aplikazio moduak lege organiko baten bidez finkatuko dira.

7 artikulua:

Emandako botoen gehiengo absolutuaren bidez hautatua izanen da errepublikako lehendakaria. Lehen boto-zenbaketan ez balu gehiengo hori erdietsiko, hamalau egun ondoren bigarren bozketa bat egingo da. Lehen bozketan boto gehien jaso dituzten bi lehendakariak aurkez daitezke soilik, boto gehiago jasota erretiratu izan daitekeen inor kontuan hartuta.

Gobernuak deituta egingo da bozketa.

Jardunean den lehendakariak bere zeregina bukatu baino gutxienez hogeit egun eta gehienez hogeita hamabost egun lehenago egingo da lehendakari berri baten hautaketa.

Errepublikako lehendakaritza hutsik geratuko balitz edozein kausa dela medio, edo Kontseilu Konstituzionalak Gobernuaren aholkuz eta kideen gehiengo absolutuz lehendakaria ezgai dela erabakiko balu, errepublikako lehendakariaren funtzioak, konstituzioko 11 eta 12 artikuluetan aurreikusten direnak salbu, aldi baterako beteko ditu Senatuko presidentek eta, hura ere bere funtzioak betetzeko ezgai balitz, orduan, Gobernuak berak.

Kargua hutsik geratuko balitz edo Kontseilu Konstituzionalak ezgaitasuna behin betirakoa dela deklaratu balu, lehendakari berri baten bozketa egingo da, Kontseilu Konstituzionalak ezinbesteko kasua dela erabakitzen duenean salbu, kargua hutsik geratu denetik edo ezgaitasuna behin betirakoa dela kontsideratu denetik gutxienez hogeit egun eta gehienez hogeita hamabost egun beranduago.

Hautagaiak aurkezteko epea amaitu baino zazpi egun lehenago —hautagai batek egun hori baino lehenago gehienez hogeita hamar eguneko epean bere hautagaitza aurkeztu izan balu, eta ondoren hil edo ezgai bilakatuko balitz— Kontseilu Konstituzionalak hauteskundeak beranduago egitea erabaki lezake.

Lehen bozketa baino lehen, hautagaietako bat hilko edo ezgai bilakatuko balitz, Kontseilu Konstituzionalak hauteskundeak atzeratuko ditu.

Inor erretiratu aurretik, lehen bozketan boto gehien jaso duten bi hautagaietako bat hilko edo ezgai bilakatuko balitz, Kontseilu Konstituzionalak deklaratu du hauteskunde prozesua osorik errepikatu

behar dela; gauza bera gertatuko da bigarren bozketarako geratzen diren hautagaietako bat hilko edo ezgai bilakatuko balitz.

Kontseilu Konstituzionalari igorriko zaizkio kasu guztiak hemen bertan 61 artikuluko bigarren atalean, edo 6 artikuluan aurreikusten den lege organikoan, hautagai baten aurkezpenerako zehazten diren baldintzetan.

Kontseilu Konstituzionalak hirugarren eta bosgarren ataletan aurreikusten diren epeak luza ditzake, bozketa ezin delarik izan Kontseilu Konstituzionalak erabakia hartu zuen data baino hogeita hamabost egun baino beranduago. Honako atalaren xedapenen aplikazioak ondorio baldin badu jardunean den lehendakariaren botereen iraungipena baino beranduagoko data batera lerratzea bozketa, hark bere karguan iraungo du bere ondorengoaren proklamaziora arte.

Ezin dira konstituzioaren 49 eta 50 artikulua edo 89 artikulua aplikatu errepublikako lehendakari kargua hutsik dagoenean edo lehendakariaren ezgaitasuna behin betirakoa deklaratu eta ondorengo hautatzen den artean.

8 artikulua:

Errepublikako lehendakariak izendatuko du lehen-ministroa. Ministroaren funtzioak bukatuko ditu Gobernuan dimisioa aurkezten duenean.

Lehen-ministroaren aholkuz, Gobernuko gainontzeko kideak izendatuko edo kargutik kenduko ditu.

9 artikulua:

Errepublikako lehendakariak zuzentzen du Ministro Kontseilua.

10 artikulua:

Definitiboki onarturiko legea Gobernuari transmititu eta hurrengo hamabost egunetan errepublikako lehendakariak lege hori promulgatuko du.

Epe hori bukatu baino lehen, parlamentuari eska diezaioke legearen edo beronen artikulua jakin batzuen gaineko deliberazio berri bat. Ezin zaio deliberazio berri horri uko egin.

11 artikulua:

Errepublikako lehendakariak, parlamentua jardunean denean Gobernuaren aholkuz edo bi biltzarretarik baten aholkuz, proposamenok Aldizkari Ofizialean argitaratuak direlarik, erreferendumean ezar dezake lege proiektu oro: botere publikoen antolakuntzari buruzkoa, nazioko politika ekonomiko sozialari edo parte hartzen duten zerbitzu publikoei dagozkien erreformei buruzkoa, edo erakundeen funtzionamenduan eragina izanda, konstituzioaren aurkakoa ez delarik, hitzarmen baten berrespena autorizatzeari buruzkoa.

Erreferenduma Gobernuaren proposamenari jarraiki antolatzen denez, hark, biltzar bakoitzaren aurrean, eztabaida batek jarraituko dion deklarazioa egin beharko du.

Erreferenduma lege proiektu baten onartzearekin amaitzen delarik, errerepublikako lehendakariak lege hori promulgatuko du kontsultaren emaitzen jakinarazpenari jarraitzen dioten hamabost egunetan.

12 artikulua:

Lehen-ministroari eta biltzarren presidenteei kontsultatu ostean, errerepublikako lehendakariak Biltzar Nazionalaren desegitea agin dezake.

Desegitearen ondoren gutxienez hogeï egun eta gehienez berrogeï egun beranduago hauteskunde orokorrak izanen dira.

Biltzar Nazionala zuzenbide osoz bilduko da haren hautespenari jarraitzen dion bigarren ostegunean. Ohiko saioarentzat aurreikusiriko aldian egokitzen bada bilkura, hamabost eguneko iraupena izanen duen zuzenbide osoko saio bat irekiko da.

Ezin da ostera desegin hauteskudeen ondoren urtebetez.

13 artikulua:

Errepublikako lehendakariak Ministroen Kontseiluan deliberaturiko ordenantza eta dekretu guztiak izenpetuko ditu.

Estatuko enplegu zibil eta militarrek izendatuko ditu.

Honako hauek Ministroen Kontseiluan izendatuko dira: estatuko kontseilariak, Ohorezko Legioaren kantziler handiak, enbaxadoreak eta mandatari bereziak, kontuen auzitegiko kideak¹⁶, prefetak, Kaledo-

16 *Conseiller maître*.

nia Berrian eta 74 artikulua zuzenduriko itsasoz haraindiko kolektibitateetan estatuen ordezkariak, ofizial orokorrak, akademietako errektoreak, eta administrazio zentraletako zuzendariak.

Lege organiko batek zehaztuko ditu Ministroen Kontseiluan beteko diren gainerako postuak, eta errepublikako lehendakariaren izendapen ahalmena zein baldintzatan eskuorde daitekeen, haren izenean gauza dadin.

14 artikulua:

Errepublikako lehendakariak kreditatzen ditu enbaxadoreak eta mandatari bereziak atzerriko botereen aurrean; haren aurrean kreditatu behar dira atzerriko enbaxadore eta mandatari bereziak.

15 artikulua:

Errepublikako lehendakaria da armaden buru. Defentsa Nazionalako kontseilu eta batzorde gorenak zuzenduko ditu.

16 artikulua:

Errepublikako erakundeak, nazioaren independentzia, lurraldearen integritatea edo konpromiso internazionalen burutzea arriskuan baleude, modu larri eta zuzenean, eta botere publiko konstituzionalen funtzionamendu erregularra eten egingo balitz, orduan, zirkunstantziek eskatzen dituzten neurriak hartuko ditu errepublikako lehendakariak, Lehen-ministroari, biltzarren presidenteei eta Kontseilu Konstituzionalari kontsulta egin ondoren.

Mezu baten bidez jakinaren gainean jarriko du nazioa.

Epe laburrenean, botere publiko konstituzionaleri euren misioa betetzeko aukera emateko borondateak inspiratuko ditu neurri horiek. Kontseilu Konstituzionalari galdetuko zaio neurrien inguruan.

Parlamentua zuzenbide osoz bilduko da.

Biltzar Nazionala ezin da desegin botere berezi horiek indarrean direnean.

17 artikulua:

Errepublikako lehendakariak indultua emateko eskubidea du.

18 artikulua:

Errepublikako lehendakaria biltzar biek in komunikatuko da irakurraraziak izanen diren mezuen bitartez, mezu horiek ez dietelarik bide emango eztabaidei.

Saioetatik kanpo, parlamentua eginkizun horretarako bereziki bilduko da.

19 artikulua:

Errepublikako lehendakariari dagozkion egintzak —8 (lehen atala), 11, 12, 16, 18, 54, 56 eta 61 artikuluetan aurreikusten direnak salbu— lehen-ministroak ere sinatuko ditu eta, beharrezkoa balitz, erantzukizuna duten ministroek.

III Titulua – Gobernua

20 artikulua:

Gobernuak erabakiko eta gidatuko du nazioaren politika.

Administrazioa eta indar armatua artatuko ditu.

Erantzule da parlamentuaren aurrean, 49 eta 50 artikuluetan agertzen diren baldintzetan eta bertako prozedurak jarraituz.

21 artikulua:

Lehen-ministroak gidatzen du gobernuaren jardura. Defentsa nazionalaren arduraduna da. Legeen betetzea bermatzen du. 13 artikuluko xedapenei kalte egin gabe, botere erregelamendugilea dauka eta enplegu zibil eta militarrek izendatzen ditu.

Bere botereetako batzuk ministroei eskuorde diezazkieke.

Beharrezkoa balitz, errepublikako lehendakariaren ordezkari jarri dezake hamabosgarren artikuluan aurreikusten diren kontseiluen eta batzordeen zuzendaritzan.

Salbuespen moduan, Ministro Kontseiluan ordezkari dezake lehendakaria eskuordetza adierazi baten bidez eta egun jakin bateko gai-zerrendarako.

22 artikulua:

Lehen-ministroaren egintzak, beharrezkoa balitz, horien bete-tzeaz arduratzen diren ministroek ere sinatuko dituzte.

23 artikulua:

Gobernuko kide gisa betetzen diren funtzioak bateraezinak dira parlamentuko edozein kargurekin, izaera nazionala duen edozein ordezkari-tza profesionaleko funtzioarekin eta edozein enplegu publiko edo jarduera profesionalekin.

Lege organiko batek zehaztuko du zein baldintzatan emango den halako karguetako, funtzioetako eta enpleguetako titularren orde-z-pena.

Parlamentuko kideen orde-z-pena 25 artikuluko xedapenen arabe-ra egingo da.

IV Titulua – Parlamentua

24 artikulua:

Biltzar Nazionalak eta Senatuak osatzen dute parlamentua.

Biltzar Nazionaleko diputatuak zuzeneko sufragioaren bidez hautatuak dira.

Senatua zeharkako sufragio bidez hautatua da. Errepublikako lurralde-kolektibitateen ordezkari-tza emango da Senatuan. Frantziatik kanpo bizi diren frantsesak Senatuan ordezkatuak dira.

25 artikulua:

Lege organiko batek finkatuko du biltzar bakoitzaren botereen iraupena, kideen kopurua, horien ordainsaria, hautespenerako baldin-tzak, hautaezintasun eta bateraezintasunak.

Modu berean, finkatu egingo ditu zein baldintzatan hautatuko diren, leku bat hutsik geratuko balitz, diputatuak edo senatariak orde-z-katuko dituzten pertsonak, horiek kide diren biltzarraren berritze osoa edo partziala ematen den arte.

26 artikulua:

Parlamentuko ezein kide ezin da auzipetu, ikertu, atxilotu, espetxeratu edo epaitu bere funtzioen jardunean delarik ematen dituen iritzi edo botoak direla eta.

Parlamentuko ezein kide ezin da, auzi kriminal edo zentzape-nezkoei dagokienez, atxilotu edo bestelako moduan haren askatasunaren aurkako neurri gabetzaile edo mugatzailerik ezarri, haren biltzarreko mahaiaren¹⁷ baimenik gabe. Ez da halako baimenik behar delitu edo krimen goria ematen denean edo behin betirako kondena jasotzen duenean.

Parlamentuko kide baten atxiloketa, askatasunaren gabetze edo mugatze neurriak nahiz auziperatzea, denak ere gelditu egingo dira saioak dirauen artean, hark parte hartzen duen biltzarrak hala eskatzen badu.

Hemen aipatzen den atala aplikatzea posible izan dadin, interesaturiko biltzarrak eskubide osozko bilkura gehigarriak izanen ditu, hala beharrezkoa balitz.

27 artikulua:

Lotura-indarra duen agindu oro baliogabea da.

Parlamentuko kideen boto eskubidea pertsonala da.

Lege organiko batek ezohiko kasu jakin batzuetan botoa eskuordetzea baimen dezake. Kasu horretan inork ezin du eskuordetza jaso agintzaile batengandik baino gehiagorengandik.

28 artikulua:

Parlamentua eskubide osoz bilduko da ohiko saioan, urriko lehen lanegunean hasi eta ekaineko azken lanegunean bukatuko delarik.

Biltzar bakoitzak ohiko saioan izan ditzakeen bilera-egun kopurua ezin da izan ehun eta hogeit egunekoa baino gehiagokoa. Biltzar bakoitzak erabakiko du bilkura-asteen kopurua.

Bilkura-egun gehigarrien ezartzea erabaki dezake lehen-ministroak —dagokion biltzarreko presidenteari kontsultatuta— edo biltzar bakoitzeko kideen gehiengo batek.

¹⁷ *Bureau.*

Biltzar bakoitzeko araudiak finkatuko ditu bilkuren egun eta ordutegiak.

29 artikulua:

Parlamentua, gai-zerrenda jakin batekin, ezohiko saioan bil dai-teke lehen-ministroak edo Biltzar Nazionala osatzen duten kideen gehiengoak eskatuta.

Ezohiko saioa Biltzar Nazionaleko kideen gehiengo batek eska-turik egiten baldin bada, bilkura eragin duen gai-zerrenda aztertu oste-an emango da dekretua. Dekretuarekin itxiko da saio hori, gehien jota, lehen bilkura izan eta hamabi eguneko epean.

Soilik itxiera dekretua eman osteko hilabeteko epean eska deza-ke lehen-ministroak saio berri bat.

30 artikulua:

Parlamentua zuzenbide osoz biltzen denetik aparteko kasuetan, ezohiko saioak errepublikako lehendakariaren dekretu batek hasi eta itxiko ditu.

31 artikulua:

Gobernuko kideek biltzar bietara dute sarrera. Hala eskatzen dutenean entzunak izanen dira.

Gobernuko komisarioen laguntza izan dezakete.

32 artikulua:

Biltzarreko presidentea legealdirako hautatua da. Zati baten berrikuntza bakoitzaren ostean hautatuko da Senatuko presidentea.

33 artikulua:

Biltzar bietako bilkurak publikoak dira. Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eztabaiden akta osoa.

Biltzar bakoitzak bilkura sekretua izan dezake lehen-ministroak edo biltzarraren hamarren batek hala eskatuta.

V Titulua – Gobernuaren eta parlamentuaren arteko harremanak

34 artikulua:

Parlamentuak bozkatuko du legea.

Legeak honakoen gaineko arauak ezarriko ditu:

—Hiritarrei askatasun publikoak gauzatzeko eskainiriko eskubide zibil eta oinarrizko bermeak; hiritarrei euren pertsonengan eta ondasunetan defentsa nazionalerako ezarriko betebeharrak;

—Pertsonen nazionalitatea, egoera eta gaitasuna, ezkontza-erregimena, ondorengotza eta dohaintzak;

—Krimen eta delituen zehazpena eta horiei aplikatu dakizkiekeen zigorrak; prozedura penala; amnistia; eskumen ordena berrien sorrera eta magistratuen estatutua;

—Klase orotako zerga guztien oinarria, tasa eta jasotze moduak; monetaren jaulkipen erregimena.

Legeak honakoei dagozkien arauak ezartzen ditu halaber:

—Biltzar parlamentarioen zein lekuko biltzarren hauteskunde erregimena;

—Erakunde publikoen kategorien sorrera;

—Estatuko funtzionario zibil eta militarrei eskainiriko oinarrizko bermeak;

—Enpresen nazionalizatzea eta sektore publikotik sektore pribaturako enpresen jabegoaren transferentzia.

Legeak honakoen gaineko oinarrizko printzipioak ezartzen ditu:

—Defentsa nazionalaren antolamendu orokorra;

—Lurraldeetako kolektibitateen administrazio librea, horien eskumenak eta baliabideak;

—Hezkuntza;

—Ingurumenaren babesa;

—Jabegoaren erregimena, gauza-eskubideak eta obligazio zibila eta merkataritzakoak;

—Lan zuzenbidea, sindikatu zuzenbidea eta gizarte segurantzaren.

Finantza legeek ezarriko dituzte estatuaren baliabide eta zamak, lege organiko batek aurreikusiriko baldintza eta erreserben menpe.

Gizarte segurantzaren finantza legeek ezarriko dituzte haren finantza orekarako baldintza orokorrak eta, diru-sarreraren iragarpena kontuan hartuta, finkatuko dituzte gastuen helburuak, lege organiko batek aurreikusiriko baldintza eta erreserben menpe.

Programa legeek ezarriko dituzte estatuaren ekintza ekonomiko eta sozialaren helburuak.

Lege organiko batek zehatz eta osa ditzake honako artikuluko xedapenak.

35 artikulua:

Parlamentuak baimenduko ditu gerra deklarazioak.

36 artikulua:

Ministro Kontseiluak dekretatuko ditu setio-egoerak.

Soilik parlamentuak baimen dezake setio-egoera hamabi egun baino gehiago luzatzea.

37 artikulua:

Legearen arloan sartzen ez diren gaiak erregelamendu izaera dute.

Parlamentuak gai horien inguruan onarturiko testuak Estatu Kontseiluari kontsultatu ostean emandako dekretuen bidez zuzen daitezke. Honako konstituzioa indarrean jarri ondoren onarturiko testuak dekretu bidez aldatuak izan daitezke, betiere, Kontseilu Konstituzionalak deklaritzen baldin badu erregelamenduzko izaera dutela, aurreneko atala dela medio.

37-1 artikulua:

Legeak eta erregelamenduak, xede eta iraupen mugatu baterako, izaera esperimentalak duten xedapenak izan ditzakete.

38 artikulua:

Programa egikaritzeko, gobernuak parlamentuari baimena eska diezaioke —denbora jakin baterako— normalean legearen eremukoak diren neurriak ordenantza bidez hartzeko.

Ordenantzak Ministroen Kontseiluak egingo ditu Estatuko Kontseiluari kontsultatu ostean. Horien publikazioaren ostean indarrean ezarriko dira, baina habilitazio legeak finkatzen duen data baino lehen parlamentuaren aurrean ez baldin bada berreste lege proiektua aurkeztu, orduan, ordenantzok iraungi egingo dira.

Artikulu honetako lehen atalean aipatzen den epearen bukaeran, ordenantzak ezin dira aldatu legearen bidez baino, botere legegilearen eremukoak diren gaitan.

39 artikulua:

Legegintza ekimena berdin dagokie lehen-ministroari zein parlamentuko kideei.

Lege proiektuak Ministro Kontseiluan deliberatzen dira Estatu Kontseiluari kontsultatu ostean eta biltzarretako batera igorriak izan ondoren. Finantza lege proiektuak eta gizarte segurantzaren finantziario lege proiektuak lehenik Biltzar Nazionalera igorri behar dira. 44 artikuluko lehen atalean esaten dena kontuan izanda, lurralde kolektibitateen antolamendua eta Frantziatik kanpo diren frantziarren ordezkartzarako instantziak helburu nagusitzat dituzten lege proiektuak Senatura igorriko dira lehenik.

40 artikulua:

Parlamentuko kideek eginiko proposamen eta zuzenketak ez dira onargarriak, horien onartzeak ondorio balu baliabide publikoen txikiagotzea, edo zama publiko baten sorrera edo okertzea.

41 artikulua:

Prozedura legegilearen jardueran gertatuko balitz proposamen edo zuzenketa bat ez dela legearen alorrekoa, edo 38 artikuluen arabera eginiko eskuordetze baten aurkakoa dela, Gobernuak onartezina dela erabaki dezake.

Gobernuaren eta interesaturiko biltzarraren arteko desadostasuna sortzen baldin bada, Kontseilu Konstituzionalak, batak zein besteak eskatuta, zortzi eguneko epean erabakia hartuko du.

42 artikulua:

Lege proiektuen eztabaida, lege hori lehenik esku artean duen biltzarraren aurrean, Gobernuak aurkezturiko testuaren gainekoa izan da.

Beste biltzarrak onarturiko testu bat aurrean duen biltzarrak testu horren inguruan eztabaidatuko du.

43 artikulua:

Lege proiektu eta proposamenak, horiek esku artean dituen biltzarrak ala Gobernuak eskatuta, propio horretarako izendaturiko komisiok azter ditzaten igorriko dira.

Halako eskaera bat ez daukaten proiektu eta proposamenak komisio iraunkor bati igorriko zaizkio, berorren kideen kopurua gehiezez seikoa izanen delarik biltzar bakoitzean.

44 artikulua:

Parlamentuko eta Gobernuako kideek zuzenketa eskubidea dute.

Eztabaidaren hasieraren ostean, Gobernuak azterketapean ezar dezake komisiotik igaro ez den zuzenketa oro.

Gobernuak hala eskatzen baldin badu, dagokion biltzarrak bozketak bakarrarekin erabakiko du eztabaidatzen ari den testu osoa edo zati bat, Gobernuak proposaturiko edo onarturiko zuzenketak soilik hartuko direlarik kontuan.

45 artikulua:

Lege proiektu edo proposamen oro elkarren jarraian parlamentuko biltzar bietan aztertuko da, testu berbera onar dadin.

Biltzar bietan desadostasuna sortzen delarik, biltzar bakoitzean birritan aztertua izan ostean ez balitz proiektu edo proposamen bat onartuko, edo Gobernuak premiazkoa kontsideratuko balu, Biltzar Nazionalean eta Senatuan behin bakarrik aztertua izan ondoren, lehen ministroak badauka batzorde misto paritario bat konbokatzea, berorrek proposatuko duelarik eztabaidatzeko dauden xedapenen gaineko testu bat.

Batzorde mistoak eginiko testu hori, biltzar bietan onartua izan dadin, Gobernuak igor dezake. Ezin da zuzenketarik egin Gobernuaren onespenez gabe.

Batzorde mistoak ez baldin badu erdiesten testu komun bat, edo testua ez baldin bada onartua aurreneko atalean aurreikusten den moduan, Gobernuak, testua Biltzar Nazionalean eta Senatuan oster

aztertua izan ondoren, Biltzar Nazionalari azken erabakia hartzeko eska diezaioke. Kasu horretan, Biltzar Nazionalak badauka aztertzea bai batzorde mistoak eginiko testua, bai hark bozkaturiko azken testua, Senatuan egin izan daitezkeen zuzenketak izanen dituen.

46 artikulua:

Konstituzioak lege organikoen izaera ematen dien legeak artikuluhonetan adierazten diren baldintzetan bozkatu eta aldatuko dira.

Proiektu edo proposamen bat ez da berau igortzen den biltzarrean aztertuko eta bozkatuko harik eta iritsi denetik hamabost eguneko tarte igaro denera arte.

45 artikuluan agertzen den prozedura aplikagarria da. Nolanahiere, biltzar bien artean adostasunik ez balego, testua ezin da azken azterketan Biltzar Nazionalean onartu berorren kideen gehiengo absolutua gabe.

Senatuari dagozkion lege organikoak baldintza beretan bozkatu behar dira biltzar bietan.

Lege organikoak ezin dira promulgatuak izan harik eta Kontseiluhon Konstituzionalak adierazten duenera arte konstituzioaren arabera direla.

47 artikulua:

Parlamentuak finantza lege proiektuak bozkatuko ditu lege organiko baterako aurreikusiak diren baldintzen arabera.

Biltzar Nazionalak ez badu lehen azterketan erabakia ematen, proiektu bat igorri zaionetik berrogei egun igaro direnean, Gobernuak Senatuari igorriko dio, berorrek hamabost eguneko epean erabaki beharko duenarik. 45 artikuluan aurreikusten den prozedura jarraituko da.

Parlamentuak ez balu erabakirik hartuko hirurogeita hamar eguneko epean, proiektuaren xedapenak ordenantza bidez indarrean jarriak izan daitezke.

Aldi baterako baliabideak eta zama finkatu behar dituen finantza lege bat ez baldin bada garaiz igortzen, aldi horren hasiera baino lehen promulgatua izan dadin, Gobernuak premiaz eskatuko dio parlamentuari zergak biltzeko baimena, eta dekretuz ezarriko ditu bozkatu-ko zerbitzuei dagozkien kredituak.

47-1 artikulua:

Lege organiko batek aurreikusiriko baldintzetan bozkatuko ditu parlamentuak gizarte segurantzaren finantza lege proiektuak.

Biltzar Nazionalak ez baldin badu lehen azterketan erabakia hartzen, proiektua igorri zaionetik hogeit eguneko epea igarotzen denean, Gobernuak Senatuari igorriko dio berorrek hamabost eguneko epean erabaki beharko duelarik. 45 artikuluan aurreikusiriko baldintzetan jarraituko da prozedura.

Parlamentuak ez baldin badu erabakirik hartzen berrogeita hamar eguneko epean, proiektuaren xedapenak ordenantza bidez indarrean jarriak izan daitezke.

Honako artikuluan aurreikusten diren epeak bertan behera utziko dira parlamentua jardunean ez baldin badago eta, biltzar bakoitzari dagokionez, 28 artikuluaaren bigarren atalaren arabera ez biltzea erabaki duen artean.

Kontuen Auzitegiak parlamentuari eta Gobernuari lagunduko die finantza eta gizarte segurantza legeen aplikazioaren kontrolean.

48 artikulua:

28 artikuluan agertzen diren azken hiru atalen aplikazioari kalte egin gabe, biltzarren gai-zerrendan lehentasuna dute —eta Gobernuak finkaturiko ordena jarraitu behar da— Gobernuak aurkezturiko lege proiektuek eta hark onarturiko lege proposamenek.

Astean saio bat behintzat lehentasunez erreserbatutik dago parlamentuko kideen itaunentzat eta Gobernuaren erantzunentzat.

49 artikulua:

Lehen-ministroak, Ministroen Kontseiluaren deliberazioaren ostean, Biltzar Nazionalaren aurrean adierazi behar du Gobernuaren erantzukizuna berorren programaren inguruan edo, behar izanez gero, politika orokorreko deklarazio baten inguruan.

Biltzar Nazionalak Gobernuaren erantzukizuna zalantzan jar dezake zentsura-mozio bat bozkatuta. Halako mozio bat soilik onargarria da Biltzar Nazionaleko kideen hamarren batek gutxienez sinatzen baldin badu. Hura aurkeztu ostean berrogeita zortzi ordu igaro behar dira bozketa egiteko. Mozioaren aldeko botoak zenbatuko dira

soilik; zentsura-mozioa ez da onartuko, Biltzarreko gehiengoak haren aldeko botoa ematen ez duen artean. Ondorengo atalean aurreikusten den kasuan izan ezik, diputatu batek ezin ditu sinatu hiru zentsura-mozio baino gehiago, ohiko saio batean, eta bat baino gehiago, ezohiko saioan.

Lehen-ministroak, Ministro Kontseiluaren deliberazioaren ostean, Gobernuaren erantzukizuna Biltzar Nazionalaren aurrean ezar dezake testu baten botoaren inguruan. Kasu horretan, testua onartutzat joko da, betiere, ez baldin bada onartzen hurrengo hogeita lau orduetan agertutako zentsura-mozio bat, aurreko atalean ematen diren baldintzen arabera.

Lehen-ministroak Senatuari politika orokorreko deklarazio baten onartzea eska diezaioke.

50 artikulua:

Biltzar Nazionalak zentsura-mozio bat onartzen badu, edo Gobernuaren programa edo politika orokorreko deklarazioa gaitzesten badu, lehen-ministroak errepublikako lehendakariari Gobernuaren dimisioa aurkeztu beharko dio.

51 artikulua:

Zuzenbidez berandutuko dira ohiko zein ezohiko saioak, kasua gertatuz gero, 49 artikuluaaren aplikazioa zilegi egiteko. Xede berarekin, saio gehigarriak eskubidezkoak dira.

VI Titulua – Nazioarteko hitzarmen eta akordioak

52 artikulua:

Errepublikako lehendakariak negoziatzen eta berresten ditu hitzarmenak.

Berretsia izan behar ez den nazioarteko akordio oro sinatzearren egiten diren negoziazio guztiez informatu behar zaio.

53 artikulua:

Bake hitzarmenak, merkataritza hitzarmenak, nazioarteko antolakuntzaren inguruko hitzarmen edo akordioak, estatuaren finantzen ingurukoak, izaera legeagileko xedapenak aldatzen dituztenak, pertso-

nen egoeraren ingurukoak, lurraldearen lagapena, trukaketa edo eransketa dakartenak, horiek guztiak ezin dira berretsi edo onartu lege baten bidez baizik.

Ez dira indarrean izanen harik eta berretsiak edo onartuak izan arte.

Aldaketa dagokion populazioaren bat etortzea gabe ezein lurralde lagatze, trukaketa edo eransketa ez da baliagarria.

53-1 artikulua:

Asilo kontuetan eta gizakiaren eskubideen eta oinarritzko askatasunen babes kontuetan errepublikarenak bezalako konpromisoak dituzten estatu europarrekin akordioak burutu ditzake errepublikak, bakoitzari dagozkion eskuduntzak zehaztuz, aurkezten zaizkien asilo eskaeren azterketarako.

Nolanahi ere, akordio horien arabera eskaera ez izan arren errepublikako autoritateen eskuduntzakoa, dena den eskubidea dute atzerriar bati asiloa eskaintzeko, honek askatasunaren alde eginiko jardueragatik, edo Frantzian beste arrazoi bat dela medio babesa eskatzen duelako.

53-2 artikulua:

Errepublika Nazioarteko Auzitegi Penalaren eskumena onar dezake 1998ko 18an sinaturiko hitzarmena dela medio.

54 artikulua:

Kontseilu Konstituzionalak —eskaera egiten diolarik errepublikako lehendakariak, lehen-ministroak, biltzar bietako presidente batek, hirurogei diputatuk edo hirurogei senatarik— deklaritzen baldin badu nazioarteko konpromiso batek konstituzioaren aurkako klausula bat duela, nazioarteko konpromiso hori berresteko edo onartzeko baimena ezin da eman harik eta konstituzioa berrikusten denera arte.

55 artikulua:

Behar bezala berretsiriko edo onarturiko hitzarmen edo akordioak, publikatuak direnean, legeek baino autoritate handiagoa dute, betiere, akordio edo hitzarmen bakoitzari dagokionez, beste alderdiak aplikatzen duen artean.

VII Titulua – Kontseilu Konstituzionala

56 artikulua:

Kontseilu Konstituzionalak bederatzi kide ditu, horien eginkizuna bederatzi urtekoa da eta ez da berrigarria. Kontseilu Konstituzionalaren heren bat berrituko da hiru urtean behin. Errepublikako lehendakariak hautatzen ditu hiru kide, beste hiru Biltzar Nazionaleko presidentek eta hiru Senatuko presidentek.

Gorago aipaturiko bederatzi kideez gain errepublikako lehendakari ohiak zuzenbidez dira bizitza osorako Kontseilu Konstituzionaleko kide.

Errepublikako lehendakariak izendatzen du presidentea. Berdinketa emango balitz, kalitatezko botoa du.

57 artikulua:

Kontseilu Konstituzionaleko kidearen eginkizunak bateraezinak dira ministroarenarekin edo parlamentuko kide batek dituenarenarekin. Gainontzeko bateraezintasunak lege organiko batek ezarriko ditu.

58 artikulua:

Kontseilu Konstituzionalak zainduko du errepublikako lehendakariaren hautaketaren zuzentasuna.

Erreklamazioak aztertu eta bozketako emaitzak agertuko ditu.

59 artikulua:

Eztabaidarik sortuko balitz, Kontseilu Konstituzionalak erabakiko du diputatuaren eta senatarien hautaketaren zuzentasunaren gainean.

60 artikulua:

11 eta 89 artikuluetan eta XV tituluan aurreikusten diren erreferendum jardueren zuzentasuna zainduko du Kontseilu Konstituzionalak. Emaitzak aditzera emango ditu.

61 artikulua:

Lege organikoak, berorien promulgazioa baino lehen, eta parlamentu biltzarren araudiak, horiek aplikatuak izan baino lehen, Kontseilu Konstituzionalak aztertu beharko ditu, konstituzioari egokitzen zaizkion ala ez adieraziko duelarik.

Xede berarekin, Kontseilu Konstituzionalera igor ditzakete legeak, horiek promulgatuak izan baino lehen, errepublikako lehendakariak, lehen-ministroak, Biltzar Nazionalako presidenteak, Senatuko presidenteak, hirurogei diputatuk edo hirurogei senatarik.

Aurreko bi ataletan aurreikusten diren kasuetan, Kontseilu Konstituzionalak hilabeteko epean erabaki beharko du. Nolanahi ere, Gobernuak eskatuta, premia balego, epe hori zortzi egunekoa izanenda.

Kasu horietan, Kontseilu Konstituzionalari egiten zaion igoerpe-nak promulgazio epea bertan behera utziko du.

62 artikulua:

Konstituzioaren kontrakoa dela deklaratzeko den xedapen bat ezin da promulgatua edo aplikatua izan.

Kontseilu Konstituzionalaren erabakiei ezin zaie errekurtsorik jarri. Botere publiko guztiei eta autoritate administratibo eta juridikoei gailentzen zaie.

63 artikulua:

Lege organiko batek finkatuko ditu Kontseilu Konstituzionalaren antolamendu eta funtzionamendu arauak, haren aurrean jarraituko den prozedura eta, bereziki, hartara gai eztabaidatsuak igortzeko epeak.

VIII Titulua – Agintaritza judizialaz

64 artikulua:

Errepublikako lehendakaria da agintaritza judizialaren berma-tzailea.

Magistraturako Kontseilu Gorenak laguntzen dio.

Lege organiko batek arautuko du epaileen estatutua.

Epaileak¹⁸ aldaezinak dira.

18 *Magistrats du siège*: oinarritzko diferentzia dago *magistrats du siège* deituriko epaileen eta *magistrats du parquet* deritzatenen artean. Bigarreni dagokie legea aplikaraztea.

65 artikulua:

Errepublikako lehendakariak zuzentzen du Magistraturako Kontseilu Gorena. Justizia ministroa da zuzenbidez¹⁹ presidenteordea. Errepublikako lehendakaria ordezkatzeko dezake.

Magistraturako Kontseilu Gorenak bi sail dauzka, bata epaileen²⁰ gainekoa, bestea fiskalena²¹.

Epaileei dagokien sailak, errepublikako lehendakariak eta justizia ministroak gainera, honakoek osatzen dituzte: bost epailek eta fiskal batek, estatuko kontseilari batek —Estatuko Kontseiluak izendatua denak—, eta parlamentuko zein arlo judizialekoak ez diren hiru pertsona ospetsuk, horiek hurrenez hurren errepublikako lehendakariak, Biltzar Nazionaleko presidentek eta Senatuko presidentek hautatuak direlarik.

Fiskalei dagokien saila, errepublikako lehendakariak eta justizia ministroak gainera, honakoek osatzen dute: bost fiskalek eta epaile batek, eta goragoko atalean aipaturiko estatu kontseilariak eta hiru pertsona ospetsuek.

Epailei dagokien Magistraturako Kontseilu Goreneko sailak proposamenak egingo ditu epaileen izendapenerako, baita kasazioko auzitegiko lehen presidentearen eta instantzia handiko auzitegiko presidentearen izendapenerako ere. Gainontzeko epaileen izendapenak haren onespenerekin egingo dira.

Sail horrek epaileen diziplina-kontseilu moduan jardungo du. Orduan, kasazioko auzitegiko lehen presidentek zuzenduko du.

Fiskalei dagokien Magistraturako Kontseilu Goreneko sailak onespenera emango du fiskalen izendapenen inguruan, Ministro Kontseiluan banatuko diren enpleguetan izan ezik.

Bere iritzia emango du fiskalei dagozkien diziplina zigorreretan. Orduan, kasazioko auzitegiko fiskal orokorrak zuzenduko du.

Lege organiko batek finkatuko ditu artikuluko honen aplikaziorako baldintzak.

¹⁹ *De droit*: daukan karguagatik.

²⁰ *Magistrats du siège*.

²¹ *Magistrats du parquet*.

66 artikulua:

Ezin da inor arbitrarioki atxilotu.

Agintaritza judizialak, askatasun indibidualaren babesle denak, printzipio horren errespetua bermatuko du legeak aurreikusten dituen baldintzetan.

IX Titulua – Justizia Auzitegi Gorena

67 artikulua:

Justizia Auzitegi Gorena eratuko da.

Biltzar Nazionalak eta Senatuak, euren kideen artean eta kopuru berarekin, zenbait kide hautatuko dituzte auzitegi horretarako, haien biltzarretako berritze partzial edo osoen ostean. Auzitegi horrek bere kideen artean hautatuko du presidentea.

Lege organiko batek finkatuko du Auzitegi Gorenaren osaera, bere funtzionamenduaren arauak, eta haren aurrean jarraitu beharreko prozedura.

68 artikulua:

Errepublikako lehendakaria ez da bere jardueraren betetzean eginiko ekintzen erantzule, traizio larriaren kasuan salbu. Soilik biltzar biek, bozketa publikoz eta horiek osatzen dituzten kideen gehiengo absolutuz, auziperarazi dezakete; Justizia Auzitegi Gorenak epaituko du.

X Titulua – Gobernuko kideen erantzukizun penala

68-1 artikulua:

Gobernuko kideek penalki erantzukizuna dute euren funtzioen betetzean eginiko ekintzak direla eta, edo eginak diren unean krimen edo delitutzat jotzen direnak direla eta.

Errepublikako Justizia Auzitegiak epaituko ditu.

Legeak krimen eta delituentzat duen definizioaren arabera eta zigorrentzat duen zehaztapenaren arabera jokatuko du Errepublikako Justizia Auzitegiak.

68-2 artikulua:

Errepublikako Justizia Auzitegiak hamabost epaile dauzka: Biltzar Nazionalak eta Senatuak berritze partzial eta osoen ostean haien kideen artean kopuru berean hautaturiko hamabi kide, batetik, eta kasazioko auzitegiko hiru epaile, bestetik. Horietako batek zuzenduko du Errepublikako Justizia Auzitegia.

Gobernuko kide batek bere jardueran eginiko krimen edo delitu batek kaltetua izan dela uste duen pertsona batek salaketa jar dezake onarpen batzordearen²² aurrean.

Batzorde horrek aginduko du prozeduraren ixtea edo kasazioko auzitegiko fiskal orokorrari igortzea, honek Errepublikako Justizia Auzitegira jo dezan.

Kasazioko auzitegiko fiskal orokorrak ofizioz jo dezake Errepublikako Justizia Auzitegira, onarpen batzordearen onespenerekin.

Lege organiko batek finkatuko ditu artikuluko honen aplikaziorako baldintzak.

68-3 artikulua:

Indarrean sartu baino lehenagoko ekintzei aplikatuko zaizkie titulu honetako xedapenak.

XI Titulua – Kontseilu Ekonomiko eta Soziala

69 artikulua:

Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak —Gobernuak eskatuta— berorri igorritako lege, ordenantza edo dekretu proiektuei zein lege proposamenei buruzko iritzia emango du.

Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak bere kide bat izenda dezake, honek parlamentuko biltzarrei aurkez diezaien kontseiluak zer iritzi duen berorri igorri zaizkion proiektu edo proposamenen inguruan.

70 artikulua:

Gobernuak Kontseilu Ekonomiko eta Sozialari iritzia eska diezaioke, halaber, izaera ekonomiko edo soziala duen edozein gairen

²² *Chambre des requêtes.*

inguruan. Izaera ekonomiko edo soziala duen egitasmo edo programazko lege proiektu oro igorriko zaio, hartaz iritzia eman dezan.

71 artikulua:

Lege organiko batek finkatuko ditu Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren funtzionamendu arauak eta osaera.

XII Titulua – Lurralde kolektibitateez

72 artikulua:

Errepublikako lurralde kolektibitateak honakoak dira: udalerriak, departamenduak, eskualdeak, estatus bereziko kolektibitateak eta 74 artikulua zuzentzen dituen itsasoz haraindiko kolektibitateak. Beste lurralde kolektibitate oro legeak sortuko du, kasua emango balitz, atal honetan aipatzen diren kolektibitateen lekuan.

Lurralde kolektibitateek erabakiak har ditzakete euren eremuan egokien gauza daitezkeen eskumenen barne dauden gaietan.

Legeak aurreikusiko dituen baldintzetan, kolektibitate horiek euren buruak libreki administratuko dituzte kontseiluen bitartez, eta euren eskuduntzak gauzatzeko botere araugilea dute.

Lege organikoak aurreikusiriko baldintzetan, betiere, kalte egin ez zaien artean libertate publiko baten gauzatzearen oinarritzko baldintzei edo konstituzioak bermatzen duen eskubide bati, lurralde kolektibitateek edo horien elkarteek indargabetu egin ditzakete —legeak edo araudiak baimentzen duenean— euren eskuduntzen baliatzea zuzentzen duten xedapen legeak edo erregelamenduzkoak, izaera esperimentalarekin eta iraupen mugatu batekin.

Lurralde kolektibitate batek ezin du beste baten gainean agindu. Nolanahi ere, eskuduntza baten gauzatzeak zenbait lurralde-kolektibitatearen parte-hartzea eskatzen duenean, legeak haietako bati edo haien elkarte bati baimena eman diezaieke euren jarduera komunaren moduak antolatzeke.

Errepublikako lurralde-kolektibitateetan, estatuaren ordezkaria, Gobernuako kide bakoitzaren ordezkari delarik, nazioaren interesez, kontrol administratiboaz eta legeen errespetuaz arduratuko da.

72-1 artikulua:

Legeak finkatuko du zein baldintzatan eska dezaketen lurralde-kolektibitate bateko hautesleek, eskaerarako daukaten eskubidea baliatuz, euren kolektibitateko legebiltzarraren gai-zerrendan sartzea biltzar horren eskuduntzaren barne dagoen gai bat.

Lege organikoak aurreikusiriko baldintzetan, lurralde-kolektibitate baten eskuduntzako erabaki edo ekintza proiektuak, kolektibitate horren inizatibari jarraiki, bertako hautesleen erabakipean ezar daitezke erreferendum bidez.

Proposamen bat dagoenean lurralde-kolektibitate bati estatus berezia emateko edo bere antolamendua aldatzeko, legearen arabera erabaki daiteke interesaturiko kolektibitateetan inskribatuak dauden hautesleei kontsulta egitea. Kolektibitateen mugen aldaketa ere hautesleei kontsulta dakieke, legeak aurreikusten dituen baldintzetan.

72-2 artikulua:

Legeak finkaturiko baldintzetan, lurralde-kolektibitateek baliabideak erabil ditzakete libreki.

Edonolako zergen emaitzaren osotasuna edo zati bat jaso dezakete. Legeak baimen diezaieke, berorrek agintzen dituen mugen barne, oinarriak eta tasak ezartzea.

Zerga-bilketak eta lurralde-kolektibitateen gainerako baliabide propioak, kolektibitate kategoria bakoitzarentzat baliabideen multzotik zati erabakigarria suposatzen du. Lege organikoak finkatuko ditu arau hau indarrean jartzeko baldintzak.

Estatuaren eta lurralde-kolektibitateen arteko eskuduntza transferentzia gertatzean, kasu guztietan horien egikaritzeak eskatzen zituen baliabideen baliokideak transferituko dira batera. Lurralde-kolektibitateen gastuak handitzen dituen eskuduntzen sorrera edo gehikuntza guztiei, legeak zehaztuko dituen baliabideak emango zaizkie.

Legeak bidezko banaketa mekanismoak aurreikusten ditu lurralde-kolektibitateen artean berdintasuna izan dadin.

72-3 artikulua:

Errepublikak frantziar herriaren baitan aintzatesten ditu itsasoz haraindiko populazioak, askatasun, berdintasun eta senidetetasun ideal komuna izanen dutelarik.

Guadalupe, Guyana, Martinika, Reunion, Mayotte, Saint-Pierre-et-Miquelon, Wallis eta Futuna uharteak eta frantziar Polinesia 73 artikulua zuzentzen ditu; 73 artikulua azken atala aplikatuz sorturiko lurralde-kolektibitateak eta itsasoz haraindiko departamendu eta erregioak, eta gainontzeko kolektibitate guztiak 74 artikulua zuzentzen ditu.

Kaledonia Berriaren estatusa XIII tituluak zuzentzen du.

Legeak finkatuko du frantziar lur austral eta antartikoen erregimen legegilea eta antolamendu berezia.

72-4 artikulua:

Ezin da aldaketarik egon 72-3 artikulua bigarren atalean aipatzen diren kolektibitateen ezein zatitan edo osotasunean, duten erregimenetik 73 eta 74 artikuluetan aurreikusten direnetera, baldin eta kolektibitatearen hautesleek edo hautesleen zati batek hurrengo atalean aipatzen diren baldintzetan aurrez euren onespena eman ez badute. Erregimen aldaketa hori lege organiko batek egingo du.

Errepublikako lehendakariak —parlamentua jardunean denean, Gobernuak edo biltzar biek proposatuz gero, saioa batera dutelarik eta Aldizkari Ofizialean argitaratuta— erabaki dezake itsasoz haraindiko lurralde-kolektibitate bateko hautesleei kontsulta egitea, berorren antolamenduari, eskuduntzei edo erregimen legegileari buruz. Kontsulta horrek aurreko atalean aurreikusiriko aldaketa suposatzen duenez eta Gobernuaren proposamenaz burutzen denez, Gobernuak biltzar bakoitzaren aurrean adierazpen bat egin beharko du, horri eztabaida batek jarraituko diolarik.

73 artikulua:

Itsasoz haraindiko departamendu eta erregioetan legeak zuzentze osoz aplikatuko dira. Kolektibitate horien ezaugarri eta betebeharrei hobeto egokitzearren legeei egokitzapenak egin dakizkieke.

Kolektibitateek egokitzapen horiek egin ditzakete haien eskuduntza diren alorretan eta legeak baimentzen badie.

Lehenengo atalean esaten denaren arabera indargabetuz eta kolektibitateen berezitasunak kontuan hartuta, honako artikulua zuzentzen dituen kolektibitateak legeak baimenduak izan daitezke euren lurraldean aplikagarriak diren arauak egitera, legearen alorrean dauden eremu mugatu batzuetan.

Arau horiek ezin daitezke izan honakoen ingurukoak: nazionalitate, eskubide zibilak, askatasun publikoen bermeak, pertsonen gaitasun juridikoaren arauak, justiziaren antolaketa, zuzenbide penala, prozedura penala, atzerriko politika, defentsa, segurtasun eta ordena publikoa, moneta, kreditua eta trukea, eta hauteskunde araubidea. Lege organiko batek zehatz eta osa dezake zerrenda hau.

Aurreko bi ataletan aurreikusiriko xedapenak ez dira Reunion uhartean aplikagarriak.

Bigarren eta hirugarren ataletan aurreikusiriko eskumenak, dagokion kolektibitateak eskatuta, lege organiko batek aurreikusiko dituen baldintza eta mugekin erabakiko dira. Eskumen horiek ezin dira eman askatasun publiko baten edo konstituzionalki bermatua den eskubide bat gauzatzeko oinarritzko baldintzak jokoan direnean.

Itsasoz haraindiko erregio edo departamendu bat beste kolektibitate baten bidez ordezkatzeari, edo bi kolektibitate horientzat biltzar araugile bakarria eratzea, bi ekintza horiek ezin dira legearen arabera egin, ez baldin bada jaso, 72-4 artikuluan aurreikusten diren formen arabera, kolektibitate horietan inskribaturiko hautesleen onespena.

74 artikulua:

Honako artikulua zuzentzen dituen itsasoz haraindiko kolektibitateek errepublikaren barnean dituzten interesak islatuko dituen estatusa izanen dute.

Biltzar araugileari kontsultatu ostean, lege organiko batek definituko du estatus hori; honakoak finkatuko direlarik:

—legeak eta araudiak aplikagarriak izateko beharrezko baldintzak;

—kolektibitatearen eskuduntzak; kolektibitateak jada baliatzen dituenak izan ezik, estatuak ezin ditzake transferitu eskuduntzak 73 artikuluaaren laugarren atalean aipatzen diren alorretan eta, kasua ematen denean, lege organiko batek zehaztu eta osatuko dituenetan;

—kolektibitatearen erakundearen antolamendu eta funtzionamendua arauak eta biltzar araugilearen hauteskunde erregimena;

—kolektibitatearen xedapen partikularrekin zerikusia duten dekretu edo ordenantza proiektuen eta lege proposamen eta proiektuen inguruan, edo haien eskuduntza diren arloetan egiten diren nazioarteko

hitzarmenen berrespen edo onarpenaren inguruan, erakunde horiei kontsulta egiteko baldintzak.

Lege organikoak, autonomia duten kolektibitateen kasuan, honakoak zein baldintzatan emango diren zehatz dezake halaber:

—Estatu Kontseiluak biltzar araugilean kontrol juridiko espezifikoa gauzatzea, azken honek legearen arabera egikaritzen dituen eskuduntzetan;

—kolektibitatearen estatusa indarrean ezarria izan ostean promulgaturiko lege bat biltzar araugileak aldatzea, Kontseilu Konstituzionalak, kolektibitatearen autoritateek eskatuta, egiaztatzen badu lege hori kolektibitatearen eskuduntzen eremukoa dela;

—kolektibitateak, bere populazioaren mesedetan, tokian tokiko beharrek eragindako neurriak hartzea, batetik, enplegurako sarrera kontuetan, bestetik, jarduera profesional baten gauzatzeko nahiz onibarrak babesteko eskubideen inguruan;

—Kolektibitateak —estatuaren kontrolpean— dauzkan eskuduntzak egikaritzea; betiere, askatasun publikoak gauzatzeko lurralde nazional osoan dauden bermeak errespetatuz.

Kolektibitateen gainontzeko antolamendu partikularreko moduak, artikulua honi dagozkionak, legearen bidez zehaztu eta aldatuko dira, biltzar araugileari kontsultatu ostean.

74-1 batgarren artikulua:

74 artikulua aplikatzen zaien itsasoz haraindiko kolektibitateetan eta Kaledonia Berrian Gobernuak, estatuaren eskuduntzak diren alorretan, ordenantza bidez zabal ditzake, beharrezko adaptazioekin, metropolian indarrean diren legezko xedapenak, betiere, legeak modu adierazian ez baldin badu ezinezkoa egiten alor espezifiko horietan prozedura hori erabiltzea.

Ordenantzak ministroen kontseiluan onartuko dira, biltzar araugileei eta Estatu Kontseiluari kontsultatu ondoren. Indarrean sartuko dira publikatzen direnean. Iraungi egingo dira parlamentuak ez baldin baditu onartzen publikazio horren ondorengo hamazortzi hila-beteetan.

75 artikulua:

Zuzenbide erkidearen egoera zibila ez dutenek —34 artikuluan aipatzen den bakarra—, euren egoera zibil pertsonala mantenduko dute hari uko egiten ez dioten artean.

XIII Titulua – Kaledonia Berriari dagozkion behin-behineko xedapenak

76 artikulua:

Kaledonia Berriko populazioari dei egiten zaio 1998ko abenduaren 31 baino lehenago bozkatzea Noumea-n 1998ko maiatzaren bostean sinaturiko eta 1998ko maiatzaren 27an frantziar errepublikako Aldizkari Ofizialean publikaturiko hitzarmenaren xedapenen gainean.

1998ko azaroaren 9ko 88-1028. legearen 2. artikuluan agertzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonak har dezakete parte bozketan.

Bozketaren antolaketaarako beharrezko neurriak dekretuz Estatu-ko Kontseiluan finkatu eta ministroen kontseiluan erabakiko dira.

77 artikulua:

76 artikuluan aurreikusten den kontsultan hitzarmena onartu ondoren, Kaledonia Berriko biltzar araugileari kontsultatuz eginiko lege organikoak honakoak determinatuko ditu, Kaledonia Berria gara dadin hitzarmen hartan ematen diren jarraibideen arabera eta haren indarrean jartzeak eskatzen duen moduan:

—Kaledonia Berriko erakundeei, modu iraunkorrean, transferituko zaizkion estatuaren eskuduntzak, transferentzia horren modua eta mailakatzeari, eta handik sortzen diren gastuen banaketa;

—Kaledonia Berriko erakundeen funtzionamendu eta antolamendurako arauak eta bereziki edo baldintzapean biltzar araugileak onarturiko ekintza maila jakin batzuk publikatu aurretik, ea Kontseilu Konstituzionalaren ikuskapenerako igor daitezkeen;

—hiritartasunari, hauteskunde erregimenari, enpleguari eta ohiturazko egoera zibilar buruzko arauak;

—Kaledonia Berriko populazioak subiranotasun osoa lortzeko bozketa egiteko baldintza eta epeak.

Hitzarmena indarrean ezar dadin 76 artikuluan aipatzen diren gainontzeko beharrezko neurriak legearen bidez finkatuko dira.

78-87 artikulua (indargabetuak)

XIV Titulua – Elkartze itunak

88 artikulua:

Errepublikak itunak izenpe ditzake berarekin elkartu nahi diren estatuekin, euren zibilizazioak garatzeko xedearekin.

XV Titulua – Europar Erkidegoak eta Europar Batasuna

88-1 artikulua:

Europar Erkidegoetan eta Europar Batasunean parte hartuko du errepublikak, horiek euren eskuduntzetako zenbait amankomunean gauzatzea erabaki baitute libreki, eratu zituzten itunen bidez.

Errepublikak Europar Batasunean parte har dezake, 2004ko urriaren 29an Europako Konstituzioa ezartzen duen itunak aurreikusten dituen baldintzen arabera.

88-2 artikulua:

Elkarrekikotasun printzipioaren arabera eta 1992ko otsailaren 7an sinaturiko Europar Batasunaren Itunean aurreikusten diren moduen arabera, Frantziak onartzen ditu batasun ekonomiko eta monetarioa ezartzeko beharrezko eskuduntzen transferentziak.

Printzipio beraren arabera eta Europar Batasuna eratzen duen itunak —1997ko urriaren 27an idatzia izan zen bezala— aurreikusten dituen moduen arabera, pertsonen zirkulazio askerako zein zirkulazioaren inguruko arloetarako arauak zehazteko beharrezko eskuduntzak transferi daitezke.

Legeak finkatuko ditu Europako atxilotzeko aginduari buruzko arauak, Europar Batasunaren Itunaren oinarriarekin onarturiko legeei jarraiki.

88-3 artikulua:

Elkarrekikotasun printzipioaren arabera eta 1992ko otsailaren 7an sinaturiko Europar Batasunaren Itunean aurreikusten diren moduen

arabera, udal-hauteskundeetan bozkatzeko eta hautagai izateko eskubidea soilik Frantzian bizi diren Europar Batasuneko hiritarrei eskainiko zaie. Hiritar horiek ezin dituzte alkate edo alkateorde funtzioak bete, ezta konpromisarioen eta senatarien izendapenean parte hartu ere. Biltzar bietan hitz berekin onaturiko lege organiko batek determinatuko ditu honako artikuluaaren aplikazio baldintzak.

88-4 artikulua:

Gobernuak Biltzar Nazionalaren eta Senatuaren aurrean ezarriko ditu, Europar Batasuneko Kontseilura igorriak izateko unean, izaera legegilea duten xedapenak dauzkaten Europar Erkidegoetarako edo Europar Batasunerako lege proiektu edo proposamenak. Modu berean, gainerako lege proiektu edo proposamenak eta Europar Batasunaren erakunderen batetik datorren dokumentu oro ere biltzarrek azter dezaten horietara igor dezake.

Biltzar bakoitzeko araudiak finkatzen dituen moduen arabera, aurreko atalean aipaturiko proiektu, proposamen edo dokumentuen inguruko erabakiak bozkatu egin daitezke, kasua ematen baldin bada, saioetatik kanpo.

88-5 artikulua:

Estatu bat Europar Batasunean eta Europar Erkidegoetan sartzea baimentzen duen ituna berresteko lege proiektu ororentzat erreferenduma deituko du errepublikako lehendakariak.

Europako Konstituzioa ezartzen duen ituna indarrean sartzetik aurrera, XV Titulua honakoa izanen da:

XV Titulua – Europar Batasuna

88-1 artikulua:

2004ko urriaren 29an sinaturiko Europako Konstituzioa ezartzen duen itunak finkaturiko baldintzetan, frantziar errepublikak Europar Batasunean parte hartzen du, libreki eskuduntza jakin batzuk komunean gauzatzea erabaki duten estatuak osatua delarik Batasuna.

88-2 artikulua:

Legeak finkatuko ditu Europako atxilotzeko aginduari dagozkion arauak, Europar Batasuneko erakundeek erabakitako legeei jarraiki.

88-3 artikulua:

Udal-hauteskundeetan bozkatzeko eta hautagai izateko eskubidea eman dakieke Frantzian bizi diren Europar Batasuneko hiritarrei. Hiritar horiek ezin dituzte alkate edo alkateorde funtzioak bete, ezta konpromisarioen eta senatarien izendapenean parte hartu ere. Biltzar bietan berdin adierazia eta onartua den lege organiko batek determinatuko ditu honako artikuluaaren aplikazio baldintzak.

88-4 artikulua:

Gobernuak Biltzar Nazionalaren eta Senatuaren aurrean ezarriko ditu, Europar Batasuneko Kontseilura igorriak izateko unean, izaera legegilea duten xedapenak dauzkaten europar lege proiektuak, baita legearen eremuko xedapenak dauzkaten Europar Batasuneko gainontzeko proiektu edo proposamenak ere. Modu berean, gainerako lege proiektu edo proposamenak, eta Europar Batasunaren erakunderen batetik datorren dokumentu oro ere, biltzarrek azter dezaten horietara igor dezake Gobernuak.

Biltzar bakoitzeko araudiak finkatzen dituen moduen arabera, aurreko atalean aipaturiko proiektu, proposamen edo dokumentuen inguruko erabakiak bozkatu egin daitezke, kasua ematen baldin bada, saioetatik kanpo.

88-5 artikulua:

Biltzar Nazionalak edo Senatuak iritzi arrazoitua eman dezakete europar ekintza legegilezko proiektu baten inguruan, subsidiariotasun printzipioarekin. Iritzi hori dagokion biltzarreko presidentek europar parlamentuko eta Europar Batasuneko Kontseiluko eta Batzordeko presidenteei igorriko die. Gobernua informatua izanen da.

Biltzar bakoitzak prozedurak burutu ditzake Europar Batasuneko Justizia Auzitegian, Europar Batasuneko ekintza legegile

batek subsidiariorotasun printzipioa bortxatzen duenean. Gobernuak igorriko dio helegitea Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari.

Xede horretarako, kasua ematen bada, erabakiak saioetatik kanpo har daitezke, biltzar bakoitzeko araudiak inizatiba eta eztabaidarako finkatzen dituen moduen arabera.

88-6 artikulua:

Biltzar nazionalak eta Senatuak onartua delarik, hitz berekin adierazia den mozio baten bidez, parlamentuak aurka egin diezaioke legeen onarpenerako arauen zuzenketari, Europako Konstituzioa ezartzen duen itunean agertzen den zuzenketa prozedura sinplifikatuaren arabera.

88-7 artikulua:

Estatu bat Europar Batasunean eta Europar Erkidegoetan sartzea baimentzen duen ituna berresteko lege proiektu ororen-tzat erreferenduma deituko du errepublikako lehendakariak.

XVI Titulua – Konstituzioaren zuzenketa

89 artikulua:

Konstituzioaren zuzenketa, batetik, errepublikako lehendakariari dagokio, lehen-ministroak proposatuta, eta, bestetik, parlamentuko kideei.

Biltzar biek modu berean berdin adierazita onartu beharko dute zuzenketa proiektua edo proposamena. Zuzenketa behin betirakoa izanen da erreferendumean onartua izan ostean.

Nolanahi ere, zuzenketarako ez da erreferenduma deituko, errepublikako lehendakariak erabakitzen duenean kongresuan bilduriko parlamentuari igortzea; kasu horretan, zuzenketa proiektua ez da onartua izanen baldin eta ez badu lortzen emaniko botoen hiru bostenen gehiengoa. Kongresuaren mahaia Biltzar Nazionalarena bera izanen da.

Ezin izanen da zuzenketa prozedurarik burutu lurraldearen integritatea kaltetua denean.

Gobernuaren forma errepublikarrak ezin du zuzenketarik izan.

XVII Titulua – Behin-behineko xedapenak
(indargabetua)

C

INGURUMENAREN GUTUNA*

Frantziar herriak,
ikusita,
baliabideek eta oreka naturalak gizateriaren aurrerakuntzan eragina dutela;
gizateriaren etorkizuna eta existentzia bera ere gizakiaren ingurumen naturalari erabat lotuak direla;
ingurumena gizaki guztion ondarea dela;
gizakiak gero eta eragin handiagoa duela bizi-baldintzetan eta norbere eboluzioan;
aniztasun biologikoaren, pertsonaren betetasunaren eta gizartearen aurrerakuntzaren gainean eragina dutela kontsumo edo ekoizpen modu jakin batzuek eta baliabide naturalen gehiegizko esplotazioak;
ingurumenaren babesa ikertua izan behar dela nazioaren gai-nontzeko funtsezko interesak legez;
garapen eramangarria ziurtatzearen, egungo belaunaldiaren beharrak asetzeko aukerak ez dutela etorkizuneko belaunaldiek eta beste herri batzuek euren beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan ezarri behar;
hortaz, honakoa adierazten du:

1 Artikulua:

Denok daukagu osasunarekiko begirunea duen ingurumen orekatu batean bizitzeko eskubidea.

2 Artikulua:

Denok daukagu ingurumena babesteko eta hobetzeko betebeharra.

* Iturria: *La Charte de l'environnement*; Legifrance, Le service public de la diffusion du Droit (Frantzia),
<http://www.legifrance.gouv.fr/WAspad/UnTexteDeJorf?numjo=JUSX0300069L>
(2007ko urriaren 11n atzitua).

3 Artikulua:

Denok, legeak zehazturiko baldintzetan, aurreikusi eta saihestu behar ditugu ingurumenari egin dakizkiokeen kalteak, edo, bestela, kaltearen ondorioak ahalik eta gehien txikiagotu.

4 Artikulua:

Legeak zehazten dituen baldintzetan, denok lagundu behar dugu ingurumenari egin dizkiogun kalteak konpontzen.

5 Artikulua:

Kalte egite batek, nahiz eta egungo ezagutza zientifikoaren egoeragatik oraindik ez jakin kalte egitea dela, modu larri eta itzulezinean mintzen baldin badu ingurumena, agintaritza publikoak —arretazko printzipioaren arabera eta dagokion eskumenaren barne— arriskuen ebaluaziorako prozedurak ezarri eta behin-behineko neurri egokiak hartuko ditu halako kaltea gelditzeko.

6 Artikulua:

Politika publikoek garapen eramangarria sustatu behar dute. Horretarako, uztartu egin behar dituzte, batetik, ingurumenaren babesa eta hobekuntza eta, bestetik, garapen ekonomikoa eta aurrerakuntza soziala.

7 Artikulua:

Pertsona orok du eskubidea, legeak zehazturiko baldintza eta mugen barne, batetik, agintaritza publikoak ingurumenari buruz duen informazioa jasotzeko eta, bestetik, ingurumenaren gain eragina duten erabaki publikoetan parte hartzeko.

8 Artikulua:

Ingurumenaren gaineko hezkuntzak eta formazioak honako gutunak zehazten dituen eskubide eta betebeharren gauzatzeraz lagundu behar dute.

9 Artikulua:

Ikerketak eta berrikuntzak ingurumena babesten eta baloratzen lagundu behar dute.

10 Artikulua:

Honako gutunak inspiratuko du Frantziaren jardueraz Europar eta nazioartean.

5.

NAPOLEON KODEA (1804) [CODE NAPOLEON]*

ATARIKO TITULUA

LEGEEN ARGITARATZEAZ, ONDORIOEZ ETA APLIKAZIOAZ OROKORREAN

Lehen artikulua:

Legeak Frantziako lurralde osoan betetzekoak dira, LEHEN KONTSULAK egiten duen promulgazioa jarraiki.

Errepublikaren eremu guztietan beteko dira, haien promulgazioa ezagutaraz daitekeenetik aurrera.

LEHEN KONTSULAK eginiko promulgazioa ezaguna dela kontsideratuko da, gobernuaren egoitza duen departamenduan, promulgazioa egin eta hurrengo egunean; gainontzeko departamendu guztietan, epe bera bukatzerakoan, egun bat gehituko delarik promulgazioa egin den hiritik departamendu bakoitzeko hiriburura dagoen hamar miriametroko (gutxi gorabehera antzinako hogeigoleoa).

Bigarren artikulua:

Legeak etorkizunerako xedatzen du soilik; ez dauka atzeraeginezko ondorioirik.

Hirugarren artikulua:

Poliziaren eta segurtasun publikoaren legeek lurralde osoko biztanleak behartzen dituzte.

Frantziar legeak arautzen ditu ondasun higiezinak, atzerriarren jabetzakoak barne.

Pertsonen egoerari eta gaitasunei dagozkien legeek frantziar guztiak behartzen dituzte, baita atzerrian direnak ere.

* Iturria: Legifrance, Le service public de la diffusion du Droit (Frantzia), <http://www.legifrance.gouv.fr/WAspad/VisuArticleCode?commun=&code=&h0=CIVILL0.rcv&h1=1&h3=0> (2007ko urriaren 11n atzitua).

Laugarren artikulua:

Legearen ez-aipatzeagatik, iluntasunagatik edo askieztasunagatik epairik emateari uko egiten dion epailea justizia ukapenaren erruduntzat jo eta auziperatua izan daiteke.

Bosgarren artikulua:

Epaileei ez zaie zilegi haiengana igortzen diren kasuetan xedapen orokor eta erregelamendu-mailako bidez erabakitzea.

Seigarren artikulua:

Ezin dira hitzarmen partikularren bidez indargabetu ordena publikoan eta ohitura onetan eragina duten legeak.

X
SUITZA

ZUZENBIDE SUITZARRA

Goraipatu izan da Suitzar Konfederazioak¹ duen kokagune aparta. Mendebaldeko eta erdialdeko Europaren muintetik gertu, kontinentearen iparraldearen eta hegoaldearen erdibidean dago. Herrialde oso populatua izanik, hizkuntza nahiz kultura anitzekoa, Erdi Aro Berantiarera lerratzen den esperientzia federalista eta demokratikoa bizi izan du.

1.- Suitza Erdi Aro Goiztiarrera arte

K.a. 850 urtetik aurrera tribu zeltikoek —helbetiarrek— eta retiarrek populatu zuten Suitza; nolanahi ere, gure garaiazen hasieratik aurrera, eta mendeetan zehar, zeharo erromatartu zen, egungo suitzar lurraldea Galia eta Erromako eremu administratiboan barne egon baitzen.

Inperio bukaerako migrazio germaniarrekin aldatu egin ziren giza elementua eta lurraldeko jendeen ohiturak. Ipar ekialdean, alemanek okupatu zuten, sakona izan zen germanizazioa hizkuntz eta kultur arloan, baina ez zen ezabatu hegomendebaldearen izaera latinoa, eskasa izan baitzen borgoinar edo burgundiarren presentzia. Lurraldea,

1 *Confederatio Helvetica*, latinez, *Confédération Suisse*, frantsesez, *Schweizerische Eidgenossenschaft*, alemanez, eta *Confederazione Svizzera*, italieraz [sarreraren egilearen oharra].

egoera politikoari dagokionez, erresuma frankoaren menpe geratu zen, bai merovingioen dinastiaren garaian, bai karolingioenean. XI. mendean, aldiz, Erromatar-Germaniar Inperio Santuaren barne geratu zen, eta, Erdi Aro Goiztiarrera arte, Suitzako jendeek erdialde-mendebaldeko Europaren bilakaera jarraituko zuten.

2.- Konfederazioaren sorrera

Inperio Santua Italiako lurretatik hedatu nahiak Alpeetako pasabideen balioa handiagotu zuen. Pasabideetan bizi ziren herriak, artzaintzan eta oihanetako bizibidean zihardutenak —Uri, Schwyz, Unterwalden—, Habsburgoen boterea apaltzeko, Austriako dukeek lurralde horien gaineko interes handia baitzuten, Erromatar-Germaniar Inperio Santuko buruarekin zuten harreman zuzenaz baliatu ziren. 1291n, eta ostera ere 1315ean, aipaturiko lehen bi kantoiek eta Nidwald-ek elkarri laguntzeko ituna egin zuten, Habsburgoen erasoak ekiditeko eta, beranduago, eskubide feudalak mantentzeko xedez. Habsburgoen mendetasunetik askatzeko izenpeturiko *Rütliko hitzarmenarekin* sortu zen suitzar konfederazioa. Sorrerarako gertakizunak istorio bitxiez apaindu ziren, eta berauek eragin handia izan zuten etorkizuneko belaunaldietan.

Auzoko inguruko lurraldeetan feudalismoaren gainbehera monarkia handiek euren probetxurako erabili zuten arren, suitzar dibertsitatea bere horretan mantendu zen, kantoi subiranoen elkartea medio.

3.- Aliantzaren lurralde hedapena

XIV. mendean zehar, zenbait gertakarik aliantza **zortzi kantoietara**, «konfederazio zaharra» deritzanera, hedatzea eragin zuten. Eskualde hiritar batzuek —Luzerna, Zurich, Berna— bat egiten zuten, Habsburgoenganako areriotasunean, lehen aliantzaren sortzaile ziren oihan eremuko kantoiekin, eta konfederaziora bildu ziren, beroni giza eta ekonomia baliabide handiagoak ekarriz eta pisu politiko handiagoa emanez. Aliantza berria austriarren erasoei egiteko gai zen.

Hurrengo mendean, Alemania hegoaldeko mugimendu komunalistaren ahultzeak, hango estatuetan agintzen zuten printzeen menpe, ez zuen eraginik izan suitzar kantoietan, hauek udal izaera baitzuten. Aldiz, herrialdearen suspertze politikoa ekarri zuen, auzoko lurralde-

kin —komunitate, jaurreri eta apezpikutzekin— paktuak egitea ahalbi-deratu baitzuen, baita lurralde berriak konkistatzeko aukera ere, guda-rostee federalaren indarrari esker. Kontuan izan behar da Suitzak mer-zenarioak bidaltzen zituela atzerrira Erdi Aroan jadanik.

4.- Konfederazioa Garai Modernoan

Bernak Borgoinarekin izaniko norgehiagokaren ondoren, Fri-burgo eta Solothurn sartu ziren konfederazioan (1481). Bi lurralde horien sarrerak oreka eman zion osotasunari, hiru hiri-kantoei-ekin bate-ra —Berna, Luzerna eta Zurich—, landa eremuko kantoiak —Uri, Schwyz, Unterwalden, Glarus eta Zug— orekatzen baitziren. Maximiliano I. enperadoreak bere menpeko lurraldeak —Suitza barne— kon-trolatzeko saiakerek beste hiru lurralde sartzearagin zuen: 1499an Basilea eta Schaffhausen, eta 1513an Apenzell. *Alemania Garaiko ligak*, orduan hala deitzen baitzitzaion konfederazioa osatzen zuten **hamahiru kantai edo estatu txikiei**, iraultza frantsesean zehar iraun zuen. Konfederazioa oraindik ere Erromatar-Germaniar Inperio San-tuaren parte zen, formalki bederen; hala ere, esan bezala, Austriako lei-nuaren dependentzia areagotzearen inperioak eginiko saiakerei aurre egin zitzaion, eta 1501ean Basileako bakearen bidez independentzia aitortu zitzaion konfederazioari. Garai horretan garatzen ari zen sobe-rania zentral baten kontzeptuak ez zion eragin Suitzan botere politikoa ulertzeko zegoen moduari, konfederazio ereduak ez baitzuen beharrez-koa estatu zentralismoa, ezta —sortzen denean— nazionalitateen prin-tzipioaren moldatze efektua ere.

Modernitatearen hasierarekin, Julio II. aita santuak Frantziaren aurka eratu zuen aliantza dohakabeen parte hartu ostean, Marignano-n (1515) garaitua izan baitzen, konfederazioko kantoiek Frantziarekin bake hitzarmen onuragarri bat itundu zuten, elkarren arteko merkatar-i-tza librea zilegi egiten zuena. Orduantxe bukatu zen Suitzak europar gatazketan parte hartzea, eta suitzarrek neutraitasun printzipioa euren arau egin zuten.

Ulrich Zwingli-k 1519an hasiriko erreformak tirabirak sortu zituen kantoi- en artean: alde batean, gehiengo zirelarik, zazpi kantai katolikoak, bestean, lau protestanteak. Erreformak arrakasta izan zuen mendebaldeko kantai frankofonoetan; izan ere, Kalbinek Genevan

benetako teokrazia bat ezarrarazi zuen. Kontrarreformak sinesmen berriaren hedapena gelditu zuen, katolikoek aldeko oreka batera iritsita, baina, betiere, erreformatuak bizi ziren lekuetan sinesmen askatasuna zegoelarik. Konfederazioarenganako leialtasuna ideologia mailako planteamenduen gainetik zegoen. Bestetik, Westfaliako bakean (1648) onartu egin zen inperioarekiko lotura formal guztien haustura.

XVII. eta XVIII. mendeetan, bakeari esker Frantzia protestantetik langile trebatuak etorri zirenez, baita atzerrian kontratatuturiko merzenario anitz ere, erloju eta ehun industria garatu zen Suitzan. Gobernu oligarkiko batzuek kontserbadorismo paternalista batekin zuzentzen zituzten kantoi gehienak, batzuetan, herri xehearen aurkakotasuna sortuz. Hortik, frantses iraultzako planteamendu berdintzaileek Suitzan oihartzun izatea.

5.- Frantses iraultzaren eragina eta konfederazioaren berrikuntza

Frantses direktorioa baliatu egin zen Suitzako agintarien jakobinismoaz —nabaria, batez ere, kantoi batzuen eta besteen arteko harremanean— zein beronek sorturiko ezinegonaz, eta, kantoi nagusien erresistentzia gainditu ondoren, herrialdea konkistatu zuen. Orduan osatu zen *Errepublikak Helbetikoa*. Parisen idatzi zen errepublikarako konstituzioa, eta herrialdea frantses ereduari jarraiki antolatua eta zentralizatua izan zen. Konstituzio horrek hiritar guztiei eskubide berak aitortzen zizkien, baina erroldazko bozketa sistema batek burgesia faboratzen zuen. Frantziaren interes ekonomiko eta politikoen menpe zegoen errepublika satelitea izanik, biztanleek zergak ordaindu behar zituzten. Sortu zen ezinegonak eta egonkortasun ezeko giroak federalisten posizioak indartu zituen.

Napoleon konturatu zen direktorioak ezarritako sistema ez zela egokia Suitzarentzat. 1803an gudarosteak kendu zituen handik, eta bi alderdietako suitzar diputatuen ikuskaritzapean ezarri zuen hark idatzirikoa konstituzio bat. *Bitartekaritza-akta* deritza, eta bertan lehen aldiz dauka Suitzak *Konfederazio Helbetiko* izen ofiziala. Berrezarri egin ziren 13 kantoiak, baita 19 izatera pasa ere, aliatuak edo menpekotuak ziren zenbait herrialde biltzerakoan.

Hamarkada bat beranduago, Napoleonen erorialdiaren eta bere bitartekaritza-aktaren deuseztatzearen ostean, aldaketa nabarmenak

gertatu ziren herrialdean. Berrikuntza handiak gertatu arren, antzinako estatusa mantendu zen. 1815eko eta 1816ko Vienako eta Pariseko kongresuetan Suitzaren independentzia, neutraltasuna eta bortxaezintasuna proklamatu ziren. Kantoietako biztanleek *Hitzarmen federal* berri bat itundu zuten. Valais, Neuchâtel eta Geneva osoki onartuak izan zirelarik, **25 kantoiko** egitura bat eratu zen. Gobernuak eutsi egin zion 1798 baino lehenagoko ordena konstituzionalari, hau da, batetik aristokratis-moa eta, bestetik, konfederalismoa gordetzen ziren, eta kantoï bakoi-tzak bere botereei atxikitzen zien, denek mantenduko zituztelarik nork bere zuzenbidea, moneta, aduanak, posta, gudarostea, pisuak eta neurriak. Bitartekaritza-aktaren deuseztatzeak berarekin ekarri zuen edozein kantoitan bizitzeko baimenaren deuseztatzea: kantoï bateko biztanleak gainerako kantoietan beste herrialde batetako biztanle kontsideratuko ziren. Ia ez zegoen askatasun zibiltzat jotzen diren horietakorik.

6.- Konfederalismotik federalismora: 1848ko konstituzioa

Suitzar liberelek konfederazioaren modernizazio politikoa gura zuten. 1830eko frantses iraultzaren oihartzuna iritsi zen ekonomikoki garatzen ari zen Suitzaraino, eta eskubide zerrendak adierazten zituzten konstituzio liberalak sortu zituzten kantoï garrantzitsuenek. 1840ko hamarkadan kantoï katolikoetan erreakzio antiliberal bat gertatu zen; zazpi kantoï katolikok «defentsarako aliantza bereizia» (*Sonderbund*) osatu zuten 1845ean, sekretuan mantentzen saiatuko ziren aliantza bat alegia. Erradikalek boterea erdietsi zuten Lausannen eta Genevan, horrela, dieta federalean Sonderburnaren aurkako gehiengoa lortuz. Aliantzaren aurkako interbentzio armatua erabaki, eta 26 eguneko gerra zibil laburra piztu zen (1847ko azaroan), ehun bat pertsona hil zirelarik. Erradikalek irabazi zuten arren, denentzat izan zen ikasbide. 1848ko irailaren 12an **konstituzio berri** bat eman zen argitara, Estatu Batuetakoan inspiratua, eta, hortaz, lotura federala indartzen zuen arren, kantoiei autonomia handia ematen ziena. Liberalismo frantsesak eragina izan zuen halaber. 1874an konstituzioari aldaketak egin zitzaizkion, eta egungo antolamendu politikoaren oinarria ezarri zen. Lorturiko egonkortasuna erabakigarria izan zen Suitzaren bilakaera konstituzionalean.

Kantoiek eta estatu federalak subiranotasuna elkarren artean partekatzen zuten. Ordutik du Suitzak gobernurako kontseilu federala

eta sufragio unibertsal bidez hautaturiko bi ganbera (batetik, Kontseilu Nazionala, alemanezko *Nationarat* izenez ezaguna, eta ingeles *House of Commons*en edo Estatu Batuetako *House of Representatives*en balio-kidea dena, eta, bestetik, Estatuarteko Kontseilua, *Ständerat*, Estatu Batuetako senatuaren antzekoa). Estatu federalari zegozkion kanpo harremanak, aduanen antolamendua, moneta, posta, eta pisu eta neurriak, baita hiritarren eskubide nahiz askatasunen babesa eta guztion onaren sustapena ere. Konfederazioak bide eman zion federazioari, nahiz eta izen politikoa mantendu. Nolanahi ere, kantoien demokraziak bere horretan iraun zuen.

Konfederazioa eta kantoiak demokratizatzen ziren aldi berean, 1874an 1848ko konstituzioa berrikusi zen. Arlo militarrean areagotu egin ziren botere federalak, eta erreferendum eskubidea sartu zen, 1891n arlo konstituzionalean herri ekimenerako eskubidea onartzean osatu egin zelarik.

7.- Ondorengo garapena

Gotthard, Simplon eta Lötschbergeko tunelen burutzeak berebiziko garrantzia izan zuen Suitzaren kokagune estrategikoari etekin ateratzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko. Bestetik, 1815ean europar potentziek solemneki aitortu zuten Suitzaren neutraltasuna, berau errespetatu egin zen gerra franko-prusiarrean nahiz lehen mundugerran, eta berretsi Versalleseko itunean zein Nazioen Elkartean (Londres, 1920). Neutraltasuna bermatzeko, Biltzar Federalak bigarren mundugerran zenbait disuasio-neurri militar hartu zituen. Neutraltasun printzipioa zorrozki gordetzearren, Suitza Nazio Batuetatik kanpo egon da 2002ra arte (Nazioen Elkartean parte hartzea, 1920tik aurrera, txartzat jo zen). Nolanahi ere, horrek ez du eragotzi Suitzan egotea 300 erakunde internazional baino gehiagoren egoitzak —hala nola, Gurutze Gorria, Metereologiarako Munduko Elkartea, Posta Batasun Unibertsala, eta abar—.

Suitzak, oraingoz, alde biko itunak izenpetu ditu Europar Batasunarekin, eta barne zuzenbidea europar erkidegokoarenari egokitu dio; nolanahi ere, kontinenteko erakunde politiko-administratiboetan sartu gabe.

1999ko apirilaren 18an, osoki berrikusiriko konstituzio federal berri bat bozkatu zuten herriak eta kantoiek. 2000ko urtarrilaren 1ean

sartu zen indarrean, 1874koa ordeztuz. Lehenago jurisprudentzia izaera zuten bederatzi eskubide berri sartu ziren konstituzio berrian.

8.- Erakunde antolamendua

Hiru mailatan edo ordena araugile edo betearazletan —udalerrietan, kantoietan eta konfederazioan— ematen den funtzio eta eskuduntzen banaketan gauzatzen da erakundeen garapenaren emaitza.

3.029 udalerriren araubidea kantoien arabera aldatzen da.

23 kantoiek (kantoi-erdi direnak sartuta) dute bakoitzak bere konstituzioa, baita biltzar edo organo ordezkatzaille bat —Biltzar Nagusia— ere, orokorra den sufragio unibertsalez hautatzen dena normalean. Hiru kantoitan bizirik dirau *Landsgemeinde* deritzan erakunde bereziak, hiritarrei irekia den biltzarrak. Kantoiek eskuduntzak partekatzen dituzte konfederazioarekin zenbait arlotan —ordena publikorako indarrak eta justizia, ekonomia eta gai sozialak, obra publikoak—, eta eskuduntza ia eskusiboak dituzte hezkuntza eta kultura arloan.

Federazioak eskuduntza ia eskusiboak dauzka kanpo harremanetan —neutraltasun printzipioa bermatzea, nazioarteko itunak eta merkataritza—, monetan, aduanetan, komunikabideetan.

Organo zentralen izaera federala lehenik botere legegilean gauzatzen da, bi ganberatan banatzen baita. Batetik, *Kontseilu Nazionala*; lehen esan bezala, Erresuma Batuko edo Estatu Batuetako beheko ganberaren baliokidea dateke. Suitzar herriaren osotasuna ordeztzen du, eta sufragio unibertsalez, kantoi bakoitzaren populazioaren proportzioz, hautatua da. 200 kidek osatzen dute. Bestetik, *Estatuartereko Kontseilua* dugu, estatubatuar senatuan bezala, kantoi bakoitzeko bi ordezkari (46 kide: 2 kantoiko eta 1 kantoi-erdiko) osatzen dute. Estatu Batuetan ez bezala, Suitzan ganbera biek botere berdinak dituzte, horrela, legeak ez dira onartuak harik eta ganbera biek testu bera adostu dutenera arte.

Botere betearazlea, *Kontseilu Federala*, originala da zinez. Bi ganberak, aldi berean bilduta direlarik, hautatzen dituzte kideak, eta zazpi kide horiek ohiturazko «formula magikoaren» bidez banatzen dira: 2 + 2 + 2 + 1. Proportzio honek lau alderdi nagusiei —kristaudek, sozialdemokrata, liberal demokrata eta popularra— parte hartzea ahalbideratzen die. Baina ganberak beste irizpide batzuk izaten dituzte kontuan halaber, esaterako, hautagaiek kantoien edo hizkun-

tza eremuaren arabera duten jatorria, euren nortasuna, edo daukaten harrera politikoa. Gobernuaren hautaketa, beraz, konpromiso espiritua-
ren adierazpena izaten ohi da, eta egonkortasun handia ematen zaio
botere legegileari.

Lege federalen gaineko jurisdikzio konstituzional bat ez egotea
da suitzar demokratikotasunaren ezaugarri nabarmenetako bat. Biltzar
Federalean sortzen diren legeak —ez kantoietako biltzar legegileetako-
ak—, konstituzioa barne, ezin ditu ezein tribunalek indargabetu.

9.- Erreferenduma zuzeneko demokraziaren adierazle

Interes publikokoak diren hainbat gairen inguruan herriak zuze-
nean bozkatzeko aukera izateak suitzar sistema bereizten du. Udalerri
eta kantoietako praktikan dauka bozketarako aukera horrek jatorria, eta
1874an eremu federalean ezarri zen. Denborarekin praktika honek hiru
molde hartu ditu: erreferenduma **nahitaezkoa** da konstituzioan aldake-
tak egin nahi badira, eta herriaren nahiz kantoien gehiengoak beharko
dute aldaketok. Erabaki garrantzitsu batzuek —hala nola, Nazio Batue-
tan edo Europar Batasunean sartzea— konstituzioko aldaketan maila
dute. 1977an arautu egin zen erreferendum **fakultatiboa edo aukera-
koa**, berau lege edo dekretuak onartzeko egiten da, betiere, 50.000 hiri-
tarrek hala eskatuta. Beste gauza bat da **herri ekimenerako eskubi-
dea**, 1991n onartua, konstituzioaren zuzenketa osorako edo partziale-
rako nahitaezkoa. Horretarako, beharrezkoa da 100.000 sinadura jaso-
tzea —hautesleen %3 baino gutxiago—. Azpimarragarria da herri-eki-
men eskubidearen gauzatzeak erreferendum batera daramala, ganbere-
tan buruturiko berrikuspen baten baliokidea den erreferendum batera
hain zuen. Herriaren esku geratuko da konstituzioaren erreforma bat
onartzea, ezeztatzea edo bultzatzea.

10.- Suitzar zuzenbide pribatuaren kodetzea

1874an konstituzioari egin zitzaion erreformaren ondoren, bote-
re legegile federalari eman zitzaion merkataritza-zuzenbidean nahiz
estatu pertsonalaren eta betebeharren eremuan maila orokorreko lege-
ak egiteko eskumena. Ordura arte, eta XIX. mendean zehar, kantoien
arabera aniztasuna ematen zen zuzenbide pribatuan. Frantsesez mintza-
tzen zirenetan Napoleonen *Code civil* jarraitzen zen oinarrian; zenbait

kantoik, Bernak eta Luzernak esaterako, austriar kodea zuten oinarri; leku batzuetan kode originalak zituzten, adibidez Zurichen pandektistikaren eragina sumatzen zen. Parlamentuak, beroni emaniko botere legegileaz baliatuz, 1881an Obligazioen Kodea argitaratu zuen, 1861eko alemaniar merkataritza-kodean oinarritua.

1898ko konstituzio erreformak —botere legegile federalari eskaintzen baitzion eskumen osoa arlo zibil eta penalean— bidea erraztu zion kodetzeari. Basileako unibertsitateko irakasle bati, Eugen Huberri, eman zitzaion kode zibilaren zirriborro bat egiteko eginkizuna, eta 1900ean inprimatu ziren lehen lerroak, oharrak egin ziezazkien. Jurista eta adituen batzorde batek egin zizkion testuari zuzenketak. Hortik irtendako proiektua 1904an aztertu zuten parlamentuko bi ganberetako adituen batzorde batzuek; 1907an onartu zen, eta 1912ko urtarrilaren 1ean indarrean ezarri. Suitzar kode zibila ZGB —*Schweizerisches Zivilgesetzbuch*— hizkiez ezaguna da. 1881eko Betebeharren Kodea berrikusia izan zen eta ZGBri atxiki zitzaion bosgarren liburuki batean.

Suitzarrek ordenamendu tradizionaletako ezaugarri originalak mantendu dituzte zuzenbide pribatuaren eremuan halaber, kantoietako aniztasun juridikoa islatzen saiatuz. Huberren zirriborroak erdietsiriko batasunak herrialdeko tradizio anitza islatzen zuen, hark idatziriko *System und Geschichte des schweizerischen Privatrechts*² (1886) liburuan jada agertzen zen bezala. Basileako irakasleak, kantoietako ohiturazko zuzenbidea deskribatzerakoan, diferentziak eta antzekotasunak jaso, eta printzipio komunak atera zituen, nahiz eta kantoietako jurisprudentzia printzipio horietaz jada ohartua egon. Zibilisten eta zuzenbide naturalaren autoreen teknikak eta ezagutzak erabiliz, Suitzako ohiturazko zuzenbidea formulatu zuen obran zehar, eta beranduago kode berrira eroango.

Pandektisten eskema klasikoa jarraiki ordenatzen da kodeko edukia. Formulazioan teknizismoa saihesten du. Estiloa singlea da, juristek edo formazio juridikorik gabeko pertsona ikasiek uler ditzaten arauak. Arauok kasuismotik aldentzen dira eta planteamendu zabaletara hurbiltzen; xede horren adierazpide, ZGBko lehen artikulua epaileen interpretazioari eskaintzen dio araugintzaren garapena.

2 Suitzar zuzenbide pribatuaren sistema eta historia.

Suitzar kode zibilaren originaltasunak ez du oztopatu Alemanian edo Frantzian, edo ekialdeko Europako zenbait antolamendu juridikotan —Polonian, Txekian, Hungarian edo Errusian— eragina izatea. Ia hitzez hitz hartu zuten Turkian 1926an.

Bibliografia eta iturriak

AMMANN, HEKTOR; SCHIB, KARL (editoreak). 1958. *Historischer Atlas der Schweiz*. Aarau : H.R. Sauerländer.

AUBERT, JEAN-FRANÇOIS. 1985. *Exposé des institutions politiques de la Suisse à partir de quelques affaires controversés*. 2. argitalpena. Lausanne: Payot.

BARBIER, JACQUES; PIVETAU, JEAN-LUC; ROTEN, MICHEL. 1973. *Géographie de la Suisse*. Collection Que sais-je? Paris: Presses Universitaires de France.

BONJOUR, EDGAR. 1946. *Swiss Neutrality: Its History and Meaning*. Londres: G. Allen and Unwin.

BONJOUR, EDGAR; OFFLER, H.S.; POTTTER, G.R. 1985 (c. 1952). *A Short History of Switzerland*. Westport, Conn.: Greenwood Press.

DIEM, AUBREY. 1993. *Switzerland: Land, People, Economy*. 4. argitalpena. Waterloo, Ont.: Media International.

DÜRRENMATT, PETER. 1958-1960. *Histoire illustrée de la Suisse*. 2 bol. Lausanne : Payot.

FELDER, PIERRE. 1998. Vom Ancien Régime zu den Anfängen der

modernen Schweiz (18. Jh. bis 1848), *Die Schweiz und ihre Geschichte*. Zürich: Lehrmittelverlag des Kantons.

Handbuch der schweizer Geschichte. 1980. 2 bol. Zürich: Berichthaus C. Ulrich.

KÖLZ, ALFRED. 1992. *Neue Schweizerische Verfassungsgeschichte, Ihre Grundlinien vom Ende der Alten Eidgenossenschaft bis 1848*. Bern: Stämpfli.

LEBENAU, RENÉ. 1975. *La Suisse*. Paris: Masson.

MAISSEN, THOMAS. 1998. *Vom Sonderbund zum Bundesstaat: Krise und Erneuerung 1798-1848 im Spiegel der NZZ*. Zürich: Verlag Neue Zürcher Zeitung.

MARTIN, WILLIAM. 1974. *Histoire de la Suisse*. 7. argitalpena. Lausanne: Payot.

MCRÆ, KENNETH D. 1983. *Conflict and compromise in Multilingual Societies*. Waterloo (Ont.): Wilfried Laurier Univ. Press. Vol. I. *Switzerland*.

Nouvelle Historique de la Suisse et des Suisses. 2004. 2e édition revue et augmentée. Lausanne: Payot.

STEINBERG, JONATHAN. 1996. *Why Switzerland?* Cambridge: Cambridge Univ. Press.

The Swiss Civil Code of December 10, 1907 (effective January 1, 1912). Westport, Conn.: Hyperion Press.

THÜRER, GEORG. 1971. *Free and Swiss: The story of Switzerland.* Coral Gables (Fla): Univ. of Miami Press.

WILLIAMS, IVY. 1923. *The Sources of Law in the Swiss Civil Code.* Londres: Oxford University Press.

X SUITZA

1999KO APIRILAREN 18KO SUITZAR KONFEDERAZIOAREN KONSTITUZIO FEDERALA*

Jainko Ahalguztidunaren izenean!

suitzar herri eta kantoiek,

sorkuntzan duten erantzukizunaren jakitun,

elkarren artean duten aliantza berritzeko prest

askatasuna, demokrazia, independentzia eta bakea indarberritze-
ko

munduarekiko solidaritate eta irekitasun espirituarekin,

aniztasuna batasunez bizitzeko erabakita

bestearenganako errespetuan eta berdintasunean,

elkarrekin erdietsirikoaren jakitun eta etorkizuneko belaunal-
dienganako daukaten erantzukizuna norbere gain hartzeko prest,

ziur dakitelarik norbere askatasuna gauzatzen duena dela libre

eta ahulenaren ongizatearekin neurtzen dela erkidegoaren inda-
rra,

honako konstituzio hau onartzen dute:

* Iturria: *Constitution fédérale de la Confédération suisse du 18 avril 1999*; Suitzar Konfederazioaren Agintaritza Federala (Suitza), <http://www.admin.ch/ch/f/rs/101/index.html>. (2007ko urriaren 11n atzitua).

LEHEN TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1 Artikulua – Suitzar konfederazioa

Suitzar herriak eta honako kantoiek osatzen dute suitzar konfederazioa: Zurich, Berna, Luzerna; Uri, Schwyz, Obwald, Nidwald, Glarus, Zug, Friburgo, Solothurn, Basilea Hiria eta Basilea Landa, Schaffhausen, Appenzell Rhodes-Kanpoaldea eta Appenzell Rhodes-Barnealdea, Saint-Gall, Grisons, Argovia, Thurgovia, Ticino, Vaud, Valais, Neuchâtel, Geneva eta Jura-k.

2 Artikulua – Xedea

1. Suitzar konfederazioak herriaren askatasuna eta eskubideak defendatu eta herrialdearen independentzia eta segurtasuna bermatzen ditu.

2. Guztion oparotasuna, garapen eramangarria, barne kohesioa eta herrialdearen aniztasun kulturala sustatzen ditu.

3. Ahalik eta gehien ziurtatuko du aukera berdintasuna.

4. Baliabide naturalen kontserbazio iraunkorraren eta nazioarteko ordena justu eta baketsu baten alde ekingo du.

3 Artikulua – Kantoiak

Kantoiak subiranoak dira konstituzio federalak euren subiranotasuna mugatzen ez duen heinean eta konfederazioari eskuordetuta uzten ez zaizkion eskubideak gauzatzen baitituzte.

4 Artikulua – Hizkuntza nazionalak

Alemana, frantsesa, italiera eta erretorromaniera dira hizkuntza nazionalak.

5 Artikulua – Zuzenbideko estatuaren printzipioak

1. Zuzenbidea da estatuaren jardueraren oinarria eta muga.

2. Interes publikoari erantzun, eta xede den helburu horren arabera izanen da estatuaren jardura.

3. Estatuaren organoek eta partikularrek fede onez jardun behar dute.

4. Konfederazioak eta kantoiek nazioarteko zuzenbidea errespetatzen dute.

6 Artikulua – Erantzukizun indibiduala eta soziala

Pertsona guztiak dira norbere erantzule, eta bakoitzak duen gaitasunaren arabera lagunduko du estatuaren eta gizartearen xedeak burutu daitezen.

BIGARREN TITULUA

OINARRIZKO ESKUBIDEAK, HIRITARTASUNA ETA HELBURU SOZIALAK

LEHEN KAPITULUA OINARRIZKO ESKUBIDEAK

7 Artikulua – Giza duintasuna

Giza duintasuna errespetatua eta babestua izan behar da.

8 Artikulua – Berdintasuna

1. Gizaki guztiak berdinak dira legearen aurrean.

2. Ezin da inor diskriminatu, bereziki, bere jatorria, arraza, sexua, adina, hizkuntza, gizarte egoera, bizimodua, sinesmen erlijiozko, filosofiko edo politikoak direla-eta edo gorputz zein adimen urritasun bat dela medio.

3. Gizonek eta emakumeek eskubide berak dituzte. Legeak legezko eta egitatezko berdintasuna eskaintzen du, bereziki, familian, hezkuntzan eta lanbidean. Gizonezkoek eta emakumezkoek soldata berdina jaso behar dute, balio bereko lana egiten dutelarik.

4. Legeak neurriak hartuko ditu ezintasunak dituzten pertsonen dauzkaten desabantailak deuseztatzeko.

9 Artikulua – Arbitrariotasunaren aurka babesa eta fedonaren babesa

Pertsona orok du eskubidea estatuaren erakundeengandik arbitrariotasunik gabeko eta fede oneko tratua jasotzeko.

10 Artikulua – Bizitzeko eskubidea eta askatasun pertsonala

1. Gizaki orok du bizitzeko eskubidea. Heriotza zigorra debekatua dago.
2. Gizaki orok du askatasun pertsonalerako eskubidea, bereziki, gorputz eta adimen osotasunerako eta mugimendu askatasunerako.
3. Tortura eta gainontzeko zigor edo tratu txar, anker edo laido-garriak debekatuak daude.

11 Artikulua – Haurren eta gazteen babesa

1. Haur eta gazteek eskubidea dute euren osotasunaren babes berezi baterako eta euren garapena sustatua izateko.
2. Euren eskubideak gauzatu ahal izanen dituzte arrazoitzeko gai diren heinean.

12 Artikulua – Estualdian edo behartasun egoeran sorotsiak izateko eskubidea

Estualdian izanik norbere kabuz aurrera egiteko ezgai denak eskubidea du lagundua eta sorotsia izateko eta giza duintasunaren araberako existentzia izateko moduko ezinbesteko baliabideak edukitzeko.

13 Artikulua – Pribatutasunaren babesa

1. Pertsona orok du errespetatua izateko eskubidea, bere bizitza pribatuan eta familia eremukoan, bere bizilekuan, bere gutunetan eta posta zein telekomunikazio bidez dauzkan harremanetan.
2. Pertsona orok du dagozkion datuen neurritz kanpoko erabileratik babestua izateko eskubidea.

14 Artikulua – Ezkontzarako eta familiarako eskubidea

Ezkontzarako eta familiarako eskubideak bermatuta daude.

15 Artikulua – Kontzientzia eta sinesmen askatasuna

1. Kontzientzia eta sinesmen askatasuna bermatuta dago.
2. Pertsona orok du bere erlijioa libreki aukeratzeko eskubidea, baita konfesiozko ez diren norbere sinesmenak eratzekoa, eta horiek indibidualki zein komunean praktikatzekoa ere.

3. Pertsona orok du erlijio komunitate batean parte hartzeko eskubidea edo erlijio hezkuntza jasotzekoa.

4. Ezin da inor behartu erlijio komunitate batean edo erlijio arloko ekintza batean parte hartzera nahiz erlijio hezkuntza bat jasotzera.

16 Artikulua – Iritzi eta informazio askatasuna

1. Iritzi askatasuna eta informazio askatasuna bermatuak daude.

2. Pertsona orok du bere iritzia osatzeko, adierazteko eta zabal-tzeko eskubidea.

3. Pertsona orok du informazioa libreki jasotzeko, normalean eskura dituen iturrietara jotzeko, eta informazio hori hedatzeko askatasuna.

17 Artikulua – Komunikabideen askatasuna

1. Prentsa askatasuna, irriti eta telebistakoa, baita gainerako komunikabide publiko bidezko ekoizpen eta informazio hedapen oro bermatuak dira.

2. Zentsura debekatua dago.

3. Prentsa-sekretua bermatua dago.

18 Artikulua – Hizkuntza askatasuna

Hizkuntza askatasuna bermatua dago.

19 Artikulua – Oinarrizko hezkuntzarako eskubidea

Nahikoa eta dohainik den oinarrizko hezkuntza baterako eskubidea bermatua dago.

20 Artikulua – Zientziarako askatasuna

Bermatua dago irakaskuntza eta ikerketa zientifikorako askatasuna.

21 Artikulua –Arterako askatasuna

Bermatua dago arterako askatasuna.

22 Artikulua – Biltzeko askatasuna

1. Biltzeko askatasuna bermatua dago.

2. Pertsona orok du bilerak antolatzeko eskubidea, edo horietan parte hartzeko ala ez.

23 Artikulua – Elkartzeko askatasuna

1. Elkartzeko askatasuna bermatua dago.

2. Pertsona orok du eskubidea elkarteak eratzeko, horien kide izateko, eta horietan parte hartzeko.

3. Ezin da inor elkarte baten kide izatera edo bertan parte hartzera behartua izan.

24 Artikulua – Bizileku askatasuna

1. Suitzar hiritarrek herrialdeko edozein lekutan bizitzeko eskubidea dute.

2. Suitzatik alde egiteko eta itzultzeko eskubidea dute.

25 Artikulua – Egoztearen, estradizioaren eta jazarpenaren aurkako babesa

1. Suitzar hiritarrak ezin dira herrialdetik egotziak izan; soilik euren onespenearekin izan daitezke estraditatuak atzerriko agintaritzaren batengana.

2. Errefuxiatuak ezin daitezke indarrez bidaliak izan jazarriko dituen estatu batera, ezta bertako agintaritzarengana estraditatuak izan ere.

3. Ezin da inor indarrez bidali torturatua izateko arriskua edo bestelako tratu zein zigor txar eta krudelerako arriskua dagoen estatu batera.

26 Artikulua – Jabetzarako bermea

1. Jabetza bermatua da.

2. Desjabetzea edo desjabetzearen baliokide den jabetza-murrizpena gertatzen denean kalte-ordain osoa eman behar da.

27 Artikulua – Askatasun ekonomikoa

Askatasun ekonomikoa bermatua dago.

Bereziki, askatasun horren barne daude lanbidearen hautatze askea, irabazizko jarduera ekonomiko pribatu baterako eta berorren gauzatzerako aukera askea.

28 Artikulua – Askatasun sindikala

1. Beharginek, enplegu-emaileek eta horien erakundeek eskubidea dute sindikatzeko, euren interesak defendatzeko, sindikatuak sortzeko, eta horietan parte hartzeko ala ez.

2. Eztabaidak, ahal den heinean, negoziazioz edo artekaritzaz konponduko dira.

3. Grebak eta ugazaben itxierak³ zilegi dira, betiere, lan harremanen ingurukoak direnean eta lanean bakea mantentzeko betebeharrari egokitzen bazaizkio eta kontziliazio batera jotzen bada.

4. Legeak pertsona jakin batzuei grebara jotzea debeka diezaieke.

29 Artikulua – Prozedura berme orokorrak

1. Prozedura judizial edo administratibo batean, pertsona orok du bere kausa zuzen eramana izateko eta bidezkoa den epe batean epaitua izateko eskubidea.

2. Alderdiek entzunak izateko eskubidea dute.

3. Baliabide nahikoak ez dituen pertsona orok eskubidea du doaneko laguntza juridikorako, betiere, bere auziak aurrera egiteko batere aukerarik ez duenean izan ezik. Defendatzaile baten doaneko laguntzarako eskubidea du halaber, bere eskubideen babesteak eskatzen duen neurrian.

29a Artikulua – Babes judizialerako bermea

Pertsona orok du bere auzia agintaritza judizial batek epaitua izateko eskubidea. Konfederazioak eta kantoiek, legearen bidez, prozedura judizialak bazter ditzakete ezohiko kasu batzuetan.

30 Artikulua – Prozedura judizialen bermeak

1. Bere auzia prozedura judizialen bidez epaitzeaz duen pertsona orok eskubidea du legeak ezarririko auzitegi konpetente, independente eta inpartzial baten aurrera igorria izateko. Ezohiko auzitegiak debekaturik daude.

³ Lock-out.

2. Akzio zibil baten objektu den pertsona batek eskubidea du kasua bere bizilekuko auzitegiari igorria izateko. Legeak beste barruti bat aurreikus dezake.

3. Ikustaldia eta erabakia publikoak dira. Legeak salbuespenak aurreikus ditzake.

31 Artikulua – Askatasunaz gabetzea

1. Pertsona batek askatasuna gal dezake soilik legeak aurreikusiriko kasuetan eta berorrek agintzen dituen formen arabera.

2. Askatasuna galtzen duen pertsona orok eskubidea du bizkor informatua izateko —ulertzen duen hizkuntza batean— gabetze horren arrazoiez eta dauzkan eskubideez. Pertsona horrek bere eskubideak baliatzeko moduan egon behar du. Bere gertuko ahaideei jakinarazteko eskubidea du bereziki.

3. Prebentzioz atxilotua den pertsona orok berandutu gabe epailearen aurrera eramana izateko eskubidea du, epaileak atxiloteta mantentzea edo aske uztea erabakiko duelarik. Arrazoizko epe batean epaitua izateko eskubidea du.

4. Auzitegi batek hala erabaki gabe askatasuna galtzen duen pertsona orok eskubidea du, une oro, auzitegi batengana jotzeko. Honek ahalik eta azkarren erabakiko du haren atxilotetaren legezkotasuna.

32 Artikulua – Prozedura penala

1. Pertsona oro errugabetzat jo behar da legearen arabera kondenatua den arte.

2. Akusatua izan den pertsona orok bere aurka egin diren akusazioen inguruan ahalik eta azkarren eta modu zehatzean informatua izateko eskubidea du. Defentsa eskubideak gauzatzeko aukera izan beharko du halaber.

3. Kondenatua den pertsona orok eskubidea du goragoko auzitegi batek epaia berrikus dezan. Betiere, kasua ez zaionean egokitzen Auzitegi Federalari instantzia bakar moduan.

33 Artikulua – Eskatzeko eskubidea

1. Pertsona orok du, hartatik kalterik etorriko ez zaiolarik, agintariei eskaerak egiteko.

2. Agintariei eskaerak jaso dituztela jakinarazi beharko dute.

34 Artikulua – Eskubide politikoak

1. Eskubide politikoak bermatuta daude.
2. Eskubide politikoek bermeak babestu egiten du hiritarren irizki formazioa eta euren borondatearen adierazpen zehatz eta segurua.

35 Artikulua – Oinarrizko eskubideen gauzatzea

1. Oinarrizko eskubideak legezko sistema osoan errespetatu behar dira.
2. Estatuko funtzioa betetzen duen edonork errespetatu behar ditu oinarrizko eskubideak eta horien gauzatzera lagundu.
3. Agintariek kontu hartu behar dute, posible den heinean, partikularrek elkarren artean duten harremanetan ere gauzatzen diren oinarrizko eskubideok.

36 Artikulua – Oinarrizko eskubideen murrizpena

1. Oinarrizko eskubide baten murrizpenak legean izan beharko du funtsa. Lege batek aurreikusi behar ditu murrizpen larriak. Salbuespen dira arrisku larri, zuzen eta berehalakoa ematen den kasuak.
2. Interes publikoak edo beste norbaiten oinarrizko eskubide baten babesak justifikatu beharko du oinarrizko eskubide baten murrizpena.
3. Oinarrizko eskubide baten murrizpen oro xedearen arabera izan behar da.
4. Oinarrizko eskubideen esentzia bortxazina da.

BIGARREN KAPITULUA NAZIONALITATEA, HIRITARTASUN ESKUBIDEAK ETA ESKUBIDE POLITIKOAK

37 Artikulua – Nazionalitatea eta hiritartasun eskubideak

1. Suitzar hiritarra da udalerriko hiritartasun eskubidea eta kan-
toiko hiritartasun eskubidea duen oro.
2. Inor ez da pribilegiatua edo desabantailaduna izan behar bere hiritartasun eskubidea dela eta. Printzipio hori indargabe daiteke, komunitateen⁴ eta korporazioen eskubide politikoak, batetik, eta azken

⁴ *Dans les bourgeoisies edo Bürgergemeinden.*

horien ondasunen partizipazioa, bestetik, arautzeko; kantoilegeriak besterik agintzen ez duen artean.

38 Artikulua – Nazionalitatearen eskuratzea edo galera eta hiritartasun eskubideak

1. Konfederazioak arautuko ditu nazionalitatearen eskuratzea eta galera, batetik, eta seme-alabatasun, ezkontza edo adopzio bidezko hiritartasun eskubideak, bestetik. Halaber, beste arrazoi batzuk direla-eta suitzar nazionalitatearen galera eta haren itzultzea ere arautuko ditu.

2. Konfederazioak emango dizkie kantoiei atzerritarrak bertakotzeko bete beharreko gutxieneko baldintzak, baita bertakotze baimenak eskainiko ere.

3. Haur aberrigabeen bertakotzea erraztuko du.

39 Artikulua – Eskubide politikoen gauzatzea

1. Konfederazioak arautuko du eskubide politikoen gauzatzea maila federalean; kantoiek arautuko dituzte eskubide horiek kantoietan udalerri mailan.

2. Eskubide politikoak bizilekuan gauzatzen dira. Konfederazioak eta kantoiek salbuespenak aurreikus ditzakete.

3. Inork ezin ditzake bere eskubide politikoak kantoietan baino gehiagotan gauzatu.

4. Kantoiek aurreikus dezakete pertsona finkatu berriek ezin bozkatzea kantoietan udalerri mailan harik eta gehienez hiru hilabete igaro arte.

40 Artikulua – Atzerriko suitzarrak

1. Konfederazioak ahaleginak egingo ditu atzerriko eta Suitzako suitzarren arteko harremanak indartzeko. Xede hori duten erakundeei laguntza eman diezaike.

2. Konfederazioak arautu egingo du atzerriko suitzarren eskubide eta betebeharren inguruan, bereziki, maila federalean eskubide politikoen gauzatzeaz, soldadutzaz eta ordeko gizarte-zerbitzuaz, eta gizarte-laguntzaren zein gizarte-segurantzaren bidez jendeari laguntzeaz.

HIRUGARREN KAPITULUA

HELBURU SOZIALAK

41 Artikulua – [Xedapen orokorrak]

1. Konfederazioak eta kantoiek —banakoen erantzukizunaz eta ekimen pribatuaz gain— honakoak erdiesteko ahalegina egingo dute:

- a.- pertsona orok gizarte segurantzaz probetxu har dezan;
- b.- pertsona orok bere osasunerako beharrezko zaintzez probetxu har dezan;
- c.- senitarteak —helduen eta haurren komunitate direlarik— babestuak eta sustatuak izan daitezen;
- d.- lan egiteko gai den pertsona orok bere bizibidea lor dezan, baldintza zuzeneko lanbide baten bitartez;
- e.- bizilekuaren bila dabilen inork, beretzat zein bere familia-rentzat, bizileku duin bat baldintza onargarritan lortzeko aukera izan dezan;
- f.- haur eta gazteek, baita lan egiteko adinean diren pertsonak ere, euren gaitasunen arabera oinarritzko formazioa eta formazio jarraitua lortzeko aukera izan dezaten;
- g.- azkenik, haur eta gazteei pertsona burujabeak eta gizarte mailan erantzukizundunak izatera bultzatuko zaie, baita euren integrazio sozial, kultural eta politikoan lagunduko ere.

2. Konfederazioa eta kantoiak saiaturiko dira pertsona oro babes-tua egon dadin adinarean, baliaezintasunaren, gaixotasunaren, akziden-teen, langabeziaren, amatasunaren, zurtasunaren eta alarguntasunaren ondorio ekonomikoen aurka.

3. Dauzkaten baliabideen eta eskuduntza konstituzionalen ara-bera saiaturiko dira helburu sozialak erdiesten.

4. Helburu sozialetatik ez da zuzenki ahalbidetzen estatuari laguntzak eskatzea.

HIRUGARREN TITULUA

KONFEDERAZIOA, KANTOIAK ETA UDALERRIAK

LEHEN KAPITULUA

KONFEDERAZIOAREN ETA KANTOIEN ARTEKO HARREMANAK

LEHEN ATALA: KONFEDERAZIOAREN ETA KANTOIEN EGINKIZUNAK

42 Artikulua – Konfederazioaren eginkizunak

1. Konstituzioak ematen dizkion eginkizunak beteko ditu konfederazioak.
2. Modu uniformean arautuak izan behar duten eginkizunak hartuko ditu bere gain.

43 Artikulua – Kantoiaren eginkizunak

Kantoiak euren eskuduntzen barne bete behar dituzten eginkizunak definituko dituzte.

BIGARREN ATALA: KONFEDERAZIOAREN ETA KANTOIEN ARTEKO LANKIDETZA

44 Artikulua – Printzipioak

1. Konfederazioak eta kantoiak elkarri laguntzen diete eta elkarrekin egiten dute lan euren erantzukizunak betetzeko.
2. Errespetua eta laguntza zor diete elkarri. Laguntza administratiboa eta juridikoa ematen diete elkarri.
3. Kantoiaren arteko edo kantoiaren eta konfederazioaren arteko eztabaidak, ahal den heinean, negoziazioaren eta artekaritzaren bidez konponduko dira.

45 Artikulua – Egitasmo federalean parte hartzea

1. Kantoiak, konstituzio federalak aurreikusten dituen kasuetan, parte hartzen dute egitasmo federalaren erabakitze prozesuan, bereziki, legegintzan.

2. Konfederazioak bere proiektuez informatuko ditu kantoiak, garaiz eta modu zehatzean; hark kontsulta egingo die horien interesak ikutzen baititu.

46 Artikulua – Zuzenbide federalaren aplikatzea

1. Kantoiek zuzenbide federala aplikatzen dute konstituzioaren eta legearen arabera.

2. Konfederazioak kantoiei jarduteko ahalik eta tarte handiena utziko die eta kontuan izanen ditu kantoien berezitasunak.

3. Konfederazioak kontuan izanen du zuzenbide federalaren aplikazioak eragiten duen finantza-zama; kantoiei finantza baliabide nahikoak utziko dizkie eta finantza doikuntza zuzen bat bideratuko du.

47 Artikulua – Kantoien autonomia

Konfederazioak kantoien autonomia errespetatuko du.

48 Artikulua – Kantoiarteko hitzarmenak

1. Kantoiek elkarren artean itunak egin ditzakete eta erakunde komunak eratu. Bereziki, erregio mailako intereseko eginkizunak batera egin ditzakete.

2. Konfederazioak bere eskuduntzen barne parte har dezake.

3. Kantoiarteko itunak ez dira izan behar ez konfederazioaren zuzenbidearen eta interesen aurkakoak, ez beste kantoi batzuen eskubideen aurkakoak. Konfederazioari jakinarazi behar zaizkio.

49 Artikulua – Zuzenbide federalaren lehentasuna eta errespetua

1. Lege federala berorren aurkakoa den kantoi legearen gainean gailentzen da.

2. Konfederazioa arduratuko da kantoiek zuzenbide federala errespetatzeaz.

HIRUGARREN ATALA: UDALERRIAK

50 Atala- [xedapen orokorrak]

1. Kantoi zuzenbideak ezartzen dituen mugen barnean bermatuko da udal autonomia.

2. Konfederazioak kontuan izanen ditu bere jarduerak udalerrien gain izan ditzakeen ondorioak.

3. Bereziki, kontuan izanen du hirien, hiri-aglomerazioen eta mendi eskualdeen egoera berezia.

LAUGARREN ATALA: BERME FEDERALAK

51 Artikulua – Kantoi konstituzioak

1. Kantoi bakoitzak izanen du bere konstituzio demokratikoa. Herriak onartua izan beharko da eta aldatua izan daiteke hautesleen gehiengoak hala erabakitzen badu.

2. Konfederazioak bermatu behar ditu kantoi konstituzioak. Konfederazioak berme hori emango du, konstituzio horiek ez baldin badira zuzenbide federalaren aurkakoak.

52 Artikulua – Ordena konstituzionala

1. Konfederazioak babestuko du kantoiaren ordena konstituzionala.

2. Esku hartuko du kantoi baten barnean ordena nahasten edo arriskuan ezartzen bada, edo kantoia ez baldin bada ordena babesteko gai, bakarrik edo beste kantoi batzuen laguntzaz.

53 Artikulua – Kantoiaren existentzia, estatusa eta lurraldea

1. Konfederazioak babestuko du kantoiaren existentzia eta estatusa, baita horien lurraldea ere.

2. Kantoiaren kopuruan edo haien estatusetan aldakuntzak horiek dagozkien hautesle eta kantoiaren menpe daude, baita herriaren botoen eta kantoiaren menpe ere.

3. Kantoi baten lurraldearen aldakuntza oro aldakuntza hori dagokion hautesleen eta kantoiaren menpe dago; ondoren, Biltzar Federalak —dekretu federala emanez— onar dezan igorriko da.

4. Kantoiaren arteko mugen aldaketa dagokien kantoiaren itun bidez egingo da.

BIGARREN KAPITULUA ESKUDUNTZAK

LEHEN ATALA: ATZERRIAREKIN HARREMANAK

54 Artikulua – Atzerriarekin harremanak

1. Atzerriarekin harremanak konfederazioaren eskuduntzakoak dira.

2. Konfederazioa Suitzaren independentzia eta oparotasuna babesten saiatuko da; bereziki, saiatuko da herriak beharrezko laguntzen, txirotasunaren aurka borrokatzen, eta gizakiaren eskubideekiko errespetua, demokrazia, herrien bakezko bizikidetzak eta baliabide naturalen babesa sustatzen.

3. Kontuan izan behar dituzte kantoien eskuduntzak eta haien interesen alde egingo du.

55 Artikulua – Kantoien parte hartzea atzerriko politikako erabakietan

1. Kantoiek parte hartzen dute euren eskuduntzei edo euren funtsezko interesei eragiten dieten atzerriko politikako erabakien prestaketan.

2. Konfederazioak informatu egingo ditu kantoiak garaiz eta modu zehatzean, eta kontsultatuko die.

3. Kantoien iritzia pisua du, bereziki euren eskuduntzei eragiten dienean. Kasu horretan, kantoiek nazioarteko negoziaketetan parte hartuko dute modu egokian.

56 Artikulua – Kantoien eta atzerriaren arteko harremanak

1. Kantoiek euren eskuduntza diren gaietan itunak sinatu ditzakete atzerriarekin.

2. Itun horiek ezin dira izan konfederazioaren zuzenbidearen eta interesen aurkakoak, ezta beste kantoirik batzuen eskubideen aurkakoak ere. Itun bat sinatu aurretik, kantoiek konfederazioari jakinarazi behar diote.

3. Kantoiek zuzenean izan ditzakete harremanak azpiagoko mailako atzerriko agintaritzekin; gainerako kasuetan, kantoiek atzerriarekin dituzten harremanak konfederazioaren artekaritzarekin egingo dira.

BIGARREN ATALA: SEGURTASUNA, DEFENTSA NAZIONALA, BABES ZIBILA

57 Artikulua – Segurtasuna

1. Konfederazioa eta kantoiak herrialdearen segurtasunaz eta herriaren babesaz arduratuko dira bakoitzari dagozkion eskuduntzen arabera.

2. Barne segurtasunaren arloan euren ahaleginak koordinatu egingo dituzte.

58 Artikulua – Armada

1. Suitzak armada bat du. Oinarrian milizia moduan antolatzen da.

2. Armadak gerra saihesten eta bakea mantentzen laguntzen du; herrialdearen eta bere populazioaren defentsa bermatzen du. Agintaritza zibilaria laguntza ematen dio, barne segurtasuna larri mehatxatua denean edo gainerako ezohiko egoeretan. Legeak beste eginkizun batzuk eman diezazkioke.

3. Armada jardunean ezartzea konfederazioaren eskuduntza da. Kantoiek euren gudarosteak erabil ditzakete agintaritza zibilak dituen baliabideak ez direnean nahikoak barne segurtasuna mehatxatzen duen arrisku larri bati aurre egiteko.

59 Artikulua – Soldadutza eta ordezeko zerbitzua

1. Gizon suitzar orok soldadutza egin behar du. Legeak ordezeko zerbitzu zibila aurreikusten du.

2. Emakumezkoen kasuan armadan jardutea borondatezkoa da.

3. Soldadutza zein ordezeko zerbitzua egiten ez duen suitzar gizonezko orok zerga bat ordaindu beharko du. Zerga hori konfederazioarentzat da eta kantoiek finkatzen eta jasotzen dute.

4. Konfederazioak legeak emango ditu diru sarreratan izaniko galerak ordainduak izan daitezen.

5. Soldadutza edo ordezeko zerbitzua betetzen ari direla euren osasuna kaltetu edo bizia galtzen duten pertsonak eskubidea dute, eurentzat edo euren ahaideentzat, konfederazioarengandik laguntza bat jasotzeko.

60 Artikulua – Armadaren antolaketa, instrukzioa eta horniketa

1. Konfederazioari dagozkio legeria militarra eta armadaren antolaketa, instrukzioa eta horniketa.

2. Lege federalak ezartzen dizkien mugekin, kantoiei dagozkie kantoï gudarosteen osaketa, gudaroste horietako ofizialen izendapena eta promozioa, eta gudarosteen gaikuntza eta ekipamendurako horniketaren zati bat.

3. Konfederazioak kantoien instalakuntza militarrek har ditzakete kalte-ordain jakin bat emanda.

61 Artikulua – Babes zibila

1. Konfederazioari dagokio babes zibilaren gaineko legeria egitea; liskar armatuetan pertsonen eta ondasunen babesa izanen da babes zibilaren eginkizuna.

2. Katastrofe kasuan edo premiazko egoera batean konfederazioak emango ditu legeak babes zibilaren parte hartzearen inguruan.

3. Konfederazioak gizonentzat derrigorrezko egin dezake babes zibilerako zerbitzua. Emakumeentzat borondatezkoa izanen da.

4. Soldataren galera gertatzen denean, kalte-ordaina ezartzeko legeak emango ditu konfederazioak.

5. Babes zibileko zerbitzua betetzen ari direla, euren osasuna kaltetu edo bizia galtzen duten pertsonak eskubidea dute, eurentzat edo euren ahaideentzat, konfederazioarengandik laguntza bat jasotzeko.

HIRUGARREN ATALA: FORMAKUNTZA, IKERKUNTZA ETA KULTURA

62 Artikulua – Hezkuntza publikoa

1. Hezkuntza publikoa kantoien eginkizuna da.

2. Haur guztiei iritsiko zaïen lehen hezkuntza askia eskainiko dute kantoiek. Hezkuntza hori derrigorrezkoa izanen da eta autoritate publikoen zuzendaritzapean eta ikuskaritzarekin egingo da. Doanekoa izanen da eskola publikoan. Abuztu erditik iraila erdira bitartean hasiko da ikasturtea.

63 Artikulua – Lanbide heziketa eta goi mailako hezkuntza

1. Konfederazioak emango ditu lanbide heziketaren gaineko legeak.

2. Ikastetxe politekniko federalak kudeatuko ditu konfederazioak; bestelako goi mailako ikastetxe edo zentroak sor, kudea edo lagun ditzake. Koordinazioaren baldintzapean eman dezake laguntza hori.

64 Artikulua – Ikerkuntza

1. Konfederazioak ikerkuntza zientifikoa sustatuko du.

2. Koordinazioaren baldintzapean eman dezake laguntza.

3. Ikerkuntza zentroak kudea edo sor ditzake, baita bere gain hartu ere.

65 Artikulua – Estatistika

1. Konfederazioak bilduko ditu Suitzako populazioaren, ekonomiaren, gizartearen, lurraldearen eta ingurumenaren egoera eta garape-naz jakiteko datu estatistiko beharrezkoak.

2. Datuen biltzea errazteko errolda ofizialen harmonizaziorako eta mantentzerako legeak eman ditzake.

66 Artikulua – Hezkuntzarako laguntzak

1. Konfederazioak laguntzak eman diezazkieke kantoiei, horiek bekak eta hezkuntzarako bestelako laguntzak eskain ditzaten.

2. Bestalde, kantoien neurri horietaz gainera, eta hezkuntza publikoaren arloan kantoien autonomia errespetatuz, konfederazioak neurriak har ditzake hezkuntza sustatzeko.

67 Artikulua – Gazteen beharrak eta helduen hezkuntza

1. Euren eginkizunak betetzean, konfederazioak eta kantoiek kontuan izanzen dituzte haurren eta gazteen garapen eta babes beharrak.

2. Kantoien neurriez gain, konfederazioak sustatu egin ditzake haurren eskolaz kanpoko jarduerak eta helduen hezkuntza.

68 Artikulua – Kirola

1. Konfederazioak kirola sustatuko du, bereziki, kirol hezkuntza.

2. Kirol eskola bat kudeatuko du.

3. Gazteen kirol jardueraren gainean legeak eman ditzake eta eskolan kirolaren irakaskuntza derrigorrezko egin dezake.

69 Artikulua – Kultura

1. Kantoiei dagokie kultur arloa.

2. Konfederazioak interes nazionalako kultur jarduerak susta ditzake eta adierazpen artistikoa eta musika bultzatu, bereziki, horien hezkuntza sustatuz.

3. Eginkizun horien betetzean, kontuan izanen ditu herrialdearen kultur eta hizkuntza aniztasuna.

70 Artikulua – Hizkuntzak

1. Konfederazioaren hizkuntza ofizialak alemana, frantsesa eta italiarra dira. Erretorromaniera ere ofiziala da konfederazioak erretorromanierazko hiztunekin dituen harremanetan.

2. Kantoiek erabakiko dituzte euren hizkuntza ofizialak. Hizkuntza komunitateen arteko harmonia mantentzearen, hizkuntzen banaketa tradizionala zainduko dute eta gutxiengo linguistiko autoktonoak errespetatuko dituzte.

3. Konfederazioak eta kantoiek hizkuntza komunitateen arteko elkar ulertzea eta harremanak sustatuko dituzte.

4. Konfederazioak kantoiei eleanitzeko sostengua emango die euren eginkizun partikularren betetzean.

5. Konfederazioak sostengua emango die Grisons eta Ticino kantoiei erretorromaniera eta italiara sustatzeko.

71 Artikulua – Zinema

1. Konfederazioak suitzar zinema ekoizpena susta dezake, baita zinema kultura ere.

2. Zinema ekoizpen anitz eta kalitatezkoaren eskaintza sustatzeko legeak eman ditzake.

72 Artikulua – Eliza eta estatua

1. Kantoiei dagokie estatuaren eta elizaren arteko harremanak arautzea.

2. Dagozkien eskuduntzen mugen barne, konfederazioak eta kantoiek neurriak har ditzakete erlijio komunitateen arteko bakea mantentzeko.

3. [botazioz ezeztatua 2001eko ekainaren 10ean]

LAUGARREN ATALA: INGURUMENA ETA LURRALDEAREN KUDEAKETA

73 Artikulua – Garapen eramangarria

Konfederazioak eta kantoiek ahaleginak egingo dituzte naturaren —bereziki bere berriztatze gaitasunean— eta gizakiaren erabilera-aren arteko oreka iraunkorra ezartzeko.

74 Artikulua – Ingurumenaren babes

1. Konfederazioak legeak emango ditu kalte mingarri edo eze-rosoen kontra, gizakiaren eta beronen ingurumen naturalaren babesaren inguruan.

2. Kontu hartuko du kalte horiek saihesteaz. Prebentzio eta kon-pontze gastuak kalteok eragiten dituztenek ordainduko dituzte.

3. Kantoiek egikarituko dituzte xedapen federalak, legearen ara-bera konfederazioari ez dagokionean.

75 Artikulua – Lurraldearen kudeaketa

1. Konfederazioak ezarriko ditu lurraldearen kudeaketarako printzipio aplikagarriak. Kantoiei dagokie lurzorua-aren erabilera zuhur eta neurritsua egitea eta lurraldea modu arrazoigarrian okupatzea.

2. Konfederazioak sustatuko eta koordinatuko ditu kantoien aha-lerinak eta haiekin kolaboratuko du.

3. Eginkizunak betetzeko orduan, konfederazioak eta kantoiek kontuan hartuko dituzte lurralde kudeaketaren beharrak.

76 Artikulua – Ura

1. Dauzkan eskuduntzen mugen barne, konfederazioak kontu hartuko du ur baliabideak modu arrazoigarrian erabiltzen direnaz, horien babesaz eta urarekin ekintza kaltegarrik egiten ez direnaz.

2. Ur baliabideen kontserbazio eta probetxurako printzipioak ezarriko ditu, baita hozketarako eta energia sorkuntzarako ere, eta ziklo hidrologikoan gainerako interbentzioetarako ere.

3. Legeak emango ditu uraren babesaren gainean, gutxieneko ur-emariaren segurtapenaren inguruan, uraren ibilbidearen kudeaketaren inguruan, presen segurtasunaren inguruan eta prezipitazioa bultzatzeko naturarengan esku-hartzearen inguruan.

4. Kantoiei dagokie euren ur baliabideen kudeaketa. Lege federalak aurreikusten dituen mugen barne, horien erabileragatik zerga bat jar dezakete. Konfederazioak eskubidea du garraio jardueratarako urak erabiltzeko; horien erabileragatik zergak eta kalte-ordainak ordainduko ditu.

5. Dagokien kantoiei kontsultatuz, konfederazioak erabakiak hartuko ditu beste estatu batzuei ere interesatzen zaizkien uren inguruan, eta baliabide horien erabileragatik zergak ezarriko ditu. Ur baliabideak zenbait kantoiri interesatzen bazaizkie eta horiek ez baldin badira ados jartzen, konfederazioak erabakiak hartuko ditu eskubide horien inguruan halaber.

6. Eginkizun horien betetzean, kontuan hartuko ditu ura sorleku duten kantoien interesak.

77 Artikulua – Basoak

1. Konfederazioak kontu hartuko du basoek euren funtzio babesle, ekonomiko eta soziala bete dezaten.

2. Basoen babeserako printzipio aplikagarriak finkatuko ditu.

3. Basoen kontserbaziorako neurriak sustatuko ditu.

78 Artikulua – Ondarearen eta naturaren babesa

1. Kantoiei dagokie naturaren eta ondarearen babesa.

2. Konfederazioak, bere eginkizunak betetzean, kontuan izanen ditu naturaren eta ondarearen babeserako helburuak. Paisaia, lekuen fisionomia, gune historikoak eta monumentu natural eta kulturalak zainduko ditu. Horiek euren osotasunean mantenduko ditu interes publikoak hala eskatuz gero.

3. Konfederazioak natura eta ondarea babesteko ahaleginak lagun ditzake eta, kontratu zein desjabetze bidez, interes nazionala duten objektuak beregana edo babes ditzake.

4. Konfederazioak legeak emango ditu fauna eta floraren babesari buruz eta ingurumen naturala bere aniztasunean preserbatua izan dadin. Galzoriko espezieak babestuko ditu.

5. Edertasun berezia duten interes nazionaleko zingira edo istingadiak babestuek izanen dira. Debekatua egongo da bertan instalazioak eraikitzea edo guneak aldatzea. Espazio horien babeserako edo jada existitzen den nekazal ustiaketarako instalazioak salbuespen dira.

79 Artikulua – Arrantza eta ehiza

Konfederazioak finkatuko ditu arrantzari eta ehizari aplikagarri zaizkion printzipioak, bereziki, arrain, basa ugaztun eta hegazti espezieen aniztasuna mantentzeko.

80 Artikulua – Animalien babesa

1. Konfederazioak animalien babesaren inguruko legeak eman-go ditu.

2. Bereziki honakoak arautuko ditu:

- a.- animaliak gordetzea eta horien zaintza;
- b.- animaliekin esperientazioa eta animalia bizien osotasunari kalteak;
- c.- animalien erabilera;
- d.- animalien eta animalia jatorriko produktuen inportazioa;
- e.- animalien merkataritza eta garraioa;
- f.- animalien hilketa.

3. Xedapen federalen egikaritzea kantoiei dagokie, legeak konfederazioari erreserbatzen ez dion bitartean.

BOSGARREN ATALA: LAN PUBLIKOAK ETA GARRAIOBIDEAK

81 Artikulua – Obra publikoak

Herrialdearen edo berorren zati handi baten interesa denean, konfederazioak obra publikoak burutu eta ustia ditzake, edo lan horien burutzea sustatu.

82 Artikulua – Errepide trafikoa

1. Konfederazioak legeak emango ditu errepide trafikoaren inguruan.
2. Garrantzi nazionalako errepideen goi ikuskaritza egingo du; trafikoari irekiak egon daitezkeen ibilbideak erabaki ditzake.
3. Ez da zergarik ezarriko errepide publikoak erabiltzeagatik. Biltzar Federalak salbuespenak ezar ditzake.

83 Artikulua – Errepide nazionalak

1. Konfederazioak errepide nazionalen sistema baten sorrera eta errepide horien erabilera bermatuko du.
2. Kantoiek errepide nazionalak sortu eta mantenduko dituzte xedapen federalen arabera eta konfederazioaren goi ikuskaritzarekin.
3. Konfederazioari eta kantoiei dagokie errepide nazionalen kostuari aurre egitea. Kantoiarentzat errepide nazionalak duten gastua-ren, horietan daukan interesaren eta kantoiaren finantza baliabideen arabera kalkulatu da kantoi bakoitzari dagokion zatia.

84 Artikulua – Iraganbide alpinoa

1. Konfederazioak babestu egingo ditu eskualde alpinoak, horie-tatik igarotzen den trafikoaren ondorio negatiboetatik. Igarotze alpino-ko trafikoak sortzen dituen arazoak mugatu egingo ditu, kalterik ez dakien egin gizakiei, animaliei, landareei edo horien bizi guneei.
2. Suitzako ardatz alpinoetatik egiten den merkantzien trafikoa trenbide bidez burutuko da. Kontseilu Federalak⁵ horretarako beha-rrezko neurriak hartuko ditu. Ezinbestekoak direnean soilik onartuko dira salbuespenak. Lege baten bidez zehaztuko dira salbuespenok.
3. Ezin da handiagotu eskualde alpinoetako errepideen igarotze ahalmena. Hiri edo herrietatik igarotze trafikoa murrizteko hiri edo herri inguruan eginiko desbiderapenak salbuespen dira.

85 Artikulua – Pisu astuneko zirkulazioaren gaineko kon-tribuzioa

1. Konfederazioak prestazioen edo kontsumoaren arabera zerga bat ezar diezaioko pisu astuneko trafikoari, trafiko horrek kolek

⁵ *Conseil fédéral*: gobernu federala.

tibitateari kostu batzuk eragiten dizkionean, bestelako prestazio edo kontribuzio batzuen bidez ez baldin badira ordaintzen.

2. Kontribuzioaren produktu garbia trafikoko kostuetarako erabiliko da.

3. Kantoiek sarrera garbiaren zati bat jasoko dute. Mendi eskualdeetan eta periferiakoetan kontribuzioaren jasotzeak dituen ondorio partikularren arabera kalkulatu da zati hori.

86 Artikulua – Karburante kontsumoaren zerga eta zirkulazioaren gaineko beste kontribuzio batzuk

1. Konfederazioak karburanteen gaineko zerga bat ezar dezake.

2. Errepide nazionalen erabileragatik, pisu astuneko zirkulazioaren kontribuzioa ordaindu behar ez duten ibilgailu motordunei eta horien erremolkeei kontribuzio bat ezarriko die.

3. Erregai kontsumoaren zergaren sarrera garbitik erdia eta errepideen erabileraren kontribuzio garbia errepide zirkulazioarekin zerikusia duten honako eginkizunen eta gastuen finantzaziorako izan da:

- a.- Errepide nazionalen sorrera, mantentzea eta ustiapena;
- b.- trafiko konbinatua eta lagunduriko ibilgailuen⁶ trafikoa sustatzeko, edo trenbide trafikoa eta errepidekoa bereizteko;
- c.- errepide nagusien sorrerarako kontribuzioak;
- d.- elementu naturaletatik babesteko obren burutzerako eta errepide zirkulazioak eragiten dituen ondorioetatik paisaia eta ingurumena babesteko obretarako kontribuzioak;
- e.- kantoiek partizipazio orokorra izan dezaten motordun ibilgailuentzako errepideen finantzazioan, baita errepide alorrean banaketa zuzena ere;
- f.- errepide nazionalik gabeko kantoientzat kontribuzioak, baita nazioarteko trafikodun errepide alpinoak dituzten kantoientzat ere.

4. Baliabide horiek ez baldin badira nahikoak, konfederazioak gehigarri bat ezar diezaioke kontsumo zergari.

6 *Véhicules routiers accompagnés.*

87 Artikulua – Garraioak

Konfederazioari dagokio legeak ematea honakoen inguruan: trenbide garraioa, teleferikoak, nabigazioa, abiazioa eta espazio nabigazioa.

88 Artikulua – Oinezkoentzat bide eta bidexkak

1. Konfederazioak finkatuko ditu oinezkoen bide nahiz bidexkentzako printzipio aplikagarriak.

2. Kantoiek baliabide horiek mantentzeko dauzkaten neurriak sostenga ditzakete, baita horiek koordinatu ere.

3. Eginkizun horietarako kontuan izanen ditu oinezkoen bide eta bidexken sareak, eta itxi beharreko bide eta bidexkak beste batzuen bidez ordezkatzeko ditu.

SEIGARREN ATALA: ENERGIA ETA KOMUNIKABIDEAK

89 Artikulua – Energia politika

1. Dagozkien eskuduntzen mugen barne, konfederazioa eta kantoiak saiaturako dira lortzen energia iturri nahikoak, anitzak, fidagarriak, ekonomikoki egokiak eta ingurumena zaintzen dutenak, eta energiaren erabilera ekonomiko eta eraginkorra egingo dute.

2. Konfederazioak finkatuko ditu lekuko energien eta energia berriztagarrien printzipio aplikagarriak, baita energiaren kontsumo ekonomiko eta arrazoigarri baterakoak ere.

3. Konfederazioak emango ditu instalazioen, ibilgailuen eta aparatuen energia kontsumorako legeak. Energia tekniken garapena sustatuko du, bereziki energia aurreztearen eta energia berriztagarrien arloan.

4. Kantoiei dagokie nagusiki eraikuntzetako energia kontsumoaren arloa.

5. Bere energia politikan, konfederazioak kontuan hartuko ditu kantoiak, udalerrien eta ekonomia alorreko eragileen ahaleginak; kontuan hartuko ditu, halaber, eskualde bakoitzeko baldintzak eta ekonomikoki eramangarria denaren mugak.

90 Artikulua – Energia nuklearra

Konfederazioari dagokio energia nuklearraren gaineko legeak ematea.

91 Artikulua – Energiaren garraioa

1. Konfederazioak emango ditu elektrizitatearen garraioaren eta eskaintzaren inguruko legeak.

2. Konfederazioari dagokio legeak ematea erregai likido edo gaseosoen hodi bidezko garraioaren inguruan.

92 Artikulua – Posta eta telekomunikazio zerbitzuak

1. Konfederazioari dagozkio posta eta telekomunikazio zerbitzuak.

2. Konfederazioak kontu hartuko du posta eta telekomunikazio zerbitzu arloan zerbitzu unibertsal nahikoa —prezio arrazoigarriak dituen— bermatua egon dadin eskualde guztietan. Printzipio uniformearen arabera finkatuko dira tarifak.

93 Artikulua – Irratia eta telebista

1. Konfederazioari dagokio legeak ematea irrati eta telebistaren inguruan zein telekomunikazio publikoetatik datozen bestelako produkzio nahiz informazioen hedapen formen inguruan.

2. Irratia eta telebista lagungarriak dira formazio eta garapen kulturalerako, iritzia formazio librerako eta libertimendurako. Komunikabide horiek kontuan hartuko dituzte herrialdearen berezitasunak eta kantoien beharrak. Gertakizunak leialki islatuko dituzte eta iritzi aniztasuna zuzen agertuko dute.

3. Bermatuak daude irrati eta telebistaren independentzia eta programazioaren autonomia.

4. Kontuan hartu beharko da beste komunikabide batzuen —bereziki prentsarena— eginkizuna eta egoera.

5. Posible izanen da agintaritza autonomo batera jotzea programen inguruko kexak egiteko.

ZAZPIGARREN ATALA: EKONOMIA

94 Artikulua – Ordena ekonomikoaren printzipioak

1. Konfederazioak eta kantoiek errespetatu egingo dute askatasun ekonomikoaren printzipioa.

2. Ekonomia nazionalaren interesak artatuko dituzte eta, ekonomia pribatuko sektorearekin batera, populazioaren oparotasun eta segurtasun ekonomikoaren alde egingo dute.

3. Dagozkien eskuduntzen mugen barne, kontu hartuko dute ekonomia pribatuko sektorearentzat faboragarria den giroa sortzeaz.

4. Askatasun ekonomikoaren printzipioaren ezeztatzeak —berezi lehia mehatxatzen duten neurriak— ez dira onartuko, baldin eta konstituzio federalak ez baditu aurreikusten edo kantoien monopolioetan ez badira oinarritzen.

95 Artikulua – Irabazizko jarduera ekonomiko pribatua

1. Konfederazioak legeak eman ditzake irabazizko jarduera ekonomiko pribatuen gainean.

2. Saiatuko da suitzar espazio ekonomiko bakarra sortzen. Unibertsitate ikasketak dituenari, edo konfederazioko, kantoiko edo kantoiak onarturiko ikasketa zertifikatua duenari Suitza osoan lanbidea edukitzeko aukera bermatuko dio.

96 Artikulua – Lehia arloko politika

1. Konfederazioak legeak emango ditu kartelen eta gainerako lehiaren murrizketaren ondorio sozial eta ekonomiko kaltegarrien aurka egiteko.

2. Neurriak hartuko ditu:

- a. merkatuan posizio menderatzailea duten zuzenbide pribatuko edo publikoko enpresa edo erakundeek gehiegizko prezioak ezar ez ditzaten;
- b. bidegabeko lehiaren kontra egiteko.

97 Artikulua – Kontsumitzaileen babesak

1. Konfederazioak neurriak hartuko ditu kontsumitzaileak babesteko.

2. Legeak emango ditu kontsumitzaile elkarteek konponbideak izan ditzaten. Bidegabeko lehiaren aurkako legeriaren arloan, elkarte horiek gainontzeko elkarte profesional eta ekonomikoen eskubide berak dituzte.

3. Kantoiek adiskidetzerako prozedura bat edo prozedura judicial sinple eta azkar bat aurreikusiko dute, eztabaidan den balioak kopuru jakin bat gainditzen ez duen auzietarako. Kontseilu Federalak finkatuko du kopuru hori.

98 Artikulua – Banku eta aseguruak

1. Konfederazioak legeak emango ditu bankuen eta burtsen gainean; kontuan izanen ditu kantoietako bankuen funtzio eta egoera bereziak.

2. Legeak eman ditzake beste eremu batzuetako finantzazio zerbitzuen gainean.

3. Legeak emango ditu aseguru pribatuen inguruan.

99 Artikulua – Moneta politika

1. Konfederazioari dagokio moneta. Moneta eta bankuko billeteak jaulkitzeko eskubidea konfederazioari dagokio eskusiboki.

2. Banku zentral independentea delarik, Suitzako Banku Nazionalak herrialdeko interes orokorraren zerbitzuko moneta-politika egingo du; konfederazioaren ikuskaritzarekin eta kooperazioarekin administratua izanen da.

3. Suitzako Banku Nazionalak —dauzkan etekinetatik— moneta erreserba nahikoak izanen ditu; erreserba horietako zati bat urretan izanen da.

4. Suitzako Banku Nazionaleko etekin garbietako bi heren gutxienez kantoiei emango zaie.

100 Artikulua – Koiuntura-politika

1. Konfederazioak neurriak hartuko ditu koiunturaren garapen erregularra eman dadin eta, bereziki, langabezia eta inflazioari aurre egiteko.

2. Kontuan hartuko du eskualde bakoitzari dagokion garapen ekonomikoa. Kantoiekin eta sektore ekonomikoekin lankidetzan jardungo du.

3. Ezeztatu egin dezake, beharrezkoa balitz, askatasun ekonomikoaren printzipioa honako eremuetan: kreditu eta monetarenean, kanpo merkataritzan eta finantza publikoan.

4. Aurrekontu politikan konfederazioak, kantoiek eta udalerriek kontuan izanen dute koiunturaren egoera.

5. Ekonomia egonkortzeko, konfederazioak aldi baterako gehigarriak erabaki ditzake edo zerga eta kontribuzio federaleari hobariak ezarri. Metatzen diren fondoak blokeatu egin beharko dira; neurria askatzerakoan, zuzeneko zerga eta kontribuzioak banaka itzuliko dira, eta zeharkako zerga eta kontribuzioak, berriz, hobariak emateko edo enplegua sortzeko erabiliko dira.

6. Konfederazioak krisi erreserbak sortzera behar ditzake enpresak; horretarako, pribilegio fiskalak eskaini ditzake, eta kantoiak behar ditzake pribilegio horiek eskaintzera. Erreserbak askatzen direnean, enpresek libreki erabakiko dute horiekin zer egin, legeak aurreikusten dituen xedeen barne.

101 Artikula – Kanpo politika ekonomikoa

1. Konfederazioa saiatuko da suitzar ekonomiak atzerrian dituen interesak babesten.

2. Kasu berezietan, neurriak har ditzake suitzar ekonomia babesteko. Beharrezkoa balitz, askatasun ekonomikoaren printzipioa alde batera utz dezake.

102 Artikulua – Oinarrizko produktu eta zerbitzuen horniketa

1. Konfederazioak oinarrizko produktu eta zerbitzuen horniketa bermatuko dio herrialdeari, aurre egin behar baldin bazaio gerra mehatxu bati, bestelako indarrezko ekimen bati edo ekonomiak bere baliabideen bitartez aurre egin ezin diezaiokeen beste edozein lazeria larriri. Prebentziozko neurriak hartuko ditu.

2. Beharrezkoa balitz, askatasun ekonomikoaren printzipioa alde batera utz dezake.

103 Artikulua – Egiturazko politika

Konfederazioak ekonomikoki mehatxatuak diren eskualdeei lagun diezaieke, baita ekonomiaren zein lanbideen sailak sustatu ere, espero daitezkeen norberari laguntzeko neurriak sail horien existentzia ziurtatzeko nahikoak ez baldin badira. Beharrezkoa balitz, askatasun ekonomikoaren printzipioa alde batera utz dezake.

104 Artikulua – Nekazaritza

1. Konfederazioa saiatuko da, garapen eramangarriaren eta merkatuaren eskaerei erantzuten dien ekoizpen baten bidez, nekazaritzak honakoetara jo dezan:

- a.- populazioaren horniketan segurtasuna ematera;
- b.- baliabide naturalen kontserbaziora eta nekazal paisaia mantentzera;
- c.- bizilekuak lurraldean zehar deszentralizaturik antolatuta egotera.

2. Nekazaritzatik espero daitezkeen norbere laguntzarako neurriez gain eta, beharrezkoa izanez gero, askatasun ekonomikoaren printzipioa alde batera utzita, Konfederazioak sustatu egingo ditu zorua lantzen duten bertako ustiategiak.

3. Nekazaritzak bere funtzio anitzak bete ahal izateko moduan hartuko dira neurriak. Konfederazioaren eskuduntzak eta eginkizunak honakoak dira bereziki:

- a. nekazaritzako etekinak osatu egingo ditu eskainiriko prestazioak modu egokian sarituak izan daitezen, betiere, baldintza ekologikoak betetzen direla frogatzen bada;
- b. pizgarri ekonomikoen bidez sustatu egingo dira naturarekin bereziki bat datozen eta ingurumenarekin zein animaliekin adeitsuak diren ustiapen formak;
- c. legeak emango ditu elikagaien jatorri, kalitate, ekoizpen eta transformazio prozedura deklarazioaren inguruan;
- d. ingurumena babestu egingo du ongarrien, produktu kimikoen eta gainerako material lagungarrien gehiegizko erabilera-tik datorren kutsaduratik;
- e. nekazaritzako formazioa, ikerketa eta aholkularitza susta ditzake eta inbertsioei laguntzak eman;
- f. legeak eman ditzake nekazari jabegoa sendotzeko.

4. Xede horretarako nekazaritzarako kredituak eskainiko ditu esleipen berezien bidez eta konfederazioaren fondo orokorretatik.

105 Artikulua – Alkohola

Konfederazioari dagokio destilazio bidezko alkoholaren ekoizpen, inportazio, errefinazio eta salmentaren inguruan legeak ematea. Konfederazioak kontuan hartuko ditu, bereziki, alkoholaren kontsumoaren ondorio kaltegarriak.

106 Artikulua – Ausazko jokoak

1. Konfederazioari dagokio legeak ematea ausazko jokoen eta loteriaren inguruan.

2. Beharrezkoa da lizentzia federala izatea kasino bat irekitzeko eta ustatzeko. Lizentzia emateko orduan, konfederazioak kontuan izan behar ditu eskualdeetako zirkunstantziak eta ausazko jokoek dauzkaten arriskuak.

3. Konfederazioak kasinoen etekinei zerga bat ezarriko die; zerga hori ezin da izan jokoen etekin garbitik ehuneko laurogei baino gehiago. Zerga hori zahartzarorako, alargunen⁷ eta ezinduen segurantzarako erabiliko du konfederazioak.

4. Dirua ematen duten trebeziazko joko-makinen lizentziak eskaintzea kantoiei dagokie.

107 Artikulua – Arma eta gerrarako materiala

1. Konfederazioak legeak emango ditu armen, armen osagarrien eta munizioen abusuzko erabileraren aurka.

2. Legeak emango ditu gerra materialaren ekoizpen, eskuratzeko, distribuzio, inportazio, esportazio eta garraioaren gainean.

ZORTZIGARREN ATALA: ETXEBIZITZA, LANA, GIZARTE SEGURANTZA ETA OSASUNA

108 Artikulua – Etxebizitzaren eraikitzerako eta jabegorako sustapena

1. Konfederazioak sustatu egingo du etxe-eraikuntza, baita partikularren erabilpenerako diren apartamentu zein etxe familiarren eskuratzeko, eta etxebizitza publikoa sortzeko erakunde eta eraikitzaileen jarduerak ere.

⁷ *Survivants*: bizirik dirauen ezkontide edo bizikidea.

2. Bereziki sustatuko ditu etxebizitzak sortzeko lurzoruen esku-ratzea eta ekipamendua, etxe-erakuntzan arrazionalizazioa, eta etxeak eraikitzearen zein etxebizitzaren beraren gastuen txikiagotzea.

3. Etxebizitzak eraikitzeko lurzoruen ekipamendurako eta etxe-erakuntzan arrazionalizazioa eman dadin legeak eman ditzake.

4. Aurrekoa egiterakoan, bereziki kontuan izanzen ditu sendien eta adin nagusikoen, behartsuen zein ezinduen interesak.

109 Artikulua – Alokairuak

1. Konfederazioak legeak emango ditu alokairu esparruan abusa ekiditeko, bereziki gehiegizko errentak direla eta, baita abusuzko utzarazpenen aurka eta denbora jakin baterako alokairua luzarazteko ere.

2. Legeak eman ditzake, alokairu kontratu-akordioek obligatze-ko indarra izan dezaten. Edonor obligatzeko indarra izateko, aipaturiko kontratuek kontuan izan beharko dituzte gutxiengoaren interes legiti-moak eta eskualdeetako berezitasunak, baita legearen aurrean berdintasu-naren printzipioa errespetatu ere.

110 Artikulua – Lana

1. Konfederazioak honako inguruan eman ditzake legeak:

a.- beharginen babesaz;

b.- beharginen eta enplegu-emaileen arteko harremanen ingu-ruan, bereziki arlo profesionalean eta enpresa munduan inte-resa duten araudi komunean;

c.- enplegu zerbitzuei buruz;

d.- lan hitzarmen kolektiboen aplikazio eremuaren hedapenaren inguruan.

2. Lan hitzarmen kolektibo baten aplikazio eremua ezin da hedatu baldin eta hitzarmen horrek ez baditu kontuan hartzen gutxiengoaren interes legiti-moak eta eskualdeetako berezitasunak eta, bestetik, ez baldin badu legearen aurrean berdintasunaren eta askatasun sindikala-ren printzipioa errespetatzen.

3. Abuztuaren 1a da jaiegun nazionala. Igandeen parekoa da lan zuzenbidearen ikuspuntutik; ordainsaria jasoko da egun horretan.

111 Artikulua – Adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen gizarte segurantza

1. Konfederazioak neurriak hartuko ditu adin nagusikoentzat, alargunentzat eta ezinduentzat gizarte segurantza nahikoa bermatzeko. Hiru zutabetan oinarrituko da aurreikuspen hori: adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen aseguru federala, lanbide aurreikuspena eta aurreikuspen indibiduala.

2. Konfederazioa saiatuko da adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen aseguru federalak eta lanbide aurreikuspenak, denek ere, euren funtzioak iraunkorki beteko dituztela bermatzen.

3. Kantoiek adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen aseguru federalaz edo lanbide aurreikuspenaz arduratzen diren erakundeak behartu egin ditzakete exentzio fiskalak eskaintzera, baita asegurutunei eta horien enplegu-emaileei desgrabazio fiskalak eskaini ere, euren kotizazioetan eta etorkizuneko den etekinaren eskubide-igurikimen baten inguruan.

4. Kantoiekin lankidetzan, konfederazioak gizabanakoak bultzatuko ditu euren aurreikuspen indibiduala egitera, bereziki neurri fiskalen bidez eta jabetza eskuratzen lagunduko duen politika baten bidez.

112 Artikulua – Adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen aseguru

1. Konfederazioak legeak emango ditu adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen aseguruaren inguruan.

2. Hori egiterakoan, honako printzipioak errespetatuko ditu:

- a.- aseguru derrigorrezkoa da;
- b.- errentek modu egokian ase behar dituzte bizitzako beharrak;
- c.- gehieneko errentak ez du bi aldiz gaitutuko gutxieneko errenta;
- d.- errentak prezioen garapenera moldatuko dira gutxienik.

3. Aseguru finantzatua izanen da:

- a. asegurutuen kotizazioen bidez; asegurutuak soldata duenean, enplegu emaileak kotizazioaren erdia bere kargu hartuko du;
- b. konfederazioaren finantzazio laguntzen bidez eta, legeak aurreikusten baldin badu, kantoienekin.

4. Batera, konfederazioaren eta kantoien laguntzek ez dute gaindituko gastuen erdia.

5. Konfederazioaren prestazioak tabakoaren gaineko zergaren produktu garbiarekin, edari destilatuen zergarekin eta kasinoen etekinaren gaineko zergarekin finantzatzeko dira lehentasunez.

6. Konfederazioak pertsona ezinduen integrazioa sustatzeko du eta adin nagusiko pertsonen, alargunen eta ezinduen alde eginiko ahalleginei laguntza emango die. Horretarako, adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen aseguruko finantza baliabideak erabil ditzake.

113 Artikulua – Lanbide aurreikuspena

1. Konfederazioak legeak emango ditu langileen pentsio planen inguruan.

2. Hori egiterakoan, honako printzipioak errespetatzeko ditu:

a.- Pentsio planak —adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen aseguruarekin batera— asegurudunak lehenago izan duen bizitza maila mantentzea zilegi egingo du;

b.- plan pentsioa derrigorrezkoa da soldatadunentzat; legeak salbuespenak aurreikus ditzake;

c.- enplegu emaileak aurreikuspen erakunde batean aseguratzeko ditu soldatadunak; beharrezkoa balitz, konfederazioak aukera emango dio haren soldatadunak aurreikuspen erakunde federal batean aseguratzeko;

d.- jarduera autonomo bat egiten duten pertsonen euren buruak aukeran asegu ditzakete aurreikuspen batean;

e.- konfederazioak pentsio planak derrigorrezkoak deklaratu ditzake jarduera autonomoa duten lanbide batzuetan, modu orokorrean edo arrisku jakin batzuei aurre egiteko.

3. Pentsio planak aseguradunen kotizazioen bidez finantzatzeko dira; aseguradunak soldata duenean, enplegu emaileak bere kargu hartuko du kotizazioaren erdia gutxienez.

4. Aurreikuspen erakundeek lege federalak ezartzen dituen baldintza minimoak bete behar dituzte; konfederazioak, arazo partikularrei aurre egiteko, herrialdearen osotasunean aplikatzeko diren neurriak har ditzake.

114 Artikulua – Langabezia aseguru

1. Konfederazioak legeak emango ditu langabezia aseguruaren inguruan.

2. Hori egiterakoan, honako printzipioak errespetatuko ditu:

a.- aseguruak irabazien galera dela-eta konpentsazio egokia emango du eta langabeziari aurea hartzeko eta hura borrokatzeko neurriak bultzatuko ditu;

b.- afiliazioa derrigorrezkoa da soldatadun guztientzat; legeak salbuespenak aurreikus ditzake;

c.- jarduera autonomoa egiten duten pertsonak aukeran har dezakete aseguru.

3. Langabezia aseguru asegurdunen kotizazioen bidez finantzatuko da; asegurdunak soldata duenean, enplegu emaileak bere kargu hartuko du kotizazioaren erdia gutxienez.

4. Konfederazioak eta kantoiek finantzazio laguntzak eskain ditzakete zirkunstantzia berezietan.

5. Konfederazioak xedapenak eman ditzake langabetuen laguntza sozialerako.

115 Artikulua – Behartsuen laguntza

Behartsuek bizileku dituzten kantoiegandik jasoko dute laguntza. Konfederazioak arautuko ditu salbuespenak eta eskuduntzak.

116 Artikulua – Familia alokairuak eta amatasun aseguru

1. Bere eginkizunak betetzerakoan, konfederazioak kontuan hartuko ditu familiaren beharrak. Familia babesteko neurriak bultzatzaizke.

2. Legeak eman ditzake familia alokairuen inguruan eta konpentsazio fondo federal bat ezar dezake.

3. Amatasun aseguru eratuko du. Aseguru horretatik onurarik jasoko ez dutenei ere ordainarazi diezaike.

4. Konfederazioak familia konpentsazio fondo batean afiliazioa eta amatasun aseguru derrigorrezko egin ditzake, modu orokorrean edo pertsona klase jakin batzuentzat, eta prestazioak kantoien kontribuzio zuzen baten arabera egin.

117 Artikulua – Osasun aseguruia eta akzidente aseguruia

1. Konfederazioak legeak emango ditu osasun aseguruaren eta akzidente aseguruaren inguruan.

2. Osasun aseguruia eta akzidente aseguruia derrigorrezkoak deklaratu ditzake, modu orokorrean edo pertsona klase jakin batzuentzat.

118 Artikulua – Osasunaren babesa

1. Bere eskuduntzen mugen barne, konfederazioak neurriak hartuko ditu osasuna babesteko.

2. Legeak emango ditu honakoen gainean:

a.- Elikagaien, sendagaien, estupefazianteen, eta osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen organismo, produktu kimiko eta objektuen erabilera;

b.- gaixotasun kutsakorren, gaixotasun aski hedatuen edo giza-kiarentzat zein animalientzat bereziki arriskutsuak diren gaixotasunen aurkako borroka;

c.- erradiazio ionizatzaileen aurkako babesa.

119 Artikulua – Laguntza mediko bidezko ugalketa eta gizakien eremuko gene teknologia

1. Laguntza mediku bidezko ugalketaren eta gene teknologiaren abusuzko erabileraren aurka babesa eman behar zaio gizateriari.

2. Konfederazioak legeak emango ditu gizakiaren ugaltza eta gene materialaren erabileraren inguruan. Hori egiterakoan, giza duintasunaren, nortasunaren eta familiaren babesa bermatuko du eta honako printzipioak errespetatuko ditu bereziki:

a.- Debekatuak daude giza enbrioien eta gametoen ondare genetikoan interbentzioak;

b.- gizakiarena ez den ondare genetikoa edo germinala ezin da giza ondare germinalera transferitu, ezta bertan konbinatu ere;

c.- antzutasuna edo gaixotasun larri baten transmisioa beste modu batean ezin direnean saihestu baimenduko dira soilik laguntza mediko bidezko ugalketa metodoak, eta ez haurraren ezaugarri jakin batzuk garatzeko edo harengan ikerketak egiteko; emakumearen gorputzetik kanpoko giza obu-

luen ernalketa ez dago baimendua legeak aurreikusten dituen kasuetan baino; emakumearen gorputzetik kanpo, enbrioio egoeran, soilik harengan berehala ezarriak izanen direnak baimenduko dira;

- d.- debekatuak daude enbrioien dohaintzak eta amatasun ordezen mota guztiak;
- e.- ezin da merkataritzarik egin giza material germinalarekin edo enbrioietatik eratortzen diren produktuekin;
- f.- pertsona baten ondare genetikoa ezin da analizatu, erregistratu edo jakitera eman ez baldin bada pertsona horren onepinarekin, eta legeak dioenaren arabera;
- g.- pertsona guztiek dute euren jatorriaren datuetara sarrera.

119 Artikulua – Transplante medikuntza

1. Konfederazioak xedapenak emango ditu organoen, ehunen eta zelulen transplantearen arloaren inguruan. Hori egiterakoan, giza duintasuna, nortasuna eta osasuna babesten saiatuko da.

2. Organoen banaketa zuzen baten alde egingo du.

3. Organo, ehun eta zelulen dohaintza doanekoa da. Debekatua dago giza organoen merkataritza.

120 Artikulua – Teknologia genetikoa giza espezieetik kanpo

1. Gizakia eta berorren ingurumena babestuak izan behar dira teknologia genetikoaren abusutik.

2. Konfederazioak legeak emango ditu animalien, landareen eta beste organismo batzuen ondare germinal eta genetikoaren erabileraren gainean. Hori egiterakoan, organismo bizien osotasuna eta gizakiaren, animalien eta ingurumenaren segurtasuna errespetatuko dira, halaber, animalien zein landareen aniztasun genetikoa babestuko dira.

BEDERATZIGARREN ATALA: ATZERRITARREN EGOITZA ETA BIZILEKU FINKAPENA

121 Artikulua [xedapen orokorrak]

1. Atzerritarrak Suitzan sartzearen, irtetearen, egotearen eta finkatzearen nahiz asilo ematearen arloan konfederazioak emango ditu legeak.

2. Herrialdearen segurtasuna mehatxatzen duten atzerritarrak bertatik egotziak izan daitezke.

HAMARGARREN ATALA: ZUZENBIDE ZIBILA, ZIGOR ZUZENBIDEA ETA METROLOGIA

122 Artikulua – Zuzenbide zibila

1. Konfederazioari dagokio zuzenbide zibilaren arloan legeak ematea.

2. Zuzenbide zibilean antolamendu judiziala, prozedurak eta justiziaren administrazioa kantoiei dagokie.

3. Gauza epaituaren indarra duten epai zibilak Suitza osoan egikarituko dira.

[122 Artikuluaren zuzenketa (1999ko urriaren 8koa)]

1. Konfederazioari dagokio zuzenbide zibilaren eta prozedura zibilaren arloan legeak ematea.

2. Zuzenbide zibilean antolamendu judiziala eta justiziaren administrazioa kantoiei dagokie.

3. [ezeztatua]

123 Artikulua – Zigor zuzenbidea

1. Konfederazioari dagokio zigor zuzenbidearen eta prozedura penalaren arloan legeak ematea.

2. Legeak aurkakoa esaten ez duen artean, kantoiei dagokie zigor zuzenbide arloko antolamendu judiziala eta justiziaren administrazioa, batetik, eta zigorren zein neurrien egikaritzea, bestetik.

3. Konfederazioak kontribuzioak ezar diezazkieke kantoiei honakoak direla eta:

a.- Erakundeak sortzeko;

b.- zigor eta neurrien egikaritzean hobekuntzarako;

c.- haurrei, nerabeei eta gazteei zuzenduriko hezkuntza neurriak gauzatzen diren erakundeak mantentzeko.

123a Artikulua [kriminal zeharo arriskutsuentzako zentzopen neurriak]

1. Adituek kontsideratzen badute krimen sexualak edo indarkeriazkoak egin dituen kriminal bat zeharo arriskutsua dela, eta bere portaera aldaezina dela, bizitza osorako espetxeratua izan daiteke, krimenak ostera ere egingo dituen arrisku handia dagoelarik. Ez da zilegi askatasun aitzinaturik edo behin-behineko askatasunik kasu horietan.

2. Adituen ikusketa berririk ez da izanen harik eta ezagutza zientifiko berriek zilegi egiten dutenera arte erabakitzea kaltegilearen portaera alda daitekeela eta kolektibitatearentzat ez dela arriskutsua izan. Adituen iritzia entzun ondoren espetxeratzearen bukaeraren erabakia hartzen duen pertsona arduradun izanen da krimena ostera ere ematen bada.

3. Halako delinkuenteen kasuan iritzia emateko, behintzat bi aditu independentek hartu beharko dute parte, garrantzitsuak diren gauza guztiak kontuan hartuko dituztelarik.

124 Artikulua – Biktimei laguntza

Konfederazioak eta kantoiek segurtatuko dute osotasun fisiko, psikiko edo sexualaren aurkako krimenak pairatu dituztenek laguntza eta kalte ordaina jasoko dutela, ekintza kriminala dela-eta finantza arazoak badauzkate.

125 Artikulua – Metrologia

Konfederazioari dagokio metrologia arloko legeak ematea.

HIRUGARREN KAPITULUA FINANTZA ERREGIMENA

126 Artikulua – Finantzen kudeaketa

1. Konfederazioak bere gastu eta sarrerak modu iraunkorrean orekatuko ditu.

2. Aurrekontuan onartuak izan baino lehen, gehieneko gastuen kopurua aurreikusten diren sarreren arabera egingo da, egoera ekonomikoa kontuan harturik.

3. Finantza behar handia sortzen bada, gorago 2. atalean aipaturiko gehieneko gastuen kopurua handitu egin daiteke. Biltzar Federalak erabakiko du halako igoera bat 159 artikulua c atalaren arabera.

4. Estatuaren kontuen arabera gastu osoek goragoko 2. eta 3. ataletako kopurua gainditzen baldin badute, gainerako gastuak ondorengo urteetan konpentsatuko dira.

5. Legeen bidez ezarriko dira zehaztasunak.

127 Artikulua – Zergak ezartzeko printzipioak

1. Legeak definituko ditu erregimen fiskala arautzen duten printzipio orokorrak, bereziki, zergadunen nolakotasuna, zerga objektua eta berori kalkulatzeko modua.

2. Zergaren naturak zilegi egiten duen heinean, unibertsaltasunaren, tratamendu berdintasunaren eta gaitasun ekonomikoaren printzipioak errespetatu egin behar dira.

3. Kontuaren artean zerga ezarpen bikoiztua debekaturik dago. Konfederazioak beharrezko neurriak hartuko ditu.

128 Artikulua – Zerga zuzenak

1. Konfederazioak honakoen gaineko zerga zuzenak ezar ditzake:

- a.- Pertsona fisikoen sarreraren ehuneko 11,5 gehienez;
- b.- pertsona juridikoen etekinen ehuneko 9,8 gehienez;
- c.- pertsona juridikoen kapitalaren eta erreserben ehuneko 0,825 gehienez.

2. Zergak ezartzeko orduan, konfederazioak kontuan hartuko du kontuaren eta udalerriaren zerga zuzenen karga.

3. Pertsona fisikoengan inflazioak goragoko zerga modulu batera igotzea aldiro aldian aldian konpentsatuko da.

4. Kontuak egingo dute zergapetzea eta jasotzea. Zergaren produktu garbiaren hiru hamarren haintzat izanen dira; kantitate horren seiren bat behintzat kontuaren arteko konpentsaziorako erabiliko da.

129 Artikulua – Harmonizazio fiskala

1. Konfederazioak finkatuko ditu konfederazioaren, kontuaren eta udalerriaren zerga zuzenen harmonizaziorako printzipioak; kontuan hartuko ditu kontuak harmonizazio arloan eginko ahaleginak.

2. Zergak ordaintzeko betebeharrera, zergen objektua nahiz horien epeetara, eta arlo fiskaleko prozedurara eta zuzenbide zibilera

hedatzen da harmonizazioa. Zergaren baremoak, tasak eta zergetatik libratzen diren kantitateak ez dira harmonizazio fiskalean sartuko.

3. Zergetan ezberdintasun justifikaezinen aurka egiteko legeak eman ditzake konfederazioak.

130 Artikulua – Balio erantsiaren gaineko zerga

1. Konfederazioak balio erantsiaren gaineko zerga bat ezar dezake, ehuneko 6,5eko gehienezko tasa batekoa, ondasunen hornikuntza-
ren eta zerbitzu ematearen gainean, norberak egiten dituenak barne, eta inportazioen gainean.

2. Zerga honen ehuneko 5 diru-sarrerara eskaseko klaseen aldeko neurrietarako izanen da.

3. Adin piramidearen bilakaera dela-eta, adin nagusikoen, alar-
gunen eta ezinduen aseguruak ez baldin badago segurtatua, konfede-
razioak badauka lege federal baten bidez balio erantsiaren gaineko zerga
puntu bat gehienez jotzea.

131 Artikulua – Kontsumo bereziaren gaineko zerga

1. Konfederazioak honakoei ezar diezaieke kontsumo bereziaren
gaineko zerga:

a.- tabakoari eta tabakotik eratorritako produktuei;

b.- edari destilatuei;

c.- garagardoari;

d.- automobileren eta horien osagaiei;

e.- petrolioari, beste fuel mineral batzuei, gas naturalari, horien
errefinaziotik datozen produktuei, eta erregaiei.

2. Erregaiei gainzerga bat ezar diezaieke.

3. Edari destilatuen gaineko zergaren produktu garbiaren hama-
arren bat kantoientzat da. Dependentsia sortzen duten substantzien abu-
suaren kausa nahiz ondorioei kontra egiteko erabiliko dituzte kantoiek
fondo horiek.

132 Artikulua – Tinbre eskubidea eta zerga aurreratua⁸

1. Konfederazioak tinbre eskubidea du baloreen⁹, aseguru pri-
men polizen eta merkataritza eragiketetako bestelako tituluen gainean;

⁸ *Impôt anticipé*.

⁹ *Papiers-valeurs*: eskubide bat berez atxikia daramaten tituluak; titulu horietatik bereizita ezin da eskubide hori gauzatu edo transferitu.

ondasun higiezin eta hipoteken eragiketak tinbre eskubidetik salbuesiak dira.

2. Konfederazioak zerga aurreratua ezar diezaioke kapital higigarrietako aktiboei, loterietako irabaziei eta aseguruetako etekinei.

133 Artikulua – Aduana-zergen eskubideak

Konfederazioari dagokio legeak ematea aduana zergen eskubideen gainean eta mugetan merkantzia trafikoari ezartzen zaizkion gainerako kargen gainean.

134 Artikulua – Kantoi eta udalerri zergetatik salbuespena

Konfederazioak kontsideratzen badu produktu batek balio erantsiaren gaineko zerga, kontsumo bereziaren gaineko zerga, tinbre eskubidea edo zerga aurreratua aplikatua duela edo horietaz salbuetsia dela, produktu horrek ezin du kantoi edo udalerriengandik mota bereko zerga bat jaso.

135 Artikulua – Finantza banaketa zuzena

1. Konfederazioak kantoien arteko finantza berdintasuna sustatuko du.

2. Laguntzak ematerakoan, kontuan hartuko du kantoien finantza ahalmena eta mendietako eskualdeen egoera berezia.

LAUGARREN TITULUA

HERRIA ETA KANTOIAK

LEHENENGO KAPITULUA

XEDAPEN OORKORRAK

136 Artikulua – Eskubide politikoak

1. 18 urte beteak edo zaharragoak diren suitzar hiritarrek —ez daudenak ezinduak buruko gaixotasun edo ahultasun bat dela-eta— eremu federalesko eskubide politikoak dituzte. Denek dauzkate eskubide eta betebeharrak politiko berak.

2. Parte har dezakete Kontseilu Nazionalerako hauteskundeetan eta bozketa federaletan, baita gai federaletako erreferendumetan eta herri ekimenetan ere.

137 Artikulua – Alderdi politikoak

Alderdi politikoek herriaren borondatea eta iritzia osatzen lagunduko dute.

BIGARREN KAPITULUA EKIMENAK ETA ERREFERENDUMAK

138 Artikulua – Konstituzioaren zuzenketa osoa xede duen herri ekimena

1. Bozkatzeko eskubidea duten 100.000 hiritarrek, euren ekimena ofizialki argitaratu ostean 18 hilabete igarotzen direlarik, konstituzioaren zuzenketa osoa eska dezakete.

[herri bozketa bidez 2003ko otsailaren 9an onartua, 2003ko abuztuaren 1etik indarrean]

139 Artikulua – Konstituzioa partzialki aldatzeko herri ekimen adierazia

1. Bozkatzeko eskubidea duten 100.000 hiritarrek, euren ekimena ofizialki argitaratu ostean 18 hilabete igarotzen direlarik, konstituzioaren zuzenketa partziala eska dezakete proiektu adierazi baten bidez.

2. Herri ekimen batek ez baldin badu betetzen forma batasunaren printzipioa, gai batasunarena, edo nazioarteko zuzenbidean bete beharrekoak diren arauak, orduan Biltzar Federalak osoki edo partzialki deuseza deklaratu du.

3. Ekimena herriaren eta kantoien bozketapean ezarriko da. Biltzar Federalak onespena edo baztertzeari gomendatu du. Aurkako proiektu bat aurkez dezake.

[2003ko otsailaren 9an eginiko herri bozketaren bidez aldatutako artikulua, 2003ko abuztuaren 1etik aurrera indarrean]

139a Artikulua – Herri ekimen orokorra

1. Bozkatzeko eskubidea duten 100.000 hiritarrek, euren ekimena ofizialki argitaratu ostean 18 hilabete igarotzen direlarik, modu orokorrean aurkeztutako proposamen baten bidez, xedapen konstituzional edo legegileen harrera, aldaketa edo ezeztatzea eska dezakete.

2. Herri ekimen batek ez baldin badu betetzen forma batasunaren printzipioa, gai batasunarena, edo nazioarteko zuzenbidean bete beharrekoak diren arauak, orduan Biltzar Federalak osoki edo partzialki deuseza deklaratu du.

3. Biltzar Federalak ekimena onartzen baldin badu, beharrezko zuzenketa konstituzionalak edo legegileak prestatu ditu.

4. Biltzar Federalak prestatuturiko aldaketen aurkako proposamen bat aurkez dezake. Izaera konstituzionala duten zuzenketak (proiektua eta aurkako proiektua) herriak eta kantoiek bozkatuz onartu dituzte, aldiz, izaera legegilea duten zuzenketak (proiektua eta aurkako proiektua) soilik herriak bozkatu ditu.

5. Biltzar Federalak ekimena baztertzen badu, herriak bozkatu du haren inguruan. Herriak onartzen badu, Biltzar Federalak beharrezko aldaketa konstituzionalak edo legegileak prestatu ditu.

[2003ko otsailaren 9an eginiko herri bozketaren bidez aldatutako artikulua, 2003ko abuztuaren 1etik aurrera indarrean]

139b Artikulua – Aurkako proposamena duen ekimen baten bozketan jarraitu beharreko prozedura

1. Bozkatzeko eskubidea duten hiritarrek honakoen inguruan erabaki dezakete aldi berean:

- a.- herri ekimen baten inguruan edo herri ekimen batean oinarrituta prestatuturiko aldaketen inguruan;
- b.- Biltzar Federalak aurka jarri duen proposamenaren inguruan.

2. Proposamen biak onar ditzakete aldi berean. Gai subsidiarioari erantzunez, adieraz dezakete zein proposamen hobesten duten, biak onartuak balira.

3. Aldaketa konstituzionalak onartuak direlarik, gai subsidiarioari dagokionez, proposamenetako batek botoen gehiengoa jasoko balu, eta besteak kantoietakoa, herri botoen gehi kanto botoen ehuneko handiena jaso duen proposamena ezarriko da indarrean.

[2003ko otsailaren 9an eginiko herri bozketaren bidez aldatutako artikulua, 2003ko abuztuaren 1etik aurrera indarrean, lehen atala izan ezik]

140 Artikulua – Derrigorrezko erreferenduma

1. Honakoak herriaren eta kantoien bozketapean jarriko dira:

- a.- Konstituzioaren zuzenketak;
- b.- segurtasun kolektiboko erakundeetan edo nazioz gaindiko erkidegoetan sarrera;
- c.- premiazkoak deklaratuak diren lege federalak, oinarri konstituzionalik ez dutenak eta euren balio denbora urtebete baino luzeagokoa denak, lege horiek Biltzar Federalak onartu beharko ditu eta urtebeteko epean bozkatu beharko dira;

2. Honakoak herriaren bozketapean ezarriko dira:

- a.- Konstituzioaren zuzenketa osoa xede duten herri ekimenak;
- b.- bis. herri ekimen orokor batek burutzen duen lege proiektua eta Biltzar Federalak aurkezturiko aurkako proposamena;
- c.- Biltzar Federalak bazterturiko herri ekimen orokorrak;
- d.- bi kontseiluen arteko desadostasuna ematen denean, ea konstituzioaren zuzenketa osoa eman behar den.

[2003ko otsailaren 9an eginiko herri bozketaren bidez aldatutako artikulua, aldi ezberdinetan indarrean ezarritako atalak]

141 Artikulua – Aukerako erreferenduma

1. Bozkatzeko eskubidea duten 50.000 hiritarrek edo zortzi kanitoik eskaturik, ofizialki publikatzen denetik ehun eguneko epean, honakoak herriaren bozketa izanen dute:

[2003ko otsailaren 9an eginiko herri bozketaren bidez aldatutakoa, 2003ko abuztuaren 1etik aurrera indarrean]

- a.- lege federalak;
- b.- urtebete baino luzeagoko balioa duten eta premiazkoak deklaratuak diren lege federalak;
- c.- dekretu federalak, konstituzioak edo legeak hala aurreikusten duten neurrian;
- d.- honako nazioarteko itunak:
 - 1. zehaztu gabeko iraupena dutenak eta ezin direnak denuntziatu;
 - 2. nazioarteko erakunde batean sarrera aurreikusten dutenak;
 - 3. xedapen legegile garrantzitsuak dauzkatenak edo horien indarrean ezartzeak lege federalak egitea eskatzen dutenak.

[2003ko otsailaren 9an eginiko herri bozketaren bidez aldaturikoa, 2003ko abuztuaren 1etik aurrera indarrean]

2. [2003ko otsailaren 9an eginiko herri bozketaren bidez ezeztatua]

141a Artikulua – Nazioarteko itunen inplementazioa

1. Nazioarteko itun baten onarpenak derrigorrezko erreferenduma eskatzen baldin badu, Biltzar Federalak itunaren inplementazioak eskatzen dituen aldaketa konstituzionalak sar ditzake.

2. Nazioarteko itun baten onarpenak aukerako erreferenduma eskatzen baldin badu, Biltzar Federalak itunaren inplementazioak eskatzen dituen aldaketa konstituzionalak sar ditzake.

[2003ko otsailaren 9an eginiko herri bozketaren bidez aldatutako artikulua, 2003ko abuztuaren 1etik aurrera indarrean]

142 Artikulua – Beharrezko gehiengoak

1. Herriaren bozketapean ezarritako proposamenek botoen gehiengoa behar dute.

2. Herriaren eta kantoien bozketa izan behar duten proposamenek bozkatzailerik gehiengoa eta kantoien gehiengoa behar dute.

3. Kantoi bateko herri bozketaren emaitzak kantoi horren botoa ematen du.

4. Obwald, Nidwald, Basilea-Hiria, Basilea-Landa, Appenzell Kanpo-Rhodes eta Appenzell Barne-Rhodes kantoiek boto erdi dute bakoitzak.

BOSGARREN TITULUA

AGINTARITZA FEDERALAK

LEHEN KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

143 Artikulua – Hautagarritasuna

Bozkatzeko eskubidea duen suitzar hiritar oro hautagarri da Kontseilu Nazionalerako, Kontseilu Federalerako edo Auzitegi Federalerako.

144 Artikulua – Bateriaezintasunak

1. Kontseilu Nazionaleko, Estatuarteko Kontseiluko eta Auzitegi Federalesko kide funtzioak bateraezinak dira.

2. Kontseilu Federalesko edo Auzitegi Federalesko denbora osoko kideek ezin dute beste ezein funtzio bete konfederazioaren edo kanpoko zerbitzuan, ezta irabazizko jarduerara bat burutu ere.

3. Legeak beste bateraezintasun batzuk aurreikus ditzake.

145 Artikulua – Funtzioen iraupena

Kontseilu Nazionaleko eta Kontseilu Federalesko kideak, baita konfederazioko kantzilerra ere, lau urterako hautatuak dira. Auzitegi Federalesko kideak sei urterako hautatuak dira.

146 Artikulua – Konfederazioaren erantzukizuna

Konfederazioa erantzule da bere organoek funtzioen betetzean lege kanpo eginiko kalteengatik.

147 Artikulua – Kontsultarako prozedura

Kantoiak, alderdi politikoak eta talde interesatuak entzunak izan diren lege garrantzitsuak, eragin handiko proiektuak eta nazioarteko itun garrantzitsuak egiteko orduan.

BIGARREN KAPITULUA BILTZAR FEDERALA¹⁰

LEHEN ATALA: ANTOLAKETA

148 Artikulua – Biltzar Federalaren eginkizuna eta ganberarikotasuna

1. Herriaren eta kantoiaren eskubideei kalterik egin gabe, Biltzar Federala konfederazioko agintaritza nagusia da.

2. Ganbera bik osatzen dute: Kontseilu Nazionalak eta Estatuarteko Kontseiluak. Biek ere eskumen berak dituzte.

¹⁰ *Assemblée fédérale*: parlamentu federala.

149 Artikulua – Kontseilu Nazionalaren osaera eta hautaketa

1. Herriaren 200 diputatuk osatuko dute Kontseilu Nazionala.
2. Sistema proportzionalaren arabera boto zuzenaren bidez hautatuko dira diputatuak. Kontseilu Nazionala osoki berrituko da lau urtean behin.
3. Kantoi bakoitzak hauteskunde barruti bat osatuko du.
4. Aulkiak kantoien artean banatuko dira, horien populazioaren proportzioan. Kantoi bakoitzak aulki bat izanen du behintzat.

150 Artikulua – Estatuarteko Kontseiluko osaera eta hautaketa

1. Kantoietak 46 diputatuk osatuko dute Estatuarteko Kontseilua.
2. Obwald, Nidwald, Basilea-Hiria, Basilea-Landa, Appenzell Kanpo-Rhodes eta Appenzell Barne-Rhodes kantoiek bakoitzak diputatu bat hautatuko dute; gainontzeko kantoiek bakoitzak diputatu bi hautatuko dituzte.
3. Kantoiek emango dituzte Estatuarteko Kontseilurako euren diputatuen hautaketarako arau aplikagarriak.

151 Artikulua – Legealdiak

1. Ganberak erregularitasunez bilduko dira. Legeak arautuko du saioetarako deialdia.
2. Kontseiluetako bateko kideen laurdenak edo Kontseilu Federalak deia egin dezakete ganberak ezohiko saioan biltzeko.

152 Artikulua – Presidentzia

Ganbera bakoitzak bere kideen artetik urtebeteko aldirako hautatuko ditu honakoak: presidente bat, lehen presidenteordea eta bigarren presidenteordea. Agintaldi horiek ezin dira berriro hurrengo urtean.

153 Artikulua – Parlamentu batzordea

1. Kontseilu bakoitzak batzordeak eratuko ditu bere baitatik.
2. Legeak baterako batzordeak aurreikus ditzake.
3. Legeak batzordeei eskumen jakin batzuk eman diezazkieke, eskumen legegileak izan ezik.

4. Euren eginkizunak betetzearen, batzordeek eskubidea dute informazioa jasotzeko, dokumentuak kontsultatzeko eta galdeketak egiteko. Legeak definituko ditu eskubide horren mugak.

154 Artikulua – Parlamentuko taldeak

Biltzar Federalesko kideek taldeak osa ditzakete.

155 Artikulua – Parlamentuko zerbitzuak

Biltzar Federalak parlamentuko zerbitzuak izan ditzake. Administrazio federalesko zerbitzuak dei ditzake. Legeak arautuko ditu modalitateak.

BIGARREN ATALA: PROZEDURA

156 Artikulua – Deliberazio bereiziak

1. Kontseilu Nazionalak eta Estatuarteko Kontseiluak bereizi deliberatzen dute.

2. Biltzar Federalaren erabakiek kontseilu bien onarpena eskatzen dute.

3. Bi kontseiluen artean desadostasunak sortuz gero, legeak kontu hartuko du erabakiak hartzen direnaz honakoen inguruan:

- a.- herri ekimen baten baliotasun edo deuseztasun partzialari buruz;
- b.- herriak onarturiko herri ekimen orokor baten gauzatzeari buruz;
- c.- konstituzioaren zuzenketa xede duen eta herriak onartua den erabaki federal baten gauzatzeari buruz;
- d.- aurrekontuari edo berorren gehigarriei buruz

157 Artikulua – Baterako deliberazioak

1. Kontseilu Nazionalak eta Estatuarteko Kontseiluak elkarrekin batera deliberatuko dute baterako saioetan, Kontseilu Nazionaleko presidentea buru delarik, honakoetan erabakitzeko:

- a.- Hauteskundeetara jotzeko;
- b.- agintaritza federal gorenaren eskuduntza desadostasunen inguruan erabakitzeko;

c.- barkamen helegiteen inguruan erabakitzeko.

2. Bestalde, baterako saioetan bilduko dira une berezietan eta Kontseilu Federalaren deklarazioak entzuteko.

158 Artikulua – Saioen publikotasuna

Kontseiluen bilkurak publikoak dira. Legeak salbuespenak aurreikus ditzake.

159 Artikulua – Quoruma eta gehiengoa

1. Kideen gehiengoa bertaratua delarik soilik erabaki dezakete kontseiluek.

2. Erabakiak bozkatzaileen gehiengoarekin hartuko dira, kontseiluak bereizi bilduta edo baterako bilkura egiten dutelarik.

3. Nolanahi ere, kontseilu bakoitzaren gehiengoarekin hartuko dira honako erabakiak:

a.- lege federalak premiazko direla deklaratzeari;

b.- laguntzak eskaintzeko diren xedapenak, baita kreditu-lineen baimenak edo gehienezko gastuen ezarpena ere, azken horiek 20 milioi suitzar frankoko gastu bakar berriak edo 2 milioi suitzar frankoko aldizkako gastu berriak suposatzen baldin badituzte;

c.- gastu osoen handitzea, finantza behar ezohikoak sortuko balira, 126 art. 3. atalaren arabera.

[2001eko urriaren 2ko bozketan aldatua]

4. Biltzar Federalak 3.b ataleko kopurua inflazioari egoki diezaioke.

[2001eko urriaren 2ko bozketan aldatua]

160 Artikulua – Ekimen eskubidea eta proposamen eskubidea

1. Biltzar Federaletako kide orok, parlamentuko talde orok, parlamentu batzorde orok eta kantoï orok eskubidea du ekimen bat Biltzar Federalera igortzeko.

2. Kontseilu bakoitzeko kideek eta Kontseilu Federaletakoek proposamenak aurkez ditzakete deliberatuak izan daitezten.

161 Artikulua – Aginduzko mandatuen debekua

1. Biltzar Federalesko kideek agindurik jaso gabe bozkatuko dute.
2. Interes taldeekin dituzten harremanak agerian jarriko dituzte.

162 Artikulua – Immunitatea

1. Biltzar Federalesko eta Kontseilu Federalesko kideek, edo konfederazioko kantzilerrak, ez dute erantzukizun juridikorik batere kontseiluen edo berorien organoen aurrean esandakoagatik.
2. Legeak bestelako immunitateak aurreikus ditzake, eta beste pertsona batzuegana zabaldu.

HIRUGARREN ATALA: ESKUMENAK

163 Artikulua – Biltzar Federalak ematen dituen lege eta xedapenen forma

1. Biltzar Federalak arau juridikoak finkatzen dituzten xedapenak emango ditu, horiek lege forma edo ordenantza forma dutelarik.
2. Gainontzeko legeek dekretu federal forma izanen dute. Erreferendum bidez onartzen ez den dekretu federal oro dekretu federal sinpletzat joko da.

164 Artikulua – Legegintza

1. Arau juridikoak ezartzen dituzten xedapen garrantzitsu guztiak lege federal formarekin emanak izan behar dira. Kategoría horretakoak dira bereziki honakoen inguruko oinarritzko xedapenak:
 - a.- eskubide politikoen gauzatzea;
 - b.- eskubide konstituzionalen murrizpena;
 - c.- pertsonen eskubide eta betebeharrak;
 - d.- zerga-ordaintzailearen izaera ezartzea, zergen objektua eta zergen kopuruaren kalkulua;
 - e.- konfederazioaren eginkizun eta zerbitzuak;
 - f.- zuzenbide federala aplikatzeko eta betearazteko kontuoen betebeharrak;
 - g.- agintaritza federalen antolamendua eta prozedura.

2. Lege federal batek aurreikus dezake arau juridikoak xedatzeko eskumena delegatzea, konstituzioak hori egitea debekatzen ez duen artean.

165 Artikulua – Premiazko legegintza

1. Berandutzea ezinezkoa duen lege federal bat premiazkoa deklaratu izan daiteke eta berehala indarrean ezarria, kontseilu bieta-ko eta bakoitzeko kideen gehiengoak hala erabakita. Bere baliagarritasuna epe mugatu baterako izanen da. Premiazkotzat jotzen den lege federal batentzat erreferenduma eskatzen baldin bada, lege hori iraungi egingo da Biltzar Federalak onartu eta urtebetera, epe horretan ez baldin badu herriak onartu.

2. Premiazkotzat jotzen den lege federal bat, ez daukana oinarri konstituzionalik, iraungi egingo da Biltzar Nazionalak onartu eta urtebetera, epe horretan herriak eta kantoiek ez baldin badute onartu. Haren baliagarritasuna denboran mugatua da.

3. Bozketa bidez onartua ez den premiazko lege federala ezin da berriztatua izan.

166 Artikulua – Atzerriarekin harremanak eta nazioarteko itunak

1. Biltzar Federalak atzerri politika definitzen parte hartuko du eta atzerriarekin harremanak kudeatuko ditu.

2. Nazioarteko itunak onartuko ditu, betiere, lege baten edo nazioarteko itun baten arabera, soilik Kontseilu Federalaren eskumene-koak direnak izan ezik.

167 Artikulua – Finantzak

Biltzar Federalak konfederazioaren gastuak bozkatu, aurrekontua ezarri eta estatuaren kontuak onartuko ditu.

168 Artikulua – Hauteskundeak

1. Biltzar Nazionalak hautatuko ditu Kontseilu Federaleko kideak, konfederazioaren kantzilerra eta Auzitegi Federaleko zein Auzitegi Orokorreko epaileak.

2. Legeak Biltzar Federalari eman diezaioke beste pertsona batzuk hautatzeko edo horien hautespena berresteko eskumena.

169 Artikulua – Jagoletza gorena

1. Biltzar Federalak jagoletza gorena egiten die Kontseilu Federalari, administrazio federalari, auzitegi federalei eta konfederazioaren eginkizunak egokitzen zaizkien gainerako organo zein pertsoneri.

2. Jarduera sekretua ezin zaio aurka jarri legeak aurreikusten dituen batzordeen delegazio partikularrei.

170 Artikulua – Eraginkortasunaren ebaluazioa

Biltzar Federalak kontu hartuko du konfederazioak harturiko neurriak eraginkortasunez aplikatzen direla ebaluatzeaz.

171 Artikulua – Kontseilu Federalean mandatuak

Biltzar Federalak mandatuak eman diezazkioke Kontseilu Federalari. Legeak arautuko ditu modalitateak eta, bereziki, Kontseilu Federalearen eskumenekoak diren arloetan eragina izateko Biltzar Federalak lagungarri dituen bitartekoak definituko.

172 Artikulua – Konfederazioaren eta kantoien arteko harremanak

1. Biltzar Federala konfederazioaren eta kantoien arteko harremana sendotzen saiatuko da.

2. Kantoien konstituzioak bermatuko ditu.

3. Kantoien arteko zein kantoien eta atzerriko herrialdeen arteko hitzarmenak onartuko ditu, Kontseilu Federalak edo kantoiren batek erreklamazioen bat egingo balu.

173 Artikulua – Beste eginkizun eta eskumen batzuk

1. Biltzar Federalak, bestalde, honako eginkizun eta eskumenak dauzka:

- a.- Suitzaren kanpo-segurtasuna, independentzia eta neutraltasuna mantentzeko beharrezko neurriak hartuko ditu;
- b.- barne-segurtasuna mantentzeko beharrezko neurriak hartuko ditu;
- c.- ezohiko zirkunstantziek eskatuta eta a eta b letretan aipaturiko funtzioak betetzearen, ordenantza edo dekretu federal sinpleak eman ditzake;

- d.- zerbitzu militarra aktiboa agin dezake eta, horretarako, armadaren zati bat edo osoa mobilizatu;
 - e.- zuzenbide federala aplikatu dadin neurriak hartuko ditu;
 - f.- erabakiak hartuko ditu baldintza formalak bete dituzten herri ekimenen baliagarritasunaren gainean;
 - g.- estatuaren jardura garrantzitsuen planifikazioan parte hartuko du;
 - h.- jardura partikularren gainean erabakiko du lege federal batek hala aurreikusten badu espresuki;
 - i.- agintaritzaren federal gorenaren eskuduntzen inguruko eztabaiden gainean erabakiko du;
 - j.- barkamen eskaeratan erabakiak hartu eta amnistiak emango ditu.
2. Biltzar Federalak, bestalde, beste ezein agintaritzaren federalari ez dagozkion konfederazioaren eremuko gai guztien inguruan jardungo du.
3. Legeak beste eginkizun eta eskumen batzuk eman diezazkioke Biltzar Federalari.

HIRUGARREN KAPITULUA KONTSEILU FEDERALA ETA ADMINISTRAZIO FEDERALA LEHEN ATALA: ANTOLAMENDUA ETA PROZEDURA

174 Artikulua – Kontseilu Federalaren eginkizuna

Kontseilu Federala da konfederazioak duen agintaritzaren zuzendaria eta betearazle gorena.

175 Artikulua – Osaera eta hautespena

1. Kontseilu Federala zazpi kidek osatzen dute.
2. Biltzar Federalak hautatzen ditu Kontseilu Federaletako kideak, Kontseilu Nazionalaren berriztatze oso bakoitzaren ostean.
3. Lau urterako hautatuak dira kide horiek, Kontseilu Nazionalerako hautagarriak diren hiritar suitzarren arteko hartuak.

4. Eskualde eta hizkuntz komunitate anitzek ordezkaritza egokia izan behar dute Kontseilu Federalean.

176 Artikulua – Presidentzia

1. Konfederazioko presidentek zuzenduko du Kontseilu Federalaren presidentzia.

2. Biltzar Federalak urtebeterako hautatuko ditu Kontseilu Federaletako kideen artean konfederazioko presidentea eta Kontseilu Federaletako presidenteordea.

3. Mandatu horiek ez dira hurrengo urtean berriztagarriak izanen. Konfederazioko presidentea ezin da hurrengo urtean presidenteordeztarako hautagai izan.

177 Artikulua – Kide anitzeko agintaritzaren printzipioa eta sailtan bereizketa

1. Kontseilu Federalak bere erabakiak gorputz kolektibo bezala hartuko ditu.

2. Erabakien prestaketarako eta aplikaziorako, Kontseilu Federalaren gaiak bere kideen artean bananduko dira sailen arabera.

3. Gaiak sailei edo berorien azpikoak diren unitate administratiboei egoki dakizkieke; helegite eskubidea bermatua egon behar da.

178 Artikulua – Administrazio federala

1. Kontseilu Federalak zuzenduko du administrazio federala. Berorren antolamendu eraginkorra bermatu eta berorri egokitzen zaizkion eginkizunak ongi bete daitezen zainduko du.

2. Administrazio federala sailtan bananduko da, bakoitza Kontseilu Federaletako kide batek zuzenduko duelarik.

3. Administrazio federaletik kanpoko zuzenbide publiko edo pribatuko erakunde edo pertsonen eman diezaieke legeak administrazioaren eginkizunak.

179 Artikulua – Kantzilertza federala

Kantzilertza federala Kontseilu Federalaren estatu nagusia da. Konfederazioaren kantzilerrak zuzenduko du.

BIGARRREN ATALA: ESKUMENAK

180 Artikulua – Gobernuaren politika

1. Kontseilu Federalak erabakiko ditu bere gobernu politikaren helburu eta baliabideak. Estatuaren jarduerak planifikatu eta koordinatuko ditu.

2. Publikoa informatuko du behar den unean eta zehaztasunez, interes publiko edo pribatu garrantzitsu batek ez baldin badu eragozten.

181 Artikulua – Iniziatiba eskubidea

Kontseilu Federalak Biltzar Federalari igorriko dizkio legeria proiektuen zirriborroak.

182 Artikulua – Legegintza eta inplementazioa

1. Kontseilu Federalak ordenantza moduan emango ditu arau juridikoak, konstituzioak edo legeak baimentzen dioten heinean.

2. Legeria, Biltzar Federalaren erabakiak, eta agintaritza judizial federalaren epaiak inplementatzea artatuko du.

183 Artikulua – Finantzak

1. Kontseilu Federalak finantza egitasmoa prestatuko du, baita aurrekontua egin eta estatuaren kontuak ezarri ere.

2. Finantza kudeaketa egokia burutuko du.

184 Artikulua – Atzerriarekin harremanak

1. Kontseilua arduratzen da atzerriko harremanez, Biltzar federalak parte hartzeko duen eskubideari kalte egin gabe; Suitza ordezkatzeko du atzerrian.

2. Itunak sinatu eta berresten ditu. Biltzar Federalera igortzen ditu honek onar ditzan.

3. Herrialdearen interesen babesteak hala eskatzen duenean, Kontseilu Federalak ordenantzak eman eta beharrezko erabakiak har ditzake. Ordenantzok denbora mugatu baterako izanen dira.

185 Artikulua – Kanpo segurtasuna eta barne segurtasuna

1. Kontseilu Federalak Suitzaren kanpo segurtasuna, independentzia eta neutraltasuna mantentzeko neurriak hartuko ditu.

2. Barne segurtasuna mantentzeko neurriak hartuko ditu.

3. Honako artikulua honetaz lagun daiteke ordenantzak emateko eta erabakiak hartzeko, ordena publikoa, kanpo segurtasuna edo barne segurtasuna mehatxatzen duten uneko edo etorkizuneko arazoak ekiditeko. Ordenantza horiek denbora mugatukoak izanen dira.

4. Premiazko kasuetan, gudarosteak mobiliza ditzake. 4.000 militar baino gehiago ezartzen baditu zerbitzu aktiboan, edo mobilizazio horrek hiru aste baino gehiago iraun behar baldin badu, Biltzar Federalari deia egin beharko zaio atzerapenik gabe.

186 Artikulua – Konfederazioaren eta kantoien arteko harremanak

1. Kontseilu Federalari dagokio konfederazioaren eta kantoien arteko harremanak bideratzea, eta kantoiekin elkarkidetzan egingo du lan.

2. Kantoien lege egintzak onartuko ditu, zuzenbide federalak hala eskatzen duenean.

3. Kantoiek elkarren arten edo atzerriarekin egitea xede dituzten itunen aurka erreklamazioak egin ditzake.

4. Zuzenbide federalaren eta kantoien konstituzio zein itunen errespetua artatuko du, eta beharrezko neurriak hartuko ditu.

187 Artikulua – Beste eginkizun eta eskumen batzuk

1. Kontseilu Federalak, bestalde, honako eginkizun eta eskumenak ditu:

- a.- Administrazio federala eta konfederazioaren eginkizunak euren esku dauzkaten organo zein pertsonen jarduera kudeatzea;
- b.- Biltzar Federalari kudeaketaz eta estatuaren egoeraz kontu ematea;
- c.- beste agintaritza baten eskumenekoak ez diren izendapen eta hautaketak egitea;
- d.- helegiteen inguruan erabakitzea, legeak hala aurreikusten duen kasuetan.

2. Legeak beste eginkizun eta eskumen batzuk eman diezazkioke Kontseilu Federalari.

LAUGARREN KAPITULUA
AUZITEGI FEDERALA ETA BESTE AGINTARITZA
JUDIZIAL BATZUK

188 Artikulua – Auzitegi Federalaren eginkizuna

1. Auzitegi Federala da agintaritza judizial goren.
2. Legeak arautuko du haren antolamendua eta prozedura.
3. Auzitegi Federalak arautuko du bere administrazioaren antolamendua.
4. Auzitegi Federalaren epaileak hautatzeko orduan, Biltzar Federalak hizkuntza ofizialak ordezkatuak daudenaz arduratuko da.

-
1. Auzitegi Federala da agintaritza judizial goren.
 2. Legeak arautuko du haren antolamendua eta prozedura.

3. Auzitegi Gorenak bere burua administratuko du.

4. *ezeztatua*

[2000ko martxoaren 12an aldaturiko artikulua, indarrean sartzea geroraturatua]

189 Artikulua – Jurisdikzio konstituzionala

1. Auzitegi federalak honakoen gainean du eskumena:
 - a.- eskubide konstituzionalen urratzeagatik sortzen diren erreklamazioak;
 - b.- kantoiek zuzenbide publikoko erakundeei emaniko bermeak, eta udalerrien autonomia urratzeagatik erreklamazioak;
 - c.- nazioarteko itunak edo kantoien arteko itunak urratzeagatik erreklamazioak;
 - d.- konfederazioaren eta kantoien arteko edo kantoien arteko zuzenbide publikoko desadostasunak.
- 1 bis. Auzitegi Federalari dagozkio Biltzar Federalak herri ekimen orokor baten edukia eta helburuak ez errespetatzeagatik eginiko erreklamazioak.
2. Legeak beste erakunde federal batzuei utz diezaike kasu espezifikoko batzuen kudeaketa.

189 Artikulua – Jurisdikzio konstituzionala

1. Auzitegi federalak honakoen urratzearen gainean du eskumena:

- a.- zuzenbide federala;
- b.- nazioarteko zuzenbidea;
- c.- kantoietako zuzenbidea;
- d.- kantoietako eskubide konstituzionalak;
- e.- udalerrien autonomia eta kantoiek zuzenbide publikoko organismoek eskainiriko beste berme batzuk;
- f.- eskubide politikoei buruzko konfederazioaren eta kantoien xedapenak.

2. Konfederazioaren eta kantoien artean edo kantoien beraien artean sortzen diren desadostasunen inguruan erabakiko du.

3. Legeak Auzitegi Federalari beste eskumen batzuk eman diezazkioke.

4. Biltzar Federalaren edo Kontseilu Federalaren egintzak ezin dira Auzitegi Federalaren aurrera eroan. Legeak zehaztuko ditu salbuespenak.

[2000ko martxoaren 12ko bozketan aldatutako artikulua, indarrean sartzea geroratu]

190 Artikulua – Jurisdikzio zibil, penal eta administratiboa

1. Legeak arautuko du Auzitegi Federalaren eskumena arlo zibil, penal eta administratiboan, baita zuzenbidearen beste eremu batzuetan ere.

2. Kantoiek, Biltzar Nazionalaren onarpenarekin, Auzitegi Federalaren eskumenpean ezar ditzakete kantoien administrazio zuzenbideko gaiak.

190 Artikulua – Zuzenbide aplikagarria

Ez Auzitegi Federalak ez beste ezein agintaritzak ezin diote uko egin lege federal bat edo nazioarteko legea aplikatzeari.

[191 artikulua berridazketa, 2000ko martxoaren 12ko bozketan aldatua, indarrean sartzea geroratu]

191 Artikulua – Zuzenbide aplikagarria

Auzitegi Federalak eta gainerako agintaritzek lege federala eta nazioartekoak aplikatu behar dituzte.

191 Artikulua – Auzitegi Federalean sartzea

1. Legeak Auzitegi Federalean sartzea bermatuko du.
2. Printzipiozko auzi judizialerako gutxieneko auzi balio bat ezar dezake.
3. Legearen arlo jakin batzuetan Auzitegi Federalean sartzea eragoz dezake legeak.
4. Ageriki funtsik gabeak diren helegiteentzat prozedura sinplifikatu bat aurreikus dezake.

[artikulu berria, 2000ko martxoaren 12ko bozketa, indarrean sartzea geroratua]

191a Artikulua – Konfederazioaren beste agintaritza judizial batzuk

1. Konfederazioak zigor auzitegi bat eratuko du; auzitegi horrek lehen instantzian hartuko ditu legeak jurisdikzio federalari esleitzen dizkion kasuak.
2. Konfederazioak agintaritza judizialak eratuko ditu administrazio federalaren eremuko eskumenen inguruko zuzenbide publikoko auzien gainean erabaki dezaten.
3. Legeak konfederazioaren beste agintaritza judizial batzuk ezar ditzake.

[artikulu berria, 2000ko martxoaren 12ko bozketa, indarrean sartzea geroratua]

191b Artikulua – Kantoien agintaritza judizialak

1. Kantoiek agintaritza judizialak eratuko dituzte zuzenbide zibileko zein publikoko eta auzi penaletako gaietan erabakiak har ditzaten.
2. Agintaritza judizial komunak era ditzakete.

[artikulu berria, 2000ko martxoaren 12ko bozketa, indarrean sartzea geroratua]

191c Artikulua – Agintaritza judizialen independentzia

Euren eskumen judizialen barne, agintaritza judizialak independenteak dira eta legearen menpekoak.

[artikulu berria, 2000ko martxoaren 12ko bozketa, indarrean sartzea geroratuat]

SEIGARREN TITULUA

KONSTITUZIOAREN ZUZENKETA ETA XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHEN KAPITULUA ZUZENKETA

192 Artikulua – Printzipio orokorra

1. Konstituzioa une oro, osoki edo partzialki zuzendua izan daiteke.
2. Konstituzioak eta dagoen legeriak besterik ez dioten artean, zuzenketak legegintza prozedura jarraituko du.

193 Artikulua – Zuzenketa osoa

1. Herriak edo kontseilu bietako batek proposatuta edo Biltzar Federalak dekretatuta osorik zuzen daiteke konstituzioa.
2. Ekimena herriarengandik badator edo kontseilu bien arteko desadostasuna sortzen bada, herriak erabakiko du zuzenketa osoari ekin behar zaion. Herriak zuzenketa osoari ekitea erabakitzen badu, kontseilu biak berriztatuak izan beharko dira.
3. Ezin dira urratu nazioarteko zuzenbidearen aginduzko arauak.

194 Artikulua – Zuzenketa partziala

1. Herriak edo kontseilu bietako batek proposatuta edo Biltzar Federalak dekretatuta zuzen daiteke partzialki konstituzioa.
2. Zuzenketa partzial batek gai batasunaren printzipioa errespetatu behar du, eta ez ditu nazioarteko aginduzko arauak urratu behar.
3. Konstituzioa partzialki zuzentzea xede duen herri ekimen orok gai batasunaren printzipioa errespetatu behar du.

195 Artikulua – Indarrean sartzea

Osoki edo partzialki zuzenduriko konstituzioa indarrean sartuko da herriak eta kantoiek onartu ostean.

BIGARREN KAPITULUA XEDAPEN IRAGANKORRAK

196 Artikulua – Konstituzio federal berri baten inguruko 1998ko abenduaren 18ko erabaki federalaren araberrako xedapen iragankorrak.

[2002ko martxoaren 3an herri bozketa bidez onartua]

1. 84 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Iraganbide alpinoa)

Merkantzien igarotze trafikoa errepidetik trenbidera igaro beharko da, eskualde alpinoak iraganbide trafikotik babesteko herri ekimena onartu eta hamar urteko epean.

2. 85 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Pisu astune-ko zirkulazioaren gaineko kontribuzioa)

1. Konfederazioak urteko kontribuzio bat ezarriko die Suitzan zein atzerrian matrikulaturiko ibilgailu motordunei eta atoidunei, bi kategoria horietako ibilgailuetan, euren pisua 3,5 tona baino handiagoa denean, trafiko orokorarentzat irekiak diren errepiden erabileragatik.

2. Honakoa izanen da kontribuzioa:

kamioientzat eta ibilgailu artikulatuentzat, honako tonajea dutelarik:

-3,5etik gora 12 tonara: 650 suitzar libera

-12tik gora 18 tonara: 2.000 suitzar libera

-18tik gora 26 tonara: 3.000 suitzar libera

-26 tona baino gehiago: 4.000 suitzar libera

honako tonajea duten atoiarentzat:

-3,5etik gora 8 tonara: 650 suitzar libera

-8tik gora 10 tonara: 1.500 suitzar libera

-10 tonatik gora: 200 suitzar libera

autobusentzat: 650 suitzar libera

3. Kontribuzio honen zenbatekoak alda daitezke lege federal baten bidez, errepide trafikoaren kostuak justifikatzen duen heinean.

4. Bestalde, Kontseilu Federalak, ordenantza bidez, bigarren atalean aipaturiko 12 tona baino gehiagokoen kontribuzioak alda ditzake, errepide zirkulazioaren legean definitzen diren pisu kategoriatan aldatetarik emango balira.

5. Suitzan urtean tarte batean soilik zirkulatzen duten ibilgailuen kasuan, Kontseilu Federalak iraupen horren arabera finkatuko ditu ordaindu beharreko zenbatekoak; kontuan izanen du jasotzek duen kostua.

6. Kontseilu Federalak betearazpena arautuko du. Bigarren atalean aurreikusiriko zenbatekoak ezar diezazkieke ibilgailu bereziei, ibilgailu jakin batzuk salbuetsi, eta araudi berezi bat ezarri, bereziki mugatako joan-etorrietarako. Halako araudiek ez dituzte faboratu behar atzerrian matrikulaturiko ibilgailuak Suitzakoen kaltetan. Kontseilu Federalak isunak aurreikus ditzake arau haustek emanez gero. Kan- toiek jasoko dituzte Suitzan matrikulaturiko ibilgailuen kontribuzioak.

7. Kontribuzio hau jasotzea lege baten bidez murriztua edo ken- dua izan daiteke.

8. Honako lege hau indarrean sartuko da pisu astuneko trafiko- aren kontribuzioaren inguruko 1997ko abenduaren 19ko legea indarre- an sartzen denean.

3. 87 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Garraioak)

1. Trenbide proiektu handiak honakoak dira: Alpeak igarotzen dituen trenbide berria (NLFA), RAIL 2000, mendealdeko eta ekialde- ko Suitza Europako abiadura handiko trenbide sarearekin elkartzen duen lotura, eta, neurri aktibo eta pasiboen bidez trenbideetan zehar zarataren aurkako baliabideen hobekuntza.

2. Trenbide proiektu handiak finantzatzeko, Kontseilu Federalak honakoa egin dezake:

- a.- 85 artikuluan motore indarraren eta kontsumoaren gaineko kontribuzioaren araberrako trafiko astunaren gaineko kontri- buzioa indarrean sartzen denera arte, 196 artikuluan 2. azpiatalean aipatzen den pisu astuneko trafikoaren gaineko kontribuziotik jasotako guztia erabili, eta behar izanez gero tasa gehienez %100 igotzea;

- b.- 85 artikuluan motore indarraren eta kontsumoaren gaineko kontribuzioaren arabera trafikoa astunaren gaineko kontribuziotik jasotakoaren gehienez bi heren erabiltzea;
- c.- 86 artikuluan 3. azpiatalean aurreikusiriko erregai mineralen gaineko zergaren fondoak erabiltzea Alpeak zeharkatzen dituen trenbidearen oinarritzko bideen kostuen %25 finantzatzeko;
- d.- finantza merkatuetatik fondoak jasotzea, NLFA, RAIL 2000, eta ekialdeko eta mendebaldeko Suitza Europako abiadura handiko tren sarearekin lotura egiteko kostuaren soilik %25 osatuz.
- e.- 196 artikuluan 14. azpiatalean aurreikusten eta 130 artikuluan finkatzen diren balio erantsiaren gaineko zergaren (baita gehigarriarena ere) tasa guztiak % 0,1 igotzea;
- f.- nazioarteko erakundeez edo finantzaketa pribatu gehigarriez baliatzea.

3. Juridikoki konfederazioaren menpekoa den fondo batek, kontabilitate propioa izanen duenak, berrmatuko du lehen atalean aipaturiko trenbide proiektu handien finantzaketa. Bigarren atalean aipaturiko kontribuzio eta zergetatik datozen baliabideak konfederazioaren finantzaketa kontuaren barne daude eta fondora transferitutako diru urte berean. Konfederazioak fondoei aurrerakin bat jar diezaike. Biltzar Federalak fondoen araudia ordenantza bidez eman dezake.

4. Lehen atalean aipatzen diren lau trenbide proiektu handiak lege federalen bidez arautuak izanen dira. Proiektu handi bakoitzaren beharrezkotasuna globalki ezarri beharko da, baita berorren plangintzaren egoera ere. NLFA proiektuan, eraikuntzaren faseak lege federalean agertu beharko dira. Biltzar Federalak beharrezko fondoak esleituiko ditu kreditu-lerroen bidez. Kontseilu Federalak eraikuntza faseak onartu eta egutegia erabakiko du.

5. Honako xedapen hau soilik lehen atalean aipatzen diren trenbide proiektu handien eraikuntza lanei eta finantzaketari (aurrerakinak bueltan ordainduz) aplikatuko zaie.

4. 90 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Energia nuklearra)

2000ko irailaren 23ra arte, ez da emango ezein baimen orokor edo ezein baimen energia nuklearra ekoizteko instalazio berriak eraikitzeko, zerbitzuan ezartzeko, edo ustiatzeko.

5. 95 artikulua *inguruko xedapen iragankorra (Irabazizko jarduera ekonomiko pribatua)*

Honen inguruko legeria egiten denera arte, kantoiak behartuak daude bakoitzaren formakuntza tituluak elkarren artean onartzeko.

6. 102 artikulua *inguruko xedapen iragankorra (Herrialdearen hornikuntza)*

1. Konfederazioak herrialdearen hornikuntza bermatuko du ogia egiteko zereal eta irinetan.

2. Honako xedapen iragankorrak indarra izanen du 2003ko abenduaren 31ra arte gehienik ere.

7. 103 artikulua *inguruko xedapen iragankorra (Politika estrukturala)*

Konstituzioa indarrean sartzen denetik hamar urtez gehienez¹¹ kantoiek jarrai dezakete —hotel eta jatetxeen industriaren zati garrantzitsu baten existentzia ziurtatzearren— existitzen den araudia aplikatzen, establezimendu berrien irekiera beharra frogaketaren menpean ezarriz.

8. 106 artikulua *inguruko xedapen iragankorra (Ausazko jokoak)*

106 artikulua indarrean sartuko da ausazko jokoen eta kasinoen inguruko lege federal berri bat indarrean sartzen denean.

Ordura arte, honako xedapenak aplikatuko dira:

a.- Debekatua dago kasinoak irekitzea eta ustiatzea.

b.- Kantoietako gobernuek, interes publikoak ezartzen dituen zenbait baldintzarekin, badaukate 1925eko apirilera arte kur-saaletan ohikoak ziren moduko ausazko jokoak baimentzea, eskumena duen agintaritzari iruditzen baldin bazaio, batetik, joko horiek beharrezkoak direla turismoaren garapenerako eta, bestetik, xede horretarako diharduen kursaal batek kude-

¹¹ Honela dio frantsesezko bertsioan: *la version française est erronée, il faut lire: au plus*: «frantsesezko bertsioa erraturik dago, honela esan beharko luke: gehienez».

atzen dituela. Kantoiek badaukate halaber joko horiek debekatzea.

c.- Kontseilu Federalaren ordenantza batek zehaztuko ditu interes publikoak eskatzen dituen baldintzak. Abiaraztea ez da 5 suitzar liberakoa baino gehiagokoa izanen.

d.- Kantoiek emandako baimenak Kontseilu Federalaren onarpenaren menpe daude.

Jokoen etekin garbien laurdena konfederazioarentzat izanen da, zati hori bere zerbitzuetarako, hondamendi naturalen biktimentzat eta erabilgarritasun publikoko obretarako erabiliko duelarik.

Konfederazioak loterien inguruko beharrezko neurriak har ditzake halaber.

9. 110 3a artikulua inguruko xedapen iragankorra (Jaiegun nazionala)

1. Kontseilu Federalak arautuko ditu modalitateak harik eta legeria federal berria indarrean sartzen denera arte.

2. Jaiegun nazionala ez da sartzen lanaren inguruko legearen 18 artikuluan 2a atalean aipatzen diren jaiegunen barnean.

10. 112 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen aseguruia)

Adin nagusikoen, alargunen eta ezinduen aseguruak ez baldin baditu bizibiderako gutxieneko beharrezkoak eskaintzen, konfederazioak kantoiei emango dizkie prestazio gehigarriak finantzatzeko laguntzak.

11. 113 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Lanbide aurreikuspena)

Langileen pentsio planak derrigorrezkoak bilakatzen diren garaiko belaunaldian aseguratuak diren pertsonak —eta, hortaz, ez zutenek osoki kotizatu—, euren diru-sarreraren arabera, legeak adosturiko gutxieneko babes jasoko dute, legearen indarrean sartzea hasi eta 10etik 20 urtera.

12. 126 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Finantzen kudeaketa)

1. Konfederazioaren finantzaketa kontuetan sortzen den defizita txikiagotu egingo da murrizketen bidez, harik eta kontuak orekatzen direnara arte.

2. Defizitak ezin du gainditu 5.000 milioi suitzar liberako muga, 1999ko kontuetan, eta 2.500 milioi suitzar libera, 2.000 urteko kontuetan. 2001eko kontuetan, sarreraren %2ra murriztua egon beharko du.

3. Egoera ekonomikoak eskatzen baldin badu, kontseilu bietako kideen gehiengoak, ordenantza bidez, bigarren atalean aipaturiko epeak bi urtez gehienez luza ditzake.

4. Biltzar Federalak eta Kontseilu Federalak kontuan izanzen dituzte 2 atalean aipaturiko helburuak, aurrekontua eta urte anitzeko finantzaketa plana prestatzeko orduan, baita finantza ondorioak dituzten proiektu guztiak deliberatzeko orduan ere.

5. Aurrekontua inplementatzeko orduan, Kontseilu Federalak aurrezpen aukera guztiak erabiliko ditu. Horretarako, jada baimenduak diren kredituak edo kreditu lerroak blokea ditzake. Bereizi egin beharko dira, banakoen kasuetan, legezko xedapenen arabera agindurikoa eta formalki bermaturiko prestazioak.

6. 2a atalean aipaturiko helburuak ez baldin badira betetzen, Kontseilu Federalak erabakiko du zein kopuru gehigarri aurreztu beharko den. Horretarako:

beharrezko aurrezpen gehigarriak erabakiko ditu;

Biltzar Federalari proposatuko dizkio legean ezarri beharreko aldaketak.

7. Kontseilu Federalak aurrezpen gehigarrien zenbateko osoa finkatuko du, bi urte baino gehiago berandutu barik 2a atalean aipaturiko helburuak erdietsiak izan daitezen. Neurri ekonomikoak aplikatuko zaizkie bai hirugarren alderdi bati eskaintzen zaizkion prestazioei, bai konfederazioaren eremuari.

8. Kontseilu biek saio berean erabakiko dute Kontseilu Federalaren mozioen inguruan, eta erabakiriko legea indarrean ezarriko dute konstituzioaren 165 artikuluan aurreikusten den prozedura jarraiki; 6e atalaren arabera Kontseilu Federalak finkaturiko aurrezpenen zenbatekoari lotuak daude.

9. Defizitak osteratzen ere sarreraren %2 gainditzeko badu, gainditu den zenbatekoa hurrengo aldiko kontuetan bere onera eroango da. Egoera ekonomikoak hala eskatzen baldin badu, Biltzar Federalak, ordenantza bidez, gehienez bi urtez luza dezake epea. Osterantzean, 4 eta 8 atalean aurreikusten den prozedura aplikatuko da.

10. Honako xedapen iragankor honek indarrean jarraituko du harik eta defizita nahiz zorra murrizteko zuzenbide konstituzionaleko neurriek ordezkatzan dutenera arte.

13. 128 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Zerga zuzenak)

2006 urtearen bukaerara arte jaso daiteke zerga federal zuzena.

14. 130 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Balio erantsiaren gaineko zerga)

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren inguruko lege bat indarrean sartu arte, Kontseilu Federalak emango ditu inplementazio xedapenak. Honako printzipioak aplikatuko dira:

Honakoei zerga ezar dakieke:

1. Suitzako lurraldean enpresa batek kostu bidez egiten duen ondasunen hornikuntzari eta zerbitzuen emateari (norberaren erabilera barne);

2. ondasunen inportazioari.

Honakoei ezin zaie zergarik ezarri eta honakoetan ez dago aurretikako zergan dedukzioa aplikatzea:

1. Suitzar Postak bere monopolioaren barne ematen dituen zerbitzuak, pertsonen garraioa izan ezik;

2. osasun arloko zerbitzuak;

3. gizarte laguntzaren eta segurantza sozialaren arloko zerbitzuak;

4. hezkuntzaren, irakaskuntzaren, haur eta gazteen babesaren arloko zerbitzuak;

5. kultur zerbitzuak;

6. aseguru eragiketak;

7. diru merkatuko eta kapital merkatuko arloko eragiketak, betiere, aktiboen kudeaketa eta zorraren berreskurapena salbu;

8. ondasun higiezinaren transferentzia, epe luzerako akura eta errentamendua;

9. kinielak, loteriak eta ausazko gainontzeko jokoak;

10. irabaz asmo gabeko erakundeek euren kideei eskaintzen dizkieten zerbitzuak, estatutu bidez ezarritako kotizazio baten ordainean;

11. erabiltzen den suitzar tinbre ofizialaren jaulkipena.

Lehia zuzena babesteko edo zergen jasotzea sinplifikatzeko, gorago aipaturiko eragiketen borondatezko zergapetzea baimen daiteke, baita aurretikako zergen dedukzioa jasotzeko eskubidea eskaini ere.

c. Honakoak salbuetsiak daude zergatik eta aurretikako zergen dedukzioa aplikatu dakieke:

1. ondasunen esportazioak eta atzerrian burutzen diren zerbitzu emateak;

2. ondasunen esportazioarekin edo joan-etorriarekin zerikusia duten zerbitzu emateak.

d. Honakoei ez zaie aplikatuko Suitzan buruturiko eragiketen gaineko zerga:

1. Urteko negozio-bolumen zergapegarria 75.000 libera baino handiagoa ez duten enpresak;

2. urteko negozio-bolumen zergapegarria 250.000 libera baino handiagoa ez duten enpresak, baldin eta aurretikako zergaren dedukzioa aplikatu ostean, geratzen den zergaren zenbatekoak ez badu gainditzen urteko 4.000 liberako kopurua;

3. euren ustategitik eta abere merkatoriengandik soilik datozen produktuak erabiltzen dituzten nekazari, basozain eta ortuzainak;

4. margolari-artista eta eskultoreak, eurek eginiko obrei dago-kienez.

Lehian neutraltasuna bermatzearren edo zergaren jasotzea sinplifikatzeko, gorago aipaturiko pertsona zein enpresei baimen dakieke zerga borondatez ordaintzea, eta aurretikako zergen dedukzioa jasotzea.

e. Honakoa izanen da zerga-tasa:

1. Kontseilu Federalak zehaztasun handiagoaz defini ditzakeen honako ondasunen eragiketa eta inportazioan % 2:

—hodien bidez garraiatzen den ura;

—elikagai solido eta likidoak, edari alkoholodunak izan ezik;

—abereak, hegaztiak, arrainak;

—zerealak;

—landatzen diren hazi, tuberkulu eta erraboilak; landare biziak, aldaxkak, txertoak, baita horien adar zein mozketak, azken horiek sorta, koroa edo antzeko modu batean antolatuta daudenean;

—sendagaiak;

—abereentzat bazka, siloraketarako azidoak, azpigaiak, ongariak eta landareak babesteko gaiak;

—egunkariak, aldizkariak eta liburuak, baita gainerako inprimakiak ere, konfederazioak zehazten duen neurrian;

2. irrtati eta telebistako erakundek eskaintzen dituzten zerbitzuetarako % 2; betiere, erakunde horiek izaera komertziala ez duten artean;

3. bestelako ondasun batzuen hornidura eta inportaziorako, baita gainerako zerbitzu zergapegarrietarako ere, % 6,5;

f. Ordaindutakoaren arabera kalkulatu da zerga eta, ordainketarik ez balego edo inportazioa gertatuko balitz, ondasunaren balioaren edo zerbitzu ematearen arabera.

g. Honakoei zerga ezar dakieke:

1. eragiketa zergapegarria egiten duen zergadunari;

2. atzerrian ematen diren zerbitzuak jasotzen dituenari, zerbitzu horien kostua urteko 10.000 liberakoa baino handiagoa denean;

3. ondasun bat inportatzen duelarik, aduanako eskubideak ordaindu eta aduanako deklarazioa egin behar dutenei.

h. Zergadunak bere eragiketa zergapegarrien gaineko zergak ordainduko ditu; Suitzan edo atzerrian zergapegarriak diren eragiketetara dedikatzen baditu eskaini zaizkion zerbitzuak edo dauzkan ondasunak, aurretikako zerga moduan ordaintzeagatik honakoek dedukzioa jasoko dute:

1. zergadunari beste zergadun batzuek transferitu dieten zerga;

2. atzerritik datozen zerbitzuen edo ondasun inportazioagatik ordainduriko zerga;

3. d letrako 3. puntuaren arabera zergapegarriak ez diren negozioen bidez lortutako produktu naturalen prezioaren % 2.

Izaera komertziala ez duten gastuek ez dute aurretiko zergarengatik dedukziorik.

i. Zergaren deskontuaren eta aurretiko zergaren dedukzioaren epea, orokorrean, hiruileko zibilera zabalduko da.

k. Xedapen bereziak eman daitezke negozio-bolumenaren araberako zergentzat urre errefinatuaren eta urre txanponen kasuan, baita karga fiskal berezia izan duten ondasunen kasuan ere.

l. Sinplifikazioak egin daitezke baldin eta horiek ez badute eragin nabarmenik ez sarrera fiskaletan, ezta lehian ere, eta beste zergadun batzuei euren deskontuetan ez baldin badie konplikazio handiegia eragiten.

m. Zerga iruzurra eta zerga arriskuan ezartzea zigor daitezke konfederazioaren beste zigor xedapen batzuen bidez.

n. Zuzenbide penal administratiboaren lege federalak 7 artikuluan aurreikusten duen negozioen zigorgarritasunaren inguruko araudi berezia aplikatu egin daiteke 5.000 libera baino gehiagoko isuna aplikatu daitekeen kasuetan.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren sarrera hasi eta hurrengo bost urteetan, zerga horren etekinaren urteko % 5 osasun aseguru-primak txikiagotzeko erabiliko dira, diru-sarrera eskasa duten klaseen onerako. Biltzar Federalak erabakiko du balio erantsiaren gaineko zergaren zati hori nola erabakiko den epe hori igaro ostean.

3. Konfederazioak, legegintza bidez, balio erantsiaren gaineko zergarentzat tasa txikiagoa finka dezake, Suitzan emaniko turismo zerbitzuetarako, zerbitzu horiek gehienbat atzerritarrek erabiltzen baitituzte eta lehiak hala eskatzen baitu.

4. Balio erantsiaren gaineko zerga 2006ko bukaera arte jaso daiteke.

15. 131 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Kontsumo bereziaren gaineko zerga)

Lege federal bat indarrean ezartzen denera arte, garagardoaren gaineko zerga orain indarrean den legearen arabera jasoko da.

16. 132 artikulua inguruko xedapen iragankorra (Tinbre eskubidea eta zerga aurreratua)

Kantoiaren arteko finantzazio banaketa zuzena erregalamendu berri batekin arautzen denera arte, kantoei dagokien zerga aurreratuaren etekinaren zatia % 12 da. Zerga aurreratuaren tasak % 30etik gora egiten badu, kantoei dagokien zatia % 10 izanen da.

197 Artikulua – 1999ko apirilaren 18ko konstituzioaren onarpenaren ondorengo xedapen iragankorrak

1. Suitza NBEko kide izatea

1. Suitza Nazio Batuen Erakundeko kide bihurtuko da.

2. Kontseilu Federalak baimena du NBEko idazkariari zuzen diezaion Suitza kide izateko eskaera eta Nazio Batuen Gutunak aipatzen dituen betebeharren onarpenaren aitortpena.

[artikulu berria, 2002ko martxoaren 3an onartua]

2tik 6ra

[2tik 6rako artikuluak, batetik, finantzazio banaketa zuzenaren eta, bestetik, konfederazioaren eta kantoien eginkizunen banaketaren erreformarako xedapen iragankorrenzat erreserbatuak daude, xedapen horiek herriak eta kantoiek 2004ko azaroaren 28an onartu zituzten]

7. 120 artikuluaren inguruko xedapen iragankorra (Teknologia genetikoa giza espeziei kanpo)

Suitzar nekazaritzan ez dira erabiliko genetikoki eraldaturiko organismoak honako xedapen konstituzionala indarrean jarri eta hurrengo bost urteetan. Ezin dira bereziki inportatu edo zirkulazioan jarri:

nekazaritzarako, ortuetarako edo basoetarako erabiliko diren eta ugal daitezkeen landare, landareen zati eta hazi genetikoki eraldatuak;

elikagaien eta nekazaritzarako produktuen ekoizpenerako diren animalia genetikoki eraldatuak.

[artikulu berria, 2005eko azaroaren 27an herri bozketaz onarturikoa]

1998KO ABENDUAREN 18KO DEKRETU FEDERALAREN AZKEN XEDAPENAK

II

1. Suitzar konfederazioaren 1874ko maiatzaren 29ko konstituzioa indargabetua da.

2. Honako xedapen konstituzionalak, arau legal bihurtu behar direnak, aplikatuko dira arauak indarrean ezarri arte:

a. 32 art. quater [laugarrenezko], 6. atala [105 artikulua berria]

Bide-dendaritza eta edari alkoholodunen gainerako salmenta ibiltarizko moduak debekatuak daude.

b. 36 art. quinquies [bosgarrenezko], lehen atala, lehen esaldia, bigarren atala, 2tik 5erako esaldiak, eta laugarren atala, 2e esaldia [86 artikulua, bigarren atala]

1. Konfederazioak lehen eta bigarren klaseko errepideen erabileragatik urteko 40 liberako kontribuzioa jasoko du 3,5 tona gainditzen ez duten eta Suitzan zein atzerrian matrikulaturik dauden automobil eta atoiengandik ibilgailu kategoria bi hauetan...

2. ...Kontseilu Federalak ibilgailu jakin batzuk salbuets ditzake kontribuzioa ordaintzetik, eta, bereziki muga aldeko zonaldeetarako joan-etorrietarako, araudi berezi bat ezar dezake. Ez dira atzerrian matrikulaturiko ibilgailuak suitzarren kaltetan pribilegiatu behar. Kontseilu Federalak isunak ezar ditzake arau urratzeetarako. Kantoiek jasoko dituzte Suitzan matrikulaturiko ibilgailuen kontribuzioak eta ibilgailu guztiek arauak bete ditzaten kontrolatuko dute.

3. ...Legeak pisu astuneko ibilgailuen kontribuzioaren menpe ez dauden beste ibilgailu kategoria batzuetara heda dezake kontribuzioa.

c. 121 Art. bis, 1., 2. eta 3. atalak, 1 eta 2 esaldiak [139 artikulua, 6 atala]

1. Biltzar Federalak kontra-proiektu bat aurkeztuko balu, hiru gai jarriko dira hautesleen bozketa paperean. Hautesleek honakoak deklara ditzakete mugarik gabe:

herri ekimena ala indarrean dagoen erregimena nahiago duten;
kontra-proiektua ala indarrean dagoen erregimena nahiago duten;

testu bietatik zein sartu behar den indarrean, herriak eta kantoiek testu biak nahiago badituzte indarrean den erregimena baino.

2. Gaietako bakoitzarentzat bereizita erabakiko da gehiengo absolutua. Erantzunik gabeko itaunak ez dira kontuan hartuko.

3. Herri ekimena zein kontra-proiektua onartzen baldin badira, hirugarren gaiak jasotzen duen erantzunak erabakiko du auzia. Gai horren inguruan hautesleen boto gehien eta kantoien boto gehien jasotzen duen testua onartuko da.

III

Biltzar Federalak konstituzio berriari aplikatuko dizkio formari dagokionez 1874ko konstituzio federalari eginiko aldaketak. Honen gaineko dekretua ez da erreferendum bidez aztertuko.

IV

1. Honako dekretuari herriaren eta kantoien bozketa ezarriko zaio.

2. Biltzar Federalak finkatuko du indarrean ezartzeko data.

Bozketaren emaitza eta indarrean sartzea

1. Herriak honako dekretua 1999ko apirilaren 18an onartu du.

2. 2000ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Aurkibidea

HITZAURREA.....	I
I. ZUZENBIDE KUNEIFORMEA: HAMMURABIREN KODEA.....	1
<i>SARRERA</i>	3
1.- Aurrekariak: sumertar kultura	3
2.- Babiloniaren nagusitasuna: Hammurabi.....	4
3.- Zuzenbide kuneiformea: Hammurabiren kodea	5
Bibliografia eta iturriak.....	7
<i>TESTUA</i>	
HAMMURABIREN KODEA.....	9
II. ZUZENBIDE HEBREARRA.....	17
<i>SARRERA</i>	19
1.- Hebrear herriaren garapena	19
2.- Zuzenbidearen iturriak.....	20
Bibliografia eta iturriak.....	23
<i>TESTUAK</i>	
1. HAMAR AGINDUAK.....	25
2. ALDAREARI BURUZKO LEGEAK.....	26
3. ESKLABOEI BURUZKO LEGEAK	26
4. HERIOTZA-ZIGORRA MEREZI DUTEN HOBENAK.....	27
5. ZAURIEN ORDAINEKO ZIGORRA	27
6. JABEEN ERANTZUNKIZUNA	28
7. LAPURRETARI ETA KALTEEN ORDAINARI BURUZKO LEGEAK	29

8. MAILEGUEI BURUZKO LEGEAK	29
9. MORAL- ETA ERLIJO-ALORREKO LEGEAK.....	30
10. AHULEN ALDEKO LEGEAK.....	30
11. ERLIJO-ALORREKO BESTE AGINDUAK.....	31
12. ZUZENTASUNA ETA ERRESPETUA	31
13. ATSEDENARI BURUZ OHARKIZUNAK	32
14. ERROMES-JAIAK	32
15. KANAANEN KONKISTARI BURUZ AGINTZARIAK ETA OHARKIZUNAK.....	33
 III. ZUZENBIDE ERROMATARRA	35
<i>SARRERA</i>	37
1.- Garai arkaikoa: <i>Ius civile</i>	37
2.- Erromatar zuzenbide klasikoa: <i>Ius honorarium, iurisprudentia</i> eta legegintza inperiala.....	37
3.- Erromatar zuzenbide berantiarra edo postklasikoa: <i>ius</i> eta <i>leges</i> , erromatar zuzenbide herritarra, aipamenen legea, eta Teodosioren lege-kodifikazioa.....	41
4.- Justinianoren biltze lana	42
Bibliografia eta iturriak.....	45
 <i>TESTUAK</i>	
1. XII TAULEN LEGEA.	47
2. IURA.....	48
3. PRETOREAREN EDIKTUAK.....	48
4. AIPUEN LEGEA.....	49
5. VELEIOREN SENADOKONTSULTOA	50
6. CONSTITUTIO ANTONINIANA	51
7. 313KO TOLERANTZIA EDIKTUA, EDO MILANGO EDIKTUA...	51
8. A. -TEODOSIO ETA VALENTIANO ENPERADOREEK SENATUARI EMANIKO AGINDUA	53
-DIGESTUAK BERRESTEN DITUEN “TANTA” KONSTITUZIOA.....	54
B ZUZENBIDEA ETA BESTE ARAUBIDE BATZUK	55

Morala eta zuzenbidea	55
Moralaren eta justiziaren definizioak	55
Zuzenbide naturala eta <i>ius gentium</i>	55
Zuzenbide naturala eta positiboa	56
Zuzenbide publikoa eta pribatua.....	56
Zuzenbide berezia eta pribilegioa.....	57
Ohitura	57
<i>Iusaren</i> definizioak	59
C. OHITURAREN ETA LEGEAREN IRAUPENA	60
Zer den luzaroan dirauen ohitura.....	60
D. ARAUEN INTERPRETAZIO METODOA.....	61
E. LEGEAREN DERRIGORREZKOTASUNA	
ETA PRINTZEAREN SALBUESPENA: <i>LEX DE IMPERIO</i>	63
F. ESKUORDETURIKO ESKUMENA: AGINTE SOILA	
EDO MISTOA.....	64
G. ERROMA ETA HERRI GERMANIARRAK:LURREN	
BANAKETA ETA EZKONTZA MISTOEN DEBEKUA	65
 IV. ZUZENBIDE MUSULMANA.....	 67
<i>SARRERA</i>	69
1.- Islamaren jatorria eta bilakaera	69
2.- Zuzenbide musulmanaren iturriak	70
Bibliografia eta iturriak.....	73
<i>TESTUAK</i>	
1. KORANA	75
2. EZKONTZA ONARTZEARI BURUZKO HADITA	76
 V. ZUZENBIDE KANONIKOA	 77
<i>SARRERA</i>	79
1.- Zuzenbide kanonikoaren ezaugarriak	79
2.- Eliz jurisdikzioaren jatorria eta bilakaera.....	80
3.- Zuzenbide kanonikoaren iturri materialak.....	80
4.- Iturri formalak: Erdi Aroko bildumak	81
5.- Elizaren eta estatuaren arteko harremanak	82
Bibliografia eta iturriak.....	85
<i>TESTUAK</i>	
1. ZESARRENA ZESARRI ETA JAINKOARENA JAINKOARI.....	87
2. GREGORIO VII.: <i>DICTATUS PAPAE</i>	88

3. GRAZIANO: <i>CONCORDIA DISCORDANTIUM CANONUM</i>	89
4. GREGORIO IX.AREN DEKRETALAK, OHITURARI BURUZ	90
5. TRENTOKO KONTZILIOA, EZKONTZARI BURUZKO TAMETSI DEKRETUAK	91
6. <i>CODEX IURIS CANONICI</i> , EZKONTZARI ETA DIBORTZIOARI BURUZKOA	92
 VI. ZUZENBIDE KOMUNA	83
<i>SARRERA</i>	95
1. Erdi Aro Goiztiarrean zuzenbide erromatarren iraupena eta desagerpena	95
2. XII. mendetik aurrera zuzenbide erromatarren berreskuratzea ...	96
3. I.- Zuzenbide erromatarra ikasgai. Ikastetxeak eta metodoak....	96
II.- Mendealdeko herrialdeetako antolamendu juridikoetan zuzenbide erromatarren eragina.....	99
Bibliografia eta iturriak.....	101
<i>TESTUAK</i>	
1. - ACURSIO: <i>GLOSA ORDINARIA</i> , <i>CODEX I</i> , 1, 1-EAN AGERTZEN DEN <i>QUOS HITZARI BURUZ</i>	105
- ZINO PISTOLAKOA: <i>IN CODICEM DOCTISSIMA</i> <i>COMMENTARIA</i>	105
2. SASSOFERRATOKO BARTOLO: <i>SUMMA CODICIS</i> , OHITURAREN ESANAHIARI BURUZKOA	107
3. ALFONTSO X.AREN ZAZPI PARTIDAK	107
 IRAULTZA DEMOKRATIKOAK.....	113
VII. INGALATERRA	115
INGALATERRAKO ZUZENBIDEA	117
<i>SARRERA</i>	117
1.- Normandiar konkista.....	117
2.- <i>Common Law</i> : erret eskumenak, <i>writak</i> , aurrekasuak eta zinpekoen epaimahaia	118
a.- Erret jurisdikzioa	119
b.- <i>Writ</i> edo aginduak	119
c.- Aurrekasua.....	120
d.- Zinpekoen epaimahaia.....	120

3.- <i>Magna Carta</i>	121
4.- Parlamentuaren sorrera: legeak eta estatutuak (<i>acts & statutes</i>)	122
5.- Ekitatezko eskumena	123
6.- Ingalaterrako eliza erregearen menera	123
7.- Iraultza, Tudorren absolutismoak eraginda	124
8.- Cromwell, <i>commonwealth</i> eta protektoratua	125
9.- <i>Habeas Corpus</i> legea	125
10.- Iraultza loriatsua eta <i>Bill of Rights</i>	126
11.- Eskoziarekin elkarte eta beto-eskubidearen bukaera	127
12.- Industrializazioa, eta ingeles zuzenbidean aldaketa handiak	127
13.- Viktoriar aroa	128
14.- Literatura juridikoa	129
15.- <i>Common Law</i> munduan zehar	129
16.- Laburbilduz	129
Bibliografia eta iturriak	131
 TESTUAK	
1. <i>MAGNA CARTA</i>	133
2. <i>HABEAS CORPUS</i> LEGEA	147
3. <i>BILL OF RIGHTS</i>	151
4. <i>ACT OF SETTLEMENT</i> , EDO FINKAPEN LEGEA	159
5. HERRIAREN ORDEZKARITZARAKO LEGEA	165
6. WESTMINSTERREKO ESTATUTUA	167
 VIII. AMERIKAKO ESTATU BATUAK	
ESTATU BATUETAKO ZUZENBIDEA	173
SARRERA	173
1.- Kolonietako gizartearen originaltasuna	173
2.- Nabigazio eta zerga legeek sorturiko arazoak	174
3.- Independentzia lortzeko borroka	175
4.- Independentzia deklarazioa eta kolonien garaipena	176
5.- Hamahiru estatu burujabeen konstituzioak	177
6.- Konfederazioaren Artikuluak eta berorien porrota	178
7.- 1787ko Philadelphiako Biltzar Konstituziogilea	179
8.- Berrestearen arazoa	179
9.- Estatu Batuetako konstituzioa	180
a) Nazio mailako eta estatuen mailako ordezkaritza	180

b) Nazio mailako eta estatuen mailako ahalmenak.....	181
c) Botere betearazle indartsua baina mugatua	181
d) Gizabanakoen eskubideak	182
e) Esklabotzaren arazoaren geroratzea.....	182
10.- Estatu Batuetako konstituzioaren printzipioak	183
a) Herri subiranotasuna	183
b) Botereen bereizketa eta oreka (<i>checks & balances</i>).....	183
c) Epailleen lege-berrikuspena (<i>judicial review</i>)	184
d) Federalismoa	185
11.- Estatu Batuetako konstituzioari lehen hamar zuzenketak (<i>Bill of Rights</i>).....	186
12.- Gainerako zuzenketak.....	188
13.- Konstituzioaren iraupena	189
Bibliografia eta iturriak	191
TESTUAK	
1. VIRGINIAKO ESKUBIDEEN ADIERAZPENA.....	193
2. AMERIKAKO ESTATU BATUEN INDEPENDENTZIA DEKLARAZIOA	195
3. AMERIKAKO ESTATU BATUEN KONSTITUZIOA	201
4. MARBURY VS. MADISON, ESTATU BATUETAKO AUZITEGI GORENAREN EPAIA	225
IX. FRANTZIA	237
FRANTZIAKO ZUZENBIDEA	239
SARRERA	239
1.- Iraultza prozesua	239
2.- Zuzenbide publiko iraultzailearen kontzeptu berriak	241
3.- Gizakiaren eta hiritarren eskubideen adierazpena.....	242
4.- Konstituzio esanguratsuenak	244
a) 1791ko konstituzioa, konstituzio iraultzaileen eredu	244
b) Izaera parlamentarioko konstituzioak.....	245
5.- Zuzenbide pribatua: aurrekariak eta kodifikazioa.....	247
a) Ohiturazko zuzenbidea: idazketak eta iruzkinak	247
b) Legeria: erret ordenantzak	248
c) Napoleondar kodifikazioa: Kode zibila eta gainerako testuak	250
Bibliografia eta iturriak.....	250
TESTUAK	
1. GIZAKIAREN ETA HIRITARREN ESKUBIDEEN ADIERAZPENA	255

2. 1791KO FRANTZIAKO KONSTITUZIOA.....	259
3. 1814KO EKAINENKO KONSTITUZIO GUTUNA.....	289
4. A 1946KO URRIAREN 27KO KONSTITUZIOAREN HITZAURREA.....	299
B 1958KO KONSTITUZIOA	301
C INGURUMENAREN GUTUNA	335
5. NAPOLEON KODEA	337
 X. SUITZA	339
ZUZENBIDE SUITZARRA	341
<i>SARRERA</i>	341
1.- Suitza Erdi Aro Goiztiarrera arte	341
2.- Konfederazioaren sorrera.....	342
3.- Aliantzaren lurralde hedapena	342
4.- Konfederazioa Garai Modernoan	343
5.- Frantses iraultzaren eragina eta konfederazioaren berrikuntza	344
6.- Konfederalismotik federalismora: 1848ko konstituzioa.....	345
7.- Ondorengo garapena.....	346
8.- Erakunde antolamendua.....	347
9.- Erreferenduma zuzeneko demokraziaren adierazle.....	348
10.- Suitzar zuzenbide pribatuaren kodetzea	348
Bibliografia eta iturriak.....	351
 <i>TESTUA</i>	
1999KO APIRILAREN 18KO SUITZAR KONFEDERAZIOAREN KONSTITUZIO FEDERALA.....	353

